# Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta haren mendeko sozietateak

Auditoretza-txostena
Urteko kontu bateratuak eta Kudeaketa-txosten bateratua 2021eko abenduaren 31n

***Txosten honen bertsio hau jatorrizkoaren itzulpen librea da, gaztelaniaz egina. Ahalik eta arreta handiena jarri da itzulpena jatorrizkoaren irudikapen zehatza izan dadin. Hala ere, informazioaren interpretazioari, ikuspuntuei edo iritziei dagokionez, txostenaren jatorrizko hizkuntzako bertsioa lehentasuna izango du.***

# Urteko kontu bateratuei buruzko auditoretza-txostena, auditore independente batek egina

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko bazkideentzat:

**Urteko kontu bateratuei buruzko txostena**

## Iritzia

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren (Entitate nagusia) eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu bateratuak auditatu ditugu, honako hauek barne: 2021eko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, onartutako sarreren eta gastuen egoera-orria, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta txostena, guztiak ere bateratuak eta egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu bateratuek, alderdi adierazgarri guztietan, zehaztasunez adierazten dituzte Taldearen 2021eko abenduaren 31ko ondarea eta finantza-egoera, baita egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzak eta eskudiru-fluxuak ere, guztiak ere bateratuak eta egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak, Europar Batasunak emandako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA-EB) eta Espainian aplikatzekoak diren finantza-informazioko arau-esparruko gainerako xedapenak betez.

## Iritziaren oinarria

Gure auditoretza Espainian kontu-auditoretzako jarduera arautzeko indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dugu. Arau horiei jarraikiz dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu gure txostenean, *Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoretzari dagokionez* atalean.

Taldetik independenteak gara, eta, beraz, Espainian urteko kontu bateratuen gaineko gure auditoretzari aplikatzekoak diren etika-eskakizunak betetzen ditugu, independentzia-betekizunak barne, kontu-auditoretzen jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Ildo horretan, kontu-auditoretzako zerbitzuaz bestelako zerbitzurik ez dugu eskaini, eta, araudi erregulatzaile horretan ezarritakoa betez, beharrezko independentzia hori kolokan jar zezakeen egoerarik edo gorabeherarik ere ez da gertatu.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure iritzia bermatzeko.

## Auditoretzaren funtsezko gaiak

Auditoretzaren funtsezko gaiak dira, gure judizio profesionalaren arabera, aldi honetako urteko kontu bateratuei buruz egin dugun auditoretzan adierazgarrienak izan direnak. Urteko kontu bateratu guztien gaineko gure auditoretzaren testuinguruan eta gure iritzia osatzerakoan aztertu dira gai horiek guztiak, eta, beraz, gai horiei buruz uste duguna ez dugu aparteko atal batean bereizi.

*PricewaterhouseCoopers Auditores SL, Kolon paselekua, 2, 20002 Donostia, Espainia*
*Tel.: +34 943 283 977 / +34 902 021 111, Faxa: +34 943 288 177, www.pwc.com/es*

Madrilgo merkataritza- erregistroa, 87.250-1 orria, 75 folioa, 8.054 liburua, 3. sekzioa
ROACen inskribatua, S0242 zenbakiarekin. IFZ: B-79 031290

## Auditoretzaren funtsezko gaiak

### Kreditu-zorroko finantza-aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak

Kreditu-zorroa narriatzearen ondoriozko balio-zuzenketak zehaztea zereginik konplexu eta garrantzitsuenetako bat izan da, honekin batera doazen urteko kontu bateratuak prestatzean. Hori dela eta, auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu da.

Kreditu-arriskuagatiko narriaduraren ebaluazioak judizio-osagai handia du narriaduraren ondoriozko galerak zehazteko, honako elementu hauek aintzat hartuz:

- Kreditu-zorroak kreditu-arriskuko profilaren arabera sailkatzea.
- Zaintza bereziko edo narriatutako aktiboak identifikatu eta sailkatzea.
- Horniduretan eragina duten hipotesiak erabiltzea, eta kreditudunei emandako finantzaketaren zenbateko berreskuragarrien estimazioak egitea, narriadura banan-banan zenbatetsita, eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera.
- Emandako kreditu-eragiketei lotutako benetako bermeen balio bihurgarria.

Testuinguru horretan, Taldeak darabiltzan ereduek aukera ematen diote kreditu-arriskuaren ondoriozko hornidura kolektiboak eta arriskuetarako estimatutako hornidurak banan-banan kalkulatzeko, betiere, banku-sektorean duen esperientzian eta eskura duen informazioan oinarrituta eta etorkizuneko egoerari buruz egindako aurreikuspenak kontuan hartuta.

Ikus honekin batera doazen urteko kontu bateratuen memoriako 13., 15. eta 25. oharrak.

## Auditoretzan nola aztertu diren

Kreditu-zorroaren narriadura estimatzeko, barne-kontroleko esparru orokorra aztertu, ebaluatu eta egiaztatu dugu, batik bat, eta xehetasun-probak egin ditugu hornidurετan (kolektibo zein banakakoetan).

Barne-kontroleko sistemari dagokionez, honako prozedura hauek gauzatu ditugu, besteak beste:

- Aplikatutako kalkulu-metodologiak ulertzea.
- Taldeko gobernu-organoek onartutako politika eta prozedurak arau-eskakizun aplikagarrietara egokitzen diren ebaluatzea.
- Hornidura-kalkuluaren euskarri diren informazio-sistemen segurtasun-inguruneari dagozkion alderdi nagusiak egiaztatzea.
- Zaintza berezikotzat edo narriatutzat jo litezkeen arriskuen identifikaziorako Taldeak egindako jarraipen-alerten eta -arriskuen aldian behingo ebaluazioa egiaztatzea.
- Kontabilitate-sailkapenaren jarraipenerako eta narriaduraren erregistrorako kreditudunen espedienteak aldian behin berrikusteko prozesua, aplikatzen den kasuetan, ongi gauzatzen dela ebaluatzea.

Horrez gain, honako xehetasun-proba hauek egin ditugu:

- Hornidurak kalkulatzeko datu-baseen egiaztapen selektiboak, ezaugarri nagusiak euskarri gisa erabilitako dokumentazioarekin alderatuz.

| Auditoretzaren funtsezko gaiak | Auditoretzan nola aztertu diren |
|---|---|
| | • Kreditu-arriskuagatiko hornidura kolektiboen kalkulua berregikaritzea.<br><br>• Egindako estimazioak egokiak ote diren ebaluatzea, hornidurak azterketa indibidualizatuaren arabera kalkulatzeko.<br><br>• Hainbat espediente hautatu eta aztertzea, ongi sailkatuta eta erregistratuta ote dauden ebaluatzeko, eta, hala badagokio, kasuan kasuko narriadura zehazteko.<br><br>Aurreko prozeduren emaitza gisa, auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu Taldeak eragiketak sailkatzeko eta horien narriadura kalkulatzeko erabilitako irizpideak eta metodologiak arrazoizkoak direla ondorioztatzeko. Gure prozeduren emaitzen eta Taldearen kalkuluen arteko desberdintasunak arrazoizko maila batean daude, honekin batera doazen urteko kontu bateratuetan adierazitako zenbatekoari dagokionez. |
| **Auziengatiko eta beste kontingentzia batzuengatiko hornidurak**<br><br>Taldeak hornidurak eratuta ditu bere ohiko jardueraren ondorioz sor litezkeen prozedura administratibo, judizial edo beste edozein motatakoak estaltzeko.<br><br>Prozedura horiek konplexuak direnez eta denbora luzean garatzen direnez, gai horiek oso zailak dira, eta bilakaera eta/edo behin betiko zenbatekoa zein izango den ziur jakiterik ez dago. Hori dela eta, Entitate nagusiaren administratzaile eta zuzendariek hornidura bat erregistratu dute kontzeptu horiengatik, Taldearen aurka jarritako auzi eta erreklamazioen tipologiei buruz eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta. | Irekitako auzi eta prozesuak identifikatu eta ebaluatzeko Taldeak ezarritako prozesua eta hornidurak erregistratzeko prozesua nola ulertzen dugun aztertu eta dokumentatu dugu, gure prozedurak honako hauetan zentratuz:<br><br>• Erreklamazio eta auziak kalifikatzeko politika ulertzea eta hornidura esleitzea, hala badagokio.<br><br>• Indarrean dauden demanda, erreklamazio eta auzien tipologia nagusiak aztertzea, baita horiei lotutako kontabilitate-hornidurak ere.<br><br>• Taldeak erabilitako metodologia eta hipotesia ebaluatzea, aplikatzekoa den |

| Auditoretzaren funtsezko gaiak | Auditoretzan nola aztertu diren |
|---|---|
| Horren ondorioz, auziengatiko horniduren kalkulua da estimazio-osagairik handiena dutenetariko bat, erantsitako urteko kontu bateratuetan izan dezakeen inpaktuari dagokionez. Hori dela eta, auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu da.<br><br>Ikusi honekin batera doazen urteko kontu bateratuen memoriako 37. oharra. | kontabilitate-esparruarekin bat datozela egiaztatzeko.<br><br>• Hautatutako hainbat eskari eta erreklamazio aztertzea, hornidurak kalkulatzeko kasuak tipologiaren arabera ongi elkartu direla egiaztatuz.<br><br>• Mantendu beharreko hornidurak erabakitzeko datu historikoak erabili direla egiaztatzea.<br><br>• Taldearekin diharduten abokatu eta aholkularien berrespen-gutunak lortzea, erreklamazio edo auzietatik espero zuten emaitzaren ebaluazioa kontrastatzeko, informazio osoa jasotzeko, hornidurak behar bezala erregistratu direla egiaztatzeko eta bete gabe gera zitezkeen pasiboak identifikatzeko<br><br>• Ikuskatzeko irekitako aldi guztietarako zerga-betebeharrak betetzearen harira gerta litezkeenak ebaluatzea.<br><br>Auziengatiko eta beste kontingentzia batzuengatiko hornidurei buruz azaldutako prozedurak gauzatzearen ondorioz, ez da arrazoiz kanpoko desberdintasunik agertu erantsitako urteko kontu bateratuetan arrisku horiek estaltzeko erregistratutako zenbatekoekin alderatuta. |
| Aseguru-kontratuen pasiboengatiko balioespenak<br><br>Taldeak bizitza-aseguruen jardueran dihardu eta arriskuko bizitza-aseguruak, aurrezteko bizitza-aseguruak eta unit linked alorreko aseguruak merkaturatzen ditu. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. | Bizitza-aseguruen eta bizitzakoak ez direnen kontratuengatiko pasiboak kalkulatu eta erregistratzeko prozesua ulertzeko saioa egin dugu, alor horri lotutako barne-kontrolaren —informazio-sistema nagusien kontrolak sartuta— diseinua eta eraginkortasuna ebaluatzea barne.<br><br>Gure prozedurak honako hauetan oinarritu dira, besteak beste: |

| Auditoretzaren funtsezko gaiak | Auditoretzan nola aztertu diren |
|---|---|
| Taldeak kontratu horiei lotutako pasiboak erregistratu ditu aplikatzekoa den erregulazio-araudiari jarraikiz, non, zenbaitetan, nolabaiteko judizio-osagaiak eta Taldeko zuzendaritzaren estimazioak biltzen dituen jaulkitako primen sortu gabeko zenbatekoak, hornidura matematikoa eta prestazioetarako hornidurak islatzeko. Era berean, Taldeak hornidura matematikoa kalkulatzen du teknika aktuarial konplexuak erabiliz, kalkulu-hipotesi kritikoak oinarritzat hartuta, hala nola interes-tasa teknikoa, gastuen hipotesiak edo heriotza-tasen taulak, aplikatzekoa den araudiaren araberakoak.<br><br>Prestazioetarako horniduren kalkulua, eta, zehazkiago, aitortzeke dauden ezbeharren hornidura, estimazio konplexua da, eta zuzendaritzak erabilitako proiekzio-metodoek eta onarpenek eragin handia dute estimazio horretan, esate baterako, ezbehar pertsonalen balioespenaren inpaktuak, aplikatzekoa den araudiaren araberakoak.<br><br>Aipatutako arrazoiak direla eta, auditoretzaren funtsezko gaitzat hartu da arlo hori.<br><br>Ikus honekin batera doazen urteko kontu bateratuen memoriako 13. eta 36. oharrak. | • Bizitza-aseguruen eta bizitzakoak ez direnen hornidurak kalkulatzeko metodologia ulertzea, produktuen izaeraren arabera, eta irmotasunez aplikatzea aurreko ekitaldiaren aldean.<br><br>• Bizitza-aseguruen eta bizitzakoak ez direnen kontratuengatiko horniduren kontabilitate-erregistro egokia eta haiek aldian dituzten aldaketak egiaztatzea.<br><br>• Kontsumitu gabeko primen hornidurari dagokion kalkulua eta egotzitako denbora berrikustea.<br><br>• Aldia ixtean eratutako erreserbei eta aldian egindako ordainketei buruzko informazioaren fidagarritasuna egiaztatzeko proba zehatzak gauzatzea.<br><br>Hornidura matematikoari dagokionez, prozedura osagarriak garatu ditugu aktuario espezialisten parte-hartzearekin, honako hauen harira:<br><br>• Kalkulu tekniko-aktuarialen oinarrizko datuak osorik daudela eta bat datozela egiaztatzea.<br><br>• Araudi aplikagarriari egokitutako hipotesi biometrikoen aplikazioa egiaztatzea.<br><br>• Iraganeko esperientzian eta aseguru-sektorearen jardunbideetan oinarrituta zuzendaritzak erabilitako hipotesi adierazgarriak ebaluatzea.<br><br>• Polizak hautatzeko hornidura matematikoa birkalkulatzea.<br><br>Bestetik, prestazioetarako hornidurari dagokionez, gure espezialista aktuarialek honako alderdi hauetan hartu dute parte, besteak beste: |

| Auditoretzaren funtsezko gaiak | Auditoretzan nola aztertu diren |
|---|---|
| | • Kalkulu tekniko-aktuarialen oinarrizko datuak osorik daudela eta bat datozela egiaztatzeko zereginetan.<br><br>• Adarren hautaketarako estatistika-proiekzio independenteetan oinarritutako azterketan, garrantzi handiena eta estimazio-osagarri handiena dutenei arreta berezia eskainiz.<br><br>Gure prozeduren emaitzen eta zuzendaritzaren kalkuluen arteko alde guztiak arrazoizko maila batean daude, erantsitako urteko kontu bateratuetan jasotako aseguru-kontratuengatiko pasiboen zenbatekoari dagokionez. |

## Bestelako informazioa: kudeaketa-txosten bateratua

Gainerako informazioa 2021eko ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratuari dagokio soil-soilik, eta haren formulazioa Entitate nagusiaren administratzaileen erantzukizuna da, urteko kontu bateratuen parte ez delarik.

Urteko kontu bateratuei buruz eman dugun auditoretza-iritziak ez du eraginik kudeaketa-txosten bateratuan. Kudeaketa-txosten bateratuan jasotako informazioari dagokionez dugun erantzukizuna, kontu-auditoretzaren jarduera erregulatzen duen araudiaren arabera, honetan datza:

a) Informazio ez-finantzarioaren egoera-orri bateratua eta Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean bildutako informazio jakin bat —Kontu Auditoretzari buruzko Legeak jasotzen ditu biak— indarrean dagoen araudian aurreikusitako moduan eman diren egiaztatu behar dugu, eta, hala ez bada, ezagutzera eman.

b) Kudeaketa-txosten bateratuan bildutako gainerako informazioa urteko kontu bateratuekin bat ote datorren ebaluatu eta ezagutzera eman behar dugu, urteko kontu bateratu horien auditoretza egitean Taldeak dakienetik abiatuta, eta kudeaketa-txosten bateratuaren zati horren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat ote datozen ebaluatu eta ebaluazioaren emaitza ezagutzera eman behar dugu. Egin dugun lanean oinarrituta ondorioztatzen badugu akats materialak egin direla, horren berri eman beharko dugu nahitaez.

Aurrez deskribatutakoaren arabera egindako lanean oinarriturik, egiaztatu dugu aurreko a) atalean aipatutako informazioa araudi aplikagarrian aurreikusitako moduan eman dela, kudeaketa-txosten bateratuan dagoen gainerako informazioa bat datorrela 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan dagoenarekin eta haren edukiak eta aurkezpenak bete egiten dituztela indarreko arauak.

## Administratzaileen eta Ikuskaritza Batzordearen erantzukizuna urteko kontu bateratuei dagokienez

Entitate nagusiko administratzaileek erantsitako urteko kontu bateratuak azaltzeko ardura dute, Taldearen ondarea, finantza-egoera eta emaitza bateratuak zehaztasunez adieraziz, Taldeari Espainian aplikatu beharreko finantza-informazioko arauzko esparruarekin bat etorriz. Gainera, urteko kontu bateratuak iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolaz arduratuko dira.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Entitate nagusiaren administratzaileek beren gain hartu behar dute Taldeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen ahalmena balioestea, kasuan-kasuan jarduneko enpresarekin zerikusia duten gaien berri emanez eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, betiere administratzaileek Taldea likidatzeko eta jarduna bertan behera uzteko asmorik ez badute edota beste alternatiba errealistarik ez badago.

Entitate nagusiaren Ikuskaritza Batzordea arduratuko da urteko kontu bateratuak egin eta aurkezteko prozesuaz gainbegiratzeaz.

## Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoretzari dagokionez

Gure helburua da arrazoizko segurtasun batekin esan ahal izatea urteko kontu bateratuek, oro har, iruzur edo erroreen ondoriozko akats materialik ez dutela, eta gure iritzia biltzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia ziurtatzen du, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduerari buruzko araudia betez egindako auditoretzek akats material guzti-guztiak beti detektatuko dituztenik. Iruzur edo erroreen eraginez gerta daitezke akatsak, eta materialtzat jotzen dira, baldin eta, banaka edo multzoka, arrazoizkoa bada aurreikustea urteko kontu bateratuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Espainian auditoretza-jarduera erregulatzeko indarrean dagoen araudia bete behar duen auditoretza den heinean, gure judizio profesionala eman dugu, eta gure jarrera eszeptizismo profesionalean oinarritu da auditoretza osoan. Horrez gain:

- Iruzur edo erroreen eraginez urteko kontu bateratuetan akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta balioetsi ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak aplikatu ditugu eta gure iritzia oinarritzeko moduko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu. Iruzurraren ondorioz akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondorioz gertatutako akats materialen kasuan baino, iruzurrak kolisioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar ditzakeelako berekin.

- Auditoretzarentzat garrantzitsua den barne-kontrolaren berri izan dugu zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin, eta ez Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko asmoarekin

- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-estimazioak arrazoizkoak ote diren ebaluatu dugu, baita Entitate nagusiaren administratzaileek emandako informazioa ere.

- Entitate nagusiko administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia den edo ez ondorioztatu dugu, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, zalantza materialik bazegoen edo ez ondorioztatu dugu, Taldeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasunaren inguruan zalantza esanguratsuak sorraraz ditzaketen gertaera edo baldintzei loturik. Eskatu digutenez, zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean ohartarazi behar dugu urteko kontu bateratuetan jasotako informazioaz, edo, informazio hori ezagutaraztea egokia ez bada, iritzi aldatu bat eman behar dugu. Gure auditoretza-txostenean egun horretara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritu dira gure ondorioak. Alabaina, litekeena da etorkizuneko gertaera edo baldintzen ondorioz Taldeak jarduneko enpresa izateari uztea.

- Urteko kontu bateratuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatu ditugu, jakitera emandako informazioa barne, eta urteko kontuek azpiko transakzio eta gertaerak zehatz-mehatz islatzen dituzten egiaztatu dugu.

- Taldearen barruko enpresa-jarduera edo entitateen finantza-informazioari buruzko ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu, urteko kontu bateratuen gaineko iritzia emateko. Taldearen auditoretza zuzendu, gainbegiratu eta egiteko ardura dugu. Gure auditoretza-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Entitate nagusiaren Ikuskaritza Batzordearekin harremanetan jarri gara honako hauen berri emateko, besteak beste: auditoretzaren norainokoa eta ekiteko unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta egiten ari ginela barne-kontrolaren eremuan atzemandako edozein hutsune esanguratsu.

Halaber, Entitate nagusiaren Ikuskaritza Batzordeari helarazi diogu aplikatzekoak diren etika-eskakizunak bete izanaren aitorpena, independentzia-eskakizunak barne, eta harekin harremanetan jarri gara, orobat, gure independentziarentzat mehatxagarri izan zitezkeen gaien eta, hala bazegokion, kasuan kasuko babesen berri emateko.

Entitate nagusiaren Ikuskaritza Batzordeari jakinarazi dizkiogun gaien artean, aldi honetako urteko kontu bateratuen auditoretzan guretzat adierazgarrienak zein diren erabaki dugu, eta, ondorioz, horiexek izan dira auditoretzaren funtsezkoak gaiak.

Gure auditoretza-txostenean gai horiek guztiak deskribatu ditugu, non eta lege- edo arau-xedapenek gaia jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen ez duten.

**Beste lege- eta arau-errekerimendu batzuei buruzko txostena**

## Entitate nagusiaren Ikuskaritza Batzordearentzako txosten gehigarria

Txosten honetan emandako iritzia bat dator 2022ko martxoaren 4an Entitate nagusiaren Ikuskaritza Batzordearentzat egin dugun txosten gehigarrian adierazitakoarekin.

## Kontratazioaren aldia

Entitate nagusiak, 2021eko apirilaren 23an egindako Ohiko Batzar Nagusian, auditore izendatu gintuen urtebeterako, hain zuzen ere 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldirako.

Aldez aurretik, Batzar Nagusiak hiru urterako izendatu gintuen, eta kontu-auditoretzako lanetan aritu gara, etengabe, 2001eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik.

## Emandako zerbitzuak

Kontu-auditoretzaz gain Taldeari eman dizkiogun zerbitzuak erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 11. oharrean jaso dira, zehatz-mehatz.

**PricewaterhouseCoopers Auditores SL (S0242)**

Guillermo Cavia González (20552)

2022ko martxoaren 4a

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## BALANTZE BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31KOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

| AKTIBOA | Oharra | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|---|
| **Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk (**)** | 22 | **2.999.268** | **2.749.066** |
| **Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak** | 23 | **16.851** | **24.055** |
| Deribatuak | | 1.868 | 1.975 |
| Ondare-tresnak | | 1.727 | 485 |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 13.256 | 21.595 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | *7.542* | *2.557* |
| **Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak** | 26 | **50.148** | **49.966** |
| Ondare-tresnak | | 47.951 | 47.701 |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 2.197 | 2.265 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | - | - |
| **Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan** | 24 | **702.554** | **791.888** |
| Ondare-tresnak | | 127.582 | 84.186 |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 574.972 | 707.702 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | - | *63.656* |
| **Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan** | 25 | **23.805.641** | **23.215.662** |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 7.863.783 | 8.232.315 |
| Maileguak eta aurrerakinak | | 15.941.858 | 14.983.347 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | *1.392.258* | *1.473.049* |
| **Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea** | 27 | **19.504** | **85.324** |
| **Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak** | 28 | **337** | **315** |
| Elkartuak | | 337 | 315 |
| **Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak** | 29 | **27.808** | **28.668** |
| **Aktibo ukigarriak** | 30 | **334.438** | **342.700** |
| Ibilgetu materiala | | 282.709 | 289.721 |
| Erabilera propiokoa | | 269.313 | 273.670 |
| errentamendu operatiboan utzitakoa | | 13.396 | 16.051 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | | 51.729 | 52.979 |
| *Horietatik: errentamendu operatiboan utzitakoa* | | *40.160* | *41.141* |
| *Pro-memoria: finantza-errentamenduan eskuratutakoa* | | - | - |
| **Aktibo ukiezinak** | 31 | **33.425** | **33.425** |
| Merkataritzako funtsa | | 33.425 | 33.425 |
| Bestelako aktibo ukiezinak | | - | - |
| **Zergen ondoriozko aktiboak** | 32 | **382.210** | **293.838** |
| Zerga korronteen ondoriozko aktiboak | | 432 | 559 |
| Geroratutako zergen ondoriozko aktiboak | | 381.778 | 293.279 |
| **Beste aktibo batzuk** | 33 | **84.498** | **133.771** |
| Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak | | - | - |
| Izakinak | | 43.661 | 94.940 |
| Bestelako gainerako aktiboak | | 40.837 | 38.831 |
| **Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak** | 34 | **106.471** | **155.468** |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | | **28.563.153** | **27.904.146** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).
(**) Ikusi xehetasuna eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuan.

1etik 71ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2021eko abenduaren 31ko balantze bateratua osatzen dute.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## BALANTZE BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31KOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

| PASIBOA | Oharra | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|---|
| **Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak** | **23** | **731** | **994** |
| Deribatuak | | 731 | 994 |
| **Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan** | **35** | **25.615.172** | **24.984.413** |
| Gordailuak | | 25.335.689 | 24.659.954 |
| Banku zentralak | | 1.833.098 | 1.671.065 |
| Kreditu-erakundeak | | 3.001 | 4.575 |
| Bezeroak | | 23.499.590 | 22.984.314 |
| Zorra adierazten duten balore jaulkiak | | 46.413 | 59.779 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | | 233.070 | 264.680 |
| *Pro-memoria: mendeko pasiboak* | | - | - |
| **Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea** | **27** | **608.933** | **340.810** |
| **Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak** | **36** | **558.072** | **579.239** |
| **Hornidurak** | **37** | **155.573** | **167.481** |
| Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak | | 29.230 | 29.149 |
| Langileen epe luzeko beste ordainsari batzuk | | - | - |
| Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaiak eta auziak | | - | - |
| Emandako konpromisoak eta bermeak | | 25.872 | 23.433 |
| Gainerako hornidurak | | 100.471 | 114.899 |
| **Zergen ondoriozko pasiboak** | **32** | **59.603** | **65.424** |
| Zerga korronteen ondoriozko pasiboak | | 9.283 | 9.128 |
| Geroratutako zergen ondoriozko pasiboak | | 50.320 | 56.296 |
| **Beste pasibo batzuk** | **33** | **79.301** | **78.812** |
| *Horietatik: Gizarte Ekintzako Funtsa* | | *10.785* | *11.060* |
| **Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako pasiboak** | | **-** | **-** |
| **PASIBOA GUZTIRA** | | **27.077.385** | **26.217.173** |

| ONDARE GARBIA | Oharra | 2021 | 2020 |
|---|---|---|---|
| **Funts propioak** | **38** | **1.915.684** | **1.834.906** |
| Kapitala | | 786.383 | 777.913 |
| Ordaindutako kapitala | | 786.383 | 777.913 |
| *Pro-memoria: galdatu gabeko kapitala* | | - | - |
| Metatutako irabaziak | | - | - |
| Errebalorizazio-erreserbak | | - | - |
| Bestelako erreserbak | | 1.030.165 | 979.389 |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak | | (16) | (9) |
| Beste batzuk | | 1.030.181 | 979.398 |
| (–) Norberaren akzioak | | (2.297) | (2.081) |
| Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza | | 101.433 | 79.685 |
| (–) Konturako dibidenduak | | - | - |
| **Beste emaitza global metatu bat** | **39** | **(429.916)** | **(147.933)** |
| Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak | | 29.586 | 17.567 |
| Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak | | (459.502) | (165.500) |
| **Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)** | | **-** | **-** |
| Beste emaitza global metatu bat | | - | - |
| Beste elementu batzuk | | - | - |
| **ONDARE GARBIA GUZTIRA** | | **1.485.768** | **1.686.973** |
| **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA** | | **28.563.153** | **27.904.146** |
| **Pro-memoria: balantzetik kanpoko esposizioak** | | | |
| **Emandako finantza-bermeak** | **42** | **214.749** | **214.641** |
| **Emandako maileguen konpromisoak** | **43** | **1.058.970** | **1.036.064** |
| **Emandako bestelako konpromisoak** | **43** | **320.681** | **310.370** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 71ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2021eko abenduaren 31ko balantze bateratua osatzen dute.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
## (Mila eurokotan adierazita)

| | Oharra | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|---|
| **Interesen ondoriozko sarrerak** | **44** | **261.954** | **278.573** |
| **(Interesen ondoriozko gastuak)** | **45** | **22.247** | **23.968** |
| **INTERESEN MARJINA** | | **239.707** | **254.605** |
| **Dibidenduen ondoriozko sarrerak** | **46** | **7.447** | **4.382** |
| **Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeen emaitzak** | **47** | **20** | **(9)** |
| **Komisioen ondoriozko sarrerak** | **48** | **135.723** | **116.067** |
| **(Komisioen ondoriozko gastuak)** | **49** | **14.767** | **12.194** |
| **Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | **50** | **4.127** | **38.211** |
| **Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | **51** | **494** | **(1.005)** |
| **Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | **50** | **3.414** | **(89)** |
| **Arrazoizko balioarekin izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | **52** | **-** | **-** |
| **Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | **53** | **(35)** | **(26.726)** |
| **Kanbio-alde [irabazi edo (–) galera] garbiak** | **54** | **849** | **228** |
| **Beste ustiapen-sarrera batzuk** | **55** | **14.107** | **15.937** |
| **(Beste ustiapen-gastu batzuk)** | **56** | **54.615** | **52.971** |
| *Horietatik: gizarte-lanetarako funtsetarako nahitaezko zuzkidurak* | | *7.348* | *7.751* |
| **Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboen sarrerak** | **57** | **188.963** | **187.683** |
| **(Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboen gastuak)** | **58** | **122.268** | **121.506** |
| **MARJINA GORDINA** | | **403.166** | **402.613** |
| **(Administrazio-gastuak)** | **59** | **223.734** | **210.045** |
| (Pertsonal-gastuak) | | 133.831 | 129.708 |
| (Beste administrazio-gastu batzuk) | | 89.903 | 80.337 |
| **(Amortizazioa)** | **60** | **22.421** | **22.626** |
| **(Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak)** | **61** | **16.211** | **21.262** |
| **(Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo (–) irabaziak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea)** | **62** | **39.465** | **59.461** |
| (Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan) | | 314 | 631 |
| (Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan) | | 39.151 | 58.830 |
| **(Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)** | **63** | **-** | **-** |
| **(Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea)** | **64** | **10.460** | **634** |
| (Aktibo ukigarriak) | | 3.527 | 634 |
| (Beste batzuk) | | 6.933 | - |
| **Aktibo ez finantzarioei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | **65** | **40.660** | **(455)** |
| **Saltzeko eutsitakoen artean sailkatuta dauden eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-talde besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak** | **66** | **(10.216)** | **7.226** |
| **JARDUERA ETENGABEEN ONDORIOZKO ZERGA AURREKO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK** | | **121.319** | **95.356** |
| **(Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak)** | **40** | **19.886** | **15.671** |
| **JARDUERA ETENGABEEN ONDORIOZKO ZERGA ONDORENGO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK** | | **101.433** | **79.685** |
| **Jarduera etenen ondoriozko zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak** | | **-** | **-** |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | | **101.433** | **79.685** |
| **Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa** | | | **-** |
| **Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa** | **38** | **101.433** | **79.685** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 71ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua osatzen dute.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## AINTZATETSITAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

| | Oharra | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|---|
| **EKITALDIKO EMAITZA** | | **101.433** | **79.685** |
| **BESTE EMAITZA GLOBAL BAT** | | **(281.983)** | **(77.138)** |
| **Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak** | | **12.019** | **1.076** |
| Arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta beste emaitza global batean aldaketak dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak | **39** | 16.660 | 1.456 |
| Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena | | (4.641) | (380) |
| **Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak** | | **(294.002)** | **(78.214)** |
| **Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati efektiboarena)** | | **-** | **-** |
| **Dibisa-bihurketa** | | **-** | **-** |
| **Eskudiru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena)** | **39** | **(394.427)** | **(73.069)** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | | (394.427) | (99.391) |
| Emaitzetara transferitua | | - | 26.322 |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Estaldura-tresnak (izendatu gabeko elementuak)** | | **-** | **-** |
| **Beste emaitza global batean aldaketak dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan** | | **(13.290)** | **(36.345)** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | | (9.482) | 1.235 |
| Emaitzetara transferitua | | (3.808) | (37.580) |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak** | | **-** | **-** |
| **Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako aintzatetsitako beste sarrera eta gastu batzuetan parte hartzea** | | **-** | **-** |
| **Irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena** | **40** | **113.715** | **31.200** |
| **EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA** | | **(180.550)** | **2.547** |
| Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa | | - | - |
| Entitate Nagusiko jabeei egozteko modukoa | | (180.550) | 2.547 |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 71ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko sarrera eta gastu aintzatetsien egoera-orri bateratua osatzen dute.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

### 2021eko abenduaren 31n

| Ondare garbiaren aldaketen iturriak | Kapitala | Bestelako erreserbak | (–) Norberaren akzioak | Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza | (–) Konturako dibidenduak | Beste emaitza global metatu bat | Interes minoritarioak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2021eko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **777.913** | **979.389** | **(2.081)** | **79.685** | **-** | **(147.933)** | **-** | **1.686.973** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2021eko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)** | **777.913** | **979.389** | **(2.081)** | **79.685** | **-** | **(147.933)** | **-** | **1.686.973** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | - | - | - | **101.433** | - | **(281.983)** | - | (180.550) |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | **8.470** | **50.776** | **(216)** | **(79.685)** | **-** | **-** | **-** | **(20.655)** |
| Akzio arruntak jaulkitzea | 21.900 | 60 | - | - | - | | | 21.960 |
| Lehentasunezko akzioak jaulkitzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste ondare-tresna batzuk jaulkitzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Jaulkitako beste ondare-tresna batzuk erabiltzea edo mugaeguneratzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zorra ondare garbi bihurtzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kapitala murriztea | (13.430) | (1) | - | - | - | - | - | (13.431) |
| Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak) | - | - | - | - | (9.784) | - | - | (9.784) |
| Norberaren akzioak erostea | - | - | (216) | - | - | - | - | (216) |
| Norberaren akzioak saltzea edo ezereztea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko finantza-tresnak pasibora birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Pasiboko finantza-tresnak ondare garbira birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | 50.522 | | (60.306) | 9.784 | - | - | - |
| Negozio-konbinazioen ondoriozko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Akzioetan oinarritutako ordainketak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiaren beste gehikuntza edo (–) murrizketa batzuk | - | 195 | | (19.379) | - | - | - | (19.184) |
| Horietatik: obra eta funts sozialetarako hautazko zuzkidura | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2021eko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **786.383** | **1.030.165** | **(2.297)** | **101.433** | **-** | **(429.916)** | **-** | **1.485.768** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

1etik 71ra bitarteko oharrek eta I.etik III.era bitarteko eranskinek 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orri bateratua osatzen dute.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## ONDARE GARBIAREN ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

### 2020ko abenduaren 31n (**)

| Ondare garbiaren aldaketen iturriak | Kapitala | Bestelako erreserbak | (–) Norberaren akzioak | Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza | (–) Konturako dibidenduak | Beste emaitza global metatu bat | Interes minoritarioak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2020ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **759.608** | **913.393** | **(1.839)** | **127.364** | **(34.233)** | **(70.795)** | **-** | **1.693.498** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2020ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)** | **759.608** | **913.393** | **(1.839)** | **127.364** | **(34.233)** | **(70.795)** | **-** | **1.693.498** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **-** | **-** | | **79.685** | **-** | **(77.138)** | **-** | **2.547** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | **18.305** | **65.996** | **(242)** | **(127.364)** | **34.233** | **-** | **-** | **(9.072)** |
| Akzio arruntak jaulkitzea | 27.665 | 135 | - | - | - | - | - | 27.800 |
| Lehentasunezko akzioak jaulkitzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Beste ondare-tresna batzuk jaulkitzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Jaulkitako beste ondare-tresna batzuk erabiltzea edo mugaeguneratzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zorra ondare garbi bihurtzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kapitala murriztea | (9.360) | - | - | - | - | - | - | (9.360) |
| Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak) | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Norberaren akzioak erostea | - | - | (242) | - | - | - | - | (242) |
| Norberaren akzioak saltzea edo ezereztea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko finantza-tresnak pasibora birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Pasiboko finantza-tresnak ondare garbira birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | 67.300 | | (101.533) | 34.233 | - | - | - |
| Negozio-konbinazioen ondoriozko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Akzioetan oinarritutako ordainketak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiaren beste gehikuntza edo (–) murrizketa batzuk | - | (1.439) | - | (25.831) | - | - | - | (27.270) |
| Horietatik: obra eta funts sozialetarako hautazko zuzkidura | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2020ko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **777.913** | **979.389** | **(2.081)** | **79.685** | **-** | **(147.933)** | **-** | **1.686.973** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK**

## ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

| | Oharra | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|---|
| **A) USTIAPEN-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** | | **205.029** | **1.005.394** |
| **Ekitaldiko emaitza** | | **101.433** | **79.685** |
| **Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak lortzeko doikuntzak** | | **66.754** | **35.684** |
| Amortizazioa | 60 | 22.421 | 22.626 |
| Bestelako doikuntzak (a) | | 44.333 | 13.058 |
| **Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia** | | **(396.051)** | **(1.939.231)** |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | | 7.204 | 23.011 |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak | | (182) | 917 |
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | | - | - |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | | 91.872 | 446.185 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | | (632.639) | (2.422.384) |
| Beste ustiapen-aktibo batzuk | | 137.694 | 13.040 |
| **Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia** | | **433.325** | **2.829.717** |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | | (263) | (221) |
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan | | - | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | | 630.760 | 2.802.546 |
| Beste ustiapen-pasibo batzuk | | (197.172) | 27.392 |
| **Irabazien gaineko zergen ondoriozko kobrantzak/ordainketak** | | **(432)** | **(461)** |
| **B) INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** | | **66.022** | **5.623** |
| **Ordainketak** | | **(27.854)** | **(23.028)** |
| Aktibo ukigarriak | 30 | (27.854) | (23.028) |
| Aktibo ukiezinak | | - | - |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak | | - | - |
| Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk | 28 | - | - |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak | | - | - |
| Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten beste ordainketa batzuk | | - | - |
| **Kobrantzak** | | **93.876** | **28.651** |
| Aktibo ukigarriak (b) | 30 | 45.939 | 1.385 |
| Aktibo ukiezinak | | - | - |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak | 28 | - | - |
| Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk | 28 | - | - |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak | | 47.937 | 27.266 |
| Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten beste kobrantza batzuk | | - | - |
| **C) FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** | | **(20.849)** | **(7.633)** |
| **Ordainketak** | | **(23.430)** | **(9.602)** |
| Dibidenduak | 38 | (9.784) | - |
| Mendeko pasiboak | | - | - |
| Ondare propioaren tresnak amortizatzea | 38 | (13.430) | (9.360) |
| Ondare propioaren tresnak eskuratzea | 38 | (216) | (242) |
| Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten beste ordainketa batzuk | 4 | - | - |
| **Kobrantzak** | | **2.581** | **1.969** |
| Mendeko pasiboak | | - | - |
| Ondare propioaren tresnak jaulkitzea | 38 | 2.581 | 1.969 |
| Ondare propioaren tresnak besterentzea | | - | - |
| Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten beste kobrantza batzuk | | - | - |
| **D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA** | | **-** | **-** |
| **E) ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN GEHIKUNTZA/MURRIZKETA GARBIA (A+B+C+D)** | | **250.202** | **1.003.384** |
| **F) ESKUDIRUA ETA BALIOKIDEAK EPEALDIAREN HASIERAN** | | **2.749.066** | **1.745.682** |
| **G) ESKUDIRUA ETA BALIOKIDEAK EPEALDIAREN BUKAERAN** | | **2.999.268** | **2.749.066** |
| **PRO-MEMORIA** | | | |
| **ESKUDIRUAREN ETA BALIOKIDEEN OSAGAIAK EPEALDIAREN BUKAERAN** | 22 | | |
| *Horretatik: taldeko erakundeek dituztenak baina taldeak erabili ezin dituenak* | | | |
| Eskudirua | | 70.957 | 77.841 |
| Eskudiruaren pareko saldoak banku zentraletan | | 2.893.078 | 2.623.498 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | | 35.233 | 47.727 |
| Ken: ageriko banku-zorpeko itzulgarriak | | - | - |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu (2.3 oharra).
(a) Batez ere funtsetarako zuzkidurak sartzen dira: narriaduraren ondoriozko zuzenketen ondoriozkoak eta eskudiru-irteerarik ekarri ez duten hornikuntzen ondoriozkoak.
(b) Salmentan sortutako irabazia edo galera dago zenbateko horietan sartuta.

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK**

**URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA**
**(Mila eurokotan adierazita)**

## 1. Entitatearen izaera

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitate Nagusia, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba-izaera du Entitate Nagusi horrek.

Espainiako Bankuak gainbegiratzen du.

Entitate Nagusiaren kapitalak ez du burtsan kotizatzen.

### 1.1 Caja Laboralaren eta Ipar Kutxaren arteko bat-egitea

2012ko urtean, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren eta Ipar Kutxa Rural, S. Coop. de Créditoren gobernu-organoen erabakiz, bi erakundeek bat egin eta Kreditu Kooperatiba Berria sortu zuten. Caja Laboral Popular Coop. de Crédito du izena eta estatutu sozialetan zehaztuta dauden helburua, helbidea, kapitala eta gainerako ezaugarriak ditu. Kreditu Kooperatiben 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta legezko gainerako xedapen aplikagarriek arautzen dute.

Bat-egite horren eraginez, bat egindako kreditu-kooperatiba biak desegin eta iraungi egin ziren, likidazio-aldirik ireki gabe. Kreditu Kooperatiba Berria 2012ko azaroaren 2an erregistratu zen Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan, eta data hori ezarri zen bat egindako entitateen eragiketak kontabilitateari begira Kreditu Kooperatiba Berriaren eragiketatzat hartzeko lehen eguntzat.

### 1.2 Estatutuak

Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Xede horrekin, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ondoen betetzeko balio dutenak barne. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenekiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

2020ko uztailaren 17an, Entitateko estatutu sozialen artikulu batzuk aldatzea onartu zuen Batzar Nagusiak, batez ere bere gobernu-organoen funtzionamenduarekin zerikusia dutenak. Espainiako Bankuak baimendu zituen jada aldaketok, 2020ko urriaren 14an eta 23an alegia, eta aldeko irizpena eman zien. Gainera, Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatu ziren 2020ko azaroaren 25ean, eta Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren Sozietate Kooperatiboen Erregistroan 2021eko otsailaren 15ean.

Kreditu-kooperatibei besteak beste hauek agintzen dizkie beren lege-araudiak:

a) Espainiako Bankuan aktibo likidoen gutxieneko ehuneko bat gordailututa izatea, gutxieneko erreserben koefizientea estaltzeko.

b) Gordailuak Bermatzeko Funtsera hainbateko bat bideratzea, gordailugileek euren gordailuen zenbateko jakin bat berreskuratu ahal izateko.

c) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbia Heziketako eta Sustapeneko Funtsera eta erreserbetara bideratzea.

d) Baliabide propioen gutxieneko bat gordetzea, egindako inbertsioen eta onartutako arriskuen arabera.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta haren mendeko sozietateak

Caja Laboral Popular Taldeak eta haren partaidetzapeko erakundeek osatzen duten Partaidetzapeko Erakundeen Taldeko —aurrerantzean Taldea edo LABORAL Kutxa Taldea— Entitate Nagusia da Caja Laborala. Ondorioz, Entitate Nagusia behartuta dago, bere urteko kontu indibidualez gain —horiei ere nahitaezko auditoretza egiten zaie—, Taldearen urteko kontu bateratuak egitera. Kontuok barne hartzen dituzte, dagokionean, mendeko erakundeetako eta erakunde taldeaniztunetako partaidetzak eta erakunde elkartuetako inbertsioak. Taldeko erakundeek jarduera-esparru ugari ukitzen dituzte.

2021eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren guztizko aktiboek, ondare garbiak eta emaitza garbiak Taldearen kontzeptu bereko kopuruen % 97,77, % 95,53 eta % 96,39 osatzen dute, hurrenez hurren (% 97,50, % 95,80 eta % 99,83, hurrenez hurren, 2020ko abenduaren 31n).

Ondoren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan Entitate Nagusiak zituen balantze indibiduala, galdu-irabazien kontu indibiduala, aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orri indibiduala, ondare garbiaren aldaketen egoera-orri indibiduala eta eskudiru-fluxuen egoera-orri indibiduala aurkeztuko ditugu. Horiek guztiak Entitate Nagusiaren urteko kontu indibidualak egiteko erabili behar diren kontabilitate-printzipio eta -arau eta balioztapen-irizpide berberak aplikatuz egin dira.

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK**

**URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA**
**(Mila eurokotan adierazita)**

a) Balantze indibiduala, 2021eko abenduaren 31koa:

| AKTIBOA | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|
| Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk | 2.978.351 | 2.718.655 |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 16.292 | 23.570 |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak | 9.752 | 17.253 |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 190.311 | 257.533 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | 23.718.514 | 23.115.940 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea | 19.504 | 85.324 |
| Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak | 153.145 | 185.368 |
| Aktibo ukigarriak | 311.505 | 319.289 |
| Aktibo ukiezinak | - | - |
| Zergen ondoriozko aktiboak | 380.097 | 292.098 |
| Beste aktibo batzuk | 43.437 | 41.189 |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak | 105.789 | 151.029 |
| **Aktiboa guztira** | 27.926.697 | 27.207.248 |

| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | 731 | 994 |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | 25.632.455 | 24.967.498 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea | 608.933 | 340.810 |
| Hornidurak | 152.236 | 166.649 |
| Zergen ondoriozko pasiboak | 45.931 | 47.948 |
| Ageriko kapital itzulgarria | - | - |
| Beste pasibo batzuk | 67.094 | 67.128 |
| **Pasiboa guztira** | 26.507.380 | 25.591.027 |
| Funts propioak: | 1.862.541 | 1.785.481 |
| Kapitala | 786.383 | 777.913 |
| Bestelako erreserbak | 978.388 | 928.021 |
| Ekitaldiko emaitza | 97.770 | 79.547 |
| (Konturako dibidenduak) | - | - |
| Beste emaitza global metatu bat | (443.224) | (169.260) |
| **Ondare garbia guztira** | 1.419.317 | 1.616.221 |
| **Ondare garbia eta pasiboa guztira** | 27.926.697 | 27.207.248 |

| PRO-MEMORIA | | |
|---|---|---|
| Emandako finantza-bermeak | 219.161 | 224.731 |
| Emandako maileguen konpromisoak | 1.058.970 | 1.036.464 |
| Emandako bestelako konpromisoak | 333.268 | 331.653 |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

b) Galdu-irabazien kontu indibiduala, 2021eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

| | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|
| Interesen ondoriozko sarrerak | 250.286 | 265.730 |
| (Interesen ondoriozko gastuak) | 21.856 | 23.966 |
| **Interesen marjina** | 228.430 | 241.764 |
| Dibidenduen ondoriozko sarrerak | 15.643 | 21.895 |
| Komisioen ondoriozko sarrerak | 120.014 | 103.576 |
| (Komisioen ondoriozko gastuak) | 8.469 | 5.773 |
| Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 4.012 | 36.758 |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 420 | (866) |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 1.631 | 561 |
| Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | (35) | (26.726) |
| Kanbio-alde [irabazi edo (–) galera] garbiak | 849 | 225 |
| Beste ustiapen-sarrera batzuk | 46.235 | 46.315 |
| (Beste ustiapen-gastu batzuk) | 54.308 | 52.947 |
| **Marjina gordina** | 354.422 | 364.782 |
| (Administrazio-gastuak) | 182.507 | 173.267 |
| (Amortizazioa) | 21.812 | 22.004 |
| (Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak) | 13.926 | 21.262 |
| (Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo (–) irabaziak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea) | 39.465 | 63.345 |
| (Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea) | (28.203) | (5.082) |
| (Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea) | 3.664 | 598 |
| Aktibo ez finantzarioei eta partaidetzei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | (182) | (454) |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatuta dauden eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-talde besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak | (8.324) | 1.547 |
| **Jarduera etengabeen ondoriozko zerga aurreko irabaziak edo (–) galerak** | 112.745 | 90.481 |
| (Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak) | 14.975 | 10.934 |
| **Jarduera etengabeen ondoriozko zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak** | 97.770 | 79.547 |
| **Jarduera etenen ondoriozko zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak** | - | - |
| **Ekitaldiko emaitza** | **97.770** | **79.547** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

c) Aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orri indibiduala, 2021eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

| | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|
| **EKITALDIKO EMAITZA** | **97.770** | **79.547** |
| **BESTE EMAITZA GLOBAL BAT** | **(273.964)** | **(78.830)** |
| **Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak** | **11.566** | **56** |
| Arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta beste emaitza global batean aldaketak dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak | 16.064 | 78 |
| Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena | (4.498) | (22) |
| **Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak** | **(285.530)** | **(78.886)** |
| Eskudiru-fluxuen estaldurak (zati eraginkorra) | **(394.427)** | **(73.069)** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | (394.427) | (99.391) |
| Emaitzetara transferitua | - | 26.322 |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan | **(2.143)** | **(36.495)** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | 1.555 | (368) |
| Emaitzetara transferitua | (3.698) | (36.127) |
| Beste birsailkapen batzuk | | |
| Irabazien gaineko zerga, irabazietan edo (–) galeretan birsailka daitezkeen elementuena | **111.040** | **30.678** |
| **EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA** | **(176.194)** | **717** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

d) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orri indibiduala, 2021eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

## 2021eko ekitaldiko aldakuntza

| | Funts propioak | Beste emaitza global metatu bat | Ondare garbia guztira |
|---|---|---|---|
| **2021eko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.785.481** | **(169.260)** | **1.616.221** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - |
| **2021eko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.785.481** | **(169.260)** | **1.616.221** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **97.770** | **(273.964)** | **(176.194)** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | | | |
| - Akzio arruntak jaulkitzea | 21.960 | - | 21.960 |
| - Kapitala murriztea | (13.431) | - | (13.431) |
| - Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak) | (9.784) | - | (9.784) |
| - Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | - | - |
| - Ondare garbiaren beste gehikuntza edo (–) murrizketa batzuk | (19.455) | - | (19.455) |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira** | **(20.710)** | **-** | **(20.710)** |
| **2021eko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **1.862.541** | **(443.224)** | **1.419.317** |

**2020ko ekitaldiko aldakuntza (*)**

| | Funts propioak | Beste emaitza global metatu bat | Ondare garbia guztira |
|---|---|---|---|
| **2020ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.712.681** | **(90.430)** | **1.622.251** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - |
| **2020ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.712.681** | **(90.430)** | **1.622.251** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **79.547** | **(78.830)** | **717** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | | | |
| - Akzio arruntak jaulkitzea | 27.800 | - | 27.800 |
| - Kapitala murriztea | (9.360) | - | (9.360) |
| - Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak) | - | - | - |
| - Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | - | - |
| - Ondare garbiaren beste gehikuntza edo (–) murrizketa batzuk | (25.187) | - | (25.187) |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira** | **(6.747)** | **-** | **(6.747)** |
| **2020ko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **1.785.481** | **(169.260)** | **1.616.221** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

e) Eskudiru-fluxuen egoera-orri indibiduala, 2021eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

| | 2021 | 2020 (*) |
|---|---|---|
| **Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak:** | **186.129** | **1.023.885** |
| Ekitaldiko emaitza | 97.770 | 79.547 |
| Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak lortzeko doikuntzak | 111.747 | 150.705 |
| Ustiapen-aktiboen gehikuntza/murrizketa garbia | (474.513) | (1.894.809) |
| Ustiapen-pasiboen gehikuntza/murrizketa garbia | 451.555 | 2.688.903 |
| Irabazien gaineko zergen ondoriozko kobrantzak/(ordainketak) | (430) | (461) |
| **Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak:** | **94.201** | **(10.198)** |
| Ordainketak | (113.742) | (77.490) |
| Kobrantzak | 207.943 | 67.292 |
| **Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak** | **(20.634)** | **(7.391)** |
| **Kanbio-tasen aldaketen eragina** | **-** | **-** |
| **Eskudiruaren eta baliokideen gehikuntza/murrizketa garbia** | **259.696** | **1.006.296** |
| **Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren hasieran** | **2.718.655** | **1.712.359** |
| **Eskudirua eta baliokideak ekitaldiaren bukaeran** | **2.978.351** | **2.718.655** |

(*) Alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu dugu.

## 2. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

### 2.1 Egoera zehaztasunez

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 19ko 1606/2002 EB Erregelamenduarekin bat, sozietate bat Europar Batasuneko estatu kideen zuzenbidearen pean arautzen bada eta beraren balore-tituluak estatu kideren bateko merkatu arautuan kotizatzen badira, Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen —aurrerantzean, FINA— eta Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauen —aurrerantzean, FINA-EB— arabera aurkeztu behar dituzte, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldi guztietako urteko kontu bateratuak. Hain zuzen ere, Espainiako kreditu-erakundeen kontabilitate-araubidea araudi horretara egokitzeko asmoz argitaratu zuen Espainiako Bankuak 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra, finantza-informazio publiko eta isilpekoari buruzko arauei eta finantzetako egoera-orrien ereduei buruzkoa, gerora, 2018ko urtarrilaren 1ean, indargabetuta gelditu zena, Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra indarrean jarri zenean.

Taldearen urteko kontu bateratu hauek aurkezteko, Europar Batasunak 2018ko abenduaren 31n onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauek —aurrerantzean, FINA-EB— ezarritakoa hartu da oinarritzat. Bestalde, Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 22ko 4/2017 Zirkularra, Espainiako Bankuaren 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra ordezkatzen duena, eta ondorengo aldaketak hartu dira aintzat. Zirkular horren bidez, Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA) garatu egin dira eta Espainiako kreditu-erakundeen sektorera egokitu.

Txosten honetan KNA eta FINA laburdurak erabili dira Kontabilitateko Nazioarteko Arauei eta Finantza Informazioko Nazioarteko Arauei buruz hitz egiteko, eta FINAIB eta SIC laburdurak Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak Interpretatzeko Batzordearen eta aurretiko Interpretazio Batzordearen interpretazioei buruz hitz egiteko, hurrenez hurren. Horiek guztiak Europar Batasunak onartu ditu, eta urteko kontu bateratu hauek egiteko erabili dira.

Urteko kontu bateratuak egitean, beraietan eragin nabarmena duten kontabilitate-printzipio eta -arau guztiak eta nahitaez ezarri beharreko balioztapen-irizpideak erabili ditugu. Horiek horrela, 2021eko abenduaren 31n Taldearen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi zehatza ez ezik, egun horretan amaitutako urteko ekitaldian Taldean gertatu diren eragiketen, ondare garbiaren aldaketen eta eskudiru-fluxuen emaitza bateratuen irudi zehatza ere ematen dute.

Txostenaren 13. oharrean laburtu ditugu Taldearen 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko erabilitako kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balioztapen-irizpiderik nabarmenenak.

Urteko kontu bateratuak egiteko, Entitatearen eta Taldeko gainerako entitateen kontabilitate-erregistroak hartu dira aintzat. Dena den, gerta liteke Taldearen 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakundek erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak homogeneizatzeko eta Entitateak aplikatutako FINA-EB arauetara egokitzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin ditugu baterakuntza-prozesuan.

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Taldeko Entitate Nagusiko kontseilarien erantzukizuna da.

Taldearen 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak Kontseilu Errektorearen 2022ko otsailaren 28ko bileran formulatu dituzte Entitate Nagusiko kontseilariek. Orain, Batzar Nagusiaren onespenaren zain daude, eta espero da aldaketa nabarmenik egin gabe onetsiko dituela.

Urteko kontu bateratuok, kontrakorik esaten ez bada, mila eurokotan aurkeztu dira.

## 2.2 Bateratzeko printzipioak

Taldearen definizioa Europar Batasunak erabakitako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauetan (FINAetan) ezarritakoaren arabera egin da. Partaidetzapeko erakundeak dira mendeko erakunde, baterako negozio eta elkartu guztiak.

### 2.2.1) Mendeko erakundeak

Taldearen kontrolpean dauden erakundeak jotzen dira mendeko erakundetzat. Egoera hori gertatzen da Taldeak partaidetzapekoan duen inplikaziotik datozen etekin aldakorrak jasotzeko eskubidea badu eta partaidetzapekoaren gainean duen boterearen bidez etekin horietan eragiteko gaitasuna badu.

Kontrola dagoela onartzeko, bat etorri behar dute hauek:

- Botereak. Inbertitzaileak partaidetzapeko baten gaineko boterea duela esango dugu, baldin eta indarrean baditu jarduera garrantzitsuak, hau da, partaidetzapekoaren etekinetan nabarmen eragiten dutenak, zuzentzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak.

- Etekinek. Inbertitzaileak partaidetzapekoan duen inplikazioagatik etekin aldakorrak jasotzeko eskubidea duela esango dugu, baldin eta inplikazio horregatik lortzen dituen etekinak aldatu egin badaitezke partaidetzapekoaren bilakaera ekonomikoaren arabera. Inbertitzailearen mozkinak positiboak soilik, negatiboak soilik edo aldi berean positiboak eta negatiboak izan daitezke.

- Boterearen eta etekinen arteko erlazioak. Inbertitzaileak partaidetzapekoa kontrolatzen duela esango dugu, baldin eta, partaidetzapekoaren gainean boterea izateaz gain, eskubidea badu partaidetzapekoan duen inplikazioagatik etekin aldakorrak jasotzeko eta partaidetzapekoan duen inplikazioagatiko etekinetan eragiteko erabil badezake botere hori.

Bestalde, kontrolik dagoen ala ez ebaluatzeko prozesuan eragin dezakeen edozein gertaera edo inguruabar kontuan hartzen du Taldeak, bai eta erreferentziazko araudiaren aplikazio-gidaliburuetan deskribatutako analisiak ere (adibidez, Taldeak boto-eskubideen % 50etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza duen, ebaluatzen ari den entitatean).

Mendeko erakundeetako partaidetzei buruzko 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Mendeko erakundeen urteko kontuak Entitatearenekin bateratzeko, integrazio globalaren metodoa erabiltzen da. Ondorioz, bateratutako erakundeen artean metodo honen bidez egindako transakzioetako saldo nabarmen guztiak kendu egin dira bateratze-prozesutik. Bestalde, hirugarrenen partaidetza honela aurkezten da hauetan:

- Taldearen ondare garbia, balantze bateratuko ondare garbiko «Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)» atalean.

- Ekitaldiko emaitza bateratuan, galdu-irabazien kontu bateratuko «Ekitaldiko emaitza - Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa» atalean.

Taldeak ekitaldian eskuratutako mendeko erakundeen emaitzak bateratzeko, eskurapen-egunetik ekitaldi-itxierara bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira. Bestalde, Taldeak ekitaldian besterendu dituen mendeko erakundeek sortutako emaitzak bateratzeko, ekitaldiaren hasieratik besterentze-egunera bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira.

Kendu egin dira konpainien arteko eragiketak, saldoak eta Taldeko erakundeen arteko transakzioetako sarrera-gastuak. Kendu egin dira, halaber, talde barruan egindako eta aktibo moduan aintzatetsitako transakzioen galdu-irabaziak ere. Mendeko erakundeen kontabilitate-politikak aldatu egin dira, Taldeak erabiltzen dituen politikekiko uniformetasuna bermatzeko beharrezkoa izan denean.

Mendeko erakundeez gain, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsak ere sartu ditu Entitate Nagusiak. Hipoteka-maileguak titulizatu eta gero titulizazio-bonuak jaulkitzeko sortu dira erakunde horiek (ikusi 2.2.6 oharra).

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Mendeko erakunde bat erosteagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Taldeak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioarekin balioztatzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Taldeak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko aintzatetsietan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera aintzatetsi dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastu gisa aintzatesten dira.

Negozioen konbinazioa etapaka egiten bada, eskuratuaren ondare garbiko (aurretik eskuratzaileak zueneko) partaidetzaren eskurapen-datako arrazoizko balioa eskurapen-datako arrazoizko balioarekin balioztatzen da berriro, ekitaldiko emaitzaren bidez.

Taldeak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioarekin aintzatesten da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari ondoren arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, FINA 9 arauaren arabera, emaitzetan aintzatesten dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi moduan sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro balioztatzen, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritzako funtsa honela balioztatzen da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak eskuratutako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitza bateratuetan aintzatesten da.

Taldeko aseguru-entitateak hainbat erakundek gainbegiratzen eta arautzen dituzte. Jurisdikzio bakoitzean indarrean dauden legeek eragina izan dezakete funtsak eskudirutan, dibidenduetan, maileguetan edo aurrerakinetan transferitzeko erakunde horiek duten gaitasunean, eta kapitalari eta ikuskaritza-jarduerari lotutako gutxieneko baldintzak betetzeko premiak ere bai.

2.2.2) Mendeko erakundeen jabetzako partaidetza-aldaketak, kontrol-aldaketarik gabekoak

Nagusi ez diren partaidetzekin egindako transakzioak, kontrolaren galera eragiten ez badute, ondareko transakziotzat kontabilizatzen dira, hau da, jabeekin egindako transakziotzat. Ordaindutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta mendekoaren aktibo garbien liburuetako zenbatekoan eskuratutako ehunekoaren arteko aldea ondare garbian erregistratzen da. Nagusi ez diren partaidetzak besterentzeagatiko irabaziak edo galerak ere ondare garbian aintzatesten dira.

2.2.3) Mendeko erakundeak besterentzea

Taldeak kontrola izateari uzten dionean, Entitatean atxikitako edozein partaidetza arrazoizko balioarekin balioztatzen da berriro, kontrola galtzen den datan, eta aldaketa emaitzetan aintzatesten da, liburuetako zenbatekoan. Arrazoizko balioa hauxe da: liburuetako hasierako zenbatekoa, aintzat hartzen dena elkartutakotzat, baterako negoziotzat edo finantza-aktibotzat gordetako partaidetza gerora kontabilizatzeko. Gainera, Taldeak aktibo edo pasiboak zuzenean saldu balitu bezala kontabilizatzen da erakunde horren inguruan aurretiaz ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean aintzatesten den edozein zenbateko. Horrek esan nahiko du, agian, aurrez ondare garbian aintzatetsitako zenbatekoak emaitza-kontu bateratuan birsailkatuko direla.

2.2.4) Baterako negozioak - Erakunde taldeaniztunak

Baterako negozioak kontratu bidezko akordioak dira, eta, horien bitartez, bi erakundek edo gehiagok (partaide deritzenak) jarduera ekonomiko bati ekiten diote, elkarrekin kontrolatzeko. Hau da, kontratu horren pean, entitate edo jarduera ekonomiko baten finantzen eta ustiapenaren politikak zuzentzeko boterea partekatzen dute partaideek, egiten diren eragiketetatik mozkinak ateratzeko. Kontrola partekatzen duten partaide guztiek ados egon behar dute, eta aktibo garbien gaineko eskubideak dituzte, jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiak hartu ahal izateko.

Baterako negoziotzat hartzen dira, halaber, mendekoak ez izan arren elkarren artean loturarik ez duten erakunde bik edo gehiagok kontrolatzen dituzten erakundeetako partaidetzak ere.

Bateratzeko prozesuan, partaidetzaren prozedura erabili dugu Baterako negozioen - Erakunde taldeaniztunen urteko kontuetarako, kontabilitate-arautegian ezarritakoari jarraikiz.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n ez zegoen partaidetzarik erakunde taldeaniztunetan.

2.2.5) Erakunde elkartuak

Erakunde elkartuak partaidetzapeko sozietateak dira, eta Taldeak horietan eragin nabarmena izateko ahalmena du. Eragin horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka, beste partaidetzapeko sozietate baten edo hainbaten bidez, partaidetzapeko sozietateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

Baterakuntza-prozesuan, partaidetzaren metodoa aplikatu da erakunde elkartuetan ere, KNA 28 arauan zehaztuta dagoen moduan. Hortaz, erakunde elkartuetako partaidetzak balioztatzeko, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren zatia hartzen da, baina jasotako dibidenduak eta beste ondare-ezabapen batzuk kontuan hartu ondoren. Erakunde elkartuekin egindako transakzioen emaitzak Taldearen partaidetzaren proportzioaren arabera kentzen dira. Erakunde elkartu batek galerak izaten baditu eta horren ondorioz kontabilitate-ondarea negatiboa bada, Taldearen balantze bateratuan balio nuluarekin agertuko da, baldin eta Taldeak hari estaldura finantzarioa emateko betebeharra ez badu.

Erakunde elkartuetako partaidetzei buruzko 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Gerta liteke Taldearen 2021eko eta 2020ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuk erabilitakoekin. Hori dela eta, baterakuntza-prozesuan beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin dira, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak homogeneizatzeko.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, Taldeko entitate batek ere ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Espainiako edo nazioarteko beste kreditu-erakunderen batean.

Orobat, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunde batek ere edo Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunderen bat barne hartzen duen talde batek ere —Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikuluan jasota dagoenaren arabera— ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Taldeko kreditu-erakunde batean.

2.2.6) Erakunde egituratuak

Taldeak erakunde batzuetan parte hartzen duenean edo erakundeak eratzen dituenean arriskua transmititzeko edo bestelako helbururen baterako, adibidez bezeroei inbertsio jakin batzuetara iristea ahalbidetzeko, arauetan ezarritakoa aintzat hartuta eta aurrez deskribatutakoari jarraikiz, kontrolik dagoen erabakitzen da, eta, beraz, bateratu behar diren ala ez. Zehazki, aintzat hartzen da ia Taldeak komisio arrakastatsuak sortzen dituen eta azpiko aktiboen kudeatzaileak baliogabetzeko aukerarik dagoen. Erakunde horien artean daude «Aktiboak titulizatzeko funtsak». Horiek bateratu egiten dira, aurreko analisiaren arabera Taldeak kontrolatu egin dituela erabakitzen denean.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, erakunde egituratu bateratuei finantza-sostengua emateko kontratu bidezko akordioak bat datoz titulizazioen merkatuan erabilera arruntekoak diren laguntza-mekanismoekin, eta ez dago kontratu bidez ezarritakoaz bestelako finantza-sostengu nabarmenik. Urteko kontu bateratuen 25. oharrean, entitate egituratu bateratuei lotutako saldoen berri ematen da.

Taldeak kudeatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eta inbertsio- eta pentsio-funtsek ez dituzte betetzen erakunde egituratutzat jotzeko arautegi-eskakizunak, eta gainerako mendeko erakundeen irizpide berberekin aztertzen dira. Esan beharra dago, kasurik gehienetan pertsonalitate juridikorik gabeko txikizkako funtsak izaten direla, eta, horien gainean, kudeatutako ondarearen jabetza ematen dieten unitate alikuotak eskuratzen dituzte inbertitzaileek.

Erakunde eta funts horiek autosufizienteak dira euren jardueretan; hau da, ez daude aparteko finantza-sostengurik gabe beren jarduerak aurrera eramatea eragotz diezaiekeen kapital-egitura baten mende. Galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen ondoriozko sarrerak» epigrafean (48. oharra) daude erregistratuta Taldeak ekitaldian erakunde eta funts horiei emandako zerbitzuengatik (funtsean, ondareak kudeatzeko zerbitzuengatik eta zorroak gordailutzeagatik) sortutako komisioak, hirugarren batzuen zorroak gordailutzeagatik sortutako komisioekin batera.

2.2.7) Bateratze-perimetroko aldakuntzak

Bateratze-perimetroko aldakuntzak

2021eko urriaren 26an ISGA Inmuebles SAU (xurgatzailea) eta Sociedad de Gestión de Activos de Caja Laboral SAU (xurgatua) aktibo higiezinak kudeatzeko sozietateen arteko bat-egitea gauzatu da.

2021eko ekitaldian ez da aldakuntzarik gertatu Caja Laboral Taldearen bateratze-perimetroan.

## 2.3 Informazioaren alderagarritasuna

2021eko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion kontabilitate-informazioa Europar Batasunaren Finantza Informazioko Nazioarteko Arauetako irizpideei jarraikiz jaso da, eta 2020koaren parean jarri da, alderatu ahal izateko. 2020ko ekitaldiko informazioa 2021ekoarekin alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu da, eta ez da 2021eko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuetan sartu.

## 2.4 Transakzioen urtarokotasuna

Taldearen jarduerak direla eta, transakzioak ez dira ziklikoak edo urtaroaren araberakoak. Horregatik, ez da banakapen berezirik sartu 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuen txostenean.

2.5 Transakzioen urtarokotasuna

Taldearen jarduerak direla eta, transakzioak ez dira ziklikoak edo urtaroaren araberakoak. Horregatik, ez da banakapen berezirik sartu 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuen txostenean.

## 3. Aldaketak eta akatsak kontabilitate-irizpide eta -estimazioetan

a) Ziurgabetasuna balioztatu eta estimatzearen alderdi kritikoak

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Entitate Nagusiko kontseilarien erantzukizuna da. Urteko kontu bateratu hauetan zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso balioztatzeko dagokionean erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeetako goi-zuzendaritzak egin ditu, eta kontseilariek berretsi dituzte. Honako hauek hartu dira kontuan estimazio horietan:

- Zenbait finantza-aktiboren narriaduraren ondoriozko galerak (13.h oharra).
- Aktibo ukigarriko eta aktibo ukiezineko elementuei aplikatutako balioa eta balio-bizitza (2, 13.q eta 13.r oharrak).
- Kotizatu gabeko zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa (13.e oharra).
- Hornidduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera (13.u oharra)
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.t oharra).
- Aurretiko erretirorako planen ondoriozko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.o oharra).
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren ebaluazioa (13.p oharra).
- Baterakuntzako merkataritzako funtsaren narriaduraren ebaluazioa (13.aa oharra).
- Sozietateen gaineko zergaren estimazioa (40. oharra).

COVID-19aren pandemiak eragindako krisia dela eta, urteko kontu hauetan xehatu diren zenbatespenak egin ditu Taldeak, egungo egoera ekonomiko-finantzarioak ekar ditzakeen inpaktuak aintzat hartuta (13.a oharra). Beraz, aurreko paragrafoan ageri diren zenbatespenek COVID-19aren krisiak eragindako inpaktua ere jasotzen dute, irizpide hori aplikagarri denean. COVID-19aren eragina garrantzitsutzat jo den kasuetarako, berriz, informazio gehigarria idatzi da urteko kontu hauetan.

Ukitutako kontu-sailei buruz 2021eko abenduaren 31n eskuragarri genuen informaziorik onena erabili dugunez estimazioak egiteko, gerta liteke etorkizuneko gertakarien ondorioz horiek aldatu behar izatea hurrengo ekitaldietan. Edozein modutan ere, aldaketa hori prospektiboa izango da, eta estimazio-aldaketaren eraginak dagokion galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatetsiko dira.

b) Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Transakzio edo jazoera jakin bat arautzen duen kontabilitate-arauren bat aldatzen denean edo Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, kontabilitate-irizpideak aldatzea erabakitzen duenean, aldaketok atzeraeraginez aplikatzen dira, baldin eta:

- Ezinezkoa bada lehenagoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioaren gainean kontabilitate-irizpide bat aldatzeak ekitaldi bakoitzean izango dituen eraginak zehaztea; kasu horretan, atzeraeraginezko aplikazioa egin daitekeen ekitaldirik zaharrenaren hasieran aplikatuko da kontabilitate-irizpide berria. Ezinezkoa bada aurreko ekitaldi guztiei kontabilitate-irizpide berria aplikatzeagatik uneko ekitaldian metatuko den eragina zehaztea; kasu horretan, aukera dagoen datarik urrunekoenetik aurrera aplikatuko da irizpide berria.

- Noiztik aplikatu behar den zehazten badu irizpidea aldatu edo finkatzen duen kontabilitate-xedapen edo -arauak.

Taldeari aplikagarri zaion kontabilitate-araudian hainbat aldaketa izan dira 2021eko ekitaldian, aurreko ekitaldian aplikatuarekin alderatuta. Ondoren, aldaketarik nabarmenenen berri emango dugu:

i) <u>2021eko urtarrilaren 1ean hasitako ekitaldietan nahitaez erabili beharreko arau, aldaketa eta interpretazioak</u>

- <u>FINA 9 (aldaketa), KNA 9 (aldaketa), FINA 7 (aldaketa), FINA 4 (aldaketa) eta FINA 16 (aldaketa) «Erreferentziazko interes-tasen erreforma, 2. fasea»</u>

  Bi faseko proiektu bati ekin dio IASBk, argitzeko dagokionean zer salbuespen aplikatu behar diren erreferentziako interes-tasen (IBORen) erreformaren ondoreetarako. Bigarren faseko aldaketek, berriz, erreformak aplikatzearen ondoriozko kontuei ekiten diete, barne dela erreferentzia-tasaren ordez beste bat ezartzea.

  2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan ezartzekoak dira aldaketok, baina aukera dago aurretik aplikatzeko ere.

- <u>FINA 4 (aldaketa) «FINA 9a ezartzeko denbora-salbuespena luzatzea»</u>

  FINA 17 «Aseguru-kontratuak» arauaren indarraldia atzeratzeari dagokionez, FINA 4 «Aseguru-kontratuak» arauaren aldi baterako salbuespenaren muga-eguna aldatzen du aldaketak, FINA 9 «Finantza-tresnak» araua ezartzeari begira, eta FINA 9a 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako urtealdietan beharrean 2023ko urtarrilaren 1ean hasten direnetan aplikatzera behartzen ditu erakundeak.

  Aldaketa horiek 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urteko ekitaldietan aplikatuko dira.

Araudi hori ezarri izanak ez du eragin handirik izan urteko kontu bateratu hauetan.

- FINA 16 (aldaketa) «COVID-19arekin lotura duten alokairu-murrizketak»

  IASBk urtebetez luzatu du FINA 16 «Errentamenduak» arauaren aukera praktikoa aplikatzeko epea, errentariei COVID-19arekin lotutako alokairu-emakidak kontabilizatzen laguntzeko. Errentamenduaren aldaketak ez balira bezala kontabiliza ditzakete alokairu-emakida horiek errentariek. Kasu askotan, horren ondorioz errentamendu-ordainketa aldakor gisa kontabilizatzen da emakida, ordainketa murriztua eragin duen gertaera edo egoera izan den epean edo epeetan. Zuzenketak ez die erraztasun bera ematen errentatzaileei, horiek FINA 16aren egungo baldintzak aplikatu behar baitituzte, eta dagokion errentamendu-kontratuan aldaketarik egin den ala ez aztertu.

  Araudi hori ezarri izanak ez du eragin handirik izan urteko kontu bateratu hauetan.

ii) EBren arau eta interpretazioak, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan lehen aldiz ezartzekoak (ekitaldia abenduaren 31n ixten duten enpresetan).

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB eta IFRS Interpretations Comittee erakundeek jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratu zituzten, baina Taldeak ez ditu aldez aurretik ezarri.

- KNA 16 (aldaketa) «Ibilgetu materiala: aurreikusitako erabileraren aurretik jasotako sarrerak»

  Debekatuta dago produktuen salmentatik jasotako edozein sarrera kentzea ibilgetu materialeko elementu batetik, baldin eta sarrerok Entitatea aktiboa aurreikusitako erabilerarako prestatzen ari zela gertatzen badira. Orain, lagin horien salmentaren sarrerak emaitzetan jasotzen dira, ekoizpen-kostuekin batera. Beste hau ere argitzen du aldaketak: aktibo batek egokiro funtzionatzen duen probatzen ari da erakunde bat, aktiboaren errendimendu teknikoa eta fisikoa aztertzen ari denean. Ebaluazio horretarako, aktiboaren finantza-errendimendua ez da nabarmena. Beraz, zuzendaritzak aurreikusitakoaren arabera funtziona lezake aktibo batek, eta amortizatu beharra izan, zuzendaritzak espero duen errendimendu operatiboaren maila iritsi aurretik.

- KNA 37 (aldaketa) «Kostu bidezko kontratuak – Kontratua betetzearen kostuak»

  Aldaketak azaltzen duenez, kontratu bat betetzearen zuzeneko kostuan sartzen dira, batetik, kontratu hori betetzeko gehikuntzazko kostuak eta, bestetik, kontratuak betetzearekin zuzeneko lotura duten beste kostu batzuk. Argitzen du, halaber, kostu bidezko kontratu baten hornidura bereizia egin aurretik, kontratua betetzeko erabilitako aktiboetan narriaduragatik izandako galera oro aintzatetsi behar duela entitateak, kontratu horretara bideratutako aktiboetan izandakoak beharrean.

- FINA 3 (aldaketa) «Kontzeptu-esparruarekiko erreferentzia»

  FINA 3a eguneratu egin da, 2018ko Kontzeptu Esparrua erreferentzia hartuta, negozio-konbinazio batean zer den aktiboa eta zer pasiboa zehazteko (lehen, 2001eko KEa zen erreferentzia). Horrez gain, FINA 3an beste salbuespen bat gehitu da pasiboetarako eta pasibo kontingenteetarako.

- FINA arauen urteko hobekuntzak, 2018-2020 zikloan

  Aldaketek FINA 1, FINA 9, FINA 16 eta KNA 41 arauetan dute eragina eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko dira. Aldaketa nagusietan arau hauek ukitzen dira:

  - FINA 1, «FINA arauak lehenengoz hartzea». FINA 1ak salbuespen bat baimentzen du, baldin eta mendeko erakunde batek erakunde nagusiaren ondoren onartzen baditu FINAk. Aldaketa horrek aukera ematen die salbuespen hori baliatu duten erakundeei, erakunde nagusiak kontabilizatutako zenbatekoak erabiliz neurtzeko metatutako bihurtze-aldeak, erakunde nagusia FINAetara egokitu den dataren arabera.

  - FINA 9 «Finantza-tresnak». Aldaketak aztertzen du zer kostu sartu behar diren % 10eko proban, finantza-pasiboetako kontuetan baja emateko. Hirugarrenei edo mailegu-emaileari ordaindu behar zaizkie kostuak edo zerbitzu-sariak. Aldaketaren arabera, hirugarrenei ordaindutako kostuak edo zerbitzu-sariak ez dira sartu behar % 10eko proban.

  - FINA 16 «Errentamenduak». Aldatu egin da 13. adibide argigarria, FINA 16arekin batera datorrena, errentamenduaren hobekuntzak direla eta errentatzaileak egiten dituen ordainketen agiriak ezabatzeko; hartara, saihestu egiten dira errentamenduaren pizgarriei buruz sor daitezkeen nahasketak.

  - KNA 41 «Nekazaritza». Aldaketa horrek kendu egin du zergetarako eskudiru-fluxuak baztertzeko baldintza, arrazoizko balioa KNA 41aren arabera neurtzearen ondorioz.

- FINA 17 «Aseguru-kontratuak»

  2017ko maiatzean, IASBk aseguru-kontratuei buruzko kontabilitate-araua garatzeko iraupen luzeko proiektua amaitu eta FINA 17 araua, «Aseguru-kontratuak» izenekoa, argitaratu zuen. Gaur egun askotariko kontabilitate-jarduerak baimentzen dituen FINA 4 «Aseguru-kontratuak» araua ordezkatu du FINA 17ak. FINA 17 arauak kontabilitatea aldatu du, eskatu ahalako partaidetza-osagaidun aseguru-kontratuak eta inbertsio-kontratuak jaulkitzen dituzten entitate guztientzat.

> Arau hori 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietan aplikatzea zegoen aurreikusita, baina lehenago aplikatzeko aukera ere bazegoen, baldin eta, horrekin batera, FINA 15 «Bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arruntak» eta FINA 9 «Finantza-tresnak» arauak ere aplikatzen baziren. Nolanahi dela ere, FINA 17aren aplikazioak sortutako kezka eta desafioetako batzuei erantzunez, IASBk berariazko zenbait zuzenketa eta azalpen garatu ditu, arau berria ezartzen laguntzeko. Alabaina, berrikuntza horiek ez dituzte aldatzen arauaren oinarrizko printzipioak. Hauxe da egungo egoera: IASBk FINA 17aren zuzenketa bat argitaratu du; horren bidez, irismen-aldaketa mugatuak sartu ditu FINA 17 «Aseguru-kontratuak» arauaren trantsizio-aginduetara, eta ez dio eragiten FINA 17aren beste errekerimendu bati ere. FINA 17 eta FINA 9 «Finantza-tresnak» arauek trantsizio-agindu desberdinak dituzte. Aseguru-entitate batzuen kasuan, alde horiek kontabilitate-asimetria puntualak eragin ditzakete finantza-aktiboen eta aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboen artean, FINA 17 eta FINA 9 arauak lehen aldiz aplikatzen dituztenean finantzetako egoera-orrietan aurkezten duten informazio konparatiboan. Aseguru-entitateei asimetria horiek saihesten lagunduko die aldaketa horrek, eta, beraz, inbertitzaileentzako informazio konparatiboaren erabilgarritasuna hobetuko du.

Araudi horiek izan ditzaketen ondorioak aztertzen ari da Taldea.

Horren harira, FINA 17 arauak Taldearen urteko kontuetan izan dezakeen eragina nabarmendu beharra dago. Taldea 2018aren amaieran hasi zen FINA 17 araudia ezartzen. Azken ekitaldietan, araudi berriak eskatzen dituen erabaki tekniko eta metodologiko guztiak zehaztu eta hartzeko lanak egin dira. Besteak beste, alderdi hauek aztertu dira: aseguru-kontratuen sailkapena eta bereizketa, kontratuen bateratze-maila, kontratuen mugak, balioztapen-metodoaren esleipena, kutxa-fluxuen azterketa, gastuen azterketa eta ebaluazioa, BBA metodoa baloratzeko erabili beharreko metodologien definizioa, trantsizioa eta IFRS9a. Prozesu hori ezarpen-fasean dago, informazioa kalkulatu, kontabilizatu eta jakinarazteko euskarri izango diren tresnetan. Aurreikuspenen arabera, araudi berria 2022ko ekitaldian ezarriko da, Taldeak 2023ko urtarrilaren 1ean araudi hori onartzen duenean saldo konparatiboak egoki berradieraziko direla bermatzeko.

iii) Aurrez har ez daitezkeen edo Europar Batasunak hartu ez dituen arauak, interpretazioak eta aldaketak

**EBk onartzeko dituen arauak edo interpretazioak**

| Izena | Araua | IASB indarrean sartzea |
|---|---|---|
| Inbertitzailearen eta beraren elkartuen edo baterako negozioen artean aktiboak saldu edo ekartzea (2014ko iraileko aldaketa) | KNA 28 eta FINA 10 | (i) |
| Arautze-kontu geroratuak (2014ko urtarrila) (ii) | FINA 14 | 2016-01-01 |
| Pasiboak korronte edo ez-korronte gisa sailkatzea (2020ko urtarrileko aldaketa) | KNA 1 | 2022-01-01 |
| Pasiboak korronte edo ez-korronte gisa sailkatzea – Indarrean sartzeko data geroratzea (2020ko uztaileko aldaketa) | KNA 1 | 2023-01-01 |
| Kontabilitate-politiken xehakapena (2021eko otsaileko aldaketa) | KNA 1 | 2023-01-01 |
| Kontabilitate-estimazioen definizioa (2021eko otsaileko aldaketa) | KNA 8 | 2023-01-01 |
| Eragiketa bakarretik sortutako aktibo eta pasiboen zerga geroratua (2021eko maiatzeko aldaketa) | KNA 12 | 2023-01-01 |
| FINA 17 eta FINA 9 arauen hasierako aplikazioa – Alderatzeko informazioa (2021eko abenduko aldaketa) | FINA 17 | 2023-01-01 |

(i) Jatorrian, FINA 10 eta KNA 28 arauei egindako aldaketa horiek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango zuten indarra. Dena delarik ere, horien indarraldia atzeratzeko erabakia hartu zuen IASBk, 2015eko urtearen amaieran, baina ez zuen data zehatza finkatu. Zergatik hartu zuen erabaki hori? Berrikuspen zabalagoa ari delako prestatzen, halako eragiketen kontabilitatea eta erakunde elkartuen eta baterako negozioen beste alderdi batzuk erraztu ahal izateko.

(ii) Europako Batzordeak erabaki du FINA-EBaren ondoreetarako ez proposatzea FINA 14 «Arautze-kontu geroratuak» araua onartzea (FINA-IASBaren ondoreetarako, 2016ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean); izan ere, tarifa arautuak dituzten jardueretan sortzen diren saldo batzuen kontabilitate-tratamenduari buruzko bitarteko arau bat denez, oso gutxi dira ukituko dituen Europako enpresak. Tarifa arautuak dituzten jarduerei buruzko arau bat jorratuko da, ohiko prozesuaren barrenean onartzeko.

(iii) Hasieran, 2021eko urtarrilaren 1a zen FINA 17aren hasiera-data; baina, 2020ko ekaineko aldaketen eraginez, 2023ko urtarrilaren 1era atzeratu da.

c) Erroreak eta aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-erroreak

Urteko kontu bateratuak egitean aurreko ekitaldietan sortutako erroreak ez-egiteen edo zehaztasun-falten ondorio dira, eta horiek epealdi horietarako urteko kontu bateratuak egitean eskura zegoen eta Entitate Nagusiak egoera-orriok egitean erabili behar zukeen informazio fidagarria erabiltzean egindako hutsegiteenak.

Aurreko ekitaldietako erroreak horiek aurkitu ondorengo lehen urteko kontu bateratuetan zuzentzen dira atzeraeraginez, inoiz egin izan ez balira bezala, eta:

- erroreak ukitu dituen egoera-orri finantzarioetako kontu-sailen zenbatekoak, urteko kontu bateratuetan alderatzeko argitaratzen direnak eta errorea gertatu den ekitaldiari eta ondorengoetakoei dagozkienak, berriro ematen dira, txosten bateratuko oharrak barne hartuta, eta, bidezkoa bada,

- informazioa dugun ekitaldirik zaharrenaren irekiera-balantze bateratua berriro ematen da, baldin eta alderatzeko aurkezten diren finantzetako lehen egoera-orri bateratuak baino lehenago gertatu bazen errorea.

Ezinezkoa denean lehenagoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioaren gainean errore batek ekitaldi bakoitzean izango dituen eraginak zehaztea, hasierako saldoak berriro ematen dira, hori egin daitekeen ekitaldirik zaharrenetarako. Ezinezkoa denean aurreko ekitaldi guztietako errore batek uneko ekitaldiaren hasieran izango duen eragin metatua zehaztea, alderatzeko informazioa berriro ematen da, atzeraeraginez, aukera dagoen datarik urrunekoenetik.

Ondare garbi bateratuari eragiten dioten aurreko ekitaldietako erroreak aurkitzen diren ekitaldian zuzentzen dira, kasuan kasuko ondare garbiko kontu bateratua erabiliz. Aurreko ekitaldietako erroreak ez dira sekula horiek aurkitu direneko ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua erabiliz zuzenduko. Bi salbuespen daude: garrantzi erlatiborik ez izatea eta, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraikiz, errorearen eragina zehaztea ezinezkoa izatea.

Aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-estimazio batean aldaketak egitea, doikuntzak egitea da; hain zuzen ere, aktibo edo pasibo baten kontabilitate-balioan edo aktibo baten aldizkako kontsumoan doikuntzak egitea. Horretarako, elementuaren egungo egoera, etorkizunean espero diren mozkinak eta kasuan kasuko aktibo eta pasiboei lotutako betebeharrak hartzen dira kontuan.

Kontabilitate-estimazioetan aldaketak egin ahal izateko, aparteko informazioa edo gertakari berriak lortu behar dira, eta, beraz, aldaketak ez dira erroreen zuzenketak. Aldaketok etorkizunera begira aintzatesten dira aldaketak eragindako ekitaldiko edo etorkizuneko ekitaldiko edo ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan.

2021eko eta 2020ko ekitaldietan ez da aurreko ekitaldiei dagokien errore-zuzenketa nabarmenik egin. Bestalde, kontabilitate-estimazioetan ere ez da egin ekitaldi horiei eragiten dien edo etorkizuneko ekitaldiei eragin ahal dien aldaketa nabarmenik.

## 4. Ekitaldiko soberakinaren aplikazioa

Kreditu Kooperatibei buruzko 13/1989 Legearen arabera —Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuen—, Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratzen ez diren zenbatekoak Batzar Nagusiaren esanera jarri behar dira. Batzarrak honela bana ditzake:

- Bazkideei banatu edo itzulita.
- Borondatezko Erreserba Funtsera bideratuta.

Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarrita dagoenez, soberakin erabilgarria honela banatuko da, nahitaezko kapitalari edo kaudimen-koefizienteari erantzuteko sortzen diren obligazioak betetakoan:

- % 50, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Funtsera.

- % 25, gehienez, sozietatearen eta kooperatiben arteko sustapen-beharrei erantzuteko. Zehazki, % 10 gutxienez Heziketako eta Sustapeneko Funtsera bideratuko da eta % 15, gehienez, Kooperatiba arteko Funts Sozialera.

- Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku geratuko da, eta hark honela banatu ahal izango du: bazkideentzako itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Funtsetarako edo antzekoetarako.

Kooperatiba-itzulkinetarako zenbatekoa erdibanatu egingo da lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, lan-bazkideek beren lan-aurrerakinen arabera jasoko dute bazkideentzako itzulkina, eta gainerako bazkideek Entitate Nagusiarekin egindako eragiketen arabera.

COVID-19 gaixotasunaren hedapenak eragindako pandemia globala dela eta, 2020ko ekitaldian eta 2021ekoaren zati batean, Europako Banku Zentralak 2020ko martxoan, uztailean eta abenduan plazaratutako gomendioak eman dizkie Espainiako Bankuak berak gainbegiratzen dituen entitateei; hau da, muga dezatela bazkideentzako dibidenduen eta bestelako ordainsarien banaketa.

Agertoki horretan, Europako Banku Zentralaren 2020ko abenduko ECB/2020/62 Gomendioari jarraikiz egin zen soberakina banatzeko gomendioa, Espainiako Bankuak bat egin baitu gomendioarekin.

2021eko uztailaren 23an Espainiako Bankuak jakinarazi duenez, irabaziak banatzeari eta ordainketa aldakorrari buruzko gomendioa ez da luzatuko 2021eko irailaren 30etik aurrera, EBZren gomendioarekin (ECB/2021/31) bat etorriz.

Hauxe da Entitate Nagusiaren 2021eko ekitaldiko emaitzen soberakina banatzeko proposamena, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari onesteko aurkeztuko diona, eta 2020rako onetsita dagoena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Banaketa: | | |
| - Kapital sozialerako ekarpenen ondoriozko interes gordinak (38. oharra) | 31.640 | 9.784 |
| - Nahitaezko Erreserba Funtsa | 36.739 | 38.757 |
| - Heziketako eta Sustapeneko Funtsa (*) | - | - |
| - Itzulkin kooperatiboak | 18.369 | 19.379 |
| - Kooperatiba arteko Funts Soziala | 11.022 | - |
| - Borondatezko Erreserba Funts Banagarria | - | 11.627 |
| Ekitaldiko emaitza | 97.770 | 79.547 |

(*) Heziketako eta Sustapeneko Funtserako zenbatekoa nahitaezko minimoari dagokio, eta 2021ean 7.348 mila eurokoa eta 2020an 7.751 mila eurokoa izan da (56. oharra).

## 5. Negozio-segmentuen araberako informazioa

FINA 8 araua aplikatuta, negozio-segmentuen finantza-betetzeari buruzko informazioa emango dugu jarraian, Entitate Nagusiaren Zuzendaritzak segmentu horien etekina ebaluatzeko barruan erabiltzen duen informazioa oinarri hartuta.

FINA 8aren arabera, segmentu operatiboen berri eman behar da, baldin eta haien sarrera arruntak segmentu operatibo guztien sarrera arrunt agregatuen % 10ekoak badira gutxienez edo haien emaitzak magnitude hauetako handienaren % 10ekoak badira behintzat: (i) galerarik aitortu ez duten segmentu operatibo guztien irabazien batura eta (ii) galerak aitortu dituzten segmentu operatibo guztien galera deklaratuen batura. Edo, bestela, haien aktiboak gutxienez segmentu operatibo guztien aktiboen baturaren % 10ekoak badira. Era berean, segmentu operatiboen berri eman behar da, tamaina edozein dutelarik ere modu agregatuan Taldearen sarrera arrunten % 75 behinik behin osatzen badute.

Negozio-segmentuen araberako informazioa oinarrizko tresna da LABORAL Kutxa Taldearen jardueren jarraipena eta gestioa egiteko:

a. Segmentazio-irizpideak

- Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian azaltzen diren negozio-unitateak LABORAL Kutxa Taldearen egiturak eta antolakuntzak ezarritako negozio-lerroen arabera ezarri dira:

- Txikizkako banku-jarduera
- Aseguruen negozioa

Txikizkako Banku-jarduerak inbertsio-produktuak eta aurrezki-produktuak eskaintzen ditu. Inbertsioari dagokionez, hipoteka-produktuak, kontsumorako kreditua, zirkulatzailea eta enpresentzako finantzaketa merkaturatzen dira bereziki. Aurrezkiari dagokionez, berriz, gordailuak (agerikoak eta eperakoak), abalak, ordainbideak (kreditu- eta zordunketa-txartelak), inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak dira produktu nagusiak. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok gauzatzen du, batik bat, negozio hori, bere bulego-sarearen bidez edo berorrek % 100ean mendean dituen sozietate batzuen bidez, Entitate Nagusiaren jardueraren luzapen zuzentzat hartzen baitira. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreari dagokio erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Aseguruen negozioaren barruan, bestalde, Taldeak Seguros Lagun Aro Vida SAren eta Seguros Lagun Aro SAren bidez egiten dituen jarduerak sartzen dira. Taldeak bizitza-arriskuko, bizitza-aurrezkiko eta *unit linked* izeneko aseguruak merkaturatzen ditu bizitza-aseguruen jardueraren barruan. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. Bi sozietateon Administrazio Kontseiluei dagokie erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Hala ere, LABORAL Kutxa Taldearen barruan egoteagatik ezartzen zaien kontrolarekin hartzen dira Taldearen negozio guztietako erabakiak.

- Segmentazio geografikoa

Taldeak 285 bulegoko sarearen bidez gauzatzen du bere jarduera, 2021eko abenduaren 31ko datuetan. Horietatik 172 Euskal Autonomia Erkidegoan daude, 38 Nafarroan eta 75 Estatuko gainerako lurraldeetan (2020ko abenduaren 31n, 301 bulego ziren, horietatik 183 Euskal Autonomia Erkidegoan, 40 Nafarroan eta 78 Estatuko gainerako lurraldeetan).

Taldearen finantza-aktiboen eta maileguen eta kobratzeko partiden banaketa geografikoa urteko kontu bateratu hauetako 21. oharrean xehakatu dira. Taldearen diru-sarrerei dagokienez, gehientsuenak Espainian sortzen dira.

Beraz, esparru geografikoa segmentatzeko irizpideei dagokienez, ez da alderik ikusi Taldearen jarduera-eremuen artean (Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren eta Estatuko gainerako lurraldeen artean), eta, beraz, ez dago irizpide horren arabera informazioa bereizi eta zatikatu beharrik.

b. Informazio zatikatua lantzeko erabili diren oinarriak eta metodologia

Informazio hau osatzeko, LABORAL Kutxa Taldea osatzen duten sozietateen kontabilitate indibiduala hartu da kontuan, dagozkion baterakuntzako ezabapenak eta doikuntzak eginda.

Negozio-unitate bakoitza negozio independentetzat hartzen denez, negozioen artean diru-sarreren eta gastuen fluxuak gertatzen dira produktuak, zerbitzuak edo sistemak banatzeko zerbitzuak emateagatik. Ezabapenak eta doikuntzak segmentuen arteko barruko emaitzak ezabatzeari dagozkie funtsean. Horrek, azkenean, ez du eraginik Taldearen emaitza-kontuan.

c. Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian, 2021eko eta 2020ko ekitaldietako balantze bateratura eta galdu-irabazien kontu bateratura egin diren ekarpen nagusiak azaltzen dira, kontuan hartu gabe taldeko entitateekin egindako transakzioen eragina:

| | 2021 | | |
|---|---|---|---|
| | Txikizkako banku-jarduera | Aseguruen negozioa | Taldean guztira |
| **Galdu-irabazien kontu bateratua:** | | | |
| Marjina gordinari ekarritakoa | 361.608 | 41.558 | 403.166 |
| Administrazio-gastuak | 199.607 | 24.127 | 223.734 |
| Ekitaldiko emaitza | 87.737 | 13.696 | 101.433 |
| **Balantze bateratua:** | | | |
| Aktiboak guztira | 27.817.019 | 746.134 | 28.563.153 |

| | 2020 | | |
|---|---|---|---|
| | Txikizkako banku-jarduera | Aseguruen negozioa | Taldean guztira |
| **Galdu-irabazien kontu bateratua:** | | | |
| Marjina gordinari ekarritakoa | 361.817 | 40.796 | 402.613 |
| Administrazio-gastuak | 186.716 | 23.329 | 210.045 |
| Ekitaldiko emaitza | 65.288 | 14.397 | 79.685 |
| **Balantze bateratua:** | | | |
| Aktiboak guztira | 27.127.171 | 776.975 | 27.904.146 |

## 6. Gutxieneko koefizienteak

### 6.1 Gutxieneko baliabide propioen koefizienteak

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordea arduratzen da nazioarteko finantza-arauketa bateratzeaz. Batzorde horrek hartutako erabakien bidez kreditu-erakundeetarako taxututako lehen arautegian, arrisku guztien gainean % 8ko gutxieneko kapitala finkatu zen (Basilea I, 1988). Geroago, 2004an, Basilea II akordioak hobetu egin zuen arriskua estimatzeko mekanismoen sentikortasuna, eta beste 2 zutabe eman zituen: erakunde bakoitzak bere kapitala eta arriskuak ebaluatzearena (II. zutabea) eta merkatu-diziplinarena (III. zutabea). 2010eko abenduan, arau-esparru berria onartu zuen Batzordeak: Basilea III, alegia. Kalitate handiagoko tresnen bidez, kapital-eskakizunak handitzen ditu, eta sendoa izatea eta erakundeetan eta herrialdeetan homogeneotasunez aplikatzea du xede. Kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetzen ditu kapitalari buruzko akordio berriak. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ere erantsi zituen, likideziaren eta palanka-efektuaren alorretan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikora eraman zituen Basilea III akordio horiek, 2019ko urtarrilaren 1era arte iraun zuen fasekako (*phase-in*) eredu baten bidez. Horretarako, arau hauek onartu zituen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/36/EB Zuzentaraua (CRD-IVa), 2013ko ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 EB Erregelamendua (CRR), 2013ko ekainaren 26koa, kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzkoa. Arau horiek, Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean argitaratu ondoren, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzen dira.

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartetik datozen araudi-aldaketetara egokitzeko asmoarekin, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa, onetsi zen, 2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren 2/2014 Zirkularrak, trantsizio-epealdian aplikatzekoak diren errekerimenduetarako arautze-aukerak ezartzen dituenak, abiatutako transposizioari jarraikiz. Indarreko araudiak (I. zutabeak) ezartzen dituen gutxieneko baliabide propioak kalkulatzeko, Taldearen kreditu-arriskua, truke-arriskua, negoziazio-zorroaren arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua hartzen dira kontuan. Horrez gain, arrisku-kontzentrazioaren mugak bete behar ditu Taldeak.

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuak, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa, garatzen duenak, Lege horren araudi-garapena osatzen du, eta testu bakar batean elkartzen ditu kreditu-erakundeen antolamenduari eta diziplinari buruzko erregelamendu-mailako arau guztiak, hura argitaratu arte eman zirenak.

Halaber, azpimarratzekoa da 2015-2019 epealdian CRR Erregelamendua osatzen duten arau berriak argitaratu zirela, funts propioei, likideziari, I. zutabeko arriskuei eta kapital-errekerimenduei dagozkien gaietan.

Horrela, bada, 2016ko otsailaren 2an, Espainiako Bankuak 2/2016 Zirkularra jaulki zuen, Espainiako 2013/36/EB Zuzentarauaren ordenamendu juridikorako transposizioa egiteko helburuz, kreditu-erakundeei dagokienez. Horrez gain, 575/2013 EB Erregelamenduak nazioko agintaritza eskudunari aitortzen dizkion aukeretako bat jasotzen du Zirkularrak, Espainiako Bankuak 2/2014 Zirkularrean erabilitakoak osatuz.

Zirkular horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 2011/89/EB Zuzentarauaren transposizioaren alderdi batzuk ere garatzen ditu. 2011/89/EB Zuzentarauak 98/78/EE, 2002/87/EE, 2006/48/EE eta 2009/138/EE Zuzentarauak aldatzen ditu, finantza-konglomeratu bat osatzen duten finantza-erakundeen gainbegiratze osagarriari dagokionez. Zuzentarau horren transposizioa eginda dago, funtsean, bai 10/2014 Legeak bai 84/2015 Errege Dekretuak, hurrenez hurren, 5/2005 Legean, apirilaren 22koan —finantza-multzoen ikuskaritzari buruzkoa eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituena— eta lege hori garatzen duen 1332/2005 Errege Dekretuan egindako aldaketen bidez.

2017ko ekitaldian, Espainiako Bankuaren 2017ko urriaren 24ko 3/2017 Zirkularra kaleratu zen, 2014ko urtarrilaren 31ko 2/2014 Zirkularra aldatzen duena. Zirkular horren funtsezko helburua da 2/2014 Zirkularraren alderdi batzuk, hain zuzen garrantzirik txikieneko kreditu-erakundeei dagozkienak, Europako Banku Zentralak erakunde garrantzitsuentzat onartutako azken xedapenetara egokitzea —batez ere, Europako Banku Zentralaren 2017ko apirilaren 4ko 2017/697 EB Orientazioa, Europar Batasuneko zuzenbideak garrantzirik txikieneko erakundeei dagokienez agintaritza nazional eskudunei eskaintzen dizkien aukera eta ahalmenei buruzkoa—. Era berean, kendu egin ziren 2017ra arte ezarri beharrekoak ziren aukera iragankorrei buruzko arauak.

Azkenik, 2019ko ekitaldian Espainiako Bankuaren 2019ko urriaren 22ko 3/2019 Zirkularra kaleratu zen, 557/2013 EB Erregelamenduak emandako ahalmena erabiltzekoa, mugaeguneratutako obligazioen nabarmentasun-muga zehazteko. 2020ko abendutik aurrera aplikatzekoa zen.

Horrez gain, 2020an, COVID-19aren krisi-egoeran, 2020/873 EB Erregelamendua onartu zen, honako alderdi hauek barne hartuta: FINA 9 araua aplikatzeari buruzko xedapen iragankorrak luzatzea, aldi baterako zuhurtziazko iragazki bat sartzea bonu subiranoen esposizioen gainean, palanka-efektuaren ratioa desberdin kalkulatzea aldi batez, entitate sistemikoei adierazle horren gainean aurreikusitako koltxoiak eskatzeko data 2023ko urtarrilaren 1era geroratzea, pentsioen edo soldaten bidez bermatutako mailegu jakin batzuetan (eta ETE eta azpiegiturei zuzendutako maileguetan) kapital-eskakizunak murrizteko neurriak eta esportaziorako kreditu-agentziek bermatutako zalantzazko maileguetako lehentasunezko tratua sektore publikoko beste bermatzaile batzuei zabaltzea.

Horrez gain, Batzordearen 2020/2176 Erregelamendu Eskuordetua argitaratu zen, programa informatikoen barne-garapenei lotutako aktibo ukiezinei buruz indarrean dagoen kenkaria aldatzekoa. Europako Banku Zentralaren 2021eko ekainaren 18ko 2021/1074 Erabakiak, berriz, berronetsi egin du hau: 2019ko abenduaren 31tik ez dira aldatu zenbait baldintza berezi, hain zuzen ere justifikatzen dutenak baldintza jakin batzuk betetzen dituzten banku-zentralen aurreko esposizioen palanka-efektuaren ratioarekiko esposizio osoa salbuestea. Salbuespen hori 2022ko martxoaren 31ra arte luzatuko da —aurreko salbuespen-aldia, Europako Banku Zentralaren 2020ko irailaren 16ko 2020/1306 Erabakian ezarritakoa, 2021eko ekainaren 28an amaitu zen—.

Aurreko paragrafoetan aipatutako araudia osatzeko, CRD V zuzentaraua Espainiako araudira eraman da hauen bidez: 7/2021 Errege Lege Dekretua, apirilaren 27an argitaratua; 970/2021 Errege Dekretua, azaroaren 9an argitaratua, 84/2015 Errege Dekretua aldatzen duena, eta Espainiako Bankuaren 5/2021 Zirkularra, abenduaren 23an argitaratua, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularra aldatzen duena. Horrela, amaitu egin da Europako araudian ezarritako kreditu-erakundeen gainbegiratze- eta kaudimen-eskakizunak Espainiako araudira egokitzeko prozesua.

CRR Erregelamenduan ezarritako errekerimenduei jarraikiz, kapitalaren % 8ko ratioa bete beharko dute, une oro, kreditu-erakundeek. Dena den, kontuan izan behar dugu arau-esparru berrian arautzaileek beren ahalmenak erabil ditzaketela, erakundeei aparteko kapital-maila bati eustea eskatzeko.

Zentzu horretan, Entitate Nagusiak jakinarazpen bat jaso zuen Espainiako Bankutik, Entitateari aplikagarri zaizkion zuhurtziazko gutxieneko errekerimenduen inguruko erabakiari buruz. Horren arabera, LABORAL Kutxak % 8,375eko CommonEquityTier 1 (CET 1) ratioa izan behar du, kapital erregulatorioaren gainean neurtua. Baldintza horrek barne hartzen ditu I. zutabeak eskatzen duen gutxienekoa eta II. zutabearen errekerimendua, bai eta kapitalari eusteko koltxoia ere. Aldi berean, I. zutabearen % 8ko eskakizunetik abiatuz, Kapital Osoaren gutxieneko errekerimenduak % 11,875ekoak dira.

CET1aren % 8,375en errekerimenduak osagai hauek ditu: I. zutabeak eskatzen duen CET1aren gutxienekoa (% 4,5ekoa), II. zutabearen errekerimendua (% 1,375ekoa) eta kapitalari eusteko koltxoia (% 2,5ekoa).

Hona hemen Taldearen Entitate Nagusiaren zuzendaritzak baliabide propioen kudeaketaren inguruan finkatutako helburu estrategikoak:

- Gutxieneko baliabide propioen inguruan aplikatzekoa den araudia une oro betetzea, bai banaka bai taldean.

- Baliabide propioen kudeaketan efizientziarik handiena bilatzea, errentagarritasuneko eta arriskuko beste aldagai batzuekin batera baliabide propioen kontsumoa funtsezko aldagaitzat hartu dadin, Taldeko inbertsio-erabakiak hartzeko egiten diren analisietan.

Helburu horiek betetzeko, baliabide propioak kudeatzeko hainbat politika eta prozesu ditu Taldeak ezarrita. Hauek dira horien jarraibideak:

- Taldeak jarraipeneko eta kontroleko unitate bat du, Entitatearen Arriskuen Zuzendaritzaren mendean. Espainiako Bankuak baliabide propioez ezarrita duen araudia zenbateraino ari den betetzen aztertzen du.

- Taldearen antolamendu estrategiko eta komertzialean, horiek Taldearen baliabide propio konputagarrietan duten eragina eta kontsumoaren, errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko erlazioa gakotzat hartzen dira erabakiak hartzeko orduan.

- Taldearen kaudimen-egoerari eta etorkizuneko plangintzari etengabeko jarraipena eginez monitorizatzea. Bi agertoki hartzen dira kontuan: nagusia, datozen hiru ekitaldietarako gertagarriena den hipotesiarekin, eta hainbat estres-agertoki, askotariko aurkako egoerak gainditzeko duen finantza-gaitasuna ebaluatzeko helburuarekin.

Aurrez azaldu dugun kaudimen-araudian xedatutakoari lotuz kudeatzen ditu Taldeak bere baliabideak, definizio kontzeptualei dagokienean.

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| 1. mailako kapital arrunta (CET1) | | |
| Kapitala | 786.368 | 777.906 |
| Emaitza onargarriak | 58.771 | 69.901 |
| Erreserbak | 1.030.165 | 979.389 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (429.916) | (147.932) |
| (–) Beste kenketa batzuk | (63.923) | (62.908) |
| (–) CET1 doikuntzak, zuhurtziazko iragazkiak direla eta | 472.280 | 188.420 |
| | 1.853.745 | 1.804.776 |
| 1. mailako kapital gehigarria | | |
| Kapital-tresna onargarriak | - | - |
| | - | - |
| 2. mailako kapitala | - | - |
| Kapital-tresnak eta mendeko maileguak | - | - |
| Kreditu-arriskuetarako estaldura osagarria metodo estandarraren bidez | - | - |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | - | - |
| Heziketako eta Sustapeneko Funtsa | - | - |
| (–) Doikuntza iragankorrak | - | - |
| | - | - |
| Beste kontzeptu eta kenketa batzuk | - | - |
| Funts propio konputagarriak guztira | 1.853.745 | 1.804.776 |
| Funts propio minimoak guztira | 679.815 | 680.951 |
| Arriskuaren arabera haztatutako aktiboak | 8.497.691 | 8.511.884 |

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Taldeak zituen gutxieneko baliabide propioen daturik garrantzitsuenak:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| 1. mailako kapital arruntaren ratioa (CET1) | % 21,81 | % 21,20 |
| 1. mailako kapitalaren ratioa | % 21,81 | % 21,20 |
| Kapital-ratioa guztira | % 21,81 | % 21,20 |

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, Taldeak betetzen du araudi hori.

## 6.2 Gutxieneko erreserben koefizienteak

1998ko irailaren 29ko 1/1998 Zirkular Monetarioak, 1999ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenak, indargabetu egin zuen hamar urterako kutxa-koefizientea, eta, horren ordez, gutxieneko erreserben koefizientea jarri zuen.

Europar Batasunaren 2011ko abenduaren 21eko egunkari ofizialak Europako Banku Zentralaren 2011ko abenduaren 14ko 1358/2011 EB Erregelamendua argitaratu zuen, Gutxieneko Erreserbak aplikatzeari buruzko 1745/2003 EB Erregelamendua aldatu zuena. Aldaketa honako hau izan zen: Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 8an erabakitako erreserba-koefizientearen murrizketa jasotzea. Erabaki horren arabera, erakunde lotuek 2012ko urtarrilaren 18tik aurrera eutsi beharreko gutxieneko erreserba-koefizientea % 2tik % 1era murriztu zen.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, eta 2021eko eta 2020ko ekitaldietan, araudi aplikagarriak une bakoitzean koefiziente horretarako ezarritako gutxienekoak betetzen zituen Entitate Nagusiak.

2021eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 2.893.077 mila euroko zenbatekoa du, helburu horrekin, Espainiako Bankuko kontuan (2.623.498 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n) (21. oharra). Dena den, mantentze-aldian kontu horretan dauden amaierako saldoen batez bestekoa hartzen da kontuan, araudi aplikagarriak gutxieneko erreserben koefiziente hori betetzeko eskatzen duen saldoa kalkulatzeko.

## 7. Entitate Nagusiko kontseilarien eta goi-zuzendarien ordainsariak

### a) Estatutuetako ezarpenak

Kontseilu Errektoreko lan-bazkideek ez dute ordainsaririk jaso Kontseiluko kide izateagatik, ez finkorik ez aldakorrik, Entitate Nagusiko «ohiko» lanpostua betetzearren jasotzen dutenaz gain. Era berean, Kontseilu Errektoreko gainerako kideek ere ez dute inolako ordainsaririk jaso kontseilari izateagatik.

Caja Laboral Popularrek ordaindu egiten du lehendakariaren lana, eta, zehaztutako prozeduren bitartez, Caja Laboral Popular Coop. de Créditok finkatutako ordainsariei buruzko irizpideak aplikatzen ditu.

Jarraian, Kontseilu Errektoreko lehendakariak jasotako ordainsariak ageri dira:

| | **Epe laburreko ordainsariak eta dietak** | |
|---|---|---|
| | **2021** | **2020** |
| Kontseilu Errektoreko lehendakaria | 168 | 135 |
| | 168 | 135 |

### b) Kontseilu Errektorearen eta goi-zuzendaritzako kideen beste ordainsari batzuk

Hona hemen Kontseilu Errektoreko 5 lan-bazkideek beren lanpostuetan jaso dutena, 2021eko abenduaren 31n (4 lan-bazkidek 2020ko abenduaren 31n):

| | **Epe laburreko ordainsariak eta dietak** | |
|---|---|---|
| | **2021** | **2020** |
| Kontseilu Errektoreko kideak | 333 | 254 |
| | 333 | 254 |

Era berean, 11 lagun hartu dira Entitate Nagusiko goi-zuzendaritzako kidetzat, 2021eko abenduaren 31n Zuzendaritza Kontseilua osatzen dutenak alegia —2020ko abenduaren 31n 11 ziren—.

Taula honetan bildu ditugu talde horrek aurrez zehaztu dugun eran jasotakoak:

| | Epe laburreko ordainsariak eta dietak | |
|---|---|---|
| | 2021 | 2020 |
| Goi-zuzendaritza | 1.475 | 1.433 |
| | 1.475 | 1.433 |

Bestalde, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan, Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideek 217,29 mila euro eta 216,95 mila euro jaso dituzte, hurrenez hurren, konturako kapital-ordainketengatik (interesengatik) eta erabilgarri dagoen soberakinaren (kooperatiba-itzulkinen) banaketa osagarriagatik.

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideen alde ekitaldian adierazitako ordainsariez gain, beste sarrera eta gastu batzuk ere erregistratu dira 2021eko eta 2020ko galdu-irabazien kontuan, hain zuzen ere Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketenak, eta horien xehetasunak aurkeztuko ditugu jarraian:

| | Finantza-sarrerak | | Finantza-gastuak | | Komisioen ondoriozko sarrerak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 |
| Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideak | 2 | 3 | - | - | 7 | 5 |

Taldeko partaidetzapeko erakundeen administrazio-kontseiluetan Entitate Nagusiaren izenean jarduten duten goi-zuzendariek ez dute, 2021ean eta 2020an, inolako ordainsaririk jaso partaidetzapeko erakunde horietako kontseilari izateagatik.

c) Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekiko mailegu, kreditu, eperako gordailu, abal eta konpromisoak

Entitatearen Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketen ondorioz 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n balantzean erregistratu diren aktiboko eta pasiboko saldoen xehetasuna eskainiko dizuegu jarraian:

| | Aktiboa - emandako maileguak (zenbateko gordina) | | Aktiboa - kreditu-kontuak (zenbateko gordina) | | Pasiboa - ageriko eta eperako gordailuak | | Abalak eta konpromisoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 |
| Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideak | 2.181 | 1.838 | - | - | 2.052 | 2.035 | - | - |

## 8. Agentziako kontratuak

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren 21. artikuluarekin bat —2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoa garatzen du—, kreditu-erakundeen jarduerako ohiko eragiketak Entitate Nagusiaren izenean eta kontura bezeroekin negoziatzeko edo formalizatzeko 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n ahalordeak emanda dauden pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda dator, II. eranskinean.

Zerrenda hori behar bezala jakinarazi zaio Espainiako Bankuari, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n.

## 9. Ingurumenarekiko inpaktua

Taldearen eragiketa globaletan, besteak beste, ingurumena eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko legeak zaintzen dira. Taldeak uste du behar bezala betetzen dituela legeok, eta horiek betetzen direla bermatzeko diseinatutako prozedurak dituela ezarrita.

Taldearen ustez, beharrezko neurriak hartu ditu ingurumena babestu eta hobetzeko edota, dagokionean, ingurumen-inpaktua minimizatzeko, betiere indarrean dagoen araudia betez. Horren haritik, 2001ean ISO 14001 Arauaren araberako Ingurumen Kudeaketako Ziurtagiria lortu zuen Entitate Nagusiak, eta oraindik ere indarrean du.

2021eko eta 2020ko ekitaldietan, Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektorearen iritziz klima-arriskuek ez dute eragin nabarmenik izan 2021eko eta 2020ko ekitaldietako finantzetako egoera-orri bateratuetan. Alde horretatik, arlo hauek hartu dira aintzat azterketarako:

- Finantza-aktiboen arrazoizko balioaren estimazioa. Kotizatutako finantza-aktiboen kasuan, klima-arriskuak balioztapenean duen edozein eragin berorren merkatuko prezioan jasoko da. Kotizatu gabeko finantza-aktiboei dagokienez, erabaki da klima-arriskuek ez dutela eragin nabarmenik haiek baloratzeko erabilitako hipotesi eta inputetan.

- Finantza-aktiboen kreditu-arriskuagatiko horniduren zenbatespena. Taldearen iritziz, gaur egun ez da nabarmena klima-arriskuek finantza-aktiboetan espero den galeran duten eragina; izan ere, klima-aldaketak kreditu-hartzaileengandik espero diren diru-fluxuetan izan ditzakeen ondorioak Taldeak emandako finantzaketaren batez besteko bizitza baino epe luzeagoan agertuko dira (ikusi 13.h oharra).

- Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteen eta elementu-talde besterengarrien eta higiezinetako izakinen balioztapena. Arrisku klimatikoek ez dute eraginik izan urteko kontu hauen 13.s eta 13.v oharretan adierazitakoaren arabera kalkulatuta dauden aktibo horien narriaduragatiko galerak zehazterakoan.

- Aktibo ukigarrien narriadura-testa. Taldeak ez du ingurumen-kontuek eragiteko moduko aktiborik. Lehenengo azterketa egin ondoren, ez da uste epe laburrean edo ertainean narriadura-aztarnarik egon daitekeenik, ez eta horien balio-bizitza aldatzeko arrisku nabarmenik dagoenik ere.

- Aseguru-kontratuen pasiboengatiko balioztapena. Taldearen ustez ez dago eragin nabarmenik klima-arriskuak ekar ditzakeen aseguru-kontratuen pasiboen balioztapenean (13.t oharra).

Entitateak ez du beharrezkotzat jo inolako hornidurarik egitea ingurumen-arrisku eta -gastuetarako, alor horretan ez baitago urteko kontu bateratu hauetan eragin nabarmenik izan dezakeen kontingentziarik.

2021ean, finantza jasangarriko estrategia bat diseinatzen eta ezartzen ibili da Taldea. Egiturak eta sistemak egokitu nahi dira, egoera berri horri aurre egiteko eta egoera horretatik eratorritako aurreikuspenak eta erregulazioak betetzeko. Ahalegin horren funtsezko elementu bat hauxe da: ingurumen-arriskuak eta klima-aldaketarenak Taldearen arriskuaren kudeaketan txertatzea, eta horiek egoki gestionatzeko behar diren datu-baseak eta informazioa lortzea. Prozesu horretan, garrantzitsua izan da urtearen amaieran jasangarritasunaren gobernantza onartu izana —jasangarritasunaren arloko rolak eta erantzukizunak ezartzen ditu—.

## 10. Suntsiarazpen Funts Bakarra eta Gordailuak Bermatzeko Funtsa

### 10.1 <u>Suntsiarazpen Funts Bakarra</u>

11/2015 Legeak, ekainaren 18koak, eta hori garatzen duen 1012/2015 Errege Dekretuak, azaroaren 6koak, 2014ko maiatzaren 15eko 2014/59/EB Zuzentaraua ordenamendu juridiko nazionalera transposatzea arautzen dute. Arau horrek esparru berria finkatu du, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak suntsiarazteko. Hain zuzen, Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra osatzen dutenetako bat da. 2014ko uztailaren 15eko 806/2014 EB Erregelamenduak hainbat arau eta prozedura finkatzen ditu kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak suntsiarazteko, Europako Suntsiarazpen Mekanismo Bakarraren eta Suntsiarazpen Funts Bakarraren esparruan.

Araudi hori garatzeko, 2016ko urtarrilaren 1ean Suntsiarazpen Funts Bakarra sartu zen indarrean. Suntsiarazpenaren alorreko erabakiak hartzeari dagokionez Europako agintaria den Suntsiarazpen Batzorde Bakarrarentzako finantzaketa-tresnatzat eratu zen, berak hartutako suntsiarazpen-neurriak eraginkortasunez ezartzeko asmoz. Berari atxikitako kreditu-erakundeek eta inbertsio-zerbitzuak emateko enpresek elikatuko dute Suntsiarazpen Funts Bakarra.

Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra Suntsiarazpen Funts Bakarrean euskarritzen da. Funts hori bankuen ekarpenez zuzkituko da, 2024ko abenduaren 31ra arteko epealdian, bermatutako gordailuen % 1eko tamainara iritsi arte.

2015/63 EB Erregelamenduak arautzen duen Suntsiarazpen Funts Bakarrera entitate bakoitzak egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, atxikitako entitateen pasibo osoen guztizko agregatuan entitateari dagokion proportzioa hartzen da aintzat, berorren baliabide propioak eta gordailuetan bermatutako zenbatekoa kenduta. Ateratzen den kopurua entitatearen arrisku-profilari egokitzen zaio ondoren. Suntsiarazpen Funts Bakarrera ekarpena egiteko eginbeharra urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean sortuko da.

2021eko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpenaren gastua 4.848 mila eurokoa izan da (3.458 mila eurokoa 2020ko ekitaldian) (56. oharra). Gastu hori FINAIB 21 arauaren arabera kontabilizatu da, Gordailuak Bermatzeko Funtsak aintzatetsitako gastuaren antzera.

## 10.2 Gordailuak Bermatzeko Funtsa

Entitate Nagusia Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsean dago sartuta.

1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuak, 2015eko azaroaren 6ko 1012/2015 Errege Dekretuak aldatu zuenak, hauxe ezartzen du: Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak finkatuko ditu Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsera atxikitako erakundeen urteko ekarpenak. 2021eko ekitaldian, 2020ko abenduaren 31n bermatuta zeuden gordailuen milako 1,7ko ekarpena finkatu zuen Gestio Batzordeak (2020ko ekainaren 30ean bermatuta zeuden gordailuen milako 1,8koa izan zen 2020ko ekitaldian). Entitate bakoitzaren ekarpena kalkulatzeko, bermatutako gordailuen zenbatekoa eta arrisku-profila hartzen dira aintzat, bai eta zenbait adierazle ere: kapitalaren egokitasuna, aktiboen kalitatea eta likidezia. Horiek Espainiako Bankuaren 2016ko maiatzaren 27ko 5/2016 Zirkularrak garatu ditu —1/2018 Zirkularrak aldatu zuen—. Era berean, 2021eko abenduaren 31n zaintzan dauden baloreen eta beste finantza-tresna batzuen % 5en milako 2an finkatu da balore-bermeen konpartimentura egin beharreko ekarpena.

Aurreko paragrafoan aipatu diren ohiko ekarpenen gastua FINAIB 21en arabera sortzen da, ordainketa-betebeharra dagoenean —urte bakoitzeko abenduaren 31n izan ohi da—.

2012ko uztailaren 30ean, berari atxikitako entitateen artean aparteko derrama bat egitea erabaki zuen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak: entitate bakoitzak urteko 10 kuota berdin ordainduko ditu. Entitate Nagusiaren derramaren zenbatekoa 35.277 mila eurokoa da: 3.522 milana euroko urteko 10 kuota. Dagokionean Entitate Nagusiak ordaintzen duen urteko ohiko ekarpenetik kenduko dira kuota horiek, ohiko ekarpen horren zenbatekoraino. 2021eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak erregistratuta du 3.523 mila euroko (2020ko abenduaren 31n 7.046 mila euroko) konpromiso hori; hain zuzen, balantze bateratuko aktiboko «Beste aktibo batzuk – Beste periodifikatze batzuk» epigrafean (33. oharra) eta balantze bateratuko pasiboko «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Beste finantza-pasibo batzuk» epigrafean (35. oharra).

6/2013 Errege Lege Dekretuak honako hau ezarri zuen, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren ondarea sendotzeko xedez: Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsei buruzko 1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako urteko ekarpena, erakunde lotuek 2012ko abenduaren 31n gordailuen gainean egin beharrekoa, beste milako 3 handituko da, salbuespenez eta behin bakarrik.

Bi zatitan gauzatu behar zen hazkuntza hori:

a) Lehen zatia, guztizkoaren 2/5en parekoa, 2013ko abenduaren 31tik aurrerako 20 egun baliodunetan ordaindu behar zen. Zati hori murriztu egin zen, araudian aurreikusitako kenketen ondorioz, eta 7.693 mila euroko zenbatekoarekin gastu moduan erregistratu zen, 2013ko ekitaldiko emaitza-kontuan.

b) Bigarren zatia (24.455 mila eurokoa) gainerako 3/5en parekoa da, eta 2014ko urtarrilaren batetik aurrera Gestio Batzordeak zehaztuko duen egutegiaren arabera ordaindu behar zen, gehienez ere 7 urteko epearen barruan. FINAIB 21ean ezarritakoari jarraikiz, 2013ko martxoaren 22ko Errege Lege Dekretu hori indarrean sartzerakoan sortutakotzat jo zen gastua, batetik Entitate Nagusiaren etorkizuneko jardueraren mende ez zegoen ekarpena zelako eta bestetik osotasunean pasibo gisa aintzatetsi behar zelako egun horretan, noiz ordaindu zen aintzat hartu gabe. 2014ko irailaren 30ean, 3.494 mila euro abonatu zituen Entitate Nagusiak. Bestalde, 2014ko abenduaren 17an, ekarpenaren bigarren zati horren gainerako zatia kopuru bereko 2 zatitan ordaintzea erabaki zuen Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Funtsaren Gestio Batzordeak, araudi horrek emandako gaikuntzaren barruan: 2015eko ekainaren 30ean lehena eta 2016ko ekainaren 30ean bigarrena. 2015eko ekainaren 30ean, 10.480 mila euro abonatu zituen Entitate Nagusiak, eta, beraz, 2015eko abenduaren 31n 10.480 mila euro geratzen zitzaizkion ordaintzeko. 2016ko ekainaren 30ean abonatu zuen zenbatekoa, eta, beraz, ordainduta geratu zen 2. zati horretako kopuru osoa.

2021eko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpen guztien gastu osoa 28.431 mila eurokoa izan da (29.346 mila eurokoa, 2020ko ekitaldian), eta honi atxikitako galdu-irabazien kontu bateratuan jaso ditugu, «Beste ustiapen-gastu batzuk» epigrafean (56. oharra).

## 11. Ikuskaritzako zerbitzu-sariak

2021eko eta 2020ko ekitaldietan zerbitzu-sari hauek jaso dituzte Entitate Nagusiaren Pricewaterhouse Coopers Auditores SL auditoreak eta kontrol, jabetza komun edo kudeaketa bidez auditoreari lotutako enpresek, Taldea osatzen duten sozietateen urteko kontu indibidual eta bateratuetako audotretza-zerbitzuengatik eta Taldeko sozietateei emandako beste zerbitzu batzuengatik:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | **2021** | **2020** |
| Ikuskaritzako zerbitzuak | 527 | 464 |
| Egiaztapeneko beste zerbitzu batzuk | 111 | 87 |
| **Ikuskaritzako zerbitzuak eta lotutakoak guztira** | **638** | **551** |
| Zerga-aholkularitzako zerbitzuak | 4 | 4 |
| Beste zerbitzu batzuk | 195 | - |
| **Beste zerbitzu profesional batzuk guztira** | **199** | **4** |

## 12. Ondorengo gertakariak

2021eko abenduaren 31tik urteko kontu bateratu hauek egin bitarteko epealdian ez da Taldeari nabarmen eragiteko moduko aparteko gertakaririk jazo.

## 13. Aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak

Urteko kontu hauek egiteko erabili ditugun kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balioztapen-irizpiderik nabarmenenak azalduko ditugu segidan:

a) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontu bateratuak egitean, Taldeko erakundeen jarduerak etorkizunean ere jarraitu egingo duela hartu da kontuan. Hortaz, kontabilitate-arauak aplikatzearen helburua ez da ondare garbi oso bateratua edo horren zati bat transmititzeari begira berorren balioa ezartzea edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

2020ko ekitaldian, osasun-larrialdi globala eragin du COVID-19aren pandemia hedatzeak, eta herritarren mugikortasuna zorrotz mugatzera behartu ditu mundu osoko gobernuak. Jakina, inpaktu handia izan du horrek munduko ekonomian. Espainiako Estatuaren kasuan, 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua argitaratu zuen gobernuak, lehen alarma-egoera deklaratu eta pandemiaren hedapenaren aurkako neurriak ezarri zituena. Alarma-egoera, berorren ondoz ondoko luzapenak eta ondorengo ELD osagarriak, eta osasun-krisiak etorkizunean izan dezakeen bilakaerari buruzko ziurgabetasuna tarteko, krisi larria ari da pairatzen Espainiako eta munduko ekonomia, eta enpresei zein herritar partikularrei eragiten die. 2021eko ekitaldian krisia arindu egin bada ere txertaketak munduan izan duen aurrerakada dela eta, zalantza handiak daude, oraindik ere, ekonomiaren susperraldiaren eta krisiaren irismenaren gainean.

Testuinguru horretan, egoerari aurre egiteko kontingentzia-planak garatu eta aplikatu ditu Taldeak, behar izan denean, eta aipatutako ohiz kanpoko inguruabarrak kontuan hartuta negozioak ahalik eta modurik normalenean jarrai dezan bermatu du. Horretarako, zenbait antolamendu-neurri hartu ditu krisia kudeatzeko, guztiak ere erabat bateragarriak jardueraren eta negozioaren jarraitutasunarekin. Taldeak berriro ezarri (edo luzatu) ahal izango ditu neurri horiek, jarduerari eusteko behar izanez gero.

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko datan, oraindik ere ziurgabetasuna dago pandemiak eragindako krisiaren inpaktu ekonomiko-finantzarioei eta iraupenari dagokienez. Hala eta guztiz ere, urteko kontu hauetako zenbatespen nagusietan COVID-19aren krisiak eragin ditzakeen ondorioak aztertu ondoren, Zuzendaritzak uste du kaudimen- eta likidezia-indize altuak dituela Entitateak, egoera honetan negozioaren jarraitutasunari aise eusteko modukoak.

b) Sortzapen-printzipioa

Urteko kontu bateratu hauek, eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuekin zerikusia duten gaietan salbu, ondasun eta zerbitzuen korronte errealaren arabera prestatu dira, noiz ordaindu edo kobratu diren kontuan hartu gabe.

c) Beste printzipio orokor batzuk

Kostu historikoaren ikuspegiari jarraikiz egin dira urteko kontu bateratuak. Dena den, 2004ko urtarrilaren 1ean eta 13.q oharrean adierazitakoaren arabera lursailei eta eraikuntzei aplikatutako errebalorizazioa ere sartu da, eta arrazoizko balioko balioztapena ere bai, bai «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» atalarena, bai «Beste finantza-aktibo eta -pasibo batzuk» atalarena (deribatuak barne hartuta).

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitateko zenbait estimazio erabili behar dira. Bestalde, Taldearen kontabilitate-politikak aplikatzeko prozesuan bere iritzia erabili behar du Zuzendaritzak. Estimazio horiek eragina izan dezakete, bai urteko kontu bateratuen eguneko aktiboen eta pasiboen zenbatekoan eta aktibo eta pasibo kontingenteen banakapenean, bai urteko kontu bateratuei dagokien aldiko sarreren eta gastuen zenbatekoan. Estimazioak Zuzendaritzaren egungo eta etorkizuneko gorabeheren ezagutzan oinarritzen badira ere, azken emaitzak bestelakoak izan daitezke.

d) Finantza-deribatuen izaera eta funtzionamendua

Finantza-deribatuak izeneko tresnek, galerak edo irabaziak ekartzeaz gain, saldoei eta transakzioei lotutako kreditu- edo merkatu-arrisku guztiak edo batzuk konpentsatzeko aukera eman dezakete, baldintza batzuk betetzen badira. Horretarako, azpiko elementu gisa erabiltzen dituzte interes-tasak, indize jakin batzuk, balore batzuen prezioak, zenbait dibisaren kanbio-tasa gurutzatuak eta antzeko beste erreferentzia batzuk. Taldeak merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu, edo, bestela, antolatutako merkatuetatik kanpo (OTC) aurkako alderdiarekin negoziatuak.

Eskatzen dituzten bezeroekin negoziatzeko erabiltzen dira finantza-tresna deribatuak, bai eta Taldearen posizioen arriskuak (estaldura-deribatuak) gestionatzeko eta horien salneurrien aldaketei onura ateratzeko ere. Estaldura-eragiketatzat hartu ezin diren finantza-tresna deribatuak negoziazio-deribatutzat hartzen dira. Hauek dira estaldura-kontabilitatea aplikatu ahal izateko baldintzak:

i) Finantza-tresna deribatuak arrisku hauek estali behar ditu: interes-tasak edo kanbio-tasak gorabeherak izatearen ondorioz aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak izatekoa (arrazoizko balioen estaldura); jatorria finantza-aktibo eta -pasiboetan, konpromisoetan eta aurreikusitako transakzio oso probableetan duten eskudiru-fluxu balioztatuetan gorabeherak izatekoa (eskudiru-fluxuen estaldura); eta atzerriko negozioetako inbertsio garbiarena (atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura).

ii) Estaldura-epean zehar, finantza-tresna deribatuak eraginkortasunez deuseztatu behar du estalitako elementu edo posizioaren berezko arriskuren bat. Hortaz, eraginkortasuna izan behar du: prospektiboa, erretrospektiboa eta estaldura baldintza normaletan kontratatzen den unekoa. Bermatu behar du, estalitako elementuaren edo posizioaren bizitza osoan iraungo duela estaldurak.

Estalduren eraginkortasuna prospektiboa eta erretrospektiboa dela ziurtatzeko, eraginkortasun-testak erabiltzen ditu Taldeak. Horien bidez frogatzen du estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldakuntza hein handian datorrela bat estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldakuntzarekin. Horrela, bada, indarreko arautegiari jarraikiz, estaldura eraginkorra izatekotan, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldakuntzak estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldakuntzaren % 80 eta % 125 bitartekoa izan behar du. Deribatu batek hasieran eraginkortasun-testa betetzen badu, baina aurrerago utzi egiten badio betetzeari, kontabilitatean negoziazio-deribatutzat hartuko da une horretatik, eta estaldurak eteteko araua aplikatuko zaio.

iii) Egoki dokumentatu behar da, batetik, finantza-tresna deribatua saldo edo transferentzia jakin batzuk estaltzeko kontratatu zela berariaz eta, bestetik, estaldura eraginkor hori nola lortu eta neurtu nahi zen, betiere bat badator Taldeak arrisku propioak kudeatzeko duen moduarekin.

Elementu edo saldo indibidualak nahiz finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroak estal daitezke. Azken kasu horretan, estaliko ditugun finantza-aktibo edo -pasiboek arrisku-tasa bera izan behar dute. Baldintza hori betetzeko, elementu indibidualetan estalitako arriskuak aldaketarekiko duen sentikortasuna antzekoa izan behar da.

Estaldurak gauzatzeko, hainbat izaeratako deribatuak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak: interes-tasaren deribatuak, errenta aldakorrarenak, dibisarenak eta abarrenak, estali nahi den elementuaren azpiko arrisku-motaren arabera. Estaldura-tresna hauek erabil daitezke, nagusiki: Interes Rate Swap (IRS) izenekoak, Call Money Swap (CMS) deritzenak, FRAk, interes-tasen gaineko gerokoak, bonuen gaineko gerokoak, errenta aldakorreko interesen gaineko gerokoak, akzioen gaineko gerokoak, eperako dibisa-salerosketa, interes-tasen gaineko aukerak, errenta aldakorreko indizeen gaineko aukerak, akzioen gaineko aukerak, dibisaren gaineko aukerak, interes-tasen egituren gaineko aukerak, errenta aldakorreko egituren gaineko aukerak eta Equity Swapak.

Taldeak kontratatutako eta tresna deribatuekin egindako estaldura-eragiketak arrazoizko balioko estalduratzat hartzen dira, oro har. Estaltzen dute, batetik, Entitate Nagusiak jaulkitako zenbait pasiboren edo gordailuren arrazoizko balioak interes-tasen gorabeherengatik izan dezakeen aldaketa-arrisku osoa edo zati bat eta, bestetik, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko ondare-tresna eta zorra adierazten duten balore batzuen arrazoizko balioa.

Beste finantza-tresna batzuetan edo beste kontratu nagusi batzuetan sartzen diren finantza-tresna deribatuak bereizi erregistratzen dira deribatu gisa, horien arriskuak eta ezaugarriak kontratu nagusietakoekin estuki lotuta ez daudenean eta kontratu nagusi horiek «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak» eta «Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboak arrazoizko balioan» epigrafeetan sailkatuta ez daudenean.

Entitate Nagusiak aurkako alderdiekin sinatutako netting- eta kolateral-hitzarmenak erabiltzen ditu arriskuak arintzeko politika moduan; izan ere, aurkako alderdiaren balizko porrotarekiko esposizioa minimizatzen du horrela. 2021eko abenduaren 31n, berme kolateral gisa jasotako eta entregatutako gordailuak 260 eta 585.678 mila eurokoak dira, hurrenez hurren, eta «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Beste finantza-pasibo batzuk» eta «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeetan daude erregistratuta (22.310 eta 291.873 mila euro, hurrenez hurren, 2020ko ekitaldian) (35. eta 25. oharrak).

Ohar horren beraren e) Finantza-aktiboak atalean deskribatzen dira finantza-deribatu horiek balioztatzeko irizpideak.

e) Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak hauetako zorroren batean sartzen dira balioztatzeko:

i) Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan

ii) Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

iii) Nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak:

a. Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak

b. Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak

iv) Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Kategoria horiek sailkatzeko, bi elementu hauek hartzen dira aintzat:

- finantza-aktiboak gestionatzeko Taldearen negozio-eredua
- finantza-aktiboen kontratuzko eskudiru-fluxuen ezaugarriak

Negozio-eredua

Eskudiru-fluxuak sortzeko finantza-aktiboak gestionatzeko modua da negozio-eredua. Negozio-eredua zehaztu ahal izateko, helburu zehatz bat lortzearren finantza-aktiboen multzoak batera nola gestionatzen diren hartzen da aintzat. Beraz, negozio-eredua ez dago Taldeak tresna jakin baterako duen asmoaren mende; aitzitik, tresna-multzo baterako zehazten da.

Hona hemen Taldeak erabiltzen dituen negozio-ereduak:

- Finantza-aktiboei eustea, haien kontratuko eskudiru-fluxuak jasotzeko. Eredu horren arabera, kontratuzko eskudiru-fluxu zehatzak kobratzeko asmoz gestionatzen dira finantza-aktiboak, eta ez, ordea, errendimendu global bat eskuratzeko, aktibo horiek gordez eta salduz. Dena dela, egoera jakin batzuetan, aktiboak mugaeguneratu aurretik besterentzeko aukera dago. Aktiboak kontratuzko eskudiru-fluxuak jasotzeko asmoz mantentzeko ereduarekin bateragarriak diren salmenten artean daude oso maiztasun urriko edo garrantzi txikiko salmentak, muga-egunetik gertu dauden aktiboen salmentak, kreditu-arriskua hazi delako egindako salmentak, eta kontzentrazio-arriskua gestionatzeko egiten direnak.

- Finantza-aktiboen salmenta.

- Aurreko bi negozio-ereduak (finantza-aktiboak mantentzea kontratuzko eskudiru-fluxuak jasotzeko eta finantza-aktiboak saltzea) uztartzea. Negozio-eredu horretan, aktiboak maiztasun handiagoz eta zenbateko handiagoan saltzen dira, eta funtsezkoak izaten dira negozio-ereduan.

Finantza-aktiboen kontratuzko eskudiru-fluxuen ezaugarriak

Bi kategoria hauetakoren bat aukeratuko da hasiera batean finantza-aktiboak sailkatzeko:

- Kontratuko baldintzen ondorioz data jakin batzuetan eskudiru-fluxuak sorrarazten dituztenak, zor den kopuruaren printzipala eta interesak ordaintzean.

- Gainerako finantza-aktiboak.

Sailkapen horren ondoreetarako, hasierako aintzatespenean duen arrazoizko balioa da finantza-aktiboaren printzipala, jakinik finantza-aktiboaren bizitzan aldaketak egon daitezkeela (adibidez, printzipala itzuliz gero). Era berean, interesa ateratzeko, hainbat arrazoiren ondorioz jasotako kontraprestazioak batzen ditugu; alegia, diruaren denbora-balioaren, finantzaketa- eta egitura-kostuen eta aldi zehatz batean kobratzeko dagoen printzipalaren zenbatekoari lotutako kreditu-arriskuaren ondoriozko kontraprestazioak, eta irabazi-marjina bat gehitzen zaio.

Zorroen sailkapena, balioztapen-ondoreetarako

Taldeak honela sailkatzen ditu finantza-aktiboak, balioztapen-ondoreetarako:

- «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» zorroan, bi baldintza hauek betetzen direnean:

  a. Erabiltzen den negozio-ereduan finantza-aktiboei eustea, kontratuzko eskudiru-fluxuak jasotzeko asmoz.

  b. Kontratuzko baldintzek eskudiru-fluxuak sorraraztea data jakin batzuetan; zor den printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen ordainketak dira soilik (PIOS testa: printzipalaren eta interesen ordainketa soilik).

- «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan, bi baldintza hauek betetzen direnean:

  a. Erabiltzen den negozio-ereduak finantza-aktiboen kontratuzko eskudiru-fluxuak jasotzea eta saltzea uztartzen ditu.

  b. Kontratuzko baldintzek eskudiru-fluxuak sorraraztea data jakin batzuetan; zor den printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen ordainketak dira soilik (PIOS testa: printzipalaren eta interesen ordainketa soilik).

- «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak» zorroan sartzen dira ezaugarri hauetakoren bat duten tresna guztiak:

  a. Epe laburrean gauzatzeko helburuarekin sortu edo eskuratzea.

b. Batera identifikatu eta kudeatzen diren finantza-tresnen talde batekoak izatea eta ebidentziak egotea talde hori erabili egin dela arestian, epe laburrean irabaziak lortzeko.

c. Finantza-bermeko kontratuaren definizioa betetzen ez duten tresna deribatuak izatea eta kontabilitate-estaldurako tresnaren izendapena ez izatea.

- «Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan: baldin eta Entitateak horiek kudeatzeko darabilen negozio-ereduagatik edo horien kontratuzko eskudiru-fluxuen ezaugarriengatik ez bada komeni aurreko zorroetakoren batean sailkatzea.

Deskribatu berri ditugun balioztapen-irizpide orokorretatik kanpo gelditzen dira (salbuespenak dira) ondare-tresnetako inbertsioak. Oro har, Taldeak hasierako aintzatespenean eta era ezeztaezinean gauzatzen du aukera, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sartzen dituelako negoziatzeko eutsitako tresna moduan sailkatzen ez diren ondare-tresna garbietan egindako inbertsioak, aukera hori gauzatu ezean «Nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak» zorroan sailkatu beharko liratekeenak.

Negozio-ereduaren ebaluazioari dagokionez, eredu hori ez dago banakako tresna batentzako asmoen mende; aitzitik, tresna-multzo batentzat zehazten da, honako hauek kontuan hartuta: aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa eta egutegia; salmenta horien zergatiak, eta etorkizuneko salmentekiko aurreikuspenak. Kontratuzko eskudiru-fluxuak jasotzeko aktiboei eustearen ereduarekin bateragarriak izan daitezke, besteak beste, oso gutxitan egiten diren edo oso garrantzi txikia duten salmentak, aktiboaren muga-egunetik hurbil daudenak eta finantza-aktiboen kreditu-arriskua handitu delako edo kontzentrazio-arriskua gestionatzeko egin direnak.

Finantza-aktibo baten kontratuko klausula batek egutegia edo kontratuzko eskudiru-fluxuen zenbatekoa aldatzeko aukera ematen badu (adibidez, amortizazio aurreratuko klausulak edo iraupena luzatzeko klausulak), Taldeak erabakitzen du ea kontratuko klausula hori erabiliz tresnaren bizitzan sortzen diren eskudiru-fluxuak zor den kopuruaren printzipalaren eta interesen ordainketak soilik diren. Horretarako, egutegia aldatu aurretik eta ondoren sor litezkeen kontratuzko eskudiru-fluxuak edo kontratuzko eskudiru-fluxuen zenbatekoa hartzen ditu aintzat.

Aldi berean, finantza-aktibo batek interes-tasa aldian behin doitzea jasotzen badu baina doikuntza horren maiztasuna ez badator bat erreferentziako interes-tasaren epearekin (adibidez, interes-tasa 3 hilean behin doitzen bada urtebeteko tasara), hasierako aintzatespena egiten duen unean ebaluatzen du Taldeak intereseko osagaien desdoikuntza, erabakitzeko ea kontratuzko eskudiru-fluxuak zor den kopuruaren printzipalaren eta interesen ordainketak soilik diren.

Hasierako aintzatespena egiteko unean eskudiru-fluxuen gainean oso eragin txikia duten edo gertatzeko oso zailak diren gorabehera berezien mende dauden kontratuko baldintzek (jaulkitzailearen likidazioak, adibidez) ez dute galarazten «Amortizatutako kostuan» edo «Arrazoizko balioan eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela» zorroetan sailkatzea.

v) Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-tresna deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak alegia.

vi) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartida bateratuari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balioztapenean badute jatorria eta zorro horiek interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez.

vii) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak: erakunde taldeaniztunetako edo elkartuetako ondare-tresnak hartzen dituzte barne.

Erakunde taldeaniztunak dira Taldeak eta Taldearekin loturarik ez duen beste erakunde batek edo hainbatek elkarren artean kontrolatutako partaidetzapeko erakundeak eta baterako negozioak. Baterako negozioak dira, bi erakunde edo partaidek edo gehiagok eragiketak egiten badituzte edo aktiboak gordetzen badituzte, eta finantzei edo eragiketei lotutako edozein erabaki estrategiko bideratzeko, partaide guztien ahobatezko adostasuna behar bada, baina eragiketa edo aktibo horiek partaideen finantza-egituretan txertatuta egon gabe.

Erakunde elkartuak partaidetzapeko erakundeak dira, zeinetan Taldeak eragin handia duen. Eragin nabarmen horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka beste partaidetzapeko erakunde baten edo hainbaten bidez partaidetzapeko entitateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

viii) Aseguru- edo berraseguru-kontratuen bidez babestutako aktiboak: aseguru-polizek Planaren aktibotzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituztenean prestazio-betebeharra ezeztatzeko behar den diru guztia edo zati bat itzultzea eskatzeko aseguru-entitateei galda dakizkiekeen ordaintze-eskubideei dagozkie.

ix) Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarri finantzarioak: erabiltzeko talde batean sartuta edo besterendu nahi den negozio-unitate batean —etendako eragiketak— dauden partida indibidualen liburuetako zenbatekoei dagozkie, baldin eta gaur egungo baldintzetan eta urtebeteko epean (urteko kontuetan azaltzen den datatik aurrera) saltzeko probabilitate handia badute. Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, finantza-izaerako partida horien kontabilitate-balioa. Badira finantza-izaerarik ez duten eta salgai dauden beste aktibo ez-korronte batzuk ere, eta horien kontabilitate-tratamendua 13.v oharrean jaso dugu.

<u>Erregistroa eta balioztapena</u>

Hasierako aintzatespenean, finantza-tresna guztiak arrazoizko balioarekin erregistratzen dira. Ondoren, kontabilitate-itxiera bakoitzeko balioztapena egiteko, irizpide hauek hartzen dira kontuan:

i) Finantza-aktiboak arrazoizko balioarekin balioztatzen dira. Salbuespenak: finantza-aktiboak amortizatutako kostuan; baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; ondare-tresna horiek azpiko aktibotzat dituzten eta beroriek emanez likidatzen diren finantza-tresna deribatuak.

ii) Finantza-aktibo batek egun jakin batean duen arrazoizko balioa da, egoki informatutako alderdi interesdunek independentziaz egindako transakzioan batak besteari emateko prezioa. Merkatu aktibo batean, hau da, merkatu antolatu, garden eta sakon batean, aktiboak duen kotizazio-balioa da arrazoizko balioa kalkulatzeko biderik garbiena.

Finantza-aktiboak merkatuko preziorik ez duenean, antzeko tresnekin egin diren transakzioetan erabilitakora jotzen da arrazoizko balioa kalkulatzeko, eta, bestela, behar bezala egiaztatutako balioztapen-ereduetara. Orobat, balioztatu nahi dugun aktiboaren bereizgarriak hartu behar dira kontuan, eragiten dioten arrisku-motak batik bat. Halere, garatutako balioztapen-ereduen mugak eta eredu horiek eskatzen dituzten datuen zehaztasun-falta direla eta, gerta liteke modu horretan ateratako arrazoizko balioa bat ez etortzea balioztapen-egunean erosi edo saltzeko izango lukeenarekin.

iii) Eguneroko kotizazio-prezioa da merkatu aktiboan kotizazio-balioa duten finantza-tresna deribatuen arrazoizko balioa; eta, ezohiko arrazoiengatik egun zehatz batean kotizazioa zehazterik ez badago, OTC finantza-deribatuak balioztatzeko erabiltzen diren pareko bideak erabiltzen dira.

Merkaturik gabeko deribatuak edo oso aktiboa ez den merkatua duten deribatuak balioztatzeko, metodologia ekonomikorik sendoenak eta egokienak erabiltzen dira, datu behagarrien erabilera maximizatuz eta merkatuko partaide batek balioztatuko lituzkeen faktore guztiak aintzat hartuz; alegia: a) antzekotasun handiko beste tresna batzuen bidez egindako transakzioak, b) eskudiru-fluxuen deskontua, c) aukerak balioztatzeko merkatu-ereduak. Merkatuko partaideek lehenesten dituzten eta tresnaren prezioaren estimaziorik errealistena emateko gaitasuna erakutsi duten teknikak ezarriko dira.

Hasierako aintzatespenean, finantza-deribatu guztiak arrazoizko balioarekin erregistratzen dira. Hasierako aintzatespenean, transakzioaren prezioa izan ohi da finantza-tresna baten arrazoizko balioaren ebidentziarik onena. LABORAL Kutxa Taldeak ez du eragiketa garrantzitsurik egiten, hasierako aintzatespenean transakzioaren prezioa ez den beste arrazoizko balio bat ezarria duten tresna deribatuekin.

iv) «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» zorroa balioztatzeko, amortizatutako kostua baliatzen da, eta interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da berori finkatzeko. Amortizatutako kostua finkatzeko, finantza-aktiboaren eskuratze-kostua hartzen da oinarri. Horri, baina, zuzenketa batzuk egiten zaizkio printzipaletik ateratako diru-kopuruekin eta galdu-irabazien kontu bateratuan sartutako zatiarekin, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Hasierako kostuaren eta muga-eguneko itzultze-balioaren arteko aldea ere hartzen da kontuan. Gero, zuzenean edo balioa zuzentzeko kontu baten bidez, aktiboaren zenbatekoa murriztu egin dela aintzatesten duen narriaduraren ondoriozko edozein balio-murrizketa kentzen zaio. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako «Maileguak eta kobratzeko partidak» epigrafearen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalitako arriskuaren edo arriskuen ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldakuntzak erregistratzen dira.

Interes-tasa efektiboa da finantza-tresna baten balioa tresna horri balio-bizitzan estimatu zaizkion eskudiru-fluxuekin parekatzen duen eguneratze-tasa. Kontratuko baldintzak hartzen dira horretarako, amortizazio aurreraturako aukerak esaterako, baina etorkizuneko kreditu-arriskuengatiko galerak kontuan hartu gabe. Interes-tasa finkoa duten finantza-tresnetarako, eskuratu zirenean kontratuan ezarri zen interes-tasa da interes-tasa efektiboa, baina izaeragatik interes-tasen antzekoak diren komisioak eransten zaizkio, dagokionean. Interes-tasa aldakorreko finantza-tresnei dagokienez, interes-tasa efektiboa bat dator erreferentziako interes-tasa lehen aldiz berrikusi arte kontzeptu guztiengatik indarrean dagoen errendimendu-tasarekin.

Arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela erregistratzen ez diren finantza-tresnei dagokienez, erosteko edo jaulkitzeko zuzenean egotzi diren transakzio-kostuak gehituz edo kenduz doitzen da arrazoizko balioaren zenbatekoa. Arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-tresnei dagokienez, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatesten dira berehala.

Transakzio-kostuak honela definitzen dira: finantza-aktibo bat eskuratzeari edo erabiltzeari zuzenean egotz dakizkiokeen gastuak, edota Entitateak transakzioa burutu ez balu sortuko litzatekeen finantza-pasiboa jaulkitzeari edo onartzeari zuzenean egotz dakizkiokeenak.

Finantzaketa-izaera nabarmenik ez duten eragiketa komertzialengatik kobratu beharreko partidak eta hasieran transakzio-prezioan edo printzipalaren prezioan, hurrenez hurren, balioztatu diren kreditu komertzialak eta epe laburreko zor-tresnak zenbateko horretan bertan balioztatzen jarraituko dira, 13. ohar honen h) atalean deskribatzen den moduan estimatutako narriaduraren ondoriozko balio-doikuntza kenduta.

Taldeak barne-proiektu bat burutu zuen 2019an, kreditu-inbertsioko eragiketen transakzio-kostu zuzenak eta gehikuntzakoak identifikatzeko asmoz. Ondorioz, identifikatutako transakzio-kostu batzuk aktiboaren baliorik handienarekin aintzatesten dira hasiera batean, eta kontuan hartzen dira interes-tasa efektiboa zehazteko. Tasa hori txikitu egiten da finantza-aktiboetarako, eragiketaren iraunaldi osoan periodifikatuta (25.b.2 oharra).

Finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldakuntzak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak «Interesen ondoriozko sarrerak» epigrafean jasotzen dira, eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak», «Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak» edo «Arrazoizko balioarekin izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten aktibo eta pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak» epigrafeetan, zenbateko garbian.

Halere, «Beste emaitza global metatu batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko tresnen liburuetako zenbatekoaren aldakuntzak ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira aldi baterako, baldin eta finantza-aktibo monetarioen kanbio-aldeen ondoriozkoak ez badira. «Beste emaitza global metatu bat» epigrafeko zenbatekoek ondare garbi metatua osatzen dute, harik eta horien jatorri den aktiboari balantze bateratuan baja ematen zaion arte; une horretan, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra ezerezten dira, eta «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabaziak edo galerak» epigrafean erregistratu (zor-tresnen kasuan) eta «Bestelako erreserbak» epigrafean (ondare-tresnen kasuan).

Estalitako eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-aktiboetan, irizpide hauek kontuan izanda erregistratzen dira balioztapen-aldeak:

i) Arrazoizko balioaren estalduretan, galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, zuzenean, estalitako arrisku-motari dagokionez estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan gertatzen diren aldeak.

ii) Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketetan eta atzerriko negozioetako inbertsio garbietan eraginkorra ez den zatiaren balioztapen-aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan sartzen dira zuzenean.

iii) Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balioztapen-aldeak.

iv) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balioztapen-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balioztapen-aldeak ez dira emaitza gisa jasotzen, harik eta estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

Finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapena

Taldeak finantza-aktiboak gestionatzeko negozio-eredua aldatzen duenean, eragindako finantza-aktibo guztiak atal hauen arabera birsailkatzen dira. Birsailkapenaren egunetik era prospektiboan burutzen da birsailkapena, baina ez da beharrezkoa aurretiaz aintzatetsitako irabaziak, galerak edo interesak berriro adieraztea. Oro har, oso gutxitan gertatzen da negozio-eredua aldatzea; supostu hauetan, hain zuzen:

i) Taldeak «amortizatuko kostuan» zorrotik «arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioa estimatu beharko du. Aurretiko amortizazio-kostuaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako galerarik edo irabazirik gertatzen bada, galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatetsiko da.

ii) Taldeak «arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela» zorrotik «amortizatuko kostuan» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den egunean aktiboak duen arrazoizko balioa izango da bere liburuetako zenbateko gordin berria.

iii) Taldeak «amortizatuko kostuan» zorrotik «arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioa estimatu beharko du Entitateak. Aurretiko amortizazio-kostuaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako galerarik edo irabazirik gertatuz gero, beste emaitza global bateko epigrafean aintzatetsiko da. Birsailkapenaren ondorioz ez dira doitu behar izango interes-tasa efektiboa eta aurreikusten diren kreditu-galeren estimazioa.

iv) Zor-tresnaren bat «arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela» zorrotik «amortizatutako kostuan» zorrora birsailkatzen bada, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioaren arabera birsailkatuko da finantza-aktiboa. Ondare garbiko beste emaitza global metatu batean birsailkatu den eguneko galera edo irabazi metatua ezereztu egingo da. Horretarako, birsailkapenaren egunean aktiboak duen liburuetako zenbatekoa erabiliko da kontrapartida moduan. Hala, zor-tresna beti amortizatutako kostuan balioztatu balitz bezala balioztatuko da, birsailkapenaren egunean. Birsailkapenaren ondorioz ez dira doitu behar izango interes-tasa efektiboa eta aurreikusten diren kreditu-galeren estimazioa.

v) Taldeak «arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela» zorrotik «arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, finantza-aktiboa arrazoizko balioarekin balioztatzen jarraituko da. Ez da aldatuko aurretiaz erregistratutako balio-aldaketak kontabilizatzeko modua.

vi) Taldeak «arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela» zorrotik «arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela» zorrora birsailkatzen badu zor-tresnaren bat, finantza-aktiboa arrazoizko balioarekin balioztatzen jarraituko da. Aurretiaz ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean jasotako galera edo irabazi metatua aldi horretako emaitzara intsuldatuko da, birsailkapenaren egunean.

vii) Mendeko erakunde batean, baterako negozio batean edo elkartu batean egindako inbertsioak halakotzat kalifikatzeari uzten dionean, eutsi zaion inbertsioa, dagokionean, birsailkatu den eguneko arrazoizko balioaren arabera neurtuko da, eta birsailkatu aurretik zeukan liburuetako zenbatekoaren eta arrazoizko balioaren artean aldea dagoelako sortzen den galera edo irabazia emaitzetan edo beste emaitza global batean aintzatetsiko da, eutsitako inbertsioaren ondorengo balioztapenaren arabera.

2021eko eta 2020ko ekitaldietan ez da finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapenik egin, ez eta amortizatutako kostuan balioztatutako finantza-aktiboen salmentarik / muga egunera arte eutsitako inbertsiorik ere.

f) Finantza-pasiboak

Sailkapena

Finantza-pasiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

i) Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak: epe laburrera berriro eskuratzeko jaulki diren finantza-aktiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin kudeatzen diren eta epe laburrera irabaziak lortzeko eguneratu berri diren finantza-tresna identifikatuen zorroko zati bat dira, edo kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak, edo aldi baterako eskuratu edo mailegutan hartu diren finantza-aktiboen salmenta irmoak sortuak.

ii) Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan: Taldeak hasierako aintzatespenean izendatutako finantza-pasiboak dira, edo horiek izendatzean informazio nabarmenagoa lortzen denean, arrazoi hauengatik:

- Galerak edo irabaziak irizpide desberdinekin aintzatesteagatik edo aktiboak edo pasiboak irizpide desberdinekin balioztatzeagatik, aintzatespenean edo balioztapenean sortuko liratekeen inkoherentziak guztiz desagerrarazi edo nabarmen murrizteko.

- Finantza-pasiboen talde bat kudeatu eta errendimendua arrazoizko balioan oinarrituz ebaluatzeko, arriskua kudeatzeko edo inbertsioa dokumentatzeko estrategia erabiliz, eta talde horren informazioa Zuzendaritzako funtsezko langileei emateko, arrazoizko balioa oinarritzat harturik.

iii) Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan: balantze bateratuko gainerako ataletan sartu ezin direnak dira, finantza-erakundeen funts-bilketako ohiko jardueren ondoriozkoak, eta berdin dio nola gauzatzen diren eta zer muga-egun duten.

iv) Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak, alegia.

v) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartida bateratuari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balioztapenean badute jatorria eta zorro horiek interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez.

vi) Ageriko kapital itzulgarria: Taldeak jaulkitako finantza-tresnen zenbatekoa hartzen du barne. Kapitalaren izaera juridikoa dute, baina ez dituzte betetzen ondare garbian sartzeko baldintzak. «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan» zorrokoak moduan balioztatzen dira, baldin eta Taldeak «Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» zorroan sartu ez baditu, horretarako baldintzak bete eta gero.

Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarri denez, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango da Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzulketa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

vii) Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako pasiboak: «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» zorroan jatorria duten saldo hartzekodunei dagozkie.

Erregistroa eta balioztapena

Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan erregistratzen dira, hain zuzen ere, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Dena den, badira salbuespenak:

i) «Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak» eta «Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» epigrafeetako finantza-pasiboak arrazoizko balioarekin balioztatzen dira, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako finantza-pasiboen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dagoen arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldaketak erregistratzen dira, finantza-pasibo horiei dagokien «Mikro-estaldurako eragiketak» atalean.

ii) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien ondare-tresnak azpian dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskuratze-kostuan jasotzen dira.

Finantza-pasiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak «Interesen ondoriozko gastuak» epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak» edo «Arrazoizko balioarekin izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten aktibo eta pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak» epigrafeetan, zenbateko garbian.

Estalitako kontu-sail eta kontabilitateko estaldurako kontu-sail gisa hartzen diren finantza-pasiboetan, 13.e oharrean finantza-aktiboetarako adierazitako irizpideak kontuan hartuta erregistratzen dira balioztapen-aldeak.

g) Finantza-tresnak transferitzea eta balantze bateratutik baja ematea

Finantza-tresnen transferentziak kontabilizatzeko, transferitutako finantza-tresnei lotutako arriskuak eta irabaziak intsuldatzeko modua hartzen da aintzat, irizpide hauek kontuan izanda:

i) Arriskuen eta mozkinen funtsezko intsuldaketa egiten bazaie hirugarrenei, transferitutako finantza-tresnari baja ematen zaio balantze bateratuan, eta, aldi berean, transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio aintzatesten da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: baldintza gabeko salmentak; berrerosteko egunean arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten salmentak; finantza-aktiboen salmentak, dirua alde batera utzita erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; aktiboen titulazioak, lagatzaileak ez duenean mendeko finantzaketarik atxikitzen eta titular berriei ez dienean kreditu-hobekuntzarik eskaintzen, eta abar.

ii) Transferitutako finantza-tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko atxikipena egiten bada, transferitutako finantza-tresnari ez zaio baja ematen balantze bateratuan, eta transferentziaren aurretik erabiltzen ziren irizpide berberekin balioztatzen jarraitzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: salneurri finkoarekin edo salmenta-prezioari interes bat erantsita berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentak; baloreak mailegatzeko kontratuak, mailegu-hartzaileak horiek edo antzeko aktiboak itzultzeko betebeharra duenean, eta abar. Halarik ere, finantza-pasiboa kontabilitatean aintzatesteko, jasotako kontraprestazioaren kopurua —amortizatutako kostuan balioztatzen da gero—, transferitu den baina baja eman ez zaion finantza-aktiboaren sarrerak eta finantza-pasibo berriaren gastuak hartzen dira kontuan.

iii) Transferitutako finantza-tresnari dagozkion arriskuak eta mozkinak ez badira transferitzen eta ez bazaie funtsezko atxikipena egiten, hainbat aukera daude; eragiketa-mota horietan sartzen dira: eskuratutako erosketa-aukera edo jaulkitako salmenta-aukera duten eta sakonean diruaren barruan nahiz kanpoan ez dauden finantza-aktiboen salmentak, titulizazioak (lagatzaileak mendeko finantzaketa hartzen duenean) eta transferitutako aktiboaren zati baten gaineko kreditu-hobekuntzak. Hauek dira aukerak:

- Taldeak ez badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari eusten, baja ematen zaio balantzean eta transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio aintzatesten da.

- Taldeak eutsi egiten badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari, balantzean aintzatesten jarraitzen du, balio-aldaketen eraginpean jartzeari dagokion zenbatekoan, eta jasotako kontraprestazioaren pareko kopuruko finantza-pasiboa aintzatesten da. Pasibo hori amortizatutako kostuan balioztatuko da gerora, salbu eta «Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan» atalean sailkatzeko baldintzak betetzen baditu. Gaur egun bete beharrekoa ez denez, finantza-pasibo horren zenbatekoa kalkulatzeko kendu egingo zaio bere jabetzako finantza-tresnen (hala nola titulizazio-bonuen eta maileguen) zenbatekoa, baldin eta finantza-aktiboak transferitu zaizkion entitatearentzat finantzaketa-iturri badira eta transferitutako aktiboak finantzatzen badituzte, bereziki, tresna horiek. Transferitutako aktiboaren eta lotutako pasiboaren zenbateko garbia hauxe izango da: atxikitako eskubide eta obligazioen amortizatutako kostua, baldin eta transferitutako aktiboa amortizatutako kostuan neurtzen bada, edota atxikitako eskubide eta obligazioen arrazoizko balioa, baldin eta transferitutako aktiboa arrazoizko balioan neurtzen bada.

Beraz, finantza-aktiboei bi kasutan bakarrik emango zaie baja balantze bateratutik: sortutako eskudiru-fluxuak agortzen direnean edo berezkoak dituzten arrisku eta irabazi gehienak hirugarrenen esku uzten direnean. Halaber, finantza-pasiboei balantzetik baja emateko, sortzen dituzten obligazioak agortuta egon behar dira, edo, bestela, berriro kitatu edo birkokatzeko helburuarekin eskuratu behar dira.

2021eko eta 2020ko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsak sartu ditu Taldeak, integrazio globalaren bidez; izan ere, hurrenez hurren zenbait mailegu transferitu zizkien 2006ko eta 2008ko ekitaldietan (25. eta 35. oharrak).

Dena den, Taldeak ez ditu aintzatetsi 2004ko urtarrilaren 1aren aurretik egin diren transakzioen ondoriozko finantza-aktibo eta -pasiboak, betiere geroagoko transakzio edo gertaeraren baten ondorioz jaso beharrekoak ez badira eta tresna deribatuak ez badira, horiek balantze bateratutik baja emanda baitaude, aurretik aplikatzen zen arautegiaren indarrez.

h) Finantza-aktiboen eta beste kreditu-esposizio batzuen balioa narriatzea

Taldeak balio-narriaduraren inguruko eskakizunak aplikatzen dizkie beste emaitza global batean aldaketak dituzten eta amortizatutako kostuan eta arrazoizko balioarekin balioztatzen diren zor-tresnei, bai eta kreditu-arriskua dakarten beste esposizio batzuei ere, hala nola emandako maileguen konpromisoei, emandako finantza-bermeei eta emandako beste konpromiso batzuei.

FINA 9ak balio-narriaduraren inguruan zehazten dituen eskakizunen helburua hauxe da: taldean edo banaka ebaluatutako eragiketetan espero diren kreditu-galerak aintzatestea, eskura dagoen arrazoizko eta zentzuzko informazio guztia, baita aurrera begirakoa ere, kontuan hartuta.

Zor-tresnetan epealdia narriatzearen ondoriozko galerak gastu moduan aintzatesten dira galdu-irabazien kontu bateratuko «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo irabaziak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea» epigrafean. Aktiboaren liburuetako zenbatekoa txikitzen duen hornidurak zuzentzeko kontu batean aintzatesten dira zor-tresnen narriaduraren ondoriozko galerak.

Zor-tresnak ez diren eta kreditu-arriskua dakarten esposizioetako narriaduraren ondoriozko galeren estaldurak horniduratzat erregistratzen dira balantzeko pasiboko «Hornidurak – Emandako konpromiso eta bermeak» epigrafean. Estaldura horien hornidurak eta itzulketak galdu-irabazien kontu bateratuko «Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak» epigrafearen kargura erregistratzen dira.

Ondoren, narriadura-irizpideak laburtuko ditugu, tresna-motaren eta zorroaren arabera sailkatuta:

**Amortizatutako kostuan balioztatutako zor-tresnak eta balantzetik kanpoko esposizioak**

Narriaduraren ondoriozko galerak zehazteko asmoarekin, Taldeak zordunen banan-banako jarraipena egiten du, zordun garrantzitsuak izan daitezkeenen kasuan behintzat. Era berean, finantza-aktiboko taldeen jarraipen kolektiboa ere egiten du, zordunek zorrak ordaintzeko duten gaitasunari buruz aipatu dugun kreditu-arriskuaren antzeko ezaugarriak dituztenean. Arrisku-ezaugarri antzekoak dituzten aktiboen talde batean ere sartu ezin den tresna bere aldetik aztertuko da, narriatuta dagoen ikusteko eta narriaduraren ondoriozko galera balioztatzeko.

Kreditu-arriskuen ondorioz izan ditzakeen galerak estimatzeko politikak, metodoak eta prozedurak ditu Taldeak, bai kontrako alderdiari egotz dakiokeen kaudimengabeziaren kasuetarako, bai herrialde-arriskuaren kasuetarako. Zor-tresnetako eragiketak eta balantzetik kanpoko esposizioak onartu, aldatu, ebaluatu, jarraitu eta kontrolatzen direnean ezartzen dira politika, metodo eta prozedura horiek, bai eta beraien narriadura posiblea identifikatzen denean eta, dagokionean, aurreikusitako galerak estaltzeko zenbatekoak kalkulatzen direnean ere.

Kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren araberako kontabilitate-sailkapena

Taldeak zenbait irizpide ezarri ditu, ahuleziak eta narriadura-ebidentzia objektiboak dituzten kreditu-hartzaileak identifikatu eta kreditu-arriskuaren arabera sailkatzeko.

Hurrengo ataletan, Taldeak erabiltzen dituen sailkapen-printzipioen eta -metodologiaren berri emango dugu.

1) Sailkapen-kategorien definizioa:

Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen zorroan sartu ez diren zor-tresnak, balantzetik kanpoko esposizioak bezalaxe, kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen dira, honela:

i) Arrisku normala:

a. Gainerako kategorietan sailkatzeko baldintzak betetzen ez dituzten eragiketa guztiak sartzen dira bertan (Stage 1).

b. Zaintza bereziko arrisku normala. Kategoria honetan sartzen dira zalantzazko arriskutzat edo kobraezintzat sailkatzeko irizpideak bete gabe hasierako aintzatespenetik (Stage 2) kreditu-arriskuan gehikuntza nabarmenak dituzten edo indarreko araudian eta Taldearen kreditu-arriskua kudeatzeko barne-politiketan jasotako beste irizpide kualitatibo batzuk betetzen dituzten eragiketa guztiak, besteak beste, 30 eta 90 egun bitarteko ez-ordaintzeak.

Taldeak ratio- eta adierazle-sistema bat du, pertsona juridikoekiko arriskuetan kreditu-arriskuak nabarmen handitzen diren ebaluatzeko. Bezeroaren ondare-egoerak, kutxa sortzeko gaitasunak eta kutxa sortzeko gaitasunaren eta banku-zorraren arteko erlazioak eragindako eragiketak antzematean eta horien jarraipenean oinarritzen da sistema hori. Entitateak zehaztutako adierazleetan atalase jakin batzuk gainditzen badira, kreditu-arriskua nabarmen handituko da.

ii) Zalantzazko arriskua (Stage 3):

a. Titularraren berankortasunagatiko zalantzazko arriskua. Kategoria horretan sartzen da zor-tresnen zenbatekoa, titularra eta bermea edozein direlarik ere, baldin eta 90 egunetik gorako antzinatasuneko zenbatekoren bat (printzipala, interesak edo kontratuz hitzartutako gastuak) mugaeguneratuta badute, salbu eta kobraezintzat sailkatzea badagokie. Emandako bermeak ere kategoria horretan sartuko dira, abalduna berandutzean erori bada abalatutako eragiketan.

   Titular baten eragiketa guztiak kategoria horretan sartuko dira, muga-egunetik zenbatuta 90 egunetik gorako antzinatasuna duten eragiketak kobratzeko dagoen zenbatekoaren % 20 baino handiagoak direnean. Ehuneko hori zehazteko, zenbakitzailean jarriko da berankortasunagatik zalantzazkoak diren eta mugaeguneratutako zenbatekoak dituzten eragiketen liburuetako zenbateko gordina eta izendatzailean titularrari emandako zor-tresna guztien liburuetako zenbateko gordina. Horrela kalkulatutako ehunekoa % 20tik gorakoa bada, berankortasunagatiko zalantzazkoetara eramango dira titular horren zor-tresnak nahiz kreditu-arriskua dakarten balantzetik kanpoko esposizioak.

b. Titularraren berankortasuna ez beste arrazoiren batengatiko zalantzazko arriskua. Mugaeguneratuta nahiz mugaeguneratu gabe dauden zor-tresnak hartzen ditu barne, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta kobraezinen edo zalantzazkoen kategorietan sailkatzeko baldintza nahikorik ez egon, arrazoizko zalantzarik badago kontratuz hitzartutako terminoetan osorik (printzipala eta interesak) itzultzeko. Ildo beretik, hor sartzen dira balantzetik kanpoko esposizioak ere, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta zalantzazkoen artean sailkatuta ez egon, Taldeak ordainduko dituela probablea bada eta berreskuratzeko zalantzak badaude.

   Kategoria honetan sartuko dira, besteak beste, euren kaudimena narriatzeko moduko egoeran dauden titularren eragiketak.

iii) Arrisku hutsegina. Kategoria horretan sartuko dira, mugaeguneratuta egon ala ez, banaka egindako azterketaren arabera berreskuratu ezinezkotzat jotzen diren zor-tresnak, eragiketaren edo titularraren kaudimenean ageriko narriadura berreskuraezina gertatu delako. Kategoria horretan sailkatuz gero, eragiketaren liburuetako zenbateko gordina oso-osorik saneatu beharko da eta aktibotik baja eman beharko zaio erabat.

2) Eragiketak sailkatzeko irizpideak:

Taldeak orotariko irizpideak erabiltzen ditu kreditu-hartzaileak nahiz eragiketak kategoria batean edo bestean sailkatzeko, kreditu-arriskuaren arabera. Horien artean daude hauek:

- irizpide automatikoak
- birfinantzamenduetarako berariazko irizpideak
- parametro jakin batzuen jarraipen-ereduetan oinarritutako irizpideak

Faktore automatikoak eta birfinantzamenduetarako berariazko sailkapen-irizpideak zorro osoaren gainean ezartzen diren sailkapen- eta saneamendu-prozesuak dira. Era berean, eragiketen ahuleziak eta narriadurak ahalik eta lasterren antzemateko asmoz, Taldeak zehaztuta duen jarraipen-ereduak tratamendu zehatz bat esleitzen dio eragiketa bakoitzari, ez ordaintzeko arrisku-mailen arabera.

Kreditu-hartzaile garrantzitsuen kasuan, ez-ordaintze posibleak iragartzeko eredu bat erabiltzen da. Aldagai- eta alerta-sistema baten bidez, bezeroen etorkizuneko ez-ordaintzeak antzematea, larritasuna neurtu eta kuantifikatzea eta ez ordaintzeko arrisku-aukerak mailakatzea du helburu. Arrisku-analista adituen talde batek aztertzen ditu alerta aktiboak dituzten kreditu-hartzaileak, ahuleziarik edo narriadura-ebidentzia objektiborik dagoen erabakitzeko eta, narriadura-ebidentziarik badago, galera eragin duen gertakariak finantza-aktiboaren edo taldearen etorkizuneko eskudiru-fluxu estimatuen gainean inpakturik ba ote duen erabakitzeko.

Zalantzazko arrisku gisa sailkatzeko beste arrazoirik ez badago, berankortasun-arrazoien ondorioz zalantzazkoen kategorian sailkatutako eragiketak arrisku normalekoen multzoan sailkatu ahal izango dira berriro ere, baldin eta, mugaeguneratutako zenbatekoen zati bat kobratu ondoren, zalantzazko arrisku gisa sailkatzeko arrazoiak desagertzen badira eta eragiketa arrisku normalekoen multzoan sailkatzeko egunean titularrak ez badu 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna duen beste eragiketarik. Berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatiko zalantzazkoei dagokienez, berriro ere arrisku normalekoen multzoan sailkatu ahal izango dira, baldin eta kontratuan hitzartutako baldintzetan erabat ordainduko duelako arrazoizko zalantzak desagertzen badira eta arrisku normalekoen multzoan sailkatzeko egunean titularrak ez badu 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna duen beste eragiketarik.

Kreditu-narriadurarekin erosi edo sortutako eragiketak

Horrelako aktiboak erosi edo sortzean espero den kreditu-galera ez da sartuko estalduran, ez eta hasierako aitorpeneko liburuetako zenbateko gordinean ere. Eragiketa bat kreditu-narriadurarekin erosi edo sortzen denean, estaldura honako hau izango da: hasierako aintzatespenaren ondoren eragiketen bizitzan zehar espero diren kreditu-galeren aldaketen zenbateko metatua. Aktibo horien interesen bidezko sarrerak, berriz, honela kalkulatuko dira: finantza-aktiboaren amortizatutako kostuari interes-tasa efektiboa aplikatuta, interes-tasa hori kreditu-kalitatearen arabera doitu ondoren.

Birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak

Taldeak kreditu-arriskuen kudeaketaren alorrean erabiltzen dituen politiken eta prozeduren bidez, bermatuta dago kreditu-hartzaileei jarraipen zehatza egitea; gainera, beraien kaudimenean narriadura-zantzuak egonez gero, zuzkidurak egiteko beharra azaleratzen dute. Horregatik, berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketetan kreditu-hartzailearen egoerak hala eskatzen badu, behar diren kaudimengabezia-zuzkidurak egiten ditu Taldeak. Hauek dira berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketak:

- Birfinantzamendu-eragiketak. Eragiketa horiek ematen edo erabiltzen dira, titularra eta bermeak edozein izanik ere, titularrak (edo titularrek) gaur egun ditu(zt)en edo etorkizunean aurreikusten zaizki(o/e)n zailtasun finantzarioekin lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, Entitateak berak nahiz taldeko beste erakunde batzuek titularrari (edo titularrei) nahiz talde ekonomikoko beste enpresa bati edo hainbati emandako eragiketa bat edo batzuk itzultzeko, edota eragiketa horien ordaintzeko betebeharra (osoa edo zati bat) egunean jartzeko, itzulitako edo birfinantzatutako eragiketen titularrei zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, egungo egoeran ezin du(t)enean ordainketa hitzartutako garaiz eta forman ordaindu, edo etorkizunean ezingo du(t)ela aurreikusten denean.

- Berregituratutako eragiketak. Eragiketa horietan, titularrak (edo titularrek) gaur egun ditu(zt)en edo etorkizunean aurreikusten zaizkio(e)n zailtasun finantzarioei lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, baldintza finantzarioak aldatu egiten dira zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, hain zuzen ere egungo egoeran ezin du(t)elako hitzartutako denboran eta moduan ordaindu, edo etorkizunean ezingo du(t)ela aurreikusten denean, nahiz eta aldaketa hori kontratuan aurreikusita egon. Nolanahi ere, berregituratutako eragiketatzat jotzen dira kita egiten zaien edo zorra murrizteko aktiboak jasotzen dituzten eragiketak, edota baldintzak aldatzen zaizkienak, muga-eguna luzatzeko, amortizazio-taula aldatzeko (epe laburrean kuoten zenbatekoa edo maiztasuna gutxitzeko) edo printzipalaren, interesen edo bien gabealdia ezarri edo luzatzeko; salbu eta frogatzen bada baldintzak aldatzeko arrazoia ez dela titularren finantza-arazoa eta aldaketa egiten den egunean merkatuan antzeko arrisku-profila duten erabiltzaileei ezarritako baldintza berberak ezartzen badira.

Eragiketa bat arrisku-kategoria jakin batean sailkatuta badago, birfinantzamendu-eragiketak ez du eragingo haren arrisku-maila hobetzea. Birfinantzatutako eragiketetan, hasierako sailkapena beraien ezaugarrien arabera zehazten da; batik bat, kreditu-hartzaileak finantza-arazoak izatea eta zenbait klausula (adibidez gabealdi luzeak) indarrean egotea hartzen dira aintzat.

Eragiketaren hasierako kalifikazioaren ondoren, arrisku txikiagoko beste kategoria bateko kalifikazioa justifikatuta egongo da agerikoa denean eragiketa berreskuratzeko aurreikuspenak hobetu egin direla, dela kreditu-hartzaileak denboraldi luzean etengabe bete dituelako ordaintzeko betebeharrak, dela hasierako zorra ehuneko handi nabarmen batean berrordaindu delako.

2021eko ekitalditik aurrera, 6/2021 Zirkularra indarrean sartzearen ondorioz, birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketa bat zalantzazkoen artean sailkatzearen data geroagokoa bada birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketaren data baino, eragiketa zalantzazko arrisku gisa sailkatzen den egunetik urtebete igaro beharko da, eragiketa zalantzazko arriskuaren kategoriatik kanpo birsailkatu ahal izateko.

Estaldurak estimatzeko irizpideak

Kreditu-arriskuaren ondoriozko galeren estaldurak kalkulatzeko, aurrerago zehaztu ditugun irizpideak erabiltzen ditu Taldeak.

Arrisku hautemangarririk gabetzat sailkatutako eragiketei (funtsean banku zentralekin, administrazio eta enpresa publikoekin eta finantza-erakundeekin egindakoei eta Europar Batasunekoak edo arriskurik gabekotzat jotako beste herrialde batzuetakoak direnei) % 0ko estaldura-ehunekoa ezartzen zaie, baldin eta zalantzazko eragiketatzat sailkatuta ez badaude, kasu horretan banaka estimatzen baitzaie narriadura.

1) Estalduren banakako zenbatespenak

Hauek dira banakako zenbatespena egiten zaien estaldurak:

i) Banaka nabarmenak diren kreditu-hartzaileen zalantzazko eta zaintza bereziko eragiketen estaldurak. Taldeak 3 milioi euroko atalasea ezarri du arriskuarekiko guztizko esposizioan, kreditu-hartzaileak nabarmentzat hartzeko.

ii) Arrisku-talde homogeneo batekoak ez diren zalantzazko eragiketen estaldurak.

iii) Berankortasunaren ondorioz edo bestelako arrazoiren bategatik zalantzazkotzat sailkatutako eta arrisku hautemangarririk gabetzat identifikatutako eragiketen estaldurak.

Estaldura horiek estimatzeko erabiltzen diren irizpideen bidez, analistek hornidura-maila esleitzen dute, bezeroaren egoera zehatzaren eta eragiketaren arabera eta hauek aintzat hartuz:

i) Kutxa-fluxuen sorrera: zordunek beren negozioaren bidez etorkizunean kutxa-fluxuak sortzeko gaitasuna dutenean, eta, aukera dutenean beren jardueraren eta egitura ekonomiko-finantzarioaren bidez zorraren zati bat edo osotasuna ordaintzeko.

ii) Bermeen berreskurapena: zordunek beren negozioarekin kutxa-fluxuak sortzeko gaitasunik ez dutenean, bermeak exekutatzen dira zorra berreskuratzeko.

Era berean, hauek izango dira banakako zenbatespenerako aintzat hartu beharreko gutxieneko estaldurak: aztertuko diren arriskuen kasuan (kontabilitate-sailkapenaren arabera), zenbatespen kolektiborako irizpideak erabiliz aplikagarriak direnak, eta, sustatzaileen sektoreko eragiketen kasuan, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera aplikatzekoak direnak.

2) Estalduren zenbatespen kolektiboak

Hauek dira zenbatespen kolektiboa egiten zaien estaldurak:

i) Arrisku normalekoen multzoan sailkatutako esposizioak (zaintza berezikoen multzoan sailkatutakoak ere barne hartuta); ez dira sartzen Taldearen politikei jarraikiz banakako zenbatespena egingo zaien zaintza bereziko arrisku normalekoen multzoan sailkatutako esposizioak.

Nabarmen izatera heltzen ez diren eta, gainera, zalantzakotzat jo ez diren kreditu-hartzaileentzat parametro jakin batzuk finkatu ditu Taldeak. Horiek gainditzen badituzte, zaintza bereziko arrisku normaltzat sailkatuko dira berehala. Oro har, ez-ordaintzeak 30 egun baino handiagoak eta 90 egun baino txikiagoak izango dira, eta mugaeguneratutako zenbatekoak 300 eurotik gorakoak.

ii) Zalantzazkotzat sailkatutako eta estalduren banakako zenbatespenaren bidez ebaluatzen ez diren esposizioak.

Narriadura estimatzeko prozesuan, kreditu-esposizio guztiak hartzen dira aintzat, bai zor-tresnak eta bai balantzetik kanpoko esposizioak. Horrela, bada, indarreko FINA arauetan ezarritako parametroak eta metodologia (aurreikusitako galerarena) eta indarreko gainerako tokiko araudia erabili du Taldeak, eta, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaerari buruzko datu eta eredu estatistikoak, FINA arauen esparruarekin erabat bateragarria den erakusten dutenak, oinarritzat harturik, Taldeak bezeroekin dituen balantzeko eta balantzetik kanpoko esposizioen narriaduraren sailkapena eta kalkulua zehazteko erabiltzen dira. Metodologiak, besteak beste, kontzeptu hauek hartzen ditu aintzat: eragiketari dagokion kreditu-arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, dagokionean, mugaeguneratutako zenbatekoen antzinatasuna.

Bestalde, COVID-19aren krisia dela eta, egoera ekonomiko-finantzarioaren narriadurak bere finantza-aktiboei aurreikusten zaizkien galeretan izango duen eragina aztertu du Taldeak. Ebaluazio horren ondorioz, 2021eko ekitaldian indartu egin ditu normalen eta zaintza bereziko normalen artean sailkatutako zenbait esposizioren narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak. Zehazki, batez ere multzo hauei eragiten dieten balio-zuzenketak egin dira:

i) Zaintza bereziko arrisku normalekoen artean sailkatutako esposizioak.
ii) Arrisku normalekotzat jotako esposizioak, COVID-19aren krisiak bereziki eragin dien jarduera ekonomikoko sektore batzuei dagozkienak.
iii) Arrisku-egoerak bultzatuta 15.c oharrean deskribatutako laguntza-neurriei atxikitako kreditu-hartzaileei onartutako zenbait eragiketa.
iv) 575/2013 EB Erregelamenduaren 178. artikuluaren eta Espainiako Bankuaren 3/2019 Zirkularraren arabera arrisku normalekoen baina ordaindu gabekoen artean sailkatutako esposizioak.
v) 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duena, indarrean jarri ondoren zalantzazkoen artean sailkatu diren esposizioak.

Balio-zuzenketa horiek galdu-irabazien kontuan erregistratu dira, «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak eta aldaketen ondorioz galerak edo (–) irabaziak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea» (62. oharra).

Kreditu-arriskuagatiko galeren estalduren estimazioetan, higiezin-bermeetatik berreskuratu beharreko zenbatekoa berme horien erreferentzia-balioa doitzearen emaitza izango da; hau da, honako hauek behar bezala jasotzeko doikuntzak eginda: estimazioaren ziurgabetasuna, bermeak exekutatu eta saldu arte izan litzakeen balio-galerak, exekuzio-kostuak, mantentze-kostuak eta salmenta-kostuak.

Berme erreal eraginkorretatik berreskuratu beharreko zenbatekoa zehazteko, Taldeak estimatutako deskontuak aplikatzen ditu horien erreferentziako balioaren gainean. Horretarako, Espainiako banku-sektoreari buruz duen esperientzia eta informazioa hartzen ditu oinarri, FINA arauek eta indarreko gainerako arauek eskatzen duten metodologiari jarraikiz.

Herrialde-arriskuagatiko kreditu-arriskuaren araberako sailkapena eta estaldura

Herrialde-arriskutzat hartzen da herrialde jakin batean bizi diren titularrekin egindako eragiketek ohiko merkataritza-arriskuaz bestelako arrazoiengatik izan lezaketen arriskua (arrisku subiranoa, transferentzia-arriskua edo nazioarteko finantza-jarduerak eragindako arriskua). Hirugarrenekin egiten dituen eragiketak taldeka banatzen ditu Taldeak, herrialdeetako hainbat elementu aintzat hartuta: bilakaera ekonomikoa, egoera politikoa, arau- eta erakunde-esparrua, ordainketak egiteko gaitasuna eta esperientzia. Hala, herrialde bakoitzari kaudimengabeziagatiko zuzkidurarako ehuneko jakin bat ezartzen dio, indarreko araudian finkatutakoarekin bat.

Herrialde-arriskuagatiko zalantzazko aktibotzat jotzen dira aldi luzez beren zorrari aurre egiteko zailtasunak dituzten herrialdeetan bizi diren azken obligaziodunekin egindako eragiketak, berreskuratzeko aukera zalantzazkoa denean. Ildo beretik, herrialdeari egotz dakizkiokeen gorabeheren ondorioz berreskuratzeko aukera urruna duten balantzetik kanpoko esposizioek ere kategoria bera izango dute.

2021eko eta 2020ko ekitaldien itxieran, Taldeak ez du inolako zuzkidurarik kontzeptu horren pean.

Bermeak

Eraginkortzat jotzen dira Taldeak kreditu-arriskua arintzeko baliagarria dela frogatzeko balio duten berme errealak eta berme pertsonalak. Bermeen eraginkortasunaren analisiak kontuan hartzen ditu, besteak beste, bermeak gauzatzeko behar den denbora eta Taldeak horiek gauzatzeko duen gaitasuna, bai eta halakoak gauzatzeko duen esperientzia ere.

Ez dira inola ere berme eraginkortzat hartuko beren eraginkortasuna, funtsean, zordunaren kreditu-kalitatearen mende edo, dagokionean, zordunak parte hartzen duen talde ekonomikoaren mende dutenak.

Baldintza horiek betez gero, berme-mota hauek jo daitezke eraginkortzat:

i) Lehen kargako ondasun higiezinen hipoteka moduan eratutako higiezin-bermeak:

   a. Bukatutako eraikinak eta eraikinetako elementuak:
      - etxebizitzak
      - bulego eta lokal komertzialak, eta balio anitzeko pabiloiak
      - gainerako eraikinak, hala nola balio anitzekoak ez diren pabiloiak eta hotelak
   b. Hiri-lurzorua eta urbanizagarri antolatua.
   c. Gainerako ondasun higiezinak.

ii) Finantza-tresnen gaineko pignorazio-bermeak:

   - diru-gordailuak
   - kaudimen handiko jaulkitzaileen ondare-tresnak edo zorra adierazten duten baloreak

iii) Beste berme erreal batzuk:

- bermean jasotako ondasun higigarriak
- higiezinen gaineko bigarren eta hurrengo hipotekak

iv) Abal-emaile berrien bezeroarekiko erantzukizun zuzen eta mankomunatua dakarten berme pertsonalak, betiere pertsona edo entitate horien kaudimena nahikoa frogatuta badago, hitzartutako baldintzetan eragiketa osorik itzuliko dutela bermatzeko.

Espainian kokatutako aktiboetarako, indarreko araudiarekin bat datozen irizpideak erabiltzen ditu Taldeak, berme errealak balioztatzeko. Zehazki, balioztapenen hornitzaileak hautatu eta kontratatzeko Taldeak erabiltzen dituen irizpideen xedea da horien independentzia eta balioztapenen kalitatea bermatzea. Guztiak ere Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistro Berezian erregistratutako tasazio-sozietate eta -agentziak dira, eta balioztapenak egiteko irizpideak ECO/805/2003 Aginduan, ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk finantza-xede jakin batzuetarako balioztatzeko arauen gainekoan, daude ezarrita.

Kreditu-eragiketen higiezin-bermeak eta higiezinak eurak eragiketa egiten denean tasatzen dira (azken horiek, erosketa, esleipen edo ordainean emate bidez), eta aktiboaren balioa nabarmen erortzen denean. Era berean, zenbait eguneratze-irizpide erabiltzen dira; horien artean nabarmentzen da urtean behin zalantzazko arriskuak eta esleitutakoak eguneratzea.

**Arrazoizko balioarekin balioztatutako zor-tresnak**

«Beste emaitza global metatu batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sartutako zorra adierazten duten baloreen narriaduraren ondoriozko galerak honela kalkulatzen dira: eskuratze-kostuaren —printzipalaren edozein amortizazio kendu ostean— eta bere arrazoizko balioaren arteko alde positiboa ken galdu-irabazien kontu bateratuan aurrez aintzatetsitako narriaduraren ondoriozko edozein galera.

Ebidentzia objektiboak ditugunean arrazoizko balioa narriaduragatik txikitu dela, zuzenean ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean aintzatetsitako ezkutuko minusbalioak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira berehala. Aurrerago narriaduraren ondoriozko galera batzuk edo guztiak berreskuratzen badira, kopuru hori berreskurapen-epeko galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen da.

«Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sailkatutako zorra adierazten duten baloreen kasuan, Entitate Nagusiaren ustez narriadura gertatzen da, baldin eta printzipalean edota kupoian 90 egunetik gorako ez-ordaintzea gertatu bada.

«Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» epigrafean sailkatuta dauden zor-tresnetan, aurrez ondare garbi bateratuan erregistratutako galerak egindakotzat jotzeko, galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatesten dira, sailkapena egiten den egunean.

**Ondare-tresnak**

Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen kasuan, narriaduraren ondoriozko galerak zenbatesteko, zenbateko berreskuragarria eta liburuetako zenbatekoa alderatzen ditu Taldeak. Narriaduraren ondoriozko galera horiek, gertatzen diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, eta ondorengo berreskurapenak, horiek gertatzen diren epeko galdu-irabazien kontu bateratuan.

Taldeak zantzu hauek hartzen ditu aintzat, besteak beste, narriadura-ebidentziarik dagoen zehazteko:

- Zailtasun finantzario nabarmenak.
- Zailtasun finantzarioen ondorioz kasuan kasuko tresnarentzat merkatu aktibo bat desagertzea.
- Emaitzetan aldaketa nabarmenak izatea, aurrekontuetan, negozio-planetan edo helburuetan jasotako datuekin alderatuta.
- Jaulkitzailearen ondare garbiko tresnen edo beraren produktu nahiz produktu posibleen merkatuan aldaketa nabarmenak izatea.
- Ekonomia globalean edo jaulkitzaileak jarduten duen inguruneko ekonomian aldaketa nabarmenak gertatzea.
- Jaulkitzaileak jarduten duen ingurune teknologiko edo legezkoan aldaketa nabarmenak gertatzea.

«Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak» epigrafean sartutako mendeko eta elkartutako entitateetako partaidetzen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketen zenbatekoa estimatzeko, haien zenbateko berreskuragarria eta kontabilitate-balioa alderatzen dira. Kontabilitate-balioa, berriz, bi zenbateko hauen artean handiena izango da: arrazoizko balioa ken salmenta-kostua eta erabilera-balioa.

**Finantza-aktibo eta -pasiboen sarrerak eta gastuak**

«Finantza-tresnen sarrerak eta gastuak amortizatutako kostuan» zorroa aintzatesteko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, eragiketaren interes-tasa efektiboa eragiketaren liburuetako zenbatekoaren gainean aplikatuta (zalantzazko aktiboetan ez, halakoetan kontabilitate-balio garbiaren gainean aplikatzen baita).

b) Gainerako balio-aldaketak sarrera edo gastu moduan aintzatetsiko dira, finantza-tresnak balantzean baja hartzen duenean, birsailkatzen denean eta, finantza-aktiboei dagokienez, balio-narriaduraren ondoriozko galerak edo ondoren berreskuratzearen ondoriozko irabaziak sortzen direnean.

«Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-tresnen sarrerak eta gastuak arrazoizko balioan» zorroa aintzatesteko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Arrazoizko balioaren aldaketak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira zuzenean. Deribatuak ez diren tresnak jasotzean, bereizi egin behar dira tresnatik sortutako etekinei egoztekoa den zatia —interes edo dibidendu gisa erregistratuko da, izaeraren arabera— eta gainerako zatia —finantza-eragiketen emaitzatzat erregistratuko da dagokion partidan—.

b) Zor-tresnen ondorioz sortutako interesak kalkulatzeko, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuko da.

Salbuespen moduan, Taldeak honela aintzatetsi beharko lituzke arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela balioztatutako finantza-pasiboen balio-aldaketak, dagokionean:

a) Pasiboaren kreditu-arrisku propioaren aldaketei egotz dakiekeen finantza-pasiboaren arrazoizko balioko aldaketaren zenbatekoa beste emaitza global batean aintzatesten da, eta zuzenean erreserba-partida batera intsuldatuko litzateke, finantza-pasiboak baja hartuko balu.

b) Pasiboaren arrazoizko balioko aldakuntzaren gainerako zenbatekoa ekitaldiko emaitzan aintzatesten da.

«Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko sarrerak eta gastuak aintzatesteko, irizpide hauek erabiltzen dira:

a) Sortutako interesak edota, dagokionean, sortutako dibidenduak galdu-irabazien kontuan aintzatetsiko dira. Interesekin, amortizatutako kostuko aktiboekin bezala jokatzen da.

b) Kanbio-aldeak galdu-irabazien kontuan aintzatesten dira, finantza-aktibo monetarioak direnean, eta beste emaitza global batean, finantza-aktibo ez-monetarioak direnean.

c) Zor-tresnei dagokienez, balio-narriadurak eragindako galerak edo ondoren berreskuratzearen ondoriozko irabaziak galdu-irabazien kontuan aintzatesten dira.

d) Gainerako balio-aldaketak beste emaitza global batean aintzatesten dira.

Hartara, zor-tresna bat arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituela balioztatzen denean, amortizatutako kostuan balioztatuz gero aintzatetsiko liratekeen zenbatekoak aintzatetsiko dira ekitaldiko emaitzan.

Arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituela balioztatutako zor-tresnari balantzean baja ematen bazaio, ondare garbian metatutako galera edo irabazia birsailkatu eta epealdiko emaitzara eramaten da. Aitzitik, arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituela balioztatu den ondare-tresna garbiari ematen bazaio baja balantzean, beste emaitza global metatu batean jasotako galeraren edo irabaziaren zenbatekoa ez da galdu-irabazien kontuan birsailkatzen, erreserben partida batean baizik.

Aurreko zorroetako bakoitzean, aintzatespena aldatu egingo litzateke, tresnak estaldura-erlazio baten parte izanez gero.

i) Kontuak atzerri-dirutan balioztatzea

Euroa da Taldeak bere jardunean darabilen dibisa. Beraz, eurotan ez dauden saldo eta transakzio guztiak atzerri-dirutan egindakotzat joko dira.

Hauxe da Taldeak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa mila eurokotan:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Aktiboak** | **Pasiboak** |
| AEBko dolarrak | 117.627 | 33.343 | 105.245 | 32.092 |
| Libera esterlinak | 2.483 | 2.387 | 1.203 | 5.547 |
| Yen japoniarrak | 199 | 322 | 4.915 | 176 |
| Franko suitzarrak | 3.008 | 93 | 166 | 93 |
| Beste batzuk | 1.166 | 5.579 | 219 | 1.224 |
| | 124.483 | 41.724 | 111.748 | 39.132 |

Hona hemen Taldeak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa mila eurokotan, izaeraren arabera sailkatuta:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Aktiboak** | **Pasiboak** |
| Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk | 7.241 | - | 13.923 | - |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 62 | - | - | - |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak | - | - | 8.853 | - |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 30.855 | - | 18.877 | - |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | 86.325 | - | 68.874 | - |
| Deribatuak – estaldura-kontabilitatea | - | 460 | 1.221 | - |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | - | - | - | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | - | 40.815 | - | 37.565 |
| Emandako konpromisoak eta bermeak | - | 449 | - | 1.567 |
| | 124.483 | 41.724 | 111.748 | 39.132 |

Hasierako aintzatespenean, diru funtzionalera bihurtzen dira atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak. Helburu horretarako, aintzatespenaren eguneko eskurako kanbio-tasa erabiltzen da; hau da, berehala entregatzeko kanbio-tasa. Hasierako aintzatespenaren ondoren, arau hauek erabiltzen dira atzerri-dirutan dauden saldoak diru funtzionalera bihurtzeko:

i) Izaera monetarioko aktibo eta pasiboak itxierako kanbio-tasara bihurtzen dira, hau da, finantzetako egoera-orrien eguneko eskurako batez besteko kanbio-tasara.

ii) Kostu historikoarekin balioztatutako partida ez-monetarioak eskurapen-eguneko kanbio-tasara bihurtzen dira.

iii) Arrazoizko balioarekin balioztatutako partida ez-monetarioak arrazoizko balio hori zehazten den eguneko kanbio-tasara bihurtzen dira.

iv) Sarrerak eta gastuak bihurtzeko, berriz, eragiketaren eguneko kanbio-tasa aplikatzen da. Dena den, epealdiko eragiketa guztietan batez besteko kanbio-tasa bera erabiltzen da, aldaketa nabarmenik izan ez badu, behinik behin. Amortizazioak dagokion aktiboari aplikatutako kanbio-tasara bihurtzen dira.

Atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak bihurtzean sortutako kanbio-aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, oro har. Halarik ere, arrazoizko balioarekin balioztatu diren, arrazoizko balio horretara egindako doikuntza ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen zaien eta monetarioak ez diren partidetako kanbio-aldeen kasuan, kanbio-tasaren osagaia bereizi egiten da monetarioa ez den elementuaren errebalorizaziotik.

Diru funtzional moduan euroa erabiltzen ez duten partaidetzapeko erakundeetan, urteko kontuetako saldoak honela bihurtzen dira eurotara:

i) Aktiboak eta pasiboak bihurtzeko, ekitaldi-amaierako kanbio-tasa aplikatzen da.

ii) Sarrerak eta gastuak eta altxortegiko fluxuak bihurtzeko, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasak aplikatzen dira.

iii) Ondare garbia kanbio-tasa historikoetara bihurtzen da.

Diru funtzional moduan euroa erabiltzen ez duten partaidetzapeko erakundeetako urteko kontuak bihurtzean sortutako kanbio-aldeak ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafean jasotzen dira.

Partaidetzapeko erakundeek erabiltzen dituzten diru funtzionalen artean bat bera ere ez dagokio gai horren inguruan ezarrita dauden irizpideen arabera oso inflazionistatzat jotako ekonomia bati. Beraz, 2021eko eta 2020ko ekitaldien kontabilitate-itxieran ez da beharrezkoa izan partaidetzapeko erakundeetan finantzetako egoera-orriak doitzea, inflazioaren eraginak zuzentzeko.

j) Sarrerak eta gastuak aintzatestea

Interesen eta antzeko kontzeptuen ondoriozko sarrerak eta gastuak sortzapen-epearen arabera eta interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez erregistratzen dira, oro har, kontabilitatean. Beste erakunde batzuetatik jasotako dibidenduak sarrera moduan aintzatesten dira, horiek jasotzeko eskubidea sortzen den unean.

Finantza-zerbitzuengatik ordaindutako eta kobratutako komisioak, kontratuan duten izendapena gorabehera, honela sailkatzen dira, eta sailkapen horren arabera egozten dira galdu-irabazien kontu bateratuan:

a) Kreditu-komisioak. Finantzaketa-eragiketa baten etekina edo kostu efektiboa osatzen dutenak dira. Aurrez jasotzen dira komisio horiek, eta horrelakoak izan daitezke:

   i) Arrazoizko balioarekin eta galdu-irabazietan aldaketak dituztela balioztatu ez diren finantzaketa-eragiketak sortu edo eskuratzeagatik jasotako komisioak. Hainbat jarduera betetzeagatik jasotako ordainsariak har ditzakete barne, hala nola mailegu-hartzailearen finantza-egoeraren ebaluazioa, zenbait bermeren ebaluazioa eta erregistroa, eragiketa-baldintzen negoziazioa, dokumentazioaren prestaketa eta tratamendua, eta transakzioaren itxiera. Eragiketaren etekinari edo kostu efektiboari egindako doikuntza gisa bereizten eta aintzatesten dira galdu-irabazien kontu bateratuan, eragiketaren bizitzan zehar. Hona hemen 2021ean eta 2020an sortutako komisioak, produktuaren arabera: 2021ean, 9.024 mila euroko finantza-komisioak sortu dira (2020an, 7.513 mila eurokoak).

ii) Finantzaketa emateko konpromisoagatik adostutako komisioak, konpromiso hori arrazoizko balioarekin balioztatzen ez denean, galdu-irabazien kontuak aldaketak dituenean eta Taldeak berariazko mailegu-akordioa egin dezakeenean. Komisio horien ondoriozko sarreren erregistroa atzeratu egiten da, eta eragiketaren doikuntzari edo kostu efektiboari egindako doikuntza gisa esleitzen da galdu-irabazien kontu bateratuan, finantzaketarentzat aurreikusitako bizitzan zehar. Konpromisoa Entitateak mailegua eman gabe iraungitzen bada, komisioa sarrera moduan aintzatesten da konpromisoa iraungitzeko unean.

iii) Amortizatutako kostuan balioztatutako finantza-pasiboen jaulkipenean ordaindutako komisioak. Finantza-pasiboaren liburuetako zenbatekoan izandako kostu zuzen lotuekin batera sartzen dira, eta eragiketaren kostu efektiboari egindako doikuntza gisa esleitzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

b) Kredituzkoak ez diren komisioak. Finantzaketa-eragiketak ez diren finantza-zerbitzuak emateagatik ordaindutakoak dira, eta honelakoak izan daitezke:

i) Denboran zehar emandako zerbitzu batekin lotutakoak, hala nola kontuak administratzeagatiko komisioak eta kreditu-txartelak jaulki edo berritzeagatik aldez aurretik jasotakoak. Sarrerak galdu-irabazien kontu bateratuan jasoko dira denboran zehar, gauzatze-betebeharra erabat betetzeko aurrerapausoak neurtuz, hurrengo atalean zehaztutako irizpideen arabera. Hirugarrenek inbertsioak administratzeagatiko komisioak badira, betebeharra betetzeko aurrerapausoak neurtuz jasoko dira, eta kontratua lortu eta betetzearen kostuei sarrerak eta gastuak erregistratzeko irizpide orokorrak aplikatuko zaizkie.

ii) Une jakin batean ematen den zerbitzu bati lotutakoak. Bezeroak zerbitzuaren gaineko kontrola duenean sortzen dira komisio horiek, adibidez baloreak harpidetzean, dibisa trukatzean edo maileguen aholkularitza edo sindikazioa egitean (kasu horretan, Taldeak beretzat eragiketaren zatirik atxikitzen ez duenean edo gainerako parte-hartzaileen arrisku-baldintza beretan atxikitzen duenean). Kreditu-eragiketetan, kredituaren esku dagoenean funtsak erabili edo ez, erabili ez den kredituaren zatiari dagokion erabilgarritasun-komisioa sarrera gisa erregistratuko da galdu-irabazien kontu bateratuan, kobratzen den unean.

Aurreko irizpideen salbuespena dira arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-tresnak. Tresna horien komisioaren zenbatekoa berehala erregistratzen da galdu-irabazien kontu bateratuan.

Finantza-jardueraren ohiko produktu edo zerbitzuen ondorioz sortutako komisioak bereizi egiten dira ohiko jarduerari ez dagozkion produktu eta zerbitzuen ondoriozko komisioetatik, eta azken horiek galdu-irabazien kontu bateratuko «Beste ustiapen-sarrera batzuk» epigrafean sartzen dira.

k) Saldoak konpentsatzea

Kontratuaren edo lege-mailako arau baten ondorioz konpentsatzeko aukera duten transakzioen saldo zordun eta hartzekodunak zenbateko garbiarekin jasotzen dira balantze bateratuan, baldin eta horiek zenbateko garbiarekin likidatzeko edo aldi berean aktiboa egin eta pasiboa ordaintzeko asmoa badago.

l) Finantza-bermeak

Finantza-bermedun kontratuetan, jaulkitzaileak ordainketa espezifikoak egin behar dizkio hartzekodunari, baldin eta zordun jakin batek ez badu ordaintzeko betebeharra betetzen eta, ondorioz, hartzekodunak dirua galtzen badu, zor-tresna batean —berdin dio zer egitura juridiko duen: fidantza, finantza-abala, aseguru-kontratua edo kreditu-deribatua— hitzartutako baldintzen (jatorrizkoen nahiz aldatuen) arabera.

Finantza-bermedun kontratuen erakunde jaulkitzaileak «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Beste finantza-pasibo batzuk» partidan jasotzen ditu horrelakoak. Bertan, arrazoizko balioa gehi jaulkipenari zuzenean dagozkion transakzio-kostuak zehazten dira, aseguru-entitateek egindako kontratuetan izan ezik.

Hasieran, kontrako ebidentziarik ez badago, transakzio isolatuen bidez elkarrekiko independentzia-baldintzetan hirugarrenen alde egindako finantza-bermedun kontratuen arrazoizko baliotzat jasotako primaren zenbatekoa hartuko da. Eta zenbateko horri, dagokionean, jaso beharreko eskudiru-fluxuen balio eguneratua gehituko zaio, Entitateak antzeko epean eta arriskuekin emandako finantza-aktiboen antzeko interes-tasa erabiliz. Era berean, aktiboko kreditu gisa aintzatetsiko da jasotzeko dauden etorkizuneko eskudiru-fluxuen balio eguneratua, lehen aipatutako interes-tasa erabilita.

Hasierako aintzatespenaren ondoren, kontratuak irizpide hauen arabera erregistratzen dira:

i) Finantza-bermeen ondorioz jaso beharreko komisio edo primen balioa eguneratzeko, aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira finantza-sarrera gisa.

ii) Zalantzazkoen artean sailkatu ez diren finantza-bermedun kontratuen balioa honela kalkulatzen da: pasiboan hasieran aintzatetsitako zenbatekoa ken bermearentzat aurreikusitako bizitzan zehar galdu-irabazien kontu bateratuan linealki egotzitako zenbatekoa. Beste irizpide bat ere erabil daiteke, bermearen ekonomia-etekinak eta -arriskuak zehatzago islatzeko balio badu behintzat.

Emandako bermeak bezeroari edo eragiketari egoztekoa den kaudimengabezia-arriskuaren arabera sailkatzen dira, eta berme horientzat 13.h oharrean azaldu direnen antzeko irizpideak erabiliz hornidurak eratzeko beharra zenbatesten da.

Eragiketa horietarako eratutako hornidurak balantze bateratuaren pasiboko «Hornidurak – Emandako konpromisoak eta bermeak» epigrafean daude kontabilizatuta (37. oharra). Horidura horien zuzkidurak eta berreskurapenak galdu-irabazien kontu bateratuko «Hornidurak edo hornidura-itzulketak» epigrafean erregistratzen dira.

m) Errentamenduak

Eragiketaren ekonomia-funtsaren arabera aurkezten dira errentamendu-kontratuak, edozein egitura juridiko dutelarik ere, eta finantza- edo errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira hasieratik.

i) Kontratuko aktiboaren jabetzari atxikitako arrisku eta mozkinen funtsezko transferentzia egiten denean hartzen dira errentamenduak finantza-errentamendutzat.

Taldeak ondasunak errentan ematen dituenean, errentariak emango dizkion zenbatekoen egungo balioen eta bermatutako hondar-balioaren arteko batura hirugarrenei emandako finantzaketa gisa erregistratzen da, eta, beraz, balantze bateratuko «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» epigrafean sartzen da, errentariaren izaeraren arabera. Bermatutako hondar-balioa kontratua amaitzen denean errentariak erosteko aukera erabiltzearen prezioa izan ohi da.

Beste alde batetik, Taldeak errentari jarduten duenean, errentan emandako aktiboen kostua balantze bateratuan erregistratzen da, kontratuko ondasunaren izaeraren arabera, eta, aldi berean, zenbateko bereko pasibo bat ere bai. Pasibo hori kalkulatzeko, bi hauen arteko txikiena hartuko da: (1) errentan emandako ondasunaren arrazoizko balioa eta (2) errentatzaileari ordaindu beharreko kopuruen egungo balioak gehi, dagokionean, erosteko aukeraren ekitaldiko prezioa. Erabilera propioko aktibo materialetan aplikatzen direnen antzeko irizpideez amortizatzen dira aktibo horiek.

Jatorria kontratu horietan duten finantza-sarrerak eta -gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu eta kargatzen dira, hurrenez hurren, kontratuen bizitzan zehar errendimendua konstantea izateko moduan.

ii) Finantza-errentamendutzat hartzen ez diren errentamendu-kontratuak errentamendu operatibo gisa sailkatzen dira.

Taldea denean errentatzailea, errentan emandako ondasunen eskuratze-kostua «Aktibo ukigarriak – Ibilgetu materiala» epigrafean erregistratzen da. Erabilera propioko antzeko aktibo materialetan erabiltzen diren politiken arabera amortizatzen dira horiek, eta errentamendu-kontratuen ondoriozko sarrerak linealki aintzatesten dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

Bestalde, Taldeak errentari moduan jarduten duenean, aktibo ukigarriaren arauan jasotakoa aplikatzen da.

n) Kudeatutako ondareak

Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen jabetzako ondareak ez dira balantze bateratuan sartzen. Jarduera honek emandako komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen ondoriozko sarrerak» epigrafean erregistratzen dira (48. oharra).

ñ) Taldeak kudeatutako inbertsio-funtsak eta pentsio-funtsak

Taldeak kudeatutako inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak ez dira balantze bateratuan aurkezten, horietako ondarea hirugarren batzuena delako (68. oharra). Taldeak funts horiei emandako zerbitzuen —ondareak kudeatzeko zerbitzuak, zorroen gordailuak…— ondoriozko ekitaldiko komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko «Komisioen ondoriozko sarrerak» epigrafean erregistratzen dira (48. oharra).

o) Pertsonal-gastuak eta enplegu ondoko ordainketak

Langileei emandako ordainsariak, enplegualdia amaitzen denean likidatzen direnak, enplegu ondoko ordainketatzat hartzen dira. Enplegu ondoko ordainketak —baita barneko edo kanpoko pentsio-funtsek estalitakoak ere— ekarpen definituko plan edo prestazio definituko plan gisa sailkatzen dira, obligazio horien baldintzen arabera, eta kontuan hartzen dira enplegatuekin formalki hitzartutako terminoen barruan zein kanpoan onartutako konpromisoak.

Enplegu ondoko ordainketak honela jasotzen dira:

i) Galdu-irabazien kontu bateratuan. Langileek emandako zerbitzuaren kostua (ekitaldi horretakoa nahiz aurreko ekitaldietakoa baina beraietan aintzatetsi gabea), horniduraren (aktiboaren) gaineko interes gordina eta likidatzeko unean gertatzen den irabazia edo galera.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orrian. Irabazi edo galera aktuarial bateratuen ondoriozko horniduraren (aktiboaren) balioztapen berriak, horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartu ez diren planeko aktiboen errendimenduaren balioztapen berriak eta Taldearentzat erabilgarri dauden fluxuen balioan izandako aldaketen ondorioz balio eguneratuak izan dituen aldaketak, baldin eta horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartuta ez badaude. Ondare garbi bateratuaren aldaketen egoera-orrian aintzatetsitako zenbatekoak ez dira birsailkatuko hurrengo ekitaldi bateko galdu-irabazien kontu bateratuan.

Horrela, prestazio-plan mugatuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, irizpide hauei jarraikiz:

a) Indarrean dagoen aldiko zerbitzuen kostua, pertsonal-gastu moduan.
b) Horniduraren gaineko interes garbia, interes ondoriozko gastu moduan.
c) Aktiboaren gaineko interes garbia, interesen ondoriozko sarrera moduan.
d) Iragandako zerbitzuen kostua, hornidura edo (–) hornidura-itzulketa moduan.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1958an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2021eko eta 2020ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

Sare Berria

2016ko, 2017ko eta 2018ko ekitaldietan, baldintza laboral eta ekonomiko zehatz batzuk finkatu zituen Entitate Nagusiak, Caja Laboral Popular Coop. De Créditoren bazkide-talde jakin bati begira. Plan horren barruan, zenbait bazkide lan-baldintza jakin batzuetara atxiki dira, eta kontraprestazio ekonomiko bat jasoko dute, zerbitzuak emateari uzten dioten egunera arte.

2021eko eta 2020ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

PD 59

Era berean, Entitate Nagusiak PD 59 izeneko plana formalizatu zuen 2017ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2018ko urtarrilaren 1etik 2021eko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1959an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2021eko eta 2020ko ekitaldiak ixtean sortutako betebeharra data horretako balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

PD 60

Era berean, Entitate Nagusiak PD 60 izeneko plana formalizatu zuen 2018ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1960an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2021eko eta 2020ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

PD 61

Era berean, Entitate Nagusiak PD 61 izeneko plana formalizatu du 2020ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu du eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1961ean jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2021eko eta 2020ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

PD 62

Era berean, Entitate Nagusiak PD 62 izeneko plana formalizatu du 2020ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu du eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2021eko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1962an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2020ko ekitaldiaren amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

PD 63

Era berean, Entitatea Nagusiak PD 63 izeneko plana formalizatu du 2021eko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu du eta lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2022ko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1963an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2021eko ekitaldiaren amaieran sortutako betebeharra balantzeko «Hornidurak – Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak» epigrafean dago jasota (37. oharra).

Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak

Indarrean dagoen legeriaren arabera, bidezko arrazoirik gabe kaleratzen diren enplegatuei kalte-ordaina eman behar die Taldeak. Langile-taldea murrizteko asmorik ez dagoenez, ez da beharrezkoa horretarako zuzkidurarik sortzea.

p) Jarduera etengabeen ondoriozko irabazien gaineko zerga

Sozietateen gaineko zerga gastutzat hartzen da, eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen ondoriozko gastuak eta sarrerak» epigrafean erregistratzen da.

«Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen ondoriozko gastuak eta sarrerak» epigrafeko gastua ordaindu beharreko zergak zehazten du. Zerga hori ekitaldiko zerga-oinarriaren gainean kalkulatzen da, denbora-aldeak, kenkari eta hobarien ondoriozko kredituak eta zerga-oinarri negatiboak direla eta ekitaldian izandako aldaketak aintzat hartuta. Gerta liteke ekitaldiko zerga-oinarria ez bat etortzea galdu-irabazien kontu bateratuan aurkeztutako emaitza garbi bateratuarekin. Izan ere, beste ekitaldi batzuetan kargatzekoak edo deduzitzekoak diren partidak eta kargatzen eta deduzitzen ez diren partidak kanpoan uzten ditu.

Finantzetako egoera-orrietako aktiboen eta pasiboen liburuetako zenbatekoen eta horien zerga-oinarrien arteko aldeetatik ordaindu edo berreskuratzea espero diren zergak sartzen dira geroratutako zergen ondoriozko aktiboetan eta pasiboetan. Balantze bateratuan kontabilizatzen dira pasiboaren metodoa erabiliz, eta berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasari dagokion denbora-aldea edo kreditua aplikatuz kuantifikatzen dira.

Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboa, hala nola aurreratutako zerga, dedukzioen eta hobarien ondoriozko kreditua eta zerga-oinarri negatiboen ondoriozko kreditua, aintzatesteko, horiek efektibo egiteko adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izan behar du Taldeak. Kasu hauetan esan dezakegu Taldeak etorkizunean behar adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izango duela:

i) Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboa egin den ekitaldian bertan edota momentuan dagoen edo aurreratutako zenbatekoak sortu duen zerga-oinarri negatiboa konpentsa daitekeen geroagoko batean kita daitezkeen geroratutako zergen ondoriozko pasiboak daudenean.

ii) Zerga-oinarri negatiboak sortu dituzten arrazoiak nekez errepikatzekoak direnean.

Aurrekoa gorabehera, erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuetako inbertsioen kontabilitate-erregistroan sortzen den geroratutako zergaren ondoriozko aktiboa aintzatetsiko da, baldin eta hori etorkizunean gauzatzeko asmoa badago, eta etorkizunean behar adina irabazi fiskal izateko itxaropena badago, aktibo hori efektibo egiteko. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da aintzatesten, baldin eta aintzatespenaren unean kontabilitate-emaitzari eta emaitza fiskalari eragin ez badio.

Geroratutako zergen ondoriozko pasiboak beti jasotzen dira kontabilitatean, salbu eta merkataritzako funts bat aintzatesten denean edo pasibook erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuen inbertsioak kontabilizatzean sortzen direnean. Baldintza da, Taldea gai izatea denbora-aldea itzultzeko unea kontrolatzeko eta alde hori ez itzultzea aurreikusteko moduko etorkizunean. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da aintzatesten geroratutako zergaren ondoriozko pasiboa, baldin eta aintzatespenaren unean kontabilitate-emaitzari eta emaitza fiskalari eragin ez badio.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako geroratutako zergak berrikusten dira, bai aktiboak eta bai pasiboak, indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta beharrezko zuzenketak egiten dira.

Deskribatutako azterketa egiteko, aldagai hauek hartzen dira aintzat:

- Entitate bakoitzaren emaitza-proiekzioak, erakunde horietako gobernu-organoek onartutako finantza-aurrekontuetan oinarritutakoak, geroratutako zergen ondoriozko aktiboak erregistratzeko aukera sortu zutenak (zerga-bateratzeko talderik ez zegoelako), gerora entitate bakoitzeko zuzendaritzak estimatutako hazkunde-tasa iraunkorrak ezarrita.

- Denbora-aldeak itzultzearen estimazioa, izaeraren arabera.

- Indarreko legeriak zergen ondoriozko aktiboak itzultzeko ezarritako epea edo muga.
- Europako Banku Zentralaren diru-politiken ondoriozko interes-tasen agertokia.

COVID-19ak ingurune ekonomikoan izan duen eragina aintzat hartuta, plangintza eta proiekzio horiek eguneratu egin dira Zuzendaritzak zuen informaziorik onenenean oinarrituz.

Zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako sarrerak edo gastuak, emaitza fiskalean edo alderantziz eraginik ez dutenak, denbora-alde moduan kontabilizatzen dira.

q) Aktibo ukigarriak

Aktibo ukigarrietan hauek sartzen dira: Taldeak gaur egun edo etorkizunean erabiltzeko duen eta ekitaldi batean baino gehiagotan erabiltzeko asmoa duen ibilgetu materiala, bezeroei errentamendu operatiboan lagatzen zaien ibilgetu materiala, gizarte-ekintzari atxikia eta ondasun higiezinetako inbertsioak, aktiboak barne hartzen dituztenak alokairu-erregimenean ustiatzeko. Aktibo ukigarriak eskuratze-kostuaren arabera balioztatzen dira, baina metatutako amortizazioa kenduta eta, dagokionean, elementu bakoitzaren balio garbia eta zenbateko berreskuragarria alderatzetik ateratzen den narriaduraren ondoriozko edozein galera kenduta. Erabilera propioko eta libreko aktibo materialeko elementu batzuen eskuratze-kostua horiek 2004ko urtarrilaren 1ean arrazoizko balioarekin balioztatuta ateratzen da, 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraikiz —4/2017 Zirkularrak indargabetu zuen zirkular hori—. 2004ko urtarrilaren 1eko arrazoizko balio hori aditu independenteek egindako tasazioetan oinarrituta lortu da.

Esleitutako aktiboen kasuan, bi zenbateko hauetatik txikiena da eskuratze-kostua: esleipenaren truke emandako finantza-aktiboen zenbateko garbia edo esleipenaren uneko arrazoizko balioa ken zenbatetsitako salmenta-kostuak.

Amortizazioak metodo lineala erabiliz kalkulatzen dira. Elementuei estimatutako balio-bizitzako urteak aktiboen eskuratze-kostuari aplikatzen zaizkio eta, gero, hondar-balioa kentzen da. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak dauden lursailen kasuan, bizitza mugagabea dutela ulertzen da, eta, beraz, ez dira amortizatzen. Aktibo materiala amortizatzeagatiko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura erregistratzen dira, eta elementu guztiei batez beste estimatzen zaizkien balio-bizitzako urteen arabera kalkulatzen dira.

| | Estimatutako balio-bizitzako urteak |
|---|---|
| Eraikinak eta urbanizazioak | 27 - 50 |
| Altzariak | 8 - 10 |
| Instalazioak | 6 - 10 |
| Makineria, ekipamendu elektronikoa eta beste batzuk | 2 - 6 |

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, Taldeak aztertzen du ea barruan nahiz kanpoan zantzuren bat badagoen, aktibo materialeko elementuen balio garbia zenbateko berreskuragarria baino handiagoa dela erakusten duena. Kasu horretan, elementu horren liburuetako zenbatekoa kopuru berreskuragarriraino murrizten du Taldeak, eta etorkizuneko amortizazioagatiko karguak doitu egiten ditu, kontabilitate-balio doituaren eta geratzen zaion balio-bizitza berriaren arabera, baldin eta berriro kalkulatu beharra badago. Bestalde, elementu jakin baten balioa berreskuratu dela garbi dagoenean, aurreko epealdietan kontabilizatutako narriaduraren ondoriozko galeraren itzulketa erregistratzen du Taldeak, eta amortizazioagatik etorkizunean egin beharreko karguak doitzen ditu. Elementu baten narriaduraren ondoriozko galera itzultzeak ezin du inola ere eragin liburuetako zenbatekoa handitzea, aurreko ekitaldietan narriaduraren ondoriozko galerak aintzatetsi ez balitzaizkio izango zukeenetik gora.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran behinik behin, erabilera propioko aktibo materialeko elementuen balio-bizitza estimatua berrikusten du Taldeak, horietan aldaketa nabarmenik dagoen ikusteko. Halako aldaketarik badago, doitu egiten ditu, dagozkion zuzenketak eginez balio-bizitza berriaren arabera amortizatu behar denaren zuzkidura etorkizuneko ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzean.

Erabilera propioko aktibo ukigarriak zaindu eta mantentzeagatiko gastuak, egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Aktibo ukigarrien ondasun higiezinetako inbertsioetan, Taldeak dituen lursail, eraikin eta beste eraikuntza batzuen balio garbia sartzen da. Ondasun horiek alokairu bidez ustiatzeko edo salmentarekin (etorkizunean merkatuko prezioetan izaten diren igoeren ondorioz) gainbalioa lortzeko erabiltzen ditu Taldeak.

Taldeak erabilera propioko aktibo ukigarrietan erabiltzen dituen irizpide berberak aplikatzen ditu errentamendu operatiboan lagatako aktiboen eskuratze-kostua aintzatesteko, amortizatzeko, horien balio-bizitzak estimatzeko eta narriaduraren ondoriozko galerak erregistratzeko.

Kontabilitate-printzipio hauek erabiltzen dira errentariaren ikuspuntutik errentamenduen kontabilitatea egiteko:

- Errentamendu-epea. Errentamendu baten aldi errebokaezinaren parekoa da. Horri errentamendua luzatzeko aukerak estalitako epealdiak gehitu behar zaizkio, baldin eta seguru badakigu errentariak aukera hori erabiliko duela, eta, seguru bagaude errentariak ez duela aukera hori erabiliko, errentamendua hutsaltzeko aukerak estalitako epealdiak. Ildo horretan, irizpide hauek aplikatzen ditu Taldeak:

  a) Kontratuan adierazitakoa ez den beste data bat aurreikusita badago kontratua ezerezteko, azken data hori aplikatuko da erabilera-eskubidea ezerezteko.

  b) Kontratuaren muga-eguna 50 urtetik beherakoa bada, kontratuaren data aplikatuko da.

  c) Higiezinen errentamenduaren muga-eguna 50 urtetik gorakoa bada, 50 urtera mugatuko da muga-eguna, Taldeak aplikatutako higiezinen amortizazio-eperik handienarekin bat etorriko baita.

  d) Urtebetetik beherako muga-eguna duten errentamenduetan ez da batere aktibaziorik egingo, eta erregistroa emaitza-kontuaren bidez egiten jarraituko da. Izan ere, aukera handia dago kontratu hori ezereztu eta birnegoziatzeko; hau da, beste baldintza batzuk dituen kontratu berri bat egiteko.

- Aintzatesteko irizpide orokorra. Errentamendu-kontratuetatik sortzen diren aktiboak eta pasiboak errentamenduaren hasierako datan aintzatesten dira. Errentatzaileak ondasuna errentariaren eskuetan erabiltzeko prest uzten duen egunekoa da data hori.

- Errentamenduaren ondoriozko pasiboaren hasierako balioztapena. Kontratua hasteko datan, Taldeak errentamenduaren ondoriozko pasibo bat aintzatesten du, data horretan ordainduta ez dauden errentamenduaren ondoriozko ordainketen egungo balioan.

  Ordainketa horien balio eguneratua kalkulatzeko, honako hau hartzen da deskontu-tasatzat: antzeko ingurune ekonomiko batean errentariak erabilera-eskubideagatiko aktiboaren antzeko balioa duen ondasun bat eskuratzeko behar dituen funtsak antzeko epearekin eta bermearekin maileguan hartzeko ordaindu beharko lukeen interes-tasa (finantzaketa-tasa gehigarria).

- Erabilera-eskubideagatiko aktiboaren hasierako balioztapena. Kontratuaren hasierako datan, Taldeak erabilera-eskubideagatiko aktibo bat aintzatesten du, eta kostu-prezioan balioztatzen du, honako hauek barne hartuta:

  a) Errentamenduagatiko pasiboaren hasierako balioztapenaren zenbatekoa, lehen azaldutakoaren arabera.

  b) Kontratuaren hasierako datan edo lehenago egindako errentamenduagatiko edozein ordainketa ken errentatzailearengandik jasotako edozein kobrantza (adibidez, kontratua sinatzeko jasotako hobariak).

  c) Errentariak jasandako hasierako kostu zuzenak. Horiek barne hartzen dituzte, besteak beste, ondasun ukigarri bat errentariak erabiltzeko moduko lekuan eta baldintzekin kokatzearekin zerikusi zuzena duten kostuak.

d) Aurreikusten dituen kostuak, errentan hartutako ondasuna desegin edo kentzeko, ondasuna dagoen lekua birgaitzeko edo ondasuna kontratuan finkatutako egoeran itzultzeko, salbu eta kostu horiek izakinak sortzeko sortzen badira. Kostu horiek erabilera-eskubideagatiko aktiboaren kostuaren zati gisa aintzatesten dira, Taldeak horiek jasateko betebeharra hartzen duenean.

Erabilera-eskubideagatiko aktiboak aurkezteko, ukigarriak eta ukiezinak bereizten dira, errentan emandako ondasunaren izaeraren arabera.

- Errentamenduagatiko pasiboaren ondorengo balioztapena. Hasierako aintzatespenaren ondoren, errentamenduagatiko pasiboa balioztatzen du Taldeak, helburu hauekin:

a) Haien liburuetako zenbatekoa handitzea, sortutako interesak adieraziz. Interesak kalkulatzeko, hasierako balioztapenean erabilitako interes-tasa aplikatzen da pasiboaren saldoaren gainean.

b) Haien liburuetako zenbatekoa txikitzea, errentamenduagatik egindako ordainketak adieraziz.

c) Honako hauek eguneratuta adieraztea: (i) errentamendu-epea, kontratua luzatu edo hutsaltzeko aukeren ebaluazioa aldatu eta gero; (ii) errentamendu-epea eta errentamenduagatiko ordainketak, errentan hartutako ondasuna erosteko aukeraren ebaluazioa aldatu eta gero; (iii) errentamenduagatiko ordainketak, hondar-balioaren bermearen arabera ordaintzea espero den zenbatekoaren ebaluazioa aldatu eta gero, eta (iv) etorkizuneko errentamenduagatiko ordainketen zenbateko aldakorrak, indize edo tasa baten araberakoak direnean, azken horiek aldatu eta gero. (i) eta (ii) puntuetan aurreikusitako kasuetan, errentamendu-epea eguneratu egin denez, berrikusitako ordainketak hasierako balioztapenean erabilitako deskontu-tasaren arabera deskontatuko dira, salbu eta ordainketen aldakuntza interes-tasa aldakorren aldaketaren ondorioa bada; kasu horretan, interes-tasaren aldaketa islatuko duen berrikusitako deskontu-tasa erabiliko da. Taldeak errentamendu-epea berrikusten du, hondar-balioaren bermearen arabera ordaintzea espero duen zenbatekoetan, kontratuan jasotako aukeren ebaluazioan egitate edo aldaketa garrantzitsu bat gertatzen denean. Era berean, Taldeak indize edo tasa bat erreferentziatzat hartzen duten ordainketak berrikusten ditu, baldin eta, kontratuzko baldintzetan finkatutakoaren arabera, ordainketa horien zenbatekoak eguneratu egin behar badira.

d) Errentamenduaren edozein aldaketa adieraztea.

e) Saihestezintzat hartu ez ziren errentamenduagatiko ordainketak adieraztea, hala nola lehenago guztiz gertagarritzat jotzen ez ziren gertaeren mende daudenak, baldin eta erreferentziazko datan gertaera horiek finkoak badira, saihestezinak direlako.

Errentamenduagatiko pasiboaren balioztapenean sartu ez diren errentamenduagatiko ordainketa aldakorrak, berriz, ordainketa horiek eragin dituen egitatea edo inguruabarra gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan aintzatetsiko dira.

Erabilera-eskubideagatiko aktiboaren ondorengo balioztapena. Hasierako aintzatespenaren ondoren, erabilera-eskubideagatiko aktiboa kostu-prezioan balioztatzen du Taldeak:

a) Metatutako amortizazioa eta narriaduraren ondoriozko galera metatuak kenduta. Erabilera-eskubideagatiko aktiboa errentan hartutako ondasunaren balio-bizitzan amortizatzen da, kontratua amaitzean errentan hartutako ondasunaren jabetza transferitzen bada edo erabilera-eskubideagatiko aktiboaren kostuaren hasierako balioztapenak islatzen badu errentariak erosteko aukera erabiliko duela. Gainerako kasuetan, balio-bizitzaren edo errentamendu-epearen arabera amortizatzen da, txikiena zein den.

b) Doituta, lehen azaldutakoaren arabera egin beharreko errentamenduagatiko ordainketen balio eguneratuaren aldaketak islatzeko.

- Aintzatespenerako eta balioztapenerako tratamendu erraztua. Taldeak gastu gisa kontabilizatzen ditu errentamendu hauek direla eta egindako ordainketak:

  a) Epe laburreko errentamenduak (hau da, hasierako datan 12 hilabeteko edo gutxiagoko epea dutenak), erosteko aukerarik jasotzen ez badute.

  b) Errentan hartutako ondasuna balio txikikoa denean, betiere beste ondasun batzuen mende egon gabe (edo haiekin lotura zuzenik izan gabe) erabili ahal bada ondasuna eta errentariak etekinak lortu ahal baditu ondasuna erabiliz (ondasuna bakarrik edo erraz eskura daitezkeen beste baliabide batzuekin batera). Errentan hartutako ondasunaren balioaren ebaluazioa kopuru absolutuetan egiten da, berria zeneko balioa oinarri hartuta.

  Bi kasuetan, linealki egozten da galdu-irabazien kontuan, errentamendu-epean zehar.

- Errentamendua aldatzea. Errentamendu baten aldaketa kontabilizatzeko, beste errentamendu bat erregistratzen du Taldeak, baldin eta aldaketa horrek kontratuaren eremua zabaltzen badu (errentan hartutako ondasun bat edo batzuk gehituta) kontraprestazioa handitzearen truke; hau da, kontratuari gehitutako ondasunen gaineko errentamendu-kontratu bereizia egingo balitz ordainduko litzatekeen prezioaren zenbatekoan handitzearen truke.

  Baldintza horiek betetzen badira, aldeek aldaketa adosten duten datan, Taldeak: (a) aldatutako kontratuaren kontraprestazioa banatzen du, errentamenduaren partaideen eta beste mota batekoen artean; (b) aldatutako errentamendu-epea zehazten du; (c) errentamenduagatiko pasiboa balioztatzen du berriro, berrikusitako errentamenduagatiko ordainketak berrikusitako deskontu-tasaren arabera deskontatuta eta errentamenduaren gainerako epean eta aldaketa-datan dagokiona zehaztuz, eta (d) errentamenduagatiko pasiboaren balioztapen berria kontabilizatzen du.

r) Aktibo ukiezinak

Irudi fisikorik ez duten aktibo monetario identifikagarriak dira aktibo ukiezinak. Aktibo ukiezinak identifikagarritzat jotzen dira beste aktibo batzuetatik bereiz daitezkeenean, dela besterendu, errentan hartu edo banaka erabili daitezkeelako, dela kontratu edo bestelako negozio juridiko baten ondorioz sortu direlako. Aktibo ukiezina aintzatesterakoan, aurreko definizioa betetzeaz gain, Taldeak horren ondorioz mozkin ekonomikoak lortzeko asmoa izan behar du, eta haren kostua modu fidagarrian kalkulatzeko aukera egon behar da.

Kostuaren arabera aintzatesten dira, hasieran, aktibo ukiezinak. Eskurapenekoa edo produkziokoa izan daiteke kostu hori. Aurrerantzean, kostu horri amortizazio metatua eta narriaduraren ondoriozko galerak kentzen zaizkio, dagokionean.

Merkataritzako funtsa

Merkataritzako funtsak hauxe adierazten du: Taldeak eskuratutako entitate baten aktiboen ondoriozko etorkizuneko etekin ekonomikoen ordainketa aurreratua, aktibo horiek banaka eta bereizita identifikatzeko eta aintzatesteko modukoak ez badira. Negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratzen denean soilik aintzatesten da.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde positiboak, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko aktiboek eta pasiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Aktibo ukiezin zehatzei esleitzekoak badira, berariaz balantze bateratuan aintzatetsiz egozten dira, eskurapen-eguneko arrazoizko balioa modu fidagarrian finka badaiteke.

iii) Egotzi ezin diren gainerako aldeak merkataritzako funts gisa erregistratzen dira, eta eskudirua sortzen duen unitate bati edo gehiagori esleitzen zaie.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde negatiboak, berriz, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira:

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien egoera-balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko pasiboek edo aktiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Egotzi ezin diren gainerako kopuruak kapitala eskuratu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Gainerako aktibo ukiezinak bizitza mugatukoak dira eta horren arabera amortizatzen dira, aktibo materialekoen antzerako irizpideak erabiliz.

Edozein modutan ere, aktibo horientzat erregistratu den balioan narriaduragatik gertatzen diren galerak galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida eginez erregistratzen dira kontabilitatean. Aktibo horien narriaduraren ondoriozko galerak eta, dagokionean, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduraren ondoriozko galeren berreskuratzeak aintzatesteko irizpideak aktibo ukigarrian erabilitakoen antzekoak dira.

s) Izakinak

Izakinak aktibo ez-finantzarioak dira, eta hiru egoeratan egon daitezke: Taldeak negozioaren ohiko jardunean saltzeko prest; produkzio-, eraikuntza- edo garapen-prozesuan (saltzeko asmoz) edo produkzio-prozesuan edo zerbitzuak ematean kontsumitzeko. Taldeak higiezinen sustapenaren jardueran saltzeko dituen lursail eta gainerako jabetzak dira, besteak beste, izakinak.

Izakinak balioztatzeko, bi zenbateko hauetatik txikiena hartzen da aintzat: kostu-balioa (eskuratzeko eta eraldatzeko eragindako kostu guztiak eta egungo izaera eta kokapena emateko eragindako gainerako kostuak, zuzenak eta zeharkakoak) eta burutzapen-balio garbia. Burutzapen-balio garbitzat hartzen da izakinek negozioaren ohiko jardunean duten salmenta-prezio estimatua ken produkzioa amaitzeko eta salmenta burutzeko ordaindu behar diren kostuak.

Izakinen balioztapenagatiko edozein doikuntzaren zenbatekoa, hala nola kalteen, zaharkitzearen eta salmenta-prezioa txikitzearen ondoriozkoa, burutzapen-balio garbia eta beste kontzeptu batzuengatiko galerak gastu moduan aintzatesten dira, narriadura edo galera gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan. Ondorengo balio-berreskuratzeak, ostera, gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatesten dira.

Izakinen kontabilitate-balioa, balantze bateratuan baja eman ondoren, gastu moduan erregistratzen da, salmentaren ondoriozko sarrera aintzatesten den ekitaldiko gastu-irabazien kontu bateratuan. Gastu hori galdu-irabazien kontu bateratuko «Beste ustiapen-gastu batzuk» epigrafean sartzen da.

t) Aseguru-eragiketak

Aseguru-erakundeak diren mendeko erakundeek galdu-irabazien kontu bateratuan ordaintzen dituzte jaulkitzen dituzten primen zenbatekoak, eta galdu-irabazien kontu bateratuan kargatzen dituzte ordaindu behar dituzten ezbeharren kostuak, horien azken likidazioa egitean. Bestalde, ekitaldiaren amaieran periodifikatzen dira bai galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu diren baina egun horretan sortu gabe dauden zenbatekoak, bai galdu-irabazien kontu bateratuan kargatu ez diren kostuak, nahiz eta sortuta egon.

Ondoren, zuzeneko aseguruen jarduerari dagozkion hornidura teknikorik garrantzitsuenak azalduko ditugu:

i) Kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoa. Segurtasun-errekargua kenduta etorkizuneko ekitaldiei egoztekoa den ekitaldian kobratutako tarifadun primari dagokio.

ii) Uneko arriskuetarako hornidura teknikoa. Kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoa osatzen du, itxiera-datan igaro ez den estaldura-epeari dagozkion arrisku eta gastuen balioztapena estaltzeko azken hori nahikoa ez den zenbatekoan.

iii) Prestazioetarako hornidura teknikoa. Ekitaldia itxi baino lehen gertatutako ezbeharrek eragin dituzten eta ordaintzeko dauden obligazioen balioztapen estimatuei dagokie. Likidatu edo ordaindu gabe dauden ezbeharrak eta aitortzeko daudenak sartzen dira hornidura tekniko horretan. Ordaintzeko dauden obligazioak kalkulatzeko, egindako kontuko ordainketak kentzen dira eta ezbeharren barruko zein kanpoko likidazio-gastuak hartzen dira kontuan, baita, dagokionean, tramitazio luzeko ezbeharren balioztapenetan izandako desbiderapena estaltzeko behar diren hornidura osagarriak ere.

iv) Bizi-aseguruen hornidura teknikoa:

- Estaldura-epea ekitaldi batekoa edo txikiagoa duten bizitza-aseguruetan, kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoa etorkizuneko ekitaldiei egoztekoa den ekitaldian kobratutako tarifadun primari dagokio. Hornidura teknikoa nahikoa ez denean, hori osatzen duen uneko arriskuetarako hornidura teknikoa kalkulatzen da. Azken hornidura horrek ekitaldia ixteko datan igaro ez den epean aurreikusitako arriskuen eta gastuen balioztapena estaltzen du.

- Urtebetetik gorako estaldura-epea duten bizitza-aseguruetan hornidura tekniko matematikoa kalkulatzeko, etorkizuneko obligazioen eta aseguruaren hartzailearen obligazioen egungo balio aktuarialaren arteko aldea ateratzen da. Ekitaldian sortutako inbentario-prima hartzen da kalkulu-oinarritzat, eta hori ateratzeko, prima garbiari administrazio-gastuetarako errekargua eransten zaio, oinarri teknikoen arabera.

- Inbertsioaren arriskua aseguru-hartzaileek hartzen duten bizitza-aseguruetan, eskubideen balioa zehazteko bereziki kontuan hartzen diren aktiboen arabera finkatzen da hornidura teknikoa.

v) Irabazietan parte hartzeko eta estornuetarako hornidura teknikoa: aseguru-hartzaileek, aseguratuek edo onuradunek sortutako irabaziei eta aseguru-hartzaileei edo aseguratuei itzuli beharreko primen mozkinei dagokie. Hartzaileari prima horiek itzultzea, aseguratutako arriskuaren portaeraren mende egongo da, eta partaideei banan-banan esleitu ez bazaizkie gertatuko da.

vi) Egonkortzeko erreserbak. Aseguru-adar batzuetako berariazko segurtasun-errekarguaren zenbatekoagatik ekitaldi bakoitzean hornitutako kopurua da, oinarri teknikoan aurreikusitako muga du eta metatu egiten da.

Onartutako berraseguruaren hornidura teknikoak kalkulatzeko, zuzeneko aseguruetan aplikatzen direnen antzeko irizpideak erabiltzen dira. Oro har, erakunde lagatzaileak emandako informazioa hartzen da oinarri.

Zuzeneko aseguruaren eta onartutako berraseguruaren hornidura teknikoak balantze bateratuko «Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak» epigrafean sartzen dira. Dena den, ekitaldi-amaieran indarrean dauden aseguru-kontratuen ondoriozkoak ez diren etorkizuneko erreklamazioetarako hornidura teknikoak (egonkortze-erreserba, adibidez) ez dira balantze bateratuko «Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak» epigrafean jasotzen.

Taldeak berraseguru-kontratuengatik jasotzeko eskubidea duen zenbatekoak balantze bateratuko «Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak» epigrafean erregistratzen dira. Aktibo horiek zuzeneko aseguruetarako erabilitako irizpide berberak erabiliz zehazten dira indarreko kontratuen arabera. Aktibo horiek narriatuta dauden begiratzen du Taldeak; hala bada, galera galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen du, zuzenean epigrafe horren kargura.

u) Hornidurak eta pasibo kontingenteak

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako Taldearen egungo obligazioak hartzen dira horniduratzat. Horien izaera argi eta garbi zehaztuta dago finantzetako egoera-orrien egunean, baina zenbatekoa edo kitatzeko unea ez. Horiek kitatzeko, mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak besterendu beharko ditu muga-egunean Taldeak. Obligazio horiek iturri ugari izan ditzakete:

i) Lege- edo kontratu-xedapen bat.

ii) Obligazio inplizitu edo isilbidezkoa, hirugarrenen aurrean ardura batzuk hartzeari buruz Taldeak sortutako baliozko itxaropenean jatorria duena. Itxaropenok sortzen dira Taldeak jendaurrean hartzen dituenean ardurak, iraganeko portaeren ondorioz edo jabari publikoko enpresa-politiketan oinarrituta.

iii) Araudiek alderdi jakin batzuetan duten bilakaera ia segurua; zehazki, Taldeak nahitaez bete behar dituen arautze-proiektuak.

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako obligazio posibleak dira pasibo kontingenteak, eta Taldearen borondatearekin zerikusirik ez duten etorkizuneko gertaera bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen mende egoten dira. Taldearen egungo obligazioak sartzen dira pasibo kontingenteetan; hain zuzen ere, kitatuz gero mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak murriztea ekarriko ez dutenak eta behar adinako fidagarritasunez zehazteko moduko zenbatekoa dutenak, kasu oso arraroetan izan ezik.

Hornidura eta pasibo kontingenteak honela sailkatzen dira: probableak, gertatzea errazagoa denean ez gertatzea baino; posibleak, gertatzea zailagoa denean ez gertatzea baino; eta gertagaitzak, gertatzea oso zaila denean.

Taldeak hornidura eta pasibo kontingente nabarmen guztiak sartzen ditu urteko kontu bateratuetan; alegia, obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa denean ez erantzutekoa baino. Posibletzat jotako pasibo kontingenteak ez dira urteko kontu bateratuetan aintzatesten. Besterik gabe horien berri ematen da, baldin eta ez bada irabazi ekonomikoak ematen dituzten baliabideak galtzeko aukerarik ikusten.

Hornidurak kuantifikatzeko, sortu dituen gertaeraren ondorioei buruzko informaziorik onena hartzen da kontuan, eta kontabilitate-itxiera guztietan estimatzen dira. Dagozkien obligazioei aurre egiteko erabiltzen dira, eta, obligazio horiek desagertu edo txikitu egiten badira, kopuru osoa edo zati bat itzultzen da.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, bere jardueren ohiko garapenean sortutako hainbat auziri, erantzukizuni eta obligaziori erantzun beharra izan dezake Taldeak. Kontzeptu horiengatik Taldearen finantzetako egoera-orrietan erregistratutako hornidurak ekitaldi-amaieran dauden kasuen arabera eta etorkizunean egon daitezkeen kasuen proiekzioen arabera kalkulatzen dira, Taldearen esperientzia historikoaren eta barruko eta kanpoko lege-aholkularien azterketari jarraikiz. Taldeko lege-aholkularien eta bertako Entitate Nagusiaren goi-zuzendaritzaren ustetan, prozedura eta erreklamazio horiek ez dute eragin handirik izango, ez, behintzat, egindako hornidura baino handiagoa, mugaeguneratzen diren ekitaldietako urteko kontuetan.

v) Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako aktibo ez-korronteak eta pasiboak

Balantze bateratuko «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» epigrafean aktiboak sartzen dira, duten izaera gorabehera, ustiapen-jardueretatik kanpo daudelarik aurreikuspenen arabera urtebeteko gauzatze- edo berreskuratze-epea dutenak, epigrafe honetan sailkatu zirenetik.

Salbuespenez, salmenta urtebetetik gorako epean gertatzea aurreikusten denean, Taldeak salmenta-kostua balio eguneratuan balioztatzen du, eta denbora igaro ahalako balio-igoera erregistratzen du galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-talde besterengarrien ondoriozko irabaziak edo (–) galerak» epigrafean.

Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, kontu-sail horien liburuetako zenbatekoa. Kontu-sailok izaera finantzariokoak eta ez-finantzariokoak izan daitezke.

Beraz, zordunek Taldeari zor osoak edo zati bat ordaintzeko emandako aktibo higiezinak edo beste aktibo ez-korronte batzuk, salgai dauden aktibo ez-korrontetzat hartzen dira, salbu eta Taldeak horiek etengabe erabiltzea erabaki badu.

Bestalde, «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako pasiboak» epigrafean, Taldeko erabilera-taldeekin edo etendako eragiketekin zerikusia duten saldo hartzekodunak sartzen dira.

«Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» partidan sailkatutako aktiboak balioztatzeko, oro har, kopururik txikiena hartzen da, aintzatesten diren unean duten kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean; azken horri, baina, aktibooi estimatu zaizkien salmenta-kostuak kentzen zaizkio, finantza-izaerakoak salbu, horiek 13.e.ix oharrean ezarritakoaren arabera balioztatzen dira eta. «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» epigrafean sailkatuta dirauten bitartean, beraien izaeragatik amortizagarriak diren aktibo ukigarri eta ukiezinak ez dira amortizatzen.

Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak erregistratzeko, erabilitako forma juridikoa edozein dela ere, bi zenbateko hauetatik txikiena hartzen da aintzat, hasiera batean: aplikatutako finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoa —hau da, amortizatutako kostua, narriadura estimatua kontuan izanda— edo aktiboak esleitzeko edo hartzeko unean duen arrazoizko balioa ken salmenta-kostu estimatuak —hau da, banakako tasazio osoetan emandako merkatuko balioa, Espainiako Bankuak onetsitako araudian jasotako irizpideen arabera berriz zenbatua, ken salmenta-kostuak—.

Prozesuko gastu guztiak sortzen diren epealdiko galdu-irabazien kontuan aintzatetsiko dira, berehala. Erregistro-gastuak eta likidatutako zergak hasieran aintzatetsi zaien balioaz jaso ahal izango dira, baldin eta horrela arrazoizko balioa gainditzen ez bada, estimatutako salmenta-kostuak kendu ondoren. Esleipen-egunetik salmenta-egunera arte aktiboa mantentzeko eta babesteko egiten diren kostu guztiak (aseguruak, segurtasun-zerbitzuak eta beste) sortu diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatetsiko dira.

Esleitu edo jaso ondoren, arrazoizko balioa zenbatesteko abiapuntutzat erabiltzen den erreferentziazko balioa eguneratzen da. Salmenta-kostuaren arrazoizko balio garbia zehazteko, Taldeak kontuan hartzen ditu sozietate tasatzaileek —guztiak ere Espainiako Bankuko Erregistro berezian daude erregistratuta— egindako balioztapenak, bai eta Espainiako Bankuak, bere esperientzian eta Espainiako banku-sektorearen inguruan duen informazioan oinarrituta erreferentziazko balioaren gainean zenbatetsi dituen deskontuak ere. Era berean, higiezinak 300.000 euroko edo hortik beherako arrazoizko balioa badu, balioztapen-eredu automatizatuak erabiliz eguneratuko da. Dena dela, higiezinek balantzean hiru urte ematen dituztenean, tasazio osoa eginez eguneratuko dira. Era berean, balioztapenaren eguneratzea egiten duen tasazio-sozietatea ez da izango aurreko tasazioa egin duen berbera.

Higiezinen merkatuko prezioen eta gainerako aldagai makroekonomikoen bilakaerak eragina izan dezake balioztapen horietan, COVID-19aren krisia dela eta. Honenbestez, zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinen gainean Entitateak 2021eko abenduaren 31n erregistratuta dauzkan narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak bat datoz urteko kontu hauek formulatu diren datan goi-zuzendaritzako kideek duten zenbatespenik onenarekin.

Liburuetako zenbatekoa handiagoa bada aktiboen arrazoizko balioa baino (salmenta-kostuak kendu ondoren), Taldeak doikuntza egiten du aktiboon kontabilitate-balioan. Horrela, bada, soberakin hori galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-talde besterengarrien ondoriozko irabaziak edo (–) galerak» epigrafean kontrapartida eginez jasotzen da. Aktiboen arrazoizko balioa hazi egiten bada aurrerago, Taldeak itzuli egin ditzake aurrez kontabilizatuta dituen galerak, eta aktiboen kontabilitate-balioa handitu dezake, narriatu aurreko zenbatekoaren mugarekin eta galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen elementu-talde besterengarrien eta aktibo ez-korronteen ondoriozko irabaziak edo (–) galerak» epigrafean kontrapartida eginez.

**Eragiketa etenak**

Eragiketa edo jarduera etentzat hartzen da Taldean besterendu egin den, edo beste era batera erabili den, edo salgai dagoen aktibo ez-korronteen artean sailkatu den eta, gainera, hauetako baldintzaren bat betetzen duen osagaia:

- Nabarmena eta gainerakotik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa adierazten du.

- Nabarmena eta gainerakoetatik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa besterentzeko edo beste bide batzuetatik eskuratzeko plan indibidual eta koordinatu baten atala da.

- Saltzeko asmo hutsez eskuratu den mendeko erakundea da.

Etendako eragiketatzat hartzen diren Taldeko kideek ekitaldian sorrarazitako emaitzak galdu-irabazien kontu bateratuko «Jarduera etenen ondoriozko zerga ondorengo irabaziak edo (–) galerak» epigrafean jasotzen dira, Taldeko kidea jadanik aktibotik kanpo egon ala ez (ekitaldiaren bukaeran bertan jarraitzen badu). Etendako eragiketatzat hartu ondoren eragiketa jarraitutzat hartzea erabakiz gero, horien sarrerak eta gastuak, unean uneko galdu-irabazien kontu bateratuan ez ezik, urteko kontu bateratuetan argitaratutako ekitaldi konparatiboan ere jasotzen dira, kasuan kasuko ezaugarrien arabera dagozkien partidetan.

w) Eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua

Eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuan erabiltzen diren kontzeptuak honela definitzen dira:

i) Eskudiru-fluxuak: eskudiruaren eta antzekoen sarrerak eta irteerak. Likidezia handia eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia duten epe laburreko inbertsioak sartzen dira antzekoetan.

ii) Ustiapen-jarduerak: Taldearen ohiko jarduerak eta inbertsio edo finantzaketakotzat hartu ezin diren beste jarduera batzuk, eta jasotako edozein finantzaketarengatik ordaindutako interesak, finantzaketa-jarduera moduan sailkatutako finantza-pasiboei egokitu arren.

iii) Inbertsio-jarduerak. Epe luzeko aktiboak eta eskudiruan edo antzekoetan sartuta ez dauden beste inbertsio hauek eskuratzeko, besterentzeko edo beste bide batzuk erabiliz erabiltzeko jarduerak dira: aktibo ukigarriak, aktibo ukiezinak, mendekoetako inbertsioak, baterako negozioak eta elkartuak, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean sailkatutako aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak eta talde horietan sartutako pasiboak.

   Negozio edo jarduera-lerro bat osatzen duten aktibo edo pasiboen multzoa eskuratzeak edo besterentzeak eragindako aldaketak «Beste negozio-unitate batzuk» partidan sartuko dira, banakako finantzetako egoera-orrietan, eta «Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk» partidan, finantzetako egoera-orri bateratuetan, haien zeinuaren arabera.

iv) Finantzaketa-jarduerak: ondare garbi bateratuaren eta ustiapen-jardueretan sartzen ez diren pasiboen tamainan eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

Taldeak balantze bateratuetako «Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk» epigrafean sartutako saldoak hartzen ditu eskudiru eta antzekotzat.

x) Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsa (HSF)

Heziketako eta Sustapeneko Funtsa balantze bateratuko «Beste pasibo batzuk» epigrafean erregistratzen da.

Kooperatiben Legearen eta Entitate Nagusiaren estatutuen arabera funts horretara nahitaez egiten diren zuzkidurak ekitaldiko gastu gisa jasotzen dira, nahiz eta kuantifikazioa egiteko ekitaldiko emaitza hartzen den oinarri. Zuzkitzen diren aparteko kopuruak ekitaldiko emaitzaren aplikazio moduan aintzatetsiko dira.

Legeari jarraikiz Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsari lotuta dauden dirulaguntzak, dohaintzak eta gainerako laguntzak, eta kooperatibak bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen ondoriozko funtsak, arautegiaren arabera funts horri lotuta badaude, kooperatibaren sarrera gisa aintzatetsiko dira, eta funts horretan sartu.

Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsa bere xederako aplikatzen denean, baja ematen zaio eta, normalean, altxortegiko kontuetan egiten da abonua. Bestalde, funtsaren aplikazioa kreditu-erakundeak berezkoak dituen jardueren bidez gauzatzen denean, Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Funtsaren zenbatekoa txikitu egiten da eta, aldi berean, sarrera bat erregistratzen da kreditu-kooperatibaren galdu-irabazien kontuan, horrelako jardueretarako merkatuan dauden baldintzen arabera.

y) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orri bateratua eta aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratua

Urteko kontu bateratu hauetan aurkeztu ditugun egoera-orri horiek ekitaldian ondare garbi bateratuak izan dituen aldakuntzen berri ematen dute. Segidan, bi egoera-orriotako informazioaren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:

i) Aintzatetsitako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratua

Egoera-orri horretan, Taldeak ekitaldian bere jarduerarekin sortutako sarrera eta gastuak aurkezten dira, baina bereizita: batetik, ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan emaitza moduan erregistratutakoak eta, bestetik, indarreko araudian xedatutakoari jarraikiz zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako sarrera eta gastuak.

Hortaz, egoera-orri horretan hauek aurkeztu ditugu:

a) Ekitaldiko emaitza bateratua.

b) «Beste emaitza global bat» gisa aintzatetsi diren eta emaitzetan birsailkatuko ez diren sarreren eta gastuen zenbateko garbia.

c) «Beste emaitza global bat» gisa aintzatetsi diren eta emaitzetan birsailka daitezkeen sarreren eta gastuen zenbateko garbia.

d) «Ekitaldiko guztizko emaitza globala», aurreko hirurak batuta kalkulatua.

«Beste emaitza global bat» epigrafean «Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak» gisa aintzatetsitako sarreretan eta gastuetan egondako aldakuntzak honela banakatzen dira:

a) Prestazio mugatuko pentsio-planetako irabazi edo galera aktuarialak. Epealdiko irabaziak edo galerak jasoko ditu, horien eragileak hauek direnean: obligazioen balioztapenean izandako aldaketak, hipotesi aktuarialen aldaketen eta aldeen ondorioz; planari lotutako aktiboen etekin jakin batzuk, eta aktiboaren mugaren aldakuntzak.

b) Saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak. Epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu, aktibo horien balioztapenaren ondorioz beste emaitza global batean erregistratu behar direnean eta ondoren emaitzetan birsailkatuko ez direnean.

c) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako aintzatetsitako beste sarrera eta gastu batzuetan parte hartzea. Partida hori aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan soilik ageriko da, eta partaidetzaren metodoaz balioztatutako entitateen epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu, baldin eta beste emaitza global batean erregistratu behar badira eta ondoren ez badira emaitzetan birsailkatuko.

d) Arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta beste emaitza global batean aldaketak dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak. Ondare garbiko tresnetako inbertsioen arrazoizko balioaren aldaketek epealdian eragindako galerak eta irabaziak jasoko ditu, entitateak beste emaitza global batean aintzatesteko erabaki errebokaezina hartu duenean.

e) Arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela balioztatu diren ondare-tresnen estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi edo galera garbiak. Arrazoizko balioaren estalduretan metatutako estalduraren eraginkortasunik ezak epealdian izandako aldaketa irudikatzen du. Estalitako partida ondare garbiko tresna bat da, arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituela balioztatua. Bi hauen arteko aldea jasoko du: «Arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta beste emaitza global batean aldakuntzak dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak (elementu estalia)» partidan erregistratutako ondare garbiko inbertsioaren arrazoizko balioaren aldakuntzarena eta «Arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta beste emaitza global batean aldaketak dituzten ondare-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak (estaldura-tresna)» partidan erregistratutako estaldura-deribatuen arrazoizko balioaren aldakuntzarena.

f) Arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatutako finantza-pasiboen arrazoizko balioaren aldaketak, kreditu-arriskuaren aldaketei egoztekoak direnak. Arrazoizko balioarekin eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatutako finantza-pasiboen epealdiko arrazoizko balioaren aldaketak jasoko ditu, kreditu-arrisku propioaren aldaketei egoztekoak direnak.

«Beste emaitza global bat» epigrafean «Emaitzetan birsailka daitezkeen elementu» moduan aintzatetsitako sarreretan eta gastuetan egon diren aldakuntzak honela banakatuko dira:

a) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati eraginkorrarena). Atzerriko negozioetako estalduren (iraunkorren nahiz etenen) zati efektiboko kanbio-tasaren aldakuntzen ondorioz metatutako emaitzek epealdian izandako aldaketa jasoko du.

b) Dibisa-bihurketa. Dibisa funtzionaleko partidak aurkezpen-dirutara bihurtzearen ondorioz epealdian sortutako aldeak jasoko ditu.

c) Eskudiru-fluxuen estaldurak (zati eraginkorrarenak). Horrelako estaldura-erlazioetan, estaldura-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntzen zati eraginkorrak epealdian izandako galerak eta irabaziak jasoko ditu.

d) Estaldura-tresnak (izendatu gabeko elementuak). Ondorengo elementuen arrazoizko balioan metatutako aldaketek epealdian izan dituzten aldakuntzak jasoko ditu, baldin eta estalduren osagai izendatu ez badira: aukeren denbora-balioarena, gerokoen kontratuen etorkizuneko elementuena eta finantza-tresnen kanbio-aldeen oinarrizko diferentzialarena.

e) Beste emaitza global batean aldaketak dituzten zor-tresnak arrazoizko balioan. Tresna horiek epealdian izandako galerak edo irabaziak jasoko ditu, ez badira narriaduraren edo kanbio-aldeen ondorioz gertatu. Azken horiek galdu-irabazien kontuko epigrafe hauetan erregistratuko dira, hurrenez hurren: «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea» eta «Kanbio-alde (irabazi edo galera) garbiak».

f) Saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak. Horrelako aktiboen balioztapenaren ondorioz beste emaitza global batean erregistratu behar diren eta, geroago, emaitzetan birsailka daitezkeen epealdiko galerak eta irabaziak jasoko ditu.

g) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetako aintzatetsitako beste sarrera eta gastu batzuetan parte hartzea. Partida hori aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan soilik azalduko da. Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeetatik datozen ekitaldiko galdu-irabaziak jasoko ditu, beste emaitza global batean erregistratu eta, geroago, emaitzetan birsailka daitezkeenak.

Horrez gain, aurreko ataleko partida bakoitza honela banakatuko da:

a) Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo -galerak. Zuzenean ondare garbian aintzatetsitako sarreren zenbatekoa bilduko du, baina ekitaldian sortutako gastuak kenduta. Ekitaldian ondare garbian aintzatetsitako zenbatekoak partida horretan mantenduko dira, nahiz eta ekitaldi berean galdu-irabazien kontura edo aktibo eta pasiboen hasierako liburuetako zenbatekora transferitu edo beste partida batean birsailkatu, b), c) eta d) letren arabera, hurrenez hurren. Banakapena aurreko ataleko b) letrari dagokionean, «Ondare garbian kontabilizatutako dibisa-trukeagatiko irabaziak edo galerak» izena hartuko du.

b) Emaitzetara transferitua. Aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian aintzatetsitako balioztapenagatiko galdu-irabazien zenbatekoa biltzen du; horiek galdu-irabazien kontuan onartzen dira (batzuetan, aurkezpen horren ondorioari «sarrera eta gastuen birziklapena» esaten zaio, eta transferitutako zenbatekoari «birsailkapenaren ondoriozko doikuntza»).

c) Estalitako elementuen hasierako liburuetako zenbatekora transferitua. Banakapen hori aurreko ataleko c) letrako partidarako aurkeztuko da soilik, eta aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian aintzatetsitako balioztapenagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa bilduko du, baldin eta eskudiru-fluxuen estalduraren ondorioz aktiboen edo pasiboen liburuetako zenbatekoan aintzatesten badira.

d) Beste birsailkapen batzuk: Partiden artean ekitaldian egindako intsuldaketen zenbatekoa bilduko du, titulu honetako arauetan ezarritako irizpideei jarraikiz.

Egoera-orri horretako partiden zenbatekoak kopuru gordinetan erregistratuko dira, eta azkenean, dagokion irabazien gaineko zerga —emaitzetan birsailka daitezkeen elementuena zein sailkatu ezin direnena— partida bereizi batean sartuko da.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orria guztira

Egoera-orri horretan, ondare garbi bateratuan izandako mugimendu guztiak aurkezten dira, kontabilitate-irizpideen aldaketetan eta errore-zuzenketetan jatorria dutenak barne hartuta. Hortaz, ekitaldiaren hasieran eta amaieran ondare garbi bateratua osatzen duten partida guztiek liburuetan duten zenbatekoaren berdinkatzea jaso da egoera-orri horretan. Mugimenduak izaeraren arabera multzokatu dira kontu-sail hauetan:

a) Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak eta Akatsen zuzenketaren eraginak. Kontabilitate-politiken aldaketetan eta akatsen zuzenketan jatorria duten finantzetako egoera-orrietako saldoak atzeraeraginez berriro ematearen ondorioz ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketak hartzen ditu barne.

b) Ekitaldiko guztizko emaitza globala. Lehenago adierazi ditugun eta Aintzatetsitako sarrera eta gastuen egoera-orri bateratuan erregistratu diren partida guztiak biltzen ditu.

c) Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk. Ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako partidak biltzen ditu, hala nola kapitalaren gehikuntzak edo murrizketak, emaitzen banaketa, norberaren kapital-tresnez egindako eragiketak, kapital-tresnen bidezko ordainketak, ondare garbi bateratuko partiden arteko intsuldaketak eta ondare garbiko beste edozein gehikuntza edo murrizketa.

z) Negozio-konbinazioak

Entitate edo batasun ekonomiko bi edo gehiago entitate- edo sozietate-talde bakarrean bateratzen dituen eragiketari esaten zaio negozio-konbinazioa.

Negozio-konbinazioaren ondorioz entitate bakarra sortzen denean eta bateratutako entitate bi edo gehiagoren bazkideei partaidetzak jaulkitzen zaizkienean, aurretik zegoen entitateetako bat eskuratzaile moduan hartuko da eta entitate batek beste bat eskuratzen duenean moduan kontabilizatuko da transakzioa.

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Beste erakunde bat eskuratzeagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Entitateak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioarekin balioztatzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Entitateak arrazoizko balioarekin edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko aintzatetsietan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalarekin aintzatetsi dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastu gisa aintzatesten dira.

Entitateak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioarekin jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari ondoren arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, KNA 39 arauaren arabera, emaitzetan aintzatesten dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi bateratu moduan sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro balioztatzen, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritzako funtsa honela balioztatzen da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak eskuratutako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitzetan aintzatesten da.

Negozio-konbinazioaren datatik aurrera, urtebeteko epea («neurketa-epea») ezartzen da, eskuratzaileak aukera izan dezan aintzatetsitako behin-behineko zenbatekoak doitzeko, negozio-konbinazioaren ondorengo lehen urteko kontu bateratuak formulatzeko unean beharrezkoak diren zenbatespenak egin ostean.

aa) Merkataritzako funtsa

Negozio-konbinazioen kostuaren eta arrazoizko balioari eskuratutako erakundeen aktibo eta pasibo kontingenteak kenduta ematen duen eskurapen-ehunekoaren arteko alde positiboak merkataritzako funts moduan erregistratzen dira balantze bateratuko aktiboan. Beraz, merkataritzako funtsak hauxe adierazten du: Taldeak eskuratutako entitate baten aktiboen ondoriozko etorkizuneko etekin ekonomikoen ordainketa aurreratua, aktibo horiek banaka eta bereizita identifikatu eta aintzatesteko modukoak ez badira. Negozio-konbinazio batean kostu bidez eskuratzen denean soilik aintzatesten da. Merkataritzako funts horiek ez dira amortizatzen. Aitzitik, horien arrazoizko balioa erregistratutako kostu garbitik behera murriztuko duen narriaduraren bat egon den balioztatzen da kontabilitate-itxieretan. Baiezkoan, saneatu egiten dira, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra.

Merkataritzako funtsak narriadura-zantzurik duen ikusteko, balioztapenak egiten dira, banatutako mozkinen deskontuaren metodoa erabiliz, batez ere. Balioztapenetan, parametro hauek hartzen dira kontuan:

- Negozioaren funtsezko hipotesiak. Hipotesi horietan oinarritzen dira balioztapenean jasotako eskudiru-fluxuen proiekzioak. Finantza-jarduera duten negozioetan hainbat aldagai proiektatzen dira, hala nola: kredituaren, berankortasunaren, bezeroen gordailuen eta interes-tasen bilakaera, aurreikusitako agertoki makroekonomiko zehatz baten eta kapital-eskakizun zehatz baten arabera.

- Aldagai makroekonomikoen zenbatespena, eta beste balio finantzario batzuk.

- Proiekzioen epea. Eskuarki, 5 urteko proiekzio-epea erabiltzen da. Hortik aurrera, irabazia eta errentagarritasuna errepikari bihurtzen dira. Ondore horietarako, balioztapenaren unean dagoen egoera ekonomikoa hartzen da aintzat.

- Deskontu-tasa. Etorkizuneko dibidenduen egungo balioa (erabilera-balioa lortzeko erabilia) kalkulatzeko, merkatuko partaide baten ikuspegitik Entitateak duen kapital-kostua (Ke) erabili da deskontu-tasatzat. Hori zehazteko, CAPM (Capital Asset Pricing Model) metodoa erabiltzen da, formula honen arabera: «Ke = Rf + β = sozietatearen arrisku sistemikoaren koefizientea, Rm = espero den merkatu-errentagarritasuna eta α = arrisku ez-sistemikoagatiko prima».

- Hazkunde-tasa hori erabiltzen da eskudiru-fluxuen proiekzioak azken aurreikuspenen epealdiaz harago estrapolatzeko. Makroekonomia-magnitude nagusien eta negozioaren funtsezko aldagaien epe luzeko estimazioetan oinarritzen da, finantza-merkatuen egoera une oro kontuan izanda. Bada, % 1eko betiko hazkunde-tasa estimatzen da.

- Merkataritzako funtsaren narriadura ebaluatzeko estimazioan COVID-19aren hedapenak ekarri duen krisia hartu dugu kontuan.

Merkataritzako funtsen narriaduraren ondoriozko galerak ez dira geroago itzultzen.

## 14. Bezeroarentzako arreta

Zerbitzu honek bezeroen kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea du helburu; horretarako, hainbat bide dituzte bezeroek.

Idazkia jasotzen denetik 2 hilabeteko epe ofiziala dago erantzuteko, baldin eta ordainketa-zerbitzuei buruzko erreklamazioak ez badira, horiek gehienez ere 15 egun baliodunetan ebatzi behar dira eta. Dena den, Taldeak ahalik eta bizkorren erantzuteko konpromisoa du hartuta; hau da, aipatutako epeak iragan baino lehen.

Entitate Nagusiaren, Caja Laboral Gestión SGIIC SAren eta Caja Laboral Pensiones GFP SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerari dagokionez, 2021ean 12.689 espediente ireki dira guztira (2020an 9.830). Horietatik, 11.631 tramitatu eta erantzun dira (2020an 6.736). 1.056 espediente tramitatu gabe geratu dira (2020an 755), aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baztertzeko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren erregelamenduan jasota dauden zenbait arrazoi tarteko.

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| **Irekitako espediente-kopurua** | | |
| - Idatziak: liburuxka/gutuna | 9.228 | 7.282 |
| - Internet bidezkoak | 2.697 | 1.979 |
| - Telefono bidezkoak | 2 | 1 |
| - Erakunde publikoak: KIUB/gobernu autonomikoak | 762 | 568 |
| | **12.689** | **9.830** |
| **Tramitatutako espediente-kopurua** | **11.631** | **9.075** |
| **Espedienteen izaera** | | |
| - Kexak | 11.411 | 7.320 |
| - Erreklamazioak | 1.139 | 2.461 |
| - Kontsultak | 22 | 1 |
| - Iradokizunak | 8 | 1 |
| - Zorionak edo eskerrak emateko gutunak | 1 | 2 |
| - Hainbat eskaera | 108 | 45 |
| - Beste batzuk | - | - |
| | **12.689** | **9.830** |

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| **Erreklamatutako kopuruak** | | |
| - Entitatearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak | 1.502 | 2.155 |
| - Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak: | 196 | 225 |
| - Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak | 196 | 225 |
| | **1.698** | **2.380** |

Espedienteak irekitzeko arrazoiari dagokionez, jarduera-esparru hauek bereiz daitezke:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Baldintza ekonomikoak | % 1 | % 2 |
| Komisioak eta gastuak | % 89 | % 86 |
| Informazioa falta da edo okerra da | - | - |
| Bezeroentzako zerbitzu zentralizatuak | % 2 | % 2 |
| Bulegoak, elementu objektiboengatik | % 3 | % 4 |
| Beharren estaldura | - | - |
| Bezeroekin harremanak izateko elementuak | % 1 | % 2 |
| Beste batzuk: | % 4 | % 4 |
| - Arintasuna eta eraginkortasuna kutxazainetan | *% 3* | *% 3* |
| - Bestelakoak | *% 1* | *% 1* |
| | % 100 | % 100 |

Erreklamatutako zenbatekoen ehunekoak, berriz, hauek dira:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| = < 10 € | % 0,01 | % 0,02 |
| > 10 < = 60 € | % 0,09 | % 0,13 |
| > 60 < = 100 € | % 0,14 | % 0,12 |
| > 100 < = 250 € | % 0,86 | % 1,19 |
| > 250 < = 1.000 € | % 23,58 | % 39,54 |
| > 1.000 € | % 75,32 | % 59,00 |

Seguros Lagun Aro Vida SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 47 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2021eko ekitaldian (2020an 36), eta horietako 49 espediente bideratu dira (2020an 34). Hauek dira 2021eko eta 2020ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Bezeroaren aldekoak | 25 | 16 |
| Entitatearen aldekoak | 22 | 17 |
| Beste batzuk | 2 | 1 |
| | 49 | 34 |

Bezeroen aldeko kexa eta erreklamazioek 31 mila euroko kostua eragin diote 2021ean Entitateari —2020an 10 mila euro izan ziren—. 12,55 egunekoa izan da kexa eta erreklamazioei erantzuteko batez besteko epea (7,41 egunekoa 2020an).

Seguros Lagun Aro SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, ostera, 647 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2021eko ekitaldian (660 2020an), eta horietako 672 espediente bideratu dira (2020an 643).

Hauek dira 2021eko eta 2020ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Bezeroaren aldekoak | 311 | 317 |
| Entitatearen aldekoak | 336 | 306 |
| Beste batzuk | 25 | 20 |
| | 672 | 643 |

Bezeroen aldeko kexa eta erreklamazioek 50 mila euroko kostua eragin diote 2021ean Taldeari —2020an 72 mila euro izan ziren—. 2021ean 11,98 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (11,29 egunekoa 2020an).

Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLUren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, bestalde, 4 kexa eta erreklamazio jaso ditu ekitaldian (10 2020an), eta 4 espediente bideratu dira (11 2020an).

Hauek dira 2021eko eta 2020ko ekitaldietan tramitatzeko irekita dauden espedienteetatik bideratutakoen emaitzak:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Bezeroaren aldekoak | 1 | 1 |
| Entitatearen aldekoak | 1 | 1 |
| Beste batzuk | 2 | 9 |
| | 4 | 11 |

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 0 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2021ean (0 eurokoa 2020an). 2021ean 2,75 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (2,36 egunekoa 2020an).

## 15. Kreditu-arriskua

Aurkako alderdiak Entitate Nagusiari zor dizkion kopuru guztiak edo batzuk ez ordaintzearen nahiz hitzartutako epeetatik kanpo ibiltzearen ondorioz egon daitekeen galera-arriskua da kreditu-arriskua. Gestioaren ikuspegitik, bi arrisku-mota bereizten ditugu LABORAL Kutxan: altxortegiko eta kapital-merkatuko jardueraren ondoriozkoa —finantza-erakundeak eta errenta finko pribatua— eta bezeroekiko kreditu-arriskua, inbertsio-jarduera tradizionalaren ondoriozkoa.

Azken horien harira, Kontseilu Errektoreak Eragiketa Batzorde Nagusian eskuordetu ditu arriskuei lotutako zenbateko eta figura guztien eskumenak, bai eta zenbateko-mugarik gabeko kobraezinak baimentzea ere. Batzorde Nagusiak, bere aldetik, Batzorde Delegatuan eskuordetzen ditu eskumenak, eta horrek Arriskuen Gestioko Departamentuan eta Merkataritza Sarean. Sareko berrespen-ahalmena arrisku-mailaren eta alerta-sistema baten araberakoa da; arriskuaren bolumena, produktu-mota eta eragiketaren marjina hartzen dira kontuan.

Arriskuen Area hori zuzendari nagusiaren mende dago, eta Arriskuen Gestioaren, Arriskuaren Kontrol Globalaren eta Aholkularitza Juridikoaren Departamentuak biltzen ditu. Beraz, kreditu-arriskua onartu, jarraitu eta berreskuratzeko prozesuetan efizientzia handitzea ekarri du, bai eta Entitate Nagusiaren arriskuen kontrol integralean sakontzea ere.

Etxeko eta merkataritzako kreditu-arriskuari dagokionez, alderdi horiek guztiak Kontseilu Errektoreak azken eguneratzea 2022ko otsailaren 2an onetsi zion Arrisku-politikari buruzko eskuliburuan eta horri lotutako beste dokumentu batzuetan daude zehaztuta; hauek dira beste dokumentu horiek: Laburpena – Arrisku-politikari buruzko eskuliburua eta Etxeko arriskuak eta merkataritza-arriskua emateko jardunbide egokiei buruzko eskuliburuak.

Dokumentu horietan, kreditu-arriskuak eman, kontrolatu eta jarraitzearen alorreko prozedurak zehazten dira, bai eta erabil daitezkeen eredu prediktiboen, horien aldagaien, haztapenen, arriskuak berresteko eskudantzia eta irizpideen, onarpen-prozesuaren eta arriskuak arindu eta murrizteko politiken azalpena ere.

Entitate Nagusiak politika, metodo eta prozedura horiei jarraipen eraginkorra egiteko ezarritako kontrol-mekanismoak Entitate Nagusian ezarri diren Arrisku Globalaren Kontrolerako Sistemetan euskarritzen dira eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ikuskapen independentean oinarritu, arriskua onartzeko eta kudeatzeko sistemen kalitatea bermatuz.

2020ko ekitalditik, pandemiak eragindako egoera eta berorrek ekonomiaren sektoreetan izan duen inpaktu desberdina ikusirik, Entitate Nagusiak indartu egin ditu familien, negozioen eta enpresen arriskuak kontrolatzeko metodologiak. Familietako arriskuari dagokionez, moratoria publiko zein pribatuak dituzten bezeroek zalantza-tasarekiko duten portaera berrikusten du Taldeak hainbatean behin. Negozio eta enpresen alorrean, berriz, sektorekako zenbait azterketa diseinatu ditu, arreta berezia eskaintzeko ekonomiaren moteltzeak gehien eragin dien sektoreen bilakaerari eta atzemateko ea korrelazio-eredurik badagoen egon daitezkeen ez-ordaintzeen artean.

Arriskuen Gestioaren Departamentua zorroan sartutako enpresak onartu eta horiei jarraipena egiteaz arduratzen da, Enpresa Handien Arriskuen Azterketa eta ETE-en Arriskuen Azterketa sekzioen bitartez. Negozioak eta Enpresa Txikiak sekzioak, berriz, segmentu horiek onartzearen ardura du, eta Partikularren sekzioak etxeko negozioaren arriskua onartzearena.

Adiskidantzako Berreskurapenaren eta Auzi-aurrearen sekzioak, ostera, berandutze aurreko alertei lotutako protokoloak kudeatzea eta adiskidantzako konponketaren faseko (< 75 eguneko ez-ordaintzeko) eta auzi-aurreko faseko (> 75 eguneko ez-ordaintzeko) eragiketetan ahalik eta berreskurapenik gehien lortzea du helburu.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak barne-ereduak sortu eta mantentzea du zeregin, eta interes-tasen eta likideziaren inguruko egiturazko arriskuak eta merkatu- eta eragiketa-arriskuak neurtu eta kontrolatzea ere bai.

Bukatzeko, Aholkularitza Juridikoa arrisku-eragiketetan aholkularitza eta estaldura dokumental juridikoa emateaz arduratzen da, hala hasierako eragiketetan, nola zorraren birfinantzamendu edo berregituratze posibleetan. Berreskuratzeko auzia kudeatzea eta bezeroen eta hirugarrenen erreklamazioen aurrean Taldeari defentsa juridikoa ematea ere haren ardura da.

Eragiketen kreditu-arriskua ebaluatzeko, LABORAL Kutxak bere rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Horrela, arriskuaren onarpen erreaktiborako prozesuari scoring lotesleen bidez erantzuten zaio Partikularretan. Horrekin batera, gainera, ratingean oinarritutako aurrez emandako kontsumorako mailegu proaktiboak eskaintzen dira, eta bezeroak automatikoki beregana ditzake, eskura dituen kanalen bidez. Enpresen Arean, berriz, analista-gestorea binomioan oinarritutako eskemaren arabera funtzionatzen dute onarpen-prozesuek, eta bezeroak-analista binomioan oinarrituta zorroratzen dira. Erabakiak hartzeko, barne-ratinga eta berandutze aurreko alerta-eredua erabiltzen ditu analistak euskarritzat. Barneko ereduak, hortaz, oinarrizkoak dira arriskua emateari begira, eta, gainera, espero daitekeen galera eta eragiketa bakoitzari esleitutako kapital erregulatorioa kalkulatzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak sortutako barruko ereduak, sistematikoki berrikusten direnak, beraz, erabakitze-prozesuetan ez ezik, datu-base integratuak eraiki eta garatzeko ere erabiltzen dira, Basileako Kapital Akordio Berriaren eskakizunen barruan zorroztasunak, espero diren galerak, kapital kontsumoa... kalkulatzeko, alegia. Bestalde, bai scoring-ereduek bai rating-ereduek partikularren eta enpresaren areetako eragiketei lotutako kostuak kalkulatzeko eta pricinga ezartzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskua arintzeko eta murrizteko politikei dagokienez, helburu horrekin hainbat bide erabiltzen dira:

- Onarpen-prozesuan, onartzeko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen badira ere —hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak—, bermeak dira zorrak berreskuratzeko bigarren bidea. Aintzat harturik inbertsio-jarduerarik handiena etxebizitzaren finantzaketara bideratuta dagoela, hipoteka-bermea da berme nagusia, eta eragiketen LTV erlazioa balioztatzen da zehazki. Halaber, garrantzi handikoa da abal bidezko bermea; pisu espezifiko txikiagoa dute, berriz, diru-gordailuen bermeek eta finantza-aktiboenek.

- Jarraipen-prozesuan, berandutze aurreko barne-ereduak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak. Horien bidez, ez-ordaintzeei aurrea hartzen zaie, eta ez-ordaintzeak gertatzeko aukera handiak proaktibotasunez kudeatzen dira.

- Berreskurapenen gestioari dagokionez, prozedura bat dago finkatuta; horren arabera, hainbat eragilek hartzen dute parte berandutzea berreskuratzen, bezero berankorra zer fasetan dagoen aintzat hartuta. Testuinguru horretan, berreskurapena kudeatzen barruko eragileek (bulegoak, Telebankak, auzi-aurreak eta auziak) eta kanpokoek (berreskuratze-agentziek) hartzen dute parte.

Entitate Nagusiak, oro har, berme errealak ondasun higiezin moduan balioztatzen ditu, tasazio-balioan. Gainera, higiezinen balioa eguneratzeko politika finkatu du, Espainiako Bankuaren araudian ezarritako errekerimenduei jarraikiz.

Altxortegiaren eta Kapital-merkatuaren alorretan, finantza-erakundeekiko kreditu-arriskuari eta errenta finko pribatuari dagokienez, arrisku-politikaren azken eguneratzea 2022ko otsailaren 2ko Kontseilu Errektorean onetsi zen eta Entitate Nagusiak kaudimenaren eta MRELaren alorretan duen arriskuarekiko grinaren araberako muga globala ezartzen du Altxortegiaren jarduerarako. Bestalde, mugak finkatzen ditu aurkako alderdiaren arabera, erreferentziaren nahiz gestorearen ondoriozko kontzentrazioaren arabera eta herrialdearen arabera. Horretarako, mugak finkatzeko prozedura ezarri da, kanpoko ratingak eta alerta-sistema oinarri hartuta.

Ondoren, Bezeroen maileguen eta aurrerakinen aurkako alderdiagatiko 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko banakapena aurkeztuko dugu, «Beste finantza-aktibo batzuk» sartu gabe. Berme nagusietako bakoitzak estaltzen duen zenbatekoa zehazteaz gain, berme errealeko finantzaketen banaketaren berri ere ematen dugu, finantzaketen kontabilitate-balioak eskura dugun bermearen azken tasazioaren edo balioztapenaren zenbatekoaren gainean duen ehunekoaren arabera.

## 2021

| | | | | Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Horietatik: higiezinen bermea | Horietatik: gainerako berme errealak | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik. | % 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik. | % 80koa baino hand. eta % 100eko a edo txik. | % 100ekoa baino handiagoa |
| Administrazio publikoak | 1.274.944 | 8.588 | - | 4.020 | 3.320 | - | - | 1.248 |
| Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa) | 32.149 | 11.257 | 725 | 4.560 | 5.470 | 1.068 | 65 | 821 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) (helburuaren arabera banakatuta) | 2.794.625 | 751.387 | 132.410 | 336.581 | 218.040 | 132.810 | 17.805 | 178.561 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 32.795 | 30.915 | - | 2.611 | 4.252 | 10.125 | 1.100 | 12.827 |
| – Obra zibileko eraikuntza | 49.286 | 9.385 | 2.844 | 4.642 | 2.672 | 1.795 | 88 | 3.032 |
| – Gainerako helburuak | 2.712.544 | 711.087 | 129.566 | 329.328 | 211.116 | 120.890 | 16.617 | 162.702 |
| Enpresa handiak | 595.092 | 19.556 | 2.515 | 11.677 | 2.459 | 3.698 | 1.097 | 3.140 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.117.452 | 691.531 | 127.051 | 317.651 | 208.657 | 117.192 | 15.520 | 159.562 |
| Gainerako etxeak (helburuaren arabera banakatuta) | 10.985.865 | 10.107.983 | 17.654 | 2.771.180 | 2.980.951 | 3.103.894 | 601.228 | 668.382 |
| – Etxebizitzak | 10.225.353 | 9.957.779 | 14.333 | 2.691.613 | 2.940.663 | 3.083.449 | 597.565 | 658.821 |
| – Kontsumoa | 419.279 | 30.269 | 592 | 20.129 | 5.605 | 3.179 | 940 | 1.008 |
| – Beste helburu batzuk | 341.233 | 119.935 | 2.729 | 59.438 | 34.683 | 17.266 | 2.723 | 8.553 |
| **GUZTIRA** | 15.087.583 | 10.879.215 | 150.789 | 3.116.341 | 3.207.781 | 3.237.772 | 619.098 | 849.012 |
| PRO-MEMORIA | | | | | | | | |
| Birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketak | 151.636 | 121.846 | 556 | 30.829 | 30.386 | 20.881 | 15.004 | 25.302 |

## 2020

| | | | | Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken *loan to value* tasazioaren kopuruaren gaineko liburuetako zenbatekoa | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Horietatik: higiezinen bermea | Horietatik: gainerako berme errealak | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik. | % 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik. | % 80koa baino hand. eta % 100eko a edo txik. | % 100ekoa baino handiagoa |
| Administrazio publikoak | 890.866 | 15.509 | - | 6.089 | 5.403 | - | - | 4.017 |
| Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa) | 29.822 | 6.478 | 69 | 2.205 | 3.330 | 775 | 69 | 169 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) (helburuaren arabera banakatuta) | 2.701.441 | 783.327 | 10.827 | 348.669 | 217.362 | 135.420 | 25.712 | 66.991 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 33.006 | 30.262 | - | 1.771 | 6.716 | 4.311 | 1.985 | 15.479 |
| – Obra zibileko eraikuntza | 50.050 | 7.080 | 13 | 3.563 | 2.556 | 786 | 67 | 121 |
| – Gainerako helburuak | 2.618.385 | 745.985 | 10.814 | 343.335 | 208.090 | 130.323 | 23.660 | 51.391 |
| Enpresa handiak | 500.969 | 35.246 | - | 12.257 | 2.518 | 4.156 | 1.242 | 15.073 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.117.416 | 710.739 | 10.814 | 331.078 | 205.572 | 126.167 | 22.418 | 36.318 |
| Gainerako etxeak (helburuaren arabera banakatuta) | 10.774.994 | 9.929.009 | 17.339 | 2.741.238 | 2.971.952 | 2.871.101 | 599.428 | 762.629 |
| – Etxebizitzak | 10.030.432 | 9.771.963 | 15.118 | 2.657.545 | 2.931.688 | 2.850.119 | 596.111 | 751.618 |
| – Kontsumoa | 413.680 | 31.166 | 746 | 21.547 | 5.546 | 2.643 | 767 | 1.409 |
| – Beste helburu batzuk | 330.882 | 125.880 | 1.475 | 62.146 | 34.718 | 18.339 | 2.550 | 9.602 |
| **GUZTIRA** | **14.397.123** | **10.734.323** | **28.235** | **3.098.201** | **3.198.047** | **3.007.296** | **625.209** | **833.806** |
| PRO-MEMORIA | | | | | | | | |
| Birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketak | 183.341 | 152.561 | 218 | 30.989 | 34.690 | 26.338 | 13.361 | 47.401 |

Ondoren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n berme nagusiek estalita dituzten Entitate Nagusiaren kreditu-arriskuen gehienezko zenbatekoaren xehetasuna emango dugu:

| | 2021 | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Higiezinen bermea | Pignorazio-bermea | Beste berme erreal batzuk | Abal edo asegurudun berme pertsonala | Abalik gabeko berme pertsonala | Sailkatu gabea | Balioztapenagatiko doikuntzak | GUZTIRA |
| **Bezeroen maileguak eta aurrerakinak** | | | | | | | | |
| Saldo erabilia | 11.124.981 | 17.894 | 315.067 | 1.417.536 | 2.461.994 | 117.160 | (308.933) | 15.145.699 |
| Bermearen balioa | 26.454.356 | 27.656 | 1.249.512 | 1.270.890 | 25.769 | - | - | 29.028.183 |

| | 2020 | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Higiezinen bermea | Pignorazio-bermea | Beste berme erreal batzuk | Abal edo asegurudun berme pertsonala | Abalik gabeko berme pertsonala | Sailkatu gabea | Balioztapenagatiko doikuntzak | GUZTIRA |
| **Bezeroen maileguak eta aurrerakinak** | | | | | | | | |
| Saldo erabilia | 11.790.716 | 21.146 | 326.111 | 1.239.413 | 1.893.808 | (536.164) | (291.276) | 14.443.754 |
| Bermearen balioa | 26.128.265 | 31.530 | 1.182.627 | 1.100.651 | 29.596 | - | - | 28.472.669 |

Hona hemen bezeroekiko eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31koa, berme errealak eta beste berme batzuk bereizita:

| **Jasotako bermeen balioa** | **2021** | **2020** |
|---|---|---|
| Berme errealen balioa | 27.703.868 | 27.310.892 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | 467.532 | *526.222* |
| Beste berme batzuen balioa | 1.324.315 | 1.161.777 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | 39.685 | 33.949 |
| **Jasotako bermeen balioa guztira** | **29.028.183** | **28.472.669** |

Jarraian, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n emanda dauden finantza-bermeen balioari buruzko informazioa emango dugu:

| | **2021** | **2020** |
|---|---|---|
| **Emandako maileguen konpromisoak** | 1.058.970 | 1.036.064 |
| *Horretan: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa* | *14.106* | *5.997* |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | - | - |
| **Emandako finantza-bermeak** | 214.749 | 214.641 |
| *Horretan: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa* | *21.008* | *22.283* |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | 21.367 | 15.026 |
| **Emandako bestelako konpromisoak** | 320.681 | 310.370 |
| *Horretan: zalantzazkoen artean sailkatutako zenbatekoa* | *5.960* | *8.730* |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | 4.505 | 8.406 |

Taldeak argibide hauek eman ditu, eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzen, etxebizitzaren erosketa eta zorrak ordaintzeko eskuratutako aktiboak finantzatzen eta merkatuetako finantzaketa-beharrak balioztatzen erabili beharreko gardentasunaz Espainiako Bankuak emandako gomendioei jarraikiz eta eskatzen diren banakapen-ereduak aintzat hartuz:

a) Eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa eta estaldura hauek dira, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021 | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburuetako zenbateko gordina** | **Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarriaren gaineko esposizio gordinaren soberakina** | **Balio-narriadura metatua** |
| **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)** | **57.364** | **28.838** | **24.570** |
| Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak | 21.784 | 13.751 | 14.995 |
| **Pro-memoria:** | | | |
| Aktibo kobraezinak | 96.569 | | |

| **Pro-memoria:** | **Zenbatekoa** |
|---|---|
| - Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan) | 13.810.713 |
| - Aktiboa guztira (negozio guztietan) | 28.563.153 |
| - Balio-narriadura eta ez-zalantzazkoen artean sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan) | 139.930 |

| | 2020 | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburuetako zenbateko gordina** | **Berme erreal eraginkorren gehieneko zenbateko berreskuragarriaren gaineko esposizio gordinaren soberakina** | **Balio-narriadura metatua** |
| **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)** | **60.869** | **27.233** | **27.864** |
| Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak | 27.958 | 17.211 | 18.914 |
| **Pro-memoria:** | | | |
| Aktibo kobraezinak | 95.826 | | |

| **Pro-memoria:** | **Zenbatekoa** |
|---|---|
| - Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan) | 13.506.256 |
| - Aktiboa guztira (negozio guztietan) | 27.904.147 |
| - Balio-narriadura eta ez-zalantzazkoen artean sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan) | 122.749 |

Jarraian, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n eraikuntzara, higiezinen sustapenera eta etxebizitza erostera bideratutako finantzaketaren banakapena aurkeztuko dugu:

| | **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa. Liburuetako zenbateko gordina** | |
|---|---|---|
| | **2021** | **2020** |
| Higiezinen bermerik gabe | 12.332 | 13.065 |
| Higiezinen bermearekin | 45.033 | 47.804 |
| Eraikinak eta bukatutako bestelako eraikuntzak | 26.717 | 31.055 |
| Etxebizitza | 22.852 | 26.148 |
| Gainerakoak | 3.865 | 4.907 |
| Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak | 1.294 | 1.562 |
| Etxebizitza | 1.244 | 1.512 |
| Gainerakoak | 50 | 50 |
| Lurzorua | 17.021 | 15.187 |
| Hiri-lurzoru finkatua | 16.258 | 13.917 |
| Gainerako lurzorua | 763 | 1.270 |
| **Guztira** | **57.364** | **60.869** |

Hauxe da familiei etxebizitza erosteko emandako kredituen xehakapena, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | Liburuetako zenbateko gordina | Horietatik: zalantzazkoak | Liburuetako zenbateko gordina | Horietatik: zalantzazkoak |
| Etxebizitza eskuratzeko maileguak | 9.997.964 | 140.707 | 9.791.926 | 169.531 |
| Hipoteka-bermerik gabe | 221.257 | 2.997 | 209.848 | 2.905 |
| Hipoteka-bermearekin | 9.776.707 | 137.710 | 9.582.078 | 166.626 |

Hauek dira familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-bermedun kredituaren banakapenak, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n eskura dagoen azken tasazioaren gainean arrisku osoak duen ehunekoaren arabera:

| | Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balio gordina | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | | | | | |
| | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik. | % 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik. | % 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik. | % 100ekoa baino handiagoa | Guztira |
| Liburuetako zenbateko gordina | 2.541.927 | 2.886.373 | 3.059.237 | 596.656 | 692.514 | 9.776.707 |
| Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak | 11.628 | 20.147 | 23.318 | 21.824 | 60.793 | 137.710 |

| | Azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balio gordina | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | | | | | |
| | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik. | % 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik. | % 80koa baino hand. eta % 100ekoa edo txik. | % 100ekoa baino handiagoa | Guztira |
| Liburuetako zenbateko gordina | 2.501.067 | 2.876.405 | 2.826.406 | 595.146 | 783.054 | 9.582.078 |
| Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak | 14.214 | 21.833 | 27.996 | 26.103 | 76.480 | 166.626 |

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | Liburuetako zenbateko gordina | Balio-narriadura metatua | Liburuetako zenbateko gordina | Balio-narriadura metatua |
| **Eraikuntzako eta higiezinen sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak** | **466.431** | **371.081** | **646.180** | **454.503** |
| Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak | 22.430 | 16.207 | 31.624 | 22.039 |
| Etxebizitza | 5.057 | 3.314 | 6.577 | 4.100 |
| Gainerakoak | 17.373 | 12.893 | 25.047 | 17.939 |
| Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak | 76.684 | 33.877 | 166.047 | 70.895 |
| Etxebizitza | 66.317 | 28.452 | 121.071 | 54.725 |
| Gainerakoak | 10.367 | 5.425 | 44.976 | 16.170 |
| Lursailak | 367.317 | 320.997 | 448.509 | 361.569 |
| Hiri-lurzoru finkatua | 140.819 | 125.573 | 190.468 | 157.996 |
| Gainerako lurzorua | 226.498 | 195.424 | 258.041 | 203.573 |
| **Familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak** | 23.584 | 6.412 | 27.214 | 7.986 |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako gainerako aktibo higiezinak** | 35.671 | 17.361 | 38.956 | 17.518 |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako kapital-tresnak** | - | - | - | - |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeen kapital-tresnak** | - | - | - | - |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeentzako finantzaketa** | - | - | - | - |
| **Guztira** | **525.686** | **394.854** | **712.350** | **480.007** |

Segidan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako erabilitako finantzaketari lotutako bermeen balioa aurkeztuko dugu:

| **Jasotako bermeen balioa – Eraikuntza eta higiezinen sustapena** | **2021** | **2020** |
|---|---|---|
| Berme errealen balioa | 159.356 | 188.217 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | *38.969* | *59.715* |
| Beste berme batzuen balioa | 2.493 | 2.570 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | - | - |
| **Jasotako bermeen balioa guztira** | **161.849** | **190.787** |

Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako eragiketei emandako berme finantzarioen balioa, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31koa, aurkeztuko dugu jarraian:

| | **2021** | **2020** |
|---|---|---|
| Eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako emandako finantza-bermeak | 25.213 | 32.009 |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | 1.751 | 1.834 |

8/2012 Legeak xedatutakoa betez, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Entitate Nagusiak aktiboak kudeatzeko hainbat sozietatetan ditu eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzetik datozen aktibo higiezinak. Horien xehetasuna eta partaidetzaren ehunekoa urteko kontu bateratu hauen txostenaren I. eranskinean azaltzen da.

b) Birfinantzamendu-eragiketak

Entitate Nagusiak onartuta dauka arriskuak berrantolatzeko politika. Horren arabera, arriskuak kudeatzeko tresna da eragiketak berrantolatzea, eta adiskidantzako berreskurapenera zuzenduta dago. Hala, birfinantzamendu-eragiketak eta berregituratutako edo berritutako eragiketak bereizten dira. Lehenengoetan, eragiketa berri bat ematen da aurretikoa ezerezteko; bigarrenetan, berriz, irekita dagoen eragiketa baten baldintza bat edo batzuk aldatzen dira.

Politika horretan, halaber, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Gestioaren Departamentuak (eta bere sekzioek) izango du beti.

2020ko ekitaldian, 3/2020 Zirkularra sartu zen indarrean, birfinantzamendu eta berregituratze jakin batzuen kontabilitate-tratamendua aldatu zuena (2.3 oharra). Birfinantzamendu- edo berregituratze-eragiketak Stage 1 multzokoen artean sailkatzen ez direnean, honela sailkatuko dira:

b.1) Stage 2 - Zaintza bereziko arrisku normala

Zalantzazkoa eta kobraezina ez dena, baina ahuleziak dituena. Operatiboki, gainerakoak baztertu ondoren esleituko da tipologia hori: birfinantzatzeko edo berregituratzeko eragiketa geroago zerrendatuko diren tipologiaren batean sailkatzen ez bada, baina kreditu-arriskuan hazkunde nabarmena badu.

b.2) Stage 3 - Zalantzazkoa, berankortasunaren ondorioz

90 egunetik gorako ez-betetzeak dituzten birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketak.

b.3) Stage 3 - Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik

Osorik itzuliko den arrazoizko zalantzak daudenean. Egoera horren aztarnak edo adierazleak aztertuko dira.

Kreditu-arriskuagatiko galera (nahitaezko zuzkidura) zenbatespen kolektibo bidez estaliko da, salbu eta «garrantzizkotzat» jotzen direnak (3 milioi eurotik gorakoak, zalantzazko eragiketetan eta zaintza bereziko arrisku normalekoetan) edota faktore ez-automatikoengatik «Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik» multzoan sailkatu direnak. Halakoetan, banaka aztertuz erabakiko da beharrezko zuzkidura.

Banakako zenbatespena egiteko, eredutik lortutako zuzkidura-proposamena izango du arrisku-analistak esku artean, eta, azkenean, ereduaren proposamena eta eragiketaz duen ezagutza aintzat hartuta erabakiko du beharrezko zuzkidura.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

FINA 9aren errekerimenduei jarraikiz; eragiketak birfinantzatzekoen, birfinantzatutakoen eta berregituratutakoen artean bereizteko irizpideak zehazten dituzten 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak eta 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularrak egindako aldaketak betez, eta Entitate Nagusiak horren harira zehaztutako politiken arabera, birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko xehetasunak azalduko ditugu jarraian.

### 2021eko ekitaldia

| | GUZTIRA | | | | | | | Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | Balio-narriadura metatua | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | |
| | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | |
| | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | Balio-narriadura metatua |
| **Kreditu-erakundeak** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Administrazio publikoak** | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) |
| **Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)** | 3 | 13 | 3 | 350 | 350 | - | (12) | 3 | 13 | 1 | 166 | 166 | - | (11) |
| **Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)** | 785 | 52.328 | 410 | 112.165 | 71.020 | 835 | (94.012) | 512 | 20.364 | 300 | 89.511 | 51.792 | 384 | (73.920) |
| *Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)* | 3 | 480 | 25 | 15.640 | 12.684 | - | (10.546) | 3 | 480 | 23 | 8.605 | 8.198 | - | (5.628) |
| **Gainerako familiak** | 887 | 8.006 | 1.040 | 99.904 | 88.003 | 29 | (30.336) | 411 | 4.894 | 592 | 61.424 | 52.843 | 21 | (25.663) |
| **GUZTIRA** | **1.675** | **60.347** | **1.454** | **218.879** | **165.833** | **864** | **(127.590)** | **926** | **25.271** | **894** | **157.561** | **111.261** | **405** | **(102.824)** |
| **INFORMAZIO GEHIGARRIA** | | | | | | | | | | | | | | |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-talde besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

### 2020ko ekitaldia

| | GUZTIRA | | | | | | | Horietatik: ez-betetzedunak/zalantzazkoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | Balio-narriadura metatua | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | |
| | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehieneko zenbatekoa | | |
| | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Eragiketa-kopurua | Liburuetako zenbateko gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | Balio-narriadura metatua |
| **Kreditu-erakundeak** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Administrazio publikoak** | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) | - | - | 1 | 6.460 | 6.460 | - | (3.230) |
| **Beste finantza-sozietate batzuk eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera finantzarioa)** | 4 | 29 | 3 | 380 | 380 | - | (27) | 3 | 16 | 3 | 380 | 380 | - | (20) |
| **Finantzen alorrekoak ez diren sozietateak eta enpresaburu indibidualak (finantzen alorrekoa ez den enpresa-jarduera)** | 826 | 56.094 | 471 | 137.924 | 77.186 | 603 | (103.867) | 507 | 22.221 | 343 | 114.423 | 57.066 | 463 | (81.643) |
| *Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)* | 3 | 602 | 38 | 21.088 | 16.883 | - | (13.705) | 3 | 602 | 28 | 12.255 | 10.798 | - | (9.021) |
| **Gainerako familiak** | 919 | 8.287 | 1.120 | 109.490 | 96.472 | - | (28.199) | 375 | 4.334 | 653 | 67.877 | 58.429 | - | (23.573) |
| **GUZTIRA** | **1.749** | **64.410** | **1.595** | **254.254** | **180.498** | **603** | **(135.323)** | **885** | **26.571** | **1.000** | **189.140** | **122.335** | **463** | **(108.466)** |
| **INFORMAZIO GEHIGARRIA** | | | | | | | | | | | | | | |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-talde besterengarri moduan sailkatutako finantzaketa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

Jarraian, birfinantzatu edo berregituratu ostean zalantzazkoen artean sailkatutako eragiketen zenbateko gordin osoa (2021eko eta 2020ko abenduaren 31n) dago xehatuta:

| | 2021 | | |
|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | | |
| | Ondasun higiezinen erabateko hipoteka-bermea | Gainerako berme errealak | Berme errealik gabe |
| Administrazio publikoak | - | - | - |
| Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak | 5.695 | 103 | 9.092 |
| *Horretan: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa* | 511 | - | - |
| Gainerako pertsona fisikoak | 9.270 | 21 | 1.799 |

| | 2020 | | |
|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | | |
| | Ondasun higiezinen erabateko hipoteka-bermea | Gainerako berme errealak | Berme errealik gabe |
| Administrazio publikoak | - | - | - |
| Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak | 9.629 | - | 2.997 |
| *Horretan: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa* | *4.266* | - | *2.696* |
| Gainerako pertsona fisikoak | 5.363 | - | 301 |

Hona hemen birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31koa, berme errealak eta beste berme batzuk bereizita:

| **Jasotako bermeen balioa – Birfinantzamenduak** | **2021** | **2020** |
|---|---|---|
| Berme errealen balioa | 404.144 | 429.222 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | 254.296 | 259.562 |
| Beste berme batzuen balioa | 44.977 | 37.292 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | 19.983 | 16.688 |
| **Jasotako bermeen balioa guztira** | **449.121** | **466.514** |

Hona hemen 2021eko eta 2020ko ekitaldietako birfinantzamenduen eta berregituratzeen saldoaren mugimendua, lotutako hornidurak kenduta:

| | **2021** | **2020** |
|---|---|---|
| **Irekierako saldoa** | **183.341** | **227.968** |
| (+)/(–) Epealdiko birfinantzamenduen eta berregituratzeen sarrerak/irteerak | 1.898 | (9.043) |
| *Pro-memoria: epealdiko galdu-irabazien kontuan erregistratutako eragina* | *5.273* | *(7.076)* |
| (–) Zorraren amortizazioak | (33.747) | (22.805) |
| (–) Esleipenak | (1.134) | (2.265) |
| (–) Balantzeko baja (kobraezinetan birsailkatzea) | (1) | (1) |
| (+)/(–) Bestelako aldakuntzak | 1.279 | (10.513) |
| **Ekitaldi-amaierako saldoa** | **151.636** | **183.341** |

c) COVID-19aren inguruan hartutako neurriak

COVID-19ak eragindako krisia dela eta (13.a oharra), administrazio publikoek zenbait neurri hartu dituzte, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan, pandemiaren inpaktu ekonomiko-finantzarioa leuntzeko. Pandemiak gehien kaltetu dituen enpresa eta herritar partikularrei laguntzea da neurri horien xedea, jarduera ekonomikoari eustea etorkizunean ekonomia suspertzen denerako. Hauek dira urteko kontu hauetan eragin duten neurri nagusiak:

- Abalen bidez laguntzeko zenbait neurri publiko onartzea, kreditu-entitateek enpresei emandako maileguak eta finantzaketa berria estaltzeko eta, hartara, zirkulatzaile- edo likidezia-beharrak asetzeko, barne direla finantza- edo zerga-obligazioen mugaeguneratzeek eragindakoak.

- Moratoria bat ezartzea (epe jakin baterako), ahulezia ekonomikoa pairatzen ari diren herritar partikularrei eta pandemiak eragindako jarduera-jaitsierak bereziki kaltetutakoei emandako finantzaketari dagozkion obligazioak ordaintzeko.

Bestalde, gobernuak onartutakoaren osagarri, moratoria-programa bat jarri du martxan LABORAL Kutxa Taldeak, gobernuaren neurriez baliatzen ez diren zenbait talderi krisi ekonomikoak eragindako kaltea leuntzeko eta gobernuaren programari atxiki zaizkion kreditu-hartzaileen moratorien epeak luzatzeko.

c.1) <u>Emandako moratoriak</u>

Jarraian, legezko neurriei, hitzarmen pribatuei edo biei jarraikiz bezeroek ordaintzeko moratoriaren bat eskatu duten eragiketen zenbateko gordina aurkeztuko dugu, zehaztuz 2021eko abenduaren 31ra arte formalizatutako eragiketak eta data horretan indarrean jarraitzen dutenen hondar-epemugaren banakapena:

| | Bezero-kopurua | Mila eurokotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zenbateko gordina | | | | | | | |
| | | Guztira | Horietatik: legezko moratoria | Horietatik: iraungiak | Moratoriaren hondar-epemuga | | | | |
| | | | | | <= 3 hilabete | > 3 hilabete <= 6 hilabete | > 6 hilabete <= 9 hilabete | > 9 hilabete <= 12 hilabete | > 1 urte |
| Moratoria eskatu zaien maileguak eta aurrerakinak | 1.265 | 98.815 | | | | | | | |
| Moratoriari lotutako maileguak eta aurrerakinak (emandakoak) | 1.014 | 80.184 | 57.209 | 78.726 | 749 | 550 | 160 | - | - |
| Horietatik: etxeak | | 75.921 | 52.946 | 74.463 | 749 | 550 | 160 | - | - |
| *Horietatik: bizilekutarako higiezinek bermatuak* | | 69.141 | 47.561 | 67.969 | 497 | 527 | 149 | - | - |

Jarraian, legezko neurriei, hitzarmen pribatuei edo biei jarraikiz bezeroek ordaintzeko moratoriaren bat eskatu duten eragiketen zenbateko gordina aurkeztuko dugu, zehaztuz 2020ko abenduaren 31ra arte formalizatutako eragiketak eta data horretan indarrean jarraitzen dutenen hondar-epemugaren banakapena:

| | Bezero-kopurua | Mila eurokotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Zenbateko gordina | | | | | | | |
| | | Guztira | Horietatik: legezko moratoria | Horietatik: iraungiak | Moratoriaren hondar-epemuga | | | | |
| | | | | | <= 3 hilabete | > 3 hilabete <= 6 hilabete | > 6 hilabete <= 9 hilabete | > 9 hilabete <= 12 hilabete | > 1 urte |
| Moratoria eskatu zaien maileguak eta aurrerakinak | 1.149 | 98.228 | | | | | | | |
| Moratoriari lotutako maileguak eta aurrerakinak (emandakoak) | 954 | 82.215 | 57.112 | 54.646 | 21.597 | 3.631 | 2.109 | 232 | - |
| Horietatik: etxeak | | 77.658 | 52.555 | 54.646 | 17.758 | 3.631 | 1.392 | 232 | - |
| *Horietatik: bizilekutarako higiezinek bermatuak* | | 70.805 | 47.535 | 49.823 | 16.125 | 3.352 | 1.283 | 222 | - |

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK**

**URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2021EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA**
**(Mila eurokotan adierazita)**

Jarraian, legezko neurriei, hitzarmen pribatuei edo biei jarraikiz emandako ordaintzeko moratoriaren batez formalizatu diren eta 2021eko abenduaren 31n indarrean jarraitzen duten eragiketen zenbateko gordina aurkeztuko dugu:

| | Mila eurokotan | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | | | | | | | Metatutako narriadura, kreditu-arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan metatutako aldaketak | | | | | | | Zenbateko gordina |
| | | Normala | | | Zalantzazkoak | | | | Normala | | | Zalantzazkoak | | | |
| | Guztira | Normala guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: arrisku-gehikuntza nabarmeneko tresnak, baina narriatu gabeak (Stage 2) | Zalantzazkoak guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: ordaintzeko aukera gutxi baina ez-betetzerik ez edo ez-betetzea <= 90 egun | Guztira | Normala guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: arrisku-hazkuntza nabarmeneko tresnak, baina narriatu gabeak (Stage 2) | Zalantzazkoak guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: ordaintzeko aukera gutxi baina ez-betetzerik ez edo ez-betetzea <= 90 egun | Zalantzazkorako sarrera |
| Moratoriari lotutako maileguak eta aurrerakinak | 1.458 | 597 | 433 | 433 | 861 | 859 | 861 | (136) | (51) | (28) | (28) | (85) | (83) | (85) | 79 |
| Horietatik: etxeak | 1.458 | 597 | 433 | 433 | 861 | 859 | 861 | (136) | (51) | (28) | (28) | (85) | (83) | (85) | 76 |
| *Horietatik: bizilekutarako higiezinek bermatuak* | 1.172 | 381 | 381 | 381 | 791 | 791 | 791 | (18) | - | - | - | (18) | (18) | (18) | 76 |

Jarraian, legezko neurriei, hitzarmen pribatuei edo biei jarraikiz emandako ordaintzeko moratoriaren batez formalizatu diren eta 2020ko abenduaren 31n indarrean jarraitzen duten eragiketen zenbateko gordina aurkeztuko dugu:

| | Mila eurokotan | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | | | | | | | Metatutako narriadura, kreditu-arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan metatutako aldaketak | | | | | | | Zenbateko gordina |
| | Guztira | Normala | | | Zalantzazkoak | | | Guztira | Normala | | | Zalantzazkoak | | | Zalantzazkorako sarrera |
| | | Normala guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: arrisku-gehikuntza nabarmeneko tresnak, baina narriatu gabeak (Stage 2) | Zalantzazkoak guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: ordaintzeko aukera gutxi baina ez-betetzerik ez edo ez-betetzea <= 90 egun | | Normala guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: arrisku-gehikuntza nabarmeneko tresnak, baina narriatu gabeak (Stage 2) | Zalantzazkoak guztira | Horietatik: birfinantzaketa-neurridun esposizioak | Horietatik: ordaintzeko aukera gutxi baina ez-betetzerik ez edo ez-betetzea <= 90 egun | |
| Moratoriari lotutako maileguak eta aurrerakinak | 27.570 | 25.082 | 20.560 | 18.442 | 2.488 | 1.984 | 1.365 | (1.643) | (1.280) | (1.210) | (1.219) | (363) | (203) | (236) | 665 |
| Horietatik: etxeak | 23.012 | 20.998 | 20.560 | 18.442 | 2.014 | 1.984 | 1.217 | (1.460) | (1.245) | (1.210) | (1.219) | (215) | (203) | (88) | 601 |
| *Horietatik: bizilekutarako higiezinek bermatuak* | 20.982 | 19.078 | 18.848 | 16.835 | 1.904 | 1.904 | 1.183 | (761) | (601) | (601) | (595) | (160) | (160) | (75) | 585 |

Lehendik ere azaldu dugunez, 8/2020, 11/2020, 25/2020, 26/2020 eta 3/2021 Errege Lege Dekretuek xedatutakoari eta Entitatearen eta bezeroen arteko hitzarmen eta irizpide pribatuei jarraikiz egin dira aurreko koadroetan ageri diren eragiketak.

Legezko moratoriak, berriz, berekin dakar hipoteka-zorra 3 hilabetez etetea eta, horrenbestez, moratoria indarrean den bitartean, garaiz aurreko epemugaratze-klausula ez aplikatzea, baldin eta halakorik badauka hipoteka-bermedun mailegu-kontratuak. 2020ko irailaren 30ean amaitu da moratoria horiek eskatzeko epea; dena den, Espainiako gobernuak neurri gehiago onar ditzake. Moratoria indarrean den bitartean, entitate hartzekodunak ezin du galdatu hipoteka-kuota edo berori osatzen duen kontzepturik (kapitala edo interesak) ordaintzea, ez osorik, ez ehuneko batean. 2021eko otsailaren 12ko 3/2021 Errege Lege Dekretuak 2021eko martxoaren 31ra arte luzatzen du legezko moratoria eskatzeko epea, araudi aplikagarriaren baldintzak betetzen dituzten bezeroentzat. Araudi horri esker, 9 hilabeterainoko moratoria eska dezakete bai lehenago eskatu ez duten bezeroek eta bai moratoria-motaren bat eman bazaie ere metatutako epea 9 hilabetetik beherakoa dutenek. Atzeraeraginezko ondorea izan dezake moratoriak, 2020ko martxoaren 18an edo data horretatik aurrera ordaindu gabe dauden kuotetan.

2021eko abenduaren 31n, eragiketa bati eragiten dioten legezko moratoria-neurriak ditu formalizatuta Entitateak, eta 164 mila eurokoa da haien arrisku biziko esposizioa. 2020ko abenduaren 31n, 53 eragiketari eragiten zieten legezko moratoria-neurriak zituen formalizatuta Entitateak, eta 4.919 mila eurokoa zen haien arrisku biziko esposizioa.

Moratoria pribatua, bestalde, aplikagarri zaie bai lehen aipatutako legezko moratoriaz baliatu diren kreditu-hartzaileei, bai legezko moratoriaz baliatu ez diren eta COVID-19aren eraginez finantza-egoera hondatu zaien kreditu-hartzaileei. LABORAL Kutxak bakarrik aplikatzen du moratoria pribatu hori, eta eragiketako kapitalaren 6 kuota (gehienez) eteteko aukera ematen du. Hipoteka-maileguen kasuan, 12 kuotaraino luza daiteke moratoria (etendako kuoten zenbaketan kontuan hartu behar dira legezko moratorien aplikazioa dela eta egon daitezkeen geroratzeak) 2021eko abenduaren 31n, 325 eragiketari eragiten dieten legezko moratoria pribatuko neurriak ditu formalizatuta Entitateak, eta 1.292 mila eurokoa da haien arrisku biziko esposizioa.

Ohar honetan deskribatutako neurriei dagozkien kontratu-baldintzetan egindako aldaketek ez dute inpaktu nabarmenik izan ekitaldiko galdu-irabazien kontuan.

c.2) Abal publikodun eragiketak

Bestalde, zenbait eragiketa berri onartu ditu Entitateak, COVID-19aren krisiari aurre egiteko laguntza-neurri publikoen babespean. Taula honetan duzue eragiketa horiei buruzko informazioa, 2021eko abenduaren 31koa:

| | Mila eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | | Kontuan har daitekeen bermearen gehieneko zenbatekoa | Zalantzazko zenbateko gordina |
| | Guztira | Horietatik: birfinantzamenduak | Jasotako berme publikoak | |
| **Emandako eragiketa berriak, laguntza publikoko neurrien bidez babestuak** | 726.741 | 1.226 | 636.347 | 11.668 |
| Horietatik: autonomoak | 57.500 | - | - | 668 |
| Horietatik: bizilekutarako higiezinek bermatuak | - | - | - | - |
| Horietatik: sozietate ez-finantzarioak | 666.639 | 1.061 | 580.916 | 11.000 |
| Horietatik: ETEak | 578.975 | - | - | 9.550 |
| Horietatik: merkataritzarako higiezinek bermatuak | - | - | - | - |

Bestalde, zenbait eragiketa berri onartu ditu Entitateak, COVID-19aren krisiari aurre egiteko laguntza-neurri publikoen babespean. Taula honetan duzue eragiketa horiei buruzko informazioa, 2020ko abenduaren 31koa:

| | Mila eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | | Kontuan har daitekeen bermearen gehieneko zenbatekoa | Zalantzazko zenbateko gordina |
| | Guztira | Horietatik: birfinantzamenduak | Jasotako berme publikoak | |
| **Emandako eragiketa berriak, laguntza publikoko neurrien bidez babestuak** | 650.967 | 359 | 558.213 | 3.897 |
| Horietatik: autonomoak | 51.075 | - | - | 168 |
| Horietatik: bizilekutarako higiezinek bermatuak | - | - | - | - |
| Horietatik: sozietate ez-finantzarioak | 597.320 | - | 509.632 | 3.729 |
| Horietatik: ETEak | 513.074 | - | - | 2.977 |
| Horietatik: merkataritzarako higiezinek bermatuak | - | - | - | - |

Hauek dira taulan aurkeztu diren laguntza-neurri publikoak:

a) KOIren COVID-19 lerroko abalak, 2020ko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren, ezohiko premiazko neurriei buruzkoaren, 29. artikuluan aurreikusiak. Bertan xedatzen denez, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak 100.000 milioi euroraino emango ditu kreditu-erakundeek osasun-krisiak eragindako enpresei eta autonomoei ematen dieten finantzaketaren abal gisa, arazo hauei aurre egin diezaieten: fakturen kudeaketa, zirkulatzaile-beharra, finantza- edo zerga-obligazioak, langileen soldaten ordainketa eta beste zenbait likidezia-premia, jarduera ekonomikoari eutsi ahal diezaioten. Beren finantza-erakundeen bitartez eskura ditzakete abal horiek enpresek eta autonomoek, finantzaketa-eragiketa berriak formalizatuz edo lehendik zeuzkatenak berrituz, KOIren abala dutela (% 70-80 bitartekoa, dagokion enpresa edo autonomoaren ezaugarriak zein diren; % 60koa berriztatze-eragiketetan). Entitateak urteko komisio bat ordaintzen dio KOIri, bermatutako zenbatekoengatik.

Entitateak 5.605 eragiketa onartu ditu (4.989 2020ko abenduaren 31n), autonomo, ETE eta beste enpresa batzuetarako: zenbatekoa 461.960 mila eurokoa izan da (419.205 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n) eta KOIren abala 372.002 mila eurokoa (326.607 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n).

b) Zenbait autonomia-erkidegotako gobernuek ere (batez ere Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak) premiazko ezohiko zenbait finantzaketa-lerro garatu dituzte, Elkargi EGErekin (Eusko Jaurlaritza) eta Sonagar-ekin (Nafarroako Gobernua) formalizatutako jarduketa-hitzarmenen bitartez. ETEen eta autonomoen jarduera ekonomikoari eustea dute helburu, eta likidezia-beharrak asetzea. Entitateak 3.536 eragiketa onartu ditu (3.288 2020ko abenduaren 31n), autonomo, ETE eta beste enpresa batzuetarako abal-mota horien bidez: zenbatekoa 264.781 mila eurokoa izan da (231.762 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n) eta abala 264.344 mila eurokoa (231.606 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n).

Eragiketa horien kontabilitate-tratamenduari dagokionez, berriz, Entitate Nagusiak abala exekutatuz lor daitezkeen fluxuak hartzen ditu kontuan, eragiketan espero den galera kalkulatzeko.

## 16. Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuak bi definizio ditu:

- Funtsen likidezia-arriskua: Entitate Nagusia gai ez izatea egungo eta etorkizuneko aurreikusitako eta ezusteko kutxako fluxuei eta ordainketa-obligazioen ondoriozko berme-ekarpenei eraginkortasunez erantzuteko, eguneroko jardunari edo finantza-egoerari kalterik eragin gabe.

- Merkatuko likidezia-arriskua: merkatuan sakontasunik ez izatearen edo distortsioak egotearen ondorioz finantza-erakunde nagusiek posizio bat merkatuko prezioetan konpentsatu edo desegiteko gaitasunik ez izateari egiten dio erreferentzia.

Entitate Nagusiak helburu estrategikotzat jo izan du, beti, likidezia; ondorioz, sistematikoki kudeatu eta kontrolatu izan du, azken bi hamarkadetan. Testuinguru horretan, Likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburua du LABORAL Kutxak, Kontseilu Errektoreak onartuta. Eskuliburu horrek, Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen «Likidezia-arriskua egoki kudeatzeko eta gainbegiratzeko printzipioak» (2008ko ikaileko dokumentua) betetzeaz gain, hainbat likidezia-helburu ez ezik, alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak jasotzen dituen kontingentzia-plana ere finkatzen du. Egoera horretan, aipatzekoa da, halaber, Entitate Nagusiak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua sortu zuela 2015ean. Baimentze- eta hobetze-prozesu sistematikoa ezartzen zaio, eta, bertan, likidezia-arriskuaren funtsezko adierazle batzuetarako grinaren eta tolerantziaren atalaseak jaso dira. Bestalde, Recovery Plana ere egin zuen, likidezia-krisietarako alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak eguneratzeko.

Prozeduretan ezarritako eginkizunetan sakonduz, likideziaren kudeaketak kontrol-sistema bat du euskarri. Horren bidez, batetik, funtsezko zenbait adierazletarako mugak eta aurreko adierazleetarako edo aparteko beste batzuetarako epe ertainerako hileko likidezia-helburuak ezartzen dira eta, bestetik, muga eta helburu horiek zenbateraino bete diren sistematikoki kontrolatu. Muga eta helburu horiek finantzaketa-plan baten bidez kontrolatzen dira. Hilean behin eguneratzen da eta inbertitzeko moduko baliabideen, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasotzen ditu —aurreikuspenok mugen eta helburuen xede diren adierazleen bilakaera zehazten dute—. Horrela, Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBk) aukera du epe ertainean adierazle horiei eta likideziari aurreikusten zaien bilakaerari buruzko informazioa eguneratuta izateko etengabe. Horrela, agregatuen bilakaeran likidezian eragiten duten desorekak zuzentzeko ekintzak bidera ditzake APBk, behar adinako aurrerapenez. Likidezia-helburuen artean, aktibo likido erabilgarriak eta hainbat likidezia-ratio daude, LCR ratioa barne hartuta. 2021eko ekitaldia ixtean, Entitate Nagusiak maila oso altua du bertan; izan ere, aise bete du arautzaileak 2018ko urtarrilaren 1erako ezarritako muga.

Zehazki, 2021eko itxieran honako hauek ditu Entitate Nagusiak:

- % 413ko LCR ratioa.
- Haircutak aplikatu ostean, 5.230 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak) Europako Banku Zentralean (EBZn), ezusteko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 1.359 milioi euro EBZren polizan daude eskuragarri, eta 3.871 milioi euro EBZko aktibo hautagarriak dira, pignorazioaren bidez eskuratzeko modukoak. Entitate Nagusiak likidezia-maila garbi positiboari eutsi dio urtean zehar. Beste alde batetik, 2021eko ekainean Entitate Nagusiak 180 milioi euro eskuratu zituen EBZren TLTRO III epe luzeko finantzaketa-eragiketen esparruan. Eragiketa horiek, ordea, ez dute likidezia-handitzerik ekarri, kolaterala pignoratuz eskuratu baitziren.
- Horrez gain, Entitate Nagusiak 475 milioi euro ditu gutxi gorabehera EBZn aktibo likidoetan, *haircut*ik gabe. Aktibo horiek ez dira deskontagarriak, baina erraz bihur daitezke likidezia.
- 2.893 milioi euroko saldoa, Espainiako Bankuko kontu korrontean; horietatik 225,3 milioi euro kutxa-koefizienteari dagozkio.
- % 64ko Loan to Deposits ratioa.
- Entitate Nagusiak zuhurtasun-politika erabili duen handizkakoen finantzaketa:
    - 1.860 milioi euroko zenbatekoa bildu du, balantze osoaren % 7koa. Kopuru horretan, EBZtik jasotako dirua sartuta dago, eta ez daude sartuta autozorrorako zedulak, titulizazioak eta KOI finantzaketa, horien muga-eguneko fluxuak lotuta baitaude finantzatzen dituzten aktiboei dagozkienekin.

- Finantzaketa-iturrietan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, ekitaldiaren itxieran, Caja Laboralak 1.860 milioi euroko kopurua du EBZtik (TLTRO III) jasoa (35. oharra). Bestalde, Entitate Nagusiak 77 milioi euroko finantzaketa du merkatuan, hipoteka-partaidetzak titulizatzearen bidez (Entitate Nagusiak berak eskuratutako bitarteak deskontatuta), bai eta KOIk bitartekotutako 3 milioi euroko finantzaketa ere. Dena den, lehen esan dugunez, ez KOI finantzaketak ez titulizazioek ez dute muga-egunean birfinantzatzeko premiarik.

- Mugaegunak dibertsifikatu ditu: EBZtik jasotakoa 2023ko ekainean eta 2024ko ekainean mugaeguneratzea dago aurreikusita.

Entitate Nagusiaren finantzaketa-egitura honela dago banatuta:

| Finantzaketa-egitura | 2021 Milioi eurokotan | % |
|---|---|---|
| Bezeroen gordailuak | 22.601 | 80,91 |
| Hipoteka-zedulak (1) | - | 0,00 |
| EBZtik jasoa | 1.860 | 6,66 |
| Titulizazioak (1) | 77 | 0,27 |
| KOI + EIB finantzaketa | 3 | 0,01 |
| **Aktiboa guztira** | 27.927 | |

(1) Autozorroa ez da sartzen.

Handizkako finantzaketa 2021. urtetik aurrera mugaeguneratuko da, banakapen honen arabera:

| | Milioi eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Handizkako jaulkipenen muga-egunak** | **2022** | **2023** | **2024** | **>2024** |
| Bonuak eta hipoteka-zedulak | - | - | - | - |
| Lurralde-zedulak | - | - | - | - |
| Senior zorra | - | - | - | - |
| Estatuak abala emandako jaulkipenak | - | - | - | - |
| Mendekoak, lehentasunezkoak eta bihurgarriak | - | - | - | - |
| Hirugarrenei saldutako titulizazioak | 12 | 11 | 10 | 44 |
| EBZtik jasoa | - | 1.680 | 180 | - |
| KOI + EIB finantzaketa | 1 | - | - | 2 |
| | 13 | 1.691 | 190 | 46 |

Epe ertainerako likidezia-beharrak behar bezala estalita daude, finantzaketa-gaitasunen bidez. Horrela, bada, *haircut*ak aplikatu ostean eskuragarri dauden aktibo likido garbiak eta Entitate Nagusiaren jaulkipen-gaitasuna aurkeztuko ditugu ondorengo tauletan:

| | Milioi eurokotan 2021-12-31 Erabilia | Milioi eurokotan 2021-12-31 Erabilgarria |
|---|---|---|
| **Aktibo likido garbiak (2)** | 1.860 | 5.705 |

(2) Espainiako Bankuaren likideziaren egoera-orrietarako irizpideak (errenta aldakorra kanpo utzita).

| **Jaulkipen-gaitasuna** | **Milioi eurokotan** |
|---|---|
| Hipoteka-zedulak jaulkitzeko gaitasuna | 6.085 |
| Lurralde-zedulak jaulkitzeko gaitasuna | 665 |
| Estatuak abala emandako jaulkipenetatik erabilgarri dagoena | - |
| | 6.750 |

Bestalde, taula honetan Entitate Nagusiaren aktiboen eta pasiboen azterketa jaso da (milioi eurokotan), Espainiako Bankuak igorritako egoera-orrien likideziari buruzko irizpideei jarraikiz, hondar-epemuga kontuan hartuta —kanpo utzi dira mugaeguneratutako saldoak, zalantzazko kreditu-inbertsioa, esleituak eta kobraezinak—:

**2021**

**AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA**

| | Milioi eurokotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Saldoa guztira | Agerikoak | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete artekoak | 3 eta 6 hilabete artekoak | 6 hilabete eta urtebete artekoak | 1 eta 5 urte artekoak | 5 urtetik gorakoak |
| Sarrerak GUZTIRA | 26.438 | 2.680 | 314 | 364 | 363 | 736 | 8.046 | 13.935 |
| Irteerak GUZTIRA | (25.535) | (22.595) | (931) | (00) | (04) | (13) | (1.916) | (76) |
| **Garbia** | 903 | (19.915) | (617) | 364 | 359 | 723 | 6.130 | 13.859 |

**2020**

**AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA**

| | Milioi eurokotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Saldoa guztira | Agerikoak | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete artekoak | 3 eta 6 hilabete artekoak | 6 hilabete eta urtebete artekoak | 1 eta 5 urte artekoak | 5 urtetik gorakoak |
| Sarrerak GUZTIRA | 25.296 | 2.421 | 187 | 330 | 882 | 1.069 | 7.598 | 12.809 |
| Irteerak GUZTIRA | (24.779) | (21.146) | (1.191) | (651) | (05) | (14) | (1.737) | (35) |
| **Garbia** | 517 | (18.725) | (1.004) | (321) | 877 | 1.055 | 5.861 | 12.774 |

## 17. Interes-tasaren arriskua

Entitate Nagusiaren emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen aurkako mugimendu batek eragin ditzakeen galerekin du zerikusia interes-tasaren arriskuak.

Kontseilu Errektoreak Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBren) eskutan du utzita arrisku hori kontrolatu eta kudeatzeko zeregina, eta Kontseilu Errektoreak finkatutako eta urtean behin berrikusitako mugen barruan jarduten du. Merkatuko eta kontrako egoera bateko interes-tasen artean gehienez onar daitekeen galeraren arabera ezartzen dira mugok.

APBk sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuaren eragina, eta, kudeaketa aktiboaren bidez, merkatuko interes-tasen bilakaera kaskarrek epe ertainera galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da. Erabaki bat edo beste bat hartzeko, APB simulazioetan oinarritzen da. Simulazioek balantzeko eta balantzetik kanpoko egiturazko posizioak aztertu eta interes-tasa ezberdinen aurrean Entitate Nagusiak epe luzera izango dituen emaitzak neurtzen dituzte.

Interes-tasekiko sentikorrak diren partiden gap estatikoa bildu dugu ondoko taulan. Entitate Nagusiak interes-tasen gorabeheren aurrean duen arriskuarekiko lehen hurbilpena da. Halere, gaparen berezko supostuen mugak kontuan hartuta, ez da egokia Caja Laboralak arrisku hori neurtzeko erabili izan duen teknika, aurreko paragrafoan azaldu dena.

| | Milioi eurokotan | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Balantzeko saldoa 21-12-31n | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete artekoak | 3 hilabete eta urtebete artekoak | 1 eta 2 urte artekoak | 2 eta 3 urte artekoak | 3 eta 4 urte artekoak | 4 eta 5 urte artekoak | 5 urtetik gorakoak |
| **Aktibo sentikorrak** | 28.497 | 6.208 | 2.700 | 7.992 | 2.056 | 2.469 | 1.272 | 690 | 5.111 |
| Diru-merkatua | 3.488 | 3.488 | - | - | - | - | - | - | - |
| Kreditu-merkatua | 15.942 | 2.339 | 2.683 | 5.622 | 633 | 589 | 433 | 610 | 3.034 |
| Balore-merkatua | 9.066 | 381 | 17 | 2.370 | 1.423 | 1.880 | 839 | 80 | 2.077 |
| **Pasibo sentikorrak** | 25.390 | 8.739 | 1.776 | *3.638* | *1.682* | *191* | *13* | *22* | *9.327* |
| Handizkako merkatua | 1.860 | 55 | - | 1 | 1.627 | 176 | - | - | - |
| Gainerako hartzekodunak | 23.530 | 8.684 | 1.776 | 3.637 | 55 | 15 | 13 | 22 | 9.327 |
| GAP arrunta | | (2.532) | 924 | 4.353 | 374 | 2.278 | 1.258 | 667 | (4.216) |
| Pasibo osoaren gaineko %-a | | (% 9) | % 3 | % 15 | % 1 | % 8 | % 4 | % 2 | (% 15) |
| GAP metatua | | (2.532) | (1.608) | 2.746 | 3.120 | 5.398 | 6.656 | 7.323 | 3.107 |
| Pasibo osoaren gaineko %-a | | (% 9) | (% 6) | % 10 | % 11 | % 19 | % 23 | % 26 | % 11 |

| | Milioi eurokotan | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Balantzeko saldoa 20-12-31n | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete artekoak | 3 hilabete eta urtebete artekoak | 1 eta 2 urte artekoak | 2 eta 3 urte artekoak | 3 eta 4 urte artekoak | 4 eta 5 urte artekoak | 5 urtetik gorakoak |
| **Aktibo sentikorrak** | 27.563 | 5.618 | 2.797 | 9.113 | 893 | 1.913 | 2.255 | 720 | 4.255 |
| Diru-merkatua | 2.917 | 2.917 | - | - | - | - | - | - | - |
| Kreditu-merkatua | 14.946 | 2.350 | 2.793 | 5.808 | 562 | 484 | 375 | 286 | 2.289 |
| Balore-merkatua | 9.701 | 351 | 4 | 3.305 | 331 | 1.429 | 1.880 | 434 | 1.966 |
| **Pasibo sentikorrak** | 24.731 | 8.396 | 2.226 | *5.409* | *54* | *(6)* | *16* | *28* | *8.608* |
| Handizkako merkatua | 2.882 | 591 | 628 | 1.683 | - | (20) | - | - | - |
| Gainerako hartzekodunak | 21.849 | 7.805 | 1.597 | 3.726 | 55 | 14 | 16 | 28 | 8.608 |
| GAP arrunta | | (2.778) | 571 | 3.704 | 839 | 1.918 | 2.239 | 692 | (4.353) |
| Pasibo osoaren gaineko %-a | | (% 10) | % 2 | % 13 | % 3 | % 7 | % 8 | % 3 | (% 16) |
| GAP metatua | | (2.778) | (2.207) | 1.497 | 2.336 | 4.254 | 6.493 | 7.185 | 2.833 |
| Pasibo osoaren gaineko %-a | | (% 10) | (% 8) | % 5 | % 8 | % 15 | % 24 | % 26 | % 10 |

Kontratuan interes-tasa bat ezarrita duten partidak interes-tasekiko sentikorrak dira, eta, beraz, gapean jasotzen dira. Gainerakoak kanpoan geratzen dira; hau da, balioztapenagatiko doikuntzak, kreditu sailkaezina, kutxa, ibilgetua (esleituak barne), deribatuak, hainbat kontu eta periodifikatze-kontuak, Gizarte Ekintzako Funtsa, funts bereziak, kapitala eta erreserbak, eta ekitaldiko emaitzak.

Gap horretan, sentikortzat jotako partidak dagokien denbora-tarteetan banatzen dira, ondoren adierazi ditugun irizpideei jarraikiz. Interes-tasa aldakorreko produktuak interes-tasa berrikusten (balioa handitzen) zaien denbora-tartean kokatzen dira. Bestalde, interes-tasa finkoko partidak hondar-epemugaren arabera banatzen dira. Ageriko produktuetarako, saldoen aldakortasun-estimazioak kontuan hartuta, haien portaerari buruzko hipotesiak eman ditu Entitate Nagusiak. Epemuga espliziturik gabeko kontu-mota bakoitzerako —ordainketarik gabeko kontuak, administratuak eta erreferentziatuak— analisi estatistikoak egin dira, kontu horien interes-tasaren eta merkatuaren interes-tasaren bilakaera aintzat hartuta.

Entitate Nagusiak gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasek oinarrizko 200 puntu behera eginez gero, marjina gordina % 8,14 inguru txikituko litzateke, lehen urtean. Gainbegiraleak azterketa horiek egiteko ezarritako irizpideak hauek dira: hasierako saldoei eta balantzearen egiturari eustea, interes-tasak merkatu-igurikimenen arabera garatzea, ordainketarik gabeko eta administratutako kontu korronteetarako 5 urteko iraupena finkatzea eta merkatuko interes-tasetarako –% 1 eta % 0 bitarteko zorua ezartzea, hurrenez hurren agerikoen eta 20 urtekoen artean dauden epeetarako.

Balio ekonomikoaren gaineko inpaktuari dagokionez, interes-tasetako oinarrizko 200 puntuko beherakadak 179,2 milioi euroko hazkundea eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 9,86 ingurukoa. Halaber, magnitude bera handituz gero, 129,0 milioi euroko hazkundea eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 7,10ekoa. Ondare-balioa kalkulatzeko, interes-tasaren gaparen atalean aipatu diren irizpide berberak erabili dira. Europako banku guztietarako arau tekniko bateratuak kontsultatze-fasean ditu EBAk (Europako Banku Agintaritzak).

## 18. Merkatuko beste arrisku batzuk

2020a koronabirusaren pandemiaren urtea izan zen; 2021ean, berriz, hazkunde ekonomikoa suspertzen hasi da herrialderik gehienetan. Diru- eta zerga-pizgarrien bultzadari eta txertaketan egindako aurrerapenei esker etorri da susperraldia, eta, horrela, ekitaldiaren amaieran +% 6 inguruko hazkunde globala lortu da —aurreko urtean –% 3,2koa izan zen—.

Hazkunde positiboak izan arren, portaera desberdina izan da urtearen bi erdietan: lehenengoan, potentzialetik gorako aurrerapenak izan dira eta, bigarrenean, dinamismoa galdu da. 2021eko azken hilabeteetan, ostera, murrizketak ezarri behar izan dira nazioartean, birusaren aldaera berriak agertu direnean. Horrez gain, Txina aurreikusitakoa baino gehiago moteldu da, besteak beste, higiezinen merkatua drainatzearen ondorioz. Inflazioaren azelerazioak eta hornidura-kateen hausturek ere eragin negatiboa izan dute urtearen bigarren zatian.

Magnitude makroekonomikoei dagokienez, AEBk pandemia aurreko maila berreskuratu du, eta +% 5,6 inguruko mailekin itxi du 2021a (–% 3,4koarekin 2020a). Euroguneak izandako +% 5,2ko hazkundean (–% 6,5ekoa izan zen 2020an), Frantzia (+% 6,7) eta Italia (+% 6,2) nabarmentzen dira. Espainiaren kasuan, 21 urtean lortu duen tasarik handiena izan arren, +% 4,9ko datuak ez ditu urte-hasierako itxaropenak bete. Alemaniak (+% 2,7) eta Japoniak (+% 1,6) (–% 4,8 2020an) hazkunde-tasa txikiagoak izan dituzte. 2020ko urtean –% 9,4ko hazkundea izan ondoren, Erresuma Batua +% 7,2 hazi da. Garatzeko bidean dauden herrialdeek, berriz, +% 6,5eko hazkundeekin amaitu dute urtea (–% 2,2koarekin 2020an).

Inflazioaren hazkundea izan da, seguruenik, ekitaldiko ustekaberik handiena, hala azelerazioaren intentsitateagatik, nola iraupenagatik. Hainbat faktorek ekarri dute prezioen gorakada, besteak beste: energiaren prezioen igoerak, ekonomiak berriro ireki ondoren eskaria sustatzeak, oinarrizko efektuak, eskaintzan izandako botila-lepoak eta etendurak eta sektore eta herrialde batzuetan laneskua ez izateak. Hala, % 7ko inflazio-tasarekin itxi da urtea AEBn, % 5ekoarekin Europako Diru Batasunean eta % 6,5ekoarekin Espainian, eta, gainera, inflazioaren iragankortasunari buruzko ziurgabetasuna sortu da.

Banku zentralen esku-hartzeen harira, aurreko urtean bezala, politika ultrahedakorrak izan dira nagusi. Hala ere, urtearen bigarren erdian, banku zentralek (garatzeko bidean diren ekonomiek zein garatuetakoek) lehen neurriak iragarri dituzte, inflazio-beldurrak goraka zihoazela. AEBko Erreserba Federalaren kasuan, erosketa-erritmoa murriztu ondoren, FOMCen abenduko aktetan agertzen da hurrengo urteko martxoan tasak igotzeko eta balantzearen tamaina txikitzen hasteko asmoa dagoela, diru-politika gogortzeko helburuarekin. Ingalaterrako Bankuak, berriz,% 0,10etik % 0,25era igo ditu tasak abenduan. EBZk berretsi egin du bonuen erosketaren beherakada eta Pandemiaren Aurkako Larrialdiko Erosketa Programaren (PEPParen) amaiera 2022ko martxoan. Halere, aldi berean, Aktiboak Erosteko Programaren (APP) erosketak handitu egin ditu.

Finantza-merkatuetan, bestalde, arrisku-aktiboen bilakaera ona nabarmendu da urtean. Errenta aldakorra, enpresa-irabazien hazkundearen laguntzarekin, % 20,14 errebalorizatu da MSCI World indizearen kasuan. Errentagarritasun positibo horiek batez besteko historikoen pareko hegakortasunez gauzatu dira. Hala ere, batez ere urte-amaieran, hegakortasunak gora egin du, Omikron aldagai berriaren, inflazio-datu handien eta banku zentralek diru-politikak berrikusten hastearen eraginez.

Urtearen akaberan, S&P500 indizeak +% 26,89ko balioa erregistratu du; Nasdaqak, berriz, +% 21,39koa. Eurostoxx50ak +% 20,99an itxi du urtea, Amerikako indizerik nagusien azpitik. Herrialde garatu batzuetan, errentagarritasunak txikiagoak izan dira, baina positiboak, hala nola Japonian (Nikkeiaren +% 4,91koa) eta Espainian (Ibex35aren +% 7,93koa). Alde handia egon da garatzeko bidean dauden herrialdeen bilakaeran: Txinako eta Brasilgo indizeetan, adibidez, galerak izan dira, eta Indiak portaera ona izan du. Garatzeko bidean dauden merkatuetako MSCI indizeak –% 4,59ko errentagarritasun negatiboa izan du urtean.

Dibisen bilakaerari dagokionez, euroak % 6,93 egin du behera dolarraren aurrean, eta % 5,9 libera esterlinaren aurrean. Aldiz, % 3,74 irabazi du Japoniako yenaren aldean. Lira turkiarra da 2021ean baliorik gehien galdu duen dibisa.

Errenta finko pribatuan, kreditu-arriskurik handieneko errenta finkoan bakarrik lortu dira errentagarritasun positiboak. Hala, inbertsio-graduko AEBko Barclays indizeak –% 2,71ko errentagarritasuna lortu du, eta High Yield indizeak +% 4,58koa. Europan, inbertsio-mailako Barclays indizeak –% 1,3 galdu du; High Yield indizeak, ostera, +% 3,54 irabazi. Garatzeko bidean dauden merkatuetako dibisa sendoko Barclays indizeak +% 1,88ko errentagarritasuna lortu du.

Zor publikoko merkatuetan minusbalioak orokortu dira, interes-tasen gorakadaren ondorioz. Ekitaldiaren amaieran, amerikar kurbaren lautzea eta Europako herrialde periferikoetako diferentzialen handitzea nabarmendu dira. Hala, Italiako eta Espainiako Barclays indize subiranoek –% 3,2ko errentagarritasunekin amaitu dute urtea. Alemaniakoak –% 2,97 galdu du, eta AEBkoak –% 3,52.

Ekitaldian aktibo arriskutsuekiko esposizioa handitu egin bada ere pixka bat, haren bilakaera positiboa izan da, baina mugatua, aktibo arriskutsuek gure inbertsio-zorroetan (errenta finko pribatukoan eta errenta aldakorrekoan) duten esposizio txikia dela eta. Zorraren zorroaren kasuan, ekitaldian zehar «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan gainbalioak lortu dira, Altxorraren zorra salduz. Halaber, berriro TLTROra jo dugu ekainean, EBZk aplikatutako baldintza berriei jarraikiz. Azkenik, «Finantza-aktiboak» zorroak gainbalioak izan ditu ekitaldi-itxieran, merkatuko balioztapenen bilakaerarekin bat etorriz.

## 19. Eragiketa-arriskua

Prozesuetan, pertsonalean nahiz barruko sistemetan gertatutako desegokitasun edo akatsen nahiz kanpoko faktoreen ondorioz Entitateak izan ditzakeen galerei buruzkoa da eragiketa-arriskua.

LABORAL Kutxak metodo estandarra erabiliz informatzen du arautzailea, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduan deskribatutako metodologiaren arabera.

Ikuspegi kualitatiboari begira, departamentu guztien arrisku-mapak eta kontrolak ditu Taldeak. Arrisku horiek urtero ebaluatzen dira, eta, ondoren, arriskurik larrienak arintzeko ekintza-planak taxutzen dira.

Gaur egun, Taldeak 56 koordinatzaileko eta 27 balidatzaileko sarea du, sistemak eskatzen dituen zereginak (autoebaluazioak eta ekintza-planak) gauzatu ahal izateko.

Ikuspegi kuantitatibotik, eragiketetan galdutakoen barneko datu-basea du Taldeak 2002tik. Galera bakoitza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduak zehaztutako gertaera-mota eta negozio-linea bati dago esleituta. 2020ko ekitaldian COVID-19 gertaera-motari eman zitzaion alta, Europako Banku Agintaritzak argitaratutako EBA\REP\2020\19 eta EBA\REP\2020\39 jarraibideekin bat eginez. Pandemiaren ondoriozko aparteko gastu guziak bildu ziren bertan.

LABORAL Kutxa CERO (Consorcio Español de Riesgo Operacional – Eragiketa Arriskuaren Espainiako Partzuergoa) taldeko partaide da. Bertan, estatuko finantza-erakunde nagusiak daude ordezkatuta, eta eragiketa-arriskuaren alorreko informazioa eta esperientziak partekatzen dira.

## 20. Aseguru-eragiketen arriskua

Aseguru-kontratuak harpidetzeagatiko arriskuen artean badira aldagai batzuk etorkizuneko eskudiru-fluxuetan eragin nabarmena izan dezaketenak, hala zenbatekoan nola banaketa kronologikoan.

Hilkortasun-, baliaezintasun eta longebitate-taulak ezbehar-tasari eragiten dioten aldagaiak dira, eta, beraz, ezbeharrak ordaintzeko eskudiruaren irteera-fluxuari ere bai. Taldeak, aldian behin, egokitu egiten ditu bere oinarri teknikoak: hilkortasun- eta iraupen-taulak nazioko eta nazioarteko sektorekako lantaldeek emandako daturik berrienetara eta Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorrak onetsitako estatistiketara moldatzen ditu.

Aseguruen Zuzendaritza Orokorrak zehaztutako araudiari jarraikiz, Taldea PASEM2020 eta PER2020 taula berrietara dago egokituta. Baliaezintasun-arriskuetarako, PEAIM-2007 taulak baliatzen ditu.

1998ko azaroaren 20ko 2486/1998 Errege Dekretuaren bidez araututako Aseguru pribatuen antolamendu eta gainbegiraketarako erregelamendua (aurrerantzean, Erregelamendua) indarrean sartu baino lehenago interes-tasa tekniko bermatua zuten polizei dagokienez, Erregelamendu horren Bigarren Xedapen Iragankorrean jasotakoa erabiltzen du Taldeak; hau da, poliza horiei atxikitako inbertsioetan lortutako benetako etekina polizetan jasotako interes-tasa teknikoa baino handiagoa dela egiaztatzen du.

Erregelamenduan ezarritakoari lotzen zaio Taldea, eta hornidurak kalkulatzeko baliagarriak diren metodologiak erabiltzen ditu:

- Zenbait zorroren kasuan, 33.2. artikuluari heldu, eta, beraz, immunizazioa aplikatzen du.

- Beste zorro batzuei dagokienez, 2016ko Erregelamenduko Bosgarren Xedapen Gehigarrian jasotakoa erabiltzen du. Hau da, arriskuko kurba librea ezartzen du zorroan, hegakortasunagatiko doikuntzari lotutako osagaia sartuta. Horretarako, kalkulu linealeko metodoa erabiltzen du 10 urteko egokitzapen-epera arte (2015-12-31tik abiatuta).

- 2016-01-01etik aurrera egindako kontratuetan, ordea, zuzenean arriskuko kurba librea ezartzen du, hegakortasunagatiko doikuntzari lotutako osagaia ere sartuta.

Zorro guztietan aktiboko eta pasiboko fluxuen proiekzioak monitorizatzen ditu, eta sistematikoki kontrolatzen du aktiboen benetako errentagarritasuna hornidura matematikoaren batez besteko errentagarritasuna baino handiagoa den.

Espainiako legeria aplikatuz, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren mende dagoenak, bere egindako hondamen-arriskuen ondorioak estalita ditu Taldeak bere kontratuetan.

Beste alde batetik, kontratuetan ezbehar-tasaren arriskua murriztu ahal izateko, berraseguru-kontratuak erabiltzen ditu Taldeak.

Ez da jotzen arrisku-metaketa nabarmenik dagoenik; izan ere, Taldearen aseguru-negozioa batez ere partikularren arrisku pertsonalak aseguratzean datzanez, oso arrisku-maila apala dauka, dagoeneko Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen duen hondamendi-arriskuari dagokionez izan ezik.

Prestazioetarako hornidura kalkulatzeko, Aseguru pribatuen antolamendu eta gainbegiraketarako erregelamenduan ezarritakoa betetzen da.

Urteko kontu hauek formulatzeko egunean, Entitate Nagusiko kontseilariek berretsi dute arriskuen eta kaudimenaren barneko ebaluazioa egina dagoela eta Taldeko aseguru-erakundeek kaudimen-betebehar globalak betetzen dituztela, euren arrisku-profila, onartutako arrisku-tolerantziaren mugak eta negozio-estrategia kontuan hartuta.

Jarduerari lotutako arriskuen izaerari, bolumenari eta konplexutasunari egokitutako prozesuak ezarri dira eta, horiei esker, epe labur eta luzera Taldeko aseguru-erakundeek izan litzaketen eta aurre egin behar lieketen arriskuak egoki zehaztu eta ebaluatzeko aukera du.

Era berean, Entitate Nagusiko kontseilariek berretsi dutenez, Taldeko aseguru-erakundeek etengabe betetzen dituzte kapital-errekerimenduak eta hornidura teknikoen arloko eskakizunak.

## 21. Arriskuen kontzentrazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Erregelamenduaren eta kaudimen-errekerimenduen gainean ondoren egin diren aldaketen arabera, arrisku handietan —baliabide propioen % 10 gainditzen dutenak dira— pertsona edo talde batekin ezin da baliabide propioen % 25 baino gehiago arriskatu. Aparteko kasu batean, esposizioek muga hori gainditzen badute, Entitateak berehala jakinaraziko die esposizioaren balioa agintaritza eskudunei. Egoerak eskatzen badu, dagokion mugara itzultzeko denbora-epe mugatua aitor diezaiokete kreditu-erakundeari agintariek. Entitatearen arriskuak emateko politikak kontuan hartzen ditu muga eta irizpide horiek, eta eskakizunei dagozkien aurkako alderdiaren ondoriozko arrisku-mugak eta soberakoak kontrolatzeko prozedurak ezarri dira.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, MONDRAGON taldeko kooperatibekiko arriskua, esposizio handien ondoreetarako arriskuen unitate ekonomikotzat hartzen dena, bakarrik jo daiteke «esposizio handitzat», baliabide propioen % 10 gainditzen du eta.

Taldearen arriskuen kontzentrazioak eta horien kontabilitate-balioak hauek izan dira, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, arriskuari dagokion geografia-sektorea eta aurkako alderdien motak kontuan hartuta:

## 2021

| | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | Espainia | Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | Amerika | Munduko gainerako lurraldeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 4.207.615 | 3.499.940 | 202.395 | 11.114 | 494.166 |
| Administrazio publikoak | 9.233.133 | 9.117.948 | 115.185 | - | - |
| – Administrazio zentrala | 7.920.033 | 7.804.848 | 115.185 | - | - |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 1.313.100 | 1.313.100 | - | - | - |
| Beste sozietate finantzario batzuk eta enpresaburu indibidualak | 219.091 | 116.987 | 73.085 | 1.503 | 27.516 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 3.231.500 | 3.104.933 | 78.234 | 27.750 | 20.583 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 54.188 | 54.188 | - | - | - |
| – Obra zibileko eraikuntza | 112.916 | 112.782 | 134 | - | - |
| – Gainerako helburuak | 3.064.396 | 2.937.963 | 78.100 | 27.750 | 20.583 |
| Enpresa handiak | 774.742 | 664.069 | 66.054 | 24.878 | 19.741 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.289.654 | 2.273.894 | 12.046 | 2.872 | 842 |
| Gainerako etxeak | 10.996.373 | 10.979.212 | 11.376 | 2.391 | 3.394 |
| – Etxebizitzak | 10.225.353 | 10.208.710 | 11.075 | 2.194 | 3.374 |
| – Kontsumoa | 419.279 | 419.000 | 192 | 68 | 19 |
| – Beste helburu batzuk | 351.741 | 351.502 | 109 | 129 | 1 |
| **GUZTIRA** | 27.887.712 | 26.819.020 | 480.275 | 42.758 | 545.659 |

## 2020

| | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | Espainia | Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | Amerika | Munduko gainerako lurraldeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 3.487.356 | 2.877.244 | 153.097 | 15.110 | 441.905 |
| Administrazio publikoak | 9.639.816 | 9.509.109 | 130.707 | - | - |
| – Administrazio zentrala | 8.836.985 | 8.706.278 | 130.707 | - | - |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 802.831 | 802.831 | - | - | - |
| Beste sozietate finantzario batzuk eta enpresaburu indibidualak | 188.361 | 122.702 | 41.816 | 1.135 | 22.708 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 3.100.942 | 3.002.058 | 63.365 | 22.811 | 12.708 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 61.412 | 61.412 | - | - | - |
| – Obra zibileko eraikuntza | 112.861 | 112.861 | - | - | - |
| – Gainerako helburuak | 2.926.669 | 2.827.785 | 63.365 | 22.811 | 12.708 |
| Enpresa handiak | 618.283 | 524.730 | 59.571 | 21.867 | 12.115 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.308.386 | 2.303.055 | 3.794 | 944 | 593 |
| Gainerako etxeak | 10.783.505 | 10.765.620 | 11.592 | 2.986 | 3.307 |
| – Etxebizitzak | 10.030.432 | 10.013.186 | 11.209 | 2.764 | 3.273 |
| – Kontsumoa | 413.680 | 413.333 | 232 | 82 | 33 |
| – Beste helburu batzuk | 339.393 | 339.101 | 151 | 140 | 1 |
| **GUZTIRA** | 27.199.980 | 26.276.733 | 400.577 | 42.042 | 480.628 |

(a) Esposizioen definizioak barruan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko eutsitakoak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Mailegu-hartzaileen, balore-jaulkitzeen eta deribatuen eta emandako bermeen kontrako alderdiak zer herrialdetan edo autonomia-erkidegotan dauden kontuan hartuta banatuko da jarduera eremu geografikoetan.

## 2021

| Espainiako jarduera | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE | Nafarroa | Madril | Gainerakoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 3.499.940 | 47.250 | - | 3.215.281 | 237.409 |
| Administrazio publikoak | 9.117.948 | 506.419 | 9.934 | 220.180 | 8.381.415 |
| – Administrazio zentrala | 7.804.848 | - | - | - | 7.804.848 |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 1.313.100 | 506.419 | 9.934 | 220.180 | 576.567 |
| Beste sozietate finantzario batzuk eta enpresaburu indibidualak | 116.987 | 51.238 | 1.298 | 56.184 | 8.267 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 3.104.933 | 1.891.236 | 291.636 | 287.549 | 634.512 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 54.188 | 33.067 | 4.244 | - | 16.877 |
| – Obra zibileko eraikuntza | 112.782 | 84.118 | 6.253 | 11.458 | 10.953 |
| – Gainerako helburuak | 2.937.963 | 1.774.051 | 281.139 | 276.091 | 606.682 |
| Enpresa handiak | 664.069 | 422.182 | 48.413 | 104.527 | 88.947 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.273.894 | 1.351.869 | 232.726 | 171.564 | 517.735 |
| Gainerako etxeak | 10.979.212 | 6.228.593 | 1.228.160 | 659.987 | 2.862.472 |
| – Etxebizitzak | 10.208.710 | 5.690.708 | 1.145.235 | 644.038 | 2.728.729 |
| – Kontsumoa | 419.000 | 260.319 | 52.999 | 10.384 | 95.298 |
| – Beste helburu batzuk | 351.502 | 277.566 | 29.926 | 5.565 | 38.445 |
| **GUZTIRA** | 26.819.020 | 8.724.736 | 1.531.028 | 4.439.181 | 12.124.075 |

## 2020

| Espainiako jarduera | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE | Nafarroa | Madril | Gainerakoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 2.877.243 | 57.686 | - | 2.681.885 | 137.672 |
| Administrazio publikoak | 9.509.109 | 471.906 | 5.559 | 258.769 | 8.772.875 |
| – Administrazio zentrala | 8.706.278 | - | - | - | 8.706.278 |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 802.831 | 471.906 | 5.559 | 258.769 | 66.597 |
| Beste sozietate finantzario batzuk eta enpresaburu indibidualak | 122.702 | 56.512 | 1.454 | 53.358 | 11.378 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 3.002.058 | 1.855.716 | 299.325 | 223.383 | 623.634 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 61.412 | 42.784 | 1.922 | 3.882 | 12.824 |
| – Obra zibileko eraikuntza | 112.861 | 77.578 | 7.311 | 15.458 | 12.514 |
| – Gainerako helburuak | 2.827.785 | 1.735.354 | 290.092 | 204.043 | 598.296 |
| Enpresa handiak | 524.730 | 344.665 | 45.377 | 62.822 | 71.866 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.303.055 | 1.390.689 | 244.715 | 141.221 | 526.430 |
| Gainerako etxeak | 10.765.621 | 6.232.409 | 1.230.109 | 523.825 | 2.779.278 |
| – Etxebizitzak | 10.013.187 | 5.711.685 | 1.147.349 | 509.438 | 2.644.715 |
| – Kontsumoa | 413.333 | 256.677 | 50.777 | 10.547 | 95.332 |
| – Beste helburu batzuk | 339.101 | 264.047 | 31.983 | 3.840 | 39.231 |
| **GUZTIRA** | 26.276.733 | 8.674.229 | 1.536.447 | 3.741.220 | 12.324.837 |

(a) Esposizioen definizioak barruan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko eutsitakoak eta estaldurakoak); baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak, eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta daudela ere.

Ondorengo oharretan, Taldearen arrisku-kontzentrazioaren xehetasunak bildu dira, eragiketa-motaren, jarduera- eta geografia-eremuaren, dibisaren, arrisku-kalitatearen eta abarren arabera.

## 22. Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Eskudirua | 70.961 | 77.841 |
| Eskudirutako saldoak banku zentraletan | 2.893.078 | 2.623.498 |
| Ageriko beste gordailu batzuk | 35.229 | 47.727 |
| | 2.999.268 | 2.749.066 |
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 2.992.025 | 2.735.143 |
| Dolarretan | 5.706 | 7.553 |
| Franko suitzarretan | 115 | 132 |
| Libera esterlinatan | 939 | 1.198 |
| Yen japoniarretan | 175 | 4.821 |
| Beste batzuk | 308 | 219 |
| | 2.999.268 | 2.749.066 |

Hurrenez hurren, –% 0,183koa eta –% 0,04koa izan da banku zentraleko eta ageriko beste gordailu batzuetako eskudirutako saldoek 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

Europako Banku Zentralaren 1745/2003 EB Erregelamenduaren arabera, Europar Batasuneko estatu kideetako kreditu-erakundeek araudi horretan zehaztutako pasibo konputagarrien % 1eko gutxieneko erreserba-koefizientea izan behar dute, hurrenez hurren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, gutxieneko erreserben koefizientea bete behar du Espainiako Bankuko kontu korrontean eutsitako saldoaren zati batek. Entitate Nagusiak betetzen ditu indarrean dagoen araudiak koefiziente horretarako agintzen dituen gutxienekoak.

## 23. Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak eta -pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe hauek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duten banakapena:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 |
| Deribatuak | 1.868 | 1.975 | 731 | 994 |
| Ondare-tresnak | 1.727 | 485 | - | - |
| Zorra adierazten duten baloreak | 13.256 | 21.595 | - | - |
| | 16.851 | 24.055 | 731 | 994 |

2021eko ekitaldian, «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak» epigrafea 7 milioi euro inguru murriztu da, batez ere Estatuak jaulkitako zorra saltzearen ondorioz. 2020ko ekitaldian, «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak» 22 milioi euro inguru murriztu ziren, batez ere Estatuak jaulkitako zorra eta Italiako Altxorrak jaulkitako zorra saltzearen ondorioz.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak eta -pasiboak» epigrafean dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balioztapen-teknikak 41. oharrean sartu dira.

«Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak eta -pasiboak» multzoan sailkatutako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek eragina izan dute 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan (51. oharra). Hona hemen:

| | Irabaziak | | Galerak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 |
| Deribatuak | 8.826 | 15.110 | 8.579 | 16.458 |
| Ondare-tresnak | 234 | 140 | 49 | 230 |
| Zorra adierazten duten baloreak | 2.007 | 13.158 | 1.945 | 12.725 |
| | 11.067 | 28.408 | 10.573 | 29.413 |

Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroetako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan eragindakoa banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta hauxe da banakapena:

| | Irabaziak | | Galerak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 |
| Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak: | | | | |
| Kotizazioak erreferentziatzat harturik (1. maila) | 2.853 | 14.229 | 2.750 | 13.766 |
| Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez: | | | | |
| Merkatutik datozen datuetan (2. maila) | 8.214 | 14.179 | 7.823 | 15.647 |
| Merkatutik ez datozen datuetan (3. maila) | - | - | - | - |
| | 11.067 | 28.408 | 10.573 | 29.413 |

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak» eta «Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak» epigrafeetako saldoen banakapena, dibisen eta muga-egunen arabera:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 |
| Dibisaren arabera: | | | | |
| Eurotan | 16.851 | 24.055 | 731 | 994 |
| AEBko dolarretan | - | - | - | - |
| | 16.851 | 24.055 | 731 | 994 |
| Muga-egunaren arabera: | | | | |
| Hilabetera artekoak | 165 | 179 | 97 | 64 |
| 1 eta 3 hilabete artekoak | 198 | 483 | 90 | 84 |
| 3 hilabete eta urtebete artekoak | 959 | 537 | 205 | 105 |
| 1 eta 5 urte artekoak | 13.802 | 22.371 | 339 | 741 |
| 5 urtetik gorakoak | - | - | - | - |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 1.727 | 485 | - | - |
| | 16.851 | 24.055 | 731 | 994 |

a) Kreditu-arriskua

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten liburuetako zenbatekoaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, aurkako alderdien motak eta tresna-motak kontuan hartuta:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Zenbatekoa** | **%** | **Zenbatekoa** | **%** |
| **Geografia-sektorearen arabera:** | | | | |
| Estatua | 15.683 | % 93,07 | 23.786 | % 98,88 |
| Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | - | - | 269 | % 1,12 |
| Munduko gainerako lurraldeak | 1.168 | % 6,93 | - | - |
| | 16.851 | % 100 | 24.055 | % 100,00 |
| **Aurkako alderdien motaren arabera:** | | | | |
| Kreditu-erakundeak | 1.071 | % 6,36 | 1.313 | % 5,46 |
| Administrazio publiko egoiliarrak | 14.426 | % 85,61 | 21.609 | % 89,83 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.354 | % 8,03 | 1.133 | % 4,71 |
| Beste sektore ez-egoiliar batzuk | - | - | - | - |
| | 16.851 | % 100,00 | 24.055 | % 100,00 |
| **Tresna-motaren arabera:** | | | | |
| Kotizatutako obligazioak eta bonuak | 13.256 | % 78,66 | 21.595 | % 89,77 |
| Errenta finkoko beste balore batzuk | - | - | - | - |
| Antolatutako merkatuetan negoziatu ez diren deribatuak | | | | |
| | 1.868 | % 11,09 | 1.975 | % 8,21 |
| Akzio kotizatuak | 1.727 | % 10,25 | 485 | % 2,02 |
| | 16.851 | % 100,00 | 24.055 | % 100,00 |

Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak banakatuko ditugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Zenbatekoa** | **%** | **Zenbatekoa** | **%** |
| A ratinga eman zaien arriskuak | 14.784 | % 87,74 | 22.181 | % 92,21 |
| B ratinga eman zaien arriskuak | 152 | % 0,90 | 242 | % 1,01 |
| Esleitu gabeko zenbatekoak | 1.915 | % 11,36 | 1.632 | % 6,78 |
| | 16.851 | % 100,00 | 24.055 | % 100,00 |

b) Zorra adierazten duten baloreak

Segidan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuko aktiboko «Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako zor publikoa | - | - |
| Espainiako/autonomia-erkidegoko zor publikoa | 13.256 | 21.595 |
| Kreditu Ofizialeko Institutua | - | - |
| Errenta finkoko beste balore batzuk | - | - |
| | 13.256 | 21.595 |

Hurrenez hurren, % 0,832koa eta % 0,886koa izan da banku-negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» zorroak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa.

c) Ondare-tresnak

Hauxe da 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko «Ondare-tresnak» epigrafeko saldoaren banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Espainiako erakundeetako partaidetzak | - | - |
| Atzerriko erakundeetako partaidetzak | - | - |
| Inbertsio-funtsetako partaidetzak | 1.727 | 485 |
| Bestelako partaidetzak | - | - |
| | 1.727 | 485 |

d) Negoziatzeko eutsitako deribatuak

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak» eta «Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak» epigrafeetako deribatuen saldoaren banakapena:

| | 2021 | | |
|---|---|---|---|
| | Balio nozionala | Arrazoizko balioa | |
| | | Aktiboa | Pasiboa |
| Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa | | | |
| Erosketak | 72.465 | 1.255 | 39 |
| Salmentak | 28.993 | 70 | 368 |
| Baloreen, indizeen eta interes-tasen gaineko gerokoak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | 531 | - | - |
| Baloreen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 17.950 | 152 | - |
| Saldutakoak | 753.408 | - | - |
| Dibisen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | - | - | - |
| Interes-tasen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 19.778 | 290 | - |
| Saldutakoak | 1.449 | - | - |
| Interes-tasen gaineko beste eragiketa batzuk | | | |
| FRAk | - | - | - |
| Finantza-trukeak | 17.563 | 101 | 68 |
| Call Money Swapak (CMSak) | - | - | |
| Eperako beste eragiketa batzuk | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | 12.417 | - | 256 |
| | | 1.868 | 731 |

| | 2020 | | |
|---|---|---|---|
| | Balio nozionala | Arrazoizko balioa | |
| | | Aktiboa | Pasiboa |
| Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa | | | |
| Erosketak | 9.486 | 220 | 223 |
| Salmentak | 52.682 | 960 | 30 |
| Baloreen, indizeen eta interes-tasen gaineko gerokoak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | 1.065 | - | - |
| Baloreen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 28.530 | 259 | - |
| Saldutakoak | 939.589 | - | - |
| Dibisen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | - | - | - |
| Interes-tasen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 19.838 | 299 | - |
| Saldutakoak | 1.644 | - | - |
| Interes-tasen gaineko beste eragiketa batzuk | | | |
| FRAk | - | - | - |
| Finantza-trukeak | 21.187 | 237 | 187 |
| Call Money Swapak (CMSak) | - | - | |
| Eperako beste eragiketa batzuk | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | 19.777 | - | 554 |
| | | 1.975 | 994 |

Negoziatzeko eutsitako deribatuen kontratuetako zenbateko nozionalean edo kontratukoan ez da Taldeak bere gain hartutako arriskua kuantifikatzen, posizio garbia tresna horiek konpentsatu eta/edo konbinatzetik lortzen delako.

Taldeak inbertsio-funts, pentsio-funts eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde batzuei emandako bermeak —guztiak ere LABORAL Kutxa Taldeko sozietateek gestionatutakoak (ikusi I. eranskina)—, baloreen gainean jaulkitako aukera gisa erregistratzen dira. Eragiketa horien 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balio nominala 753 eta 940 milioi eurokoa da, hurrenez hurren; arrazoizko balioa, berriz, 0 mila eurokoa bien kasuan.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n negoziatzeko eutsitako deribatuen balioztapenean kontrako alderdiaren arriskua nahiz arrisku propioa aintzat hartuta, eragina hutsala da.

Bezeroei erositako eta saldutako deribatuen balioak eta kontrako alderdien partidei erositako eta saldutako deribatuen balioak ez dute alde handirik (kasu batean eta bestean Taldearentzat marjina sortu dutenak kontuan hartuta).

## 24. Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ondare-tresnak | 127.582 | 84.186 |
| Espainiako erakundeetako partaidetzak | 21.275 | 18.374 |
| Atzerriko erakundeetako partaidetzak | 24.128 | 3.079 |
| Inbertsio-funtsetako partaidetzak | - | - |
| Arrisku-kapitaleko erakundeekiko partaidetzak | 78.742 | 59.296 |
| Heziketako eta Sustapeneko Funtsari atxikitako baloreak | 3.437 | 3.437 |
| | | |
| Zorra adierazten duten baloreak | 574.972 | 707.702 |
| Espainiako zor publikoa | 291.672 | 428.257 |
| Altxor-letrak | - | - |
| Estatuaren obligazioak eta bonuak | 291.672 | 428.257 |
| Bestelako zor anotatuak | - | - |
| Espainiako beste administrazio publiko batzuen zorra | 17.459 | 24.975 |
| Atzerriko zor publikoa | 36.664 | 49.312 |
| Kreditu-erakundeek jaulkitakoak | 132.352 | 115.373 |
| Egoiliarrak | 31.581 | 35.220 |
| Ez-egoiliarrak | 100.771 | 80.153 |
| Errenta finkoko beste balore batzuk | 96.825 | 89.785 |
| Beste egoiliar batzuek jaulkitakoak | 29.854 | 25.124 |
| Beste ez-egoiliar batzuek jaulkitakoak | 66.971 | 64.661 |
| Zalantzazko aktiboak | 10.353 | 18.517 |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | (10.353) | (18.517) |
| Mikro-estaldurako eragiketak | - | - |
| | 702.554 | 791.888 |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, zorro honetako erreferentziarik gehienak Stage 1 atalean daude sailkatuta, eta Stage 3 atalean 18 milioi euro daude bi ekitaldietan.

«Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko elementuen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko arrazoizko balioa eta erabilitako balioztapen-teknikak 41. oharrean sartu dira.

39. oharrean, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafeko saldoa banakatu dugu. Saldo hori «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko elementuen arrazoizko balioan gertatu diren aldaketek eragin dute.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, hurrenez hurren, 2.973 mila eurori eta 27.568 mila eurori eman zaie baja ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafetik, eta, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sailkatutako finantza-tresnak saltzearen ondorioz, galdu-irabazien kontu bateratuan aintzatetsi dira; bi zenbatekooi kendu egin zaie zerga-eragina (39. oharra).

Era berean, 2021eko ekitaldian ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat – Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak» epigrafetik baja eman zaie, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan sailkatutako errenta aldakorreko finantza-tresnak saldu direlako. Salmentaren zenbateko gordina 50 mila eurokoa izan da, zergak kenduta (2020ko ekitaldian, 1.749 mila eurokoa).

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafearen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 672.867 | 773.011 |
| AEBko dolarretan | 24.425 | 18.877 |
| Libera esterlinatan | 1.538 | - |
| Franko suitzarretan | 2.866 | - |
| Gainerakoak | 858 | - |
| | 702.554 | 791.888 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Hilabetera artekoak | 20.784 | 4.403 |
| 1 eta 3 hilabete artekoak | 5.265 | 9.118 |
| 3 hilabete eta urtebete artekoak | 41.948 | 54.582 |
| 1 eta 5 urte artekoak | 245.817 | 241.977 |
| 5 urtetik gorakoak | 260.933 | 397.403 |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 138.160 | 102.922 |
| | - | - |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | (10.353) | (18.517) |
| | 702.554 | 791.888 |

Ondoren, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafean 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 791.888 | 1.275.239 |
| Gehikuntza/baja garbiak | (93.016) | (449.793) |
| Arrazoizko balioaren aldaketengatiko mugimenduak | 3.368 | (34.189) |
| Narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak (62. oharra) | 314 | 631 |
| Beste batzuk | - | - |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 702.554 | 791.888 |

Hurrenez hurren, % 0,678koa eta % 0,266koa izan da banku-negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» zorroak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa. Hurrenez hurren, % 2,00koa eta % 2,29koa izan da aseguruen negozioko «Zorra adierazten duten baloreak» atalak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko errentagarritasuna.

Bestalde, 2021eko abenduaren 31n, Taldeak 4.268 mila euroko mendeko beste zor-tresna batzuk zituen «Beste emaitza global metatu batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan (4.336 mila eurokoak 2020ko abenduaren 31n).

Kotizatu gabeko hainbat sozietateren kapitalean partaidetzak harpidetuta ditu Entitate Nagusiak, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n. Horiek galdatu ez diren eta egiteko dauden ordainketak dituzte, 30 mila eurokoak alegia (ekitaldi bietan).

2021eko ekitaldian, Estatuaren errenta finkoko jaulkipenak (100 milioi euroko nominalekoak) amortizatu ditu Taldeak.

2020ko ekitaldian, Entitate Nagusiak 370.000 mila euroko zenbateko nominaleko errenta finkoko jaulkipenak saldu zituen, eta 36.752 mila euroko gainbalio gordinak lortu zituen horrela. 2020ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuko «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabazi eta (–) galera garbiak» epigrafean jaso ziren (50. oharra). Era berean, jaulkipen horiei lotutako eskudiru-fluxuen estaldura desegin zuen Entitateak, eta 26.660 mila euroko galera gordina izan zuen. 2021eko ekitaldiko galdu-irabazien kontuko «Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi eta (–) galera garbiak» epigrafean jaso ziren (53. oharra).

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, 58.000 mila euroko zenbateko nominala duen arrazoizko balioaren estaldura bat du Entitate Nagusiak, errenta finkoko hainbat jaulkipenen gainean, hain zuzen ere «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroan. Kreditu-erakundeekin interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak kontratatuz egin da estaldura. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 3.168 eta 8.393 mila eurokoa da horien arrazoizko balioa.

a) Kreditu-arriskua

Hona hemen «Zorra adierazten duten baloreak» zorroko geografia-sektoreagatiko arrisku-kontzentrazioak:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbatekoa | % | Zenbatekoa | % |
| Estatua | 359.586 | % 61,43 | 531.065 | % 73,13 |
| Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | 201.106 | % 34,36 | 178.353 | % 24,56 |
| Europako gainerako herrialdeak | - | - | - | - |
| Munduko gainerako lurraldeak | 24.634 | % 4,21 | 16.801 | % 2,31 |
| | 585.325 | % 100,00 | 726.219 | % 100,00 |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | (10.353) | | (18.517) | |
| | 574.972 | | 707.702 | |

Zorra adierazten duten baloreen banakapena hauxe da, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko azken kreditu-kalifikazioen arabera:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbatekoa | % | Zenbatekoa | % |
| A ratinga eman zaien arriskuak | 366.939 | % 63,82 | 513.454 | % 72,55 |
| B ratinga eman zaien arriskuak | 204.978 | % 35,65 | 190.936 | % 26,98 |
| C ratinga eman zaien arriskuak | - | - | - | - |
| Ratingik gabeko zalantzazko aktiboak | - | - | - | - |
| Esleitu gabeko zenbatekoak | 3.055 | % 0,53 | 3.312 | % 0,47 |
| | 574.972 | % 100,00 | 707.702 | % 100,00 |

Batez ere finantza-aktibo batzuen etorkizuneko fluxuak berreskuratzeko itxaropena, burtsa-merkatuen bilakaera, errenta finkoko jaulkipen batzuen likidezia eta kreditu-arriskuaren ondoriozko diferentzialen gorakada tarteko, Taldeak narriatutzat jo zituen «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» zorroko zenbait zor-tresna.

b) Narriaduraren ondoriozko galerak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetako «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren, emaitzetan aldaketak dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea – Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko saldoaren banakapena emango dugu jarraian (62. oharra):

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zorra adierazten duten baloreak | 314 | 631 |
| Ondare-tresnak | - | - |
| | 314 | 631 |
| Emaitzen kargurako zuzkidurak | | |
| Banaka zehaztutakoak | 294 | 632 |
| Taldean zehaztutakoak | - | - |
| Emaitzetan ordaintzeko zuzkiduren berreskuratzeak | - | - |
| Emaitzetan ordaintzeko kobraezinen berreskuratzeak | - | (1) |
| Beste zuzkidura batzuk | 20 | - |
| | 314 | 631 |

Ondoren, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko «Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 18.517 | 17.884 |
| Emaitzetan kargatzeko/(ordaintzeko) zuzkidura/(berreskuratze) garbiak | 294 | 632 |
| Kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen kargura | (8.458) | - |
| Beste mugimendu batzuk | - | 1 |
| | 10.353 | 18.517 |

Hauxe da «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» epigrafeko «Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak» ataleko saldoaren 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko banakapena, zehaztapenaren irizpidea erabiliz:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zehazteko moduaren arabera: | | |
| Banaka zehaztutakoa | 10.353 | 18.517 |
| Taldean zehaztutakoa | - | - |
| | 10.353 | 18.517 |

## 25. Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zorra adierazten duten baloreak | 7.863.783 | 8.232.315 |
| Maileguak eta aurrerakinak | 15.941.858 | 14.983.347 |
| Kreditu-erakundeak | 784.326 | 524.640 |
| Bezeroak | 15.157.532 | 14.458.707 |
| | 23.805.641 | 23.215.662 |

Ondoren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» epigrafearen banakapena egingo dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 23.975.234 | 23.348.732 |
| Dolarretan | 86.328 | 68.741 |
| Libera esterlinatan | 7 | 5 |
| Yen japoniarretan | 24 | 94 |
| Franko suitzarretan | 27 | 34 |
| Beste batzuk | - | - |
| | - | - |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (255.979) | (201.944) |
| | 23.805.641 | 23.215.662 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Agerikoak | 23.534 | 219.915 |
| Hilabetera artekoak | 118.427 | 2.554.291 |
| 1 eta 3 hilabete artekoak | 43.286 | 30.172 |
| 3 hilabete eta urtebete artekoak | 153.141 | 1.092.429 |
| 1 eta 5 urte artekoak | 5.576.937 | 3.298.898 |
| 5 urtetik gorakoak | 16.983.478 | 15.623.502 |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 1.162.817 | 598.399 |
| | - | - |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (255.979) | (201.944) |
| | 23.805.641 | 23.215.662 |

a) Zorra adierazten duten baloreak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Obligazioak eta bonuak: | 7.805.542 | 8.137.795 |
| Espainiako zor publikoa | 7.615.285 | 7.943.367 |
| Atzerriko zor publikoa | 74.898 | 75.312 |
| Frantziako zor publikoa | - | - |
| Alemaniako zor publikoa | 4.440 | 4.466 |
| Holandako zor publikoa | 716 | 733 |
| Belgikako zor publikoa | 3.201 | 7.902 |
| Portugalgo zor publikoa | 66.541 | 62.211 |
| Kreditu-erakundeek jaulkitakoak | 104.223 | 107.894 |
| Egoiliarrak | 89.898 | 90.050 |
| Ez-egoiliarrak | 14.325 | 17.844 |
| Beste sektore batzuek jaulkitakoak | 11.136 | 11.222 |
| Egoiliarrak | 10.096 | 10.182 |
| Ez-egoiliarrak | 1.040 | 1.040 |
| Ordaindukoak eta errenta finkoko beste jaulkipen batzuk: | 3.903 | 3.766 |
| Beste sektore batzuek jaulkitakoak | 3.903 | 3.766 |
| Egoiliarrak | 3.903 | 3.766 |
| Ez-egoiliarrak | - | - |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | - | - |
| Mikro-estaldurako eragiketak | 54.338 | 90.754 |
| | 7.863.783 | 8.232.315 |

2020ko eta 2918ko abenduaren 31n, zorro horretako erreferentzia guztiak Stage 1 atalean daude sailkatuta.

Ondoren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafearen banakapena egingo dugu, dibisen, muga-egunen eta ratingaren arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 7.742.904 | 8.079.350 |
| Dolarretan | 66.541 | 62.211 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | 54.338 | 90.754 |
| | 7.863.783 | 8.232.315 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Urte 1era artekoak | 24.662 | 934.489 |
| 1 eta 5 urte artekoak | 3.117.868 | 3.088.154 |
| 5 urtetik gorakoak | 4.666.915 | 4.118.918 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | 54.338 | 90.754 |
| | 7.863.783 | 8.232.315 |
| Ratingen arabera: | | |
| A ratingarekin sailkatutako arriskuak | 7.739.524 | 8.005.799 |
| B ratingarekin sailkatutako arriskuak | 69.921 | 135.762 |
| Esleitu gabeko zenbatekoak | - | - |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | 54.338 | 90.754 |
| | 7.863.783 | 8.232.315 |

Ondoren, «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafean 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 8.232.315 | 6.412.588 |
| Erosketen ondoriozko gehikuntzak | 597.499 | 2.172.351 |
| Amortizazioak | (915.258) | (312.562) |
| Mikro-estaldurengatiko doikuntzak | (36.416) | 1.795 |
| Kobratutako interesak | (68.085) | (91.278) |
| Interesen periodifikatzeak | 53.728 | 48.879 |
| Narriadura/(Narriadura-itzulketa) (62. oharra) | - | 542 |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 7.863.783 | 8.232.315 |

Hurrenez hurren, % 0,681ekoa eta % 1,160koa izan dira banku-negozioko «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasak. Hurrenez hurren, % 3,64koa eta % 3,70ekoa izan dira aseguruen negozioko «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortu dituen urteko batez besteko errentagarritasunak.

Aurreko tauletan erakutsi dugun liburuetako zenbatekoak horietan sartutako finantza-tresnekin zerikusia duen kreditu-arriskuarekiko esposizioaren gorengo maila erakusten du.

«Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Zorra adierazten duten baloreak» epigrafeko elementuen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko arrazoizko balio kuantifikagarria eta erabilitako balioztapen-teknikak 41. oharrean sartu dira.

2021ean, Entitate Nagusiak Estatuaren zor publikoa erosi du, eta 585 milioi euroko nominala du (2.108 milioi eurokoa 2020ko ekitaldian). Bestalde, 2021eko ekitaldian, 904 milioi euroko nominala zuten jaulkipenak amortizatu dira muga-egunean (305 milioi eurokoak 2020an).

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, 350.000 mila euroko zenbateko nominala duen arrazoizko balioaren estaldura bat du Entitate Nagusiak Estatuaren zorraren jaulkipenetan, «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» zorroan. Kreditu-erakundeekin interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak kontratatuz egin da estaldura. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 57.312 eta 77.862 mila eurokoa zen horien arrazoizko balioa.

Era berean, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 3.637 eta 3.412 milioi euroko balio nozionaleko eskudiru-fluxuen estaldura bat du Entitate Nagusiak errenta finkoko hainbat jaulkipenen gainean, hain zuzen ere «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» zorroan. Kreditu-erakundeekin interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak —euroguneko interes-tasa – inflazioa— kontratatuz egin da estaldura. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hurrenez hurren, 540.031 eta 169.020 mila eurokoa da horien arrazoizko balioa.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, arrazoizko balioa estaltzeko eragiketak izan ditu Entitate Nagusiak, autonomia-erkidegoetako zor publikoaren eta Europar Batasuneko beste estatu batzuetako zor publikoaren gainean. Bi ekitaldietan 302 milioi euroko zenbateko nominala dute eta «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» zorroan daude sartuta. Estaldura horiek egiteko, kreditu-erakundeekiko interes-tasen gaineko OTC finantza-trukeak kontratatu dira. 2021eko abenduaren 31n, estaldura-tresna horien arrazoizko balioa 1.828 eta 460 mila eurokoa da, hurrenez hurren (2020ko ekitaldian, 12.799 eta 1.221 mila eurokoa zen, hurrenez hurren).

b) Maileguak eta aurrerakinak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Maileguak eta aurrerakinak | | |
| Kreditu-erakundeak | 784.326 | 524.640 |
| Bezeroak | 15.157.532 | 14.458.707 |
| | 15.941.858 | 14.983.347 |

«Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak» esleitutako kanpoko nahiz barruko kreditu-sailkapenen arabera banakatzeari eta inbertsio horietako ez-ordaintzeen tasei dagokienez, kreditu-arriskuari buruzko oharrean azaldu denez, Entitate Nagusiak barruko rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Helburuak dira arriskuaren kudeaketa hobetzea eta barruko eredu horiek baliozkotzea, Basileako eskakizunen arabera kapital erregulatorioa kalkulatzeko.

2021eko eta 2020ko ekitaldiak ixtean, partikularren hipoteka- eta kontsumo-eragiketetarako scoring-ereduei eta ETE-entzako rating-ereduei buruzko informazioa du Entitate Nagusiak. Dena den, Taldearen inbertsio-arriskuaren gaineko informazio osoa emateko asmoarekin, erabaki da «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Maileguak eta aurrerakinak» ataleko xehetasuna 2021eko eta 2020ko abenduaren 31rako zuten kreditu-kalitatearen arabera sartzea.

| | 2021 | | |
|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | Liburuetako zenbatekoa |
| Stage 1 (normala) | 15.595.013 | 83.438 | 15.511.575 |
| Stage 2 (zaintza bereziko arrisku normala) | 295.952 | 54.857 | 241.095 |
| Stage 3 (zalantzazkoa) | 401.883 | 212.695 | 189.188 |
| **GUZTIRA** | **16.292.848** | **350.990** | **15.941.858** |

| | 2020 | | |
|---|---|---|---|
| | Zenbateko gordina | Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | Liburuetako zenbatekoa |
| Stage 1 (normala) | 14.619.635 | 62.122 | 14.557.513 |
| Stage 2 (zaintza berezia) | 229.681 | 56.387 | 173.294 |
| Stage 3 (zalantzazkoa) | 464.359 | 211.820 | 252.539 |
| **GUZTIRA** | **15.313.675** | **330.329** | **14.983.346** |

Ondoren, Entitate Nagusiaren berankortasun-tasaren berri emango dugu. Hori kalkulatzeko, kontabilitatean zalantzazkoen artean sailkatutako saldoen eta '«Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak» ataleko saldoaren arteko erlazioa hartu da kontuan, balioztapenagatiko doikuntzak alde batera utziz.

| 2021 | 2020 | 2019 |
|---|---|---|
| % 2,60 | % 3,15 | % 3,54 |

b.1) Maileguak eta aurrerakinak – Kreditu-erakundeak

Hauxe da balantze bateratuko epigrafe horrek tresnaren izaeraren arabera duen xehetasuna:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Eperako kontuak | 198.107 | 242.128 |
| Aktiboen aldi baterako eskurapena | - | - |
| Bestelako kontuak | 586.219 | 282.512 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | - | |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | | - |
| Gainerakoak | - | - |
| | 784.326 | 524.640 |

Hurrenez hurren, –% 0,351koa eta –% 0,170ekoa izan da «Maileguak eta aurrerakinak – Kreditu-erakundeak» atalak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortutako urteko batez besteko interes-tasa.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, zorro horretako erreferentzia guztiak Stage 1 atalean daude sailkatuta.

b.2) Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak

«Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Maileguak eta aurrerakinak» epigrafeko bezeroen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko saldoa banakatu dugu, hainbat irizpide erabiliz:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Modalitatearen eta egoeraren arabera: | | |
| Espainiako administrazio publikoak | 1.262.594 | 865.448 |
| Kreditu komertziala | 231.123 | 198.667 |
| Hipoteka-bermedun zordunak | 10.688.263 | 10.497.543 |
| Beste berme erreal batzuk dituzten zordunak | 33.908 | 36.296 |
| Eperako beste zordun batzuk | 2.350.412 | 2.210.268 |
| Finantza-errentamenduak | 149.104 | 164.736 |
| Ageriko zordunak eta beste hainbat | 265.723 | 236.543 |
| Aktiboen aldi baterako eskurapena kontrapartidako erakundeekin | - | - |
| Zalantzazko aktiboak | 401.883 | 464.359 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 84.839 | 77.545 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (310.317) | (292.698) |
| Sortutako interesak eta eskurapen-prima | 17.220 | 30.484 |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | (350.990) | (330.329) |
| Batzordeak | (15.186) | (16.464) |
| Transakzio-kostuak (13.e oharra) | 38.639 | 23.611 |
| | 15.157.532 | 14.458.707 |
| Kreditu-hartzailearen jarduera-sektorearen arabera: | | |
| Espainiako administrazio publikoak | 1.269.054 | 871.908 |
| Beste sektore egoiliar batzuk: | 14.099.076 | 13.791.749 |
| Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basozaintza, eta arrantza | 84.072 | 83.562 |
| Industriak | 829.072 | 812.857 |
| Eraikuntza | 263.127 | 262.620 |
| Zerbitzuak: | 1.678.857 | 1.643.323 |
| Merkataritza eta ostalaritza | 729.770 | 759.981 |
| Garraioak eta komunikazioak | 239.160 | 242.086 |
| Beste zerbitzu batzuk | 709.927 | 641.256 |
| Partikularrentzako kredituak: | 11.007.936 | 10.784.867 |
| Etxebizitza | 9.981.476 | 9.774.840 |
| Kontsumoa eta beste batzuk | 1.026.460 | 1.010.027 |
| Erabilera propioko aktibo ukigarria | 25.187 | 27.866 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | 4.042 | 6.408 |
| Esleitutako aktibo ukigarria | 457.258 | 551.449 |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | (380.016) | (430.255) |
| | 106.471 | 155.468 |

Ondoren, «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» epigrafeak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Banakako partidak: | | |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 155.468 | 172.361 |
| Gehikuntzak | 5.395 | 5.652 |
| Salmentaren ondoriozko bajak | (16.946) | (5.696) |
| Narriaduraren ondoriozko zuzkidura garbiak (66. oharra) | (39.059) | (16.825) |
| Aktibo ukigarrien intsuldaketak (30. oharra) | 4.892 | 3.817 |
| Aktibo kobraezinetara intsuldatzea | - | - |
| Izakinetara intsuldatzea (33. oharra) | (3.279) | (3.841) |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 106.471 | 155.468 |

Segidan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» atalaren galderak edo narriaduraren ondoriozko itzultzeak xehatuko ditugu (66. oharra):

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Aktibo ukigarriak | 8.224 | (16.825) |
| Beste aktibo batzuk | (47.283) | - |
| | (39.059) | (16.825) |
| Emaitzen kargurako zuzkidurak | (39.059) | (16.825) |
| | (39.059) | (16.825) |

Hauxe da «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» epigrafeko «Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimendua:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 429.954 | 457.506 |
| Emaitzetan kargatzeko zuzkidura garbiak | 39.059 | 16.825 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan intsuldatzea (25. oharra) | 1.695 | 134 |
| Aktibo kobraezinetara intsuldatzea eratutako funtsen eta salmenten ondoriozko bajen kargura | (79.800) | (32.918) |
| Izakinetara intsuldatzea (33. oharra) | (10.081) | (14.474) |
| Aktibo ukigarrien intsuldaketak (30. oharra) | (811) | 2.881 |
| | 380.016 | 429.954 |

Hauxe da «Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak» epigrafeko «Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak» ataleko saldoak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Banakako partidak | 380.016 | 429.954 |
| | 380.016 | 429.954 |

## 35. Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Banku zentraletako gordailuak | 1.833.098 | 1.671.065 |
| Kreditu-erakundeen gordailuak | 3.001 | 4.575 |
| Bezeroen gordailuak | 23.499.590 | 22.984.314 |
| Zorra adierazten duten balore jaulkiak | 46.413 | 59.779 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | 233.070 | 264.680 |
| | 25.615.172 | 24.984.413 |

Ondoren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan» epigrafearen banakapena egingo dugu, diruaren eta mugaegunaren arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 25.574.357 | 24.946.848 |
| Dolarretan | 32.454 | 30.615 |
| Libera esterlinatan | 2.387 | 5.547 |
| Franko suitzarretan | 88 | 87 |
| Yen japoniarretan | 307 | 170 |
| Gainerakoak | 5.579 | 1.146 |
| | 25.615.172 | 24.984.413 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Agerikoak | 19.799.159 | 18.029.951 |
| Hilabetera artekoak | 1.107.018 | 1.401.570 |
| 1 eta 3 hilabete artekoak | 476.705 | 1.153.597 |
| 3 hilabete eta urtebete artekoak | 1.489.485 | 1.639.664 |
| 1 eta 5 urte artekoak | 2.344.145 | 2.305.230 |
| 5 urtetik gorakoak | 72.109 | 98.007 |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 345.312 | 332.463 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (18.761) | 23.931 |
| | 25.615.172 | 24.984.413 |

a) Banku zentraletako gordailuak

Hauxe da 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Banku zentraletako gordailuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Espainiako Bankua | 1.860.000 | 1.680.000 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (26.902) | (8.935) |
| | 1.833.098 | 1.671.065 |

16. oharrean adierazitakoari jarraikiz, Entitateko finantzaketari eta likideziari jarraipena egiteko politika aktiboarekin bat, 2020ko ekainean Europako Banku Zentralak iragarritako berariazko helburuaz epe luzeagoan finantzatzeko eragiketen —TLTRO II— hirugarren sortara jo zen —1.680 milioi eurokoak izan ziren—. 2021ean, Taldeak 180 milioi euro erantsi dizkio finantzaketari, eta 1.860 milioi euroko kopurura iritsi da. Finantzaketa horren azken interes-tasa zehazteko erabakigarria izango da Taldeak eragiketa hautagarriak emateko helburu jakin batzuk betetzea. Zuzendaritzaren zenbatespenaren arabera, hauxe izango da Taldearen finantzaketa bizirako espero den interes-tasa: gordailutzeko erraztasun-tasa ken oinarrizko 50 puntu, eragiketaren hasieratik 2022ko ekainaren 23ra bitartean, eta gordailutzeko erraztasun-tasa 2022ko ekainaren 24tik aurrera. Interesak eragiketak irauten duen bitartean sortuko dira, eta mugaegunean likidatu.

Hurrenez hurren, –% 1,00koa eta –% 0,84koa izan dira, hurrenez hurren, banku zentraletako gordailuek 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

2021eko abenduaren 31n, Espainiako Bankuak diru publikoen bermedun kredituen sisteman Entitate Nagusiari esleitutako muga 3.200.408 mila eurokoa da (3.047.806 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n).

## b) Kreditu-erakundeen gordailuak

Hauxe da 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Kreditu-erakundeen gordailuak» epigrafeko saldoaren banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Eperako kontuak | 2.979 | 4.560 |
| Aktiboen aldi baterako lagapena | - | - |
| Bestelako kontuak | 18 | 8 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | 4 | 7 |
| | 3.001 | 4.575 |

Hurrenez hurren, –% 0,60koa eta –% 0,51koa izan dira «Kreditu-erakundeen gordailuak» atalak 2021eko eta 2020ko ekitaldietan lortu dituen urteko batez besteko interes-tasak.

## c) Bezeroen gordailuak

Jarraian, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Bezeroen gordailuak» epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Espainiako administrazio publikoak | 802.996 | 564.471 |
| Aktiboen aldi baterako lagapena kontrapartidako erakundeekin | - | 500.376 |
| Beste sektore egoiliar batzuk: | 22.645.580 | 21.871.023 |
| Ageriko gordailuak: | 19.820.582 | 18.323.758 |
| Kontu korronteak | 7.011.093 | 6.309.865 |
| Aurrezki-kontuak | 12.786.765 | 11.981.936 |
| Beste batzuk | 22.724 | 31.957 |
| Eperako gordailuak: | 1.890.025 | 2.829.056 |
| Eperako ezarpenak | 1.825.705 | 2.769.984 |
| Beste batzuk | 64.320 | 59.072 |
| Aktiboen aldi baterako lagapena | 926.860 | 685.300 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | 8.113 | 32.909 |
| Sortutako interesak | 5.482 | 23.628 |
| Mikro-estaldurako eragiketak | 2.631 | 9.281 |
| Beste sektore ez-egoiliar batzuk | 51.014 | 48.444 |
| | 23.499.590 | 22.984.314 |

«Bezeroen gordailuak» epigrafeak batez besteko interes-tasa hau eman du, produktuaren arabera, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ageriko gordailuak | % 0,02 | % 0,02 |
| Eperako gordailuak | % 0,06 | % 0,12 |

2021eko abenduaren 31n, balantzeko «Eperako gordailuak – Eperako ezarpenak» atalean, 0 milioi euro agertzen dira erregistratuta (625 milioi euro 2020ko abenduaren 31n), Entitate Nagusiak hipoteka-zedula bereziak jaulkitzearen ondorioz. Horiek Aktiboak Titulizatzeko zenbait Funtsek harpidetu dituzte; hona hemen horien ezaugarriak:

| | Hipoteka zedulak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Zenbateko nominala (mila eurokotan) | | |
| Funtsaren izena | Ordaintze-eguna | 2021 | 2020 | Muga-eguna |
| IM Cédulas 7 Aktiboak Titulizatzeko Funtsa | 31.03.06 | - | 625.000 | 2021-03-31 |
| | | - | 615.000 | |

2021eko abenduaren 31n, ez dago hipoteka-zedula bizirik.

2020ko abenduaren 31n, % 4,01ekoa zen jaulkitako zedulen urteko interes-tasa nominala. «Beste sektore egoiliar batzuk – Balioztapenagatiko doikuntzak» epigrafean 9.281 mila euro agertzen ziren 2020ko abenduaren 31n. Funtsean, hipoteka-zedulen arrazoizko balioan izandako aldaketei zegozkion.

«Beste sektore egoiliar batzuk – Eperako gordailuak – Bestelakoak» atalean, 46.242 mila euroko zenbatekoa dago 2021eko abenduaren 31n (59.354 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n). IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsen bidez bonuen jaulkipenean lortutako finantzaketaren zenbateko garbia da hori. Funts horiei hainbat mailegu atxiki zitzaizkion, eta, baja emateko baldintzak betetzen ez dituztenez, Taldearen balantzean jarraitzen dute 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n (25. oharra).

Epigrafe honetan, funts horiei ekarritako maileguen saldo bizia, 394.246 mila eurokoa (444.493 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n), sartu da batik bat, Taldeak harpidetu dituen 317.157 mila euroko (2020ko abenduaren 31n 351.538 mila euroko) bonuen zenbatekoa kendu ondoren.

Esan beharra dago, IM Caja Laboral 2 ATF funtsean harpidetutako bonuak berme kolateral gisa erabiltzeko asmoa duela Taldeak, eurosistemako kreditu-eragiketetan.

2020ko ekitaldiaren amaieran LABORAL Kutxak hipoteka-zedulak jaulkitzen zituenez —zedula horiek 2021eko ekitaldian iritsi dira mugaegunera— eta 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan eta Espainiako Bankuaren 2010eko azaroaren 30eko 7/2010 Zirkularrean ezarritakoari jarraikiz, hipoteka-zedula eta -bonuak jaulkitzen dituzten erakundeei aplikatzeko kontabilitate-erregistro bereziari buruzko informazioa txertatu dugu, urteko kontu hauen 69. oharrean.

Jarraian, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan «Bezeroen gordailuak» epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 23.458.775 | 22.946.749 |
| Dolarretan | 32.454 | 30.615 |
| Libera esterlinatan | 2.387 | 5.547 |
| Franko suitzarretan | 88 | 87 |
| Yen japoniarretan | 307 | 170 |
| Gainerakoak | 5.579 | 1.146 |
| | 23.499.590 | 22.984.314 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Agerikoak | 19.771.490 | 17.963.215 |
| Hilabetera artekoak | 1.106.827 | 1.401.192 |
| 1 eta 3 hilabete artekoak | 476.425 | 1.153.294 |
| 3 hilabete eta urtebete artekoak | 1.486.764 | 1.635.689 |
| 1 eta 5 urte artekoak | 483.031 | 623.886 |
| 5 urtetik gorakoak | 10.574 | 21.895 |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 156.342 | 152.284 |
| | 23.491.453 | 22.951.455 |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | 8.137 | 32.859 |
| | 23.499.590 | 22.984.314 |

d) Zorra adierazten duten balore jaulkiak

Segidan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako «Balore negoziagarriek ordezkatutako zorrak» epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ordaindukoak eta efektuak | - | - |
| Bihurgarriak ez diren beste balore batzuk | - | - |
| Hipoteka-tituluak | 46.413 | 59.779 |
| Balore propioak | - | - |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | - | - |
| | 46.413 | 59.779 |

Hipoteka-tituluak

2006an, titulizazio-bonuak jaulkitzeko hipoteka-mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 1 ATF titulizazio-funtsera. 2008ko eta 2011ko ekitaldietan ere, titulizazio-bonuak jaulkitzeko hipoteka-mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-funtsera (25. oharra), eta Taldeak guzti-guztiak harpidetu zituen. Harpidetutako bonu horiek berme kolateral gisa erabiltzeko asmoa du Taldeak, eurosistemako kreditu-eragiketetan, hain zuzen ere.

2021eko abenduaren 31n, 46.413 mila eurokoa da IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF funtsen bitartez jaulki diren eta Taldekoak ez diren hirugarrenek harpidetu dituzten titulizazio-bonuen zenbateko efektiboa (59.779 mila eurokoa, 2020ko abenduaren 31n). Bonuok 2049ko urrian eta 2051ko urtarrilean mugaeguneratuko dira, hurrenez hurren, eta Euriborrari hurrenez hurren % 0,15 eta % 0,21 bitarteko eta % 0,30 eta % 1 bitarteko diferentziala gehituta ateratzen den interes-tasa sortzen dute urtean.

Ondoren, «Zorra adierazten duten balore jaulkiak» epigrafean 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 59.779 | 76.840 |
| Jaulkipenak | - | - |
| Hirugarrenek harpidetutako baloreak | - | - |
| Amortizazioak | (13.112) | (16.879) |
| Taldearen balore propioak | - | - |
| Balioztapenagatiko doikuntzak | (254) | (182) |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 46.413 | 59.779 |

e) Beste finantza-pasibo batzuk

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko balantzeetako «Beste finantza-pasibo batzuk» epigrafearen saldoak duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ordaindu beharreko obligazioak | 28.525 | 44.824 |
| Jasotako fidantzak | 3.704 | 26.057 |
| Konpentsazio-ganberak | 16.130 | 14.449 |
| Bilketa-kontuak | 100.671 | 93.361 |
| Kontu bereziak | 645 | 821 |
| Finantza-bermeen ondoriozko periodifikatzeak | 2.254 | 2.297 |
| Beste kontzeptu batzuk | 81.141 | 82.871 |
| | 233.070 | 264.680 |

«Beste kontzeptu batzuk» epigrafearen barruan, Taldeak 35.882 mila euroko errentamenduen ondoriozko pasiboa erregistratu du 2021eko abenduaren 31n (30. oharra) (33.772 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n).

## 36. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Aseguruetarako hornidura teknikoak | 462.000 | 478.324 |
| Kontsumitu gabeko primetarako eta uneko arriskuetarako hornidura teknikoak: | 70.278 | 69.117 |
| Zuzeneko asegurua | 70.278 | 69.117 |
| Hornidura tekniko matematikoak | 391.722 | 409.207 |
| Zuzeneko asegurua | 391.722 | 409.207 |
| Bizi-aseguruetarako hornidura teknikoak, inbertsio-arriskua hartzaileek hartzen dutenean beren gain: | 312 | 302 |
| Zuzeneko asegurua | 312 | 302 |
| Prestazioetarako hornidura teknikoak: | 81.887 | 86.823 |
| Zuzeneko asegurua | 81.887 | 86.823 |
| Mozkinetako partaidetzetarako eta estornuetarako hornidura teknikoak: | 1.838 | 1.115 |
| Zuzeneko asegurua | 1.838 | 1.115 |
| Lagatako berraseguruagatik jasotako gordailuak | 10.437 | 10.928 |
| Berraseguru-eragiketengatiko zorrak | 1.598 | 1.747 |
| | 558.072 | 579.239 |

Aseguru-produktuen hornidura matematikoak zenbatesteko, Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (APFZNk) onartutako metodo aktuarial eta finantzarioak eta modelizazio-teknikak erabiltzen ditu Taldeak. Metodo eta teknika horiek FINA arauetan jasota daude, eta, funtsean, etorkizunera begira zenbatetsitako eskudiru-fluxu deskontatuak balioztatzen dira, poliza bakoitzaren interes-tasa teknikoaren arabera. Interes-tasa tekniko hori ziurtatzeko, Taldeak balio-zorro bat hartzen du, aseguratutako bezeroekin hartutako ordainketa-konpromisoak betetzeko beharrezkoak diren fluxuak sortzen dituena.

## 37. Hornidurak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak | 29.230 | 29.149 |
| Langileen epe luzeko beste ordainsari batzuk | - | - |
| Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaiak eta auziak | - | - |
| Emandako konpromisoak eta bermeak | 25.872 | 23.433 |
| Gainerako hornidurak | 100.471 | 114.899 |
| | 155.573 | 167.481 |

Ondoren, «Hornidurak» epigrafean 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak | Langileen epe luzeko beste ordainsari batzuk | Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaiak eta auziak | Emandako konpromisoak eta bermeak | Gainerako hornidurak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2020ko abenduaren 31n** | | | | | | |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 24.700 | - | - | 20.224 | 130.018 | 174.942 |
| Gehikuntzak, dauden horniduren igoerak barne | 16.919 | - | - | 15.381 | 4.139 | 36.439 |
| (–) Erabilitako zenbatekoak | (12.158) | - | - | - | (16.303) | (28.461) |
| (–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian berrinbertituak | (312) | - | - | (12.167) | (2.699) | (15.178) |
| Beste mugimendu batzuk | - | - | - | (5) | (256) | (261) |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 29.149 | - | - | 23.433 | 114.899 | 167.481 |
| **2021eko abenduaren 31n** | | | | | | |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 29.149 | - | - | 23.433 | 114.899 | 167.481 |
| Gehikuntzak, dauden horniduren igoerak barne | 11.905 | - | - | 16.247 | 9.226 | 37.378 |
| (–) Erabilitako zenbatekoak | (11.824) | - | - | - | (16.628) | (28.452) |
| (–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian berrinbertituak | - | - | - | (14.039) | (7.128) | (21.167) |
| Beste mugimendu batzuk | - | - | - | 231 | 102 | 333 |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 29.230 | - | - | 25.872 | 100.471 | 155.573 |

a) Pentsioak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak etorkizuneko konpromisoak ditu bazkide batzuekin hartuta, PD 59, PD 60, PD 61, PD 62, PD 63 eta Sare Berria planetara atxikitzeko borondatezko erabakien ondorioz (2020ko abenduaren 31n, PD 58, PD 59, PD 60, PD 61, PD 62 eta Sare Berria dira planak). Horrela, bada, benetan erretiratu bitartean bazkideek jasoko dituzten soldata-osagaien eta beste gizarte-karga batzuen ondoriozko konpromisoei erantzuteko funtsak ditu eratuta Entitate Nagusiak. Konpromisook plana ezarri zenetik bazkideek Entitate Nagusiari zerbitzu emateari uzten dioten egunera bitartean sortutakoak izango dira.

Entitate Nagusiak enplegu ondoko ordainketetan hartutako konpromisoen egungo balioa eta konpromiso horiek nola estaltzen ziren azalduko dugu jarraian:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Hartutako konpromisoak | 29.230 | 29.149 |
| | 29.230 | 29.149 |
| Estaldurak | | |
| Barruko funtsak | 29.230 | 29.149 |
| | 29.230 | 29.149 |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, enplegu-osteko ordainsarien konpromisoak estaltzeko etorkizuneko prestazio-fluxuak balioztatu dira, eta, hori kalkulatzeko, aurreikusitako kreditu-unitatea aplikatu da, langile bakoitzaren erretiro-adin estimatutzat erretiratzeko eskubidea ematen dion lehenengoa hartuz.

Hona hemen balioztapenean kontuan hartutako hipotesiak:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Deskontu-tasa | % 0 | % 0 |
| Kontsumo-aurrerakin gordinaren etorkizunerako hazkundea | % 0 | % 0 |
| Prestazioen hazkundea | % 0 | % 0 |
| Erretiro-adina | Ahalik eta adinik txikiena | Ahalik eta adinik txikiena |

Balioztapenean erabilitako KPIaren zenbatespena % 6,7koa da 2022ko urterako, % 1,6koa 2023rako, %1,2koa 2024rako eta % 2koa 2025erako eta ondorengoetarako. 2020ko abenduaren 31n, ekitaldi horietarako erabilitako zenbatespena % 0,6koa zen 2021erako, % 1,2koa 2022rako, % 1,3koa 2023rako eta % 2koa 2024rako eta ondorengoetarako.

Obligazioak deskontatzeko interes-tasa konpromisoaren iraupenaren (1,5 urteren) arabera zehaztu da; erreferentziako kurba kalkulatzeko, berriz, 2021eko abenduaren 31ko Euro Denominated Corporate Bonds AA kurba hartu da erreferentziatzat (iturria: Bloomberg).

b) Gainerako hornidurak

«Hornidurak – Gainerako hornidurak» epigrafeak gastu posibleei edo galerei aurre egiteko edo abian diren erreklamazio eta auzietatik datozen erantzukizun probable edo ziurrei edo Taldearen jardueraren ondoriozko betebeharrei erantzuteko hornidurak hartzen ditu, besteak beste, barne. Epigrafe horren saldoa zenbatesteko, kalkulu-prozedura zuhur eta sendoak erabili dira, estali behar dituzten betebeharrek dakarten zalantza kontuan hartuta.

Taldearen politika orokorraren arabera, galtzeko arrisku probablea duten legezko prozesuetarako hornikuntzak erregistratzen dira; galtzeko arriskua posiblea edo urrunekoa bada, ordea, ez da hornikuntzarik erregistratzen. Hornitu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion erreklamazioa likidatzeko behar izango den zenbatekoa zenbatesten da ahalik eta doien. Horretarako, besteak beste, gertaeren banakako azterketa eta barneko eta kanpoko lege-aholkularien iritziak hartzen dira aintzat, antzeko demanden ondoriozko galeren batez besteko historikoa ikusirik. Taldeari etekin ekonomikoak ekarriko dizkioten baliabideen behin betiko irteera-data betebehar bakoitzaren araberakoa izango da. Batzuetan, betebeharrek ez dute likidazio-epe finkorik eta, beste batzuetan, abian diren lege-prozesuen mende izaten dira.

Taldeak erreklamazio edo lege-prozesu bakoitzari lotutako betebeharrak zenbatetsi ditu, eta, beharrezkoa izan denean, jasotako erreklamazioetatik edo legezko prozesu judizialetatik etor litezkeen pasiboak arrazoiz estaltzeko hornikuntza egokiak aintzatetsi ditu.

c) Espainiako hipoteketarako erreferentzia-tasa

Espainiako hipoteketarako erreferentzia-tasari dagokionez, zenbait prozedura judizial planteatu dira, hipoteka-maileguen zenbait kontratutan hipoteka-maileguen erreferentzia-indizea (IRPH) deritzon erreferentzia-tasa erabiltzeari buruz.

Hauxe da eztabaidagai dagoen gai juridikoa: 93/13 Zuzentarauaren 4.2 artikuluan oinarritutako gardentasun-kontrola, mailegu-hartzailea kontsumitzailea den kasuetan. IRPHa kontratuaren prezioa denez eta kontratuaren helburu nagusiaren definizioaren barruan dagoenez, modu argian eta ulergarrian idatzi behar da, kontsumitzailea gai izan dadin kontratuak eragindako ondorio ekonomikoak ulertzeko, irizpide argi eta ulergarrietan oinarrituta.

2017ko abenduaren 14ko Espainiako Auzitegi Gorenaren (AGaren) Osoko Bilkuraren 669/2017 Epaiak zioenez, IRPHari buruzko klausulak gainditu egiten zituen gardentasun-kontrolak; hori dela eta, indarrean jarraitzen du.

AGaren epai haren ostean, lehen auzialdiko epaitegi batek judizio aurreko arazo bat aurkeztu zion Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari (EBJAri), IRPHaren klausula zela eta kontsumitzaileen zuzenbide komuna interpretatzeaz.

2020ko martxoaren 3an eman zuen EBJAk gai horri buruzko epaia, eta ondorio hauek plazaratu zituen:

1.- Epaiak ez ditu IRPH klausulak deuseztatu, baizik eta auzitegi nazionaletara bideratu ditu, horiek azter ditzaten, eta erabaki dezaten hipoteka-maileguen kontratuetan interes-tasa aldakorra finkatzen duen kontratu-klausula gardena den ala ez, ulertzen baita klausula horrek, ulergarria izateaz gain formaltasunari eta gramatikari dagokienez, aukera eman behar diola batez besteko kontsumitzaileari —oro har, informatua eta nahiko arretatsua eta zorrotza— interes-tasa hori nola kalkulatzen den ulertzeko eta, irizpide zehatz eta ulergarriak oinarri dituela, klausula horrek bere finantza-obligazioetan dituen ondorio ekonomikoak balioztatzeko, nabarmenak izan daitezke eta.

2.- Horrekin lotuta, EBJAk ulertzen du i) IRPHa kalkulatzeko elementurik garrantzitsuenak aise eskura zitzakeela hipoteka-mailegu bat kontratatu nahi zuen edonork, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 8/1990 Zirkularrean ageri baitziren, eta ii) erreferentziako indizeak iraganean izandako bilakaeraz kontsumitzaileari emandako informazioa elementu garrantzitsua dela klausularen gardentasuna balioztatzeko.

3.- Auzitegi nazionalak IRPHa deuseztatzen badu eta aldeak ados jartzen ez badira, Auzitegiak ordezkatu egin dezake 14/2013 Legeak aipatzen duen ordezko legeriak deuseztatutako indizea —entitateen IRPHaz ari gara, eta berorren magnitudea kutxen IRPHaren eta bankuen IRPHaren batezbestekoa da—; izan ere, kontsumitzailearen kaltetan kontratua suntsiaraztea ekarriko luke horrek.

EBJAren epaiaren ondoren, Auzitegi Gorenaren Osoko Bilkurak lau epai eman zituen 2020-11-12an (595, 596, 597 eta 598 zenbakidunak). Horien bidez jakinarazi zuen —EBJAren jurisprudentzia aplikatuz— IRPHaren klausulak ez duela gardentasun-kontrola gainditzen, indizearen iraganeko bilakaerari buruzko informaziorik eman ez delako. Hala eta guztiz ere, epaiaren arabera gardentasun-ezak ez du esan nahi klausula zuzenean abusuzkoa denik, baizik eta abusuzkoa izan den aztertzeko aukera ematen du, mailegu-kontratuaren funtsezko elementu bati buruzkoa da eta. Epai horien bidez AGak ebatzi duenez, IRPHaren klausulak gainditu egiten du abusibitate-kontrola; izan ere, IRPHa eskaintzea ez da fede onaren aurkakoa eta hura aplikatzeak ez du desorekarik eragiten, kontsumitzailearen kalterako, alderdien eskubide eta betekizunetan.

Entitate Nagusiko goi-zuzendaritzaren iritzian, oso txikia da Auzitegi Gorenaren doktrina hori aldatzeko probabilitatea. Horregatik, Entitateak ez du inongo hornidurarik egin kontzeptu hori dela eta.

2021eko abenduaren 31n, 31,9 milioi eurokoa da pertsona fisikoei IRPHari lotuta emandako hipoteka-maileguen zenbateko osoa (ordainketa egunean duena).

## 38. Funts propioak

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Kapitala | 786.383 | 777.913 |
| Bestelako erreserbak | 1.030.165 | 979.389 |
| (Norberaren akzioak) | (2.297) | (2.081) |
| Entitate Nagusiko jabeei egozteko moduko emaitza | 101.433 | 79.685 |
| (Konturako dibidenduak) | - | - |
| | 1.915.684 | 1.834.906 |

Kapitala

Entitate Nagusiaren kapital soziala lan-bazkideek, bazkide kolaboratzaileek eta elkartutako kooperatibek eginiko eta ordaindutako ekarpenez dago osatuta. Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera (1. oharra), bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu pertsona juridikoa denean eta % 2,5 pertsona fisikoa denean. Bazkideek zor sozialetan duten erantzukizuna beraien ekarpenetara mugatuko da.

Ekitaldi bakoitzean, ekarpenei aplikatuko zaien interes-tasa proposatzen dio Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari, horrek onespena eman diezaion. Kreditu Kooperatiben Legeak ezartzen duen araudiaren arabera, interes hori ezin da inoiz izan diruaren legezko interes-tasa baino 6 puntu handiagoa. 2021eko eta 2020ko ekitaldietan % 4koa eta % 1,25ekoa izan da, hurrenez hurren, kapital sozialerako ekarpenetarako aplikatutako urteko tasa. 2021eko ekitaldiari dagokion % 4a Batzar Nagusiak onesteko dago.

Ondoren, Entitate Nagusiaren «Kapitala» epigrafeko saldoan 2021eko eta 2020ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoak | 777.913 | 759.608 |
| Aurreko ekitaldiko soberakinaren banaketatik sortutako kooperatiba-itzulkinak (4. oharra) | 19.379 | 25.831 |
| Uneko ekitaldiko kapital sozialari egindako ekarpenetatik kapitalizatutako ordainketak | - | - |
| Kapital sozialerako ekarpenak | | |
| - Elkartutako kooperatibenak | 1.973 | 1.151 |
| - Bazkideenak eta beste batzuenak | 548 | 683 |
| Ken, bajengatiko ekarpenen likidazioa | | |
| - Elkartutako kooperatibenak | (1.133) | (399) |
| - Bazkideenak eta beste batzuenak | (12.297) | (8.961) |
| Finantza-pasiboaren izaerako kapitalerako intsuldaketak | - | - |
| Ekitaldi-itxierako saldoak | 786.383 | 777.913 |

2021eko abenduaren 31n, LagunAro EPSV da zuzenean edo zeharka Entitate Nagusiaren kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza duen erakunde bakarra; % 15,06koa da partaidetza (2020an % 15,02koa).

2013ko eta 2012ko ekitaldietan, kapital-ekarpeneko 2 jaulkipen berri egin zituen Entitate Nagusiak:

i) Lehenengo jaulkipena lan-bazkideei, bazkide kolaboratzaileei eta elkartutako kooperatibei zuzendu zitzaien, eta 2012ko apiriletik urrira bitarteko harpidetze-aldia izan zuen. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, lehen jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 34.811 eta 35.192 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Lehen jaulkipen horretan, urtean % 7,5eko ordainketa finkoa lortu zen, 2015eko abenduaren 15era arte. Hortik aurrera, Entitateko Batzar Nagusiak gainerako ohiko ekarpenetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

ii) Bigarren jaulkipena 2012ko abenduan abiatu zen, eta Entitatearekin lotura zehatz bat duten bezeroei zuzendu zitzaien. 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, bigarren jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 54.281 eta 55.309 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Bigarren jaulkipen horretarako, urtean % 6ko ordainketa finkoa zehaztu zen, 2014ko abenduaren 30era arte. Hortik aurrera, Entitate Nagusiko Batzar Nagusiak gainerako ohiko ekarpenetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

Ekarpenak (sozietate-zatiak) inter vivos eskualdagarriak dira, baina baldintza batekin: ekarpena jasotzen duena bazkide izatea edo bazkide bihurtzea, Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarritako baldintzen arabera. Bestalde, heriotzaren ondoriozko oinordetza bidez ere transmiti daitezke, eskubidedunak bazkideak badira edo bazkide bihurtzen badira 6 hileko epean. Bazkideren batek baja hartuz gero, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eska dezakete bazkide horrek edo dagozkion eskubidedunek. Kasu horretan, behin betiko baja-egunaren osteko lehen Batzar Nagusiak onartutako balantzearen arabera zehaztuko da ekarpenaren balioa, eta, bazkide izateari utzi izanaren arrazoiaren arabera, gerta daiteke zenbatekoa txikitzea Kontseilu Errektoreak erabakitako ehunekoa aplikatuz. Itzultzeko epea Kontseilu Errektoreak finkatuko du; baina, gehienez ere, 5 urtekoa izango da, baja-egunetik kontatzen hasita, edo urtebetekoa, gertaera eragiletik kontatzen hasita, bazkidea hilez gero.

2005eko azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren Seigarren Azken Xedapenak hainbat aldaketa ekarri zituen, Kreditu-kooperatiben Erregelamendua onartu zuen 84/1993 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, eta, horien bidez, kreditu-kooperatibek aukera dute estatutuetan bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa mugatzeko. Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarri denez, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango da Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzulketa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, 10.000 mila eurokoa da erabat ordaindu behar den gutxieneko kapital soziala.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hauek dira Entitate Nagusiaren eta Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU sozietatearen esku dauden kapital-tresnak, horien balio nominala eta egun horietan egin gabe dauden ordainketak:

| | 2021 | | | 2020 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Akzio-kop. | Balio nominala (eurotan) | Egiteko dauden ordainketak | Akzio-kop. | Balio nominala (eurotan) | Egiteko dauden ordainketak |
| Seguros Lagun Aro Vida SA | 285.000 | 111,88 | - | 285.000 | 111,88 | - |
| Seguros Lagun Aro SA | 87.360 | 90,15 | - | 87.360 | 90,15 | - |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | 1.045.000 | 6,01 | - | 1.045.000 | 6,01 | - |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | 250.000 | 10 | - | 250.000 | 10 | - |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | 1.237.500 | 6 | - | 1.237.500 | 6 | - |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | 10.000 | 1 | - | 10.000 | 1 | - |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | - | - | - | 995.889 | 1 | - |
| ISGA Inmuebles SA | 60.000 | 1 | - | 60.000 | 1 | - |

## Bestelako erreserbak

Balantze bateratuetako «Bestelako erreserbak» epigrafeko saldoa, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak: | (16) | (9) |
| Erakunde elkartuak | (16) | (9) |
| Erakunde taldeaniztunak | - | - |
| Beste batzuk: | 1.030.181 | 979.398 |
| Entitate Nagusiari egotzitako erreserbak (galerak) | 1.167.925 | 1.125.455 |
| Mendeko erakundeei egotzitako erreserbak (galerak) | (137.744) | (146.057) |
| | 1.030.165 | 979.389 |

Hona hemen «Bestelako erreserbak» epigrafearen saldoan 2021eko eta 2020ko ekitaldietan gertatutako mugimenduak:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| 2020ko abenduaren 31ko saldoa | 979.389 | 913.393 |
| Aurreko ekitaldiko emaitzaren banaketa | 50.522 | 67.300 |
| Kapitala murriztea | (1) | - |
| Bazkideen ekarpen garbiak | 60 | 135 |
| Dibidenduak (edo bazkideei egindako ordainketak) | - | - |
| Beste batzuk | 195 | (1.439) |
| 2021eko abenduaren 31ko saldoa | 1.030.165 | 979.389 |

1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legeak, Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 1990eko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak partzialki aldatu zuenak, kreditua antolatzeko oinarri berriak ezarri zizkien erakunde horiei. 1993ko ekitaldian, berriz, 1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legearen garapenerako Erregelamendua onartu zen, 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren bidez. Ekitaldian eskuragarri dagoen soberakina banatzeko irizpideak 4. oharrean jaso ditugu.

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n mendeko erakundeei egotzitako «Bestelako erreserbak – Erreserbak/(galerak)» epigrafearen saldoa, erakundeen arabera banakatuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Seguros Lagun-Aro Vida SA (*) | 8.884 | 6.978 |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | 2.874 | 1.256 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | 279 | 127 |
| Seguros Lagun-Aro SA (*) | (1.405) | (2.949) |
| Caja Laboral Kutxa Cartera SLU | 8.335 | 9.719 |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | 5.793 | 4.131 |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | - | (12.300) |
| ISGA Inmuebles SA (**) | (162.504) | (153.019) |
| | (137.744) | (146.057) |

(*) Barne hartzen du Seguros Lagun Aro 2003 AIE entitatearen baterako eragina.
(**) Barne hartzen du 2021ean Sociedad de Gestión de Activos de Caja Laboral SAU xurgatzearen eragina.

## Nahitaezko Erreserba Funtsa

«Bestelako erreserbak» epigrafeak Nahitaezko Erreserba Funtsaren 804.100 mila euroak eta 765.284 mila euroak biltzen ditu, hurrenez hurren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n. 13/1989 Legearen arabera, Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu behar zen ekitaldiko soberakin erabilgarriaren % 50 gutxienez. 20/1990 Legeak aldatu egin zuen aurreko araua, ekitaldian Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu beharreko gutxienekoa % 20ra txikitzeko. Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarrita dagoen banaketa ekitaldian erabilgarri dagoen soberakinaren % 50ekoa da gutxienez, eta 4. oharrean banakatu da.

## Kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko erreserba

13/1989 Legea indarrean sartu arte, kreditu-kooperatiba kalifikatuek gutxienez ekitaldiko soberakinaren % 15 bideratu behar zuten erreserba horretara. 13/1989 Legeak eta 20/1990 Legeak, ordea, ez dute zehazten ekitaldiko soberakinaren banaketa egitean erreserbei ezer zuzkitu behar zaienik, kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko.

Hauxe da «Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak» ataleko saldoak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n zuen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Erakunde elkartuak: | (16) | (9) |
| Ategi Green Power SL | (16) | (9) |
| Erakunde taldeaniztunak: | - | - |
| | (16) | (9) |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Taldeari egotzitako emaitzetarako ekarpena banakatuko dugu jarraian, erakundeen arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Entitate Nagusia | 71.601 | 57.080 |
| Mendeko erakundeak: | 29.812 | 22.614 |
| Seguros Lagun Aro Vida SA | 2.263 | 1.926 |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | 2.388 | 1.610 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | 232 | 233 |
| Seguros Lagun Aro SA | 11.433 | 12.471 |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | (11) | (11) |
| Caja Laboral BancaSeguros OBSV SLU | 1.764 | 2.934 |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | - | (45) |
| ISGA Inmuebles SA | 11.743 | 3.496 |
| Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeak: | 20 | (9) |
| - Erakunde elkartuak: | 20 | (9) |
| Ategi Green Power SL | 20 | (9) |
| | 101.433 | 79.685 |

## 39. Beste emaitza global metatu bat

Hauxe da balantze bateratuetako epigrafe horrek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak: | (459.502) | (165.500) |
| Estaldura-deribatuak. Eskudiru-fluxuen estaldura (zati eraginkorra): | (474.933) | (190.946) |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak: | 15.431 | 25.446 |
| Zor-tresnak | 15.431 | 25.446 |
| Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak | 29.586 | 17.567 |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak: | 29.586 | 17.567 |
| Ondare-tresnak | 29.586 | 17.567 |
| | (429.916) | (147.933) |

Ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat – Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak – Zor-tresnak» epigrafeko saldoan, Taldearen ondare garbiaren barruan sartu behar diren errenta finkoko finantza-tresna horien arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbateko garbia biltzen da. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldeak galdu-irabazien kontuan jasotzen dira.

Ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat – Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak – Ondare-tresnak» epigrafeko saldoan, Taldearen ondare garbiaren barruan sartu behar diren ondare-tresna horien arrazoizko balioaren aldakuntzen zenbateko garbia biltzen da. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldakuntzak ondare garbiko «Bestelako erreserbak» epigrafean jasotzen dira (38. oharra).

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafearen banakapena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | (147.933) | (70.795) |
| Erreserbetan kargatuz egindako mugimendu garbia | (50) | 1.749 |
| Emaitzetan kargatzeko/(abonatzeko) mugimendu garbia | (2.747) | (27.114) |
| Salmentak eta amortizazioak | (2.973) | (27.568) |
| Narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak | 226 | 454 |
| Errebalorizazio/(Minusbalio) garbiak | 4.801 | 837 |
| Eskudiru-fluxuen mikroestalduraren aldakuntzak | (283.987) | (52.610) |
| | (429.916) | (147.933) |

Epigrafe honen bilakaera egoki irakurtzeko, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan finantza-merkatuetan gertatutako inguruabarrak hartu behar dira kontuan; 18. oharrean azaldu dira.

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat» epigrafeko zenbatekoaren banakapena, erakundeen arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Entitate Nagusia | (443.224) | (169.260) |
| Mendeko erakundeak: | 13.308 | 21.327 |
| - Seguros Lagun-Aro Vida SA | 12.813 | 19.824 |
| - Seguros Lagun Aro SA | 495 | 1.503 |
| Erakunde elkartuak eta taldeaniztunak | - | - |
| | (429.916) | (147.933) |

## 40. Egoera fiskala

Entitate Nagusiak eta partaidetzapeko erakundeek bakoitzaren arautegi fiskal aplikagarriaren arabera banaka aurkezten dituzte sozietateen gaineko zergaren aitorpenak.

Gipuzkoako Kooperatiben erregimen fiskalari buruzko 2/97 Foru Arauaren arabera, kreditu-kooperatibei aplikatu beharreko zerga-tasa bakarra da, hain zuzen, % 28koa. Mendeko gainerako sozietateei, berriz, % 24ko zerga-tasa aplikatzen zaie.

Partaidetzapeko erakunde nagusien 2021eko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga likidatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aplikatu behar dira, partaidetzapekoak bere jarduera zer lurraldetan garatzen duen eta, beraz, sozietateen gaineko zergaren likidazioa non aurkezten duen.

2021eko ekitaldian zerga horri dagozkion zenbatekoak kalkulatu dituzte Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeetako kontseilariek, baita ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen foru-araudiaren arabera ikuskapena egiteko prest daudenak ere.

Zerga-oinarri negatiboek eta Gipuzkoako foru-araudiaren babesean sortutako kenketek 30 urteko aplikazio-muga dute.

Hona hemen Entitate Nagusiaren 2021eko eta 2020ko ekitaldietako kontabilitate-emaitza indibidualaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren berdinkatzeari buruzko informazioa:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaitza (*) | 120.093 | 98.232 |
| Diferentzia iraunkorrak | | |
| Gehikuntzak | | |
| - Kengarriak ez diren gastuak | 1.598 | 212 |
| - Beste kontzeptu batzuk | - | - |
| - Ondare garbian kontabilizatutako gastuak | - | - |
| Murrizketak | | |
| - Heziketako eta Sustapeneko Funtserako nahitaezko zuzkidura (56. oharra) (*) | (7.348) | (7.751) |
| - Kooperatiba arteko Funts Sozialerako zuzkidura | - | - |
| - Kapital sozialerako ekarpenengatik kontura ordaindutako interes gordin kengarriak | (31.640) | (9.784) |
| - Nahitaezko Erreserba Funtserako nahitaezko zuzkiduraren % 50 | (18.369) | (19.379) |
| - Ustiapenari lotutako higiezinak saltzeagatik berrinbertitutako gainbalioak | (674) | (1.255) |
| - Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak | (8.618) | (18.365) |
| - Beste kontzeptu batzuk | - | (1.272) |
| Zergaren kontabilitate-oinarria | 55.042 | 40.638 |
| Denbora-aldeak | | |
| - Uneko ekitaldian sortutakoak | 1.878 | (10.031) |
| - Dinamizazio Plana | 81 | 4.449 |
| - Beste hornidura batzuen zuzkidurak | (18.316) | (14.863) |
| - Irekitze-komisioak (FINA 9) | (892) | (1.019) |
| - Finantza-pasibo propioen eta hipoteka-zedulen errebalorizazioa | 17.964 | - |
| - Beste batzuk | 3.041 | 1.402 |
| Zerga-oinarri fiskala | 56.920 | 30.607 |
| Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa | (56.920) | (30.607) |
| Likidazio-oinarria | - | - |
| Kuota osoa (% 28) | - | - |
| Kenketak eta hobariak | - | - |
| Kuota likidoa | - | - |
| Kontuko atxikipenak eta ordainketak | (432) | (461) |
| Sartu/(itzuli) beharreko sozietateen gaineko zerga | (432) | (461) |

(*) Zerga aurreko emaitza, galdu-irabazien kontuko «Beste ustiapen-gastu batzuk» epigrafearen barruko Gizarte Ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura aintzat hartu gabe (56. oharra).

Hona hemen Entitate Nagusiaren galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak» epigrafearen osaera, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian | 15.412 | 11.379 |
| Kenketak eta hobariak | (1.649) | (630) |
| Beste kontzeptu batzuk | 1.212 | 185 |
| | 14.975 | 10.934 |

Hona hemen galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak» epigrafearen osaera, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian | 15.412 | 11.379 |
| Kenketak eta hobariak | (1.649) | (630) |
| Beste kontzeptu batzuk | 1.212 | 185 |
| Entitate Nagusiaren mozkinen gaineko zerga | 14.975 | 10.934 |
| Partaidetzapeko erakundeen mozkinen gaineko zerga: | | |
| Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian | 4.911 | 4.737 |
| Beste kontzeptu batzuk | - | - |
| | 19.886 | 15.671 |

2021eko eta 2020ko ekitaldietan, galdu-irabazien kontuko «Jarduera etengabeen emaitzen gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak» ez ezik, ondare garbiko «Beste emaitza global metatu bat» atalaren ondoriozko zerga geroratuak sortu edo itzuli dira, kontzeptu eta zenbateko hauen arabera:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Estaldura-deribatuak. Eskudiru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena) | (110.440) | (20.459) |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 1.366 | (10.361) |
| | (109.074) | (30.820) |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hauexek dira etorkizuneko ekitaldietan konpentsatzeko dauden aurreko ekitaldietako Entitate Nagusiaren zerga-oinarri negatiboak:

| | Konpentsazioaren azken ekitaldia | 2021 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Zerga-oinarri negatiboak | 2042 | 435.769 | 494.627 |
| | | 435.769 | 494.627 |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hauxe da etorkizuneko ekitaldietan erabiltzeko dauden Entitate Nagusiaren sozietateen gaineko zergaren kuotaren kenkari eta hobarien xehetasuna:

| | Erabileraren azken ekitaldia | 2021 | 2020 |
|---|---|---|---|
| Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak | 2041ekotik 2049kora | 11.107 | 11.022 |
| % 35eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak | 2038kotik 2049kora | 13.574 | 12.130 |
| % 70eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak | 2040kotik 2049kora | 7.661 | 8.210 |
| | | 32.342 | 31.362 |

% 70eko kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak Entitate Nagusiak I+G+i-an egindako inbertsioen ondoriozko kenkariei dagozkie, batez ere.

Entitate Nagusiko kontseilarien iritzian, aski litekeena da adierazi ditugun zenbatekoak aplikatzeko aukera emango duten onura fiskalak sortzea etorkizunean. Horregatik, kenkari, hobari eta zerga-oinarri negatibo horiek «Geroratutako zergen ondoriozko aktiboak» atalean aktibatu dira (32. oharra).

Indarreko legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo, harik eta aurkeztu diren aitorpenak aginte fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo 4 urteko preskripzio-epea iragan arte.

2021eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak agintari fiskalek ikuskatzeko ditu azken 4 ekitaldietan aplikagarri zaizkion zerga nagusi guztiak.

Entitate Nagusiko kontseilarien aburuz, ikuskatzeko dauden eta preskribatu ez diren ekitaldietako pasiboek (baldin badaude) ez dute eragin handirik izango, 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan. Halaber, Taldeak eginiko eragiketei aplikatzekoa den araudi fiskala modu askotara uler daitekeenez, zenbait pasibo fiskal kontingente sor litezke ikuskatzeko dauden urteetan. Hala eta guztiz ere, Entitate Nagusiko kontseilarien iritziz, oso zaila izango da pasibo kontingente horiek gauzatzea, eta, edozein modutan, sor lezaketen zerga-zorrak ez luke eragin handirik izango Taldearen urteko kontu bateratuetan.

## 41. Balantze bateratuko aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioa

### i) Finantza-aktibo eta -pasiboen arrazoizko balioa

13. oharrean adierazi denez, «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» atala izan ezik, Taldearen finantza-aktiboak arrazoizko balioarekin daude erregistratuta honekin batera doan balantze bateratuan. Era berean, Taldearen finantza-pasiboak ere arrazoizko balioan daude jasota honekin batera doan egoera-balantze bateratuan, «Ageriko kapital itzulgarria» eta «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan» atalak izan ezik.

Taula honetan laburtu ditugu jarraian adierazten diren finantza-aktiboen eta -pasiboen 2021eko eta 2020ko ekitaldi-itxieretako arrazoizko balioak, Taldeak arrazoizko balioak zehazteko erabilitako balioztapen-metodologien arabera sailkatuta:

| 2021 | Balantzea guztira | Arrazoizko balioa | Arrazoizko balioaren hierarkia | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1. maila | 2. maila | 3. maila |
| Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk | 2.999.268 | 2.999.268 | - | - | 2.999.268 |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 16.851 | 16.851 | 14.982 | 1.869 | - |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 702.554 | 702.554 | 606.071 | - | 96.483 |
| Negoziatzeko helbururik ez duten eta nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren finantza-aktiboak | 50.148 | 50.148 | 45.611 | 2.197 | 2.340 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | 23.805.641 | 24.746.782 | 8.790.552 | - | 15.956.230 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea | 19.504 | 19.504 | - | 19.504 | - |
| **FINANTZA-AKTIBOAK GUZTIRA** | **27.593.966** | **28.535.107** | **9.457.216** | **23.570** | **19.054.321** |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | 731 | 731 | 256 | 475 | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | 25.615.172 | 25.615.172 | - | - | 25.615.172 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea | 608.933 | 608.933 | - | 608.212 | 721 |
| **FINANTZA-PASIBOAK GUZTIRA** | **26.224.836** | **26.224.836** | **256** | **608.687** | **25.615.893** |

| 2020 | Balantzea guztira | Arrazoizko balioa | Arrazoizko balioaren hierarkia | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1. maila | 2. maila | 3. maila |
| Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk | 2.749.066 | 2.749.066 | - | - | 2.749.066 |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 24.055 | 24.055 | 22.080 | 1.975 | - |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 791.888 | 791.888 | 694.438 | - | 97.450 |
| Negoziatzeko helbururik ez duten eta nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren finantza-aktiboak | 49.966 | 49.966 | 36.786 | 2.265 | 10.915 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | 23.215.662 | 23.792.465 | 8.785.003 | - | 15.007.462 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea | 85.324 | 85.324 | - | 85.324 | - |
| **FINANTZA-AKTIBOAK GUZTIRA** | **26.915.961** | **27.492.764** | **9.538.307** | **89.564** | **17.864.893** |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | 994 | 994 | 554 | 440 | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | 24.984.413 | 24.984.413 | - | - | 24.984.413 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea | 340.810 | 340.810 | - | 339.994 | 816 |
| **FINANTZA-PASIBOAK GUZTIRA** | **25.326.217** | **25.326.217** | **554** | **340.434** | **24.985.229** |

Hauek dira arrazoizko balioak zehazteko erabili diren irizpideak:

1. maila: finantza-tresna horientzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak erabiltzea.

2. maila: antzeko finantza-tresnentzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak edo bestelako balioztapen-teknika batzuk erabiltzea (horietan, input garrantzitsu guztiak zuzenean edo zeharka behatzekoak diren merkatu-datuetan oinarritzen dira).

3. maila: merkatu-datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen input garrantzitsuren bat duten balioztapen-teknikak erabiltzea.

Zehazki, balioztapen-teknika eta hipotesi hauek erabili dira arrazoizko balioak zehazteko:

- Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk: Ageriko saldoak edo epe laburrera egitekoak direnez, ulertu da horien arrazoizko balioa bat datorrela liburuetan erregistratutako balioarekin.

- Zorra adierazten duten baloreak. Zor publikoko aktiboetarako eta kreditu-erakundeek jaulkitako errenta finkoko balore jakin batzuetarako, merkatu aktiboetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila). Interes-tasen bilakaerari lotutako errentagarritasuna duten errenta finkoko balore batzuetarako, berriz, fluxuen deskontuan oinarritutako balioztapen-teknikak erabili dira, interes-tasen kurban eta antzeko tresnetarako merkatuaren *spread*ean oinarrituta (2. maila). Zorra adierazten duten gainerako baloreetarako, kanpoko balioztapen-agente baimenduek kalkulatutako prezioak erabili dira (3. maila).

- Ondare-tresnak. Jarduneko merkatuetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila), inbertsio-funts eta arrisku-kapitaleko funts jakin batzuetarako salbu, horietarako kanpoko balioztapen-agente baimenduek kalkulatutako prezioak erabili baitira (2. eta 3. maila).

- Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan – Maileguak eta aurrerakinak – Bezeroak. Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, Caja Laboralak emandako mailegu gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzat edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da. Era berean, kreditu-arriskuaren zorroan dagoen kreditu-arriskuaren ondoriozko hornidura-maila kuantifikatu egin da, ezartzekoa zaion kontabilitate-araudiarekin bat, eta ikusi da nahikoa dela kreditu-arriskua estaltzeko.

  Dena dela, egungo ekonomia- eta finantza-ingurunea kontuan hartuta eta finantza-aktibo horientzako merkaturik ez dagoenez, litekeena da aktibo horiek alderdi interesdunen artean trukatuz gero har lezaketen zenbatekoa eta erregistratutako balio garbia desberdinak izatea. Izan ere, balizko erosleak galerak deskontatzeko aukera izango luke, bai kontabilitate-araudi aplikagarriari jarraikiz sortutako eta kontabilizatutako galerak, bai egungo egoera ekonomikoak, bere iraunaldia dela eta ezohikoak, etorkizunean jarraituz gero izan litzakeenak.

- Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan. Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzat edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da.

Finantza-tresnen arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren artean aldea egotea hainbat arrazoiren ondorio izan daiteke:

- Tasa finkoarekin jaulkitako tresnetan, horien arrazoizko balioa merkatuko interes-tasen bilakaeraren arabera aldatzen da. Tresnaren hondar-bizitza zenbat eta handiagoa, orduan eta aldakuntza handiagoa.

- Tasa aldakorrarekin jaulkitako tresnetan, erreferentziazko interes-tasarekiko marjina aldatu egiten bada tresna jaulki zenetik, gerta liteke arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa desberdinak izatea. Marjinak aldatzen ez badira, arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa balio-handitzeen datetan bakarrik etorriko dira bat. Gainerako datetan, zehaztuta dauden fluxuak interes-tasaren arriskuaren menpe egongo dira.

Honekin batera doazen balantze bateratuetan 3. mailan sailkatu eta arrazoizko balioarekin erregistratu diren finantza-aktibo eta -pasiboen saldoen mugimendua azalduko dugu jarraian:

| | Aktiboa | Pasiboa |
|---|---|---|
| **Saldoa 2019ko abenduaren 31n** | **114.247** | **518** |
| Emaitzetan erregistratutako balioztapen-doikuntzak | 420 | 298 |
| Emaitzetan erregistratu ez diren balioztapen-doikuntzak | - | - |
| Erosketak, salmentak eta likidazioak | (6.302) | - |
| Sarrera/(irteera) garbiak 3. mailan | - | - |
| Kanbio-aldeak eta beste batzuk | - | - |
| **2020ko abenduaren 31ko saldoa** | **108.365** | **816** |
| Emaitzetan erregistratutako balioztapen-doikuntzak | 557 | (95) |
| Emaitzetan erregistratu ez diren balioztapen-doikuntzak | 27.940 | - |
| Erosketak, salmentak eta likidazioak | (38.039) | - |
| Sarrera/(irteera) garbiak 3. mailan | - | - |
| Kanbio-aldeak eta beste batzuk | - | - |
| **2021eko abenduaren 31ko saldoa** | **98.823** | **721** |

2021eko eta 2020ko ekitaldietan zehar ez da finantza-aktiboen intsuldaketarik egin balioztapen-maila ezberdinen artean.

ii) Aktibo ez-finantzarioen arrazoizko balioa

Arrazoizko balioa ez den beste irizpide batez balioztatzen diren Taldeko aktibo ez-finantzarioek balantze bateratuan duten erregistro-balioaren eta arrazoizko balioaren arteko 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko konparazioa egingo dugu jarraian:

| | 2021 | | 2020 | |
|---|---|---|---|---|
| | **Balio erregistratua** | **Arrazoizko balioa** | **Balio erregistratua** | **Arrazoizko balioa** |
| **Aktiboa** | | | | |
| Aktibo ukigarria: | | | | |
| Erabilera propiokoa eta ondasun higiezinetako inbertsioak | 321.042 | 333.646 | 326.649 | 333.240 |
| Saltzeko eutsitakoen artean sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak | 106.471 | 106.471 | 155.468 | 155.468 |
| Izakinak | 43.661 | 43.661 | 94.940 | 94.940 |

Honela zehaztu da aktibo horien arrazoizko balioa:

- Entitate Nagusiaren «Erabilera propioko ibilgetu materiala» eta «Ondasun higiezinetako inbertsioak» epigrafeetan dauden ondasun higiezinen arrazoizko balioak, Espainiako Bankuak ezarritako arauei jarraikiz erakunde independenteek 2013aren eta 2021aren artean emandako tasazio-balioen bidez kalkulatu denak, epigrafe horietako kontabilitate-balioaren % 80 osatzen du (% 86 2020ko abenduaren 31n). Gainerako higiezinetarako, 2012ko balioztapenak (barruko tasazioak eta balioztapenak) eguneratu egin dira. Horiei, uneko abagunea eta merkatu-itxaropenak aintzat hartuta, objektibotasunez estimatutako zuzenketa-faktore bat aplikatu die Entitate Nagusiak.

  Aktibo ukigarriko gainerako elementuetarako, kontabilitate-balio garbia hartu dugu, egun horietan merkatuan zuten balioaren estimaziorik fidagarriena delakoan.

- Estatuan saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteen arrazoizko balioa zenbatesteko, horiek berreskuratzeko aukera hartu da kontuan, Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularraren IX. eranskinaren V. atalean jasotako parametroak ezarriz esleitutako ondasunaren tipologiaren arabera. 2011ko abenduaren 31n higiezinen sustapenari lotuta zeuden aktiboen kasuan, berriz, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideak erabili dira. Ildo beretik, aipaturiko balioa zehazteko, Espainiako Bankuaren Erregistroan inskribatuta dauden tasazio-sozietateek egindako tasazioak hartu dira input osagarritzat, martxoaren 27ko ECO/805/3002 Ministerio Aginduan xedatutakoa betez. Bestalde, higiezinen merkatuaren eta ziklo ekonomikoaren gaur egungo egoera ere hartu da aintzat.

Entitateak tasazio-sozietate hauek erabiltzen ditu, batez ere: Krata SA, Servicios Vascos de Tasaciones SA, Tinsa Tasaciones Inmobiliarias SA eta Balkide Balorazioak SA.

## 42. Emandako finantza-bermeak

Taldeak ohiko jardunean hartutako konpromisoen ondorioz ordaintzera behartuta daudenek ordaindu ezean, Taldeak berak ordaindu beharko du hirugarrenen kontura, eta, epigrafe honetan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Taldeak kontzeptu horregatik ordaindu beharreko zenbatekoak biltzen dira:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Emandako finantza-bermeak | 214.749 | 214.641 |
| | 214.749 | 214.641 |

## 43. Emandako maileguen konpromisoak eta emandako bestelako konpromisoak

Hona hemen epigrafe horren banaketa 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Emandako maileguen konpromisoak: | 1.058.970 | 1.036.064 |
| Hirugarrenek erabiltzeko modukoak: | 1.058.970 | 1.036.064 |
| Kreditu-erakundeek | 99 | 342 |
| Administrazio publikoen sektoreak | 192.871 | 152.898 |
| Beste sektore egoiliar batzuek | 865.800 | 882.681 |
| Ez-egoiliarrek | 200 | 143 |
| Emandako bestelako konpromisoak | 320.681 | 310.370 |
| Zor anotatua erostea | - | - |
| Ordaintzeko dauden harpidetutako baloreak | 49.868 | 31.620 |
| Emandako beste abal eta berrespen batzuk | 115.013 | 108.284 |
| Dokumentu-kreditu ezeztaezinak | 19.650 | 17.338 |
| Bestelako konpromiso kontingenteak: | 136.150 | 153.128 |
| Konpentsazio-ganberei emandako dokumentuak | 136.150 | 153.128 |
| | 1.379.651 | 1.346.434 |

## 44. Interesen ondoriozko sarrerak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 127 | 235 |
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | - | - |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 11.803 | 11.726 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | 223.368 | 229.830 |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak | 40 | 40 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea, interes-tasaren arriskua | 3.208 | 22.583 |
| Beste aktibo batzuk | 27 | 8 |
| Pasiboen interesen ondoriozko sarrerak | 23.381 | 14.151 |
| | 261.954 | 278.573 |

2021eko ekitaldian, hipoteka-bermedun eragiketei dagozkien 91.706 mila euro daude «Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan» epigrafean (2020an 101.909 mila euro izan ziren).

«Pasiboen interesen ondoriozko sarrerak» epigrafean, TLTRO III finantzaketa-programari dagozkion interesen ondoriozko sarrerak sartzen dira.

Interesen ondoriozko sarrera gehienak Entitate Nagusiko finantza-aktiboek sortu dituzte, eta amortizatutako kostuarekin edo arrazoizko balioarekin eta beste emaitza global batean aldaketak dituztela balioztatzen dira.

Aurreko taulako Interesen ondoriozko sarrera gehienak, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kalkulatu dira.

Hona hemen Taldearen banku-bulegoek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duten kokapena lurraldeka:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Bizkaia | 81 | 88 |
| Gipuzkoa | 63 | 66 |
| Araba | 28 | 29 |
| Nafarroa | 38 | 40 |
| Sare Berria | 75 | 78 |
| | 285 | 301 |

## 45. Interesen ondoriozko gastuak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | - | - |
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan | - | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | 10.576 | 38.281 |
| Deribatuak – Estaldura-kontabilitatea, interes-tasaren arriskua | (6.009) | (31.648) |
| Beste pasibo batzuk | 1.206 | 976 |
| Aktiboen interesen ondoriozko gastuak | 16.474 | 16.359 |
| | 22.247 | 23.968 |

Aurreko taulako Interesen ondoriozko sarrera gehienak, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kalkulatu dira.

Estaldura-eragiketen ondoriozko gastuen zuzenketan, hipoteka-zedulen jaulkipen batzuen arrazoizko balioa estaltzeko kontratatutako finantza-trukeko eragiketak jasotzen dira, nagusiki (35. eta 27. oharrak).

## 46. Dibidenduen ondoriozko sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak | 5.710 | 3.477 |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 1.737 | 905 |
| | 7.447 | 4.382 |

## 47. Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeen emaitzak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horrek banakapen hau du 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan (28. oharra):

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Erakunde elkartuak | 20 | (9) |
| Erakunde taldeaniztunak | - | - |
| | 20 | (9) |

## 48. Komisioen ondoriozko sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Arrisku kontingenteengatik | 2.760 | 3.049 |
| Konpromiso kontingenteengatik | 1.543 | 1.377 |
| Atzerriko bankuetako dibisak eta billeteak aldatzeagatik | 25 | 22 |
| Kobrantza- eta ordainketa-zerbitzuengatik | 56.531 | 48.924 |
| Balore-zerbitzuengatik: | 55.160 | 45.581 |
| Baloreak aseguratu eta kokatzea | - | - |
| Baloreak erosi eta saltzea | 1.062 | 1.589 |
| Administrazioa eta zainketa | 1.147 | 1.047 |
| Ondarearen gestioa | 52.951 | 42.945 |
| Banku-jarduerakoak ez diren finantza-produktuen komertzializazioagatik: | 4.621 | 4.188 |
| Inbertsio-funtsak | 2.724 | 2.389 |
| Pentsio-funtsak | 462 | 434 |
| Aseguruak | 1.435 | 1.365 |
| Beste batzuk | - | - |
| Bestelako komisioak | 15.083 | 12.926 |
| | 135.723 | 116.067 |

## 49. Komisioen ondoriozko gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Eragiketa aktibo eta pasiboetako artekari-sariak | 15 | 23 |
| Beste erakunde korrespontsal batzuei lagatako komisioak | 4.209 | 3.135 |
| Efektuak kobratu edo itzultzeagatikoak | 4 | 2 |
| Beste arrazoi batzuengatikoak | 4.205 | 3.133 |
| Balore-eragiketengatik ordaindutako komisioak | 966 | 873 |
| Bitartekari monetarioekin | 876 | 845 |
| Beste batzuk | 90 | 28 |
| Bestelako komisioak | 9.577 | 8.163 |
| | 14.767 | 12.194 |

## 50. Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak, eta Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horiek banakapen hau dute 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, osatzen duten partiden jatorria aintzat hartuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 4.127 | 38.211 |
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | 4.140 | 38.211 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan | (13) | - |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 3.414 | (89) |
| Negoziatzeko helbururik ez duten, nahitaez arrazoizko balioarekin balioztatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak | 3.414 | (89) |
| | 7.541 | 38.122 |
| Irabaziak | 13.014 | 47.687 |
| Galerak | (5.473) | (9.565) |
| | 7.541 | 38.122 |

Bestalde, hauxe da 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan saldo horiek eman dituzten finantza-tresnen banakapena, horien izaera aintzat hartuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zorra adierazten duten baloreak | 4.059 | 38.267 |
| Ondare-tresnak | 3.482 | (145) |
| Deribatuak | - | - |
| | 7.541 | 38.122 |

2020ko ekitaldian, Entitate Nagusiak 370.000 mila euroko zenbateko nominaleko errenta finkoko jaulkipenak saldu zituen, eta 36.752 mila euroko gainbalio gordinak lortu zituen horrela. 2020ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuko «Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabazi eta (–) galera garbiak» epigrafean jaso ziren (51. oharra). Era berean, Entitateak finantza-trukeen bidez desegin zuen estaldura, eta 26.660 mila euroko galera gordina izan zuen. 2020ko ekitaldiko galdu-irabazien kontuko «Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi eta (–) galera garbiak» epigrafean jaso ziren (53. oharra).

## 51. Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontu bateratuko epigrafe horrek banakapen hau du 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, osatzen duten partiden jatorria aintzat hartuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 494 | (1.005) |
| | 494 | (1.005) |
| Irabaziak | 11.067 | 28.408 |
| Galerak | (10.573) | (29.413) |
| | 494 | (1.005) |

Bestalde, hauxe da 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan saldo horiek eman dituzten finantza-tresnen banakapena, horien izaera aintzat hartuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zorra adierazten duten baloreak | 62 | 433 |
| Ondare-tresnak | 186 | (90) |
| Deribatuak | 246 | (1.348) |
| | 494 | (1.005) |

## 52. Arrazoizko balioarekin izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | - | - |
| | - | - |
| Irabaziak | - | - |
| Galerak | - | - |
| | - | - |

## 53. Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak

Galdu-irabazien kontuko epigrafe horrek banakapen hau du 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Estaldura-deribatuak | (222.058) | (355.707) |
| Estalitako partidak | 222.023 | 328.981 |
| | (35) | (26.726) |
| Irabaziak | 232.478 | 343.040 |
| Galerak | (232.513) | (369.766) |
| | (35) | (26.726) |

«Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabaziak edo (–) galerak – Estaldura-deribatuak» epigrafean, Entitateak 2021ean eta 2020an zituen arrazoizko balioko estaldura-tresnen balioztapenagatiko doikuntzak sartzen dira. Bestalde, «Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabaziak edo (–) galerak – Estalitako partidak» epigrafean, arrazoizko balioa estaltzeko izendatutako kontratu horiek estali dituzten elementuen balioztapenagatiko doikuntzak sartzen dira (ikus 13.e oharra).

## 54. Kanbio-alde [irabazi edo (–) galera] garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Irabaziak | 935.619 | 1.460.242 |
| Galerak | (934.770) | (1.460.014) |
| | 849 | 228 |

## 55. Beste ustiapen-sarrera batzuk

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zerbitzuak emateagatiko salmentak eta sarrerak | 1.731 | 1.538 |
| Gainerako ustiapen-produktuak | 12.376 | 14.399 |
| Kostuak konpentsatzeko finantza-komisioak | - | 3 |
| Beste errentamendu operatibo batzuen sarrerak (garbiak) (30. oharra) | 7.069 | 7.918 |
| Aktibo higiezinen ondoriozko izakinen aldakuntza | - | - |
| Beste produktu batzuk | 5.307 | 6.478 |
| | 14.107 | 15.937 |

## 56. Beste ustiapen-gastu batzuk

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Gordailuak Bermatzeko Funtserako ekarpena (10. oharra) | 28.431 | 29.346 |
| Suntsiarazpen Funts Nazionalerako ekarpena (10. oharra) | 4.848 | 3.458 |
| Gizarte Ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura (4. eta 33. oharrak) | 7.348 | 7.751 |
| Aktibo higiezinen erosketak eta gastuak | - | - |
| Kreditu-erakundeen gordailuen gaineko zerga | 6.844 | 6.546 |
| Beste kontzeptu batzuk | 7.144 | 5.870 |
| | 54.615 | 52.971 |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetako «Beste ustiapen-gastu batzuk – Gizarte Ekintzako funtsetarako nahitaezko zuzkidura» epigrafean erregistratutako zenbatekoak (7.348 mila eurokoak eta 7.751 mila eurokoak, hurrenez hurren) Kooperatiben Legean eta Entitatearen estatutuetan ezarritakoari jarraikiz Heziketako eta Sustapeneko funtsera egin beharreko nahitaezko zuzkidurari dagozkio (4. oharra).

Era berean, «Beste ustiapen-gastu batzuk – Beste kontzeptu batzuk» epigrafean, geroratutako zergen ondoriozko aktiboak zerga-administrazioaren aurrean galdagarria den kreditu bihurtzearen ondoriozko ondare-prestazioaren estimazioa, 2021eko abenduaren 31koa, jaso da; 2.051 mila euroko kopurua osatzen du (2.266 eurokoa 2020ko ekitaldian).

## 57. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboen sarrerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| 2021eko ekitaldia | Bizitzakoak | Bizitzakoak ez direnak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Diru-sarrerak** | | | |
| Egotzitako primak | 56.544 | 118.677 | 175.221 |
| Zuzeneko asegurua | 56.544 | 118.677 | 175.221 |
| Onartutako berrasegurua | - | - | - |
| Berraseguruaren ezbehar-tasa | (131) | 13.873 | 13.742 |
| Lagatako berrasegurua | (131) | 13.873 | 13.742 |
| | 56.413 | 132.550 | 188.963 |
| **2020ko ekitaldia** | | | |
| **Diru-sarrerak** | | | |
| Egotzitako primak | 55.434 | 118.837 | 174.271 |
| Zuzeneko asegurua | 55.434 | 118.837 | 174.271 |
| Onartutako berrasegurua | - | - | - |
| Berraseguruaren ezbehar-tasa | 1.257 | 12.155 | 13.412 |
| Lagatako berrasegurua | 1.257 | 12.155 | 13.412 |
| | 56.691 | 130.992 | 187.683 |

## 58. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasibo-gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| 2021eko ekitaldia | Bizitzakoak | Bizitzakoak ez direnak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Gastuak** | | | |
| Lagatako berraseguruan egotzitako primak | 2.452 | 25.821 | 28.273 |
| Zuzeneko aseguruan ordaindutako prestazioak | 60.202 | 60.619 | 120.821 |
| Pasiboetarako zuzkidurak zuzeneko aseguruen aseguru-kontratuen ondorioz | (21.734) | (5.092) | (26.826) |
| Prestazioetarako hornidura | 155 | (5.092) | (4.937) |
| Bizi-aseguruak | (22.612) | - | (22.612) |
| Irabazietako eta estornuetako partaidetzak | 723 | - | 723 |
| | 40.920 | 81.348 | 122.268 |

| 2020ko ekitaldia | Bizitzakoak | Bizitzakoak ez direnak | Guztira |
|---|---|---|---|
| **Gastuak** | | | |
| Lagatako berraseguruari egotzitako primak | 2.212 | 25.616 | 27.828 |
| Zuzeneko aseguruan ordaindutako prestazioak | 53.319 | 56.753 | 110.072 |
| Pasiboetarako zuzkidurak zuzeneko aseguruen aseguru-kontratuen ondorioz | (11.188) | (5.206) | (16.394) |
| Prestazioetarako hornidura | 3.415 | (5.206) | (1.791) |
| Bizi-aseguruak | (15.384) | - | (15.384) |
| Irabazietako eta estornuetako partaidetzak | 781 | - | 781 |
| | 44.343 | 77.163 | 121.506 |

## 59. Administrazio-gastuak

### a) Pertsonal-gastuak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Pertsonal aktiboaren soldatak eta eskersariak | 122.795 | 122.082 |
| Gizarte-segurantzaren kuotak | 6.049 | 5.677 |
| Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak | 2.954 | 164 |
| Prestakuntza-gastuak | 1.202 | 879 |
| Beste pertsonal-gastu batzuk | 831 | 906 |
| | 133.831 | 129.708 |

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren jarduerari loturiko zerbitzuak ematearen ondoriozko ordainketak daude eta xehetasun hau dute:

| | 2021 | | | 2020 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Interes hobariduna | Merkatuko interesa | Diferentzia | Interes hobariduna | Merkatuko interesa | Diferentzia |
| Interes-tasa txikiko maileguak | - | 8 | 8 | - | 190 | 190 |

Ondoren, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n zegoen enplegatuen batez besteko kopurua zehazten da kategoriaren arabera banatuta:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Zuzendariak | 44 | 45 |
| Buruak | 391 | 403 |
| Teknikariak | 806 | 803 |
| Administrariak | 903 | 892 |
| | 2.144 | 2.143 |

2021eko abenduaren 31n, plantilla osoko 23 lagunek desgaitasun-mailaren bat dute aintzatetsita (20k 2020ko abenduaren 31n).

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, hauxe da Taldeko langileen banaketa, generoari begiratuta:

| | Langile-kopurua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | | | 2020 | | |
| | Emakumeak | Gizonak | Guztira | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
| Zuzendariak | 10 | 33 | 43 | 9 | 36 | 45 |
| Buruak | 145 | 244 | 389 | 141 | 262 | 403 |
| Teknikariak | 458 | 361 | 819 | 448 | 355 | 803 |
| Administrariak | 543 | 353 | 896 | 540 | 352 | 892 |
| | 1.156 | 991 | 2.147 | 1.138 | 1.005 | 2.143 |
| Entitate Nagusia | 937 | 895 | 1.832 | 924 | 918 | 1.842 |
| Gainerako erakundeak: | | | | | | |
| Mendekoak | 219 | 96 | 315 | 214 | 87 | 301 |
| | 1.156 | 991 | 2.147 | 1.138 | 1.005 | 2.143 |

Hona hemen Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen banaketa, generoari dagokionez:

| | Kide-kopurua | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021 | | | 2020 | | |
| | Emakumeak | Gizonak | Guztira | Emakumeak | Gizonak | Guztira |
| Kontseilu Errektoreko kideak | 7 | 8 | 15 | 6 | 6 | 12 |

b) Beste administrazio-gastu batzuk

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Higiezinak, instalazioak eta materiala: | 13.107 | 11.801 |
| Alokairuak (30. oharra) | 565 | 461 |
| Ibilgetuaren mantentze-lana | 8.576 | 7.962 |
| Argiteria, ura eta berokuntza | 2.786 | 2.212 |
| Inprimakiak eta bulegoko materiala | 1.180 | 1.166 |
| Informatika | 8.525 | 7.523 |
| Komunikazioak | 5.969 | 5.188 |
| Publizitatea eta propaganda | 9.452 | 8.201 |
| Gastu judizialak eta letratuenak | 2.671 | 2.618 |
| Txosten teknikoak | 28.125 | 25.251 |
| Funtsak zaindu eta lekualdatzeko zerbitzuak | 1.886 | 1.788 |
| Aseguru- eta autoaseguru-primak | 1.076 | 925 |
| Gobernu- eta kontrol-organoak | 81 | 34 |
| Langileek entitatea ordezkatzen eta joan-etorrietan egindako gastuak | 971 | 807 |
| Elkarteen kuotak | 392 | 384 |
| Azpikontratatutako administrazio-zerbitzuak | 9.014 | 6.943 |
| Kontribuzioak eta zergak | 4.170 | 3.402 |
| Beste gastu batzuk | 4.464 | 5.472 |
| | 89.903 | 80.337 |

Hala, Taldeak «Alokairuak» epigrafean erregistratzen ditu 12 hilabetetik beherako errentamendu-kontratuen gastuak, bai eta errentan hartutako elementua balio txikikoa (emaitza-kontuan nabarmena ez dena) duten kontratuen gastuak ere (13.q oharra).

2021eko ekitaldian, Entitate Nagusiko kontseilari eta zuzendari guztien erantzukizun zibilerako aseguru kolektiboaren prima ordaindu da, kargua betetzean egindako edo ustez egindako egintza okerrek eragin litzaketen balizko kalteak estaltzeko. 56 mila euroko zenbatekoa ordaindu da guztira (40 mila eurokoa 2020ko ekitaldian).

## 60. Amortizazioa

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Aktibo materiala | 22.421 | 22.626 |
| Ibilgetu ukigarria | 21.588 | 21.759 |
| Erabilera propiokoa | 14.989 | 14.454 |
| Finantza-errentamenduan lagatakoak | 6.599 | 7.305 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | 833 | 867 |
| Aktibo ukiezina | - | - |
| | 22.421 | 22.626 |

## 61. Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Pentsioetarako hornidurak eta enplegu ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak (37. oharra) | 11.905 | 16.607 |
| Konpromisoetarako eta emandako bermeetarako hornidurak (37. oharra) | 2.208 | 3.215 |
| Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaietarako eta auzietarako hornidurak (37. oharra) | - | - |
| Gainerako hornidurak (37. oharra) | 2.098 | 1.440 |
| | 16.211 | 21.262 |

## 62. Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren, emaitzetan aldaketak dituzten eta aldaketaren ondorioz galera edo (–) irabazi garbiak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak (24. oharra) | 314 | 631 |
| Zorra adierazten duten baloreak | 314 | 631 |
| Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan (25. oharra) (**) | 39.151 | 58.830 |
| Maileguak eta aurrerakinak | 39.151 | 59.372 |
| Zorra adierazten duten baloreak | - | (542) |
| | 39.465 | 59.461 |

(*) Barne hartzen du 2021eko abenduaren 31ko aktibo kobraezinen berreskurapena; 0 mila eurokoa izan da (2020ko abenduaren 31n 1 mila eurokoa).

(**) Barne hartzen du kaudimengabezien amortizazioa eta aktibo kobraezinen berreskurapena; hurrenez hurren, 6.914 eta 5.471 mila eurokoak izan dira 2021eko ekitaldian (2020koan, hurrenez hurren 3.051 eta 4.689 mila eurokoak).

## 63. Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Erakunde elkartuetako partaidetzak (28. oharra) | - | - |
| Erakunde taldeaniztunetako partaidetzak (28. oharra) | - | - |
| | - | - |

## 64. Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) narriadura itzultzea

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Aktibo ukigarriak (30. oharra) | 3.527 | 634 |
| Beste aktibo batzuk | 6.933 | - |
| | 10.460 | 634 |

## 65. Aktibo ez finantzarioei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Aktibo ukigarriak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak | 40.660 | (455) |
| Partaidetzak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak | - | - |
| | 40.660 | (455) |

## 66. Saltzeko eutsitakoen artean sailkatuta dauden eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteetatik eta elementu-talde besterengarrietatik datozen irabaziak edo (–) galerak

Epigrafe horrek xehetasun hauek ditu 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Salgai dauden aktibo ez-korronteak saltzeagatiko irabazi (galera) garbiak | 28.843 | 24.051 |
| Salgai dauden aktibo ez-korronteen narriaduraren ondoriozko zuzkidura garbiak (34. oharra) | (39.059) | (16.825) |
| | (10.216) | 7.226 |

## 67. Erakunde taldeaniztun eta elkartuekin egindako eragiketak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n Entitate Nagusiaren eta mendeko erakundeen artean dituzten saldo garrantzitsuak eta egun horietan bukatutako ekitaldietan horien artean egindako transakzioen eragina ez dira baterakuntza-prozesuan sartu. Hona hemen erakunde taldeaniztun eta elkartuekin egindako aktiboko eta pasiboko eragiketen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko saldoen laburpena:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| **Saldoak** | | |
| Bezeroen gordailuak | 333 | 118 |
| Aktibo ez-korronteak salgai | - | - |
| Abalak | - | - |
| Maileguak eta aurrerakinak | 667 | 667 |

Erakunde taldeaniztun eta elkartuekin 2021eko eta 2020ko ekitaldietan egindako transakziorik nabarmenenak aipatuko ditugu ondoren:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Interesak eta antzeko kargak | - | - |
| Jasotako komisioak | - | - |
| Interesak eta antzeko errendimenduak | - | - |

## 68. Bestelako informazioa

Hona hemen Taldearen balantze bateratutik kanpo dauden bezeroen baliabideen xehetasuna, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n:

| | 2021 | 2020 |
|---|---|---|
| Entitatearen Taldeak gestionatutakoak: | 5.467.125 | 4.827.338 |
| Inbertsio-sozietateak eta -funtsak | 3.173.552 | 2.637.768 |
| Pentsio-funtsak eta BGAEak | 1.929.610 | 1.802.379 |
| Aseguru-kontratuetako aurrezkia | 363.963 | 387.191 |
| Diskrezioz kudeatutako bezero-zorroak | - | - |
| Entitatearen Taldeak komertzializatutakoak baina ez kudeatuak | 1.775.435 | 1.299.843 |
| | 7.242.560 | 6.127.181 |

2021eko abenduaren 31n, 5.820.568 mila eurokoa da hirugarrenen jabetzako balore-gordailuen saldoa (5.220.130 mila eurokoa 2020ko abenduaren 31n).

Taldeak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n lagatako «Zorra adierazten duten baloreak» atalaren lagapena 1.399.800 mila eurokoa eta 1.539.262 mila eurokoa da, hurrenez hurren. Zor-baloreok hirugarrenei lagatakoak dira, eta balantzeko «Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Bezeroen gordailuak» epigrafean agertzen dira.

## 69. Hipoteka-merkatuko jaulkitzaileen eta kontabilitate-erregistro bereziaren gaineko informazioa

Txosteneko 35. oharrean adierazi denez, Entitate Nagusiak hipoteka-zedulak jaulki zituen, eta 2021eko ekitaldian izan dute azken mugaeguna. Hori dela eta, 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan aipatzen den kontabilitate-erregistro berezian entitate jaulkitzaileari buruz dauden datuak erantsi ditugu jarraian, 7/*2010* Zirkularrean ezarritakoari jarraikiz. Zirkular horrek hipoteka-merkatuaren hainbat alderdi garatzen ditu, Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrean 2020ko ekitaldirako ezarritako banakapen-mailarekin.

Era berean, 2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera —hipoteka-merkatua eta hipoteka-sistema finantzarioa arautzen dituen 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen hainbat alderdi garatzen ditu—, Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak jakinarazi du, 2021eko abenduaren 31n ezarrita duela hipoteka-merkatua arautzen duen araudia betetzen dela bermatzeko politika- eta prozedura-multzoa, eta arduratzen dela araudi hori betetzeaz.

Politika eta prozedura horietan, gai hauen inguruko irizpideak sartzen dira, besteak beste:

Arriskua emateko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen dira. Gaitasun hori estimatzeko, funtsezkoak dira barne-ereduak (scoringak eta ratingak).

Hipoteka-bermea eta abal-emaileak dira onartutako arintzaile nagusiak. Hipoteka-bermean, eragiketen LTV erlazioa (arriskua eta tasazioa) balioztatzen da, bereziki.

Eredu horiek gai dira ez ordaintzeko probabilitatea estimatzeko, eta, beraz, eskabidearen lehen kreditu-kalifikazioa esleitzeko, idatzitako datuetan eta aldagai batzuen portaera historikoetan oinarrituta. Eragiketa bakoitza kalifikatzeko, arrisku-mailarik txikienetik handienera doan eskala bat erabiltzen da, eta maila horietako bakoitzaren arabera ez-ordaintzeak izateko probabilitatea esleitzen zaio.

Ereduek aldagai batzuk aztertzen dituzte: errenta- edo sarrera-maila, ondarea edo zorpetzea, ordainketetan izandako portaera, kreditu-hartzailearen atxikimendua eta alderdi pertsonalak eta arrisku-eragiketari lotutako ezaugarri jakin batzuk.

Zehazki, aldagai-mota hauek bereizten dituzte indarrean dauden ereduek: ezaugarri pertsonalak, ez-ordaintzeen historikoa, errentak edo sarrerak lortzeko ahalmena, zorpetzea, ondare garbia, entitatearekiko atxikimendua, eragiketaren ezaugarriak eta kredituaren estaldura (arintzaileak).

Gainera, prozedura batzuk daude, sartutako datuen gainean sisteman jasotako informazioa egiaztatzeko, bereziki gai hauetan: sarrerak, ondarea, hipoteka-bermea (higiezina tasatzearen bidez), finantzaketaren helburua, bezeroaren datu orokorrak eta bezeroaren portaeraren oinarriak.

Tasazioak egiten dira arrisku-eragiketak formalizatzeko hipoteka-berme moduan erabiltzen diren aktibo higiezinen balioa zehazteko, eta baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiako Bankuaren Tasazio Erregistro Ofizialean erregistratutako tasazio-sozietateek egin behar dituzte.
- ECO/805/2003 Ministerio Agindua, 2003ko martxoaren 27koa, bete behar dute.

Aktibo horien balioa maiztasun desberdinarekin berrikusten da, aldagai hauek aintzat hartuta: bermatutako eragiketaren kalifikazioa, balioa eta LTVa (arriskua/aktiboaren balioa). Hala, politika desberdinak zehazten dira, eragiketa arazotsu moduan —zalantzazkoak edo esleituak— sailkatutakoetarako edota normalen edo jarraipen berezikoen artean sailkatutakoetarako.

a) Eragiketa aktiboak

2021eko abenduaren 31n, ez dago mailegurik eta hipoteka-kredituri k.

2020ko abenduaren 31n, 10.092 milioi eurokoa zen hipoteka-mailegu eta -kredituen zorroaren balio nominala. Horietatik, 7.739 milioi eurok betetzen zituzten hautagarriak izateko baldintzak (aipaturiko errege-dekretuaren 12. artikuluak zenbatekoan ezartzen dituen mugak kontuan hartu gabe).

Ondoren, Entitate Nagusiaren hipoteka-bermedun maileguen eta kredituen 2020ko balio nominala aurkeztuko dugu, bai eta araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulen jaulkipen-muga kalkulatzeko hautagarriak zirenak ere:

| | Mila eurokotan |
|---|---|
| | 2020 |
| | Balio nominala |
| **Maileguak guztira (a)** | **10.538.405** |
| **Jaulkitako hipoteka-partaidetzak** | **-** |
| Horietatik: aktiboan aintzatetsitako maileguak | - |
| **Jaulkitako hipoteka-transmisioen ziurtagiriak** | **446.064** |
| Horietatik: aktiboan aintzatetsitako maileguak | 446.064 |
| **Jasotako finantzaketak bermatzeko hipoteka-maileguak** | **-** |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesteko maileguak** | **10.092.341** |
| Mailegu ez-hautagarriak (b) | 2.353.363 |
| Hautagarriak izateko baldintzak betetzen dituzte, salbu eta 716/2009 EDaren 5.1 artikuluan xedatutako muga | 1.489.158 |
| Gainerako mailegu ez-hautagarriak | 864.205 |
| Mailegu hautagarriak (c) | 7.738.978 |
| Hipoteka-bonuen jaulkipenak estaltzen dituzten maileguak | - |
| Hipoteka-zedulen jaulkipenak estaltzeko mailegu egokiak | 7.738.978 |
| Zenbateko ez-konputagarriak (d) | 8.336 |
| Zenbateko konputagarriak | 7.730.642 |

(a) Entitatearen alde hipoteka bidez bermatutako maileguetan —hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko egiaztagirien bidez eskuratutakoak ere kontuan hartuta— erabilita eta kobratu gabe dagoen printzipala, balantzetik baja emanda egon arren eta zenbateko horrek azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoan duen ehunekoa edozein izanik ere.

(b) Hipoteka-bermedun maileguak, hirugarrenei transferitu ez zaizkienak, jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak eta hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko hautagarritzat jotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

(c) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(d) 716/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan finkatutako irizpideen arabera hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulen jaulkipena estaltzeko konputagarri ez diren mailegu hautagarrien zenbatekoa.

Segidan, 2020ko abenduaren 31n hipoteka-mailegu eta -kredituek zenbatekoen hainbat atributuren arabera zuten banakapena aurkeztuko dugu:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | 2020 | |
| | Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a) | *Horietatik:* mailegu hautagarriak (b) |
| **GUZTIRA** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| **1 ERAGIKETEN JATORRIA** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 1.1 Entitateak sortuak | 10.036.731 | 7.697.345 |
| 1.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 55.609 | 41.632 |
| 1.3 Gainerakoak | | |
| **2 DIBISA** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 2.1 Euroa | 10.092.340 | 7.738.977 |
| 2.2 Gainerako dibisak | - | - |
| **3 ORDAINKETAREN EGOERA** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 3.1 Normala | 9.722.480 | 7.602.126 |
| 3.2 Beste egoera batzuk | 369.860 | 136.851 |
| **4 BATEZ BESTEKO HONDAR-EPEMUGA** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 4.1 10 urtera artekoa | 4.586.244 | 3.289.750 |
| 4.2 10 eta 20 urte artekoa | 5.505.570 | 4.448.828 |
| 4.3 20 eta 30 urte artekoa | 526 | 399 |
| 4.4 30 urtetik gorakoa | - | - |
| **5 INTERES-TASAK** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 5.1 Finkoa | 1.266.057 | 979.013 |
| 5.2 Aldakorra | - | - |
| 5.3 Mistoa | 8.826.283 | 6.759.964 |
| **6 TITULARRAK** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 6.1 Pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduerak) | 912.778 | 1.174 |
| *Horietatik: Eraikuntza eta higiezinen sustapena* | 49.514 | - |
| 6.2 Gainerako familiak | 9.179.562 | 7.737.803 |
| **7 BERME-MOTA** | **10.092.340** | **7.738.977** |
| 7.1 Bukatutako aktiboak/eraikinak | 10.041.572 | 7.730.901 |
| 7.1.1 Etxebizitzak | 9.515.656 | 7.714.198 |
| *Horietatik: babes ofizialeko etxebizitzak* | 1.134.529 | 800.442 |
| 7.1.2 Bulegoak eta lokal komertzialak | 291.094 | 13.842 |
| 7.1.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak | 234.822 | 2.861 |
| 7.2 Eraikitze-bidean dauden eraikinak/aktiboak | 4.678 | - |
| 7.2.1 Etxebizitzak | 3.266 | - |
| *Horietatik: babes ofizialeko etxebizitzak* | - | - |
| 7.2.2 Bulegoak eta lokal komertzialak | 1.412 | - |
| 7.2.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak | - | - |
| 7.3 Lursailak | 46.090 | 8.076 |
| 7.3.1 Hiri-lurzoru finkatua | 25.873 | 4.149 |
| 7.3.2 Gainerako lursailak | 20.217 | 3.927 |

(a) Hirugarrenei transferitu ez zaizkien eta jasotako finantzaketei lotuta ez dauden hipoteka-bermedun maileguetan erabilita eta kobratu gabe dagoen printzipala, edozein izanik ere zenbateko horrek azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoan duen ehunekoa.

(b) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

2021eko abenduaren 31n, ez dago hipoteka-zedula bizien jaulkipenik.

Errege Dekretu hartako 12. artikuluan finkatutako irizpideen arabera, 7.731 milioi eurokoa zen 2020ko abenduaren 31n hipoteka-tituluen jaulkipena estaltzeko kontuan hartzeko zenbatekoa.

Balio nominalari eta eguneratuari dagokienez —azken hori Errege Dekretu horretako 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz kalkulatu da— Entitate Nagusiak ez du hipoteka-bonuen jaulkipenik, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n. Bestalde, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n zorroan dauden eta hipoteka-partaidetzen bidez edo hipoteka-transmisioko ziurtagirien bidez mugitu direnen balio nominala 396 eta 446 milioi eurokoa da, hurrenez hurren.

Hautagarriak ez diren hipoteka-mailegu eta -kreditu guztien balio nominala 2.353 milioi eurokoa zen 2020ko abenduaren 31n. Horietatik, 864 milioi eurok (2020ko ekitaldia ixtean) ez zituzten betetzen 716/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan zehaztutako mugak eta, beraz, ez ziren hautagarriak; alabaina, hautagarriei eskatzen zaizkien gainerako baldintzak betetzen dituzte (arau horren 4. artikuluan adierazitakoak, alegia).

Hauxe zen, 2020ko abenduaren 31n, hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hipoteka-mailegu eta -kreditu hautagarrien balio nominalaren banaketa, hipoteka-merkatuaren ondoreetarako eskura dugun azken tasazioaren gaineko arriskuaren ehunekoa aintzat hartuta:

2020ko abenduaren 31n

| | Mila eurokotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eskura dugun azken *loan to value* tasazioaren zenbatekotik erabilitako printzipala (b) | | | | | |
| | 2020 | | | | | |
| | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino hand. eta % 60koa edo txik.** | **% 60koa baino handiagoa** | **% 60koa baino hand. eta % 80koa edo txik.** | **% 80koa baino handiagoa** | **GUZTIRA** |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak (a)** | **2.466.496** | **2.724.293** | **7.131** | **2.541.057** | **-** | **7.738.977** |
| - Etxebizitzaren gainekoak | 2.448.987 | 2.713.342 | - | 2.541.057 | - | 7.703.386 |
| - Gainerakoen gainekoak | 17.509 | 10.951 | 7.131 | - | - | 35.591 |

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.
(b) *Loan to value* ratioa lortzeko, eragiketa bakoitzean erabilitako printzipala bermearen azken tasazioaren zenbatekoarekin zatitzen da.

Hauek dira 2020ko ekitaldian hipoteka-bonu eta -zedula hautagarriak eta ez-hautagarriak jaulkitzea babesten duten hipoteka-mailegu eta -kredituen balio nominaleko mugimenduak:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | Mailegu hautagarriak (a) | Mailegu ez-hautagarriak (b) |
| **1 2020ko irekierako saldoa** | 7.553.539 | 2.429.264 |
| **2 Epealdiko bajak** | 787.748 | 710.267 |
| 2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala | 17.477 | 10.300 |
| 2.2 Ezerezte aurreratuak | 154.725 | 63.409 |
| 2.3 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 1.386 | 137 |
| 2.4 Gainerako bajak | 614.160 | 636.421 |
| **3 Epealdiko altak** | 973.186 | 634.366 |
| 3.1 Entitateak sortuak | 966.131 | 614.959 |
| 3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 2.376 | 1.382 |
| 3.3. Gainerako altak | 4.679 | 18.025 |
| **4 2020ko itxierako saldoa** | 7.738.977 | 2.353.363 |

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak diren maileguak, errege-dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(b) Hipoteka-bermedun maileguak, hirugarrenei transferitu ez zaizkienak, jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak eta hipoteka-bonu eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko hautagarritzat jotzeko baldintzak betetzen ez dituztenak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Hauek ziren hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena estaltzen zuten hipoteka-mailegu eta -kredituen saldo erabilgarriak 2020ko abenduaren 31n:

| | Mila eurokotan |
|---|---|
| | 2020 |
| | Printzipal erabilgarriak (a) |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena estaltzen duten hipoteka-maileguak** | **40.975** |
| - Hautagarriak izan daitezkeenak (b) | - |
| - Ez-hautagarriak | 40.975 |

(a) Konprometitutako zenbatekoak (muga) ken hirugarrenei transferitu ez zaizkien eta jasotako finantzaketei lotuta ez dauden hipoteka-bermedun mailegu guztietan erabilitako zenbatekoak, edozein dela ere azken *loan to value* tasazioaren zenbatekoaren gaineko arrisku osoaren ehunekoa. Saldo erabilgarriak barne hartzen ditu sustatzaileei etxebizitzak saltzen direnean soilik ematen zaizkien zenbatekoak ere.

(b) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko hautagarriak izan daitezkeen maileguak.

2020ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak ez zuen hipoteka-zedula biziak jaulkitzeko ordezkapen-aktiborik identifikatuta. Izan ere, egindako jaulkipenen ehunekoa jaulkipenak babesteko aukeratzeko moduko aktiboen gainetik dago data horietan, % 8,08an. 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legeak, Hipoteka Merkatua Arautzekoak, % 80an du gehienezko kopurua ezarrita, 16. artikuluan.

b) Eragiketa pasiboak

Segidan, 2020ko abenduaren 31n Entitate Nagusiaren hipoteka-mailegu eta -kredituen zorrotik egindako eta kolaterizatutako jaulkipenak banakatuko ditugu:

| | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | 2020 | |
| Hipoteka-tituluak | Balio nominala | Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan) |
| **1 Jaulkitako hipoteka-bonuak** | **-** | |
| **2 Jaulkitako hipoteka-zedulak (a)** | **625.000** | |
| *Horietatik: pasiboan aintzatetsiak* | 625.000 | |
| 2.1 Zorra adierazten duten baloreak. Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | |
| 2.1.1 Urtebetera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.1.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-mugaeguna | - | |
| 2.1.3 Bi urtetik hiru urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.1.4 Hiru urtetik bost urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.1.5 Bost urtetik hamar urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.1.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | |
| 2.2 Zorra adierazten duten baloreak. Gainerako jaulkipenak | - | |
| 2.2.1 Urtebetera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.2.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-mugaeguna | - | |
| 2.2.3 Bi urtetik hiru urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.2.4 Hiru urtetik bost urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.2.5 Bost urtetik hamar urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.2.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | |
| 2.3 Gordailuak | 625.000 | |
| 2.3.1 Urtebetera arteko hondar-epemuga | 625.000 | |
| 2.3.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-mugaeguna | - | |
| 2.3.3 Bi urtetik hiru urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.3.4 Hiru urtetik bost urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.3.5 Bost urtetik hamar urtera arteko hondar-epemuga | - | |
| 2.3.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | |
| **3 Jaulkitako hipoteka-partaidetzak (b)** | **-** | |
| 3.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | |
| 3.2 Gainerako jaulkipenak | - | |
| **4 Jaulkitako hipoteka-transmisioko ziurtagiriak (b)** | **446.064** | **216** |
| 4.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | - |
| 4.2 Gainerako jaulkipenak | 446.064 | 216 |

(a) Hipoteka-zeduletan, Entitateak jaulkita eta amortizatu gabe daudenak ere hartzen dira barne, nahiz eta pasiboan erregistratuta ez egon (hirugarrenei saldu ez zaizkielako edo berrerosi egin direlako).

(b) Aktiboan erregistratutako (eta balantzean eutsitako) hipoteka-mailegu eta -kredituei soilik dagozkien hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko ziurtagirien zenbatekoa.

## 70. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa. Hirugarren Xedapen Gehigarria. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen «Informatzeko beharra»

Jarraian, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa emango dugu, arau hauek aintzat hartuta: batetik, 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, gobernu korporatiboa hobetzeari buruzkoa, 15/2010 Legearen, uztailaren 5ekoaren, Hirugarren Xedapen Gehigarria aldatzen duena —azken Lege horrek 3/2004 Legea aldatu zuen, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen zituena—, eta, bestetik, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Bakarra, eskatutako informazio-betebeharra betetzeari buruzkoa.

| | Egunak | |
|---|---|---|
| | **2021** | **2020** |
| Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdia | 21 | 21 |
| Ordaindutako eragiketen ratioa | 21 | 21 |
| Ordaintzeko eragiketen ratioa | 21 | 19 |

| | Zenbatekoa (mila eurokotan) | |
|---|---|---|
| | **2021** | **2020** |
| Egindako ordainketak guztira | 282.580 | 303.410 |
| Ordaintzekoak guztira | 4.748 | 7.054 |

## 71. Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako negozio-konbinazioak eta partaidetzen eskurapenak

a) Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitaleko eskurapenei buruzko informazioa

2021eko eta 2020ko ekitaldietan zehar, ez da Taldearentzat garrantzizkoa den eskurapenik gertatu erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitalean.

b) Negozio-konbinazioak

2021eko eta 2020ko ekitaldietan zehar, Taldearentzat ez da garrantzizko negozio-konbinaziorik gertatu.

I. ERANSKINA

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

### TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTE PARTAIDETZA BATZUEN BANAKAKO XEHETASUNA, 2021EKO ABENDUAREN 31KOA (Mila eurokotan adierazita)

| | | | 2021 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzapeko erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Mendeko erakundeak*** | | | | | | | | | | | |
| Seguros Lagun Aro Vida SA | Bilbo | Aseguruak | % 76 | % 24 | 34.507 | - | 34.507 | 534.228 | 77.908 | 54.120 | 1.628 |
| Seguros Lagun-Aro SA | Bilbo | Aseguruak | % 49,64 | % 50,36 | 17.649 | - | 17.649 | 213.001 | 59.749 | 92.856 | 10.983 |
| Seguros Lagun-Aro 2003 AIE | Bilbo | Zerbitzuak ematea | - | % 100 | - | - | - | 3.971 | 2.792 | - | - |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | Arrasate | Inbertsio-funtsen gestorea | % 100 | - | 6.280 | - | 6.280 | 19.110 | 11.534 | 27.716 | 2.388 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | Arrasate | Pentsio-funtsen gestorea | % 100 | - | 2.500 | - | 2.500 | 3.852 | 3.010 | 3.497 | 232 |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | Arrasate | Partaidetza-edukitzailea | % 100 | - | 59.673 | - | 59.673 | 65.896 | 65.892 | 5.382 | 5.365 |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | Bilbo | Banka-aseguruetako operadorea | % 100 | - | 10 | - | 10 | 18.659 | 6.630 | 44.392 | 1.764 |
| ISGA Inmuebles SA | Arrasate | Aktibo higiezinen gestorea | % 100 | - | 65.015 | (32.822) | 32.193 | 106.245 | 86.678 | 168.980 | 10.762 |
| | | | | | 185.634 | (32.822) | 152.812 | | | | |

| | | | 2021 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzapeko erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Erakunde elkartuak*** | | | | | | | | | | | |
| Ategi Green Power SL | Arrasate | Energia-ekoizpena (BISG) | % 28,57 | - | 333 | - | 333 | 3.533 | 1.180 | - | 69 |
| | | | | | 333 | - | 333 | | | | |

(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzapeko sozietateek 2021eko abenduaren 31n dituzten finantzetako egoera-orri homogeneizatuei dagozkie.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

### TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTE PARTAIDETZA BATZUEN BANAKAKO XEHETASUNA, 2020EKO ABENDUAREN 31KOA (Mila eurokotan adierazita)

| | | | 2020 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzapeko erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Mendeko erakundeak*** | | | | | | | | | | | |
| Seguros Lagun Aro Vida SA | Bilbo | Aseguruak | % 76 | % 24 | 34.507 | - | 34.507 | 560.299 | 82.567 | 53.208 | 1.111 |
| Seguros Lagun-Aro SA | Bilbo | Aseguruak | % 49,64 | % 50,36 | 17.649 | - | 17.649 | 217.755 | 59.976 | 93.222 | 12.033 |
| Seguros Lagun-Aro 2003 AIE | Bilbo | Zerbitzuak ematea | - | % 100 | - | - | - | 4.881 | 2.792 | - | - |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | Arrasate | Inbertsio-funtsen gestorea | % 100 | - | 6.280 | - | 6.280 | 14.538 | 9.146 | 21.402 | 1.610 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | Arrasate | Pentsio-funtsen gestorea | % 100 | - | 2.500 | - | 2.500 | 3.624 | 2.860 | 3.188 | 233 |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | Arrasate | Partaidetza-edukitzailea | % 100 | - | 59.673 | - | 59.673 | 62.631 | 62.626 | 6.849 | 6.833 |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | Bilbo | Banka-aseguruetako operadorea | % 100 | - | 10 | - | 10 | 15.260 | 5.866 | 42.449 | 2.934 |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | Arrasate | Aktibo higiezinen gestorea | % 100 | - | 4.970 | (4.000) | 970 | 6.935 | 6.481 | 356 | (60) |
| ISGA Inmuebles SA | Arrasate | Aktibo higiezinen gestorea | % 100 | - | 122.935 | (59.489) | 63.446 | 197.675 | 158.776 | 45.756 | 2.729 |
| | | | | | 248.524 | (63.489) | 185.035 | | | | |

| | | | 2020 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzapeko erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Erakunde elkartuak*** | | | | | | | | | | | |
| Ategi Green Power SL | Arrasate | Energia-ekoizpena (BISG) | % 28,57 | - | 333 | (18) | 315 | 3.316 | 1.102 | - | (33) |
| | | | | | 333 | (18) | 315 | | | | |

(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzapeko sozietateek 2020ko abenduaren 31n dituzten finantzetako egoera-orri homogeneizatuei dagozkie.

## II. ERANSKINA

# CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## AGENTZIA-KONTRATUAK, 2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31KOAK

| Izena | Helbidea | Identifikazio-kodea | Ahalmenen egilespen-data | Agintearen amaiera-data | Jarduera-eremu geografikoa | Ordezkapenaren norainokoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | Diego Lopez de Haro Kale Nagusia, 2, Bilbo | B 75060988 | 2013-01-01 | Mugagabea | Estatua | - Kontu korronteko, aurrezki-libretako eta epe finkorako ezarpenetako, inbertsio-funtsetako eta pentsio- eta aurreikuspen-planetako eragiketak tramitatzea, eta horretarako behar diren agiriak sinatzea.<br>- Entitateari kredituen eta beste arrisku-eragiketa batzuen tramiteak egitea.<br>- Entitatearekin posta-harremana eta publikoarekin kontaktua izatea. Berak egokitzat jotzen duen moduan antolatuko du lan-moldea eta ordutegia, Entitateak agintzen dizkion arau eta jarraibideen barruan. |

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK**

**III. ERANSKINA**

**URTEKO BANKU-TXOSTENA**

**LABORAL Kutxa Taldearen 2021eko abenduaren 31ko informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 10/2014 Legea eta 2013/36/EE Zuzentaraua betetzeko emana**

Informazio hau prestatzeko, 2014ko ekainaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 87. artikuluan eta Hamabigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoa bete dugu. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB Zuzentarauaren, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoaren, 89. artikulua transposatzen du. Zuzentarau horrek, berriz, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen du eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE —CRD IV izenez ezaguna— Zuzentarauak indargabetzen ditu.

Araudi horri jarraikiz, kreditu-erakundeek Espainiako Bankuari bidali beharko diote, eta urtero argitaratu, ekitaldi bakoitzeko informazio bateratu hau, zer herrialdetan ezarrita dauden adierazita:

a) jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa
b) negozio-bolumena
c) arduraldi osoko langile-kopurua
d) zerga aurreko emaitza gordina
e) emaitzaren gaineko zerga
f) jasotako dirulaguntzak edo laguntza publikoak

Aurrekoaren ildotik, eskatutako informazio hori zehaztuko dugu ondoren:

a) Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitatea, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du Entitateak.

Entitateko estatutu sozialen arabera, beraren jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Ondore horretarako, gainerako kreditu-erakundeek egin ditzaketen mota guztietako eragiketa aktibo, pasibo eta zerbitzuzkoak egin ahal izango ditu, bere helburu kooperatiboak sustatzeko eta ahalik eta ondoen betetzeko balio dutenak barne. Arreta berezia eskainiko die bere bazkideen finantza-beharrei, eta hirugarrenekiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuko ditu.

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko LABORAL Kutxaren urteko kontu bateratu hauen I. eranskinean, jurisdikzio bakoitzean diharduten sozietateak xehatu ditugu, haien izena, kokapena eta jardueraren izaera zehaztuta.

b) Negozio-bolumena, lanaldi osoko langile-kopurua, zerga aurreko emaitza gordina eta emaitzaren gaineko zerga

| | Negozio-bolumena (mila eurokotan) | Lanaldi osoko langile-kopurua | Zerga aurreko emaitza gordina | Emaitzaren gaineko zerga |
|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | 403.166 | 2.102 | 121.319 | 19.886 |
| **GUZTIRA** | **403.166** | **2.102** | **121.319** | **19.886** |

Informazio honen ondoreetarako, 2021eko abenduko emaitza-kontu bateratuaren marjina gordina hartu dugu negozio-bolumentzat. Lanaldi osoko langile-kopuru baliokideari buruzko datuak sozietate/herrialde bakoitzeko plantillatik hartu ditugu, 2021eko ekitaldiaren itxieran.

Taldeko aktiboen etekinak, hau da, Entitate Nagusiari egotzitako emaitza garbia zati guztira dituen aktiboak, % 0,36 dira, 2021eko abenduaren 31n.

c) Jasotako dirulaguntzak edo laguntza publikoak

LABORAL Kutxa Taldeak 2021eko ekitaldian jasotako dirulaguntza edo laguntza publikoen zenbatekoa ez da nabarmena.

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK**

**KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUA, 2021EKO EKITALDIKOA**

Susperraldi ekonomikoaren urtea izan da 2021a, COVID-19aren pandemia globalak baldintzatutako 2020aren ondoren. Hala ere, zailtasunak ere izan ditugu aurten, birusak oraindik gure artean jarraitzen baitu. Ondorioz, urtearen zati handi batean murrizketak jasan behar izan ditugu, eta, zalantzarik gabe, egoera ekonomikoa goitik behera baldintzatu dute horiek. Hala ere, txertaketa-prozesuak aurrera egin duenez, ekitaldiaren amaieran normalizatu egin da jarduera.

Munduan, zailtasunez betetako urtea izan da. Urtearen lehen erdian, eskariak igoera nabarmena izan du. Nolanahi ere, pandemiak eta txertatze-prozesuak asimetria handia eragin dute nazioartean jarduerari dagokionez, oso alde handia baitago herrialde garatuen eta garatzeko bidean daudenen artean. Gai horrek oso eragin negatiboa izan du eskaintzan, batez ere urteko bigarren seihilekoan. Horrez gain, botila-lepo logistikoak ere gertatu dira, eta bidaltze-kostuen prezioa garestitzea ekarri dute. Garestitze horri, gainera, energia-hornidurraren talka gehitu behar zaio.

Horren guztiaren ondorioz, inflazio-tasak igoera nabarmena izan du, azken hamarkada honetan gure erreferentzia-eremuan ezagutu ez dugun bezalakoa. Eta, hain zuzen, inflazioak eta berorren iraunkortasun nahiz iragankortasunak bereganatu du arreta, 2021 urte-bukaera honetan.

Gure aurreikuspenen arabera, prezioek behera egingo dute, txertatze-prozesua amaitu eta jarduera globala normalizatu ahala. Hori dela eta, gure iritzian, hazkunde ekonomikoak bere bidea egingo du 2022an, zerga- eta diru-politikek lagunduta, eurogunean hedakorrak izaten jarraituko baitute. Horrez gain, Next Generation funtsen harira ere azelerazioa espero dugu.

Horrenbestez, 2021ean BPGd-a % 5 hazi da Estatuan, % 5,8 Nafarroako Foru Erkidegoan eta % 5,7 Euskal Autonomia Erkidegoan. Hazkunde-tasa horiek gora egingo dute 2022an, hurrenez hurren % 6, % 6,2 eta % 6,3 izateraino.

2021ean, –% 0,50ean eutsi dio EBZk gordailutzeko erraztasunaren interes-tasari, bai eta nahitaezko gutxieneko erreserbei dagokien tiering-sistemari ere. Horrez gain, EBZren birfinantzamendu-eragiketak eta erosketa-programen zabalkundea lagungarri izan dira diru-merkatuak lasaitzeko.

Errentagarritasunari begira, interes-tasa zeharo txikiek emaitza-kontuak arrastatzen jarraituko badute ere, 2021eko amaierarako sektoreko emaitza-kontuek hazkunde nabarmena izatea aurreikusten da, eta 2022an goraka jarraitzea. Hauek izango dira, funtsean, arrazoiak: horniduren murrizketa eta kotizatutako entitateen ROE-etan hobekuntza substantzialak frogatzeko eta akziodunari errentagarritasuna emateko merkatuetan sumatzen den presioa.

Kaudimenean, berriz, gerta liteke egoera ekonomikoa normaltzearen ondorioz lasaiagoak izatea bai gainbegiratze-presioa bai ospearen gainekoa. Dena den, bistakoa denez, epe ertainean aktibatu egingo dira kapital-koltxoiak eta MRELaren eskakizunak, Estatuan kapital handirik ez duen sektore honetan.

Efizientziaren ikuspegitik, bestalde, digitalizazioaren ondorioz eta errentagarritasuna kapital-kostutik gehiago urrun ez dadin kostuak murrizteko premiaren eraginez, bulego-sarea eta plantilla murrizteko erabakiak hartzen jarraitu beharko da. Ez da baztertzen bat-egite gehiago egiteko aukera, entitate ertainen artean bereziki.

Ez dira bete zalantza-tasan 2021erako zeuden aurreikuspen kaskarrak: ratioak behetik jarraitu du. 2021aren amaierarako % 4,5etik beherako tasa espero da. Edonola ere, ziurgabetasuna sortzen du estaldura publikoen ondorioz kontabilitatea malgutzeko neurriak normaltasunera itzulitakoan izango duen bilakaerak; dirudienez, zerbait haztekotan, apurtxo bat haziko da.

Testuinguru horretan, tasa kaskarren egoera eta jarduera ekonomikoaren ziurgabetasun-egoera gainditzea lortu du LABORAL Kutxak, bai eta errentagarritasuna hobetzea eta kaudimenean eta likidezian maila nabarmenari eustea ere.

Negozioaren zifrarik garrantzitsuenak jaso ditugu jarraian.

Aktibo osoa 28.563,2 milioi eurora iritsi da, hau da, % 2,36ko igoera izan du aurreko urteko itxierakoaren aldean.

Bezeroen gordailuak 23.499,6 milioi eurokoak dira, 2020ko itxieran baino % 2,24 handiagoak, batik bat ageriko kontuek izan duten 1.497 milioi euroko (% 8,2ko) gorakadaren eraginez. Hein batean, eperako ezarpenen epigrafetik funtsak ateratzeagatik gertatu da, 939 milioi txikitu baita horren saldoa.

Maileguak eta bezeroen aurrerakinak 15.157,5 milioi eurokoak dira 2021eko ekitaldiaren amaieran. Beste finantza-aktibo batzuen aldakuntzaren eragina alde batera utzita, kreditu-inbertsio tradizionala % 4,81 handitu da, administrazio publikoei emandako finantzaketaren igoera nabarmena dela eta.

Bezeroei emandako kredituaren zalantzazko arriskuen bolumena % 13,45 txikitu da; ondorioz, «Beste sektore egoiliar batzuk» epigrafeko berankortasun-ratioa % 2,80ra jaitsi da 2021aren amaieran. Datu hori sektoreko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da, gordailu-erakundeetakoa % 4,22koa baita.

Bestalde, «Beste emaitza global batean aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» eta «Zorra adierazten duten baloreak amortizatutako kostuan» epigrafeek, hurrenez hurren, 702,6 eta 7.863,8 milioi euroko zenbatekoak dituzte. Horrela, amortizatutako kostuko zorroak % 27,5eko pisua du balantze osoan.

Efizientziari eta likideziari buruzko adierazleek parametro egokietan jarraitzen dute, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan. Efizientzia-indizea, KHSFaren aurreko marjina gordinaren gaineko administrazio-gastu moduan neurtua, % 54,5ean kokatu da 2021ean. Egiturazko likideziaren ratioa, emandako kredituen gaineko gordailuetan oinarritua, berriz, % 63,6koa izan da.

Kaudimenari dagokienez, Talde bateragarriaren baliabide propio konputagarriak 1.853,7 milioi eurokoak dira, 2021eko abenduaren 31n. CET1 (Common Equity Tier 1) ratioa, sektoreko nabarmenenetako bat, % 21,81ean kokatu da, eta bat dator guztizko kaudimenaren ratioarekin.

Galdu-irabazien kontuan sarrera eta gastuen atal hauek nabarmentzen dira:

Zerga ondorengo emaitza 101,4 milioi eurokoa da 2021ean, gizarte-ekintzako zuzkidura egin aurretik 108,8 milioiko irabazia lortuz, eta, beraz, gainditu egin dira Entitatearen Gestio Planeko aurreikuspenak.

Interes-tasa negatiboek oztopatu egin dute interes-marjina, eta 239,7 milioian kokatu da, 2020an baino % 5,9 gorago.

Dibidenduak, komisio garbiak, finantza-tresnen zorroen errebalorizaziotik eta besterentzetik lortutako irabaziak eta beste ustiapen-emaitza batzuk eta aseguruen negozioaren deribatuak batuta, 163,5 milioi euro lortu dira 2021ean. Horrenbestez, marjina gordina 403,2 milioi eurokoa da.

Kostuen atalean, Taldeak berretsi egin du bere estrategia-agendari eusteko eta etorkizunari aurre egiteko diseinatutako proiektu eraldatzaileei ekiteko erabakia. Horrela, bada, % 6,52 gehiago bideratu da administrazio-gastuetara, 223,7 milioi euro, alegia.

Beste urtebetez, Taldeak zuhurtzia-printzipioa aplikatzen jarraitu du arriskuen kudeaketan, eta horrek kredituen kalitatea hobetzen laguntzen du. Ondorioz, behar txikiagoa sortu da narriadura eta kaudimengabezietarako estaldurak zuzkitzeko. Horri esker, emaitza-kontuan duen eragina 55,7 milioi euro murriztu da.

Bestalde, salgai dauden aktibo ez-korronteak errentagarri bihurtzeko helburuarekin, desinbertsio-estrategia bat abiarazi du Taldeak, eta emaitza-kontura 20 milioi euro ekarri ditu.

Taldearen arrisku nagusiei dagokienez, horien xehetasuna 2021eko ekitaldiko urteko kontuetako 15.etik 21.era bitarteko oharretan jaso da.

Ezbehar-tasak gora egin duen arren 2020 ezohikoarekiko, aseguru-negozioak 47,7 milioi euroko emaitza arrunt globalak eman dizkio LABORAL Kutxa Taldeari, 2020koak baino % 3,31 handiagoak.

Higiezinen alorrari dagokionez, 2021eko ekitaldian eutsi egin zaio higiezinen sustapenaren eta eraikuntzaren jarduerarekin arrisku-posizioak murrizteko prozesuari; 183 milioi euro txikitu ostean, 524 milioi euroan kokatu da urte-amaieran. Era berean, saldo horren inguruko estaldurak % 75,5era arte hazi dira.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 21 egunekoa izan da 2021ean, 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legeak, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzekoak, gehienez finkatutako 30 eguneko epea baino laburragoa. Aintzat hartu dira, gainera, 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legea, gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateen Legea aldatzen duena, eta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Gehigarri Bakarra. Batez besteko ordainketa kalkulatzeko, lege horretan ezarritakoa hartu da aintzat.

Berrikuntza- eta garapen-plan batean murgilduta dago LABORAL Kutxa, Entitatearen azpiegitura teknologikoa indartzean oinarritua. Horri esker, aurrerapen handiak egin dira digitalizazioaren eta berrikuntzaren arloetan, bai eta kanal/zerbitzu digitalen eskaintzan eta Open Bankingen hainbat lerrotan. Horretarako, sektoreko enpresa teknologiko aitzindarien aholkularitza eta baliabideak jasotzen ditu LABORAL Kutxak. Era berean, lanbide-trebakuntzako programak ari da gauzatzen, eraldaketa digitalaren aldeko apustua sendotzeko.

2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legeak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, arautzen du bi alderdi horien inguruan eman beharreko informazioa. LABORAL Kutxak, interes publikoko erakundea izanik, Kudeaketa Txosten Bateratuari atxikitako agiri gehigarri batean argitaratu du LABORAL Kutxa Taldeari buruzko informazio ez-finantzarioaren egoera-orria, aipaturiko araudiak agindutako betebeharrei erantzuteko, eta Gipuzkoako Merkataritza. Erregistroan gordailutuko da. Agiri hori Taldearen urteko Jasangarritasun Txostena (EGE) ere bada, eta nazioarteko GRI estandarraren arabera egiten da.

Ondoren, indarrean dagoen legeriaren arabera, Caja Laboraleko Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena aurkeztuko dugu, Kudeaketa Txosten Bateratuaren eranskin gisa.



# Jasangarritasun txostena

## ETA INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOAREN EGOERA-ORRIA **2021**

LABORAL Kutxak aitortzen du Txosten hau GRI estandarren (aukera zehatzaren) arabera egin dela eta 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legearen errekerimenduak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, betetzen dituela, AENORek egindako kanpo-egiaztapenaren arabera.

LABORAL kutxa

## *AURKIBIDEA*


*0.Gutuna* .......... *4*

*1.Nor garen* .......... *7*

1.1. Taldearen aurkezpena .......... 8

1.2. Egitura operatiboa .......... 9

1.3. Kooperatibismoa .......... 10

1.4. Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak .......... 11

1.5. Bulegoen banaketa geografikoa .......... 12

1.6. Taldearen magnitude nagusiak .......... 13

1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa .......... 15

1.8. Printzipioak eta gobernua .......... 17

1.9. Gobernu-organoen garapena .......... 22

1.10. Gobernu-organoen ordainketa .......... 22

1.11. Ustelkeria eta eroskeria .......... 23

1.12. Kapitalak zuritzea .......... 23

1.13. Araudia Betearaztea .......... 25

*2.Gestio arduratsua* .......... *26*

2.1. Gestio-ikuspegia .......... 27

2.2. Konpromisoak eta lorpenak .......... 29

2.3. EGEaren ibilbide-orria .......... 30

2.4. LABORAL Kutxaren EGEaren inguruko aginte-taula .......... 31

2.5. Materialtasun-analisia .......... 32

2.6. Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) .......... 34

*3.Interes-taldeen gestioa* .......... *36*

3.1. Bezeroekiko harremanak .......... 37

3.1.1. Gestio-ikuspegia .......... 37

3.1.2. Bezeroen magnitude nagusiak .......... 37

3.1.3. Bezeroekiko elkarrizketak .......... 37

3.1.4. Bezeroarekiko gestio arduratsua eta zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna .......... 39

3.1.5. Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea .......... 42

3.1.6. Produktu eta zerbitzu arduratsuak .......... 45

3.2. Plantillarekiko harremanak .......... 51

3.2.1. Gestio-ikuspegia .......... 51

3.2.2. Plantillaren magnitude nagusiak .......... 52

3.2.3. Plantillarekiko elkarrizketak .......... 52

3.2.4. Plantillaren garapena .......... 53

3.2.5. Aniztasuna eta aukera-berdintasuna .......... 57

3.2.6. Kontziliazioa .......... 59

3.2.7. Ordainsariaren gestioa .......... 59

3.2.8. Laneko segurtasuna eta osasuna ..... 60
3.2.9. Onura sozialen paketea ..... 63

3.3 Gizartearekiko harremanak ..... 64
3.3.1. Gestio-ikuspegia ..... 64
3.3.2 Magnitude nagusiak: irabaziak gizartean banatzea ..... 67
3.3.3. Gizartearekiko elkarrizketak ..... 68
3.3.4. LABORAL Kutxak babestutako ekimenak ..... 69

3.4. Ingurumenarekiko harremanak ..... 71
3.4.1. Gestio-ikuspegia ..... 71
3.4.2. Magnitude nagusiak eta bideratutako ekimenak ..... 72

3.5 Enpresa hornitzaileekiko harremanak ..... 77
3.5.1. Gestio-ikuspegia ..... 77
3.5.2 Magnitude nagusiak ..... 79
3.5.3. Hornitzaileekiko elkarrizketak ..... 79
3.5.4. Ekitaldian hornitzaileen gestio arduratsurako garatutako ekimenak ..... 80

*4.Beste magnitude batzuk ..... 81*

4.1. Bezeroak ..... 82

4.2. Pertsonak ..... 84

4.3. Ingurumena ..... 91

*5.Txostenari buruzko informazioa ..... 92*

*6.Eranskinak ..... 95*

6.1. Baliokidetasun-taula ..... 96

6.2. GRI edukien aurkibidea ..... 98

6.3. Txostenaren edukia zehazteko prozesua ..... 102

6.4. Jasangarritasun-informazioa zabaltzea ..... 103

6.5. AENORen egiaztapena ..... 107

# 0. Gutuna



LABORAL Kutxa Taldearen Jasangarritasun Txostenerako sarrera-lerro hauek idazten ditudan bitartean, bi urte bete dira COVID-19ak eragindako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisia hasi zenetik. 2021ean egoerak hobera egin badu ere arian-arian, krisiaren eraginari eta olatuei lotutako erronka, desafio eta ziurgabetasunak oso handiak dira oraindik ere.

2021a susperraldi ekonomikoaren urtea izan da. Hala ere, ez da zailtasunik falta izan: birusarekin batera bizi behar izan dugu eta ekonomiaren bilakaera baldintzatu duten murrizketak izan ditugu. Hala ere, txertaketa-prozesuak aurrera egin duenez, ekitaldiaren amaieran normalizatu egin da jarduera.

Mundu osoan izan dira zailtasunak. Urtearen lehen erdian, eskariak igoera nabarmena izan du. Bestalde, botila-lepo logistikoak ere gertatu dira, eta bidalketa-kostu handiak ekarri dituzte. Gainera, talka handi bat gertatu da energia-horniduran. Hamarkada bat baino gehiagoan ezagutu ez diren inflazio-tasak eragin ditu horrek guztiak.

Egoera desafiatzaile horiek guztiak gorabehera, LABORAL Kutxa Taldeak egoki itxi ahal izan du ekitaldia, aurreikusitako negozio-helburuak betez. Efizientziaz, errentagarritasunez eta ezarri ditugun arrisku-mailetara egokituz hazten jarraitu dugu.

Era berean, gure jasangarritasun-estrategiaren oinarriak finkatu ditugu 2021ean. Kreditu-kooperatiba gisa gizarte justu eta bidezkoago bat sortzen laguntzeko sortu zen LABORAL Kutxa, ekonomia eta pertsonak uztartuko dituen gizarte bat. Gure gizartearen aurrerapenarekiko konpromiso horren ondorioz, ingurumena zaindu eta babesteko sentsibilitate berezia ere izan dugu betidanik. Horren adibide garbia da 2021ean ISO 14001 ingurumen-ziurtagiriarekin 20 urte bete izana. Finantza-sisteman aitzindariak izan ginen ziurtagiri hori lortzen.

Jasangarritasun-plana diseinatu aurretik, eraldaketa berde horrek dakartzan erronkei aurre egiteko nola gauden aztertu genuen urteko lehen hilabeteetan. Gure indarrak, etorkizuneko ardatzak eta lehentasunezko lan-eremuak identifikatu genituen. Ondorioz, jasangarritasun-estrategia ezartzeko ibilbide-orria prestatu dugu, datozen urteetan gure jarduera gida dezan. Ibilbide-orri hori zeharkakoa da Talde osoarentzat, eta askotariko alderdiei eragiten dieten lan-ildoak biltzen ditu: bezeroei eskainiko dizkiegun produktuak, inbertsioak, kreditua ematea, prestakuntza-beharrak, prozesuen ingurumen-hobekuntza eta gizarteari helaraziko dizkiogun mezuak.

Garrantzi berezia eman diogu Taldean jasangarritasunaren gobernantza diseinatu eta ezartzeari. Ardatz estrategikoa da, eta, beraz, Kontseilu Errektoreari dagokio hura sustatzearen erantzukizuna, bai eta jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren alorreko arriskuak aztertu eta kontrolatzearena ere.

Ezarri ditugun helburuak lortzeko, funtsezkoa eta bereziki konplexua da jasangarritasun-arriskuak gure arrisku-ereduetan behar bezala txertatzeko behar den informazioa izatea. Horregatik, eta arlo horretan arautzaileengandik iristen ari zaigun araudi zorrotza betetzeko, urtean zehar lan handia egin dugu gure sistemak egokitzen. Datuak behar ditugu jasangarritasunaren alderdiek gure jardueran duten eragina ezagutzeko. Horretarako,

ezinbestekoa da datuak lortzea eta sailkatzea, Europar Batasunak argitaratutako jardueren taxonomian ezarritako irizpideen arabera.

Ikus daitekeenez, oso jarduera zorrotza eta ilusionagarria da, eta baliabide ugari eskaini beharko dizkiogu hurrengo urteetan.

LABORAL Kutxak bat egiten du Europar Batasunaren ikuspegiarekin: COVID-19aren krisitik ateratzeko, justizia soziala eta ekitatea protagonista izango dituen agenda bat mahaigaineratzea da modurik egokiena. Krisi honetatik sortuko den eredu ekonomikoak jasangarria izan behar du; hau da, bateragarria pertsonak erdigunean jartzearekin eta, aldi berean, orekatua ingurunearekin eta baliabide naturalekin.

Amaitu aurretik, Nazio Batuen Mundu Itunaren Printzipioekin dugun konpromisoa berretsi nahi dut aurten ere, giza eskubideen eta lan- eta ingurumen-eskubideen errespetuan eta ustelkeriaren aurkako borrokan aurrera egiten laguntzen digu eta. Era berean, 2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) babesten jarraituko dugu.



Txomin García Hernández

LABORAL Kutxako lehendakaria

# 1. Nor garen



## 1.1. Taldearen aurkezpena

LABORAL Kutxa, webgune korporatiboan bere burua aurkezteko dioen moduan, ***banka kooperatibo eta parte hartzekoaren eredu sendo eta arduratsua da***. *«Banku-jarduera gauzatzeko beste modu bat du LABORAL Kutxak, lankidetzan eta gure gizartearekiko konpromisoan oinarritua. Bezero guztiak asebetetzea eta ingurunean aberastasuna eta enplegua sortzea dira gure helburu nagusiak. Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei eta filosofiari jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu norberaren interesaren aurrean, erabakiak parte-hartzean oinarrituz eta arduraz hartzen ditugu eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugu».*

Kreditu-kooperatiba bat da, eta MONDRAGON taldeko kooperatiben eta jarduneko eta erretiratutako bazkide langileen (kolaboratzaileen) esku dago.

LABORAL Kutxa talde bateratuak banku- eta aseguru-jarduerak hartzen ditu barne. Txikizkako banku-jarduerak inbertsio-produktuak eta aurrezki-produktuak eskaintzen ditu. Inbertsioari dagokionez, hipoteka-produktuak, kontsumorako kreditua, zirkulatzailea eta enpresentzako finantzaketa merkaturatzen dira bereziki. Aurrezkiari dagokionez, berriz, gordailuak (agerikoak eta eperakoak), abalak, ordainbideak (kreditu- eta zordunketa-txartelak), inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak eta BGAEak dira produktu nagusiak. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok —aurrerantzean, LABORAL Kutxa; egoitzaren helbidea: J. M. Arizmendiarrieta pasealekua, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa— bere bulego-sarearen bidez egiten du, batik bat, negozio hori, edo entitate horrek % 100ean mendean dituen sozietate jakin batzuen bidez, Entitate Nagusiaren jardueraren luzapen zuzentzat hartzen baitira. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreari dagokio erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Aseguruen negozioaren barruan sartzen dira taldeak Seguros Lagun Aro Vida SAren eta Seguros Lagun Aro SAren bidez egiten dituen jarduerak. Taldeak bizitza-arriskuko, bizitza-aurrezkiko eta *unit linked* izeneko aseguruak merkaturatzen ditu bizitza-aseguruen jardueraren barruan. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. Bi sozietateon Administrazio Kontseiluei dagokie erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

**Seguros Lagun Aro Vida eta Seguros Lagun Aro (aurrerantzean Seguros Lagun Aro)** bi sozietate anonimo dira, % 100 LABORAL Kutxaren partaidetzapekoak. Beraz, bertako langileak enpresaren jabeak ez badira ere, parte hartzen dute gestioan eta enpresaren irabazietan.

LABORAL Kutxa taldea osatzen duten partaidetzapeko enpresak:

| Mendeko erakundeak | Jarduera | Partaidetza | Egoitza |
|---|---|---|---|
| Seguros Lagun Aro Vida SA | Aseguruak | % 100 | Basurtoko Kaputxinoen kalea, 6, 2, 48013 Bilbo (Bizkaia) |
| Seguros Lagun Aro SA | Aseguruak | % 100 | |
| Seguros Lagun Aro 2003 AIE | Aseguruak | % 100 | |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | Inbertsio-funtsen gestorea | % 100 | Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua, 5, 1, 20500 Arrasate (Gipuzkoa) |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | Pentsio-funtsen gestorea | % 100 | Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua, zk.g., 5. eraikina, 1, 20500 Arrasate (Gipuzkoa) |
| ISGA Inmuebles SA* | Higiezinen sustatzailea | % 100 | Jose Maria Arizmendiarrieta pasealekua, 4, 20500 Arrasate (Gipuzkoa) |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | Partaidetza-edukitzailea | % 100 | |
| Caja Laboral BancaSeguros (CLBS) OBSV SLU | Banka-aseguruetako operadorea | % 100 | On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia, 2, 1, 48001 Bilbo (Bizkaia) |
| **Erakunde elkartuak** | | | |
| ATEGI GREEN POWER SL | Instalazio fotovoltaikoak | % 28,57 | Goiru kalea (b eraikina), 1, 3, 20500 Arrasate (Gipuzkoa) |

*2020ko ekitaldiarekin alderatuta, 2021ekoan ISGAk Sociedad para la Gestión de Activos Inmobiliarios de Caja Laboral SL (SGA) erakundea xurgatu du, urriaren 26an.

## 1.2. Egitura operatiboa

Abenduaren 31n indarrean den egitura area funtzionaletan dago banatuta. Horiek, bestalde, departamentuek, sekzioek, zonek eta bulego-sareak osatzen dituzte.



**Seguros Lagun Aro**




## 1.3. Kooperatibismoa

ZERK BEREIZTEN GAITU BESTE BANKU ETA KUTXA BATZUETATIK?

| | |
|---|---|
| KREDITU-KOOPERATIBA BAT GARA | LABORAL Kutxan, entitateko bazkideak gara zerbitzu ematen dizugunak, eta, proiektuarekin bat egin eta hartan sinesten dugunez, pertsona bakoitzari zerbitzurik onena ematen ahalegintzen gara. Gure bezeroak pozik izatea da gure enpresa-proiektuaren bermerik onena. |
| GIZARTEARI ITZULTZEA. BANKA ERABILGARRIA, GURE GIZARTEAREKIN KONPROMETITUA | Gure dibidendua gizarterako itzulkina da. Gure soberakin banagarrien % 25 ekonomiaren eta gizartearen aldetik interesgarriak diren proiektuak finantzatzera bideratzen ditugu, eta prestakuntzan eta enplegua sortzen laguntzera. Gainerakoa entitatean inbertitzen dugu, berorren kaudimena eta etorkizuneko garapena sendotzeko. |
| LANGILEAK, BAZKIDEAK ETA PROTAGONISTAK GARA | LABORAL Kutxak ez du burtsan kotizatzen eta ez dago finantza-merkatuen espekulazio-presioaren eraginpean. Bazkide guztiok hartzen dugu parte entitatearen kapitalean eta erabakietan, erantzukizunez eta gure gestioaren ondorioak geure gain hartuz.<br>Erabakirik funtsezkoenak Batzar Nagusian onesten ditugu, eta bazkide guzti-guztiek hartzen dute parte bertan, mozkinak lortzen eta horiek gure gizartean inbertitzen lagunduko digun gestio eraginkorra eta arduratsua bermatzearren. |


MISIOA

**Bazkide eta bezeroen (batez ere partikular eta enpresen) finantza-beharrei erantzutea da kreditu-kooperatibaren helburua.**

Zentzu horretan, gestioaren eta zerbitzuaren kalitatea lehiakortasunerako elementu bereizgarritzat hartzen du, efizientzian eta errentagarritasunean toki egokian egotea eta bezeroak eta bazkideak gogobetetzea lortzeko.

Entitatea MONDRAGON korporazioaren barruan dago, eta korporazioko erakundeen jarduerari laguntza berezia emanez gauzatzen du, batez ere, gizartea sustatzeko konpromisoa. Baina, horrekin batera, gizartearekiko konpromiso hori bere jarduera-lurraldearen garapen ekonomikora eta soziokulturalera ere bideratzen du; Euskal Herriaren kasuan, euskarari eta euskal kulturari arreta berezia eskaintzen die.

Misioa betetzeko, entitateak konpromisoa hartu du bere lan-bazkideen garapen profesionalarekin eta horien artean konfiantzazko giroa sortzearekin, berrikuntza, talde-lana eta bazkideen partaidetza aktiboa suspertzeari begira.

IKUSPENA

**Entitateak kalitatearen eta zerbitzuaren inguruko lidergoaren alde egin du apustu**

Horretarako, aholkularitza hurbil eta pertsonalizatua ematen du, eta identifikatutako negozio-segmentu bakoitzarentzat beren-beregi prestatutako produktuak eskaintzen ditu, arreta kendu gabe kostuei —horietan egungo posizio bikainari eusteko asmoa du— eta berrikuntzari —indar handiz bultzatuko du—.

BALIOAK

**Izateko eta jokatzeko moduak dira balioak, eta entitatea osatzen duten pertsona guztiek gure interes-taldeekin dituzten**

izan ere, pertsonen portaera etikoak oreka iraunkorraren oinarria dira gure enpresaren erabakietan.

LABORAL kutxa

*KAPITAL SOZIALA 2021-12-31N*

*786,4 M EURO*




## 1.4. Balioak, printzipioak, estandarrak eta jokabide-arauak

LABORAL Kutxak jokabide-arau batzuetan funtsatuta arautzen du pertsonen jarduera. Jokabide-arau edo -jarraibide horiek Balore-merkaturako Jokabideen Barne Araudian daude jasota, eta Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideei nahiz jarduera-eremu horretan inplikaturikoei ezartzen zaie. 2018an, Jokabideen Barne Araudia 596/2014 Erregelamendura egokitzea erabaki zen, eta CNMVri horren berri eman zitzaion.
Etikaren eta osotasunaren alorrean, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean eta Jardunbide egokien eta sekretu profesionalaren gidan daude jasota entitatearen arauak —CLBSn ere aplikatzekoak dira—. Bi dokumentuok intranetean argitaratuta daude, eta, hurrenez hurren, Araudia Betearazteko Departamentuaren eta Barne Ikuskaritzaren Departamentuaren ardura da horiek berrikusi eta eguneratzea. Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea aldatzeko, Kontseilu Errektoreak oniritzia eman behar du.
Kode Etikoaren garapen gisa, entitatean egon litezkeen jokabide kriminalei aurrea hartzeko eta erantzuteko esparruan, barne-arauak Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikan jasota daude barneko arauak.
Salaketen Kanala ere badago, Kode Etikoarekin eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikarekin zerikusia duten eta garrantzitsuak izan daitezkeen irregulartasunak jakinarazteko, salatzailearen babesa bermatuz. Bestalde, Etika Batzordea da arau horiei jarraipena egiteko organoa, Gestio Sozialeko Zuzendaritzaren gidaritzapean; departamentu hauek hartzen dute parte bertan: Araudia Betearaztekoak, Aholkularitza Juridikoak eta Barne Ikuskaritzak. Organo horrek, jarraipena egiteaz gain, baimenak edo salbuespenak eman eta Salaketen Kanalean jasotako salaketak ebazten ditu, dagokien bezala bideratzeko.
2021ean kontsulta bakarra egon zen, eta salaketarik bat ere ez. 2020an, berriz, ez zen ez kontsultarik eta ez salaketarik egon.

Taldeko aseguru-erakundeek (Seguros Lagun Arok eta Seguros Lagun Aro Vidak) kooperatiben balioak eta politika nahiz gestio-jardunbideak partekatzen dituzte, nahiz eta araudiari jarraituz sozietate kooperatiboaren egitura barik akziokako sozietatearen egitura juridikoa izan.

Seguros Lagun Aro *Europako Gizarte Ekonomiako Aseguratzaileen Elkarteko* (*EURESA*ko) kidea da, eta bat egiten du elkarte horrek defendatzen dituen elkarrekikotasun- eta lankidetza-balioekin:

- poner en práctica sus principios rectores en todos los niveles de sus actividades.,
- Kontsumitzaileen benetako beharrizanak aseko dituzten produktu eta zerbitzuak diseinatzea.
- Aseguratuek eta interes-taldeek zuzenean nahiz ordezkarien bidez enpresaren bizitzan aktiboki parte hartzen dutela bermatzea.
- Alderdi ekonomikoaren eta jokabide etikoaren arteko oreka lortzea.
- Bermatzea pertsonengan ardaztuta dagoen eta garapen jasangarria eta gizartearekiko arduratsua bilatuko duen ekonomiaren barruan gauzatuko duela jarduna.

Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietateek beren jarduna jorratzeko hirugarrenekin egiten dituzten kontratuetan, betebehar jakin batzuk zehaztu dituzte, bai eta ez-betetzeetarako zehapen larriak ere, bermatzeko hirugarrenek laneko osasunari eta segurtasunari buruzko araudia, ingurumenaren errespetuari loturikoa eta giza eskubideak beteko dituztela (eta hornitzaileei betearaziko dizkietela).

## 1.5. Bulegoen banaketa geografikoa

LABORAL Kutxak banka-aseguruen estrategia batean biltzen du aseguruen jarduera; hortaz, taldeko konpainiek (Seguros Lagun Aro SAk, bizitzakoak EZ diren aseguruetan, eta Seguros Lagun Aro Vida SAk) LABORAL Kutxaren bulegoetan eta webgunearen bidez merkaturatzen dituzte, gehienbat, euren produktuak. Hautatutako bitartekari-sare batekin osatzen ditu banku-kanal horiek Seguros Lagun Arok.

Partikularren bulegoetan, LABORAL Kutxako eta CLBSko langileak daude.

Era berean, enpresetan espezializatutako sarea ere badago, bai eta Kooperatiben eta Enpresa Handien bulegoa eta Sektore Publikoaren bulegoa ere.

| Bulegoen banaketa 2022-01-01ean | | | |
|---|---|---|---|
| **Probintzia** | **Partikularrak** | **Enpresak** | **Bitartekotza** |
| Bizkaia | 80 | 1 | 1 |
| Gipuzkoa | 62 | 1 | 1 |
| Nafarroa | 36 | 1 | 1 |
| Araba | 28 | 1 | 1 |
| Zaragoza | 16 | 1 | 1 |
| Valladolid | 12 | 1 | 1 |
| Madril | 9 | 1 | - |
| Asturias | 8 | - | 1 |
| Burgos | 7 | - | - |
| Salamanca | 6 | - | - |
| Errioxa | 4 | - | 1 |
| Kantabria | 4 | - | - |
| Leon | 3 | - | - |
| Palentzia | 2 | - | - |
| Bartzelona | 1 | - | 1 |
| Huesca | 1 | - | - |
| Zamora | 1 | - | - |
| Valentzia | - | - | 1 |
| **Bulegoak guztira** | **280** | **7** | **9** |

## 1.6. Taldearen magnitude nagusiak

| Kontzeptua | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Aktiboak guztira (M€-kotan) | 27.904 | 28.563 |
| Funts propioak (M€-kotan) | 1.835 | 1.916 |
| Bezeroen gordailuak (M€-kotan) | 22.984 | 23.500 |
| Bezeroei emandako kreditua (M€-kotan) | 14.459 | 15.158 |
| Bulegoak | 301 | 280 |
| Kutxazain automatikoak | 538 | 523 |
| Interesen marjina (M€-kotan) | 254,6 | 239,7 |
| Marjina gordina (M€-kotan) | 402,6 | 403,2 |
| Administrazio-gastuak (M€-kotan) | 210 | 223,7 |
| Zerga ondorengo emaitzak (M€-kotan) | 79,7 | 101,4 |

**Taldeak** sortutako aberastasunaren banaketa taula honetan ikus daiteke:

| Kontzeptua (mila €-kotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **1. Sortutako balio ekonomiko zuzena** | **420.094** | **411.814** |
| Marjina gordina (beste ustiapen-karga batzuen aurretik) | 417.729 | 408.729 |
| Aktibo materiala eta esleitutakoa saltzearen irabaziak | 2.365 | 3.085 |
| **2. Banatutako balio ekonomikoa** | **258.559** | **294.450** |
| Hornitzaileei egindako ordainketak (kostu operatiboak) | 108.842 | 118.992 |
| - administrazioko beste gastu orokor batzuk | 63.646 | 72.033 |
| - beste ustiapen-karga batzuk | 45.196 | 46.959 |
| Pertsonal-gastuak | 109.621 | 110.474 |
| Mozkinen gaineko zerga | 10.934 | 14.975 |
| Kapitalerako interesak | 9.783 | 31.640 |
| Komunitaterako inbertsioak eta dohaintzak | 19.379 | 18.369 |
| Heziketako eta Sustapeneko Funtsa (HSF) | 7.751 | 7.348 |
| Kooperatiba arteko Funts Soziala (KFS) | 11.627 | 11.022 |
| **3. Atxikitako balio ekonomikoa (1-2)** | **161.535** | **117.363** |

| Kontzeptua (mila €-kotan). Aktibo higiezinen gestioa | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Sarrerak (salmentak) | 46.102 | 168.980 |
| Kostu operatiboak | 3.270 | 4.369 |
| Pertsonal-gastuak | 0 | 0 |
| Finantza-gastuak, interesengatik eta dibidenduengatik | 78 | 413 |
| Zerga gordinak | 1.607 | 2.072 |

CLBSri dagokionez, hauek dira magnitude ekonomiko nagusiak (emaitza bateratuan jaso dira):

| Kontzeptua (mila €-kotan). CLBS | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Negozio-bolumena (komisioak) | 42.449 | 44.392 |
| Pertsonal-gastuak | 8.122 | 10.233 |
| Gastuak guztira | 38.579 | 42.071 |
| Zerga aurreko emaitzak | 3.865 | 2.321 |

Aktibo higiezinak gestionatzeko sozietateek helburu hauek izan dituzte 2021ean: batetik, hirugarren sustatzaileen aktibo higiezinak erostea edo esleitzea, LABORAL Kutxari zor ziotena ordaintzeko, eta, bestetik, jabetzako aktibo guztiak desinbertitzea; hau da, bukatutako produktuak (etxebizitzak, garajeak, lokalak…) saltzea, hasitako obrak bukatzea azken produktuak saltzeko eta lurzorua saltzea edo gestionatzea, etxebizitza bihurtzeko, autosustapenak nahiz eraikuntzak garatuz.

2021ean, ISGA sozietatearen bidez, higiezinen arloko 17 proiektu bideratu ditugu, hau da, 877 etxebizitza hasi gara eraikitzen; horietatik, 7 proiektu bukatu ditugu (guztira, 471 etxebizitza).

Lurzoru, aribideko sustapen edo bukatutako etxebizitzetatik bat ere ez dago babestutako naturagune edo babestu gabeko dibertsitate biologiko handiko area baten barruan edo ondoan.

Aktibo higiezinak sustatzeko sozietate horien jarduerak oso partaidetza txikia du Espainiako higiezinen sektorean. Horien zeharkako eragina proiektuak garatzeko behar diren jarduerak hirugarrenei kontratatzearekin dago lotuta.

## Zerga-sistema

LABORAL Kutxak jarduera gauzatzen duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak, lau foru-lurraldeetan eta lurralde erkidean zehazki. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du.

Entitatearen estrategia fiskala bat dator gestioaren esparru guztietan aplikatzen den zuhurtziaren printzipio historikoarekin.

LABORAL Kutxak zergen eta legearen arloak gestionatzeko prozedura du, bere finantza-informazioaren barne-kontroleko sistemaren barruan. Agiri hori barnekoa da, eta Kontseilu Errektoreak onartu zuen bere garaian. Bertan zehazten dira zerga guztien gestioaz arduratzen diren erakundeko eremuak, haietako bakoitzak bete behar dituen zereginak eta prozedura zuzen betetzen dela bermatzeko kontrolak.} Prozedura aldian behin berrikusten du Barne ikuskaritzak.

Entitateak azalpen-ohar baten bidez ematen du informazio fiskalaren berri urteko kontuetan. Kontabilitate-emaitzaren eta zerga-oinarriaren arteko kontziliazioa jasotzen da ohar horretan, sozietateen gaineko zergaren ondoreetarako. Informazio hori eta gainerako finantza-informazioari kanpo-auditoretza egiten zaie urtean behin.

| Zergak eta tributuak (mila €-kotan). LABORAL Kutxa | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Tributuak (OHZ, EJZ…) | 1.296 | 1.602 |
| BEZa | 12.564 | 19.698 |
| Gordailuen zerga | 6.546 | 6.844 |
| Ondare-prestazioa (DTAk) | 2.266 | 2.051 |
| **LK guztira** | **22.672** | **30.195** |
| **Mozkinen gaineko zerga CLBSn** | **930** | **557** |
| **Zergak eta tributuak (mila €-kotan). Lagun Aro** | **2020** | **2021** |
| Sozietateen gaineko zerga | 1.782 | 2.932 |
| Tributuak (OHZ, EJZ…) | 92 | 85 |
| **Lagun Aro guztira** | **1.874** | **3.017** |

2021ean, 14.975 mila €-ko sozietate-zerga sortu du LK-k.

Administrazio publikoak ez du kapitalean parte hartzen eta ez du inolako ordezkaritzarik LABORAL Kutxaren gobernu-organoetan. Hauek dira administraziotik jasotako finantza-laguntzak:

| Kontzeptua (mila eurokotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Dirulaguntzak (enplegurako, prestakuntzarako eta energiako inbertsioetarako) | 226 | 31 |
| **Kontzeptua (mila eurokotan)** | **2020** | **2021** |
| Lagun Aroren dirulaguntzak (euskara) | 22 | - |

## 1.7. Estrategia eta arriskuaren gestioa

2019an egindako gogoeta estrategikoaren ondorioz, 2020-2022rako Plan Estrategikoa egin genuen. LABORAL Kutxaren gogoeta estrategikoa urtero egiten da, norabideak finkatzeko prozesuan. Merkatuen lehiakortasunaren behaketa sistematizatzea du helburu, eta negozio-ereduak eta ondoren Gestio Plan bakoitzean garatzen diren apustu estrategikoak berrikustea.

Hori izan zen taldearen zeharkako ikuspegi batetik egin zen lehen gogoeta estrategikoa; hots, aseguru-konpainiak ere barne hartu zituena. Zuzendaritza Kontseiluak gidatutako prozesua izan zen, eta kooperatibako zenbait mailatako pertsonek hartu zuten parte: departamentuetako zuzendariek, sekzioetako arduradunek, sare komertzialeko langileek… Gogoeta egiteko, Deloitteren laguntza izan genuen, eta, amaitutakoan, Kontseilu Errektoreak onartu zuen.




Asmo hau zehaztu da:
*Entitatea eraldatzea, merkatu-ingurune konplexu honetan lehiakortasuna eta etorkizuneko jasangarritasuna bermatzeko, posizionamendu bereizgarri baten bidez.*

Hausnarketa estrategikoaren ondorioz, ekintza-lerro nagusi hauek ezarri ziren:

- **Errentagarritasuna – emaitza-kontua.** Gaur egungo mozkin-mailari eustea izango da helburu nagusia. Horretarako, beharrezkoa izango da negozio-bolumenak handitzea.
- **Kaudimena.** Kaudimena nola kudeatu izango da gestioaren beste ardatzetako bat, horixe baita entitatearen etorkizuna eta independentzia bermatzen dituen parametro nagusia.
- **Negozio-estrategia.** Merkatu-kuotak gehitzea izango da estrategia komertzialaren xedea, eta, horretarako, jarduera komertzialaren dinamika handitzea.
- **Aseguruen negozioa.** Komeni da lehiakideekiko aukerak eta aldeak aprobetxatzea, hazkundea bultzatzeko.
- **Arrisku-politika.** Arriskuarekiko grinaren egungo esparrua eta arrisku-politikak berrikustea.
- **Altxortegia eta Kapital-merkatuak.** Soberazko likidezia inbertitzeko estrategia zuhurtasun-irizpidean oinarrituko da.

2020-2022 ekitaldietarako Plan Estrategikoa 5 bloke handitan euskarrituko da; horietan, 15 programa biltzen dira:




Arriskuen kudeaketa funtsezko elementutzat jo da Plan Estrategiko horretan. Hori dela eta, entitateak nahi duen arriskuarekiko grinaren esparrua berrikusi da, eta, ondoren, planteatutako helburuak programa guztietan nola txertatzen diren. Bestalde, arriskuaren kultura sarean hedatzeko neurriak ere proposatu dira, bai eta barruko ereduak hobetzeko eman behar diren lehen pausoak ere.

Jasangarritasuna eta gobernu korporatiboa lehen aldiz jaso ziren, Plan Estrategiko honetan, berori osatzen duten programa guztiak barne hartzen dituen zeharkako elementu gisa. Jasangarritasunean, gure inguruaren aurrerapen ekonomiko eta sozialari laguntzen jarraituko dugu, bai eta gure jarduerak ingurumenean duen eragina murrizten ere. *Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJHekin)* eta 2030 Agendarekin lerrokatzen dira proiektuok.




2.2 atalean, Konpromisoak eta lorpenak izenekoan, deskargu bat egiten da, 2021eko ekitaldia ixtean helburu horiek dauden egoeraren berri emateko.

2021ean, Zuzendaritza Kontseiluak Plan Estrategikoaren indarraldia berrikusi du. Zentzu horretan, ingurunearen egoera aztertu du, arreta berezia jarriz 2020ko krisiaren ondorengo susperraldiaren ondoriozko hazkunde-aurreikuspenetan eta LABORAL Kutxaren magnitude makroekonomiko, finantzario eta negozioko nagusietan.

Hona hemen Kontseilu Errektoreak berretsitako ondorio nagusiak:

1. Ziklo ekonomikoa aldatzen ari da, eta, krisiari egin zaion kudeaketari esker, LABORAL Kutxak egoera onbideratuan eta sendotasunez egin ahal izango dio aurre egoera berriari, bezeroak eta merkatua aintzat hartuta.

2. Agertoki horretan, aukera dugu agenda estrategiko bikoitzari berriro heltzeko, eta are abiadura handiagoa emateko ere.
   a. CORE negozioa.
   b. Eraldaketa. Inbertsio-gaitasuna handiagoa denez, agenda eraldatzailearen abiadura areagotu egin daiteke, eta jasangarritasuna jarduketa-ardatz berri eta indartsu gisa sartu. Taldearentzat jasangarritasun-estrategia ezartzea da helburua: definitutako ibilbide-orria aplikatzea, arau-eskakizunak betetzea, jasangarritasun-arriskuak integratzea eta areetako jasangarritasunaren arloko ekimenak garatzea.

3. Ordainbideetan programa estrategiko berria eratzea erabaki du.

Bestalde, **Seguros Lagun Aro**k bere Gestio Plana egiten du urtero. Hartan, helburuak eta ekintza-planak ezartzen ditu, gestioko aginte-taulako adierazle kuantitatiboen balantzearen eta ondorio kualitatiboen arabera.

## 1.8. Printzipioak eta gobernua

### Gobernu korporatiboa

LABORAL Kutxak ez du ezarrita inongo politikarik, goi-zuzendariak kargua duten eskualde geografikoetan bertan kontratatzeko. Entitatearen jarduera estatu osoan garatzen denez, gaitasun profesional egokiak izatea jartzen dugu beti irizpide nagusitzat. Zuzendari guztiak (Zuzendaritza Kontseiluko kideak) entitateak dihardduen eskualdeetan sortuak dira.

Gobernu korporatiboari dagokionez, hona hemen 2021ean izandako aurrerakuntzak:

- Urtero bezala, Kontseilu Errektorearen azken urteko egitura, tamaina, osaera eta jarduera ebaluatzeari buruzko txostena egin da.
- Kontseilu Errektorea berrituko dela eta, hutsik geratuko diren lanpostuak betetzeko behar diren profilei buruzko txostenak egin dira.
- Kontseilu Errektorearen Hautapen, Izendapen, Berritze eta Aniztasun Politika eguneratu da. Halaber, Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientzien oreka ebaluatu da.
- Kontseilu Errektoreko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasunari urteko ebaluazioa egin zaio.

2021eko uztailean, Espainiako Bankuaren *Kreditu Kooperatibetako Gobernantzaren Zeharkako Berrikuspenari* buruzko txostena ezagutu ondoren, Kontseilu Errektoreak bilera monografiko bat egin zuen, Gobernantza aipatutako txostenetik eratorritako gainbegiraleen aurreikuspenetara egokitzeari buruz. Gogoeta horren ondorioz, 2021ean, Espainiako Bankuak kontseilari berriei eskatzen dizkien independentzia-irizpide berriak jorratu dira, Kontseilu Errektoreko lau batzorde ordezkarien osaera aldatu da eta hurrengo Batzar Nagusian aurkeztu beharreko estatutu-aldaketak landu dira —Kontseilu Errektoreko kideen kopuruarekin,

adinagatiko mugarekin, bazkide ez diren kontseilarien kopuruarekin eta kideen ordainsari-politikarekin daude lotuta—.

Entitateak aintzat hartzen ditu *aniztasun*-politikei buruzko errekerimenduak. Hortaz, berdintasunari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoa betez, administrazio-organoetako kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzen du. Ildo horretan, profil akademikoa, profil profesionala, generoa, adina eta beste alderdi batzuk hartzen dira kontuan, Kontseilu Errektorerako hautagaiak hautatzeko politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

2020ko ekitaldian, Batzar Nagusiak estatutu-aldaketa bat onartu zuen, Kontseilu Errektoreko kide-kopurua 15era handitzeko. Handitze horrekin, 2021eko abenduaren 31n ordezkaritzarik txikiena duen generoaren ehunekoa handiagoa da gobernantza onaren kodeetan ezarritako gutxieneko ehunekoa baino, % 46koa alegia (2020. urtera arte, genero-parekotasunari eutsi zitzaion 14 kideko Kontseilu Errektorearekin).

Era berean, goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta berritzearen alorrean, Funtsezko Postuetarako Ondorengotza Plana du LABORAL Kutxak. Bertan, ordezkatuko diren postu kritikoak, ibilbide profesionalak eta jatorri-profilak identifikatzen dira, eta identifikatutako pertsonen garapen profesionalerako planak eta postu bakoitzerako ondorengotza-planak ezarri. Funtsezko postuak (ondorengotza-plana izateko modukoak) eta postu horietakoak etorkizunean ordezkatzeko gaitasuna duten pertsonak identifikatzeko, hainbat aldagai hartzen dira aintzat: prestakuntza, esperientzia eta ezagutza, zuzendaritzako ibilbidea, errendimenduaren historia, gaitasun eta trebetasun pertsonalak, entitatearekiko konpromisoa, potentziala eta abar.

Lagun Aroren 2019ko urtarrileko Administrazio Kontseiluan aktan jaso zenez, sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen duten kide guztiek bete egiten dituzte gaitasun- eta ohore-baldintzak, aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren 2015eko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuaren (RDOSSEARen) 18. artikuluaren arabera.

| Gobernu-organoa | 30 eta 50 urte artekoak | | | | 50 urtetik gorakoak | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | | 2021 | | 2020 | | 2021 | |
| | G | E | G | E | G | E | G | E |
| Kontseilu Errektorea* | 1 | 4 | 3 | 5 | 5 | 2 | 5 | 2 |
| Kontu-hartzaileak | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Eragiketa Batzordea | 0 | 3 | 0 | 3 | 2 | 0 | 2 | 0 |
| Ikuskaritza Batzordea | 0 | 1 | 0 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| Izendapenen Batzordea | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| Kontseilu Soziala | 6 | 7 | 8 | 6 | 4 | 2 | 3 | 3 |
| Zuzendaritza Kontseilua | 2 | 1 | 1 | 1 | 7 | 1 | 8 | 1 |
| Arrisku Batzordea | 0 | 3 | 0 | 3 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| Ordainsarien Batzordea | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 |
| Administrazio Kontseilua –Seguros Lagun Aro | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 0 | 2 | 0 |
| Zuzendaritza Kontseilua –Seguros Lagun Aro | 0 | 1 | 0 | 1 | 5 | 1 | 5 | 1 |

(*) 2020ko Batzar Nagusiaren ondoren, Kontseilu Errektorea 12 kidetik 15era igaro zen 2021ean, baina ez dira batzordekide izan joan den urtearen amaierara arte.

Gobernu korporatiboari buruzko informazio guztia LABORAL Kutxaren webgune korporatiboan dago: https://korporatiboa.laboralkutxa.com/txostenak/

Hona hemen LABORAL Kutxaren gainbegiratze-organoak:

| Batzordea/Erakundea | Eginkizunak | Eratze-urtea |
|---|---|---|
| **Administrazio-organoaren egitura** | | |
| Kontseilu Errektorea | Goi-mailako gestioa, Zuzendaritza gainbegiratzea eta entitatea ordezkatzea. EGEari lotutako alderdiak urtean behin aztertzen ditu; inpaktuak, arriskuak eta aukera ekonomiko eta sozialak, berriz, etengabe. Ez du izaera betearazlerik. | 1960 |
| Errekurtso Batzordea | Kontseilu Errektorearen erabaki batzuen aurkako errekurtsoak ebazteko estatutuen araberako organo eskuduna. Batzar Nagusian aukeratzen da. | 1993 |
| Ikuskaritza Batzordea | Barne-ikuskaritzako zerbitzuak gainbegiratzea, finantza-informaziorako prozesua eta barne-kontrolerako sistemak ezagutzea eta jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboaren arauak betetzen diren gainbegiratzea. | 2004 |
| Izendapenen Batzordea | Kontseilu Errektorerako hautagaiak identifikatzea eta kideen egokitasuna eta ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientzien oreka ebaluatzea. Ordezkaritzarik txikiena duen sexuarentzat ordezkaritza-helburu bat du ezarrita. | 2012 |
| Arrisku Batzordea | Kontseilu Errektorea aholkatzea, arrisku garrantzitsuen gestioan eta gainbegiratze-jardunean eta arriskuarekiko joera globala entitatearen estrategiari egokitzen zaiola zaintzen. | 2015 |
| Ordainsarien Batzordea | Kontseilu Errektoreari ordainsari-politika orokorra proposatzea, ordainsari-politikaren ebaluazio independentea ziurtatzea eta identifikaturiko kolektiboan dauden zuzendarien ordainsari-politikaren berri ematea. | 2016 |
| **Gainbegiratze- eta aholkatze-organoak** | | |
| Kontseilu Soziala | Lan-erregimenaz arduratzea eta Kontseilu Errektoreari eta Zuzendaritza Nagusiari aholku ematea. | 1960 |
| Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua | Bezeroen kontsultak, kexak eta erreklamazioak gestionatzea. | 1994 |
| Segurtasun eta Osasun Batzordea | Lan-arriskuen prebentzioari buruzko organo aholku-emailea. | 1996 |
| Hizkuntza Batzordea | Hizkuntza-normalizazioa bultzatzeko batzordea. | 2000 |
| Ingurumen Batzordea | Ingurumen Sistema gestionatzea. | 2001 |
| Kapitalak Zuritzeari Aurrea hartzeko Batzordea | Kapitalak zuritzeari aurrea hartzeko prozedura kontrolatu eta ezagutaraztea. | 2003 |
| EGEaren Batzordea | Zuzendaritza Kontseiluaren organo ordezkaria EGEaren alorrean; hainbat areatako kideek hartzen dute parte. EGEaren txostena onestea. Kalitate-zuzendariak zuzentzen du, eta horrek urtean behin deskargua egiten du Kontseilu Errektorearen aurrean. | 2008 |
| Arriskuaren Kontrol Globala eta APBa | Likidezia-arriskua, interes-tasaren arriskua, kreditu-arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua kontrolatzea. Aktibo eta Pasiboen Batzordea da APBa. | 2008 |
| Berdintasun Batzordea | Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu eta bermatzea, eta indarrean dagoen Berdintasun Planaren jarraipena egitea. | 2009 |
| Etika Batzordea | Jarduera zuzentzen duten printzipio eta balioak (batik bat *Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean* jasota daudenak) ezartzen direla zaintzea. | 2015 |
| Produktu Batzordea | MiFID araua ezarriz, bezeroari eskaintzen zaizkion produktu guztien inguruko arriskuak ebaluatu eta onartzea. | 2015 |
| Segurtasun Osoko Batzordea | Entitatean segurtasun osoa (fisikoa nahiz logikoa) ziurtatzeko estrategia bermatzea. | 2015 |
| Proiektu Batzordea | Departamentu arteko proiektu lehenetsiak ordenatu eta lehenestea, arrakasta lortzen dutela bermatzeko. | 2017 |
| Datuen Babeserako Batzordea | Datuak babesteko politikak eta prozedurak gainbegiratzea eta bultzatzea. | 2019 |
| Datuaren Batzordea | Entitateko datuaren estrategia finkatzea, CDO lanak egitea eta datuak analizatzen erabili beharreko lerro estrategikoak finkatzea. | 2020 |
| Berrikuntza Batzordea | Berrikuntzako ildo estrategikoak zehazten ditu eta haien bilakaeraren jarraipena egiten du. | 2021 |

Entitatearen eta Kontseilu Errektoreko kideen arteko interes-gatazkak saihesteko, estatutu sozialetan eta Balore Merkatuko Jokabideen Barne Araudian ezarritako ezgaitasunen eta bateraezintasunen erregimenaz gain, gatazka horiek sor ditzaketen erabakiak hartzeko bozketa-sistemari buruzko araudi espezifikoa dago Kontseilu Errektorean.

Prozedura horiek aurreko txostenetan ere jaso izan dira, eta hauek hartzen dituzte barne:

- Kontseilu Errektoreko kideen ezintasunak eta bateraezintasunak.
- Balore-merkatuko jokabideen araudia.
- Kontseilu Errektorearen araudiaren erregulazioa, interes-gatazkak saihesteko.

Etika Batzordearen eginkizuna da LABORAL Kutxaren jarduera guztietan portaera etikoa sustatzea. Kontseilu Errektorearen mendeko organo autonomoa da, *Salaketak Gestionatzeko Sistemaren* kanal moduan eratu dena. Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodearen ez-betetzeak aztertzen ditu, eta, zigorren alorrean, diziplina-espedienteak gestionatzen ditu. Urtean behin, Kontseilu Errektoreari *Ebaluazio Txostena* ematen dio, arazoren bat gertatzen denean. Batzordea 5 pertsonak osatzen dute; une honetan, 3 gizonezko eta 2 emakumezko dira.

Urtean behin, Izendapenen Batzordeak etengabeko ebaluazioa egiten dio Kontseilu Errektoreko kide bakoitzaren egokitasunari (ohoreari, ezagutzei, esperientziari eta gobernantza onerako jarrera onari) eta talde osoaren ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren orekari. Horretaz gain, Batzorde horrek berorrek Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, osaera eta jarduera ebaluatzeko txostena ere egiten du, urtean behin.

Arrisku Batzordeari dagokionez, entitateak, bere estrategia eta finantza-egoeraren osasun-maila kontuan hartuta, arriskuarekiko tolerantzia-mailak berrikusten ditu urtero, *Arriskuarekiko Grinaren Esparrua* esaten zaion horretan. Tolerantzia-maila horiek kapitala, likidezia eta errentagarritasuna hartzen dituzte aintzat. Jarraipena egiteko, berriz, banku-arautzaileari jakinarazten zaion adierazle-multzo bat erabiltzen da. 2021. urtearen amaieraz geroztik, batzorde horren eginkizunen artean dago, berariaz, jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren arriskuak gainbegiratzea. Halaber, Kontseilu Errektoreak urtero onartzen duen *Kreditu-arriskuaren politikari buruzko eskuliburuak* arriskuari lotutako politikak, prozedurak eta irizpideak jasotzen ditu.

Arriskuaren kudeaketari dagokionez, oinarrizko arriskuen deskribapen zehatz bat kontsulta daiteke urteko ***Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa***n. Arriskurik garrantzitsuenek zer bilakaera duten eta jardueran zer eragin duten zehazten da bertan; hona hemen arrisku horiek: kredituarena, merkatuarena, operatiboa eta interes-tasarena. Arrisku-profila eta aplikatutako gestio-mekanismoak ere jasotzen ditu.

Bestalde, **Seguros Lagun Aro**n Funtsezko lanpostuak egokitzeko politika bat dago —Administrazio Kontseiluak onetsi zuen—. Horren bidez bermatu nahi da araudian (Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzeko Legearen 38. artikuluan) zehaztutako gaitasun- eta ohore-baldintzak betetzen dituztela Seguros Lagun Aro zuzentzen duten pertsona guztiek. Politika hori aplikatzen zaie, bai entitateko administrazio- eta zuzendaritza-organoetako kideei, bai gobernu-sistemako funtsezko eginkizun hauek dituztenei: arriskuen gestioko funtzioa, barne-ikuskaritzako funtzioa, funtzio aktuariala eta araudia betearazteko funtzioa.

Administrazio Kontseiluak jardunbide egokien kode bat du, eta Seguros Lagun Aroren printzipio etikoak deskribatzen ditu. Jardunbide horiekin bat egiten dute batzordeek ere, hala

auditoretzakoak, nola kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzekoak. Entitatearen alor guztietara hedatuta daude jardunbide egoki horiek.

Seguros Lagun Arok arriskuak gestionatzeko sistema integrala du. Entitatearen arriskuak etengabe identifikatu, neurtu, zaindu, kudeatu eta ezagutarazteko beharrezko informazio-estrategiak, -prozesuak eta -prozedurak hartzen ditu barne sistema horrek. Horrela, balizko inpaktu kaltegarriak minimizatzen ditu, eta ezin hobeto erabiltzen ditu eskura dauden baliabide ekonomiko-finantzarioak. Gainera, sistema osoak bat egiten du Administrazio Kontseiluak finkatutako arrisku-profilarekin.

Arriskuen gestio-sistemaren aplikazioa erraztearren, arriskuen funtzio independentea eratu du Seguros Lagun Arok. Horren zeregina da, besteak beste, entitatearen arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioa gidatzea, hori funtsezko prozesua baita arriskuen gestio-sistemarentzat. Horrez gain, Administrazio Kontseiluak onartutako Arriskuen Gestio Politika dago indarrean, arriskuen gestio-sistemaren irismena eta helburuak zehazteko eta sistemaren xede diren arriskuak identifikatzeko. Seguros Lagun Arok aseguruen sektoreko jardunbiderik onenak hartzen ditu oinarri bere arriskuak sailkatzeko, araudiak finkatutako eskakizun eta gomendioekin bat.

Arriskuen Gestioa arearen zeregin eta funtzio nagusiak eta sistemaren azken arduradunak zehazten ditu, besteak beste, Arriskuen Gestio Politikak. Seguros Lagun Aron, enpresaren antolamendu-egituran eta erabakiak hartzeko prozesuan integratuta dago arriskuen gestio-sistema, eta kontuan hartzen ditu enpresa zuzentzen duten eta gobernu-sistemaren funtzioak betetzen dituzten pertsonak. Hauek dira arriskuen gestio-sistemaren arduradunak, zereginen segregazio-printzipioa betez: arriskuen gestioko unitatea, produktuaren zuzendaritza teknikoa, inbertsioen zuzendaritza teknikoa eta berraseguruen area. Barne Ikuskaritzaren arearen ardura da berrikuspen independentea egitea. Administrazio Kontseiluak eta Zuzendaritza Batzordeak osatzen duten goi-zuzendaritza da sistemaren azken arduraduna.

Entitateak hainbat eginkizun ditu:

### Arriskuen gestioko eginkizunak

- ✓ Arriskuak neurtzeko eta ebaluatzeko erabili beharreko metodologiak eta adierazleak zehaztea, eta haiek ezartzen laguntzea.
- ✓ Area teknikoekin lankidetzan aritzea, arriskuak zein diren eta zer ezaugarri dituzten jakiteko, eta entitatearen arrisku-matrizea egitea.
- ✓ Etorkizuneko agertokiek eta estres-egoerek entitatearen mailan eta kaudimenean duten eraginari buruzko ebaluazioak egitea aldizka.
- ✓ Departamentu teknikoei harpidetza-arriskua neurtzeko eta ebaluatzeko metodologia eta ereduak aplikatzen laguntzea.
- ✓ Aktiboen eta pasiboen arteko egiturazko korrespondentziarik eza ebaluatzea.
- ✓ Arriskua kuantifikatzeko erabilitako informazioa egokia ote den eta osorik ote dagoen ebaluatzea.
- ✓ Produktu berriak onartzeko prozesuetan aktiboki parte hartzea.
- ✓ Entitatearen arriskuen eta kaudimenaren barne-ebaluazioaren prozesua gidatzea, eta dagokion txostena egiteko ardura izatea.

### Araudia betearazteko eginkizunak

- ✓ Araudia ez betetzearen arriskua zehaztea eta ebaluatzea, eta arau-arriskuen mapa eguneratuta izatea.

- ✓ Produktu, zerbitzu eta merkatu berriei buruzko aholkularitza ematea, araudiaren ikuspuntutik.
- ✓ Araudia Betearazteko Plana egiten, koordinatzen eta gauzatzen dela egiaztatzea.
- ✓ Langileei araudia betearazteari buruzko etengabeko prestakuntza ematea.

Barne-ikuskaritzako eginkizunak Barne-kontroleko sistema eta gobernu-sistemako elementuak egokiak eta eraginkorrak direla egiaztatzea.

Eginkizun aktuarialak
- ✓ Hornidura teknikoen kalkulua koordinatzea eta berrikustea.
- ✓ Entitate bakoitzaren harpidetza-estrategiari buruzko iritzia ematea.
- ✓ Berraseguru-akordioei eta atxikipen-estrategiari buruzko iritzia ematea.
- ✓ Arriskuen gestio-sistema eraginkortasunez aplikatzen laguntzea.

Aurreko eginkizun bakoitzerako, entitateko zuzendaritza- eta gobernu-organoak onartutako idatzizko politikak daude. Politika horietan, eginkizunak eta erantzukizunak zehazten dira besteak beste, behar bezala banatuta eta eginkizunak argi eta garbi bereizita, kaudimenari buruzko egungo II. araudian independentziaren inguruan ezarritakoaren arabera.

## 1.9. Gobernu-organoen garapena

Aurreko txostenetan, organoek jasangarritasunaren arloan duten gaitasuna aipatzen da.

2021ean, LABORAL Kutxako gobernu-organoko (Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko) kideek Aseguruen Negozioko Programa Aurreratuan hartu dute parte. Aseguruen negozioko prestakuntza-programa oso bat da, ezagutzak eskaintzen dituena, besteak beste, aseguru-sektorearen azterketan eta joeretan, produktuen portfolioan eta finantza-alderdietan —balantzea, emaitza-kontua, kaudimena, kapital-betebeharrak eta IFRS17—. Aseguruen negozioaren alorreko guztia jorratzen du. 6 saiotan garatu da, eta 36 orduko iraupena du guztira.

## 1.10. Gobernu-organoen ordainketa

LABORAL Kutxako Kontseilu Errektoreko eta Lagun Aroko Administrazio Kontseiluko kideek ez dute ezer jasotzen zeregin hori betetzeagatik. Hortaz, ez dago loturarik ordainketaren eta entitatean egiten duten lanaren artean. Taula honetako datuak Zuzendaritza Kontseiluko kideek eta adierazten diren ekitaldietan Kontseilu Errektoreko lehendakariak eta kide diren lan-bazkideek —17 lagun 2021ean eta 16 2020an— jaso dituzten ordainsariei buruzkoak dira.

| LK kontzeptua (mila eurokotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Egindako lanaren ordainsari osoa | 1.822 | 1.976 |
| Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak + ekarpenaren interesak | 217 | 217 |
| Guztira | 2.039 | 2.193 |
| Pertsona bakoitzeko batez besteko ordainsaria | 127,4 | 129 |

| Lagun Aro kontzeptua (mila eurokotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Egindako lanaren ordainsari osoa | 471 | 482 |
| Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak + ekarpenaren interesak | 5 | 6,1 |
| Guztira | 476 | 488,1 |
| Pertsona bakoitzeko batez besteko ordainsaria * | 95,2 | 97,62 |

* 5 gizon eta 2 emakume 2021ean eta 2020an.

## 1.11. Ustelkeria eta eroskeria

LABORAL Kutxak *Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika* du, bai eta hainbat jokabide-kode eta -erregelamendu ere, besteak beste:

- Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea
- Jardunbide egokien eta sekretu profesionalaren gida
- Balore-merkatuko Jokabideen Barne Araudia

Antolamenduari begira, *Etika Batzordea*, *Barne Ikuskaritzako* departamentua eta *Araudia Betearazteko* departamentua ere sortu ditu, irregulartasunak saihestu eta arau eta prozedurok betetzen diren jagoteko.

### Jokabide-araudiak eta -kodeak

LABORAL Kutxak jokabide-arau batzuetan funtsatuta arautzen du pertsonen jarduera. Jokabide-arau edo -jarraibide horiek Balore-merkaturako Jokabideen Barne Araudian daude jasota, eta Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideei nahiz jarduera-eremu horretan inplikaturikoei ezartzen zaie.

Etikaren eta osotasunaren alorrean, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean eta Jardunbide egokien eta sekretu profesionalaren gidan daude jasota entitatearen arauak. Bi dokumentuok intranetean argitaratuta daude, eta, hurrenez hurren, Araudia Betearazteko Departamentuaren eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ardura da horiek berrikusi eta eguneratzea.

Kode Etikoaren garapen gisa, entitatean egon litezkeen jokabide kriminalei aurrea hartzeko eta erantzuteko esparruan, barne-arauak Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikan jasota daude barneko arauak.

Salaketen Kanala dago, Kode Etikoari eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikari lotutako garrantzi handiko irregulartasunak jakinarazteko. Gainera, Etika Batzordea ere badago, zigor-arloko prebentzio-organo gisa, entitatean jokabide etikoa sustatzeko; batzordeak gai horren inguruko kontsultak ebatzi eta Salaketen Kanalean jasotako salaketak bideratzen ditu.

### Aztertutako negozio-unitateak

Ondoren, ustelkeriaren inguruko arriskuen harira aztertu diren LABORAL Kutxako negozio-unitateak aurkeztuko ditugu:

| | 2020 | | 2021 | |
|---|---|---|---|---|
| | Egind. | Helb. | Egind. | Helb. |
| Aztertutako bulego guztiak | 96 | 92 | 91 | 96 |
| Aztertutako bulegoen %-a | % 32 | % 31 | % 32 | % 33 |

Esan beharra dago ezarritako urrutiko ikuskaritza-kontrolek entitatearen bulegoen % 100ean dutela eragina.

Ustelkeriari lotutako gertaerei erantzuteko hartutako neurriei dagokienez, ez da kasurik izan 2021ean.
2021ean eguneratu egin dira Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua eta Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika.

2021ean, PricewaterhouseCoopers Auditores SLren zerbitzu profesionalak kontratatu dira, 2021-2023 aldirako kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen alorrean kanpoko adituaren txostena prestatzeko, 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen arabera.

Hobekuntzen plan zuzentzailea onartu da, entitatearen kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko (KZTFA) sistema berrikusi ondoren Espainiako Bankuak egindako ikuskapenaren ondorioen idazkia dela eta. Aurreko ekitaldian, hobekuntza-ekintza hauek egin dira:

| 2021ean gauzatutako ekintzak |
|---|
| Talderako gobernantza berria zehaztu da KZTFAren inguruan. Horri dagokionez, Kontseilu Errektoreko kide bat izendatu da Sepblacen aurrean entitatearen ordezkari izateko, Taldean Barne Kontroleko Organo bat eratu da eta goi-zuzendaritzak KZTFAren arloan dituen funtzioak berrikusi dira, baita KZTFAko eta Barne Auditoretzako unitateei dagozkienak ere. |
| Taldeko KZTFA gaietarako Prestakuntza Politika onartu da, eta 2022-2024 epealdirako Urteko Prestakuntza Plana diseinatu da. |
| Arriskuak ebaluatzeko metodologia berrikusi da, KZTFAren arloko arriskuak identifikatu eta kuantifikatzeko. |

Kapitalak Zuritzeari Aurrea Hartzeko Unitateak kapitalak zuritzeko eragiketa susmagarrien 27 komunikazio bidali dizkio Kapital Zuritzearen eta Arau-hauste Monetarioen Prebentzio Batzordearen Zerbitzu Exekutiboari.

**Seguros Lagun Aro**n, bulego guztietan egiten dira *barne-ikuskaritzak*, bai CLBS kanalean eta bai Bitartekaritza Kanalean, araudiak edo administrazio-prozedurak harpidetzeak eta betetzeak berez dakartzan arriskuak eta horien dokumentu-gestioa ikuskatzeko, urteko zein eguneko ikuskaritzetarako ezarritako arrisku-populazioen alertetan eta analisietan oinarrituta.

Lagun Arori dagokionez:

**AUTOERREGULAZIORAKO SEKTOREKO GIDEI ATXIKI GATZAIZKIE GEURE BORONDATEZ.**

Enpresa-bikaintasunarekin eta korporazioko jardunbiderik onenekin konprometituta gaudenez, UNESPAk bultzatutako gida hauei lotu gatzaizkie, erakunde horren gomendioei jarraikiz:

- gobernu korporatiboaren jardunbide egokien gida
- barne-kontroleko jardunbide egokien gida
- merkaturatzeko jardunbide egokien gida
- erreklamazioak ebazteko jardunbide egokien gida

Era berean, ADECOSEk bultzatzen duen Ezbeharrak Kudeatzeko Jardunbide Egokien Kodeari ere atxiki zaio konpainia.

## 1.12. Kapitalak zuritzea

LABORAL Kutxako gestio-politiketan, *kapitalak zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa* dira ustelkeriaren eta eroskeriaren esparruetako arriskurik handienak. Ildo horretan, konpromisoa hartu du indarrean dagoen araudiaren eta nazioarteko estandarren arabera beharrezkoak diren organoak eta prozedurak ezartzeko. Helburu horrekin:

- Entitatearen erakunde-egituran, *Barneko Kontrol Organoa (BKOa)* sortu da *Taldean*. Eginkizun espezifikoak izango ditu prebentzioaren arloan.
- Gainera, arau eta prozedura zehatzak finkatu dira eta *Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko eskuliburua* izeneko txostenean jaso (2020-07-29an onartu zen azken bertsioa).

LABORAL Kutxaren talde osoari eragiten dio politika horrek, baita sozietate filialei ere.

Hauek dira nahitaez bete beharreko arau eta prozedura horien xedeak:

- Une bakoitzean indarrean dagoen araudia eta nazioko nahiz nazioarteko erakunde eta agintariek emandako gomendioak zorroztasun osoz betetzea.
- Jokabide-arau eta kontrol- eta komunikazio-sistema egokiak ezartzea, delituzko jatorria duten funtsak LABORAL Kutxa taldearen bitartez bidera ez daitezen eta zenbait pertsonari sarbidea eragozteko.
- Bezeroak onartzeari buruzko politikak finkatzea.
- Laneko bazkideek eta gainerako langileek *bezeroa ezagutzeko* politikaren alorreko prozedurak betetzen dituztela bermatzea.

Prebentzioa da, batez ere, politika eta prozedura horien burubidea. Gainera, kanpoko aditu batek urtero ebaluatzen ditu barne-kontroleko prozedurak, kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko arrisku horiekiko esposizioa murrizteko prozesuetan etengabeko hobekuntzaren logika aplikatzeko.

## 1.13. Araudia Betearaztea

Araudia Betearazteko Departamentuak merkatu-abusua izateko susmagarri diren eragiketen detekzioa sartu du bere gestio-eremuen barruan. 2021ean amaitu zen kanpoko aholkularitza-enpresa baten laguntzarekin alerta-sistema berrikusteko eta eguneratzeko prozesua. Berrikuspen horren ondorioz, guztira 23 alerta garatu dira, eta horien lehen aplikazioa ekitaldi horretako ekainaren 1ean hasi zen. 2021ean, 1.900 alarma erregistratu dira, aurreko urteetan baino askoz gehiago, bai alerta-sistema berriari esker, bai sistema berriaren akats batzuk doitzen ziren bitartean denbora batez aurreko sistema erabili behar izan delako. Aztertutako alarma guztien artean, bi jakinarazpen egin zitzaizkion CNMVri, informazio pribilegiatua erabiltzearen ondoriozko eragiketa susmagarri posible bati buruz.

# 2. Gestio arduratsua



## 2.1. Gestio-ikuspegia

Oinarrizko jardunbide hauen arabera jorratzen dugu gure interes-talde nagusiekiko harremana:

Banku-jarduera funtsean bezeroei zerbitzua eman eta haiekin harremanak izateko jarduera dela kontuan hartuta, gure materialtasun-matrizean garrantzirik handieneko alderditzat jo dira *bezeroen gestio arduratsua* —batez ere aurrezki-produktu konplexuen salmentari dagokionez—, *zerbitzuaren kalitatearen bikaintasuna* eta *bezeroekiko harremanak*. Alderdi horietan guztietan, gure lehiakideen aldean abantaila iraunkorrak eskaintzea da LABORAL Kutxaren jarrera.
Zehazki, entitate lehiakideekin egindako konparaziotik ateratako datuek, oro har, gure aldeko diferentzialak erakusten dituzte, batez ere harremanetako alderdi garrantzitsuetan: informazioaren *gardentasunean eta argitasunean*, bezeroengan sortzen dugun *konfiantzan* eta, oro har, gure entitateak gizartearekin hartzen duen *konpromisoan*.
3.1. Bezeroekiko harremanak puntuan, alderdi horietan egindako esku-hartzeak zehazten dira, barne harturik egoera arazotsuei eta gizarte-eragin handikoei irtenbidea emateko egiten dugun gardentasun-ahalegina. Egoera horietako batzuk dira, adibidez, bezeroak etxebizitza erosteko *gehiegi zorpetzea* eta hipoteka-maileguen interesetan aplikatutako *zoru-klausulak* hain zuzen ere gardentasunik ezagatik baliogabetzeko eskaerak.

Pertsonen ikuspegitik, LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiba denez, langileak enpresako bazkideak eta jabeak dira, eta erabateko eskubideak eta betebeharrak dituzte bai euren lanbide-eginkizunak betetzeari, bai enpresaren gestioan —dagozkien organoen bitartez— zein emaitzetan parte hartzeko eskubideari dagokienez. Beste enpresa batzuekin dugun ezberdintasun hori enpresaren barruko harremanetan ere islatzen da; izan ere, langileek 3 arloetan hartzen dute parte, hala nola jabetzan, emaitzetan eta gestio-metodoetan, gestio demokratikoa eta arduratsua egitea baita gure helburua. Hala, erabakirik funtsezkoenak Batzar Nagusian onesten ditugu, eta bazkide guzti-guztiek hartzen dute parte bertan, mozkinak lortzen eta horiek gure gizartean inbertitzen lagunduko digun gestio eraginkorra eta arduratsua bermatzearren.

*Hezkuntza Kooperatiboko* prestakuntza-programek, bazkideen identitate kooperatiboa indartzeaz gain, entitatean eta langile-taldean integratzen eta inplikatzen laguntzen diete bazkide berriei.

3.2. Plantillarekiko harremanak puntuan, ekimen horiek eta beste batzuk garatu dira sakonago.

Kreditu-kooperatibaren izaera juridikoak eraginda gizartearekin dugun konpromisoa da LABORAL Kutxaren beste bereizgarri bat. Izan ere, legez, gizarteari egindako ekarpen zuzenetara bideratu behar dute kreditu-kooperatibek urteko mozkin banagarrien % 10. Gure entitatearen kasuan, ehuneko hori askoz handiagoa da, % 25eraino heltzen baita.

LABORAL Kutxa Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso handia duen enpresa-talde baten barruan. Taldearen misioa da partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea, sozietateetako zuzeneko partaideentzat nahiz gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko.

LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du ekarpen solidarioen zati handi bat. Bestalde, bulegoak dituen lurraldeetako ekimenetara ere zuzentzen ditu atal berezi batzuk, bereziki jarduera zehatz batzuetara, hala nola *autoenplegua* eta *ekintzailetza* (Gaztenpresa izeneko fundazioaren bidez) sustatzera eta *euskara* babestera eta euskal kultura bultzatzera.

Mekanismo horiek 3.3. Gizartearekiko harremanak puntuan azaldu dira.

Ingurumenarekiko harremanak hobetzeko, ISO 14001 Arauarekin bat, 2001az geroztik *Ingurumena Gestionatzeko Sistema* erabiltzen du LABORAL Kutxak, Egoitza Nagusiko 3 eraikinetako jarduera guztietan. LABORAL Kutxak zerbitzu zentraletan gauzatzen dituen ingurumenaren alorreko jarduketarik gehienak gainerako lantokietara zabaltzen ditu, ziurtagiridun sistemaren barnean egon ez arren. Ziurtagiri hori berritu egin zen 2019an.

Ingurumena Gestionatzeko Sistema Ingurumen Batzordeak kudeatzen du, eta Aholkularitza Juridikoko, Barne Ikuskaritzako, Arriskuetako, Higiezinetako, Segurtasuneko eta Zerbitzu Orokorretako, eta Plangintzako eta Gestio Kontroleko kideek osatzen dute; azken horretako ordezkariak egiten ditu koordinatzaile-lanak. *Rioko Adierazpenaren* zuhurtziazko printzipioa ezarriz, jarduerak izan litzakeen inpaktuak hartzen dira aintzat, ingurumenari kalterik ez egiteko.

2019an, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak sortu eta sinatu zituzten bankuetako bat izan zen LABORAL Kutxa. Printzipio horiek jasangarritasunaren alor guztiak ukitzen badituzte ere, klima-krisiaren larritasun-egoera dela eta, gure jarduerak (kredituenak eta inbertsioenak) ingurumenean duen inpaktuari erreparatzen diote.

Mekanismo horiek 3.4. Ingurumenarekiko harremanak puntuan azaldu dira.

Hornitzaileen gestioaren ikuspegitik, gogorarazi beharrekoa da *hornikuntza-katearen* gestio egokiak duen garrantzia, jarduera arduratsuaren helburuak betetzekotan. Kontuan hartuta gure finantza-jardueraren ezaugarriak eta oso lurralde-eremu zehatzean dugula presentzia, enpresa horiekiko gestioan ez dugu arrisku nabarmenik. Halere, aurrerago ikusiko dugun moduan, LABORAL Kutxak hornitzaileen inguruko hainbat ekimen ditu martxan.

Hornitzaileen artean aipamen berezia merezi dute Lagun Aroko bitartekariek, aseguruen jardueran interes-talde nabarmenaren mailara iritsi dira eta. Taldean, ezaugarri bereziko hornitzailetzat jotzen dira.

Mekanismo horiek 3.5. Enpresa hornitzaileekiko harremanak puntuan azaldu dira.

## 2.2. Konpromisoak eta lorpenak

Segidan, LABORAL Kutxak EGEaren aurreko txostenetan bere egindako konpromisoak betez 2021ean gauzatu dituen jarduera nagusiak azalduko ditugu laburtuta, bai eta 2022rako helburuak ere. Jarduerok entitateak zehaztutako interes-taldeetan —ingurumena (I) barne hartuta— sailkatu dira; hona hemen taldeok: Pertsonak–Plantilla (P), Bezeroak (B), Gizartea (G) eta Enpresa hornitzaileak (H).

| EGEaren inguruko jarduerak | Ekintzaren / helburuaren egoera | Ezarritako gobernu-mekanismoak eta egiteko epea | Materialtasuna eta ukitutako interes-taldeak |
|---|---|---|---|
| **2021eko funtsezko proiektu eta ekintzak, eta aurreko urteetan egiteko gelditutakoak** | | | |
| Kaudimena eta likidezia indartzea | **Aribidean** | Lehentasun estrategikoa | Ertain-handia<br>P eta B |
| Digitalizazioa aprobetxatzea, paper-kontsumoa murrizteko eta bezeroekiko harreman multikanala sustatzeko | **Zati bat eginda** | Ardatz estrategikoa: digitalizazioa | Ertain-handia<br>G eta I |
| Zuzeneko arriskuen eta klima-aldaketaren alorreko trantsizioaren inpaktua aztertzea | **Hasita, 2022aren amaieran** | EGEaren Batzordea | Ertain-handia<br>G eta I |
| Bezeroekiko harremanen gestioan bikaintasun-posizioei eustea | **Aribidean** | Kalitate integralerako prozesua | Ertain-handia<br>B |
| Enpresak sortzeari eta finkatzeari laguntzea, MONDRAGONen bidez | **Aribidean** | Funtsak, KFSaren eta HSFaren bidez 2019 | Ertaina<br>G eta B |
| Green MiFID | **2022ra atzeratuta** | 2020ko Gestio Plana | Ertaina<br>B eta I |
| Finantza jasangarrien estrategia ezartzea. Horretarako, egoera-azterketa egitea, ibilbide-orria diseinatzea eta ezartzen hastea | **Eginda** | Zuzendaritza<br>EGEaren Batzordea | Handia<br>B, G eta I |
| Lan-arriskuen prebentzio-sistemarako ISO 45001 ziurtapena lortzea | **Eginda** | Segurtasun eta Osasun Batzordea | Ertaina<br>P eta G |
| 2088/2019 Erregelamenduaren informazio ez-finantzarioaren dibulgazio-eskakizunak betetzea | **Eginda** | Negozio Garapenaren Area Gestorea | Handia<br>B, I eta G |
| Arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea. | **2022ra atzeratuta** | Segurtasun eta Osasun Batzordea | Ertaina<br>P |
| Outsourcing-proiektua garatzea | **Eginda** | Antolamendua | Ertaina<br>P |
| Zirbersegurtasuna etengabe hobetzea | **Aribidean** | Segurtasuna | Handia<br>B |
| Langileentzako mugikortasun iraunkorrerako neurriak ezartzea | **Eginda** | Ingurumen Batzordea | Ertaina<br>I eta P |
| **2020-2022rako helburu estrategikoen egoera** | | | |
| Entitatearen estrategian jasangarritasun-irizpideak txertatzea | **Eginda** | Zuzendaritza Batzordea | Ertaina<br>G, B, I eta P |
| Epealdiaren amaieran, emakumeek LABORAL Kutxaren zuzendaritza-postuen heren bat beteko dute | **2020an gaindituta** | Berdintasun Batzordea | Ertaina<br>P eta G |
| Gizonen eta emakumeen batez besteko lan-indizeen arteko aldea (antzinatasuna barne hartuta) % 10etik beherakoa izango da | **2021ean % 12,2koa** | Berdintasun Batzordea | Ertaina<br>P eta G |
| LABORAL Kutxak atmosferara egiten duen CO2 isurpena % 75 murriztea, gure karbono-aztarna minimizatzeko | **2021ean % 76,2koa** | Ingurumen Batzordea | Ertaina<br>I |
| Inbertsio gizartearekiko arduratsuari | **Abian** | Negozio | Ertain-handia |

| | | | |
|---|---|---|---|
| lotutako irizpideak aplikatzea Gestoreak eta Altxortegiak gestionatutako aktiboen % 100ean eta arriskuak ematean | | Garapenaren Area Altxortegia Gestorea Arriskuak | B, G eta I |
| Paper-kontsumoa % 30 murriztea, gure jardueran erabiltzen dugun baliabide nagusia baita | **2021ean –% 11,02koa** | Ingurumen Batzordea | Ertaina I |
| 2.000 pertsonaren autoenplegua sustatzea, 1.200 negozio-ideia gauzatzen lagunduz, abian jartzen direnetik finkatu arte, finantzaketa eta negozio-plana barne hartuta | **Ez da 400eko urteko helburua lortu (278)** | Gaztenpresa Fundazioa | Ertain-handia G eta B |
| Finantzaketa-produktu berde bat garatzea | **2022an osatuko da eskaintza** | Negozio Garapenaren Area | Ertaina I eta B |
| Gure irabazietatik 75 milioi € (metatuak) gizartera bideratzea | **Ez da urteko helburua lortu (25 M€), COVID-19a dela eta** | Zuzendaritza Batzordea | Ertain-handia G |
| Gure enpresa hornitzaileei egiten dizkiegun erosketen % 40 gertuko enpresei egitea | **2021ean eginda (% 43)** | EGEaren Batzordea | Ertaina P eta G |
| **EGEaren inguruko jarduerak. 2022rako oinarrizko proiektu eta ekintzak** | | | |
| Gobernantza eta jasangarritasun-esparrua ezartzea | Batzordea, lantaldea eta jarraipenak. Politika, plan zuzentzailea eta gestio-plana | Jasangarritasun Batzordea eta Bulegoa | Handia G, P, B eta I |
| Zerbitzu Zentraletako LK3 eraikinaren birgaitze energetiko integrala abiaraztea | Ingurumen-hobekuntza, kontsumoak eta isurtzeak murriztuz | Ibilgetua | Ertaina I |
| Datu-baseak sortzea eta klima-arriskuak txertatzea | Bezeroen eta inbertsioen datuak lortzea | Arriskuak | Ertaina B eta I |
| Produktu jasangarrien eskaintza garatzea | Inbertsioa eta finantzaketa | Negozio Garapenaren Area | Ertaina B eta I |
| Mugikortasun-plana diseinatzea | Analisia eta ezarpena | Jasangarritasun Bulegoa | Ertaina P eta I |
| Jasangarritasunaren alorreko prestakuntza-premiak aztertzea | Orokorrak, Zuzendaritza/KE eta esparru bereziak | Gestio Soziala | Ertaina P |
| Bulego jasangarriaren eredu berria | Ingurumen- eta gizarte-jasangarritasuna | Ibilgetua | Ertaina G, B eta I |

## 2.3. EGEaren ibilbide-orria

▪

Interes-taldeetan egindako hausnarketaren eta kontsultaren ondorioz —ikusi materialtasun-analisia—, EGEaren ibilbide-orria zehaztu da. Bertan, garrantzitsuenen artean sailkatutako arrisku eta aukerak jaso dira, eta LABORAL Kutxak erreferentzia moduan erabiltzen du gizarte-erantzukizunaren alorreko jarduerak lehenesteko.

| | Jarduketa-eremuen lehenespena | Interes-taldea / esparrua |
|---|---|---|
| 1 | Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea | Bezeroak |
| 2 | Gestio arduratsua: produktuak argitasunez eta gardentasunez azaltzea; gehiegizko zorpetzea, gainasegurua edo infraasegurua saihestea… | Bezeroak |
| 3 | LABORAL Kutxaren sendotasun finantzarioa, arriskuen gestioa eta likidezia indartzea | Ekonomia |
| 4 | Digitalizazioa (banku elektronikoa, banka mugikorra, ezbehar digitala…) garatzea, eta bezeroei ahalbidetzea beren kontu eta aseguruak modu pertsonalizatuan eta urrunetik gestionatzea | Bezeroak<br>Ingurumena |
| 5 | Krisialdietan gizarteari eta ekonomiari laguntzea | Gizartea |
| 6 | EGEari lotutako neurriak: Kode Etikoa, iruzurraren aurkakoak; kapitalak zuritzearen aurkakoak; armagintzara, jokora, pornografiara… doan finantzaketa kontrolatzekoak… | Gizartea |
| 7 | Zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna: adeitasuna, eragiketak azkar eta erraz egin ahal izatea, hutsegiteak ahalik eta gehien txikitzea… | Bezeroak |
| 8 | Enpresa-ehunaren garapen ekonomikoan eta finantzarioan laguntzea: finantzaketa-hitzarmenak enpresekin, ekintzaileei laguntzea… | Bezeroak<br>Gizartea |
| 9 | Pertsonen osasuna babestea, bai gure langileena, bai bezeroena eta bai gizarte osoarena | Bezeroak<br>Pertsonak |
| 10 | Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea | Gizartea<br>Pertsonak |
| 11 | Gure hornitzaileen gestio jasangarria: tokiko hornitzaileak, ordaintzen ez atzeratzea eta, prezioaz gain, erosketa arduratsuko irizpideak erabiltzea | Hornitzaileak<br>Gizartea |
| 12 | Kostuen/interesen/primen eta horien ordainetan emandako produktuen/zerbitzuen/prestazioen arteko oreka justua | Bezeroak |
| 13 | Kooperatibei, MONDRAGONeko ikerketa- eta hezkuntza-zentroei eta gizarte-ekonomiari laguntzea | Gizartea |
| 14 | Gure plantillaren gestioa: kontziliazioa, soldata-maila eta -tarteak, enpresa osasuntsua… | Pertsonak |
| 15 | Produktu eta zerbitzu gizartearekiko eta ingurumenarekiko arduratsuak | Bezeroak<br>Gizartea<br>Ingurumena |
| 16 | Ingurumenaren gestioa: berotegi-efektuko gasen isurtzeak (karbono-aztarna) murriztea, kontsumoak eta hondakinak txikitzea, gaikako bilketa… | Ingurumena |
| 17 | Gure hornitzaileen jarduera arduratsua kontrolatzea: lan-baldintzak, laneko arriskuak, administrazioekiko ordainketak eta betebeharrak… | Hornitzaileak<br>Gizartea |
| 18 | Ordaindu gabeko zorrak berreskuratzeko eta birfinantzatzeko malgutasuna | Bezeroak |

## 2.4. LABORAL Kutxaren EGEaren inguruko aginte-taula

LABORAL Kutxaren aginte-taulak ahalbidetzen du ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntuetatik erakundeko funtsezko adierazleen ikuspegi orokorra izatea.

### Jarduera ekonomikoaren adierazleak (datu bateratuak):

| Adierazleak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Zerga ondorengo emaitzak (M€-kotan) | 79.685 | 101.432,6 |
| Efizientzia-indizea (%-tan) (1) | 57,79 | 61,06 |
| Bezeroen gordailuak (M€-kotan) | 22.984 | 23.500 |
| Bezeroei emandako kreditua (M€-kotan) | 14.459 | 15.158 |
| Kaudimena (%-tan) (2) | 21,2 | 21,81 |
| Funts bereziak (M€-kotan) | 931 | 887 |
| Inbertsioen gaineko zalantzazko arriskuen %-a | 3,15 | 3,00 |

(1) Efizientzia-indizea: Administrazio-gastuak + Amortizazioak / Marjina gordina.

(2) Kapital-ratio osoa (CET1a) erabiltzen da.

## Gizarte-arloko jardueraren adierazleak:

| Alderdia/Adierazlea | 2020. urtea | 2021. urtea |
|---|---|---|
| ***Pertsonak*** | | |
| Jarduneko pertsonen kopurua (LK + CLBS) | 2.082 | 2.057 |
| ***Prestakuntza*** | | |
| Prestakuntza-orduak / plantilla osoa | 77,2 | 78,4 |
| Prestakuntzaren ebaluazioa (1-10) | 8,13 | 7,98 |
| ***Segurtasuna eta osasuna*** | | |
| Absentismoa %-tan | 4,23 | 3,45 |
| ***Garapen profesionala*** | | |
| Batez besteko lan-indizea | 2,37 | 2,36 |
| Sustapena: egiturazko indizearen hazkundea | 8,1 | 7,07 |

| Alderdia/Adierazlea | 2020. urtea | 2021. urtea |
|---|---|---|
| ***Soldaten dispertsioa*** | | |
| LKn ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / ordainsari oso medianoa | 4,64 | 4,76 |
| ***Berdintasuna*** | | |
| Emakume bazkideen %-a | % 50,68 | % 51,86 |
| Emakumezko zuzendarien %-a / zuzendari guztiak | % 34,5 | % 36,8 |

Ez da helbururik ezarri enplegu-dinamikaren eta emakumezko bazkideen %-an. Eta ez da eskualdeen arabera banakatu, gure esparru geografikoaren tamaina murritza dela eta.

| Alderdia/Adierazlea | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Funtsetarako (HSF eta KFS) ekarpenak (m€-kotan) | 9.653 | 8.531 |
| Ordaindutako zergak (m€-kotan) | 25.476 | 33.769 |
| Gaztenpresaren laguntzaz sortutako enpresak | 256 | 278 |

## Ingurumen-arloko jardueraren adierazleak:

| Kontsumoa | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Publizitaterako papera (kg/bezeroa) | 0,089 | 0,107 |
| Barruko papera (kg/bezeroa) | 0,206 | 0,219 |
| Ura ($m^3$-kotan) (2) | 8.200 | 6.363 |
| Elektrizitatea (kWh-tan) | 11.505.454 | 11.432.660 |
| Tonerra (kontsumitutako kg-tan) | 2.269 | 2.557 |
| Gasolioa (litrotan) | 621 | 695 |
| Kudeatutako hondakinak (kg-tan) (1) | 199.418 | 311.496 |

(1) Hondakinen % 100 kudeatzea da helburua. Bolumena urtero aldatzen da, inguruabarren arabera.
(2) Datu horretan, aurreko urteko azken hiruhilekoa eta urteko lehen 3 hiruhilekoak hartu dira kontuan.

## 2.5. Materialtasun-analisia

2014ko txostenean, LABORAL Kutxak zehatzago azaldu zuen entitateak zer prozesu burutu zuen interes-talde nagusien informazio-beharrizanak identifikatzeko aukera eman zion lehen materialtasun-matrizea eraikitzeko, eta haien eskaerak nola lehenetsi zituen.

Hurrengo urteetan, bildutako informazioa zabaltzeari esker, hobetu egin da entitatearekin harremana duten interes-taldeen beharrizanen eta itxaropenen interpretazioa. 2017an, 2019an eta 2020an, metodologia eta galde-sorta berrikusi egin dira, bai eta emaitzak lehiakideenekin alderatu eta interes-taldeen eskaeretara egokitu ere.

Txosten honen materialtasun-analisirako, berrikusitako galde-sortak erabili dira, eta informazio hau lortu da:

- Bezeroak (urtean behingo kontsulta): 74 enpresa, 423 autonomo eta mikroenpresa, 106 bezero banka pertsonalean eta 1.302 bezero KIDE/TOP segmentuan (lotuak); guztira **1.905**. Bezeroak LABORAL Kutxarenak eta Lagun Arorenak dira.
- 20 enpresa hornitzaile (bi urtean behingo kontsulta)
- 160 langile (bazkideak, behin-behinekoak eta CLBS; urtean behingo kontsulta).
- 14 erantzun, Mondragon taldeko kooperatibetako zuzendariengandik jasoak; hau da, jabe nahiz bezero direnenak.
- Kontsulta bat, Zuzendaritza Kontseiluko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideei egina. 12 erantzun.

## 2021eko materialtasun-matrizea

| Mater. | Alderdia |
|---|---|
| *HANDIA* | 14- Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea |
| | 6- Bezeroekiko gestio arduratsua: produktuak argitasunez eta gardentasunez azaltzea; gehiegizko zorpetzea, gainasegurua edo infraasegurua saihestea… |
| *ERTAIN-HANDIA* | 1- LABORAL Kutxaren sendotasun finantzarioa, arriskuen gestioa eta likidezia indartzea |
| | 8- Digitalizazioa (banku elektronikoa, Banka Mugikorra, ezbehar digitala…) garatzea, eta bezeroei ahalbidetzea beren kontu eta aseguruak modu pertsonalizatuan eta urrunetik gestionatzea |
| | 3- Krisialdietan gizarteari eta ekonomiari laguntzea |
| | 11- EGEari eta kontrolari lotutako neurriak: Kode Etikoa, iruzurraren aurkakoak; kapitalak zuritzearen aurkakoak; armagintzara, jokora, pornografiara… doan finantzaketa kontrolatzekoak… |
| | 7- Zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna: adeitasuna, eragiketak azkar eta erraz egin ahal izatea, hutsegiteak ahalik eta gehien txikitzea… |
| *ERTAINA* | 4- Enpresa-ehunaren garapen ekonomikoan eta finantzarioan laguntzea: finantzaketa-hitzarmenak enpresekin, ekintzaileei laguntzea… |
| | 24- Pertsonen osasuna babestea, bai gure langileena, bai bezeroena eta bai gizarte osoarena |
| | 17- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea |
| | 22- Gure hornitzaileen gestio jasangarria: tokiko hornitzaileak, ordaintzen ez atzeratzea eta, prezioaz gain, erosketa arduratsuko irizpideak erabiltzea |
| | 15- Kostuen/interesen/primen eta horien ordainetan emandako produktuen/zerbitzuen/prestazioen arteko oreka justua |
| | 2- Kooperatibei, MONDRAGONeko ikerketa- eta hezkuntza-zentroei eta gizarte-ekonomiari laguntzea |
| | 13- Gure plantillaren gestioa: kontziliazioa, soldata-mailak eta -tarteak, enpresa osasuntsua… |
| | 12- Produktu eta zerbitzu gizartearekiko eta ingurumenarekiko arduratsuak |
| | 16- Ingurumenaren gestioa: berotegi-efektuko gasen isurtzeak (karbono-aztarna) murriztea, kontsumoak eta hondakinak txikitzea, gaikako bilketa… |
| | 21- Gure hornitzaileen jarduera arduratsua kontrolatzea: lan-baldintzak, laneko arriskuak, administrazioekiko ordainketak eta betebeharrak… |
| | 23- Zenbait ekimenekin bat egitea eta horiei laguntzea: Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) eta Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak, adibidez |
| | 20- Ordaindu gabeko zorrak berreskuratzeko eta birfinantzatzeko malgutasuna |
| *ERTAIN-TXIKIA* | 18- Gizarte-ekintza: babesletzak, GKE-entzako ekarpenak, gizarte-jarduerak, garapenerako lankidetza… |
| | 10- Ekonomia berde eta jasangarriranzko trantsizioa babestea eta sustatzea |
| | 19- Euskara eta euskal kultura sustatzea, eta barneko eta bezeroekiko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea |
| | 9- Bulegoetako presentziazko arretari eta zerbitzuari iraunaraztea, bereziki bazterketa finantzariorako arriskuan dauden taldeentzat |
| *TXIKIA* | 5- Bezeroen eta gizartearen finantzetako eta aseguruetako hezkuntzan laguntzea |




Materialtasun-analisiek denboran zehar izandako bilakaerari erreparatuta, joera hauek ikusten dira:

- Interes-taldeen eta LABORAL Kutxaren lehentasunak bat datoz, eta nabarmentzekoa da hori. Balioztatutako alderdien % 63 koadrante berean dago garrantziari dagokionez, eta handi-txikia/txiki-handia koadranteetan ez dago alderdirik.
- Emaitzak oso sendoak dira, eta denboran zehar alde txikia dago lehenetsitako alderdien eta materialtasun txikiagokotzat jotakoen artean.

## 2.6. Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak)

Munduko Itunaren printzipioetan urtean egindako aurrerapenaren deskargua egin izan du LABORAL Kutxak, urtero, hartutako konpromisoaren barruan. 2018az geroztik, Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJHen) inguruan egindako aurrerapenaren berri ere eman da deskargu horretan, eta, 2019an, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioen gainekoa gehitu zitzaion.

Txosten honen bigarren zatiko Konpromisoak eta lorpenak atalean, LABORAL Kutxak 2021ean landu dituen alderdi nagusiak jaso ditugu, bai eta horien aurrerapen-maila eta 2022rako helburu estrategiko eta espezifikoak ere. Horrenbestez, hurrengo taulan azalduko dugu alderdi horietako zein txertatzen den Mundu Itunaren Printzipioetan, Garapen Jasangarrirako Helburuetan eta Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioetan:

| Txostenaren helburuak eta erronkak | Mundu Ituna | GJHak | OP - Arduraduna |
|---|---|---|---|
| Bulegoen integrazioa egitea, herri txikiak finantza-zerbitzuetatik baztertu gabe efizientzia handitzeko | 1. printzipioa | 1., 3. eta 8. helb. | 1., 2., 3. eta 4. printz. |
| IV. Berdintasun Plana hedatzea | 1. eta 6. printz. | 5. helburua | 1. eta 4. printz. |
| Digitalizazioa aprobetxatzea, paper-kontsumoa murrizteko eta urruneko harreman pertsonalizaturako | 9. printzipioa | 13. eta 15. helb. | 1., 2. eta 3. printz. |
| Zerbitzu-kalitatearen bikaintasunari iraunaraztea | 1. printzipioa | 8. helburua | 3. eta 6. printz. |
| Multikanalitatea garatzea bezeroarekiko harremanean, ordainbideetan eta zuzeneko merkaturatzean | 9. printzipioa | 8., 9. eta 12. helb. | 3. printzipioa |
| MONDRAGONen bidez enpresak sortzen eta daudenak sendotzen | 1., 3. eta 6. printz. | 5., 8., 9., 10. eta 16. | 1. eta 4. printz. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| laguntzea | | helb. | |
| Finantza-hezkuntza | 1. printzipioa | 4., 12. eta 17. helb. | 1., 3. eta 4. printz. |
| Mikrokreditu eta enpresa berritzaileetarako EIF berme-hitzarmenak eguneratzea | 1. printzipioa | 1., 5., 8., 9. eta 10. helb. | 1. eta 3. printz. |
| Plantillaren konpetentzia digitalak garatzea | Printzipioak | 4. helburua | 4. printzipioa |
| Green MiFIDa ezartzea | Printz.: denak | 13. eta 15. helb. | 2. eta 3. printz. |
| Zuzeneko arriskuen eta klima-aldaketaren alorreko trantsizioaren inpaktua aztertzea | 7., 8. eta 9. printz. | 13. eta 14. helb. | 2. printzipioa |
| Langileentzako mugikortasun iraunkorrerako neurriak ezartzea | 7., 8. eta 9. printz. | 3. eta 11. helburuak | 2. printzipioa |
| LK3 eraikinaren alderdi energetikoa goitik behera birgaitzea | 9. printzipioa | 9. helburua | 2. printzipioa |
| Jasangarritasun-estrategia: gobernantza, arriskuen integrazioa, produktua, prestakuntza, datuak eta prestakuntza | Printzipioak: denak | Helburuak: denak | Printzipioak: denak |
| Arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea. | 1. printzipioa | 3. helburua | 4. printzipioa |
| Outsourcing-proiektua garatzea | 2. eta 10. printz. | 8. helburua | 2. printzipioa |
| Zirbersegurtasuna etengabe hobetzea | 10. printzipioa | 9. eta 16. helburuak | 2. printzipioa |
| Estrategian jasangarritasun-helburuak txertatzea | Printzipioak: denak | Helburuak: denak | 1. eta 5. printz. |
| Zuzendaritza-postuetan herena emakumeak izatea gutxienez | 1. eta 6. printz. | 5. eta 16. helburuak | 1. eta 4. printz. |
| Gizonen eta emakumeen batez besteko lan-indizeen arteko aldea (antzinatasuna barne hartuta) % 10etik beherakoa izango da | 1. eta 6. printz. | 5. eta 16. helburuak | 1. eta 4. printz. |
| Atmosferara egindako Co2 isurtzeak % 75 txikitzea | 7., 8. eta 9. printz. | 13. eta 15. helb. | 2. eta 5. printz. |
| Inbertsio gizartearekiko arduratsua (IGA) aplikatzea Gestoreak eta Altxortegiak gestionatutako aktiboen % 100ean eta arriskuak ematean | Printzipioak: denak | Helburuak: denak | Printzipioak: denak |
| Paperaren kontsumoa % 30 murriztea | 7., 8. eta 9. printz. | 6., 13. eta 15. helb. | 2. eta 5. printz. |
| 2.000 lagunen autoenplegua sustatzea, 1.200 negozio-ideia gauzatzen laguntzearen bidez | 1. printzipioa | 1., 8., 9. eta 16. helburuak | 2. eta 3. printz. |
| Finantzaketa-produktu berde bat garatzea | 7., 8. eta 9. printz. | 13. eta 15. helb. | 2. eta 3. printz. |
| Gure irabazietatik 75 milioi € (metatuak) gizartera bideratzea | 1. printzipioa | Helburuak: denak | 2. eta 4. printz. |
| Gure enpresa hornitzaileei egiten dizkiegun erosketen % 40 gertuko enpresei egitea | 7. printzipioa | 8. eta 12. helburuak | 2. eta 4. printz. |

## Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak): abian diren jarduerak

Segidan, laburtuta emango ditugu Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJHei) eta Nazio Batuen 2030 Agendari lotuta LABORAL Kutxa gauzatzen ari den ekintzak, txosten honetan azaldu ditugunak:

- **5. helburua - Genero-berdintasuna:** LKren IV. Berdintasun Plana, Plan Estrategikoko berdintasun-helburuak eta Sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa.
- **8. helburua - Lan duina eta hazkunde ekonomikoa:** Gaztenpresa, kontratazio-mahaia eta hornitzaileak kudeatzeko aplikazioa, Outsourcing proiektua, Zainduz osasun-plana, finantza-hezkuntza, mugikortasun iraunkorra, arrisku psikosozialen ebaluazioa.
- **9. helburua - Industria, berrikuntza eta azpiegitura:** digitalizazioko hainbat aurrerapauso, PDSI-2a, Mondragoni laguntzea, LK3 eraikinaren energia-alderdia berritzea, klima-aldaketaren arriskuak eta aukerak aztertzea, zibersegurtasuna.
- **10. helburua – Desberdintasunak murriztea:** Green MiFIDa, irabazia gizartean banatzea, inbertsio gizartearekiko arduratsua.
- **17. helburua - Helburuak lortzeko itunak:** marka-posizionamendua, EIF InnovFin eta EaSI Soziala hitzarmenak berritzea, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak.

# 3. Interes-taldeen gestioa



## 3.1. Bezeroekiko harremanak

### 3.1.1. Gestio-ikuspegia

Aurreko txostenetan, gestio arduratsuaren gestio-ikuspegian, LABORAL Kutxak bezeroekiko harremanean eta produktuen gaineko erantzukizunean darabilen politika jaso izan dugu. Arlo garrantzitsua da entitatearentzat, eta horregatik du berariazko area bat sortuta, ikuspegi hori aplikatzeko oinarrizko zereginarekin. Bezeroak honela daude sailkatuta: partikularrak, autonomoak, negozioak eta enpresak. Segmentu horietako bakoitza modu berezian kudeatzen da, eta bezero horien behar eta itxaropenen araberako eskaintza komertziala egiten da.

### 3.1.2. Bezeroen magnitude nagusiak

Ondorengo taulan LABORAL Kutxako bezeroen bilakaera ikus daiteke. Esan beharra dago urtean behin araztu egiten dela datu-basea eta aktiboak ez diren bezeroei baja ematen zaiela.

| **Eremu geografikoa** | **Bezero-kopurua** | | **%** |
|---|---|---|---|
| | **2020** | **2021** | |
| Araba | 136.915 | 131.583 | % 11,68 |
| Aragoi, Katalunia eta Errioxa | 71.941 | 72.954 | % 6,48 |
| Asturias eta Kantabria | 33.061 | 34.033 | % 3,02 |
| Bizkaia | 347.745 | 350.038 | % 31,08 |
| Gaztela eta Leon | 124.124 | 127.991 | % 11,36 |
| Gipuzkoa | 259.053 | 260.495 | % 23,13 |
| Madril | 19.244 | 20.182 | % 1,79 |
| Nafarroa | 119.764 | 121.246 | % 10,76 |
| Egoitza Nagusia | 7.646 | 7.899 | % 0,70 |
| Gainerakoak* | 17.597 | - | - |
| **LABORAL Kutxa guztira** | **1.137.090** | **1.126.421** | **% 100** |
| Bezero partikularrak (%-a) | % 85,80 | % 85,73 | |
| Bezero autonomoak (%-a) | % 8,33 | % 8,29 | |
| Bezero negozioak (%-a) | % 3,36 | % 3,45 | |
| Bezero enpresak (%-a) | % 0,97 | % 0,94 | |
| Gainerakoak* | % 1,55 | % 1,60 | |

*Segmentatzen ez ziren jabekideen erkidegoak eta irabazi-asmorik gabeko elkarteak. 2021ean, lurralde bakoitzean sartu dira.

### 3.1.3. Bezeroekiko elkarrizketak

Aurreko urteetan bezala, 2021ean ere ahalegin handia egin dugu, elkarrizketen bidez bezeroek finantza- eta aseguru-produktuekiko dituzten itxaropenen eta eskaeren berri izateko eta, horrela, hobekuntza-ekintza berriak ezartzeko. Mekanismo horiek, gainera, *kalitate integraleko prozesu batean* txertatzen dira, zeinaren etengabeko helburua baita bezeroarekiko arretaren eta zerbitzuaren kalitatea lehiakideekiko abantaila izatea, harremanetarako erabiltzen ditugun kanal guztietan.

Bezeroei egindako inkesta-kopurua oso handia izan da:

- Barne-azterketa: 25.738 inkesta (bulego finantzarioan 13.698, kanaletan 9.715, aseguruetan 2.540)
- Stiga azterketa: bezeroen gogobetetasuna, 14.752 (LK-400); bezero ez direnak (mystery), 3.387 (LK-85)

Beste banku eta aseguru-entitate batzuekiko konparaziozko emaitzak aldekoak dira. Beheko taulotan txertatu ditugu adierazgarrienetako batzuk.

| Marka-irudiaren trackinga EAEn eta Nafarroan (2021)<br>(ezaugarri bakoitzean entitate nabarmenen artean gaudela dioen merkatuaren, egungo bezeroen eta bezero potentzialen %-a) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Hemengo entitatea, gizartearekin eta bertako garapenarekin konprometitua | % 35 | % 43 |
| Bezeroengandik hurbil dagoen entitatea | % 27 | % 32 |
| Gestio zintzoa eta arduratsua duen eta fidagarria den entitatea | % 18 | % 23 |
| Bere gain hartzen duena bere jarduerak ingurumenean eta gizartean duen inpaktuaren erantzukizuna | % 12 | % 15 |
| Gizartean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duen entitatea | - | % 13 |
| Aholkularitza profesionala eta pertsonalizatua | % 18 | % 25 |
| Bulegoen erabilgarritasuna | % 22 | % 24 |

Iturria: LABORAL Kutxaren marka-irudiari buruzko jarraipen-azterketa. EAE eta Nafarroa. Ikerfel

| Banku-sektoreko zerbitzu-kalitatearen benchmarkinga 2020an<br>(0tik 10era bitarteko puntuazioa) | 2020 | Sektorearekiko diferentziala 2020 | 2021 | Sektorearekiko diferentziala 2021 |
|---|---|---|---|---|
| Bezero potentzialei emandako arreta - Sektoreko Kalitate Objektiboaren Azterketa (EQUOS-Stiga) | 8,36 | 0,72 | 7,98 | 0,37 |
| Entitatearekiko gogobetetasun orokorra | 7,90 | 0,48 | 7,62 | 0,32 |
| Harremanetako ukiezinen balioztapena: gardentasuna, konfiantza eta pertsonalizazioa | 7,26 | 0,5 | 7,02 | 0,35 |
| Markako ukiezinen balioztapena: sendotasuna eta kaudimena, modernotasuna eta gizarte-konpromisoa | 7,84 | 0,39 | 7,66 | 0,30 |
| Bulegoarekiko gogobetetasuna | 8,36 | 0,44 | 8,25 | 0,41 |

Bezero gomendatzaileen posizioa nabarmentzen da: +% 10,4ko NPSa (sektorean 0,2koa).

NPSa. 9 edo 10 gomendio-asmoa duten bezeroen %-aren eta gomendio-asmoa =<6 dutenen arteko aldea.

| | AUTOA | | ETXEA | |
|---|---|---|---|---|
| Lagun Aro. Aseguruen sektoreko zerbitzu-kalitatearen benchmarkinga, ICEA, 2021eko abendua<br>Aseguruetako bezeroen gogobetetasuna (1etik 10era bitarteko puntuazioa) | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Erakundearekiko gogobetetasun orokorra | 7,91 | 7,85 | 7,51 | 7,39 |
| Aseguruen merkatua | 7,81 | 7,87 | 7,37 | 7,41 |

Iturria: Aseguruen sektoreko bezeroaren esperientziaren barometroa azterlana, ICEA.

Bezero gomendatzaileen posizioa nabarmentzen da: +% 24,3ko NPSa Autoan (sektorean % 16,8koa) eta +% 9,7ko NPSa Etxean (sektorean % 3,7koa).

NPSa. 9 edo 10 gomendio-asmoa duten bezeroen %-aren eta gomendio-asmoa =<6 dutenen arteko aldea.

Elkarrizketarako mekanismoetan eta bezeroen itxaropenetan oinarrituta, jasotako zerbitzuarekiko gogobetetasuna handitzeko hobekuntza-ekintzak zehazten dira.

LABORAL Kutxaren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak bezeroek aurkeztutako kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzuten die 1994az geroztik. Zerbitzuaren jardunak % 27,59 egin du gora aurreko urteko datuekin alderatuta, batez ere kexa eta erreklamazio gehiago aurkeztu direlako hipoteka-maileguak formalizatzeko gastuen inguruan.

Hona hemen zerbitzu horren emaitzak:

| Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Espedienteak guztira** | **9.470** | **12.083** |
| **Espedienteen izaera** | | |
| Kexak | 7.084 | 10.876 |
| Erreklamazioak | 2.341 | 1.079 |
| Kontsultak | 1 | 21 |
| Iradokizunak | 1 | 8 |
| Zorionak edo eskerrak emateko gutunak | 2 | 1 |
| Hainbat eskaera eta bestelakoak | 41 | 98 |

| Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Irekita dauden espedienteak** | **9.470** | **12.083** |
| Idatziak: liburuxka/gutuna | 7.087 | 8.900 |
| Internet/Telefonoa | 1.894 | 2.557 |
| Erakunde publikoak: KIUB/gobernu autonomikoak | 398 | 55 |
| Beste batzuk | 91 | 571 |

2020ko EGEaren Txostena egin ostean, azken urteetan ohikoa denez, komunikazio-jarduera jarri zen martxan, eta Txostenaren Laburpena bidali zitzaien loturarik handieneko bezeroei. Informazio horrekin batera, galde-sorta bat ere erantsi zen, nahi zuten bezeroek jasangarritasunari buruzko iritzia eman zezaten. Lau bidalketa ezberdin egin dira: enpresa bezeroei, bezero autonomo eta mikroenpresei, Banka Pertsonaleko bezero partikularrei eta KIDE/TOP bezero partikularrei. **615.902** bezerori bidali zaie guztira, eta, horietatik, % 25,6k irakurri du mezua.

1.896 erantzun jaso dira orotara. Ondoren, **elkarrizketa**-prozesu horretan eskuratutako **emaitza eta ondorio** nagusiak zehaztuko ditugu:

| Galde-sorta | Bidalketa-kopurua | Erantzun-kopurua | Jasangarritasun Txostenaren garrantziari emandako balioztapena | |
|---|---|---|---|---|
| | 2021 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Bezero enpresak | 7.466 | 65 | 7,9 | 7,1 |
| Bezero autonomoak eta mikroenpresak | 86.694 | 423 | 8,3 | 7,2 |
| Banka Pertsonaleko bezero partikularrak | 17.771 | 106 | 8,5 | 7,9 |
| KIDE/TOP segmentuko bezero partikularrak | 503.971 | 1.302 | 8,3 | 7,9 |
| **Guztira/batez bestekoa** | **615.902** | **1.896** | **8,3** | **7,7** |

### 3.1.4. Bezeroarekiko gestio arduratsua eta zerbitzu-kalitatearen bikaintasuna

Bezeroarekiko gestio arduratsua aurrezki-produktu konplexuak saltzean gauzatzen du LABORAL Kutxak. Zerbitzuaren kalitatearen bikaintasuna eta bezeroarekiko harremana dira gure materialtasun-matrizean garrantzirik handieneko alderdien artean identifikatutakoak.

- ✓ 2021ean, Higiezin Kredituko Kontratu Legearen (HKKLaren) araberako egiaztagiria lortzeko prozesuarekin jarraitu dugu, oraindik lortu gabe zeuden pertsonekin, batez ere sartu berriekin.
- ✓ Bezeroarekiko gestio arduratsuaren ildo horretan bertan eta enpresa-finantzaketa errazte aldera, azpimarragarria da EIBren (Europako Inbertsio Bankuaren) EIFrekin (European Investement Fundekin) dugun lankidetza. 2021ean, 3 hitzarmen egon dira indarrean. Horien bidez, LABORAL Kutxak onartutako arriskuaren zati bat bermatu du EIFk, eta,

horrela, hitzarmenetan sartutako enpresek prezio eta berme hobeetan lortu ahal izan dute finantzaketa. Hona hemen hitzarmenok:

- Europar Batasunaren Enpleguaren eta Gizarte Berrikuntzaren aldeko Programa (EaSI), ekintzaileei zuzendutako 50.000 €-rainoko mikrokredituen bidez enplegu-sorrera sustatzeko. 2023ra arte berritu da, 130 M€-ko kopuruarekin.
- InnovFin SME Guarantee Facility, ETE-etan eta kapitalizazio txiki eta ertaineko enpresetan berrikuntza bultzatzeko. 150 M€-ko zenbatekoarekin, 2019an sinatu zen azken berrikuntza (bi urterako), eta 2022aren amaierara arte luzatu da.
- Berariazko EaSI programa, gizarte-ekonomiako enpresak sustatzeko. 2020ko abenduan berritu zen beste 2 urte eta erdirako, eta 50 M€-ko kopurua hartzen du. Eragiketen zenbatekoa 1.000.000 €-raino irits daiteke.

✓ Erabateko Kalitatea Gestionatzeko Prozesua da ekimenik garrantzitsuena eta hauek hartzen ditu barne: bezeroarekiko harremanen gestioa (gardentasuna, adeitasuna, beharrak aztertzea eta entzute aktiboa, azalpenen argitasuna…) eta bezeroarentzako zerbitzua (kalitatea, pertsonalizazioa, akatsik ez izatea…). Entitatearen area guztiek hartzen dute parte prozesu horretan, eta asmoa da bikaintasuna lortzea kanpo-zerbitzua (bezeroenganakoa) nahiz barnekoa (Zerbitzu Zentralek euren barneko bezeroei, bulegoei emandakoa) neurtzen duten parametroetan.

✓ Aholkularitzaren eta harremanaren kalitaterako funtsezkoa da azkar egokitzea eraldaketa digital geldiezinera. Erabiltzaileak banka digitalaren munduan esperientzia egokia izan dezan, gestoreak eta bezeroak harreman pertsonalizatua izan behar dute elkarrekin, baina omnikanala. Helburu hori bilatzen du LABORAL Kutxak, bulegoetan *Onenak 4.0* proiektua zabalduta.

Informazioaren gardentasuna eta argitasuna

✓ LABORAL Kutxa Autocontrol elkarteko bazkidea da 2008ko uztailaren 29az geroztik. Elkarte horren helburua da prozesu ekonomikoan publizitatea tresna erabilgarria izatea, publizitate-etikarekiko eta kontsumitzaileen eskubideekiko errespetua zainduz eta interes pertsonalak albo batera utziz. 2021ean, LABORAL Kutxak kontsulta hauek egin dizkio Autocontroli:

| Aurretiazko aholkularitza | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Positiboak | 276 | 366 |
| Aldaketadunak | 152 | 148 |
| Negatiboak (iragarkia baztertzea aholkatu digute) | 0 | 1 |
| **GUZTIRA** | **428** | **515** |
| Kontsulta deontologikoak | 43 | 41 |

✓ Gure webgunean (laboralkutxa.eus) eta Lagun Aroren orrialdean eskuragarri dago produktu eta zerbitzu nagusiei buruzko informazioa, hala nola aurrezki-produktu, txartel, hipoteka, mailegu, plan, funts, aseguru eta zerbitzuei eta Online Bankari buruzkoa. Bestalde, sare sozialetarako —bloga, Facebook, Twitter, YouTube…— sarbidea ere eskaintzen dute.

Bezeroarekiko gestio arduratsuari lotutako beste alderdi bat gehiegizko zorpetzearen arazoa da. Materialtasun-matrizearen arabera, garrantzi handia du. Eragindako pertsonengan duten inpaktu handiagatik, baina aldi berean hedabideetan eta gizartean oihartzun handia duen

alderdi bati buruzko gardentasun-betebeharra betetzeko asmoz, bereziki hipotekak ordaintzeko arazoak dituzten bezeroekin egiten ditugun jarduketa zehatzak azalduko ditugu segidan.

Etxebizitza ordaintzeko arazoak dituzten bezeroekin banan-banan negoziatzeko politikaren barruan, LABORAL Kutxak 2012an sinatu zuen Jardunbide Egokien Kodea eskaintzen zaie (baldin eta baldintzak betetzen badituzte). *Jardunbide Egokien Kode* horrek bigarren aukerako mekanismoa, finantza-kargaren murrizketa eta gizartearen arloko bestelako neurriak biltzen ditu.

| Jardunbide Egokien Kodea | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Eskaerak | 29 | 44 |
| Ukatuak | 25 | 26 |
| Onartuak | 4 | 18 |

Onartutako 18 eragiketei Dekretuak xedatutako baldintzak ezarri zaizkie, zerga-onurak barne. 7 sinatu dira eta gainerakoak sinatzeko geratu dira.

Era berean, eskuragarri dauden 37 etxebizitzetatik, 35 Etxebizitzen Gizarte Funtsera bideratu dira.

Legearen eskakizunetako bat ez betetzeagatik kode hori aplikatzen ez zaien eragiketetan, LABORAL Kutxaren prozedurak eta protokoloak erabiltzen dira. Gure protokoloek, zorrak berregituratzeko aukeraz gain, ordainean emateko aukera ere jasotzen dute, hipotekatutako ondarearen balio-galera partekatzeko. Bestalde, lehengo jabeak etxebizitzan jarraitzeko hitzarmena ere aurreikusten dugu, epailearen ebazpenak etxebizitza LABORAL Kutxari eman arren.

Adostasunak asko izan badira ere, entitateak 64 etxebizitza eskuratu ditu (horietatik 34 ezohikoak), kasu batzuetan ordainean emateko akordioen bidez eta beste batzuetan epailearen erabakiz. Azken kasu horietako epai judizialaren ostean ere, bezeroek badute beren etxea izandakoaren botatze-exekuzioa etetea eskatzerik. 2021ean, exekuzioaren ondoren jabe izateari utzi dion pertsona bati aitortu zaio etxean jarraitzeko eskubidea.

### Erreklamazioak

2017ko urtarrilean, judizioz kanpoko prozedura bat arautu genuen etxebizitza erosteko hipoteka-kontratuetan zoru-klausulei lotutako erreklamazioak ebazteko. Izan ere, kontsumitzaileak babestearren, klausula horiek gehiegizkotzat eta, ondorioz, baliogabetzat jo ziren, ez edukiagatik beragatik, baizik eta gardentasun nahikorik gabe txertatuta zeudelako kontratuetan. Ondorioz, klausula horien eragina indargabetzeko judizioz kanpoko akordioak lortzeko bideak ezarri ziren, 1/2017 Errege Lege Dekretuaren bidez.

LABORAL Kutxak demanda judizialera jo aurretik erabil daitekeen borondatezko erreklamazio-sistema ezagutarazi zien bezeroei. Sistema osagarri horretara jo nahi izan ez duten bezeroek Bezeroentzako Arreta Zerbitzura jotzeko aukera izan dute; oso-oso gutxi izan dira, ordea.

Hona hemen jasotako erreklamazioen kopuru metatua:

| **Zoru-klausulen judizioz kanpoko erreklamazioak. 1/2017 Errege Lege Dekretua (ELD)** | **2020ko abenduan** | **2021eko abenduan** |
|---|---|---|
| - Baztertuak (ELDa ez da aplikagarria) | 1.140 | 1.145 |
| - Onartuak | 489 | 551 |
| - Ukatuak | 3.487 | 3.492 |
| - Kudeatzen ari direnak | 44 | 132 |
| **Sarrerak GUZTIRA** | 5.160 | 5.320 |

Hauxe izan da kontsumitzaileei erreklamazioa baztertzeko ia arrazoi bakarra: aurretik entitatearen eta beraien artean akordio bat lotuta izatea, entitateak zoru-klausula ezabatzeko eta bezeroek aurretik ordaindutako likidazioak erreklamatzeari uko egiteko. Azken urteotan, ez da aldatu erreklamazio-kopurua.

Beste alde batetik, 2021ean entitatearen aurka aurkeztutako demanda judizial masiboek arrazoi hauek izan dituzte nagusiki:

- Hipoteka-maileguen zoru-klausulen ondorio direnak: 73 izan dira (2020an, 75).
- Hipoteka-maileguak formalizatzean sortutako gastuen ondoriozkoak: 3.111 izan dira 2021ean, 2020ko 1.450ak baino nabarmen gehiago.

Sarritan, horien artean sartzen dira, gehienetan estrategia prozesalaren ondorioz eta batere eduki ekonomikorik gabe, beste klausula batzuk indargabetzeko eskaera, hala nola berandutze-interesena, posizio zordunak erreklamatzeagatiko komisioarena edo fidantzamenduarena.

Eroskiren eta Fagorren mendeko finantza-ekarpenei (MFE-ei) edo zor-jaulkipenei lotutako demandak, 2014tik 2016ra bitartean arazorik handiena zirenak, beheraka jarraitu dute, eta, aurrekoen aldean, hutsalak dira: 2 2021ean eta 8 2020an.
Azkenik, irekitze-komisioari lotutako 185 demanda jaso dira. Dagoeneko hutsalak dira IRPHagatik (1) eta 57/68 Legearen alorrean (1) jasotakoak.

### 3.1.5. Datuen eta eragiketen pribatutasuna eta segurtasuna babestea

#### Datu pertsonalak

Azken urteotan, LABORAL Kutxak indartu egin du datuak babesteko konpromisoa, eta zeharkako izaera ematen saiatu da, erakundearen erabakietan datuen babesa aintzat hartzen dela bermatzeko.

Horretarako, LABORAL Kutxak DBEOra egokitzeko erronkari heldu zion, **Datuak Babesteko Eskuliburua** ezarriz. Eskuliburu horretan, erakundean nahitaez bete beharreko hainbat politika eta barne-prozedura dago jasota:

- **Datu pertsonalak babestearen inguruko gobernu-politika**. Horren arabera, besteak beste **Datuak Babesteko ordezkari** bat izendatu behar da, arauak betetzearen alorrean informatu, aholkatu eta ikuskatzeko eginkizunak modu autonomo eta independentean bete ditzan.
  Politika horren ondorioz sortu zen, halaber, **Datuen Babeserako Batzordea**, datuak babestearen alorreko politikak eta prozedurak gainbegiratu eta sustatzeko helburua duena. Batzordearen ohiko bilkura seihilekoan behin egiten da gutxienez, eta, ohiz kanpokoa, egoerak eskatzen duen guztietan. Seihilekoan behin, Datuak Babesteko ordezkariak txosten bat aurkezten du Batzordean, eta, bestalde, urtean txosten bat egiten du, entitatearen goi-zuzendaritzan aurkezteko.
- Erakundearen ardurapean egindako **tratamendu-jardueren erregistroa** prestatu eta mantentzea. Erregistro horretan, tratamendu bakoitzaren helburuak, legitimazioa eta tratatutako datuen kategoriak jasoko dira, besteak beste. Erregistro hau dinamikoa denez eta etengabe berritu behar denez, edukia eguneratu zaio 2021ean, tratamenduei buruzko berrikuntzak islatzeko.

- Arriskuaren gestioa, tratamendu bakoitzari dagozkion **arriskuen azterketa objektiboan** eta, dagokionean, inpaktu-ebaluazioetan oinarritua, arriskuak ezabatzeko edo arintzeko beharrezko neurriak hartzeko.
- **Pribatutasuna diseinutik eta lehenetsita** —datu horiei buruzko edozein tratamendu egin aurretik datu pertsonalen babesa bermatzeko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aplikatzea dakar horrek— eta tratamenduaren xedeetarako behar-beharrezkoak diren datuak soilik tratatzeko konpromisoa. 2021ean, Datuak Babesteko ordezkariak 453 barne-kontsulta erantzun zituen, entitatean printzipio hori aplikatu izanaren erakusgarri.
- **Datu pertsonalen segurtasunari lotutako gertakarien gestio-plana**, egoera bakoitzean egokiena den erantzuna zehazteko jarraibideak ematen dituena.
- **Hornitzaileak datu pertsonalak babestearen alorrean kudeatzeko prozedura**. Helburu hau du: LABORAL Kutxaren erantzukizunpeko datu pertsonalak eskura dituzten hornitzaileekiko harremanak DBEOaren arabera garatzen direla bermatzea. Horretarako, datu pertsonaletarako sarbidea duen hornitzaileen erregistro bat dago, eta etengabe eguneratzen da.
- **Segurtasun-neurriak**, hau da, tratamendu bakoitzaren arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko eta datuen osotasuna eta erresilientzia babesteko neurri tekniko eta antolamenduzkoak.
- **Urteko kontrol**- eta jarraipen-**plana** egitea, araudia betetzen dela bermatzeko.

2022. urteari begira, Europar Batasunean epe laburrean agertzen diren arau-erronketara arrakastaz egokitzea da LABORAL Kutxaren asmoa, eta badaki horretarako etengabeko hobekuntza eta bere politika eta prozedurak etengabe eguneratu eta berrikustea direla bide bakarrak.

### Zibersegurtasuna

Eraldaketa digital eta kulturalak zibersegurtasuna sartu behar du enpresa-ikuspegiaren barruan. Zibersegurtasuna hain da garrantzitsua, ezen jada ezin baita diziplina bakartu gisa ulertu. Hala, zibersegurtasuna jasangarritasunaren barruan integratzea aukera bat da ikuspegi guztietatik: soziala, instituzionala eta enpresariala.

Gaur egun, zibersegurtasun-eten bat jasatea da negozioen arriskurik handienetakoa. 2021ean, gizarteak hainbat alditan ikusi du zenbait sektoretako enpresek nola eten behar izan duten jarduera, zibereraso baten ondorioz. 2020-2022 Segurtasunaren Plan Zuzentzailearen (ESPDaren) esparruan, LABORAL Kutxak sakon aztertu ditu gertaera horiek guztiak, entitateari halako mehatxuen aurrean baliorik handiena ematen dioten ekimenak lehenesteko. Hori dela eta, *malware*en edo software gaiztoen aurkako estrategia bat diseinatu da, *machine learning*aren teknikak erabiliz entitatea patroi gaizto ezezagunetatik babesteko.

Era berean, datua babesteko gestioak gauzatu dira, bezeroen, hornitzaileen eta langileen erantzukizuntzat hartuta. Horretarako, baliagarriak izan dira, besteak beste, *phishing* simulazioen jarduerak eta *hacking* etikoko programa bat abian jarri izana —indartu egin da, ingurune guztietan segurtasun-proba gehiago egiteko—.

Intzidenteei erantzuteko plana ere indartu egin da. Horretarako, talde espezializatu bat sortu da, urteko 365 egunetako 24 orduetan irregulartasunak aztertu eta horien aurrean etengabe jarduteko.

Era berean, zibersegurtasuneko arrisku-egoerak aztertu dira, baita horien erregulazio-, estrategia- edo irudi-ondorioak eta negozio digitalaren eta onlinekoaren ereduan dituzten eraginak ere. Horrela, arriskuak kontrolatzeko metodologiak hobetu dira, arriskuen estrategia negozio-planean txertatuz, aukera eman dezan barnean onartu diren grina, tolerantzia eta arrisku-mugak betetzeko.

LABORAL Kutxaren azpiegitura teknologikoaren arabera sistemak babesteko irtenbiderik egokienak ebaluatu eta hautatzeko estrategia diseinatu da, funtzionatzeko ekosistema seguru eta fidagarriak behar dituzten teknologia berriak zabaldu ahal izateko.

Hodeiko zerbitzuetarako prestatzea izan da lan-ildo nabarmenetako bat. Teknologia oso azkar ari da aldatzen, eta hodeiko zerbitzuak gero eta gehiago eskaintzen dira balio diferentzial gisa, mundu hiperkonektatu honetan. Teknologia eta zerbitzu horiek beti eskaini behar dute gure negozioak eskatzen duen segurtasun-maila. Horregatik, hodeiko zerbitzuen politika korporatiboa definitzen inbertitu da, eta merkatuko jardunbide eta erreferentziarik onenak hartu dira, identitate digitalaren kudeaketan eta datuaren babesean oinarritutako eredu sendoa eraikitzeko.

Zibersegurtasunaren gobernantzaren beste alderdi batzuek ezarritako planaren arabera jarraitu dute garatzen. Prestakuntza-programak sortu dira, zibersegurtasun pertsonalaren, konpetentzien eta hezkuntza digital prebentiboaren alorretan. Halaber, *skateholder* direlakoekin partekatutako edukiak, jardunbide egokiak eta albisteak sortu dira (dagokionean kanal digital irisgarrietan argitaratuak), segurtasun globaleko kultura sustatzeko eta, besteak beste, iruzur digitala ahalik eta gehien saihesteko.

Bestalde, Segurtasun Batzordeak onartutako zibersegurtasun-politikak eta neurri tekniko eta antolakuntzakoak kudeatzeko protokoloak hobetu dira. Entitateari aplikatzekoak diren informazioaren segurtasunari edo segurtasun-betekizunei buruzko legezko, estatutuetako, araugintzako edo kontratuzko betebeharrak etengabe ebaluatzen dira.

Entitatearen zibersegurtasun-arriskuen profilaren arabera baliabideak eta inbertsioak esleitzeko aurreikuspen argiak finkatu dira, eta diziplina anitzeko taldeak garatu. Horietan, segurtasunak protagonismo handia hartu du, hala nola hirugarrenen kudeaketa-prozesuetan, non LABORAL Kutxak lankidetzan eta lanean izaten dituen hornitzaile eta fabrikatzaileen segurtasuna aztertu eta baliozkotu behar baita.

Azkenik, zibersegurtasun-arriskuen gestioarekin eta gobernuarekin lotutako desbideratze garrantzitsuei tratamendua emateko behar diren ekintza guztien jarraipena sartu da gainbegiratze korporatiboaren funtzioetan.

LABORAL Kutxak ikuspegi integrala proposatzen duen ibilbide-mapa bat definitu du, zibersegurtasunaren gobernua eta gestioa arriskuen enpresa-kudeaketarekin lerrokatuz eta alderdi interesdun guztien parte-hartzea integratzen duen ikuspegi holistikoa emanez.

### 3.1.6. Produktu eta zerbitzu arduratsuak

Kredituen politikan darabiltzagun gizarte- nahiz jasangarritasun-ukituko irizpideak produktu hauetan agertzen dira:

- Gizarte-ekonomiako enpresentzako maileguetan. 2021ean berritu egin da Europako Inbertsio Bankuaren organismoa den European Investment Fundekiko lankidetza, Enplegurako eta Gizarte Berrikuntzarako Europako EaSI Programaren bidez. Europako programa horren laguntzaren bidez, are gehiago errazten dira ekintzaileei nahiz mikroenpresei eskatzen zaizkien baldintzak eta, hartara, handitu egiten zaie mikrokredituak eskuratzeko aukera.
- Aseguratutako txarteletan. Baldintza bereziak (Lagun Arorekin Istripu Asegurua, adibidez) dituzten txartelak dira. Oro txartelean, adibidez, bidaiako laguntza eskaintzen da Caserrekin.
- Mailegu pertsonaletan. Egoera berezietarako % 0ko UTBdun maileguak eta nomina-aurrerakinak daude. Gazteei ikasketak (materiala, matrikulak eta abar) finantzatzeko emandakoak ere badaude. Adibidez, 2021ean, hauekin sinatu genituen akordioak: AEKrekin, Nafarroako Unibertsitatearekin, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, MONDRAGON Unibertsitatearekin, Erasmus programekin eta MONDRAGON Linguarekin.
- Akordio eta hitzarmenetan. Erkiderekin (finantza-abantailak enpresa kideetako bazkideentzat), FCTCrekin (Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioarekin) eta CEPESekin (Ekonomia Sozialeko Espainiako Enpresa Konfederazioarekin) sinatu ditugu, kapital-ekarpenak finantzatzeko eta kooperatibistentzako finantza-abantailak emateko.
- Beste entitate batzuekin egindako akordio eta hitzarmenetan: KOI, Elkargi, Luzaro, INNOVFIN eta Sendotu.

#### Hitzarmenak eta lankidetza administrazio publikoekin

Txosten honetan azaldu dugunez, LABORAL Kutxak administrazio publikoekin batera jarduten du, finantzaketa-lineak lehentasunezko baldintzetan irekitzeko ekintzaile, autonomo nahiz enpresentzat, edo etxebizitzak birgaitzeko. Gainera, ETE-ei finantzaketa egokiagoa eskaintzen die, elkar bermatzeko sozietateekin (EBSekin) egindako hitzarmen edo kreditu-lineen bidez. Horietako batzuk gure webgunean kontsulta ditzakezu:

- Enpresentzat: https://www.laboralkutxa.com/eu/enpresak/finantzaketa/hitzarmenak
- Negozio eta profesionalentzat: https://www.laboralkutxa.com/eu/pro-negozioak-eta-profesioanalak/finantzaketa/hitzarmenak
- Gizarte-ekonomiako enpresentzat: https://www.laboralkutxa.com/eu/enpresak/finantzaketa/zirkulatzailea/gizarte-ekonomiako-easi
- Laguntzak: https://www.laboralkutxa.com/eu/pro-negozioak-eta-profesionalak/zure-negozioarentzako-laguntzak/hitzarmenak

#### Elkartasunezko txartelak

Bezeroek elkartasunezko txartelak erosketetan erabiltzeagatik LABORAL Kutxak lortzen dituen diru-sarreren zati bat hauei ematen die entitateak: Medicus Mundiri, Cáritasi eta Ikastolen Elkarteari. Zenbateko hauek ematen ditu urtero:

-Txartel titular bakoitzeko, urtearen amaieran: 2,5 euro urtean.

-Txartelaren onuradun bakoitzeko: 1 euro urtean.

-Erosketetako fakturazioagatik: eskuratutako emaitzen % 20.

| Elkartasunezko txartelengatik emandako zenbatekoa | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Fakturazioa guztira (eurotan) | 41.614.619 | 45..602.566 |
| • Medicus Mundi | 18.056 | 22.710 |
| • Cáritas | 2.374 | 3.084 |
| • Ikastolak | 28.435 | 23.130 |
| **Dohaintza guztira (eurotan)** | **48.865** | **48.924** |

### Nazioarteko lankidetza-proiektuetarako dohaintzak

LABORAL Kutxaren Super LK libretak sarreretan eta saldoetan oinarritutako puntu-programa bat* du, eta puntu horiek opariez edo garatzeko bidean dauden herrialdeetako proiektuetarako dohaintzez truka ditzakete bezeroek. Honako hauek dira proiektuak eta emandako zenbatekoak:

| Bezeroek proiektuko emandako zenbatekoa (eurotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Mundukide Fundazioa.** «Ireki txorrota». Mozambikeko pertsonei garatzen laguntzeko lankidetza kooperatiboa. Tokiko nekazariak ahalduntzen ditu, prestakuntza teknikoa eta merkataritzaren eta laborantzaren alorretako aholkularitza eskainiz. | 3.410 | 2.633 |
| **Mundubat.** «Saharar herriaren osasun-eskubidearen alde». | 2.112 | 2.022 |
| **Alboan.** «Indiako diskriminazioaren eta esklusioaren aurka». Dalit herritarrei eskubideak bermatzea eta hezkuntzarako ateak irekitzea sustatzen duten proiektuak. | 2.961 | 2.480 |
| **Medicus Mundi.** «Sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzen». Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna, sexu-hezkuntza eta erakunde publikoen eskubide horiekiko konpromisoa sustatzen duten laguntza-programak, Perukoak eta Kongoko Errepublika Demokratikokoak. | 2.583 | 2.762 |
| **Emandako zenbatekoa guztira (BEZa barne)** | **11.066** | **9.897** |

### GKE-en asegurua

LABORAL Kutxak GKE-ei zuzendutako aseguru bat du, erakunde horiei estaldura eta baldintza bereziak eskaintzeko, bi polizaren bidez:

- Istripu-poliza. Boluntarioek GKE-en jarduerak betetzean izandako istripuak estaltzen ditu, «in itinere» arriskua (beharrezko joan-etorrietakoa) barne.
- Erantzukizun zibileko poliza. Boluntarioen ohiko jardueretan hirugarrenei edo erakundekoak ez diren ondasunei eragindako kalteen erreklamazioa estaltzen du. 2021ean, 39 elkarte eta 711 aseguratu estaltzen ditu aseguru horrek.

### Enpresak sortzeko laguntza. Mondragon taldea

Kreditu-inbertsioaren bidez finantzatzeaz gain, LABORAL Kutxak garatzen laguntzen die Mondragoneko kooperatibei. Horretarako, bere emaitzetatik etorritako funtsak ematen ditu, lanpostu berriak sortzeko eta daudenak finkatzeko helburuarekin. Ekarpen horiek hauetara bideratzen dira:

- *MONDRAGON Inversionesera.* Kooperatiben garapen-proiektuak finantzatzen laguntzen du, hala Espainiako estatuan nola atzerrian.
- *MONDRAGÓN S. COOP. taldearen korporazio-zentrora.*
- *MONDRAGON fundaziora.* Besteak beste, kooperatibek sustatutako 14 ikerketa-zentroak finantzatzen ditu.

2020an eta 2021ean, COVID-19ak sortutako krisia dela eta, aurreko urteetakoak baino txikiagoak izan dira ekarpen horiek, bai banku-arautzaileak (Espainiako Bankuak) aginduta eta bai irabazi txikiagoak egon direlako.

| Mondragon talderako ekarpenak (mila eurokotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| MONDRAGON Inversionesi egindako ekarpena | 875 | 516 |
| MONDRAGON S. Coop. sozietateari egindako ekarpena | 4.367 | 6.681 |
| MONDRAGON Fundazioari egindako ekarpena | 2.817 | 1.349 |
| **Ekarpenen batura** | **8.059** | **8.546** |
| MONDRAGONeko enpresetako inbertsioa (1) | 363.481 | 349.918 |

(1) Inbertsio hau jaso da: zirkulatzailea, egiturazkoa eta sinadura.

## Inbertsio gizartearekiko arduratsua

Inbertsio- edo finantzaketa-proiektuak hautatzerakoan gizartearen, ingurumenaren eta gobernu korporatiboaren alorretako irizpideak (ESG irizpideak) aplikatzen dituena da inbertsio gizartearekiko arduratsua (IGA). LABORAL Kutxak urteak daramatza arlo horretan lanean, eta esklusio-irizpide batzuk ditu ezarrita, gure printzipioen aurkako jardueretan inbertitzea edo halakorik finantzatzea saihesteko. Esklusio-irizpide horiek gai hauei eragiten diete: jokoari, pornografiari, tabakoari, armei eta ikatzari.

Memorian azaldu denez, 2021ean hausnarketa bat jarri da martxan, LABORAL Kutxa Taldearentzat finantza jasangarrien estrategia bat ezartzeko. Hausnarketa horren ondorioz, estrategi hori ezartzeko behar diren ekintza-lerroen ibilbide-orria zehaztu da. Hainbat esparru finkatu dira bertan: gobernantza, prestakuntza, komunikazioa, arriskuen gestioa eta datuen lorpena. Halaber, produktu eta inbertsioei buruzko ekintzak ere proposatu dira, eta 2022rako helburuak ezarri, bezeroei eskaintzen zaizkien inbertsio-produktuetan eta gure inbertsioetan ESG alderdiak sartzeko. Bestalde, finantzaketa-lerro berde bat merkaturatu nahi da.

Inbertsio gizartearekiko arduratsuari dagokionez, 2021ean garrantzitsua izan da 2088/2019 Erregelamendua, jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzearena, betetzeko egindako lana. Arau horrek jasangarritasun-arriskuak eta -eragileak aintzat hartzera behartzen ditu finantza-zerbitzuak ematen dituzten entitateak.

Enpresentzako kreditu-inbertsioaren harira, 2017tik aparteko informazio ez-finantzarioa eskatzen zaie gizarte-arriskudun enpresei. Horrela, zabaldu egin da ingurumenaren ikuspuntutik arazoak sor litzaketen enpresei aplikatu ohi zitzaien sistematika.

2019an 2020-2022 epealdirako garatutako Plan Estrategikoaren barruan, funtsen eta planen gestoreak eta altxortegiak kudeatutako aktibo guzti-guztietan eta arriskuak ematean IGA irizpideak erabiltzeko helburua ezarri zen. Era berean, asmoa zen aplikatutako irizpideetan sakontzea eta aurrerapausoak ematea, eta gaur egun erabiltzen diren esklusio-irizpideetatik kontzeptu aurreratuagoetara pasatzea.

2022ko udan, MiFID II izeneko araudia hasiko da aplikatzen, eta uste dugu aldaketa sakona ekarriko duela finantza-sektorean aholku eman eta inbertitzeko moduan. Finantza-entitateak behartuta egongo dira inbertsioen alorreko aholkularitzan eta egokitasunean bezeroen jasangarritasun-lehentasunak sartzera, errentagarritasun-aurreikuspenez eta arrisku-profilaz gain. Jasangarritasunaren arloko lehentasunei buruzko kontsulta horren ondorioz, beharrezkoa izango da lehentasun horiei erantzungo dien inbertsio jasangarrien eskaintza bat izatea.

2021ean, eutsi egin zaio izaera etiko eta solidarioa duen inbertsio-funts arduratsuaren (*LABORAL Kutxa Konpromiso* IFaren) eskaintzari. Funts horren inbertsioetan, hainbat irizpide kontrolatzen dira ingurumenari, arlo sozialari eta gobernantza korporatibo onari lotuta. Solidarioa da; izan ere, bezeroei kobratzen dien gestio-komisioaren zati handi bat 3 GKEri ematen die LABORAL Kutxak (bezeroak aukeratzen du 3 horietatik zeini).

| Ekarpenak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| MEDICUS MUNDI | 30.870,11€ | 56.22,78 |
| MUNDUKIDE | 27.025,69€ | 52.108,83 |
| CARITAS | 19.222,10€ | 34.373,25 |
| **GUZTIRA** | **77.117,91€** | **143.404,86** |

Enpresentzako kreditu-inbertsioaren harira, 2017tik ezarrita dago gizarte-arriskudun enpresei aparteko informazio ez-finantzarioa eskatzeko prozedura. Horrela, zabaldu egin da ingurumenaren ikuspuntutik arazoak sor litzaketen enpresei aplikatu ohi zitzaien sistematika.

## Produktu eta zerbitzu ingurumenarekiko arduratsuak

Ingurumena hobetzen laguntzeko estrategiarekin bat, klima-aldaketa moteltzen laguntzen duten produktu eta zerbitzuak ditu LABORAL Kutxak. Txosten honetan, horien xehetasunak eman ditugu, bai eta horiek indartzeko abian diren proiektuenak ere.

## Bezeroei informazioa igortzeko zerbitzu elektronikoa

Bezeroei informazioa bidaltzeko LABORAL Kutxaren Postamail zerbitzua goraka doa etengabe. Zerbitzu horrek, bezeroei kontuen laburpenak eta egiaztagiriak posta elektronikoz bidaltzean oinarritzen denez, paper-kontsumoa gutxitzen laguntzen du. Aurreko urteko erabiltzaileen kopurua handitzea da urteko helburua; horregatik, bulego-saretik etengabe azaltzen dira zerbitzu horren nondik norakoak. Erabiltzaileen kopuruaren eta %-aren bilakaera txosten honetako **Ingurumenarekiko harremanak** atalean ikus daiteke.

## Energia berriztagarrietarako kredituak

LABORAL Kutxa finantza-entitatea da, eta, beraz, beraren jarduerak ez du lotura zuzen edo nabarmenik klima-aldaketarekin. Energia berriztagarrien edo antzekoen arloan, enpresen finantzaketak edo emandako maileguak eboluzio hau izan du:

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Erabilitako maileguak (mila €-kotan)** | 36.370 | 19.982 |

## Finantza-zerbitzuetarako irisgarritasuna

## Udalerri txikiak

Finantza-sektorearen erronka berrien ondorioz azken urteotan sare komertziala arrazionalizatzeko gauzatzen ari garen prozesuan, herri nahiko txikietan finantza-bazterketa saihesteko ahaleginak ari gara egiten. Helburua da urte askoan presentzia izan dugun landa-udalerriak edo biztanle gutxiko udalerriak zerbitzurik gabe ez uztea. Horrela, bada, errentagarritasun txikikoak izan arren, bulegook ez ditugu ixten, eta, horretarako, neurri batzuk hartzen ditugu, hala nola asteko egun jakin batzuetan irekitzea.

Efizientzia-arrazoiak direla eta, 2021ean Alfaroko bulegoa itxi da, kontuan harturik herrian badirela beste finantza-entitate batzuk.

## Arkitektura-oztopoak

Gero eta bulego irisgarriagoak izatearren, bulegoak arkitektura-oztoporik gabeko eremuez hornitzeko konpromisoa du LABORAL Kutxak. Lokalaren ezaugarri fisikoek ahalbidetzen dutenean bulegoetan egiten diren esku-hartze guztietan, irisgarritasuna hobetzea da helburua. Beraz, arkitektura-oztopoak kentzen dira eta irisgarritasun-araua bete. Urte asko daramatzagunez esku-hartzeok egiten, gaur egun oso lantoki gutxi geratzen dira irisgarritasun-arazoren batekin.

2021ean, 10 bulegotan ezarri da bulego-eredu fisiko berria. Eredu berri horretan, irisgarritasunari eman zaio lehentasuna, bai bulego barruan, oztopo arkitektonikoak ezabatuz, bai espazioen tipologia osoan, kutxako transakzio-eremuari espazio berezi bat emanez, mugikortasun murriztua duten pertsonei arreta eskaintzeko. Bulegora sartzeko, ate automatikoen sistema bat ezarri da, edonori sarbidea errazteko (ateak irekitzeko ez dago ezer manipulatu beharrik), eta, gainera, botoien sistema *touchless* da, hau da, ez dago zertan botoiak ukitu, kutxazainaren barrura sartzeko atea blokeatu eta desblokeatzeko. Kanpoko kutxazainak ere ipini dira.

## Interneten eta telefono mugikorraren bidezko sarbidea. Banka multikanala

LABORAL Kutxaren ustetan, estrategikoa da jarduera digitalizatzen jarraitzea. Lehiakortasuna handitzeko ez ezik, ezinbestekoa da irisgarritasuna eta bezeroentzako komunikazio-bideak eta zerbitzua hobetzeko ere.

2021ean emandako urratsen eta ezarritako hobekuntzen artean, hauek nabarmentzen dira:

1. Sarbide-gako ahulen irizpideak aldatzea.
2. Onlineko hipoteka-mailegua.
3. Onlineko saltokietan BIZUM bidez ordaintzea.
4. Bezeroen altak webgunetik egitea.

Bezeroekin komunikatzeko kanal ez-presentzialak zabaltzeko beharra ekarri du, zalantzarik gabe, COVID-19ak eragindako egoerak. Urruneko Bankaren bidez emandako erantzunetan 2020an izandako hazkundea errepikatu egin da 2021ean ere:

| Eragiketak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Jasotako deiak | 288.985 | 331.077 |
| Egindako deiak | 24.113 | 42.043 |
| WhatsApp | 57.358 | 49.438* |
| Online Bankako txata (2020-10-22an merkaturatua) | 9.592 | 44.136 |
| Txartelen iruzurrari buruzko alertak | 9.302 | 18.388 |

*Kontabilizatzeko irizpidea aldatu egin da: 2021ean ez dira aintzat hartu larunbat arratsaldez eta igandez jasotakoak.

## Finantza-kultura

LABORAL Kutxak sare sozialak erabiltzen jarraitu du, finantza-kultura sortu eta kooperatibismoari buruzko ezagutza indartzeko. Hala, entitatearen blogetan (bloga.laboralkutxa.com, bancaparaempresas.com/eu/ eta consultingpro.laboralkutxa.com/eu/) interes orokorreko 182 artikulu erantsi ditugu, horietatik 72 finantza-kultura eta -gaurkotasuna hobetzen laguntzeko helburuarekin. Horrela, formatu errazean eta irisgarrian, finantza-kulturari buruzko edukiak eta gizarte-erantzukizunarekin zerikusia dutenak tartekatzen dira. Hona hemen batzuk: finantza etikoak, aseguruen betebeharrezkotasuna, zerga-berritasunak, enpresak nola sortu eta abar.

2021ean 5 aldiz bidali da **Newsletter Pro** (martxoan, apirilean, maiatzean, uztailean eta urrian). Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Pro bezeroentzako eta Mikroenpresentzako (60.000tik gora) formatu elektronikoko informazio-buletina da. Ekintza hori **Consulting Pro** doako zerbitzuaren esparruan kokatzen da, gure bezeroari negozioaren gestioan laguntzeko. Hala, autonomo eta profesionalentzako informazio interesgarria eskaintzen dugu (laguntzak eta dirulaguntzak, zergari eta legeari lotutako berrikuntzak, saltzeko teknikak eta abar).

Buletin horrek Consulting Pro zerbitzuaren webgunearen alderdirik garrantzitsuenak eta berrienak nabarmentzen ditu, besteak beste: albisteak, artikulu interesgarriak, gestio-tresnak eta informazioa (ekitaldiak, laguntzak, dirulaguntzak...).

2021ean, Consulting Pro zerbitzuak **340 bezeroren 900 kontsulta** hartu ditu, batzuk aurrez aurre eta beste batzuk 900 100 240 doako telefono-zenbakiaren bidez edota webgunean dagoen inprimakiaren bidez.

LABORAL NEXT tresna jarri dugu abian. Laguntzaile birtual bat da, NEXT GENERATION funtsei eta eskura ditzaketen programei buruzko informazioa emango diena merkataritzako bezeroei (eta bezero ez direnei; autonomoak barne). Gainera, bulego teknikoa ere sortu da; zalantzak argitzeaz eta laguntzen kudeaketa aztertu eta, dagokionean, tramitatzeaz arduratzen da.

ZUZENEKO LAGUNTZEN SIMULAZIOA – SIMAD tresna sortu da eta merkataritzako bezeroen (eta bezero ez dienen) eskura jarri. Tresna horren bidez, erraz jakin ahal izan dute ea badagozkien gobernuak autonomia-erkidego bakoitzaren bidez eman dituen zuzeneko laguntzak.

2021. urtean, LKS Nextekin, Afi-rekin, Aseguruekin eta LKren Ikerketa Departamentuarekin batera online saioak egin dira, autonomo, negozio eta enpresentzat. Ikusi gertaera bakoitzaren xehetasunak biltzen dituen taula.

| 2021ean egindako web-mintegiak | Eguna | Bertaratuak | Balioztapena | Itxaropenen betetze-maila | NPSa |
|---|---|---|---|---|---|
| KOI-COVID nobazioak | 2021-02-26 | 442 | 8,80 | 8,60 | % 69 |
| Ziberarriskuak | 2021-05-07 | 387 | 8,38 | 8,00 | % 50 |
| Next Generation EU funtsak + Laboral Next | 2021-06-22 | 549 | 8,47 | 8,24 | % 52 |
| COVID-19aren osteko ekonomia | 2021-07-09 | 150 | 8,80 | 8,50 | % 60 |
| Laboral Next | 2021-11-24 | 174 | 7,75 | 7,50 | % 17 |
| Denen batez besteko balioztapena 2021ean | | | 8,47 | 8,18 | % 50 |

**2021EKO NEWSLETTERRA:**

2021-01-22 CONSULTING-PRO
2021-03-23 CONSULTING-PRO
2021-06-16 CONSULTING-PRO
2021-10-28 CONSULTING-PRO
2021-12-09 CONSULTING-PRO

Hilean behin, bideo bat egiten da (Afi, Analistas Financieros Internacionalesen laguntzarekin), egoera ekonomikoa eta finantza-merkatuen egoera aztertzeko. Bideo hori posta elektronikoz igortzen zaie Banka Pertsonaleko eta Premium Bankako bezeroei, eta CLNeten ere ezartzen da. Bestalde, hiru hilean behin infografia bat bidaltzen zaie BPko eta Premium multzoko bezeroei, zorroen posizionamenduarekin eta osaerarekin. Bertan, amaitutako hiruhilekoko datu makroekonomiko eta merkatuetako gertaera nagusiak jasotzen dira, bai eta gure posizionamendua eta Banka Pertsonaleko zorroen osaera ere.

Nazioartekotzeko laguntza

2021ean, enpresa bezeroei zerbitzu globala eskaintzeko eta merkatu berriak bilatzen laguntzeko estrategiaren barruan, LABORAL Kutxak berritu egin ditu azken urteetan bezeroei zerbitzu emateko sinatutako nazioarteko hitzarmenak. Akordio horiek LABORAL Kutxaren jarduteko filosofiarekin bat datozen erakunde kooperatiboekin egin dira batez ere. Hona hemen zerrenda:

- National Cooperative Bank (AEB).
- Crédit Coopératif (Frantzia).
- Raiffeisen Bank International (Austria).
- Banorte (Mexiko).

LABORAL Kutxa oso aktiboa izan da azken 6 urteetan nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresei laguntzen, batez ere Ipar Amerikako merkatuan. Hala, 2020ko otsailean lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten LABORAL Kutxak eta GOURMET FOODS INTERNATIONALek (GFIk) gure enpresei Estatu Batuetako merkatuan kokatzen laguntzeko. Atlantan egoitza duen inportatzaile iparramerikarra da GFI, eta 500 milioi dolarreko fakturazioa du. Apirilaren 4tik 6ra Bartzelonan ELIKADURAko azoka egingo dela eta, LABORAL Kutxak eta haren GFI merkataritza-bazkideak banaketaren sektoreko zuzendari estatubatuarren bisita jasoko dute. Hala, azoka ezagutzeaz gain, bisitak egingo dira sektoreak Aragoin, Nafarroan eta Errioxan dituen lantegietan.

## 3.2. Plantillarekiko harremanak

### 3.2.1. Gestio-ikuspegia

LABORAL Kutxaren eta bere langileen arteko zuzeneko jarduerari dagokionez, kooperatibaren forma juridikoa *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala* inspiratzen duten printzipioen asmo handiko garapena da; hain zuzen, gizaki guztiak duintasun eta eskubide berak dituztela dioen printzipioarena.

Hain zuzen ere, egitura kooperatiboak berekin dakar enpresan lan egiten duten pertsonak bazkideak izatea, eta, beraz, eskubide eta betebehar berak izatea, ezagutzak edo hierarkian duten egoera edozein izanda ere. Pertsona guztiek eskubide eta betebehar berak dituzte, denek hartzen baitute parte enpresa-jarduerаren arriskuetan eta irabazietan.

Eta lankidetzaren kontzeptua gure gizartearekiko konpromisora ere zabaltzen da. *Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei eta filosofiari jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu norberaren interesaren aurrean, erabakiak parte-hartzean oinarrituz eta arduraz hartzen ditugu eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugu.*

Pertsonen arloan, giza eskubideak urratzearekin lotutako arriskurik handienak ustelkeriarekin eta laneko jazarpenarekin lotuta daude.

- Ustelkeriari dagokionez, ikusi Gobernu Korporatiboa, 1. atalean.
- Laneko jazarpenari dagokionez, adierazi behar da arazo horrek eragin kuantitatibo txikia duela, baina eragin handia izan dezakeela horrelako egoera batean egon daitezkeen pertsonengan. Prozeduretan, *Laneko jazarpen-egoeretan jarduteko protokolo* bat dago, 2015-01-31n eguneratua. Antolakuntzari dagokionez, *Ikerketa Batzordea* du, eta bertan *salaketen kanal* berezi bat. Protokoloak *jazarpen morala*

(*mobbing* esaten zaiona), *sexuala eta sexista* aurreikusten ditu. 2021ean eta 2020an ez da salaketarik eta kontsultarik jaso salaketen kanal horretan.

Gure finantza-jarduerak, jardunaren eremu geografikoak eta jabetza-egiturak eragotzi egiten dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenetako xedapenak urratzea.

Lagun Arok ere prozedura bat du laneko gatazkak, jazarpena eta indarkeria kudeatzeko. 2021ean eta 2020an ez da salaketarik egon. II. Berdintasun Planaren esparruan, Laneko sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa zehaztu eta onartu zen.

### 3.2.2. Plantillaren magnitude nagusiak

Taldeko pertsonei buruzko adierazleak, bai globalak eta bai kategorien araberakoak —generoa, adina…— 4. Beste magnitude batzuk atalean daude jasota.

### 3.2.3. Plantillarekiko elkarrizketak

Kreditu-kooperatiba garen heinean, bide ugari ditugu pertsonekin hitz egiteko:

- ✓ Barruko Bezeroaren Gogobetetasunari buruzko Inkesta (BBGIa) egin da. Berorren helburuak dira merkataritza-sareak Zerbitzu Zentraletatik jasotzen dituen zerbitzuen kalitatea balioztatzea, hobetzeko iradokizunak egitea eta egokitzat jotzen dituen iruzkinak egitea. Galde-sorta 481 pertsonari bidali zitzaien, eta % 68,2ko erantzun-indizea lortu zen. Inkestan bildutako balioztapen kuantitatibo eta kualitatiboetan oinarrituta, hainbat hobekuntza-ekintza jarri dira martxan.
- ✓ Barne Iradokizunen Sistema. 2019tik eta 2021eko ekitaldia itxi bitartean, langileen 991 ekarpen bildu dira, eta horietatik 113 (% 11,4) ezarri.
- ✓ Funtsezko gobernu-organoetan parte hartzea eta erabakitzeko ahalmena izatea: Ohiko eta Ezohiko Batzarretan eta Kontseilu Errektorean, baita Plan Estrategikoak eta Gestio Planak lantzen ere.
- ✓ Negoziatzeko eta erabakitzeko ahalmen handiak dituen Kontseilu Sozialaren jarduera.
- ✓ Lehendakariaren eta zuzendari nagusiaren agerraldi 1 pertsona guztien aurrean, egoeraren diagnostikoa eta hartzen diren neurriak ezagutarazteko. Horietan, pertsona guztiek dute hitz egiteko aukera, egoki deritzoten iradokizunak egin eta argibideak eskatzeko.
- ✓ Plantillaren bileren sistematika: «Laguntzaile-bilera – Giltza» arduradunen eta beraien taldeen artean.

#### Negoziazio kolektiboa

Kreditu Kooperatiben Hitzarmen Kolektiboa da erreferentzia orokorra. Dena den, LABORAL Kutxak Enpresaren Negoziazio Kolektiborako araua finkatu zuen 1996an, negoziazio kolektiborako eredu jakin bat ezartzeko.

Negoziazio kolektiboaren bidez, LABORAL Kutxako pertsona guztien (lan-bazkideen eta inoren konturako langileen) enplegu- eta lan-baldintzak ezartzen dira, bai eta horiek aplikatuko direla bermatzen duten berme sozialak ere. Prozesu horren emaitza dira LABORAL Kutxako pertsona guztien lan-baldintza orokorrei buruzko arauak eta prozedurak, aldeek (Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Sozialak) eta pertsona guztiek bete beharrekoak.

Entitatearen gainerako gestio-eremuak bezala, 2021eko negoziazio-prozesua ere baldintzatu du, bigarren urtez, osasun-krisiak. Ildo horretan, negoziazio- eta kontraste-prozesu batzuk burutu dira alderdi sozialarekin, entitatean pertsona guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko hartutako neurriekin eta hartutako ezohiko kontziliazio-neurriekin lotuta.

Ohiko negoziazio-prozesuaren barruan, gai hauen inguruan lortu dira akordioak 2021ean:

- Goizeko eta arratsaldeko ordutegi jarraitua duten bulegoetako langileen lan-ordutegia.
- 2014ko martxoko Mugikortasun Geografikoari buruzko Araudiaren artikuluetako bat garatzen duen eranskin berria.
- LKrako lan-eredu malgua negoziatzen hasi gara.
- Lan-arauak.

Urtero bezala, urteko negoziazio-prozesua amaitu ondoren, 2022an negoziatu beharreko gaien zerrenda trukatu dute bi alderdiek.

Seguros Lagun Arok harreman etengabea eta erraza du langileen legezko ordezkaritzarekin. Berorrekin negoziatzen du, hain zuzen, enpresaren estatutuaren araberako hitzarmena. 2018-2021 hitzarmenaren azken urtea izan da 2021a. 2022an, langileen % 100 estaliko duen beste hitzarmen bat negoziatuko da.

Caja Laboral Bancaseguros SLU (CLBS) sozietateari dagokionez —LABORAL Kutxaren partaidetzapekoa da % 100ean—, bertako langile guzti-guztiak inoren kontura daude kontratatuta, eta 2021ean eguneratu den lan-hitzarmenak eta lan-araudi orokorrak zehazten dituzte lan-baldintzak. Langileei zuzenean eragiten dieten lan- eta -lanbide-gaiak arautzen ditu hitzarmen horrek, eta lotura handia du LABORAL Kutxako lan-araudi eta -prozedurekin.

### 3.2.4. Plantillaren garapena

2021ean, **pertsona guztien segurtasunak eta osasunak** lehentasuna izaten jarraitu dute, eta osasun-krisiaren kudeaketak gure agendaren zati bat betetzen jarraitu du, batez ere urtearen azken zatian, non abenduan bakarrik urte osoko positiboen erdiak erregistratu baitira. Nabarmentzekoa da jakinarazi diren positiboek sortutako lan-harreman estu urriak, entitateak ezarritako prebentzio-neurriek funtzionatu dutela eta pertsonek errespetatu egin dituztela erakusten dutenak. Bada azpimarratzeko beste kontu bat: 2021ean barne-bilatzaileen talde bat sortzea erabaki zen. Talde horrek astelehenetik igandera artatu ditu entitateko pertsonak, proba diagnostikoak kudeatzeko eta laneko harreman estuak identifikatzeko.




GUZTIRA: 445 positibo. 65 positibok laneko 128 kontaktu estu sortu dituzte eta, horietatik, 17 positiboak izan dira.

COVID-19a alde batera utzita, planifikatutako lan-ildo askotan egin ahal izan dugu aurrera. Hona hemen garrantzitsuenak:

**<u>Iraupen mugatuko bazkidea</u>**

Aldi baterako kontratazioaren kalitatea hobetzearren, iraupen mugatuko sozietate-harremanak egoteko aukera eman da. Horren bidez, homogeneotasun juridikoa lortuko da erakundeko pertsona guztien artean.

Formula berri hori ezartzearen ondorioz, berrikusi eta hobetu egin da **harrerako eta kooperatiba-hezkuntzako** prozesua.

**<u>Antolamendu-kulturaren garapena</u>**

Antolamendu-kulturari buruzko inkesta **egokitu** ondoren, entitateak ekin nahi dien erronkak atzemateko (eraldaketa digitala, besteak beste) kulturari buruzko galde-sorta **jarri da martxan 2021eko lehen hiruhilekoan**. Hauek dira helburuak: entitatean kulturaren alorreko diagnostikoa egitea, kulturaren egungo egoera ezagutzea eta 2017an eta 2012an egindako azken neurketekiko bilakaera aztertzea.

Galde-sortan **neurketako berritasun** hauek aplikatu dira 2021ean:

- Erakunde **digitalak** bereizten dituzten **kultura-atributuak**.
- Aparteko galderak erantsi dira **lorpen- eta jarraipen-kulturari** buruz.
- **Lidergoaren** palanka birformulatu da, eta entzuteko gaitasuna, laguntza eta konfiantza indartu.
- Pertsonek **kultura-aldaketarako** duten **jarrera** neurtu da: sentsibilizazioa, gaitasun digitalak eta erabilera.

Gainera, **hiru informatzaile-talde** bereizi dira (Zuzendaritza Kontseilua, bitarteko lerroa eta taldea), ikuspegi zabalagoa lortzeko eta ekintza-planak hobeto zehazteko.

Edonola ere, egokitzapen horiek guztiak egiteko, trazabilitatea antolamendu-kulturaren aurreko neurketetan bermatu da.

**2021eko azken hiruhilekoan**, Kulturako emaitzak Zuzendaritza Kontseiluan aurkeztu dira, eta, bertan, beharrezko ezaugarri kulturalak eta horiek entitatearen lidergo-estiloan duten eragina zehazteko prozesuari ekin zaio.

Hortik aurrera, **Kultura Plana** diseinatzeari ekin zaio. Horren barruan sartzen dira plantillari emaitzen eta ikuspegi kulturalaren berri ematea eta ekintza-plan espezifikoak abian jartzea.

**<u>Plantillaren plangintza estrategikoa (PPE)</u>**

2021ean, **lehentasun nagusiak ezarri** dira; hona hemen adibide batzuk:

- **GOM figura** ezarri da (PGOen % 60 GOM bihurtu dira).
- **Birziklatze-programak** abiatu dira: LKBA programaren 2. eta 3. emanaldiak, adimen artifiziala finantza-merkatuetako inbertsioetan aplikatzeko programa, bezeroen esperientziaren (CX) inguruko ezagutzak eta trebetasunak garatzea eta abar.
- **Profil berriak sartzea** zenbait eremutan —teknologia, datuak, zibersegurtasuna, ereduak, IT auditoretza eta abar— eta **horiek errekrutatzeko iturri berriak** bilatzea.

- PPEan zehaztutako profilen eskakizunak kontuan hartzea, bai **barne-sustapeneko prozesuetan** eta bai **kanpoko hautaketa-probetan**.

Proiektuak 2025erainoko ibilbidea finkatzen badu ere, jarduera-**planak** eta lehentasun nagusiak urtero **berrikusi eta egokitzen** dira, area-zuzendaritza bakoitzaren, Pertsonen Departamentuaren eta Antolamenduaren artean.

Horrez gain, **BIDEANen eskumenen katalogoa** berrikusi da, PPEan garrantzitsutzat jo diren *skill*ak, Onenak-en definitutako dinamikak, estrategia digitala eta lan egiteko modu berriak kontuan hartuta, haien idazketa koherentea izan dadin eta etorkizunerako kritikoenak diren gaitasunak garatzen lagun dezan.

<u>**2021 Ondorengotza Plana:**</u>

Lan metodiko eta ordenatua egin dugu, **zuzendariak eta beste lanpostu kritiko batzuk ordezteko** beharrari aurre egiteko prest egotearren, eta ordezkapen hori arrakastaz egitearren.

<u>**Talentuaren mapa**</u>

2021ean, hauek egin ditugu:

- **Jarduera eta potentziala ebaluatzearekin** zerikusia duten merkatuko **jardunbiderik onenen** adibideak aztertu.
- **Egungo tresnak/sistemak** aintzat hartuta **jarduera eta potentziala identifikatu eta ebaluatzeko** moduaz hausnartu.
- **Talentuaren Mapa sortzeko** zehaztu beharreko **funtsezko alderdiak** identifikatu.

Gainera, **trebakuntza-programa** nagusiekin jarraitu dugu 2021ean: aseguruak, merkataritza, BKPak, digitala eta salmenta-trebetasunak. Horrez gain, **enbaxadore digitalen** figura jarri dugu abian, eginkizun hauek har ditzaten beren gain:

- Aldaketa sustatzea, entitateko pertsonei ezagutza eta esperientzia digitalak transmititzearen bidez.
- Pertsonek aldaketak ulertzeko moduan eragitea.

**Pertsonen hautaketari** dagokionez, hauek nabarmentzen dira: hautaketa-prozesua erabat digitalizatzeko egindako lana (PI testa, test kognitiboa, gamifikazio-probak eta elkarrizketa pertsonala, dena online) eta hautagaien gaitasun digitalak online prozesuaren beraren bidez ebaluatzea.

### Etengabe prestatzeko programak

LABORAL Kutxaren 2021eko prestakuntza-jarduera 530 ikastarotan eta 172.180 prestakuntza-ordutan gauzatu da.

Prestakuntza kudeatzeko 2021eko planaren lan-ildoek lotura zuzena izan dute 2019. urtearen amaieran egindako gogoeta estrategikoaren ildoekin. Gogoeta horretatik 4 trebakuntza-programa zehaztu ziren, gai hauek ardatz hartuta:

- balantzetik kanpoko produktuak
- merkataritza-arriskua
- aseguruak
- alderdi digitala —plantilla osoari eragiten dio zeharka—

Prestakuntza-metodologia 2020an erabilitako bera izan da; hau da, Teams saioekin eta praktikekin osatutako onlineko prestakuntza-ibilbideak.

Bestalde, MiFID II zuzentarauaren eta Higiezin Kredituko Kontratuen Legearen (HKKLaren) inguruko ziurtagiria ez zuten pertsonei ziurtapena lortzen laguntzen jarraitu dugu; horretarako, MiFIDen alorreko etengabeko prestakuntzako 30 ordu eta HKKLaren alorreko etengabeko prestakuntzako 10 ordu diseinatu ditugu, eta eragindako kolektiboaren eskura jarri.

### Ustelkeriaren kontrako prozeduretako prestakuntza

Ustelkeriaren aurkako borrokarekin eta jokabide-kodearekin zerikusia duten eskuliburu eta prozedura guztiak Intranetean daude, eta plantillaren % 100ek ditu eskura.

Era berean, 2016an «Delituzko portaerei aurrea hartzeko sistemak eta politikak» izeneko prestakuntza jarri zen abian, eta plantillaren % 86k egin du dagoeneko.

### Erretirora iritsi diren pertsonentzako prestakuntza

«Aktibatu zeure erretiroa» izeneko programa bat dugu LABORAL Kutxan. Berorren bidez, entitateko jarduera utzi eta erretirora, aurre-erretirora edo aisialdira doazen pertsonak Zerbitzu Zentraletara deitzen dituzte egoera berrira begirako prestakuntza jasotzeko. Ikastaroa 3 jardunalditan egiten da, eta hainbat alderdi ukitzen ditu: aldaketaren gestioa eta harreman-osasuna, komunitate-partaidetza, alderdi juridikoak, jarduera fisikoa eta osasuna, elikadura osasungarria, teknologia berriak eta abar.

2021ean 4 ikastaro egin dira eta 40 lagunek hartu dute parte.

### Jardueraren gestioa – Bidean

Pertsonen garapena gestionatzeko sistema bat dago: BIDEAN. Sistema horrek pertsonak eta horien garapena ditu ardatz, eta pertsonak moldakorrak, ekimentsuak eta etengabe ikasteko gai izatea sustatzen du, bai eta autoexijentziaren, erantzunkidetasunaren eta lankidetzaren kultura ere. Honako hauek dira sistema horren zutabeak:

- Pertsonak eta haien garapena ditu ardatz.
- Arduradunaren eta kolaboratzailearen arteko etengabeko elkarrizketari ematen dio garrantzia eta etengabeko feedbacka sustatzen du.
- Sendotasunen inguruan egituratuta dago eta etorkizunera begiratzen du.
- Etengabeko ikaskuntzaren eta autoikaskuntzaren dinamika txertatuta dauka.
- Autogestioari eta erantzunkidetasunari dagokionez, arina, erraza eta malgua da, eta gure garapenaren arduradun eta protagonista bihurtzen gaitu.

Sistema horri esker, antolamendu-potentziala identifikatu eta ahalduntzeko eta garatzeko testuinguru bat sortu dugu, LABORAL Kutxaren estrategia eta pertsonen gogobetetasuna eta konpromisoa betetzen laguntzeko.

### Euskara

Zuzendaritza Kontseiluak 2020ko urtarrilean onartu zuen Euskararen 2020-2022 Plan Estrategikoaren arabera, lan-esparruak garatzen jarraitu dugu, bai eta bertan jasotako erronkak eta helburuak ere.

- ZERBITZUAREN HIZKUNTZA
  - 1. Bezeroei zerbitzua euskaraz ematen zaiela bermatzea eta sustatzea.
  - 2. Euskararekiko konpromisoa duen entitate gisa azaltzea.
- LAN-HIZKUNTZA
  - 3. Euskara erakundearen dinamikan txertatzea.
  - 4. Langileengan euskararen ezagutza handitzea.
  - 5. Euskararen barne-erabilera handitzea.

### 3.2.5. Aniztasuna eta aukera-berdintasuna

LABORAL Kutxa beti izan da aitzindaria eta berritzailea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politika aktiboak garatzen eta ezartzen, balio kooperatiboekin eta pertsona guztien aukera-berdintasuna sustatzearekin duen konpromisoaren erakusgarri.

Duela 2 hamarkada baino gehiago hartu genuen berdintasunarekiko konpromisoa. 1997an, Emakunderen entitate laguntzailea bereizgarria lortu genuen, eta lehen finantza-entitatea izan ginen bereizgarri hori lortzen.

Urte hauetan guztietan, egitura egonkor bat sortu dugu berdintasunerako politikak sustatzeko eta gai jakin batzuk landuko dituzten lantaldeak martxan jartzeko; baina, horrez gain, berdintasuna entitatearen estrategian txertatzea lortu dugu. Hori dela eta, zuzendaritzaren agendan dago gaur egun, eta beharrezko baliabide ekonomikoak ditugu, azken urteetan diseinatu eta ezarri ditugun berdintasun-planetan zehaztutako politikak eta jarduerak aurrera eraman ahal izateko.

Egindako lanari esker, Kontseilu Errektoreak eta Kontseilu Sozialak osaera parekidea izatea lortu dugu. Txikizkako Sareko bulegoen zuzendaritzetan dauden emakumeen ehunekoa ere nabarmengarria da: % 55ekoa Nafarroan eta % 58koa Gipuzkoan. Horrela, finkatu egin da azken urteetako joera. Nabarmentzekoa da 2021az geroztik lehen bulego-zuzendari emakumea dugula enpresen sarean, entitateko gainerako esparruetan baino askoz ere maskulinoagoa den horretan.

Ildo beretik, Zerbitzu Zentraletako erantzukizun-postuetan sendotzen ari da emakumeen presentzia, eta, 2021. urtearen amaieran, buruzagien % 43 emakumeak ziren, bai eta departamentu edo areetako zuzendarien % 31 ere.

Hala ere, bide luzea dugu oraindik egiteko, eta erronka handiei egin beharko diegu aurre.

Alde horretatik, hauek izan dira LABORAL Kutxaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planaren barruan 2021ean garatu ditugun ekimenik garrantzitsuenak:

- Emakumeak ahalduntzeko lantegiak eta gizonak sentsibilizatzeko lantegiaren beste emanaldi bat. Aurten, gainera, aurrez lantegietakoren bat egin dutenei zuzendutako mantentze-lantegiak abiatu ditugu, ahalduntzearen alorrean lanean jarraitzeko.
- Bestalde, kontziliazio-neurri berriak diseinatzen aritu gara, COVID-19a kontziliazio erantzunkidean sortzen ari den zailtasunei erantzuteko.
- Beste urte batzuetan legez, bi data zehatz baliatu ditugu (Emakumearen Nazioarteko Eguna eta Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Eguna), barrurako nahiz kanporako sentsibilizazio-kanpaina bi antolatzeko. Bereziki nabarmentzekoa da martxoaren 8an gauzatutako ekimena: eragin berezia izan du eta, Euskaliten arabera, 2021eko jarduerarik onenetakoa izan da.

- Kanpoko komunikazioari eta hedapenari dagokienez, hainbat ekimenetan hartu dugu parte, berdintasunaren arloan egiten ari garen lanaren berri emateko. Adibidez, EHUk enpresari eta generoari buruz antolatutako jardunaldi batean hartu dugu parte, bai eta Emakunderen *BaiSarea* sarean ere.

Bestalde, emakumeen parte-hartzea, ikusgarritasuna eta ahalduntzea helburu duten **hainbat ekimen babesten** jarraitu dugu; besteak beste, *Emakume Master Cup* delakoa, Lilatoia, Nafarroako Emakumeen Klasikoa eta abar.

Oro har, handia izan da 2021erako diseinatutako planaren betetze-maila. 30 jarduera antolatu genituen, eta % 74 garatu ziren erabat.

Ondo dakigu entitatearen jarduerek oihartzun handia dutela lurraldean, eta sinetsita gaude gizarte-eraldaketarako eragile izan gaitezkeela. Hori dela eta, berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko ekimenak sustatzen jarraituko dugu datozen urteetan.

Entitateak aintzat hartzen ditu aniztasun-politikei buruzko errekerimenduak. Hortaz, berdintasunari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoa betez, administrazio-organoetako kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzen du. Ildo horretan, profil akademikoa, profil profesionala, generoa, adina eta beste alderdi batzuk hartzen dira kontuan, Kontseilu Errektorerako hautagaiak hautatzeko politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

Esan beharra dago 2021eko abenduaren 31n gaindituta dagoela ordezkaritzarik txikiena duen generorako ezarritako gutxieneko ehunekoa; izan ere, Kontseilu Errektoreko (kooperatibako administrazio-organo goreneko) kideengan eutsi egin zaio 2017ko ekitaldian lortu zen genero-parekotasunari.

Desgaitasuna duten langileen enpleguari dagokionez, LABORAL Kutxan halako 19 lagun daude, eta beste 2 CLBSn; Seguros Lagun Aron, berriz, ez dago bat ere. Bestalde, LISMIa (Ezinduak Gizarteratzeko Legea) betetzen dugu, GUREAK INKLUSIO FUNDAZIOAri diruzko dohaintza bat emanez, desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko eta haientzako enplegua sortzeko.

Generoaren ondorio ez den diskriminazioaren kontrako politikei dagokienez, EGE politikak beren-beregi aipatzen ditu honako hauek: sexu-orientazioagatiko diskriminazioa eta amatasunarekin eta betebehar familiarrekin lotutakoak. Orobat, Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politikan, konstituzioaren eskubideen eta askatasunen kontrako arrazoiengatiko diskriminazioa dago jasota.

### 3.2.6. Kontziliazioa

Kontziliazio-neurriak

Barne-araudiak familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak ditu jasota. Horri esker, langileek familiarekiko ezinbesteko betebeharrak bete ahal izango dituzte, berariazko baimen edo lizentzien bidez. Zenbait alderdi jasotzen dituzte: lan-ordutegia, lan ez-presentziala, ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak, Zerbitzu Zentraletako ordutegi-malgutasuna eta ordaindutako eta ordaindu gabeko baimenak hartzeko aukerak handitzea.

Aipatu dugunez, 2021ean ere ezohiko neurriak erabili ditugu, bizi izandako ohiz kanpoko egoeraren aurrean.

Lanaldi malgua

Zerbitzu Zentraletan (Egoitza Nagusian eta Lurralde Zuzendaritzetan) lan egiten duten pertsonak ordutegi malguko sistemara bil daitezke. 2019an, kontziliazioa errazteko eta gurasotasun erantzunkidea sustatzeko, handitu egin zen langile horien ordutegi-malgutasuna. Hala, hileko lanorduak zenbatu ziren, eguneko gutxienekoa 5,15 orduan finkatu zen eta sarrera- eta irteera-ordutegia malgutu zen. Orobat, 12 urtez beherako seme-alabak edo mendeko pertsonak (adinagatik edo gaixotasunagatik) dituzten bazkideak beranduago sartu ahal izango dira lanera; beranduenez, 09:30ean. Horretarako, baina, eskaera egin beharko dute aldez aurretik, eta onartu egin beharko zaie.

Bestalde, gaur egun ez dago lan-deskonexioari buruzko politikarik abian.

### 3.2.7. Ordainsariaren gestioa

LABORAL Kutxan, lanbide-kategoriaren arabera jasotzen da ordainsaria. Lanpostu guztiek dute kategoria bat eta ordainsari bat esleituta (lanpostu berak soldata bera du, gizona edo emakumea izan), eta lansarien hazkundea berdina da langile guztientzat. Halaber, ez dago adinarekin lotutako desberdintasunik, antzinatasun-bosturtekoen ondoriozkoa izan ezik.

**Lagun Aro**n, langileak enpresaren jabe ez badira ere, parte hartzen dute gestioan eta enpresaren irabazietan. Honela egiten dute:

- Ordainketa aldakor indibidualaren bidez (unibertsala da).
- Ordainketa aldakor kolektiboaren bidez. Kontratu mugagabea duten langileei aplikatzen zaie (plantilla osoari, esateko), langileek emaitzetan parte hartzeko aukera ematen duen sozietate bati baitaude beren borondatez atxikita.

**Ordainketa-mailei** dagokienez, soldaten arteko aldeak nabarmen txikiagoak dira banku-sektorean ohikoak direnak baino.

| Hasierako soldata LKn eta CLBSn | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Bazkideen hasierako soldata minimoa eurotan / lan egindako orduak | 15,30 | 15,30 |
| Bazkideen hasierako soldata minimoa eurotan / lanbide arteko gutxieneko soldata* | % 1,92 | % 1,89 |

(*) Lanbide arteko gutxieneko soldata estatuko administrazioak ezartzen du, urte bakoitzerako. Ez dago sexuaren araberako desberdintasunik hasierako soldata estandarraren eta tokiko gutxieneko soldataren arteko erlazioan; horregatik, ez dugu sexuaren arabera banakatutako daturik eman.

| Lagun Aroko hasierako soldata | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Hasierako soldata minimoa eurotan / lan egindako orduak | 11,43 | 11,43 |
| Hasierako soldata minimoa eurotan / lanbide arteko gutxieneko soldata | 1,43 | 1,41 |

Jarraian, **soldaten dispertsioaren** ratioak emango ditugu. Horien arabera, soldaten arteko aldea oso txikia da, kooperatibek berezkoa duten elkartasunarekin koherentziaz.

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| LKn ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / ordainsari oso medianoa<br>LKn ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko ordainsariaren hazkunde medianoa | 4,64<br>–0,41 | 4,76<br>–0,17 |
| CLBSn ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / ordainsari oso medianoa<br>CLBSn ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko ordainsariaren hazkunde medianoa | 2,17<br>0,86 | 2,20<br>0,18 |
| Ondoen ordaindutako langilearen ordainsari osoa / **Lagun Aro**ko ordainsari oso medianoa | 2,1 | 1,7 |
| Lagun Aron ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko ordainsariaren hazkunde medianoa | –2,98 | 3,64 |

*LABORAL Kutxan, ordainsaria lanbide-kategoriaren arabera jasotzen da: lanpostu berak soldata bera du, gizona edo emakumea izan. Lansarien hazkundea berdina da langile guztientzat.

Ekitaldia ixtean, ekitaldi horretan lortutakoa aztertzen da, ordainketa aldakor indibidualarekin (OAIarekin) lotuta. Amaitutako ekitaldia helburu kuantitatiboen edo kualitatiboen arabera ebaluatzen da, kasua kasu. Ebaluazio hori bazkide guztiei egiten zaie. 539 bazkidek banakako helburuak izan dituzte 2021ean (548k 2020an), eta gainerakoek lantaldeari lotutako helburuak.

Jarraian, ordainketa aldakorrak (indibidualak + kolektiboak) langileentzat ordainketa osoaren gainean izan duen eboluzioaren berri emango dugu:

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Ordainketa aldakorra / Ordainketa osoa (%-tan) | % 7,19 | % 8,61 |

### Kapital sozialari ordaindutakoa

Bazkideek kapital sozialera egindako ekarpenak urteko % 1,25eko interes-tasa gordinarekin ordaindu dira 2021ean, nahitaezko ekarpenen kasuan eta borondatezkoen kasuan.

| Kapital sozialari ordaindutakoa (mila eurokotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Kapitalerako interesetan ordaindutakoa guztira (enpresa elkartuei, bazkide langileei…) | 29.170 | 9.784 |
| Lan-bazkideek eta kolaboratzaileek jasotakoa guztira (1) | 9.715 | 3.309 |

(1) LABORAL Kutxari egindako ekarpena erretiroa hartu ondoren entitatean uzten duten lan-bazkideak dira bazkide kolaboratzaileak.

## 3.2.8. Laneko segurtasuna eta osasuna

LABORAL Kutxak laneko segurtasuna eta osasuna (LSO) gestionatzeko sistema bat du; ISO 45001 araua betetzen du eta AENORek egiaztatu du. LABORAL Kutxa Osarten Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuko kidea da.

| Gestio-programa: 2021erako proposatutako ekintzak eta horien egoera |
|---|
| 1. ISO 45001 araua ziurtatzeko auditoretza gainditzea. Eginda |
| 2. Bulego-sarean enpresa-jardueren koordinazioa ezartzeko prozesua hobetzea. Eginda |
| 3. Aurrerapausoak ematea interes-taldeen artean kontsultatzeko eta parte hartzeko dinamikak hobetzeko. Eginda |
| 4. Arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea. 2022ra atzeratu da, ez dago erabat garatuta eta. |
| 5. Ohiko jarduerari eustea, mediku-azterketetan, arriskuen ebaluazioetan, enpresa-jardueren koordinazioan eta enpresa osasungarrian (Zainduz). Eginda |
| **Gestio-programa: 2022rako helburu eta konpromiso nagusiak** |
| 1. Arrisku psikosozialak ebaluatzeko metodologia berria ezartzea. |
| 2. Zainduz erabiliz, plantillako arrisku psikosozialei aurre egiteko ekimenak bideratzea. |
| 3. Bulego-sarean enpresa-jardueren koordinazioa ezartzeko prozesua finkatzea. |
| 4. Pandemia aurreko mailak berreskuratzea mediku-azterketen eta arriskuen ebaluazioen jardueran. |

Aurreko OHSAS ziurtagiria ordezkatzen duen ISO 45001 arauaren ziurtagiria lortzeko kanpo-ikuskapena gainditzea izan da 2021eko kudeaketa-sistemaren mugarri nagusia. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Politikak jasotako helburuak lortzeko, LSOko Gestio Planaren

jarduerak planifikatzen dira urtero. Gestio Sistemaren barruan, prozedura hauek daude, besteak beste: arriskubideak identifikatu eta arriskuak ebaluatzekoak, istripuak ikertzekoak eta osasuna zaintzekoak.

Segurtasun eta Osasun Batzordea parekidea da, eta Gestio Sozialaren Areako zuzendariak eta enpresako medikuak ere hartzen dute parte. Batzordeburua langileen ordezkarietako bat da (prebentzio-ordezkaria). Batzordeak 3 hiletik behin egiten du gutxienez bilera, eta bertan jorratutako guztia aktetan jasotzen da, geroago Giltzaneten (intranetean) pertsona guztien eskura jartzeko. Pertsona guztiak daude Batzorde horren jardueraren eraginpean.

Segidan, laneko segurtasunaren eta osasunaren kudeaketako adierazlerik nabarmenenak aurkeztuko ditugu xehetasunez:

| Istripu-tasa | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Langileen istripu-tasa | 0 | 1,46 |
| LK-ko, CLBSko eta LAko langileen istripu-kopurua | 25 | 28 |
| Hildako langileen kopurua | 0 | 0 |
| Lapurreta-kopurua | 0 | 0 |

Istripuen maiztasun-indizean oinarrituta ateratzen da istripu-tasa, baina in itinere, hau da, lanaren eta bizilekuaren arteko joan-etorrietan gertatu direnak eta bajarik sortu ez dutenak kanpoan utzita. Helburua da lanpostuan gertatu eta larritasunik handiena izan dutenak bakarrik hartzea kontuan. 2021ean, in itinere izan dira baja eragin duten istripu guztiak. Indize hori ateratzeko, lan egindako 1.000.000 ordutan gertatutako istripuak zenbatu dira. Sektorean ez dago aintzatetsitako gaixotasun profesionalik.

LSO sistemak lapurreta-arriskua ere hartzen du aintzat, LABORAL Kutxaren jardueraren ondoriozko arrisku berezien artean. Hortaz, lapurretetarako jarraibide-multzoa ezarri da, eta langile guztiei ezagutarazi zaie —intranetean argitaratu da—. Prebenitzeko nahiz esku hartzeko neurriak ezarri dira egoera horietarako. Era berean, kanpoko indarkeriaren aurrean erabiltzeko protokoloa garatu eta onartu zen 2018an, gure langileen aurkako erasoak, mehatxuak edo irainak gertatzen direnean erabiltzeko. Egoera horiek lan-istriputzat hartzen hasi ziren.

Urtero, larrialdi-simulakroak egiten dira Egoitza Nagusiaren eraikinetan. Era berean, lantoki guztiek larrialdi-planak dituzte, intranetean eskuragarri, edozeinek berari dagokiona ikus dezan. Ez da absentismoaren aldagaiei lotutako helbururik zehazten; aurreikuspenak egiten dira, baina tasa globalarekiko soilik. Pertsonak hartzeko prozesuaren barruan, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko prestakuntza-modulu bat dago. Sistemaren antolamendua azaltzen da bertan, bai eta arrisku nagusiak eta prebenitzeko portaerak ere.

2016. urtean, bi orduko nahitaezko prestakuntza bat ezarri zen, Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko langile guztientzat. Oinarrizko prestakuntza-modulu hori partaide berrientzako hasierako prestakuntzan sartu da harrezkero. Era berean, aldian behingo arriskuen ebaluazioan eta mediku-azterketetan, prestakuntza ematen da ergonomiaz, arrisku orokor zein berariazkoez eta ebakuazio-planez. 2020an, larrialdiei buruzko ordubeteko prestakuntza eman zitzaien langile guztiei, nahitaezkoa hori ere.

Lagun Arok bere Gestio Sistema du, hain zuzen ere arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko, istripuak ikertzeko eta osasuna zaintzeko LABORAL Kutxaren antzeko prozedurekin. Sistemak plantilla osoa estaltzen du, langileen ordezkariak biltzen dituen Segurtasuneko eta Osasuneko Batzorde Parekidearen bidez.

### COVID-19a

Laneko segurtasunaren eta osasunaren ikuspuntutik, pandemia izan da, oraindik ere, 2021eko egoera nagusia. Horren ondorioz, langileen eta bezeroen osasuna are gehiago lehenetsi behar izan du erakundeak. Prebentzio-neurriak mantentzera eta egokitzera behartu duten pandemiaren olatuek baldintzatu dute prebentzio-plangintza.

Koronabirus Batzordeak, Kutxako hainbat esparrutako pertsonek osatuak osasuneko langileekin —medikua eta erizaina— eta Segurtasun eta Osasun Batzordeko beste kide batzuekin —prebentzioko arduraduna (batzordeko lehendakaria) eta prebentzio-ordezkaria— batera, biltzen jarraitu du. Batzorde horrek gidatu du egoera, hala osasunaren ikuspegitik, nola merkataritzaren eta negozioaren jarraitutasunaren ikuspegietatik. Horretarako, beharrezko neurriak hartu ditu, eta bere misioa aurrera eramateko baliabideak erabili.

Aldian behin, barne-komunikazioak egin dira, erakundeko kideei egoeraren, hartzen ari ziren neurrien eta funtzionamendu-jarraibideen berri emateko.

### Zainduz osasun-plana

2018tik, osasun-plan bat dago LABORAL Kutxa taldeko langileentzat. Zainduz du izena eta lanean osasuna, segurtasuna eta ongizatea sustatzea du helburu. Xede horrekin, pertsonengan, familiengan eta horiek bizi diren inguruan ohitura osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko programak jartzen dira abian. Elikadura, jarduera fisikoa edota laneko osasuna hobetzeko moduak lantzen ditu, taldea osatzen duten pertsonen osasuna eta ongizate fisiko zein emozionala hobetzeko helburuarekin.

Aldi honetan, ZAINDUZ erreferentzia bihurtu da ongizatearen kulturari dagokionez, eta, poliki-poliki, osasun-jarrerak ari dira ezartzen entitatearen arlo guztietan. Hona hemen 2021ean egin diren ekintza nagusiak:

- Garapen pertsonaleko lantegia, 6 saiokoa.
- Norbera zaintzeko gomendioen ikastaroa.
- 11 proposamen, gehiago eta hobeto bizitzeko.
- Udako errezeta osasungarrien ikastaroa.
- Mugikortasun jasangarriko ekimen bat (Laboral byBike) ezartzea, lantokira bizikletan etortzea diruz laguntzen duena.
- Elikadura-segurtasunari eta nutrizio-etiketei buruzko jokoa.
- Norberaren zaintzari buruzko liburu elektronikoa: aldatzeko motibazioa.
- Bideokonferentzia: «Ohitura osasungarriak lan-munduan».
- Entrenamendu-errutina.
- Zainduzek bere bizitzako 3 urteetan abian jarritako ekimenen laburpen-bideoa. https://youtu.be/84_mPfgw_iY

zainduz

### 3.2.9. Onura sozialen paketea

LABORAL Kutxak ekimen hauek jarri ditu abian, lankideek jasotzen dituzten onura sozialak hobetzeko asmoarekin:

| Onura sozialak |
| --- |
| Pertsona guztientzako **urteko topaketa- eta bizikidetza-eguna** (Elkarte eguna) **ospatzea** eta, entitateak berak finantzatutako Lankide Klubaren bidez, kultura- eta kirol-jardueretan parte hartzea, lankideek lanalditik kanpo elkarren arteko harremanak sendotzeko. 2020an eta 2021ean ezin izan dira egin. |
| **Abantailak finantza-produktuetan** (bazkideentzat):<br>Aktiboa: ohiko etxebizitza erosteko mailegu hobariduna, ohiko mailegu osagarria, etxerako beste helburu baterako mailegua, nomina-aurrerakina.<br>Pasiboa: nomina-kontua.<br>Banku-zerbitzuak: komisioetatik eta txartelen kuotetatik salbuetsita egotea, hobariak.<br>Istripu-asegurua, auto-asegurua, etxe-asegurua, bizitzako / edozein arrazoiren ondoriozko heriotzako funtsa. |
| **Beste onura batzuk** (bazkideentzat):<br>Ikasketa pribatuak egiteko eta euskara ikasteko finantzaketa.<br>Izaera pertsonaleko ezohiko premiak betetzeko diru-funtsak.<br>Enpresako jantokia diruz lagunduta (pertsona guztientzat).<br>Ibilgailuaren kalteetarako estaldura.<br>Bazkideen heriotzak eragindako aparteko beharrizanetarako laguntza.<br>Aldi baterako ezintasuneko kasuetan aplikatzeko diru-laguntzak.<br>LABORAL Kutxan erretiroa hartu ondoren bazkide kolaboratzaile izaten jarraitzen duten pertsonentzat nahiz beraien alargunentzat, baldin eta bazkide kolaboratzaile badira. Hauek dira onurak: nomina-kontua, komisio batzuetatik salbuetsita egotea eta maileguak baldintza berezietan eskuratzea. |

Zehazki, entitateko lan-bazkideek onura sozial hauek dituzte:

#### Lankide Kluba

LABORAL Kutxak uste du lan-bazkideek elkarren arteko harremana sustatzen dutela, lanorduetatik kanpo kulturari, kirolari, turismoari eta abarri lotutako jarduerak partekatzen badituzte. Horregatik, egoitza nagusian nahiz lurraldeetako bakoitzean Lankide klubak sortzea erabaki du, aisialdiko jarduerak eginez pertsonen arteko harremanak sustatzeko helburu nagusiarekin.

2021ean, osasun-egoera dela eta, ezin izan dira urteko adiskidetze-jardunaldiak (Elkarte Eguna) egin, ezta ohiko jarduerarik gehienak ere, hauek izan ezik: antzerki- eta musika-emanaldietarako denboraldiko abonamenduak, mendi- eta txirrindularitza-federazioari zuzendutako dirulaguntza, futbol-txapelketak, futbolerako eta saskibaloirako abonamenduak eta txangoak. 2021erako 10.200 euroko aurrekontua zegoen.

#### Kapitalizatutako itzulkin kooperatiboak (pentsio-plan indibiduala)

LABORAL Kutxak emaitza erabilgarriaren % 12,5 banatzen du, urtero, lan-bazkideen artean, kooperatiba-itzulkin edo mozkinetako partaidetza gisa. Kopuru hori kapitalizatu egiten da, eta bazkideetako bakoitzak kapital sozialean daukan zatiari edo kuotari gehitzen zaio.

Kapital sozialeko partaidetza ezin da erabili, harik eta lan-bazkideak entitateko lanari uzten dion arte. Hortaz, entitateko lan-bizitza osoan eutsiko zaion pentsio-plan indibidual birtual moduko bat eratzen da. Sozietate-partaidetza horrek ordainketa bat (% 1,25ekoa 2020an eta % 4koa 2021ean) jasotzen du urtean behin, kapitalerako interes moduan. Pertsona bakoitzaren itzulkin kooperatiboa haren ordainsari gordin osoaren arabera esleitzen da.

| Lan-bazkideei esleitutako kooperatiba-itzulkina (mila eurokotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Urteko kopuru globala | 9.689 | 9.185 |
| Batez besteko kopurua bazkideko | 5,01 | d/e (1) |

(1) Datua ez da eskuragarri egongo Batzar Nagusia egin arte.

#### Osasun-laguntzako sistema osagarri bat finantzatzeko kuoten estaldura

LABORAL Kutxak bere gain hartzen du, lan-bazkideen onerako, osasun-laguntzako sistema integral bat (Gizarte Segurantza publikoaren osagarria) finantzatzeko behar diren kuoten erdibanako ordainketa. MONDRAGON korporazioak sistema hori eskaintzen die bere bazkide partaideei. Ordainketa partekatuak kontsumo-aurrerakin gordinaren gaineko % 1,40 hartu du 2021ean.

## 3.3 Gizartearekiko harremanak

### 3.3.1. Gestio-ikuspegia

LABORAL Kutxa Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso handia duen enpresa-talde baten barruan. Taldearen misioa da partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea, sozietateetako zuzeneko partaideentzat nahiz gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko.

Gizarte-laguntzak emateko irizpide eta mekanismoek berezitasun batzuk dituzte:

- LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du ekarpen solidarioen zati handi bat.
- Kooperatibaren organo instituzionalen ardura dira Heziketako eta Sustapeneko Funtsaren ataletako baten (Banaketa Orokorraren) kargura banatzen diren dirulaguntzak. Alabaina, Kontseilu Sozialak (hau da, entitateko langileak ordezkatzen dituen organoak) ere hartzen du parte.



- Gainera, gizarte-lanen atal zehatz bat tokiko beharretarako (tokiko banaketarako) gordetzen du, eta bulegoen bitartez egiten du esleipena. Bulego horiek inguruko jardueretara (auzo-elkarteetara, inguruko ikastetxeetara, gizarte-ekintzako eliza-taldeetara, etorkinei laguntzeko zentroetara…) bideratzen dituzte laguntzak.

Heziketako eta Sustapeneko Funtsak (HSFak) helburu hauek ditu:

- Plantilla kooperatibismoaren printzipio eta balioetan trebatu eta heztea.
- Kooperatibismoa hedatzea eta kooperatiben arteko harremanak sustatzea.
- Gizartean kultura, lana eta laguntzak bultzatzea, bizi-kalitatea hobetzea eta gizarte-garapena eta ingurumena babesteko ekintzak sustatzea.

Kooperatiba arteko Funts Sozialak (KFSak) helburu hauek ditu:

- Enpresa-proiektuak eta kooperatiben zabalkundea indartzea, Mondragon Inversionesen eta Hedapen Funts Korporatiboaren bidez.
- Besteak beste, zailtasunak dituzten MONDRAGONeko kooperatibei eta I+G+b-ko edo prestakuntzako proiektuei laguntzea, Mondragon Fundazioaren eta KGFaren (Kohesio eta Garapen Funtsaren) bidez.

2021eko ekitaldian, LABORAL Kutxak ingurumenaren, biodibertsitatearen eta garapen jasangarriaren aldeko apustua indartzen jarraitu du, nekazaritzako elikagaien sektoreko eragile nagusiekin sinatutako hitzarmenen bidez eta landa-eremuari lotutako ekimenei emandako laguntzaren bidez.

2020an ezin izan zen ohiko mozkin-banaketa hori egin. Europako eta Espainiako banku-arautzaileek mugatu egin zuten finantza-sektoreko mozkinak banatzeko aukera; helburua izan da bankuen balantzeak sendotzea, osasun-krisiaren balizko ondorio ekonomikoei aurre egiteko.

### GAZTENPRESA Fundazioa

Gaztenpresa Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da. LABORAL Kutxaren gizarte-jardunaren barruan dago, eta enplegua sortu eta kontserbatzeko ekimenak babestea eta gauzatzea du xede. Horretarako, enpresa- eta lanbide-garapenean erabiltzaileei, aliatuei eta gizarte osoari balioa ekarriko dieten programak eta zerbitzuak eskaintzen ditu. Hartzaile hauek ditu:

- ekintzaileak, batez ere gazteak
- gizarteratzeko eta laneratzeko arazoak dituzten kolektiboak
- garatzeko proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak
- ikasleen artean ekintzaile-sena sustatu nahi duten prestakuntza-erakundeak

LABORAL Kutxak eta Mondragon korporazioak, batetik, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Lanbideren bidez, eta Europako Gizarte Funtsak, bestetik, finantzatzen dute **Gaztenpresa** Fundazioa. 2020an, enpresak sortzeko ahalegin handia egin du, berriz ere, fundazioak; izan ere, artatu diren eta bideragarritasun-fasea gainditu duten proiektuen bidez 278 enpresa eta 547 lanpostu sortu dira. EAEn eta Nafarroan du jarduera-eremua.

Helburu nagusia da negozio txikiak eta mikroETEak sortu, garatu eta kontserbatzea, langabezian edo lanpostua galtzeko arriskuan dauden pertsonentzako autoenplegu-aukerak eskainiz.

Prozesuaren urratsen artean dago ekin nahi duen pertsona identifikatu eta garatzea, baita merkatuaren errealitatera egokitzea ere, haren egoeraren araberako autoenplegurako aukerarik egokienak proposatzeko. Laguntza integrala eskaintzen du, eta enpresa sortzeko eta sortutakoari sendotasuna eta iraupena emateko orientazioaren, prestakuntzaren eta laguntza teknikoaren beharrari erantzuten dio.

Enpresa bat abian jartzea erabakitzen duten pertsonek beren ekimen pertsonala garatzea eta jarduera-eremu izango duten enpresa-ehuna ezagutzea lortu nahi du fundazioak. Horretarako, langile adituak eskaintzen dizkie, egingo duten bidean orientabidea emateko eta, horrela, beren proiektu profesionala lantzeko aukera izan dezaten.

| Gaztenpresaren proiektuak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Bideragarriak izaki negozioa abiarazi dutenak | 259 | 278 |
| Bideragarriak izan ala ez negozioa abiarazi ez dutenak | 209 | 174 |
| Baterakuntza | - | 129 |
| Deribatuak | 104 | 127 |
| Kontsultak | 242 | 358 |
| **Guztira** | **813** | **1.066** |

Hauxe da negozioa abiarazi duten proiektu bideragarrien lurraldekako banaketa:

| Gaztenpresaren proiektuak 2021ean | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Nafarroa | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Bideragarriak izaki negozioa abiarazi dutenak | 37 | 140 | 67 | 34 | **278** |

Negozio txikiak dira, eta zerbitzuak eta merkataritza dituzte jarduera-sektore nagusi.

- Batez besteko inbertsioa 71.200 €-koa izan da 2021ean.
- Kutxak emandako batez besteko finantzaketa 35.618 €-koa izan da.
- % 49k langile 1 izan du hasieran, baina, batezbestekoa 2 lanpostukoa da sortutako enpresa bakoitzeko.
- Ekintzailearen batez besteko adina 39-40 urtekoa da.
- Sexuaren ikuspegitik, ekiten duten emakumeen ehunekoa % 44koa da.

Behin enpresa abian jarrita, ekintzaileak zailtasun praktiko ugari izan ohi ditu, eta bakarrik sentitu ohi da horiei behar bezala aurre egiteko. Gaztenpresak enpresak finkatzeko ekintzak bideratu ohi ditu, ekintzaileei laguntzeko. Era berean, kontsultak jasotzen ditu inbertsio berriei, ixteko erabakiei, merkatu-aldaketei edo laguntza-eskaera berriei buruz.

| Enpresak finkatzea | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Lantegiak** | 40 | 51 |
| Finkatze-bidean dauden enpresak | 370 | 129 |
| PRO zerbitzuan jasotako kontsultak | 978 | 341 |
| Mentoring programa | 19 | 33 |

Horrez gain, **mentoring** programaren bidez, laguntza pertsonalizatua eskaintzen da urtebetez. Horren bidez, Gaztenpresarekin boluntario gisa lan egiten duen eta ekintzailetzan esperientzia duen aditu batek laguntza eskaintzen dio, lehen enpresa-ekimena abiatzen ari den ekintzaile gazteari, trebetasunak eta gaitasunak indartzeko, garapen pertsonala eta profesionala ahalbidetzeko eta negozioa finkatzeko. Gaztenpresaren mentoring-programa *Youth Business International* sareko beste kide batzuen esperientzian oinarrituta egituratutako prozesua da, eta *Youth Business International* konpainiaren laguntza du.

Zeharkako ekarpenak gizarteari

Zeharkako inpakturik nabarmenena aberastasuna eta enplegua (ahal dela kooperatiboa) sortu eta banatzea da, eta LABORAL Kutxak MONDRAGON taldeari egindako baliabide-ekarpenaren bidez gauzatzen da. Gainera, ehunka babesletza-ekintzaren bidez ere eragiten dugu gizartean, baliabide ekonomiko ugari bideratuz sustapenera.

2021ean, pandemiak ekarritako egoerak eragin itzela izan du ekarpen horietan. Batetik, Espainiako Bankuaren aginduz, finantza-entitateok ezin izan ditugu irabaziak banatu. Aldi berean, bizitako egoeraren eraginez, aukera gutxiago izan ditugu ekitaldiak antolatzeko eta babestu izan ditugun jarduerarik gehienak babesteko —kultura, kirolak, hitzaldiak, sariak, ekintza solidarioak…—.

Halere, 2021ean ekintza ugari sustatu ditugu. Honako hauek, adibidez: Gizakia Helburu Nafarroa, EITB Maratoia, Euskharan, Ume Alaia, Nafarroako Elikadura Bankua, Atzegi, Ikertze, Gureak, Zaporeak, Aspargi, Autismoa Araba, Eusko Ikaskuntza Gazte Saria, Sendabide, Aspanoa, Inclusport, Txatxilipurdi, Euskal Herriko Bertsolari Elkartea, Bizipoza, Kultura Bizia, Unesco Etxea, Lur Maitea, Atletismo Egokituko Kluba, Herri Kirolak, AED Sariak.

Administrazio publikoekiko eta alderdi politikoekiko harremanak

LABORAL Kutxak Sektore publikoaren gestioari buruzko eskuliburuan zehaztuta duenez, Administrazio Publikoaren Gestioa bereizia eta integrala da, eta Enpresen Sareko Sektore Publikoaren Bulegoak koordinatu eta dinamizatzen du. Era berean, LABORAL Kutxako area bakoitzak segmentu hori gestionatzeko duen erantzukizuna eta eginkizunak zehazten ditu agiriak, alegia segmentazioari, gestionatzeko sistematikari, informazio-sistemei, merkataritza-estrategiei eta arriskuaren gestioari lotutakoak.

Ildo beretik, LABORAL Kutxaren Arriskuen eskuliburuaren «Kreditu-arriskuaren politika, metodoak eta irizpideak» atalak «Sektore Publikoarekin ezarri beharreko arrisku-politika» jasotzen du 5. atalean. Enpresen esparruan, politika berezia zehaztu da, dituen lege- eta kontabilitate-berezitasunak kontuan hartuta. LABORAL Kutxak ez du finantzatzen nazioko edo nazioarteko elkarterik edo erakunderik, taula honetan adierazitako alderdi politikoentzako maileguak eta abalak izan ezik:

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Eusko Alkartasuna | 96 | 90 |
| EAJ | 550 | 569 |
| **Kredituak (mila eurokotan)** | 646 | 659 |

## 3.3.2 Magnitude nagusiak: irabaziak gizartean banatzea

Gestio-ikuspegian azaldu dugunez, hauxe da LABORAL Kutxa taldeak gizarteari egiten dion ekarpen nagusia: bere urteko irabazi banagarrien % 25 banatzea. 2021ean, **8 milioi eta erdi euro** pasatxo izan dira. Azaldu dugunez, Espainiako Bankuaren aginduz 2020an eta 2021ean ezin izan dugu Kooperatiba arteko Funts Sozialean ohiko emaitzen ekarpena egin. Hauxe izan da banaketa, kontu-sailen artean:

| Kontzeptua (mila eurokotan) | Aplikazio-urteak | |
|---|---|---|
| | 2020 | 2021 |
| Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez) | 0 | 0 |
| **Kooperatiba arteko Funts Soziala - KFS (emaitza banagarrien % 15)** | **0** | **0** |
| Kooperatiben sustapena, MONDRAGONen bidez (HSFaren % 68) | 8.118 | 6.113 |
| Beste ekimen kooperatiba eta balio sozial batzuk | 121 | 273 |
| Ekintzailetza eta Enpresa- eta lan-prestakuntza (*Gaztenpresa fundazioa*) | 197 | 105 |
| Kultura-jarduerak, oro har, eta bestelakoak | 446 | 750 |
| Euskararen eta euskal kulturaren sustapena | 318 | 536 |
| Laguntza-erakundeak eta garatzeko bidean dauden herrialdeetakoak | 398 | 729 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | 55 | 33 |
| **Heziketako eta Sustapeneko Funtsa – HSF (emaitza banagarrien % 10)** | **9.653** | **8.531** |
| **KFS + HSF** | **9.653** | **8.531** |

### 3.3.3. Gizartearekiko elkarrizketak

Honako hauek dira gizartearekin erabiltzen ditugun elkarrizketa-bide nagusiak.

| **Interes-taldea: gizartea** |
|---|
| **2021ean gauzatutako elkarrizketa-bideak:** |
| ▪ Gizarte- eta ingurumen-sustapena helburu duen Iraunkortasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarteko (Izaiteko) kide izatea. |
| ▪ Ekintzaileen arteko gizarte-sarea, Gaztenpresa Fundazioaren bidez kezkak jaso eta lankidetza-ekimenak proposatzeko. LABORAL Kutxa Espainiako Youth Business Internationaleko (YBI-YBSko) kide sortzailea da. Jardunbide egokien eta gazteen ekintzailetzaren laguntzarako nazioarteko sarea da. |
| ▪ Interneteko blog eta sare sozialetan presentzia duten komunitate birtualetan parte hartzea eta horiek dinamizatzea, harremanak sendotzeko eta ideia eta ekimenak biltzeko:<br>❖ Instagram: 9.001 jarraitzaile<br>❖ Facebook: 20.873 zale<br>❖ Twitter: 8.024 jarraitzaile<br>❖ Bloga: 878.485 irakurle<br>❖ WhatsApp: 1.000tik gora erabiltzaile artatuta hilean |
| ▪ Online Bankaren erabiltzaileen iritziak eta itxaropenak antzemateko azterketa berezia. Horretarako, jarraipenak egiten ditu Interneteko tresnez, iritziez, foroez, sare sozialez eta adituen iruzkinez baliatuta. |
| ▪ Hainbat erakunderekin lankidetzan sariak eskaintzea, adibidez: 2021eko Eusko Ikaskuntza - Laboral Kutxa saria, Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzietakoa, Agustin Azkarate historialariak eta arkeologoak eta Ane Zulaika ikus-entzunezkoen sortzaileak lortu dute. Etxepare Itzulpenaren saria, berriz, Nami Kaneko japoniarrarentzat izan da. Bestalde, 2021ean Elkartasunari emandako Nazioarteko Nafarroa Sariari heldu zaio berriro, eta El Caracolek jaso du; Mexikoko hirian kalean bizi diren pertsonei laguntzen die elkarte horrek.<br>▪ LABORAL Kutxak EGEaren alorrean egiten dituen jardueren inguruko inkesta, enpresako, Banka Pertsonaleko, KIDE eta TOP segmentuetako eta PRO-mikroenpresetako bezeroei zuzendua, 2020ko txostenaren txosten exekutiboa bidali geniela aprobetxatuz.<br>▪ Aurkezpen publikoak. Deituta dauden foroetara —unibertsitateak, elkarrizketak, hitzaldiak— joaten dira LABORAL Kutxako ordezkariak, entitatearen egiteko moduak eta gizartearekiko konpromisoa azaltzeko. Foro horiek, era berean, interes-taldeekiko elkarrizketak finkatzen laguntzen dute. |

2021ean, gizarte-erantzukizuna hainbat interes-talderen artean hedatzen jarraitu du LABORAL Kutxak. Hauek egin ditu, zehazki:

- Txosten hau jendearen eskura jarri du entitatearen, GRIren eta Izaiteren webguneetan.
- EGEari buruzko txostena entitatearen barnean ezagutarazi du, intranetaren (Giltzaneten) bidez.
- Mezu elektroniko bat igorri die 615.000tik gora bezerori, txostenaren lerro nagusiak jasotzen dituen Txosten Exekutiboa eta txostenaren bertsio osoa eskainiz. Harreman hori aprobetxatu dugu LABORAL Kutxaren EGEari buruzko iritzia eskatzeko.

### 3.3.4. LABORAL Kutxak babestutako ekimenak

Taula honetan, LABORAL Kutxak abian jarritako azken ekimenak ageri dira:

| Izena | Helburua | Noiz |
|---|---|---|
| Hitzarmena FIARErekin, Banca Popolare Eticarekin berritu ondoren | Banka etikoarekin lankidetzan jarduteko konpromisoa. 2017an berritu egin zen, Banca Popolare Eticaren Espainiako sukurtsal bihurtu ondoren Fiare. | 2005 |
| Nazio Batuen Mundu Itunari atxikitzea | Itunaren 10 printzipioekiko konpromisoa eta horietan aurrera egitea. | 2006 |
| Izaite Iraunkortasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkartearekin bat egitea | Enpresa-jasangarritasunaren inguruko esperientziak partekatu eta garapen jasangarriari buruzko prestakuntza eta hedapena sustatzea. | 2006 |
| Autocontrol elkartean sartzea | Merkataritza Komunikazioa Autorregulatzeko Elkartea. | 2007 |
| Hitzarmenak emakume enpresaburuen elkarteekin | Enpresa bat sustatzeko asmoa duten emakumeei laguntza integrala eskaintzea. Hitzarmenak Bizkaiko (AED), Gipuzkoako (ASPEGI), Arabako (AMPEA) eta Nafarroako (AMEDNA) emakume enpresaburu eta zuzendarien elkarteekin. | 2007 |
| EFMAren europar foroak: SME Council, Operational Excellence Council, Espainiako Txikizkako Bankuko Erabakitzaileen Kluba | Europan nabarmentzen diren kutxa eta bankuen artean merkataritzaren eta gestioaren arloetako jardunbide egokiak trukatzea, EFMAren (banku eta aseguru-entitateen Europako elkartearen) bidez. | 2010 |
| Elkarrekiko harremanetan euskararen erabilera indartzeko hitzarmenak hainbat udalekin | Hasiera batean, Andoaingo, Astigarragako, Hernaniko, Lasarte-Oriako eta Urnietako udalekin. 2016an UEMAko 38 udalerritara hedatu zen. | 2011 |
| Gizarte-ekonomiari laguntzeko hitzarmenak | Urteko hitzarmenak gizarte-ekonomiari lotutako elkarteekin: Euskadi (KONFEKOOP, ASLE), Nafarroa (ANEL), Asturias (ASATA), Salamanca (OWEN), Kantabria (ACEL), Leon (ULECOOP) eta, estatuan, CEPESekin. | 2012 |
| Akordioak Europako Inbertsio Funtsarekin (IEFrekin) | Mikroenpresak eta bertako lanpostuak sortu eta finkatzen laguntzeko akordioak: EaSI Mikrokredituak, EaSI Soziala eta EaSI Innovfin. | 2013 |
| Hitzarmenak enpresa-elkarteekin | Enpresaburuentzako eta ETE-etako kudeatzaileentzako prestakuntza-jardunaldiak eta lantegiak Bizkaian, SEArekin (Arabako enpresaburuekin) eta Arabako eta Gipuzkoako merkataritza-ganberekin. | 2013 |
| YBS-Youth Business Spain elkartearen tokiko bazkide eratzailea | Youth Business Internationalen, Gazte Ekintzaileei Laguntzeko Nazioarteko Sarean, parte hartzea. | 2014 |
| Hizkuntza-eskubideak zaintzeko hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin | Bezeroei eragiketa guztiak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko aukera bermatzea. | 2015 |
| Finantza-hezkuntzako ekimenetarako jardunbide egokien kodea | Finantzen alorreko hezkuntza-programak. CNMVrekin eta Espainiako Bankuarekin lankidetzan, eta jarduera komertzialetik bereizita. | 2016 |
| Berriz Enpresa programa GIPUZKOAKO GANBERAREKIN | Gaztenpresaren bidez beren enpresa-ekimenei finantza-orientazioa emateko ganberara jotzen duten ekintzaileekin lankidetza. | 2017 |
| Hitzarmena BCCrekin (Basque Culinary Centrerekin) | Gastronomiarekin eta prestakuntzarekin lotutako sustapen esklusiboak, BCCk antolatuak eta LK-k gainbegiratuak, hainbat gestio-segmentutarako. | 2017 |
| Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak | Etorkizuneko banku-sistema jasangarrirako esparrua. 6 printzipioekiko konpromisoa. | 2019 |

Lagun Aro Aseguruak:

Lagun Aroren EGEari buruzko txostenaren 63. eta 64. orrialdeetan aseguru-etxeak egindako ekintzak ezagutu daitezke.
https://www.seguroslagunaro.com/corporativa/uploads/html/memoria-rse-2020/eu/index.html

## Finantza-hezkuntza

Finantza-hezkuntzaren esparruan 2021erako aurreikusitako jarduerak oso gutxi garatu dira aurten. Pandemiak eragin handia izan du bai definitutako, diseinatutako eta aurreikusitako ekimenetan, bai hasierako fasean zeuden eta urtean zehar garapen eta ibilbide nabarmena izan behar zuten proiektuetan.
Ondorioz, eskaera nahiko handia izaten hasiak ziren jarduera berriak, hala nola unibertsitateko ikasleentzako aurrez aurreko lantegiak eta ikastetxeetako bisitak, gelditu egin ziren urtean.
Beste jarduera batzuek, adibidez Finantzetan Murgilduz Erronkak ez du izan esperotako eragina; hezkuntza-programa hori hainbat ikastetxe-saretan sustatzea zegoen aurreikusita (bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleentzat).
Jakina, ahalegin handia egin dugu orain arte erabili dugun formatu presentziala behar ez duten finantza-hezkuntzako jarduerei ere eusteko.

Finantza-hezkuntzaren alorrean, ekimen hauek bideratu ditugu:

- Hezkuntza-programa: Finantzetan Murgilduz Erronka. 2021ean, 13 ikastetxek erabili dute baliabide didaktiko hori.
- Bigarren hezkuntzako ikastetxeek LK bisitatzea: nahiz eta gehiago antolatuta izan, lantegi bakarra egin ahal izan da 8 ikaslerekin.
- Finantzargi (unibertsitateko ikasleak). Oinarrizko finantzetako prestakuntza Mondragon Unibertsitateko ikasleentzat. 3 taldek eta 70 ikaslek hartu dute parte.
- Haurrentzako marrazki-lehiaketa, KKNBren ondoan, «Zure finantzak ere jasangarriak» gaiaren inguruan.
- Blogean 72 testu argitaratzea, gaurkotasun finantzarioaren kultura eta ezagutza hobetzen laguntzeko.
- LABORAL Kutxako Ikerketa Zerbitzuak aldian behin hainbat txosten argitaratzea: Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako ekonomiari buruzko txostena, ekonomia-aurreikuspenei buruzko txostena eta enpresen eta familien konfiantza-indizea.

## Jasotako sariak

Azken 3 urteotan, sari hauek jaso ditugu:

- Master Marketing saria (PesMes), 360 graduko komunikazio-kanpainengatik.
- Digitalizazio eta Adimen Artifizialeko Estatu Idazkaritzaren enerTIC Awards saria, LABORAL Kutxak Smart Buildings kategorian garatutako energia-efizientziaren digitalizazioa proiektuari.
- 2020ko Computing saria, «Azpiegituraren eta aplikazioen modernizazioa» kategorian.

Lagun Arok, berriz, «EthSI®» (Ethical and Solidarity-Based Insurance) ziurtagiria berritu du 2020an —2 urteko iraupena du—.

GESTIO ETIKOA ETA SOLIDARIOA

Finantza Etikoen Behatokiak EthSI (Ethical and Solidarity Based Insurance) zigilua eman dio Seguros Lagun Arori, beraren gestio etikoa eta solidarioa aintzatesteko.

Aseguruen sektorean gardentasuna eskaintzeko eta aseguru etikoen garapena sustatzeko irizpide-multzo bat hartu izana saritzen da zigilu horren bidez.

Ebaluazio-batzorde independente baten bidez, arlo hauetako alderdiak balioesten ditu Behatokiak: komunitatearekiko eta lurraldearekiko erantzukizuna, erantzukizun ekonomikoa, inbertsio etikoak eta banku-jarduera etikoaren erabilera, ekitatea eta gardentasuna, ingurumen-erantzukizuna, laneko erantzukizuna, sozietate-egitura, gobernantza eta funtzionamendu demokratikoa

## 3.4. Ingurumenarekiko harremanak

### 3.4.1. Gestio-ikuspegia

2001az geroztik, Ingurumena Gestionatzeko Sistema (IGSa) du LABORAL Kutxak, ISO 14001 Arauarekin bat, Egoitza Nagusiko hiru eraikinetako jarduera guztietan. LABORAL Kutxak zerbitzu zentraletan gauzatzen dituen ingurumenaren alorreko jarduketarik gehienak gainerako lantokietara zabaltzen ditu, ziurtagiridun sistemaren barnean egon ez arren. 2019an, ingurumen-ziurtagiria berritu egin zen beste 3 urterako.

Ingurumena Gestionatzeko Sistema Ingurumen Batzordeak kudeatzen du, eta Aholkularitza Juridikoko, Barne Ikuskaritzako, Arriskuetako, Higiezinetako, Segurtasuneko eta Zerbitzu Orokorretako, eta Plangintzako eta Gestio Kontroleko kideek osatzen dute; azken horretako ordezkariak egiten ditu koordinatzaile-lanak. Rioko Adierazpenaren zuhurtziazko printzipioa ezarriz, jarduerak izan litzakeen inpaktuak hartzen dira aintzat, ingurumenari kalterik ez egiteko. Finantzen eta aseguruen jarduerak ingurumenean dituen zuzeneko ondorioak (isurtzeak, kontsumoak edo hondakinak) ez dira bereziki garrantzitsuak; kreditu- eta inbertsio-jarduerak eragindakoak bai, ordea.

**Seguros Lagun Arok** LABORAL Kutxaren politika bera darabil ingurumenaren gestiori dagokionez, eta, beraz, helburu hau du: etengabe hobetzea ingurumen-portaeran, kutsadurari aurrea hartzen eta ingurumena babesten. Dena den, LABORAL Kutxaren bulego-sarea bezalaxe, ez da haren Ingurumena Gestionatzeko Sisteman sartzen.

Jardueraren izaeragatik, txikia da aseguru-entitateak eragindako zuzeneko ingurumen-inpaktua, eta haren gestioak paper-kontsumoan jarri du arreta.

Ingurumenaren ikuspegitik bada berritasun bat: 2021ean 10 bulego ireki dira, eredu fisiko berriarekin. Eredu horren arabera, aire-girotzeko eta led-argiztapeneko instalazio berriak ezarri dira, presentzia detektatzeko sistema eta guzti, eta, ondorioz, jardueraren eragina hobetu da, energia-kontsumoa murriztearen bidez.

Mugarri garrantzitsua izan da, halaber, mugikortasun jasangarriko LABORAL Bybike programa abian jartzea, lantokira bizikletaz joatea bultzatzen duena.

Nolanahi ere, 2021ean ingurumenaren alorrean egindako aurrerapenik garrantzitsuenek ez dute zerikusirik jardueraren zuzeneko eraginarekin —kontsumoak, hondakinak eta isurtzeak—, baizik eta finantza-sistema ingurumenaren aldetik jasangarriagoa egitearekin. Txosten honetan esan denez, Europako Batasunak finantza-sistema erabili nahi du egungo eredu ekonomikoa

iraunkorragoa bihurtzeko eragile gisa. Urtean zehar lan handia egin da araudi hori aplikatzeko eta erakundea jasangarritasunaren paradigma berri horretara egokitzeko. Hauek dira finantzaketaren edo inbertsioaren bidez ingurumenean eragina duten ekintzetako batzuk:

- Jasangarritasunari buruzko informazioa zabaltzeari buruzko 2088/2019 Erregelamendua aplikatzea.
- Finantza jasangarrien estrategiari buruz gogoeta egitea.
- Taldearen gobernantza estrategia horretara moldatzea.
- Datu-sistemak egokitzea, jasangarritasunari buruzko informazioa sartzeko, EBko jardueren taxonomia aplikatuz.
- Hipotekatutako etxebizitzen energia-kalifikazioa erregistratzea.
- Higiezinak birgaitzeko mailegu bat garatzea.

AENORek urtero ikuskatzen du IGSa, eta, 2021ean, auditoretza Laneko Segurtasuneko eta Osasuneko ISO 45001arekin batera egin da, lehen aldiz. Ziurtagiria berritzeko 2021-11-23ko auditoretza-txostenean, IGSaren alde indartsu hauek aipatzen dira:

- Ikuskatutako langileek gardentasunez egitea auditoretza-prozesua.
- Ikuskatutako taldearen inplikazioa eta laguntza.
- Sistemaren malgutasuna COVID-19aren pandemiaren testuinguru berrira egokitzeko.
- 2022ko Aste Santuan LK3 eraikina berritzeko asmoa dago, eta horrek biomasaren instalazioa aprobetxatzea ekarriko du.

Ez da aipatzen adostasun-ezik.

IGSak bete behar duen ISO arauak dioenez, erakundeko eginkizun eta maila guztiek (goi-zuzendaritzaren gidaritzapean) duten konpromisoaren mende dago ingurumena gestionatzeko sistemaren arrakasta. Ildo horretatik:

- Goi-zuzendaritzak onartutako ingurumen-politika du LABORAL Kutxak, eta langile eta bezero guztiek dute eskura, webgune korporatiboan argitaratuta baitago.
- Urtean behin, plangintza egiten du, ingurumen-alderdiekin lotutako arriskuak eta aukerak zehazteko.
- Horietan oinarrituta, helburu batzuk finkatzen ditu, gero jarraipena egin eta ezagutarazteko, bai barruan bai kanpoan.
- Ingurumen-helburu horiek lortzeko ekintza egokiak ere antolatzen ditu, hauek zehaztuz: zer egingo den, zer baliabiderekin, nor izango den arduraduna eta zer adierazle erabiliko den horien burutzapena ebaluatzeko eta epeak bete diren egiaztatzeko.

### 3.4.2. Magnitude nagusiak eta bideratutako ekimenak

Hona hemen ingurumen-arriskuei aurrea hartzeko baliabideei buruzko datuak:

| IGSari zuzenean egotzitako gastuak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| IGSaren mantenua (1) | 4.106 | 2.015 |
| Hondakinen gestioa (2) | 3.705 | 3.705 |
| Ingurumen-sustapena | 2.519 | 0 |
| Neurketak (isurtzea) | 1.145 | 0 |
| **Guztizkoa €-tan** | **11.475** | **5.720** |

(1) IZAITE, Planetaren Ordua eta legezko betekizunak. 2021ean, AENORen ikuskaritza ISO 45001 delakoarekin batera egin denez, ez zaio ingurumen-programari egotzi.
(2) Papera eta olioa kentzea eta segurtasun-kontseilaria.

Ingurumen Batzordeak zuzenean gestionatzen ditu gastu horiek; ez dira kontuan hartu, ordea, departamentu zehatzek gestionatutako gastuak eta egindako inbertsioak. **Seguros Lagun Aro**k ez du helburu horretarako kontu-sail berezirik.

Zuhurtasun-printzipioari dagokionez, ingurumen-arriskuak eta -aukerak aztertzeko Ingurumena Gestionatzeko Sistema bat du LABORAL Kutxak, lehenago ere azaldu dugunez. Azterketa horretan ez da antzeman produktu edo teknologiarik, jendearen edo ingurumenaren osasunarentzat arriskugarria izan daitekeela susmatzeko modukorik.

Era berean, ez da ikusi zuzeneko ingurumen-arriskuetarako hornidurak eta bermeak ezartzeko beharrik.

### Ingurumen-arriskuen ebaluazioa

LABORAL Kutxak «Arriskuen Berrikuspenaren eta Gestioaren Kontrola» izeneko prozedura du ezarrita, Ingurumena Gestionatzeko Sistemaren barruan. Kreditu-inbertsioko eta sinadura-arriskuko eragiketa guztietan ingurumen-arriskuak ebaluatzeko eta kontrolatzeko eman behar diren urratsak finkatzen ditu, eta jarduera bakoitzari arrisku handia, ertaina edo txikia esleitzen dio. Altxortegia, balore-zorroa eta aktibo monetarioak, baina, kanpo utzi dira. Esleitutako arrisku-maila Handia bada, faktore hori ere kontuan hartzen da eragiketa positiboa edo negatiboa izan den balioztatzeko.

| Segmentua | Eragiketa-kopurua | | Mila €-kotan | | Handia | | Ertaina | | Txikia | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Enpresak | 751 | 622 | 938.704 | 1.381.153 | 28 | 30 | 103 | 88 | 490 | 434 |
| Partikularrak | 5 | 2 | 14.333 | 8.100 | - | - | - | - | 5 | 2 |
| Autonomoak | 2 | 2 | 130 | 1.450 | - | - | - | - | 2 | 2 |
| Negozioak | 20 | 23 | 23.673 | 25.061 | - | - | 2 | - | 17 | 22 |
| Sustatzaileak | 61 | 46 | 314.962 | 238.554 | - | - | - | - | 50 | 42 |
| Erakundeak | 163 | 110 | 415.341 | 404.477 | 8 | 7 | 35 | 4 | 81 | 54 |
| Publikoa | 51 | 41 | 2.539.052 | 2.165.119 | - | - | - | - | 44 | 39 |
| Kreditua finantzatzea | 10 | 11 | 8.313 | 5.982 | - | - | - | - | 1 | 1 |
| **Guztira** | **1.063** | **857** | **4.254.507** | **4.229.895** | **36** | **37** | **140** | **115** | **690** | **596** |

Enpresak hainbat produkzio-zentro baditu, arriskua horietako bakoitzean balioztatzen da, eta ateratako arriskurik handiena esleitzen zaio enpresari. Azken 2 urteotan ez da eragiketa bat ere atzera bota, ingurumen-arriskuagatik.

Beste alde batetik, 4.2 Inbertsio Gizartearekiko Arduratsua atalean, kreditu-inbertsioan nahiz inbertsioen gestioan ingurumenaren ikuspuntutik egiten diren beste ingurumen-kontrol batzuk aipatzen dira.

### Gardentasuna erregai fosilekiko esposizioan

Europako Batzordearen 2018ko martxoko jakinarazpen batek *Garapen jasangarria finantzatzea* izeneko ekintza-plana jasotzen du. Helburu hauek ditu, besteak beste:

- Kapital-fluxuak inbertsio jasangarrietara bideratzea.
- Horren ondoriozko finantza-arriskuak (batez ere klima-aldaketaren ondoriozkoak) gestionatzea.

Klima-aldaketaren arriskuak gestionatzearen garrantzia azpimarratzearen ildo horretan bertan, *Financial Stability Board* (*FSB*) delakoaren *Task Force on Climate-related Financial Disclosure*

(*TCFD*) erakundeak klima-alderdiei lotutako informazioa emateko gomendioak kaleratu zituen 2017ko ekainean. Banku-jarduerari dagokionez, karbono-isurtzeei lotutako aktiboen arrisku-esposizioaren kontzentrazioa neurtzearen eta gestionatzearen garrantzia azpimarratzen du, eta kontzeptu horren barruan sartzen ditu erregai fosiletatik datorren energia ekoitzi eta hornitzen duen industriari buruzkoak, energia berriztagarrien alorra kanpoan utzita. Hortaz, elektrizitate konbentzionala, petrolioa, gasa eta ikatz-meatzaritza ekoizten eta hornitzen parte hartzen duten enpresak daude sartuta.

| Erregai fosilekiko esposizioa 12-31n (mila €-kotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Kreditu-arriskuarekiko esposizioa** | | |
| Zirkulatzailearen arriskua | 35.621,4 | 61.103 |
| Egiturazko arriskuaren saldoak eta abalak | 6.799,7 | 8.280 |
| **Handizkako arriskuko partaidetzak** | 0 | 0 |
| **Esposizioa guztira** | **42.421,1** | **69.383** |

Ikus daiteke, beraz, LABORAL Kutxak esposizio txikia duela industria horietako klima-arriskuan.

2021ean, lehen TCFD txostena egin zen, eta LABORAL Kutxak klima-arriskuen inguruan duen egoera azaltzen du. Arlo horretan egin diren aurrerapenak jasotzen ditu, bai eta aurre egiteko dauden erronkak ere.

### Kutsadura

Azken urteotan, inbertsio-ahalegin handia egin du LABORAL Kutxak, Arrasateko Zerbitzu Zentraletako 3 eraikinetako 2 goitik behera berritzeko. Hirugarrenaren berrikuntza 2022an abiatzea dago aurreikusita. Esku-hartzeen ondorioz, argiztapeneko, aire-girotzeko eta isolamenduko azken teknologiak ezarri ditu, eta, ondorioz, ingurumenaren alorreko sailkapen gorena (A) lortu du LK1 eraikinean. Nabarmentzekoa da bi teknologia berriztagarri (geotermia eta biomasa) erabili izana, eraikinen aire-girotzerako. Era berean, sare komertzialeko bulegoak berriztatzen dituenean, teknologia horiek ezartzen ditu, jardueraren inpaktua eta isurtzeak gutxitzeko asmoarekin. Azkenik, ahalegin etengabea ari da egiten, jarduera digitalizatzearren, hala bezerorekiko harremanetan nola barruko jardueran.

Ingurumen-programaren barruan urtero egiten duen ingurumen-ebaluazioan, zarata ez da alderdi nabarmentzat jo. Argi-kutsaduraren gaia, berriz, ez da aintzat hartu, finantzen jarduerak eragin txikia duelako horretan. Edonola ere, mekanismo batzuk ditugu ezarrita, gaueko ordu batetik aurrera bulegoetako argizko errotuluak itzaltzeko.

### Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta gestioa

Ingurumenaren segurtasunari dagokionez, Zerbitzu Zentraletako eraikinek eta instalazioek larrialdi-plana dute, gorabeheraren bat gertatuz gero ingurumenari eragin liezazkiokeen kalteak identifikatu eta inpaktu hori ahalik eta txikiena izateko jokabidea ere aintzat hartzen duena. Bestalde, lantoki guztientzako larrialdi-planak ere badaude, nahiz eta bulego-sarean askoz txikiagoak izan larrialdiek ingurumenean sor ditzaketen arazoak.

Hondakinak egoki kudeatzen dira, ingurumen-ziurtapenaren barruan. Orobat, hondakinik garrantzitsuenak (suntsitu beharreko papera eta tonerra) modu zentralizatuan gestionatzen dira lantoki guztientzat. Segidan, gure jarduerari dagozkion nabarmenenak aipatuko ditugu:

| | | LABORAL Kutxa | | Seguros LA | |
|---|---|---|---|---|---|
| Adierazlea | Unitatea | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Kartoi- eta paper-hondakinak | Kiloak | 55.980 | 108.340 | 1.509 | 1.503 |
| Birziklatutako toner-kartutxoak | Kiloak | 3.065 | 2.881 | (1) | |
| Erabilitako landare-olioa | Litroak | 540 | 720 | | |

(1) Hondakin horiek ez dagozkio Lagun Arori.

Gure jarduera dela eta, ez da apenas elikagairik alferrik galtzen. Nolanahi ere, 2020an onlineko erreserba-sistema bat ezarri da Zerbitzu Zentraletako jantokira sartzeko, egunero prestatzen diren janarien kopurua doitzeko.

## Baliabideen erabilera jasangarria

Uraren kontsumoak garrantzi handirik ez badu ere finantza-erakundeetan, gure ingurumen-sisteman kontrolatu egiten dugu Zerbitzu Zentraletako kontsumoa, baina ez bulegoetakoa eta Lagun Arorena. Egoitza Nagusiko eraikinetan egin diren berrikuntzetan, hoditeria berritu da, hausturak gutxitu eta ura galtzea saihesteko. Lagun Aroren eta merkataritza-sarearen ur-kontsumoa komunetara mugatzen da; hortaz, ez da ez nabarmentzat ez gestionagarritzat jotzen. Egoitza Nagusian, berriz, bai, sukaldean eta ureztatzeko ere erabiltzen baita. Erabilitako ur guztia saretik hartzen da eta udalaren saneamendu-sarera isurtzen da. Urtean behin, isurtzen denaren kanpoko analisia egiten da, legezko mugen barruan dagoela egiaztatzeko.

| **Egoitza Nagusiko ur-kontsumoa (m3-tan)** | **2020** | **2021** |
|---|---|---|
| Uraren kontsumoa | 8.200 (1) | 6.363 (1) |

(1) Datu horretan, aurreko urteko azken hiruhilekoa eta urteko lehen 3 hiruhilekoak hartu dira kontuan.

Urtean behin, ingurumen-alderdien identifikazioa, erregistroa eta ebaluazioa egiten da ingurumen-programan, bakoitzari lotutako ingurumen-inpaktuak zehaztu eta bizi-zikloaren ikuspegitik duten garrantzia erabakitzeko. Horretarako, tamaina eta arriskua zehaztu eta garrantzi-maila lortzen da. Ondoren, ebaluazio horren arabera LABORAL Kutxaren (Zerbitzu Zentralen eta bulegoen) eta Lagun Aroren Ingurumena Gestionatzeko Programaren adierazle nagusiak direnak aurkeztuko ditugu.

| | LABORAL Kutxa eta Lagun Aro | |
|---|---|---|
| Paperaren kontsumoa kg-tan | 2020 | 2021 |
| Publizitaterako papera | 101.650 | 120.807 |
| Bulegoko papera (gutunak, libretak, karpetak, folioak, gutunazalak…) | 234.798 | 246.574 |
| Paperaren kontsumoa guztira* | 336.448 | 367.381 |

*Kontsumitutako paperaren % 100 klororik gabeko paper ekologikoa izan da. Inprimagailuko paperak EU Ecolabel, FSC eta Rainforest Alliance ziurtapenak ditu. Erabilitako paper-moten ugaritasuna dela eta, ez da birziklatutakoaren %-a erregistratzen.

Bezeroekiko jakinarazpenetan erabilitako papera murriztearren, azken urteotan bultzada handia ari gara ematen teknologia berriak eta posta elektroniko bidezko jakinarazpenak (Postamail) erabiltzeari eta bulego barruko eragiketen digitalizazioari. Horren ondorioz, kontsumitu ohi den paperaren eta tonerraren bolumena jaisten ari da pixkanaka, nahiz eta 2020an baino gehiago kontsumitu den, COVID-19ak elkarri duen ohiz kanpoko egoera dela eta.

| | LABORAL Kutxa eta Lagun Aro | |
|---|---|---|
| Toner-kontsumoa aletan | 2020 | 2021 |
| Toner-kartutxoen kontsumoa guztira | 3.038 | 3.236 |
| Kartutxo-kontsumoa pertsonako | 1,35 | 1,45 |
| Erabilitako tonerraren pisua kg-tan | 2.269 | 2.557 |
| Pertsonako erabilitako tonerraren pisua kg-tan | 1,01 | 1,15 |

LABORAL Kutxaren jarduneraren inpaktu zuzena (finantzarioa ez dena) mugatua da. Elektrizitate-kontsumoa da garrantzitsuenetakoa. Arrasateko Zerbitzu Zentralekoa ISO 14001 ingurumen-ziurtapenaren barruan dago, eta aktiboki kudeatzen da:

| | LABORAL Kutxa | | Seguros LA | |
|---|---|---|---|---|
| **Urtea/alea** | **2020** | **2021** | **2020** | **2021** |
| Kontsumo elektrikoa urteko kWh-tan, Zerbitzu Zentralak | 3.031.271 | 3.136.949 | 255.882 | 288.765 |
| Kontsumo elektrikoa urteko kWh-tan, LK-N GUZTIRA | 11.450.964 | 11.432.660 | | |

*Zerbitzu Zentraletan kontsumitu eta Ingurumen Sisteman kontrolatu diren gasolioa eta propanoa ez dira materialtzat hartzen.

Azken urteotan, ahalegin handiak egin ditugu energia-efizientzia hobetzeko. Honako hauek azpimarratu behar dira:

- Geotermia-instalazio bat jarri izana, Zerbitzu Zentraletako eraikinetan airea girotzeko.
- Biomasa-instalakuntza bat eraiki izana, biomasaren kaloria-beharrak osatzeko. Bi instalaziooi esker, guztiz kendu ahal izan da erregai fosilen bidezko klimatizazioa.
- Klimatizazioaren eta argiztapenaren efizientzia handitzeko berrikuntzak egin izana isolamenduetan (isurtze txikiko beiren bidez), instalazioetan (LED argien bidez) eta makinetan.

## Klima-aldaketa

LABORAL Kutxak klima-aldaketaren gainean duen kezkaren ondorioz, hainbat ekimenekin egin du bat: Mundu Itunarekin, GJHekin, Pariseko Akordioekin eta, orain gutxi, Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioekin. Horien guztien ondorioz, klima-aldaketaren arriskuak eta aukerak aztertzen ditugu, jasangarritasuna entitatearen estrategian sartzen dugu eta gure jardueraren inpaktua murrizteko ahaleginak egiten ditugu.
Garrantzi bereziko alderdia da gure jardueraren karbono-aztarna kalkulatzea.

| | LABORAL Kutxa | | Seguros LA | |
|---|---|---|---|---|
| Isurtzeen banakapena jatorriaren arabera. Karbono-aztarna | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| 1. irismena: zuzeneko isurtzeak | 145 | 213 | 0 | 0 |
| 2. irismena: zeharkako isurtzeak | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 3. irismena: zeharkako beste isurtze batzuk | 677 | 940 | 30 | 59 |
| Isuritako CO2 tonak guztira | 822 | 1.154 | 30 | 59 |

Datu hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzaren Klima 2050 kalkulagailua erabili dugu.
Hauek hartu ditugu kontuan:

- 1. irismenerako: gasolio- eta propano-kontsumoak eta gas hozgarriaren isurtzeak.
- 2. irismenerako: kontsumo elektriko osoa (Zerbitzu Zentralak, bulego-sarea eta lurralde-zuzendaritzetako eraikinak); 0 da, energia guztia iturri berriztagarrietatik datorrelako.
- 3. irismenerako: lanorduetan egindako joan-etorrien isurtzeak, taxian egindako kilometroak, kontsumitutako paperaren ondoriozko isurtzea, laneko bidaiak (hegazkina, trena eta hotela), bezeroek gure webgunea erabiltzean kontsumitutako elektrizitatea, hondakinen gestioa eta uraren hornidura.

Ikus daitekeenez, gora egin dute Co2 isurtzeek. 2021eko mugikortasuna (eta, beraz, lekualdaketen ondoriozko isurtzeak) berreskuratzeak ekarri du, batez ere, gorakada hori.
Azaldu dugunez, azken urteotan LABORAL Kutxa ahalegin etengabea ari da egiten, klima-aldaketari aurre egin eta horren ondorioetara egokitzeko: inbertsioak, digitalizazioa, energia-

efizientzia hobetzeko ekintzak… Hurrengo ekitaldiei begira, ahalegin horrekin jarraitzeaz gain, ekintza-lerro hauek planteatu dira:

- 2019an egin zen gogoeta estrategikoan, jasangarritasuna sartu da zeharkako aldagai estrategiko gisa. Era berean, hainbat urtetarako helburuak finkatu dira, Co2aren isurtzeak eta paperaren kontsumoa murrizteko, produktu berdeak garatzeko eta inbertsio gizartearekiko arduratsuan sakontzeko.
- Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioekin bat egitearen ondorioz, LABORAL Kutxaren jardueraren eraginak aztertzeari ekin zaio 2021ean. Jarduerak ingurumenean eta gizartean dituen eragin nagusiak aztertu nahi dira.
- Ekitaldian, jasangarritasunaren arloan eskuragarri dauden datuen kalitatea hobetzen aritu gara. Horiek zenbat eta hobeto eta sakonago landu, orduan eta hobeto ezagutuko ditugu jardueraren eragina eta aurre egin beharreko klima-arriskuak, eta errazagoa izango da politika eta produktuak diseinatzea. Hala, 2021ean, energia-kalifikazioa lortu da hipotekatutako higiezin guztietan.
- Aurrez txostenean azaldu denez, 2021ean definitu den finantza jasangarrien estrategiak aldaketa sakona dakarkio Taldeari, eta area guztiei eragiten die zeharka.

Biodibertsitatearen babesa

LABORAL Kutxaren finantza-jarduerak ez dio biodibertsitateari kalterik egiten, eta ez du eraginik babestutako guneetan.

## 3.5 Enpresa hornitzaileekiko harremanak

### 3.5.1. Gestio-ikuspegia

Gure jarduera finantzarioa denez eta oso lurralde-eremu zehatzean dugunez presentzia, azpikontratak eta hornitzaileak kudeatzearen arriskuak ez dira garrantzitsuegiak. Horren eraginez, gaur egun enpresa hornitzaileak ez dira oraindik jasangarritasun-irizpideen arabera aztertzen.

Halere, LABORAL Kutxak jakin badaki hornidura-katearen gestioa kontu garrantzitsua dela jasangarritasunaren alorrean, eta, horregatik, 2021ean ekintza-lerro hauek garatu ditu hornitzaileei begira:

1. Beste jarduera-esparru batzuetan bezala, osasun-krisiak baldintzatu du enpresa hornitzaileekiko harremana. Bereziki nabarmena izan da beren jarduera gure instalazioetan gauzatzen dutenen kasua. Lehen unetik, segurtasun-protokolo eta -neurriak ezarri ziren, gure pertsonen eta hornitzaileen osasuna babesteko. Ahalegin handia egin dugu ahalik eta hornitzaile gutxien egon zitezen gure instalazioetan, eta, ezinbesteko kasuetan (garbitzaileak, mantentzeko langileak edo azpikontratatuak, gure langileei ezarritako segurtasun-neurri berberak ezarri dizkiegu.
2. Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, aurrerapausoak eman ditugu, sare komertzialeko bulegoetan lan egitera etortzen diren kontratekin enpresa-jarduerak koordinatzeko.
3. 2020ko urtarrilaren geroztik, kontratugile guztientzat nahitaezkoa da hornitzaileen prozedurari jarraitzea ondasunak eta zerbitzuak erosteko. Enpresa hornitzaileak kudeatzeko proiektu horren barruan, zenbait agiri onartu ziren, LABORAL Kutxak enpresa hornitzaileekin modu etiko eta jasangarrian lan egiteko duen borondatea garatzeko:

1) LABORAL Kutxaren erosketa arduratsurako politika
2) Hornitzaileen kode etikoa
3) Erosketa arduratsurako jokabide-kodea

Zerbitzuak kanpora ateratzeak sortzen dituen arriskuak gestionatzearen garrantziaz jabeturik eta eginkizun horietan araudia betetzen dela bermatzeko helburuarekin, LABORAL Kutxak hainbat jarduera gauzatu ditu azken urteotan. 2017an, kontratazioak eta erosketak egiteko eskuliburua sortu zuen, bi helburürekin: ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko eta azpikontratazioak egiteko politika ezartzea (hornitzaileak homologatzeko protokolo eta guzti) eta entitateak egindako erosketak onartu eta gainbegiratzeko Erosketa Mahai zentralizatu eta berariazkoa eratzea. Geroago, hornitzaileen kontratazioa kudeatzeko eredu bat zehaztu zen, eta eredu hori euskarritzeko web-aplikazio bat garatu. 2020aren hasieran abiatu zen tresna hori, eta aukera ematen du kanporatze-arriskua balioztatzeko eta segurtasun-baldintzak identifikatzeko (bete beharrezko kontrol-sorta bat barne).

2021ean, hirugarrenen gestio-eredua garatzen eta Europako Banku Agintaritzaren (EBAren) **Outsourcing Gida** betetzen aritu gara, LABORAL Kutxaren eta Seguros Lagun Aroren egungo egoera aztertuz, EBAren/AEPEAren (Aseguruen eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzaren) Outsourcing jarraibideekiko arrakalak identifikatuz eta ekintza-plan bat zehaztuz, entitateari aukera emateko araudien eskakizunetara eta merkatuko jardunbide egokietara moldatzeko.

Gidari jarraikiz, 2021eko azaroko Kontseilu Errektorean onespena eman zitzaion **Zerbitzuak Eskuordetzeko Politika** (kanporatze-politika ere deitua) eguneratzeari. Hirugarrenen esku uzten diren zerbitzu eta eginkizunen alorreko irizpideak ezartzen ditu, bai kanporatzea aurretiaz aztertu eta onartzerakoan erabili beharrekoak eta bai formalizazioan, garapenean eta jarraipenean erabili beharrekoak.

Gida betetzeko egindako lanaren ondorioz, hainbat proiektu jarri dira abian:

- Sekzio-mailako antolakuntza-unitate bat eratu da, Hirugarrenen Gestioa izenekoa, eta hornitzaileen gestioa zentralizatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da.
- Enpresa hornitzaileak gestionatzeko tresna informatikoa berritu da.
- Aldi berean, kanporatutako funtsezko zerbitzu edo funtzioak identifikatu dira, eta horiek egoki gestionatzeko beharrezko kontrolak ezarri. Egiten den arriskuaren analisiaren barruan, ospe-arriskua da baloratu beharreko alderdietako bat.

Gure enpresa hornitzaileen ezaugarriak direla eta, ez dugu beharrezkotzat jo horiei auditoretzak egitea, ematen dizkiguten produktu nahiz zerbitzuen ezaugarriekin zerikusirik ez duten alderdietan, salbu eta informazioaren eta datuen informazioari dagokionean. Hori dela eta, gaur egun, enpresa hornitzaileei ez zaizkie ingurumen- eta gizarte-arloak ebaluatzen; dena den, txikitzat jotzen dira horien jardueraren inpaktuak. Zuhurtasun-printzipioari erantzunez, beste eragile batzuk ere hartzen ditugu aintzat, tokikoez gain beste enpresa hornitzaile batzuk aukeratzerakoan: eskakizun teknikoak, ematen duten produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak eta prezioa. Era berean, LABORAL Kutxak lan- eta gizarte-legeria betetzeari ere erreparatzen dio, enpresa hornitzaileekin lotzen duen klausula baten bidez:

- Laneko araudia, Gizarte Segurantzakoa eta laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoa betetzea.
- Ingurumenaren eta Laneko segurtasunaren eta osasunaren gestio-sistema ziurtagiridunek ere prozedura zehatz batzuk dituzte ezarrita, erosketak eta azpikontratazioak sistema bakoitzerako ezarritako baldintzak kontuan hartuta gestionatzeko.

Gure jarduera-eremuan, bi esparrutan soilik antzematen ditugu giza eskubideak ez betetzeari lotutako arriskuak: ustelkeria-arriskuetan eta gu hornitzen gaituzten enpresek bete egiten dituztela bermatzeko egiten dugun zeharkako esku-hartzean. Hurrengo ataletan garatuko ditugu bi alderdi horien alorrean egindako jarduketak.

### 3.5.2 Magnitude nagusiak

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Erosketa-bolumena (mila eurokotan) | 127.409 | 133.508 |
| Tokiko enpresei erositako ondasun eta zerbitzuen %-a (2) | % 94,9 | 94,2 |
| Tokiko enpresa hornitzaileak hornitzaile guztiekiko (%-tan) | % 92,6 | % 90,9 |
| Barruko erosketak, inportatu gabekoak (%-tan) (1) | % 99,2 | % 98,34 |

(1) 2021ean, estatutik kanpoko 28 enpresa hornitzaile izan zituen LABORAL Kutxak: enpresa hornitzaile guztien % 2,13 eta eskuratutako ondasun eta zerbitzuen % 10,82. Horietatik, 15 Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoak dira —UK, USA eta Israel—.
Zenbatekoaren % 48,7 Euskal Herriko Saretik dator (EAEtik eta Nafarroatik).
(2) Tokikotzat hartzen ditugu gure bulego-sarea hedatuta dagoen probintzietakoren batean dutenak helbidea.

### 3.5.3. Hornitzaileekiko elkarrizketak

Enpresa hornitzaileekin EGEaren inguruan dituen elkarrizketei dagokienez, 2020ko txostena egiteko galde-sorta bat bidali zitzaien 165 enpresa hornitzaileri. Gure instalazioetan jarduten duten langileekin lotura berezia zuten enpresak aukeratu genituen. Azpikontratatutako enpresak eta kanporatutako jarduerak egiten dituztenak hartzen zituzten barne. 20 enpresaren erantzunak ditugu, eta 8,5eko notarekin balioztatu zuten txosten honen garrantzia.

Orobat, enpresa hornitzaileak kudeatzeko proiektuan, kanal bat (helbide elektroniko bat) gaitu da, gure enpresa hornitzaileek aukera izan dezaten gurekin harremanetan jarri eta zalantzak argitu edo salaketa nahiz kezka guztiak helarazteko.

Hornitzaileen esparruan, arreta berezia merezi du Lagun Aroren **bitartekaritza-kanalak**. Aseguru-etxeen ikuspegitik, bitartekaritza-kanala interes-talde garrantzitsua da negozioarentzat.
Bitartekariekin etengabe egoten gara harremanetan, eta horien gogobetetasuna aztertzen dugu, bi urtean behin neurketak eginez. Halaber, lan-bilerak egiten ditugu, prozesu berriak diseinatzeko eta daudenak hobetzeko.

**Gogobetetasun-indizearen bilakaera**
**Pozik dauden artekarien %-a** (7tik 10era bitarteko balioztapenak)



Sustatzaileen puntuazio garbian (NPSan), LAGUN AROk oso joera positiboa du, entitateek guztira dutena baino hobea, eta, beraz, NPSrik onena duen 1. entitatea da **(1.a 2018an eta 3.a 2016an).**




***GURE BITARTEKARIEN AINTZATESPENA ETA PRESTAKUNTZA***

2021ean, ekitaldiak eta bilerak birtual bihurtu diren urtean, Lagun Arok telebista-kanal bat sortu du komunikazio-hari gisa. Horrela, konpainiaren hurrengo ekitaldietarako datuak eta helburuak aurkezteko topaketa bihurtu zen urteko konbentzioa.

Ekitaldiaren bigarren zatian, urte eta erdian aurrez aurreko ekintzarik egin gabe egon ondoren, Lagun Arok hainbat jardunalditan bildu zituen SPECIAL CLUBeko kideak. Jardunaldi horietan, lan-taldeak egin ziren, osasun-krisiaren ondoren etengabe mugitzen ari den merkatu horren egungo beharrak ezagutzeko eta etorkizuneko proiektuetarako sarrera gisa. Topaketek alderdi ludikoa izan zuten, eta horrek berriro nabarmendu zituen Lagun Arok bitartekotzaren, hurbiltasunaren eta baterako lanaren alorretan dituen balioak.

2021eko ekitaldian, bitartekaritza-kanal osorako, Lagun Arok laguntza-neurri hauek jarri zituen abian: ezbeharren izapideak egiteko bideo-peritazioa, ordaintzeko epea luzatzea, zatikatzeko malgutasuna, marketin jarraituaren laguntza eta kolektiborik kaltetuenentzako deskontu bereziak.

### 3.5.4. Ekitaldian hornitzaileen gestio arduratsurako garatutako ekimenak

Hornitzaileen alorreko ekintza-lerro nagusia laneko arriskuen prebentzioa da. 2021ean eragiketa berria ezarri da sarbide-kontrolaren inguruan, inolako azpikontratarik ez dadin gure instalazioetan sartu, beharrezko dokumentazioa eguneratuta eduki barik. Era berean, gure bulegoetara sartzen diren azpikontraten kontrola nabarmen hobetu da.

Erosketa-prozedurak eskatzen duenez, enpresa hornitzaileek bere egin behar dute hornitzaileen kode etikoa. Kodea sinatuta, printzipio eta konpromiso batzuk hartzen dituzte beren gain: ingurumen-arlokoak, giza eskubideen eta berdintasunaren esparrukoak, kapitalak zuritzearekin eta ustelkeriaren aurkako borrokarekin lotutakoak eta datuen babesaren alorrekoak.

Enpresa hornitzaileen artean, 3 mota bereizten dira, jatorri geografikoaren arabera:

- Hurbileko enpresak: egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak.
- Tokiko enpresak: hurbilekoak izan gabe LABORAL Kutxak ezarpen fisikoa (bulegoa) duen probintzia batean dutenak egoitza.
- Gainerakoak.



# 4. Beste magnitude batzuk

## 4.1. Bezeroak

Funtsezko negozio-lineak (kredituena eta aseguruena) aintzat hartuz, zorroen xehetasunak emango ditugu jarraian. Hona hemen kredituen bezeroen profila:

| Kredituak sektoreko (M€-kotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| **Sektore publikoa** | **894,1** | **1.278,2** |
| **Beste sektore egoiliar batzuk** | **13.852,4** | **14.189,1** |
| Etxeko ekonomiak | 10.596,6 | 10.774,5 |
| - Hipotekarioak | 9.941,3 | 10.349,6 |
| - Kontsumorako finantzaketa | 404,7 | 398 |
| - Gainerakoak | 250,6 | 26,9 |
| Enpresak | 2.691,0 | 2.821,5 |
| Beste kreditu batzuk | 564,8 | 593,1 |
| **Ez-egoiliarrei emandako kreditua** | **26,2** | **27,9** |
| **Bezeroei zuzendutako kreditu gordina guztira** | **14.772,2** | **15.495** |
| Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak | -328,9 | -349,6 |
| **Bezeroei zuzendutako kreditu garbia guztira** | **14.443,8** | **15.145,5** |

Hauxe da LK-ko bezeroen banaketa geografikoa:

| Eremu geografikoa | Kreditu-inbertsioa | | Gordailuak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| Bizkaia | % 23,51 | % 20,52 | % 32,46 | % 30,99 |
| Gipuzkoa | % 17,81 | % 14,18 | % 27,25 | % 26,80 |
| Araba | % 7,77 | % 7,69 | % 11,08 | % 12,35 |
| Nafarroa | % 7,35 | % 8,65 | % 9,49 | % 9,54 |
| Burgos | % 1,90 | % 1,89 | % 1,66 | % 1,70 |
| Madril | % 5,12 | % 4,24 | % 1,04 | % 1,09 |
| Valladolid | % 4,09 | % 3,36 | % 2,17 | % 2,20 |
| Zaragoza | % 4,77 | % 4,97 | % 1,80 | % 1,75 |
| Beste batzuk | % 27,69 | % 34,50 | % 13,05 | % 13,58 |
| GUZTIRA | % 100 | % 100 | % 100 | % 100 |

Hona hemen CLBS sozietateko bezeroen profila, 2021-12-31n:

| Modalitatea | Aseguratu gizonezkoak | | Aseguratu emakumezkoak | |
|---|---|---|---|---|
| | Poliza-kopurua | Batez besteko adina | Poliza-kopurua | Batez besteko adina |
| Bizitza Arriskua | 41.854 | 47 | 38.521 | 47 |
| BPMen amortizazioa | 27.312 | 45 | 21.702 | 46 |
| HBMen amortizazioa | 12.475 | 40 | 11.864 | 39 |
| Etxea Jabea | 66.429 | 54 | 52.103 | 55 |
| Etxea Errentatzailea | 7.274 | 56 | 6.054 | 57 |
| Etxea Maizterra | 3.137 | 49 | 3.567 | 48 |

### Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua

| Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua - eskatutako zenbatekoak (mila €-kotan) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Entitatearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak | 2.155 | 1.502 |
| Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoa | 225 | 196 |
| Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak | 225 | 196 |
| Entitateak bezeroei itzulitako zenbatekoak; ez dago kobratzerik | 0 | 0 |
| Hirugarren batzuek itzuli edo kalte-ordainetan emandako kopuruak | 0 | 0 |
| **Guztira** | **2.380** | **1.698** |

| Espedienteak irekitzeko arrazoiak (BAZ) | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Bezeroentzako zerbitzu zentralizatuak | % 2 | % 2 |
| Komisioak eta gastuak | % 87 | % 90 |
| Baldintza ekonomikoak | % 2 | % 1 |
| Informazioa falta da edo okerra da | % 0 | % 0 |
| Beharren estaldura | % 0 | % 0 |
| Bulegoak, elementu objektiboengatik | % 4 | % 2 |
| Bezeroekin harremanak izateko elementuak | % 2 | % 2 |
| Kanpainak, oro har | % 0 | % 0 |
| Kutxazainak | % 1 | % 2 |
| **Erreklamazioen zenbatekoa** | **2020** | **2021** |
| ≤ 100 € | % 0,27 | % 0,24 |
| > 100 ≤ 250 € | % 1,19 | % 0,86 |
| > 250 ≤ 1.000 € | % 39,54 | % 23,58 |
| > 1.000 € | % 59 | % 75,32 |

Hauek izan dira eskuragarri dauden kanalen bidez aurkeztutako erreklamazioak:

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzuan produktuen segurtasunaren gainean aurkeztutako erreklamazioen kopurua (1) | 7 | 4 |
| Espainiako Bankuan LABORAL Kutxaren aldekoak izan diren erreklamazioen kopurua | 5 | 2 |

Ordainbideen eta phisingaren iruzurrezko erabilerarekin zerikusia duten erreklamazioak.

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Espainiako Bankuaren, Aseguruen Zuzendaritza Orokorraren, CNMVren eta Kreditu Kooperatiben Nazio Batasunaren erreklamazio-zerbitzuan produktuen eta zerbitzuen informazioaren gainean aurkeztutako erreklamazioen kopurua (1) | 27 | 27 |
| Espainiako Bankuan eta CNMVn LABORAL Kutxaren aldekoak izan diren erreklamazioen kopurua | 16 | 11 |

(1) Erreklamazioek informazio okerrarekin edo aholkularitza txarrarekin dute zerikusia, batez ere komisio eta gastuekin —kontua mantentzekoak, zorpekoenak eta abar—.

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Espainiako Bankuaren eta CNMVren erreklamazio-zerbitzuan produktuen eta zerbitzuen publizitatearen gainean eta pribatutasunaren gainean aurkeztutako erreklamazioen kopurua | 0 | 1 |
| Espainiako Bankuan eta CNMVn LABORAL Kutxaren aldekoak izan diren erreklamazioen kopurua | 0 | 1 |
| Zerbitzuen hornikuntzari eta erabilerari buruzko araudia ez betetzeagatik jarritako isunen zenbatekoa | 0 | 0 |

| | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Legeak eta arauak ez betetzeagatik taldeari jarritako zehapenak (€-tan) | 0 | 0 |

| Lagun Aro | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| Irekitako espedienteak (erreklamazioak eta kexak) | 696 | 694 |
| Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Orokorreko (APFZOko) erreklamazio-zerbitzuaren aurrean aurkeztutako erreklamazioen kopurua | 24 | 16 |
| Itxitako espedienteetan baietsitakoen edo hein batean baietsitakoen %-a | % 47,8 | % 46 |
| Erantzuteko batez besteko epea (egunak) | 11,09 | 12,02 |
| Bezeroaren aldeko ordainketen zenbatekoa, €-tan | 82.564 | 81.212 |
| Gainbegiraleak jasotako azken txostenen artean erreklamatzailearen alde (erabat edo hein batean) ebatzitakoen %-a | % 19,3 | % 7,7 |
| **CLBS** | **2020** | **2021** |
| Irekitako espedienteak (erreklamazioak eta kexak) | 10 | 4 |
| Itxitako espedienteetan baietsitakoen edo hein batean baietsitakoen %-a (1) | % 9,1 | % 25 |
| Erantzuteko batez besteko epea (egunak) | 2,36 | 2,75 |
| Bezeroaren aldeko ordainketen zenbatekoa, €-tan | 0 | 0 |

(1) Ez-onartzerik gehienak beste erakunde batzuei zuzenduta daudelako gertatu dira.

## Produktu eta zerbitzu arduratsuen magnitude nagusiak

| | 2020 | | 2021 | |
|---|---|---|---|---|
| | Kop. | Mila €-kotan | Kop. | Mila €-kotan |
| Mikrokredituak | 1.759 | 26.335 | 1.177 | 18.811 |
| Mailegu pertsonala | 178 | 397 | 168 | 343 |
| Hipoteka-mailegua | - | - | 78 | 5.681 |
| Aseguratutako txartelak | 268.184 | - | 261.425 | - |
| Erkide mailegua | 1 | 14 | 29 | 269 |
| FCTC mailegua | 0 | 0 | 6 | 84 |
| CEPES/ASLE mailegua | 5 | 60 | 1 | 14 |

Hauxe da hitzarmen horiek 2020an eta 2021ean izan duten bolumena:

| Erakunde publikoa (mila €-kotan) | Formalizatutako eragiketa-kopurua | | Formalizatutako zenbatekoa | | 12-31ko saldo erabilia | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 | 2020 | 2021 |
| KOI | 4.595 | 954 | 450.750 | 100.197 | 382.422 | 424.389 |
| Eusko Jaurlaritza + Elkargi | 2.825 | 181 | 193.864 | 20.916 | 200.121 | 200.891 |
| Nafarroako Gobernua + SODENA | 393 | 50 | 29.169 | 5.976 | 29.642 | 32.107 |
| EIF. Horretatik: | 126 | 66 | 11.244 | 8.112 | 69.371 | 46.143 |
| • EaSI Soziala | - | 63 | - | 7.387 | - | 20.129 |
| • Innovfin | - | 3 | - | 725 | - | 26.014 |
| EaSI Micros II | 1.757 | 1.175 | 26.617 | 18.767 | 41.718 | 45.145 |
| Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldundiak | 0 | 0 | 0 | 0 | 599 | 341 |
| Luzaro | 31 | 27 | 4.073 | 4.701 | 12.738 | 14.965 |
| Beste hitzarmen batzuk | 0 | 0 | 0 | 0 | 13.659 | 0 |
| **Maileguak + Leasinga** | **9.727** | **2.453** | **715.417** | **158.669** | **752.417** | **763.981** |
| EBSekin (Elkargi, Iberaval, Sonagar, Oinarri…) | 3.602 | 586 | 266.763 | 74.960 | 386.169 | 407.698 |
| EBSrik gabe (KOI, Europako Inbertsio Funtsa…) | 6.725 | 2.054 | 527.361 | 121.169 | 529.796 | 550.500 |
| **Maileguak + Leasinga Bermatuak** | **10.327** | **2.640** | **794.124** | **196.130** | **916.684** | **958.198** |

| Kanal berrien erabiltzaileak diren bezeroak | 2020 | 2021 |
|---|---|---|
| CLNet kontratuen kopurua | 713.377 | 741.369 |
| CLNeteko bezero aktiboak | 484.068 | 510.561 |
| Kontratuetako bezero aktiboen %-a | % 67,9 | % 68,9 |
| Banka Mugikorra (mugikorraren bidez sartu diren erabiltzaileak) | 396.274 | 434.736 |
| Alertak (kontratu aktiboak) | 385.426 | 392.521 |
| Bizum | 240.702 | 297.819 |

## 4.2. Pertsonak

| LK-ko bazkideen plantilla, sexuaren eta kategoria profesionalaren arabera* | 2020 | | | | 2021 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | | Emakumeak | | Gizonak | | Emakumeak | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Zuzendariak | 19 | % 1,0 | 6 | % 0,35 | 18 | % 1,06 | 7 | % 0,35 |
| Buruak | 226 | % 14 | 123 | % 7,26 | 205 | % 12,11 | 123 | % 7,26 |
| Teknikariak | 312 | % 18,11 | 375 | % 22,12 | 318 | % 18,78 | 384 | % 22,12 |
| Administrariak | 117 | % 7,20 | 234 | % 13,81 | 107 | % 6,32 | 225 | % 13,81 |
| Bestelakoak | 183 | % 9,85 | 144 | % 8,50 | 166 | % 9,81 | 140 | % 8,50 |
| Guztira | 857 | % 50 | 882 | % 52 | 814 | % 48 | 879 | % 52 |
| Jarduneko bazkideak | 1.739 | | | | 1.693 | | | |

*Lanbide-talde bakoitzean, kategoria hauek sartzen dira:

- Zuzendariak: Zuzendaritza Nagusia, Areako Zuzendaritzak, Lurralde Zuzendaritzak eta Departamentu Zuzendaritzak.
- Buruak: sekzio-buruak, zona-buruak eta bulego-zuzendariak.
- Teknikariak: Zerbitzu Zentraletako teknikariak, bulegoko arduradunak eta teknikariak (gestore komertzialak).
- Administrariak: 1. mailako ofizialak, 2. mailako ofizialak, administrari laguntzaileak eta langileak.
- Bestelakoak: ZEEBZ.

| LK-ko langileak, adinaren arabera | 2020 | | | | | | 2021 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Bazkidea | | | Gainerakoak | | | Bazkidea | | | Gainerakoak | | |
| | G | E | Guztira | G | E | Guztira | G | E | Guztira | G | E | Guztira |
| 30 urtera artekoak | 5 | 3 | 8 | 56 | 78 | 134 | 8 | 14 | 22 | 79 | 82 | 161 |
| 31 eta 40 urte artekoak | 99 | 211 | 310 | 23 | 28 | 51 | 87 | 189 | 276 | 10 | 13 | 23 |
| 41 eta 50 urte artekoak | 415 | 430 | 845 | 7 | 3 | 10 | 397 | 436 | 833 | 11 | 2 | 13 |
| 51 eta 60 urte artekoak | 314 | 232 | 546 | 3 | 1 | 4 | 305 | 233 | 538 | 3 | 0 | 3 |
| 60 urtetik gorakoak | 24 | 6 | 30 | 0 | 0 | 0 | 17 | 7 | 24 | 0 | 0 | 0 |
| **Langileak guztira** | **857** | **882** | **1.739** | **89** | **110** | **199** | **814** | **879** | **1.693** | **103** | **97** | **200** |

| CLBSko langileak, sexuaren, kategoria profesionalaren eta negozio-arearen arabera | 2020 | | | | 2021 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | | Emakumeak | | Gizonak | | Emakumeak | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Zuzendariak | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 |
| Buruak | 8 | % 4,68 | 2 | % 1,17 | 8 | % 5,52 | 2 | % 1,38 |
| Teknikariak | 0 | % 0,00 | 1 | % 0,58 | 0 | % 0,00 | 1 | % 0,69 |
| Gestore komertzialak | 25 | % 14,62 | 99 | % 57,89 | 32 | % 22,07 | 102 | % 70,34 |
| Langileak guztira | 33 | % 19,30 | 102 | % 59,65 | 40 | % 27,59 | 105 | % 72,41 |
| Zerbitzu Zentralak | 1 | % 0,58 | 1 | % 1 | 1 | % 0,69 | 1 | % 0,69 |
| Merkataritza Sarea | 32 | % 18,71 | 101 | % 59 | 39 | % 26,90 | 104 | % 71,72 |
| Langileak guztira | 33 | % 19,30 | 102 | % 59,65 | 40 | % 27,59 | 105 | % 72,41 |
| Langileak guztira | 135 | | | | 145 | | | |

| CLBSko langileak, adinaren arabera | 2020 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira |
| 30 urtera artekoak | 0 | 1 | 1 | 7 | 4 | 11 |
| 31 eta 40 urte artekoak | 2 | 12 | 14 | 1 | 7 | 8 |
| 41 eta 50 urte artekoak | 13 | 49 | 62 | 12 | 49 | 61 |
| 51 eta 60 urte artekoak | 18 | 40 | 58 | 19 | 43 | 62 |
| 60 urtetik gorakoak | 0 | 0 | 0 | 1 | 2 | 3 |
| Langileak guztira | 33 | 102 | 135 | 40 | 105 | 145 |

| Lagun Aroko langileak, sexuaren eta kategoria profesionalaren arabera | 2020 | | | | 2021 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonak | | Emakumeak | | Gizonak | | Emakumeak | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Zuzendariak | 4 | % 8 | 2 | % 4 | 4 | % 7 | 2 | % 2 |
| Buruak | 14 | % 26 | 12 | % 23 | 15 | % 27 | 14 | % 12 |
| Teknikariak | 32 | % 60 | 51 | % 96 | 33 | % 59 | 51 | % 45 |
| Administrariak | 5 | % 9 | 46 | % 87 | 4 | % 7 | 47 | % 41 |
| Langileak guztira | 55 | % 33 | 111 | % 67 | 56 | % 33 | 114 | % 67 |

| **Lagun Aroko langileak, adinaren arabera** | **2020** | | **2021** | |
|---|---|---|---|---|
| | **G** | **E** | **G** | **E** |
| 30 urtera artekoak | 2 | 2 | 1 | 3 |
| 31 eta 40 urte artekoak | 4 | 11 | 7 | 7 |
| 41 eta 50 urte artekoak | 18 | 52 | 14 | 50 |
| 51 eta 60 urte artekoak | 29 | 46 | 31 | 53 |
| 60 urtetik gorakoak | 2 | 0 | 1 | 3 |
| **Batura** | **55** | **111** | **54** | **116** |
| **Langileak guztira** | **166** | | **170** | |

| LKrekiko kontratu-harremana (12-31n) | 2020 | | | 2021 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizonak | Emakumeak | Guztira | Gizonak | Emakumeak |
| *Jarduneko bazkideak* | 1.739 | 857 | 882 | 1.693 | 814 | 879 |
| Eszedentziak | 20 | 2 | 18 | 15 | 4 | 11 |
| Zerbitzu-eginkizunak | 15 | 5 | 10 | 16 | 5 | 11 |
| Aurre-erretirodunak | 88 | 56 | 32 | 123 | 76 | 47 |
C.1.1. Esan ezazu zein diren administrazio-organoko kontseilari edo kideen gehienezko eta gutxieneko kopuruak, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

| | |
|---|---|
| Organoko kontseilarien/kideen gehieneko kopurua | 16 |
| Organoko kontseilarien/kideen gutxieneko kopurua | 15 |
| Batzarrak edo biltzarrak finkatutako organoko kontseilarien/kideen kopurua | 15 |

C.1.2. Bete ezazu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau.

| Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala | Ordezkaria | Izendapenaren azken eguna |
|---|---|---|
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ JAUNA | Lehendakaria | 2019 |
| LUIS MARIA UGARTE AZPIRI JAUNA | Lehendakariordea | 2017 |
| RICARDO PÉREZ AGUADO JAUNA | Idazkaria | 2019 |
| PABLO LUIS BRINGAS VÉLEZ JAUNA | Kidea | 2017 |
| NAGORE LARRABEITI LIBANO ANDREA | Kidea | 2017 |
| AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ ANDREA | Kidea | 2019 |
| XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA JAUNA | Kidea | 2019 |
| ELENA ZARRAGA BILBAO ANDREA | Kidea | 2019 |
| MARÍA LAURA RODRÍGUEZ GONZÁLEZ ANDREA | Kidea | 2019 |
| EDORTA GIL SAGARDUY JAUNA | Kidea | 2020 |
| BEATRIZ MAULEON SAINZ DE VICUÑA ANDREA | Kidea | 2020 |
| AITOR SORIA ALONSO JAUNA | Kidea | 2020 |
| IÑIGO LÓPEZ-CANO FERNANDEZ DE BETOÑO JAUNA | Kidea | 2021 |
| ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO ANDREA | Kidea | 2021 |
| ESTHER KORTA ERRAZKIN ANDREA | Kidea | 2021 |

C.1.3. Aipa itzazu, dagokionean, entitatearen taldeko kide diren beste erakunde batzuetan administratzaileen, administratzaileen ordezkarien edo zuzendarien karguak betetzen dituzten administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak.

| Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala | Taldeko erakundearen izen soziala | Kargua |
|---|---|---|
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ JAUNA | SEGUROS LAGUN ARO SA | LEHENDAKARIA |
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ JAUNA | SEGUROS LAGUN ARO VIDA SA | LEHENDAKARIA |

C.1.4. Bete ezazu taula hau administrazio-kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten kideen kopuruari buruzko informazioarekin, bai eta azken lau ekitaldietan izan duen bilakaerari buruzkoarekin ere.

| | Kontseilari-kopurua | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2021eko ekitaldia | | 2020ko ekitaldia | | 2019ko ekitaldia | | 2018ko ekitaldia | |
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| Administrazio Kontseilua | 7 | 46,66 | 6 | 50,00 | 6 | 50,00 | 6 | 50,00 |
| Ikuskaritza Batzordea | 1 | 33,33 | 2 | 50,00 | 2 | 50,00 | 2 | 67,00 |
| Izendapenen Batzordea | 1 | 33,33 | 2 | 40,00 | 2 | 40,00 | 2 | 40,00 |
| Ordainsarien Batzordea | 3 | 75,00 | 2 | 40,00 | 2 | 40,00 | 2 | 40,00 |
| Arrisku Batzordea | 3 | 75,00 | 4 | 67,00 | 4 | 67,00 | 3 | 60,00 |

C.1.5. Esazu sozietateak baduen aniztasun-politikaren bat enpresaren administrazio-, zuzendaritza- eta gainbegiratze-organoentzat, kontuan hartzen dituena, adibidez, adina, generoa, desgaitasuna eta prestakuntza nahiz esperientzia profesionala. Kontu Ikuskaritzari buruzko Legearen definizioaren arabera, entitate txiki eta ertainek genero-aniztasunari buruz ezarrita duten politikaren berri eman beharko dute gutxienez.

[ √ ] Bai
[ ] Ez
[ ] Politika partzialak

Erantzuna baiezkoa bada, azal itzazu aniztasun-politika hori, berorren helburuak, aplikatzeko neurriak eta modua, eta ekitaldian lortutako emaitzak. Adierazi egin beharko dira, halaber, administrazio-organoak eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeek hartu dituzten neurriak, kontseilarien eta administratzaileen presentzia orekatua eta ugaria izan dadin.

Sozietateak ez badu aniztasun-politikarik erabiltzen, azaldu arrazoiak.

Iritzi independenteak eta erabaki sendoak sustatzeko askotariko ikuspuntuak eta esperientziak ekarriko dituen kolektibo bat lortzearren, entitateak aniztasunaren alorreko politiken aginduei egiten die men, administrazio-organoko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna ebaluatzeari buruzko gidalerroetan eta araudian ezarritakoari jarraikiz. Ildo horretatik, profil akademikoa eta profesionala, generoa eta adina hartzen ditu aintzat, Kontseilu Errektorearen Hautapen, Izendapen, Berritze eta Aniztasun Politikan eta ebaluazio- eta egokitasun-prozesuetan.

Aipatzekoa da 2021eko abenduaren 31n ordezkaritzarik txikiena duen generorako ezarritako gutxieneko ehunekoa gainditu dela berriro. 2020ko ekitaldian, Batzar Nagusiak estatutu-aldaketa bat onartu zuen, Kontseilu Errektoreko kide-kopurua 15era handitzeko. Aldaketa horren bidez, ordezkaritzarik txikiena duen generoaren ehunekoa % 46an kokatuko da.

Era berean, goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezkatzearen alorrean, Funtsezko Postuetarako Ondorengotza Plana du Caja Laboralak. Bertan, ordezkatuko diren postu kritikoak, ibilbide profesionalak eta jatorri-profilak identifikatzen dira, eta identifikatutako pertsonen garapen profesionalerako planak eta postu bakoitzerako ondorengotza-planak ezarri. Funtsezko postuak (ondorengotza-plana izateko modukoak) eta postu horietakoak etorkizunean ordezkatzeko gaitasuna duten pertsonak identifikatzeko, hainbat aldagai hartzen dira aintzat: prestakuntza, esperientzia eta ezagutza, zuzendaritzako ibilbidea, errendimenduaren historia, gaitasun eta trebetasun pertsonalak, entitatearekiko konpromisoa, potentziala eta abar.

2021ean, ez da aldaketarik egin zuzendaritza-taldean.

C.1.6. Bete ezazu administrazio-organoko kontseilari edo kideen ekitaldiko ordainsari agregatuari buruzko taula hau.

| Ordainketaren kontzeptua | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | Norbanakoa | Taldea |
| Ordainsari finkoa | 136 | |
| Ordainsari aldakorra | 32 | |
| Dietak | | |
| Beste ordainsari batzuk | | |
| GUZTIA | 168 | |

C.1.7. Identifika itzazu administrazio-organoko kontseilari edo kide ez diren goi-zuzendaritzako kide exekutiboak, eta adieraz ezazu ekitaldian horien alde sortutako ordainsarien kopuru osoa.

| Izena edo izen soziala | Kargua |
|---|---|
| XABIER EGIBAR GAINZA JAUNA | Zuzendari nagusia |
| OSCAR EGUSKIZA SIERRASESUMAGA JAUNA | Arriskuen Areako zuzendaria |
| JOSU ARRAIZA MARTÍNEZ DE LAGRAN JAUNA | Baliabideen Areako zuzendaria |
| IBON URGOITI URIOSTE JAUNA | Negozio Garapenaren Areako zuzendaria |
| ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE JAUNA | Finantzen Areako zuzendaria |
| NURIA AGUIRRE UNZUETA ANDREA | Gestio Soziala Areako zuzendaria |
| SUSANA ANDRÉS GORGOJO ANDREA | Mendebaldea Area Komertzialeko zuzendaria |
| JAVIER CORTAJARENA GOÑI JAUNA | Ekia Area Komertzialeko zuzendaria |
| JAVIER GORROÑOGOITIA ITURBE JAUNA | Altxortegia eta Merkatuak Areako zuzendaria |
| JOSEBA MIKEL MARURI HERNAEZ JAUNA | Teknologia eta Analytics Areako zuzendaria |
| PABLO MOGELOS GARCIA JAUNA | Seguros Lagun Aro SAko zuzendaria |
| Goi-zuzendarien ordainsaria guztira (mila eurokotan) | 1.669 |

C.1.8. Esan ezazu batzordeko estatutuek edo araudiak administrazio-organoko kontseilari edo kideentzat agintaldi mugatua ezartzen duten ala ez.

[ √ ] Bai
[ ] Ez

| Gehieneko agintaldi-kopurua | 5 |
|---|---|

C.1.9. Adieraz ezazu administrazio-kontseiluari edo -organoari formulatzeko aurkezten zaizkion urteko kontu indibidual eta bateratuak aurrez ziurtatuta dauden.

[ ] Bai
[ √ ] Ez

Zehaztu, dagokionean, administrazio-kontseiluak edo -organoak formula ditzan entitatearen urteko kontu indibidual eta bateratuak ziurtatu ditu(zt)en pertsona(k).

| Izena | Kargua |
|---|---|
| Daturik ez | |

C.1.10. Azal ezazu, baldin badago, zer mekanismo duen administrazio-kontseiluak edo -organoak ezarrita, berak formulatutako kontu indibidual eta bateratuak auditoretza-txostenean salbuespenekin ez aurkezteko batzar nagusian edo pareko organoan.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritza Batzordea arautzen du, eta berari esleitzen dio finantza-informazio arautua prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzeko eginkizuna. Ildo beretik, haren eginkizuna da barne-kontrolerako sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea ere.

C.1.11. Administrazio-kontseiluko edo -organoko idazkariak kontseilari-izaera du?

[ √ ] Bai
[ ] Ez

C.1.12. Adieraz ezazu, baldin badago, zer mekanismo dagoen ezarrita kanpoko auditorearen, finantza-analisten, inbertsioko bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia bermatzeko, eta azaldu legezko aurreikuspenak nola ezarri diren praktikan.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritza Batzordea arautzen du, eta berari esleitzen dio kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin harremanak lotu eta euren independentzia arriskuan jar lezaketen gaien inguruko informazioa jasotzeko eginkizuna. Independente direla idatziz berresteko eskatzen zaie urtean behin. Zentzu horretan, kontu-auditoretzaren txostena egin aurretik, barne-auditorearen independentzia berresten duen txostena egin du Ikuskaritza Batzordeak.

## C.2. Administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak

C.2.1. Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak.

| Batzordearen izena | Kide-kopurua |
|---|---|
| IKUSKARITZA BATZORDEA | 3 |
| IZENDAPENEN BATZORDEA | 3 |
| ORDAINSARIEN BATZORDEA | 4 |
| ARRISKU BATZORDEA | 4 |

C.2.2. Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde guztiak, horietako kideak eta partaide dituen kontseilari exekutibo, dominikal, independente eta kanpokoen proportzioa. Kapital-sozietatearen egitura juridikoa ez duten entitateek ez dute beteko kontseilariaren kategoria dagokion taulan, eta, testuaren atalean, kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, aintzat hartuta, batetik, beraien araubide juridikoa eta, bestetik, horiek nola betetzen dituzten ikuskaritza-batzordea eta izendapenena nahiz ordainsariena eratzeko baldintzak.

| Ikuskaritza Batzordea | | |
|---|---|---|
| Izena | Kargua | Kategoria |
| NAGORE LARRABEITI LIBANO ANDREA | LEHENDAKARIA | INDEPENDENTEA |
| RICARDO PÉREZ AGUADO JAUNA | KIDEA | EZ-EXEKUTIBOA |
| XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA JAUNA | KIDEA | INDEPENDENTEA |

| | |
|---|---|
| Kontseilari exekutiboen %-a | 0,00 |
| Kontseilari dominikalen %-a | 0,00 |
| Kontseilari independenteen %-a | 67% |
| Kanpoko beste batzuen %-a | 0,00 |
| Bilera-kopurua | 11 |

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, barne hartuta, dagokionean, legeak ezarritakoez gainerakoak, eta deskribatu berorren prozedurak eta antolatzeko eta funtzionatzeko arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

Ikuskaritza Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (10.3 artikuluan) daude jasota; hauek dira:

a) Bere eskumeneko gaietan aztertzen dituen auzien inguruko informazioa ematea Batzar Nagusiari.

b) Kontu-auditoreak edo auditoretza-sozietateak izendatzeko proposamenak Kontseilu Errektoreari aurkeztea, entitateari ezartzekoa den araudiarekin bat, gero Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari aurkez diezazkion, horrek, egoki iritziz gero, onar ditzan.

c) Honako hauek gainbegiratzea: sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasuna, barne-auditoretza (funtzionalki batzordearen mende dagoena) eta arriskuak gestionatzeko sistemak. Era berean, kontu-auditoreekin eta auditoretza-sozietateekin eztabaidatzea, auditoretza egitean barne-kontrolerako sisteman antzemandako ahulezia nabarmenez.

d) Araututako informazio finantzarioa prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.

e) Kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin harremanetan egotea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien eta kontu-auditoretzaren prozesuarekin zerikusia duten bestelakoen berri izateko eta batzordean aztertzeko. Era berean, kontu-auditoretzaren alorreko legerian eta arauetan aurreikusita dauden gainerako jakinarazpenak ere jasoko ditu. Dena den, kontu-auditoreek edo auditoretza-sozietateek urtean behin berretsi beharko diote (idatziz) beraiekin zuzeneko edo zeharkako lotura duen erakundearekiko (edo erakundeekiko) independenteak direla. Ildo beretik, auditore edo sozietateok nahiz beraiei atxikitako pertsonek edo erakundeek loturadun beste erakunde horiei emandako zerbitzu osagarriei buruzko xehetasunak jakinarazi beharko dituzte, 2015eko uztailaren 20ko 22/2015 Legeak, Kontu Auditoretzarenak, eta 537/2014 EB Erregelamenduak xedatutakoarekin bat.

f) Urtean behin, kontu-ikuskaritzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-ikuskatzaileen edo ikuskaritza-sozietateen independentziari buruzko irizpena jasoko duen txostena argitaratzea. Txosten horretan, aurreko atalean aipatu diren zerbitzu osagarrien prestazioari buruzko iritzia jaso beharko da.

g) Jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboko arauak betetzen direla gainbegiratzea.

Kontseilu Errektorearen Erregelamenduaren arabera, Ikuskaritza Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan behar dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik. Batzordea baliozki eratutzat joko da, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute, emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Nagore Larrabeiti (batzordeburua) eta Xabier Sagarna kontseilari independenteak dira (kide guztien % 67) eta Ricardo Pérez kontseilari ez-exekutiboa da (kide guztien % 33). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean.

Hauek dira Ikuskaritza Batzordeak 2021ean zehar izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Entitatean ezarrita dagoen finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKSa) gainbegiratu eta ebaluatu du, bai eta argitaratutako finantza-informazioa prestatu eta aurkezteko prozesua ere, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren deskarguen bidez. Egiaztapen hauek dira nabarmenenak:

- Entitateak egindako urteko kontu indibidual eta bateratuak eta dagozkion kudeaketa-txostenak berrikustea.

- Espainiako Bankuari bidalitako hiruhilekoko finantzetako egoera-orri publiko bateratuak berrikustea.

- Entitateak sei hilean behin argitaratzen duen merkaturako gardentasun-informazioa berrikustea.

- Espainiako Bankuari bidalitako baliabide propioen aitorpena sei hilean behin berrikustea.

- Finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKSa) gainbegiratzea, Barne Ikuskaritzako Departamentuak ezarritako berrikuspen-prozedurari jarraikiz (ikusi F.5.1. atala).

- Finantza-informazioa prestatzeko funtsezko prozesuak berrikustea, besteak beste, kreditu-arriskua narriatzeagatiko galeren kalkulua berrikustea (Espainiako Bankuaren 6/2021 Zirkularra).

- Informazio ez-finantzarioaren egoera-orriaren lanketa gainbegiratu du.
- Entitatean ezarrita dagoen finantza-informazioaren barne-kontrolerako sistema (FIBKSa) gainbegiratu eta ebaluatu du, bai eta lotutako politikak, metodoak eta prozedurak ere, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren deskarguen bidez. Egiaztapen hauek dira nabarmenenak:

- Kapitalaren eta likideziaren autoebaluazio-prozesua gainbegiratzea.

- Entitateak argitaratutako Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa berrikustea.

- Recovery Plana egin eta aurkezteko prozesua berrikustea.

- Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularraren 9. eranskinak eskatzen duen berrikuspen-prozedura.

- Merkataritza-sareak *in situ* ikuskatzeko prozedura gainbegiratzea.

- IKT arriskuen kudeaketari eta segurtasunari buruzko jarraibideak betetzearen ebaluazioa berrikustea.

- Barne-ikuskaritzako funtzioa gainbegiratu eta ebaluatu du, haren independentzia eta eraginkortasuna zainduz eta Barne Ikuskaritzako Departamentuak egindako jardueren gaineko informazioa jasoz aldian behin. Barne Ikuskaritzako urteko planari onespena eman eta jarraipena egin dio. 2021ean, Barne Ikuskaritzaren Funtzioaren erakunde-egitura egokitzeko eta funtzioak berrikusteko proiektuaren buru izan zen Ikuskaritza Batzordea, gainbegiratzearen aurreikuspenetara egokitzeko bidean.
- Erabaki du kontu-auditorearen jarduna ebaluatu ostean kanpo-auditoretzako kontratua luza dezala proposatzea Kontseilu Errektoreari, Batzar Nagusiaren esanetara jartzeko.
- Kanpo-auditoretzaren emaitzari jarraipena egin dio, kanpo-auditorearekin bilerak egin ditu eta garrantzi berezikotzat jotako alderdiak aztertu eta berrikusi ditu.
- Kanpo-auditoreen independentzia berresten duen iritzia eman du, kontu-auditoretzaren txostenak argitaratu aurretik.
- Entitateak edo taldeko entitateek kanpo-auditorearekin kontratatzea proposatzen zuen auditoriaz gaineko zerbitzuak ebaluatu ditu eta, zegokionean, onetsi.

Esan ezazu Ikuskaritza Batzordeko zer kontseilari izendatu diren beraien kontabilitateko, auditoretzako edo bietako ezagutzak eta esperientzia aintzat hartuta, eta adierazi batzorde horretako lehendakaria zer datatan izendatu den.

| | |
|---|---|
| Esperientziadun kontseilarien izenak | RICARDO PÉREZ AGUADO JAUNA |
| Lehendakaria izendatzeko data | 2019-01-04 |

| Izendapenen Batzordea | | |
|---|---|---|
| Izena | Kargua | Kategoria |
| ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO ANDREA | LEHENDAKARIA | INDEPENDENTEA |
| IÑIGO LÓPEZ-CANO FERNANDEZ DE BETOÑO JAUNA | KIDEA | EZ-EXEKUTIBOA |
| XABIER SAGARNA ARRIZABALAGA JAUNA | KIDEA | INDEPENDENTEA |

| | |
|---|---|
| Kontseilari exekutiboen %-a | 0,00 |
| Kontseilari dominikalen %-a | 0,00 |
| Kontseilari independenteen %-a | % 67 |
| Kanpoko beste batzuen %-a | 0,00 |
| Bilera-kopurua | 6 |

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, barne hartuta, dagokionean, legeak ezarritakoez gainerakoak, eta deskribatu berorren prozedurak eta antolatzeko eta funtzionatzeko arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Izendapenen Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.b artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- Kontseilu Errektoreko postu hutsak hornitzeko hautagaiak bilatu eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
- Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea eta izendapen zehatz baterako behar diren eginkizunak eta gaitasunak deskribatzea, bai eta lanpostua betetzeko aurreikusitako arduraldia balioztatzea ere.
- Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, eraketa eta jarduketa aztertzea eta egin beharreko aldaketak gomendatzea.
- Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektorearen eta bertako kideen egokitasuna aztertzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
- Aldian behin, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika berrikustea eta gomendioak ematea.
- Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.
- Kontseilu Errektorean ordezkaritzarik txikiena duen sexuarentzako ordezkaritza-helburua finkatzea eta helburu horretara iristeko orientabideak lantzea.

Erregelamenduaren arabera, Izendapenen Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Izendapen Batzordeak 2020ko kide-kopuru bera izan zuen urriaren amaierara arte, eta, azaroan, aldatu eta hiru kidera murriztu zuen.

2021-12-31n batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Itziar Elgarresta (batzordeburua) eta Xabier Sagarna kontseilari independenteak dira (kide guztien % 67) eta Iñigo López-Cano kontseilari ez-exekutiboa da (kide guztien % 33). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean. Kontseilu Errektoreko lehendakaria dagoeneko ez da Izendapenen Batzordeko kidea.

Hauek dira Izendapenen Batzordeak 2021ean izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Nagusiko kideen eta funtsezko eginkizunen titularren egokitasuna etengabe aztertzea eta Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea.
- Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezteko jorratzen duen politika berrikustea.
- Egokitasun-azterketa egin ostean izendapenak proposatzea.
- Kontseilu Errektorearen Hautapen, Izendapen, Berritze eta Aniztasun Politika eguneratzea.
- Kontseilari berriak izendatzeko hauteskunde-prozesua koordinatzea.
- Kontseilu Errektorerako hautagaien egokitasuna ebaluatzea eta Kontseilu Errektorerako gomendioen txostena egitea.
- Berriz hautatzeko aurkezten diren kontseilarien jarduera ebaluatzea.
- Kontseilu Errektorerako prestakuntza-ekintzak proposatzea.

| Ordainsarien Batzordea | | |
|---|---|---|
| Izena | Kargua | Kategoria |
| MARÍA ESTHER KORTA ERRAZKIN ANDREA | LEHENDAKARIA | INDEPENDENTEA |
| PABLO LUIS BRINGAS VÉLEZ JAUNA | KIDEA | EZ-EXEKUTIBOA |
| BEATRIZ MAULEON SAINZ DE VICUÑA ANDREA | KIDEA | EZ-EXEKUTIBOA |
| AINHOA GALLASTEGI MARTINEZ ANDREA | KIDEA | EZ-EXEKUTIBOA |

| | |
|---|---|
| Kontseilari exekutiboen %-a | 0,00 |
| Kontseilari dominikalen %-a | 0,00 |
| Kontseilari independenteen %-a | % 25 |
| Kanpoko beste batzuen %-a | 0,00 |
| Bilera-kopurua | 6 |

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, eta deskribatu berorren antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak eta arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Ordainsarien Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.c artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- Entitatean aplikatu beharreko ordainketa-politika orokorra Kontseilu Errektoreari proposatzea eta Kontseilu Errektoreak ordainsarien inguruan hartu beharreko erabakiak prestatzea, baita entitatearen arriskuan eta arriskuen gestioan eragiten dutenak ere.

- Kontseilu Errektorea informatuta izatea identifikaturiko kolektiboko zuzendarien ordainsari-politikari buruz, kontseilarien (izaera horregatik ordainsaria jasotzen dutenen), zuzendari nagusiaren eta parekoen ordainsari-politika orokorrari buruz, bai eta eginkizun exekutiboak dituzten Kontseilu Errektoreko kideen banakako ordainsariei eta kontratu-baldintzei buruz ere.

- Ordainsari-politika aplikatzearen inguruko urteko ebaluazio independentea (barnekoa edo kanpokoa) egiten dela bermatzea.

- Entitatean ezarritako ordainsari-politika betetzen dela ziurtatzea, eta, aldian behin, identifikaturiko kolektiboko zuzendarien, kontseilarien (izaera horregatik ordainsaria jasotzen dutenen), zuzendari nagusiaren eta parekoen ordainsari-politika berrikustea.

- Indarrean dagoen legeriak eta estatutu sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

Erregelamenduaren arabera, Ordainsarien Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Ordainsarien Batzordeak 2020ko kide-kopuru bera izan zuen urriaren amaierara arte, eta, azaroan, aldatu eta lau kidera murriztu zuen. Hil honetan ere beste aldaketa bat gertatu da eraketan.

2021-12-31n batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Esther Korta (batzordeburua) kontseilari independentea da (kide guztien % 25), Ainhoa Gallastegui, Pablo Luis Bringas eta Beatriz Mauleo kontseilari ez-exekutiboak dira (kide guztien % 75). Ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik batzordean. Kontseilu Errektoreko lehendakaria dagoeneko ez da Ordainsarien Batzordeko kidea.

Hauek dira Ordainsarien Batzordeak 2021ean izan dituen esku-hartzerik garrantzitsuenak:

- Kontseilu Erreктoreari ordainsari-proposamen ezberdinen berri ematea.
- Identifikaturiko kolektiboari 2020ko ekitaldiko ordainketa aldakor indibiduala (OAIa) aplikatzeko proposatzea.
- Identifikaturiko kolektiboarentzat 2021erako OAIaren helburuak zehazteko proposatzea.
- 2021eko ekitaldirako ordainketa aldakor indibidualaren araudia proposatzea.
- Identifikaturiko kolektiboaren osaera zehaztea eta VIII. eranskina aurkeztea.
- Ordainsari-politikaren urteko txostena egitea, Kontseilu Errektoreak onesteko.

| Arrisku Batzordea | | |
|---|---|---|
| Izena | Kargua | Kategoria |
| ELENA ZARRAGA BILBAO ANDREA | LEHENDAKARIA | INDEPENDENTEA |
| NAGORE LARRABEITI LIBANO ANDREA | KIDEA | INDEPENDENTEA |
| EDORTA GIL SAGARDUY JAUNA | KIDEA | EZ-EXEKUTIBOA |
| MARÍA LAURA RODRÍGUEZ GONZÁLEZ ANDREA | KIDEA | INDEPENDENTEA |

| | |
|---|---|
| Kontseilari exekutiboen %-a | 0,00 |
| Kontseilari dominikalen %-a | 0,00 |
| Kontseilari independenteen %-a | % 75 |
| Kanpoko beste batzuen %-a | 0,00 |
| Bilera-kopurua | 9 |

Azal itzazu batzorde honek esleituta dituen eginkizunak, eta deskribatu berorren antolamendurako eta funtzionamendurako prozedurak eta arauak. Eginkizun bakoitzerako, adierazi ekitaldiko jarduketarik garrantzitsuenak eta nola bideratu duen legean, estatutuetan edo bestelako sozietate-erabaki batzuetan esleituta dituen eginkizunetako bakoitza.

Arrisku Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11 bis artikuluan) daude jasota; hauek dira:

- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen egungo eta etorkizuneko arriskuarekiko joera orokorrari eta arlo horretarako estrategiari buruz, eta laguntzea estrategia hori aplikatzen eta entitateari eragiten dioten edo eragin diezaioketen arriskuak gestionatu, gainbegiratu eta murrizteko politika zehatzak zaintzen.

- Egiaztatzea bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezio-politikak aintzat hartzen dituela entitatearen enpresa-eredua eta arrisku-estrategia. Bestela, hori ordezkatzeko plan bat aurkeztea Kontseilu Errektoreari.

- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen arrisku garrantzitsu guztiak gestionatu eta gainbegiratzeko.

- Kontseilu Errektoreari *stress test*aren eta kapital-plangintzaren inguruko aholkuak ematea, arriskuei dagokienez.

- Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolamenduaren eraginkortasuna bermatzeko baliabide egokiak esleitzen direla bermatzea.

- Kontseilu Errektorearen eta erakundearen artean arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela ziurtatzea, eta batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak arriskuei buruz jaso beharreko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea, Kontseilu Errektorearekin batera.

- Aktiboen balioztapena, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera eta arriskuei buruzko barne-ereduak gainbegiratzea.

- Ordainsari-politika eta -jardunbide arrazoizkoak ezartzen laguntzea. Aztertzea ea ordainketa-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak aintzat hartzen dituen arriskua, kapitala, likidezia eta irabazien probabilitatea eta aukera.

Erregelamenduaren arabera, Arrisku Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu edo beste edozein kidek eskatzen badu. Kide bakoitzak boto bat izango du, erabakiak gehiengo soilez hartuko dira eta berdinketak lehendakariaren botoak ebatziko ditu.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Elena Zárraga (batzordeburua), Nagore Larrabeiti eta María Laura Rodríguez kontseilari independenteak dira (kide guztien % 75) eta Edorta Gil kontseilari ez-exekutiboa da (kide guztien % 25). Ez dago kontseilari exekutiborik batzordean.

Kanpoko kontseilari esaten zaio gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

2021eko jarduerari dagokionez, Arrisku Batzordeak honako hauek egin ditu bere eginkizunen barruan:

- Arrisku guztien segimenduaz eta kontrolaz arduratu, Aktiboen eta Pasiboen Batzordearen (APBaren) hiruhilekoko deskarguen bidez.
- Arriskuen gaineko eskuliburu eta politiketako aldaketak aztertu eta balidatu.
- Arrisku-mota bakoitzerako mugen eta eskumenen eguneratzea aztertu eta balidatu —Seguros Lagun Aro barne hartuta—.
- 2020ko Kapitalaren Autoebaluazio Txostena (KATa) aztertu eta balidatu.
- Recovery Plana aztertu eta balidatu.
- Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAFa), grinaren urteko deklarazioa (RASa) —jarraipena eginez— eta *stress testing*aren metodologia eta agertokia aztertu eta balidatu.
- Formalizatutako eragiketen prezioek eragiketaren kostua gainditzen dutela kontrolatzeko eragiketa aztertu eta balidatu, IX. eranskinari jarraikiz.
- Ordainsari-politikaren proposamena aztertu eta baliozkotu.
- Plan Estrategikoa aztertu eta balidatu, arriskuei dagokienez.

## D. ERAGIKETA LOTUAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

D.1. Zerrenda itzazu entitatearen edo berorren taldeko entitateen eta akziodunen, bazkide kooperatibisten nahiz jabetza-eskubideen titularren edota entitatean pareko izaera duen beste edozeinen artean egindako eragiketak.

| Akziodun edo bazkiderik garrantzitsuenaren izena edo izen soziala | Taldeko sozietatearen edo entitatearen izena edo izen soziala | Harremanaren izaera | Eragiketa-mota | Zenbatekoa (mila eurokotan) |
|---|---|---|---|---|
| Daturik ez | | | | |

D.2. Zerrenda itzazu entitatearen edo berorren taldeko entitateen eta administratzaileen nahiz administrazio-organoko kideen edo entitateko zuzendaritzako kideen artean egindako eragiketak.

| Administratzaileen edo zuzendarien izena edo izen soziala | Alderdi lotuaren izena edo izen soziala | Lotura | Eragiketaren izaera | Zenbatekoa (mila eurokotan) |
|---|---|---|---|---|
| Xabier Egibar Gainza Jauna | Caja Laborala | Zuzendari nagusia | Mailegua | 200 |

D.3. Zerrenda itzazu talde barruan egindako eragiketak.

| Taldeko entitatearen izena edo izen soziala | Eragiketaren azalpen laburra | Zenbatekoa (mila eurokotan) |
|---|---|---|
| Daturik ez | | |

D.4. Zehaztu itzazu zer mekanismo dauden ezarrita entitatearen edo berorren taldearen eta kontseilarien edo administrazio-organoko kideen nahiz zuzendarien arteko interes-gatazkak antzeman, zehaztu eta konpontzeko.

Hainbat bazkideren edo hirugarrenen mesedetan Caja Laboralaren interesak urratzen dituzten Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioak aurkaratzeko aukera eskaintzen du legeak, eta aplikagarriak dira, halaber, gerta litezkeen interes-gatazken inguruko arau berezi hauek:

a) Arrisku-politikari buruzko eskuliburuaren 8. atalari jarraikiz, eta irizpide orokor gisa, Kontseilu Errektoreko kide guztiek, zuzendari nagusiak, horien senitartekoek (bigarren mailaraino) eta lotutako sozietateek planteatutako arrisku-eragiketa guztiek berrespen zentralizatua beharko dute, eta Kontseilu Errektoreak onartu eta berretsi beharko ditu. Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularraren, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoaren, 35. arauan ezarritako muga eta baldintzak gainditzen dituzten kasuetarako, baimena eskatu beharko zaio Espainiako Bankuari, eta, bestela, jakinarazi egin beharko dira berehala.

b) Aurreko a) letran zehaztutako arrisku-eragiketen inguruko Eragiketa Batzorde Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen akordioetarako, geroago aipatzen diren baldintzak bete beharko dira. Hauek dira baldintzok:

- Akordioa isilpeko bozketaz hartu beharko da, gaia gai-zerrendan behar bezain argi sartu ostean.
- Kontseilari guztien bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez, erabakia hartzeko. Eragiketaren edo zerbitzuaren onuraduna kontseilaria edo aipatutako senitartekoren bat bada, interes-gatazka dagoela ulertuko da eta pertsona horrek ezin izango du bozketan parte hartu.
- Isilpeko bozketa egin eta emaitza aldarrikatutakoan, egokia izango da hartutako erabakiarekiko zalantzak edo desadostasunak jasotzea.

Baldintza horiek berak bete behar dira Caja Laboralak beste entitate batzuekin dituen betebeharrak edo eskubideak eratu, eten, aldatu, berritu edo iraungi behar direnean ere, kargu haiek edo beraien senitartekoak entitateotan nagusiak, kontseilariak, administratzaileak, goi-mailako zuzendariak, aholkulariak edo oinarrizko kideak direnean eta kapitalean % 5eko edo gehiagoko partaidetza dutenean.

Kontseilariak izendatzeko, egokitasun-eskuliburuan ezarritakoa bete behar da; hau da, aitorpen bat sinatu behar da, Caja Laboralaren interesekiko etengabeko edo egiturazko gatazkarik ez dagoela adierazteko, ezinbestekoa baita kontseilariaren egokitasuna bermatzeko. Egoera hori egiaztatu egin behar da urtean behin; dena den, egokitasunari eragin diezaiokeen edozein egoera gertatzen bada, kontseilaria arduratuko da Caja Laboralari berehala ezagutarazteaz, eta bera izango da ez jakinaraztearen edo berandu jakinaraztearen ondorioz entitateak jasaten dituen kalteen erantzulea.

## E. ARRISKUEN KONTROL ETA GESTIO SISTEMAK

### E.1. Azal ezazu entitatearen Arriskuen Kontrol eta Gestio Sistemaren irismena.

Arriskuen Gestio Sistemak funtzionamendu integrala du, eta Arriskuen Arean zentralizatuta dago kreditu-arrisku tradizionala onartu, jarraipena egin eta berreskuratzearen erantzukizuna, bai eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketen arriskuak neurtu eta kontrolatzeko lanak ere.

Arrisku guztiak modu zentralizatuan kudeatzen dira, eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordea (hilean behin bilduta) eta, eragiketa-arriskuaren kasuan, Eragiketa Arriskuaren Batzordea (hiru hilean behin bilduta) arduratzen dira horretaz. Salbuespenak dira altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak, berariaz Altxortegi Departamentuan eskuordetzen baitira, eta kreditu-arriskua, bulegoei edo Arriskuen Areari dagozkion aginpideetan.

Hiru hilean behin gutxienez, Eragiketa Arriskuaren Batzordeak arrisku guztien kontrolari buruzko informazioa helarazten die Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari.

### E.2. Azal ezazu entitatean zein organo arduratzen diren Arriskuen Kontrol eta Gestio Sistema sortu eta betearazteaz.

Kontseilu Errektorea. Administrazio-organo gorena da, eta entitateak bere gain hartzen dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken erantzulea. Bere eginkizunak aurrera eramateko, Kontseilu Errektoreko kidez osatuta egoten den Arrisku Batzordearen laguntza izaten du, eta Arriskuen Batzorde Nagusian ere hartzen du parte. Arriskuen kontrol zorrotza eta deskargu sistematikoa egiteko eskatzen dio Eragiketa Arriskuaren Batzordeari.

Zuzendaritza Nagusia. Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, arrisku-politikak ezartzeaz arduratzen da. Arriskuen eginkizuna banatu egin du gestio komertzialaren eta arriskuak hartzearen artean.

Eragiketa Arriskuaren Batzordeko (EABko) zuzendariak arrisku guztien kontrolari eta segimenduari buruzko informazioa helarazten die, hiru hilean behin, Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari, arreta berezia jarriz ezarritako mugen eta prozeduren betetze-mailari.

Aktiboen eta Pasiboen Batzordea. Interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta kredituaren arriskua Kontseilu Errektoreak ezarritako mugen barruan gestionatzeko organoa da. Eragiketa Arriskuaren Batzordeak hilean behin sortzen du arriskuen jarraipenari buruzko informazioa, eta batzorde horretan hartzen dira likideziaren, interes-tasaren eta merkatuaren arriskuei buruzko erabakirik garrantzitsuenak.

Eragiketa Arriskuaren Batzordea. Eragiketa-arriskua kontrolatzeko organoa da. Hiru hilean behin ematen du eragiketa-arriskuaren jarraipenari buruzko informazioa.

Arriskuen Area. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartzeaz, jarraitzeaz eta berreskuratzeaz arduratzen da, eta kreditu-arriskuaren barruko ereduak eraiki eta mantentzeaz, bai eta likideziaren, interes-tasaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtu eta kontrolatzeaz ere.

Arriskuaren Kontrol Globala departamentua: Arrisku Batzordearen mende dago. Arrisku guztien ikuspegi orokorra ematen du, berak neurtu eta kontrolatzen baititu guztiak. Horrela, bada, departamentu hori arduratzen da kreditu-arriskua onartzeko eta jarraipena egiteko eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtzeko eta kontrolatzeko barruko ereduak sortzeaz. Aktiboen eta Pasiboen Batzordea, Arrisku Batzordea eta Kontseilu Errektorea informatzen ditu.

Arriskuen Gestioaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Etxeko eta merkataritzako kreditu-arriskua gestionatzeaz arduratzen da: arriskua onartzeaz, jarraipena egiteaz eta egoera irregularrak adiskidantzazko eta auzi-aurreko faseetan berreskuratzeaz. Kobraezinak berresten hartzen du parte, eta zenbateko jakin baterainoko aginpidea du.

Aholkularitza Juridikoaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Arrisku-eragiketei laguntza eta estaldura dokumental juridikoa ematen die, eta merkataritza-sareko auzien gestioari ere bai.

Altxortegiaren eta Kapital Merkatuaren Area. Finantza-erakundeekiko eta errenta finko pribatuarekiko kreditu-arriskua, merkatu-arriskuak, epe laburreko likidezia-arriskua eta APBn hartutako erabakien ondoriozko posizioak gestionatzen ditu.

Araudia Betearazteko Departamentua. Araudia betearazteari lotutako alderdiak kontrolatzeaz eta jarraitzeaz arduratzen da. Entitateko area eta departamentuak koordinatzen ditu.

Bulego-sarea. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren lehen fasea da, eskuordetuta dituen ahalordeez mugatua; horiek entitatearen arrisku-politika osatzen duten scoringaren/ratingaren, alerten eta eskumenen mailen araberakoak dira. Arriskua onartzeko prozesuak Txikizkako Sarearen aginpideak gainditzen baditu, Arriskuen Areak berretsi beharko du.

Barne Ikuskaritza. Aseguratzeko eta kontsultatzeko eginkizun independente eta objektiboa du. Ikuspegi sistematiko eta diziplinatua eskaintzen du, arriskuen gestioko, kontroleko eta gobernamenduko prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzeko.

E.3. Aipa itzazu negozio-helburuetan eragin dezaketen arrisku nagusiak.

Partikular eta enpresekiko negozio tradizionaleko kreditu-arriskua (kontzentrazio-arriskua barne), egiturazko interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak (arrisku subiranoa eta aurkako alderdiaren, herrialdearen, kontzentrazioaren eta merkatuaren arriskuak), eragiketa-arriskua, arautze-arriskua, ospe-arriskua, IGG arriskuak (ingurumenarena, gizartearena eta gobernantzarena), arrisku teknologikoa eta negozio-arriskua.

E.4. Adieraz ezazu entitateak baduen arriskuarekiko tolerantzia-mailarik.

Kontseilu Errektoreak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAFa) erabiltzen du, batik bat, helburu estrategikoak lortzeko bere gain har dezakeen arrisku-mota eta -maila ezarri, gestionatu eta kontrolatzeko. RAFari esker, entitatearen estrategia finkatzen duten pertsonek kontzientzia osoz onartzen dituzte estrategia horri dagozkion arriskuak.

Gobernantzari dagokionez, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua arduratzen da RAFaren inguruko guztiak gestionatzeaz, beharrak aurkitzeaz, tartean diren area guztiak koordinatzeaz eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordeari/Arrisku Batzordeari/Kontseilu Errektoreari proposamenak aurkezteaz. APBk eta Arrisku Batzordeak funtsezko eginkizuna dute proposamenak aztertu eta gainbegiratzen, onets dezan Kontseilu Errektorera bideratu aurretik.

Arriskuarekiko grina ezartzeko, arriskuak bereganatzeko gaitasuna hartzen du kontuan entitateak, eta alderdi hauek begiratzen ditu batez ere:
-Entitateak arriskuak bereganatzeko duen gaitasun finantzarioa (kapitala eta likidezia).
-Negozioaren testuingurua: egoera makroekonomikoa, arautze-arriskuak...
-Entitatearen arrisku-kultura.
-Arrisku-mota bakoitzak berezkoa duen arriskua.
-Arrisku-mota bakoitza bereganatzeko prestakuntza-maila eta trebetasuna.

RAFak metrika-egitura bat ezartzen du, errentagarritasunaren, kaudimenaren, likideziaren eta entitateak gestionatzen dituen arrisku-moten inguruan. Lehen mailan, funtsezko adierazleak daude, eta, bigarrenean, lehenengokoak garatu edo osatzen dituztenak. Lehentasunezko dimentsioen artean sartzen dira errentagarritasuna, kaudimena eta likidezia, dimentsio horien inguruko CORE adierazleen lehen mailan, alegia. Metrika horiei guztiei helburuak esleitzen zaizkie, bai eta behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ere, entitateak bere gain har dezakeen arrisku-maila, hau da arriskuarekiko abertsioa, zehazteko.

Bere helburu estrategikoak lortzeko, arrisku-profil ertain-txikian jardun nahi du entitateak. Arriskuarekiko Grinaren Deklarazioan (RASean) zehazten da profila. Arrisku-politika zuhurrarekin koherenteak diren behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ezartzen ditu RASak, entitateari estres-egoeretan ere kapitalizazio- eta likidezia-maila lasaietan eusteko asmoarekin. Entitateak jarraipena egiten die adierazle horiei, eta jarduketa-prozedura bat du ezarrita atalaseak gainditzen direnerako.

E.5. Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

Interes-tasaren arriskuari dagokionez, inoiz ez da gainditu Kontseilu Errektoreak ezarrita duen eta APBk kontrolatzen duen muga.

Merkatu-arriskuetan, soberakoak bat-batean sortutakoak dira, hau da, mugak murriztearen ondoriozkoak, ez posizioa handitzeak eragindakoak. Kasu horietan, kontrol-sistemek egoki funtzionatu dute. ABPk soberako horien berri izan du, eta posizioari eutsi ala ez erabaki du.

Likidezia-arriskuaren alorrean ez da tentsio-egoerarik sortu. Entitatearen likideziaren jarraipen sistematikoari, aurreikuspenekiko desbideratzeen azterketari eta hilean behin eguneratutako finantzaketa-planari esker, denbora nahikoz aurreikus daitezke epe ertainera egon litezkeen kontrako inpaktuak, eta aukera dago behar diren neurri zuzentzaileak garaiz hartzeko.

Kreditu-arriskuari eta partikularren eta enpresen segmentuetako eragiketei gagozkiola, kreditu-hartzaile batekiko arriskuak estamentu bateko eskudantziak gainditzen dituenean, goragoko eskudantziak dituen hurrengo estamentura bideratzen da irizpena. Finantza-erakundeekiko eta korporazio handiekiko eragiketetan, entitatearen arriskuen gestioaren esparru barruan gauzatu da jarduera. Esan beharra dago araudiak arrisku handietarako finkatutakoak baino muga nabarmen txikiagoak dituela ezarrita entitateak.

Eragiketa-arriskuan, berriz, entitatearen jarduerearen ondorioz nahitaez sortzen diren eragiketa-galerak txikitu egin dira, atal kualitatiboan ezarrita dauden kontrolei esker. Galera ez-errepikariak identifikatu ostean, entitateak ekintza-planak ezartzen ditu, horiek berriro gerta ez daitezen, eta, dagokionean, etorkizuneko beharrei erantzuteko hornidurak egiten ditu.

Ospe-arriskuari dagokionez, ez da gertatu publizitate negatibo nabarmena sortu duen egoera berririk.

E.6. Azal itzazu, batetik, entitatearen arrisku nagusiak gainbegiratzeko eta horiei erantzuteko planak eta, bestetik, entitateak zer prozedura erabili duen administrazio-kontseiluak erronka berriei erantzuten diela bermatzeko.

Hiru hilean behin, arrisku-mota guztien bilakaerari eta, bereziki, RASaren adierazleei buruzko argibideak ematen dizkie Eragiketa Arriskuaren Batzordeak Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari. Adierazle horietakoren bat eremu anbar edo gorrian sartzen bada, Arriskuarekiko Grinaren Esparruan jasota dagoen prozedura aktibatzen da. Besteak beste, ezartzen du epe laburrean Arrisku Batzordea eta Kontseilu Errektorea jakinaren gainean jarri behar direla, atalasea zenbaterainoko larritasunez gainditu den aintzat hartuta. Horiek ekintza-plan bat eskatu ahal izango dute, adierazlea berriro eremu berdera itzularazteko.

Bestalde, Barne Ikuskaritzak zehazten du entitatearen arriskuak barruan nola gainbegiratu. Arriskuen gestio- eta kontrol-prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzea da haren zeregina.

## F. ARRISKUEN KONTROL ETA GESTIOKO BARNE-SISTEMAK, FINANTZA-INFORMAZIOA EMATEKO PROZESUARI (FIBKS-ARI) DAGOKIONEZ

Azal itzazu arriskuak kontrolatzeko eta gestionatzeko sistemak osatzen dituzten mekanismoak, finantza-informazioa emateko prozesuari (FIBKSari) dagokionez.

### F.1. Entitatearen kontrolaren arloa

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

F.1.1. Zer organok edo funtziok dituen ardura hauek: (i) FIBKS egoki eta eraginkor bat izatea, (ii) ezartzea eta (iii) gainbegiratzea.

Caja Laboralak barne-kontroleko mekanismoak ditu ezarrita, entitateari buruz eta bere taldeari buruz merkatuetan argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia dela bermatzeko. Prozesu hori indartu egin zen 2014ko ekitaldian, Finantza Informazioaren Barne Kontrolerako Sistema —aurrerantzean FIBKS— ezartzearen bidez.

Caja Laboralaren Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodearen 3.6 - Informazioaren fidagarritasuna atalean, gobernu-organoak eta horiek FIBKSaren alorrean dituzten zereginak daude jasota:

-Caja Laboraleko Kontseilu Errektorea arduratzen da FIBKS egokia eta eraginkorra ezarri, mantendu eta ziurtatzeaz, eta merkatuan entitateari nahiz beraren taldeari buruz argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia izango dela kontrolatu eta bermatzeaz.

-Zuzendaritza Kontseiluaren eta Barne Ikuskaritzako Departamenduaren ardura da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea. Helburu horrekin, nahikoa giza baliabidez eta baliabide materialez hornituko du entitatea, eta finantza-informazioa prestatzearen arduradunei beharrezko prestakuntza eskainiko die, dagozkien zereginak bete ditzaten.

Ikuskaritza Batzordearen eginkizuna da FIBKSak ondo funtzionatzen duela gainbegiratzea, finantza-informazio arautua prestatu eta aurkezteko prozesuan zehar. Bereziki, legezko errekerimenduak eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioak zuzen erabiltzen direla gainbegiratzen du. Zeregin horretan, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren laguntza du. Arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko sistemak (horien artean FIBKSa) zuzen diseinatu eta ezarrita daudela gainbegiratzen laguntzen dio Ikuskaritza Batzordeari, eta behar bezala eta efizientziaz funtzionatzen dutela egiaztatzen du.

Azkenik, Finantzen Areako zuzendaritzaren mendeko Plangintzako eta Gestio Kontroleko Departamentuak arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko sistemak diseinatzen eta ezartzen laguntzen du, batez ere merkatuetara igortzen den finantza-informazioa prestatu, aurkeztu eta osatzeko prozesuari dagokionez.

F.1.2. Elementu hauek badauden, batez ere finantza-informazioa sortzeko prozesuari dagokionez.

· Honako hauez arduratzen diren departamentu edo mekanismoak: (i) antolamendu-egitura diseinatu eta gainbegiratzeaz; (ii) erantzukizun- eta aginte-ildoak argi eta garbi zehazteaz, lanak eta zereginak behar bezala banatuz, eta (iii) entitatean horiek egoki hedatzeko behar adina prozedura izateaz.

Erakundearen egitura diseinatu eta aztertzea Antolamendu Departamentuari dagokio, eta baita lan horretarako area bakoitzak dituen baliabide-premiak aztertzea eta berrikustea ere. Berrikuspen hori antolamendu-egitura egokitzeko premia sortzen denean egiten da zerbitzu zentraletako area eta departamentuetan, eta, bertan, ez da beharrezko plantilla erabakitzen soilik, unitate bakoitzaren egitura ere balidatzen da.

Halaber, bulegoen sare komertzialean bulego bakoitzaren lan-karga neurtzen da, hilean behin eta berariaz diseinatutako aplikazio informatiko bat erabiliz. Informazio hori Zuzendaritza Nagusiari, Gestio Sozialeko Zuzendaritzari —giza baliabideak— eta Zuzendaritza Komertzialei helarazten zaie, baliabideen gainean beharrezko doikuntzak egin ahal izateko.

Bestalde, Antolamendu Departamentua arduratzen da jarduketa-arlo bakoitzaren erantzukizun- eta aginte-ildoak zehazteaz. Jarduketa-arlo bakoitzean egingo diren zeregin eta lanak ere departamentu horrek zehazten ditu, eta area bakoitzaren gordailuan argitaratu.

2015ean, Antolamenduaren eskuliburua onetsi genuen, erakundeko eginkizunetarako gordailu bakarra, eta, 2016an, langile guztien eskura dagoen intranet korporatiboan argitaratu genuen, entitatearen organigrama orokorrarekin batera.

- Jokabide-kodea, onespen-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipio eta balioak (adieraziz badagoen eragiketa-erregistroari eta finantza-informazioaren prestakuntzari buruzko berariazko aipamenik), ez-betetzeak aztertzeko organoa eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzekoa.

Entitateak Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea du. Berorren azken eguneratzea 2020ko otsailean onartu zuen Kontseilu Errektoreak.

Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodeak finantza-informazioaren fidagarritasunean aintzat hartu beharreko alderdiak ditu jasota bere 3.6 atalean; hauek nabarmentzen dira:

-Caja Laboralak bere finantzetako egoera-orriei eta horietan eragin nabarmena izan dezaketen gertakariei buruzko finantza-informazio fidagarri, zehatz, osatu eta egokia emateko erantzukizuna du.

-Finantza-informazioa indarreko balioztapen-printzipio eta -arauen arabera osatzen dela bermatzeko taldean ezarrita dauden prozedurez gain, lan-bazkide eta enplegatu guztiek arretaz bete behar dituzte informazioa erregistratu eta tratatzeko eginkizunak, informazio hori erabiliko baita taldearen finantza-informazio publikoa osatzeko.

-Lan-bazkideak eta enplegatuak arduratzen dira informazioaren fidagarritasunaz, zehaztasunaz, osotasunaz eta eguneratzeaz. Dena den, taldeko area jakin batzuek ere berariaz esleituta dituzte zenbait erantzukizun, informazioaren osotasunaren eta erabilgarritasunaren, erabilitako erregistro-motetan sartutako datuen eta beren egitekoen barruan sortzen duten informazioaren gainean.

-Erantzukizun horren ezarpena bereziki garrantzitsua da, taldearen finantzetako egoera-orriak egiteko behar diren datu eta txostenei dagokienez. Izan ere, beharrezkoa da horiek egoki erregistratu eta interpretatzea, kontabilitateko saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzari dagozkion balioztapen-irizpideak egoki ezartzen direla bermatzeko.

2015eko ekainean, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua eta dagokion Zigor-kodea betetzeari buruzko politika onetsi zituen Caja Laboralak, eta, horrela, garbi utzi zuen arauak eta estandar etikoak errespetatzeko borondatea. Asmo horrekin, gainera, arlo penalean bete beharreko printzipioen esparrua ere finkatu zuen. Eskuliburu horren arabera, Etika Batzordeari dagokio bai Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodean ezarritako printzipioak, oro har, zaintzea, bai ikuspegi penaletik legez kanpokoak izan daitezkeen jokabideak jagotea.

Bestalde, balore-merkaturako Jokabideen Barne Araudia ere badu Caja Laboralak. Azken eguneratzea 2018ko maiatzean onetsi zuen Kontseilu Errektoreak, eta hauei aplikatzen zaie: entitateko Kontseilu Errektoreko kideei, taldeko sozietateen administrazio-kontseiluetako kideei eta entitateak balore-merkatuaren alorrean gauzatzen dituen jarduera eta zerbitzuekin zuzenean edo bereziki lotutako pertsonei (zuzendariak izan ala ez) edo kutxari buruzko informazio garrantzitsua maiz edo ohituraz eskura izaten dutenei.

- Salaketen Kanala, Ikuskaritza Batzordea jakinaren gainean jartzeko, finantzetako eta kontabilitateko gorabeherak gertatzen direnean eta erakundean jokabide-kodea betetzen ez bada edo jarduera irregularrak sumatzen badira; izaera konfidentzialekoak diren ere jakinarazi beharko da.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua onetsi zela eta, Salaketen Kanala Etika Batzordeak gestionatzen du. Barne Ikuskaritzako zuzendaria partaide da batzorde horretan.

Salaketen Kanal hori eskura dute taldea osatzen duten sozietateetako bazkide, enplegatu eta administratzaile guztiek. Haren funtzionamenduaren araubidea entitateko Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan dago jasota. Kanal horren bidez, Etika Batzordea jakinaren gainean jartzen da, Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea edo Zigor-kodea betetzeari buruzko politika betetzen ez direnean, indarreko legeriaren eta barne-araudiaren aurkako eragiketak eta portaerak daudenean eta garrantzia izan lezaketen irregulartasunak antzematen direnean, batez ere finantzen eta kontabilitatearen alorretan.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan, kanalaren hedadura, edukia eta erabilera dago jasota, eta salaketaren konfidentzialtasuna bermatzen du.

Bestalde, Ikuskaritza Batzordeak informazioa jasotzen du, aldian behin, Barne Ikuskaritzak egindako lanez, barne hartuta erakundeko jarduketa irregularrekin zerikusia dutenak ere.

- Prestatzeko eta eguneratzeko aldian behingo programak, finantza-informazioa prestatzeko eta berrikusteko eta FIBKSa ebaluatzeko zereginak dituzten langileentzat; kontabilitate-arauak, auditoretza, barne-kontrola eta arriskuen gestioa behinik behin sartu behar dira.

Entitateak prestakuntza-plan bat du ezarrita, finantza-informazioa prestatzen eta berrikusten zuzenean esku hartzen duten langileek beren funtzioak betetzeko beharrezko trebakuntza eta gaitasun profesionalak dituztela bermatzeko. Xede horrekin, indarreko arautegi-eskakizunen berri jasotzen dute horiek etengabe.

Entitateko prestakuntza-sailak prestakuntza-jarduera eta -programak kudeatzen ditu, eta egindako ikastaro guztien eta haien ezaugarrien erregistro eguneratua mantentzen du. Finantza-informazioa prestatu eta berrikusteko prozesuan parte hartzen duten departamentuek prestakuntza jaso dute kontabilitate-arauei, auditoretzari eta finantza-arriskuen gestioari eta kontrolari buruz. Gainera, araudietan gertatzen diren aldaketen eguneraketak etengabe jasotzen dituzte.

Prestakuntza-saioak presentzialak eta onlinekoak izaten dira eta barruko nahiz kanpoko prestatzaileek ematen dituzte.

## F.2. Finantza-informazioaren arriskuak ebaluatzea

Azaldu, gutxienez:

F.2.1. Arriskuak (errorearena eta iruzurrarena barne) identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak:

· Prozesua badagoen eta dokumentatuta dagoen.

Entitatearen zuzendaritzak Committee of sponsoring organizations of the treadway commission (aurrerantzean COSO) entitateak ezarritako nazioarteko estandarren arabera garatu du FIBKSa. Estandar horietan bost osagai finkatzen dira, barne-kontroleko sistemen eraginkortasuna eta efizientzia oinarritzeko:

- Jarduera horien guztien jarraipena egiteko kontrol-giro egokia sortzea.
- Entitateak bere finantza-informazioa prestatzean izan litzakeen arrisku guztiak ebaluatzea.
- Arriskurik larrienak arintzeko beharrezko kontrolak diseinatzea.
- Informazio-zirkuitu egokiak finkatzea, sistemaren ahuleziak edo eraginkortasunik ezak antzeman eta jakinarazteko.
- Kontrolok monitorizatzea, egoki funtzionatzen dutela eta denboran eraginkorrak direla bermatzeko.

Horrela, finantzetako egoera-orrietan eragin nabarmena izan dezaketen arriskuak identifikatzeko prozesuaren ardatza izaten da finantza-informazioa sortzeari lotutako gestio-prozesu kritikoak identifikatzea eta arrisku horiek gauzatzen diren finantzetako egoera-orrien areak edo epigrafeak zehaztea. Prozesuak eta areak analizatzeko prozesuan, hauek hartzen dira kontuan: eragile kuantitatiboak (saldoa eta xehetasun-maila) eta eragile kualitatiboak (prozesuen automatizazio-maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitatearen konplexutasun-maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, identifikatutako kontrol-ahuleziak eta abar).

Finantza-informazioaren barne-kontroleko arriskuak antzeman eta ebaluatzeko prozesua dinamikoa da, etengabeko eboluzioa du denboran zehar eta unean-unean islatzen ditu taldearen negozioaren egoera, horri eragiten dioten arriskuak eta horiek arintzeko kontrolak. FIBKSaren kontrolen eraginkortasuna ebaluatzeko, arriskuak identifikatzeko prozesu hori hartzen da oinarri, antolamenduko eta taldeko negozioetako aldakuntzak aintzat hartuta eta materialtasun-mailari, gertatzeko probabilitateari edo kontrol horiek estaltzen dituzten arriskuen balizko eragin ekonomikoari erreparatuta.

· Prozesuak finantza-informazioaren helburu guztiak (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna, eta eskubideak eta betebeharrak) betetzen dituen, eguneratzen den eta zer maiztasunekin eguneratzen den.

Prozesua diseinatzeko, CNMVren kotizatutako erakundeen finantza-informazioari buruzko barne-kontrolaren dokumentuan agertzen den finantza-informazioko helburu guztiak hartu dira kontuan (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna, eta eskubideak eta betebeharrak).

Aurreko atalean adierazi denez, kuantitatiboak eta kualitatiboak dira FIBKSaren diseinuan sartutako arrisku-mota guztiak antzemateko erabili beharreko irizpideak, eta argitaratutako finantza-informazioaren gaineko errore- eta iruzur-arriskuen identifikazioa ere hartzen da aintzat.

Area materialak eta prozesu nabarmenak gutxienez urtean behin identifikatzea dago aurreikusita, eta finantza-informaziorik berriena erabiltzea. Ebaluazio hori egingo da, halaber, aurretik identifikatu ez diren eta finantza-informazioan erroreak azaleratzen dituzten egoerak gertatzen direnean, eta eragiketetan aldaketa nabarmenak gertatzen direnean eta, horien ondorioz, arrisku berriak identifikatzen direnean. Horien artean sar daitezke taldearen egituran aldaketak eskatzen dituzten egoerak, besteak beste: bateratze-perimetroaren edo negozio-lerroen aldaketak eta beste gertaera aipagarri batzuk.

- Bateratze-perimetroa identifikatzeko prozesurik badagoen, kontuan hartuz, besteak beste, sozietate-egitura konplexurik, erakunde instrumentalik edo asmo bereziko erakunderik badagoen.

Prozedura bat dago kontsolidazio-perimetroa identifikatu eta eguneratzeko, eta Finantzen Area da erantzulea. Hiru hilean behin, partaidetzapeko sozietateen inbentarioa gainbegiratzen da, aldaketarik badagoen ikusteko, eta, hala bada, finantza-informazio bateratua lortzeko sistemetan sartzeko.

- Prozesuak bestelako arrisku-mota batzuen —eragiketen gainekoak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, fiskalak, ospeari buruzkoak, ingurumenekoak...— eraginak aintzat hartzen baditu, finantzetako egoera-orriei eragiten dieten heinean.

Aurreko puntuetan aipatu denez, ezarrita dauden kontrol-estandarren eta metodologiaren ondorioz aintzat hartzen dira beste arrisku-mota batzuen eraginak ere (merkatu-arriskuarenak, eragiketa-arriskuarenak, arrisku teknologikoarenak, finantza-arriskuarenak, lege-arriskuarenak, ospe-arriskuarenak eta beste edozein izaeratako arriskuenak), finantza-informazioan eragina izan dezaketen heinean.

Eragiketa-arriskuari dagokionez, Caja Laboralak eredu bat du berori gestionatzeko. Horren barruan, arriskuak (barruko eta kanpoko iruzur-arriskua, arrisku teknologikoa, eragiketa-arriskua, negozio-praktiken arriskua eta ezbehar-arriskua) eta horiek arintzeko kontrolak identifikatzen dira, eta horien balorazio kuantitatiboa egiten da. Eredu hori Eragiketa Arriskuaren Batzordeak gainbegiratzen du zuzenean, eta informatika-aplikazio batean eta politiken, prozeduren eta erabiltzaileen hainbat eskuliburutan dago euskarrituta. Barne-ikuskaritzako funtzioa arduratzen da eragiketa-arriskuen balioztapena eta horiei esleitutako kontrolak gainbegiratzeaz.

- Entitateko zer gobernu-organok gainbegiratzen duen prozesua.

Arriskuak eta kontrolak identifikatzeko prozedura gauzatzearen arduraduna Plangintzako eta Gestio Kontroleko Departamentua da, Finantzen Arearen mendekoa. Prozedura gainbegiratzeko ardura, berriz, Ikuskaritza Batzordeak du, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren bidez.

## F.3. Kontrol-jarduerak

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, ea hauek gutxienez badauden:

F.3.1. Balore-merkatuetan argitaratu beharreko finantza-informazioa eta FIBKSaren deskribapena berrikusteko eta onesteko prozedurak, arduradunak nor diren zehaztuta. Finantzetako egoera-orrietan ondorio materialak sor ditzaketen transakzio-mota guztien jarduera- eta kontrol-fluxuei buruzko dokumentazio deskribatzailea (iruzur-arriskuari buruzkoa barne). Dokumentazio horretan, gainera, kontabilitate-itxierako prozedura eta iritzi, estimazio, balioztapen eta proiekzio nagusien berrikuspenak islatu behar dira.

Merkatuetan argitaratzen den taldeari buruzko finantza-informazioa berrikusi eta baimentzeko prozedurak Finantzen Areako zuzendaritzak abiatzen ditu, berrikuspena eginez. Urteko kontu indibidual eta bateratuak Barne Ikuskaritzako Departamentuak berrikusten ditu, Kontseilu Errektoreak formulatu aurretik. Ikuskaritza Batzordeak informazioa irakurri eta Finantzen Areako eta Barne Ikuskaritzako arduradunekin eta kanpo-auditoreekin eztabaidatzen du, Kontseilu Errektoreari bidali aurretik.

Finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezaketen transakzioekin lotura zuzena duten jarduera eta kontrolei dagokienez, entitateak area eta departamentuen berariazko prozedura-eskuliburuak ditu ezarrita, bai eta finantza-informazioari buruzko kontrol-areenak ere. Eskuliburu horiek areek eurek egiten dituzte, eta Kontseilu Errektoreak onetsi.

Hauek sartzen dira prozeduretan: organigrama eta prozesuan inplikatutako eginkizunak, ukitutako sistemak eta prozesuaren deskribapena. Bestalde, arrisku- eta kontrol-matrizeek arlo hauek zehazten dituzte, besteak beste:

- arriskuaren deskribapena
- kontrol-jarduera
- kontrolaren sailkapena: funtsezkoa/estandarra
- kontrolaren kategoria: prebentziozkoa/detektatzekoa
- metodoa: eskuzkoa/mistoa/automatikoa
- kontrola euskarritzen duen sistema
- kontrolaren eragilea eta arduraduna

- kontrolaren maiztasuna
- kontrolaren ebidentzia

Ondoren, entitatearen finantza-areei lotutako prozesu nabarmenak zehaztu dira (zeharkako prozesuak eta negozio-prozesuak bereiziz); horietarako aurretik aipatutako dokumentazioa dago:

Zeharkako prozesuak:

- kontabilitate-itxiera
- baterakuntza
- gestio fiskala eta legezkoa
- kontrol informatiko orokorrak
- iritziak eta estimazioak negozio-prozesuak

- kreditu-inbertsioa
  - ematea
  - jarraipena eta berreskurapena
- finantza-tresnak
- zorra ordaintzeko jasotako aktibo higiezinak

Aipatu dugun dokumentazio deskribatzaileak hauek hartzen ditu barne:

- Identifikatutako prozesuetako bakoitzean parte hartzen duten areen eta departamentuen xehetasuna.
- Hasiera-hasieratik prozesuarekin zerikusia duten jardueren prozedurei, kontrolei eta egiaztapenei buruzko finantza-informazioa nola sortu adierazten duen deskribapena.
- Prozesu bakoitzean parte hartzen duten sistema informatikoen identifikazioa.
- Entitatearen finantzetako egoera-orrietan eragin materiala duten arrisku nabarmenen identifikazioa.
- Kontrolen identifikazioa eta deskribapena, eta aurretik antzemandako arriskuekin lotzea.

Caja Laboralaren kontabilitate-itxieraren prozedura mekanizatuta dago, eta kontabilitatea automatikoki egiten da, entitateko aplikazioen bidez. Lehen prozesu hori gauzatutakoan, Finantzen Areak berrikusi egiten du informazioa, alderatuz bai aurreko hileko datuekin, bai aurreikusitako kopuruekin, hileko balantzearen eta emaitza-kontuaren itxiera balidatzeko.

Filialen kontabilitate-itxiera dagokion entitateak egiten du, higiezinen sustapeneko sozietate batzuena izan ezik, azpikontratatuiko hirugarren batek egiten baitu. Filialen informazioa jasotakoan, Caja Laboraleko Finantzen Areak berrikusi egiten du, baterakuntza-prozesua egiteko.

Urteko kontuetan aipatu denez, zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso balioztatzeko erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta partaidetzapeko erakundeen goi-zuzendaritzako kideek egin eta administratzaileek berretsi dituzte. Urteko kontu horietan, entitateak iritziak edo estimazioak egiteko aukera ematen duten arlo nagusien nondik norakoak islatzen ditu, eta taldeak horien guztien inguruan aurreikusitako funtsezko hipotesiak zehaztu. Ildo horretatik, estimazio nagusi horiek honako hauek hartzen dituzte kontuan:

- Zenbait finantza-aktiboren narriaduraren ondoriozko galerak.
- Aktibo materialeko eta aktibo ukiezineko elementuei aplikatutako balio-bizitza.
- Baterakuntzako merkataritza-fondoaren balioztapena.
- Merkatu arautuetan kotizatu ez diren zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa.
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera.
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak.
- Enplegu ondoko ordainketen ondoriozko pasiboak eta konpromisoak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak.
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren bilakaera.

Horrez gain, Caja Laboralak iritzi eta estimazioak egiteko politika orokorra ezarria du, FIBKSaren barruan. Aintzat hartu beharreko alderdi guztiak eta iritzi eta estimazioak prestatu eta berrikusteko erantzukizunak zehazten ditu politika horrek.

F.3.2. Finantza-informazioa osatzeko eta argitaratzeko prozesu nagusiei dagokienez, entitateko informazio-sistemen barne-kontrolerako politikak eta jardunbideak (besteak beste, eskuratzeko segurtasunari, aldaketen kontrolari eta jarduketei, jarraitutasun operatiboari eta funtzio-bereizketari buruzkoak).

Caja Laboralak informazio-sistemak erabiltzen ditu, bere eragiketen erregistroa eta kontrola egokiak izan daitezen. Beraz, horien funtzionamendu egokiaren mende dago.

Arrazoi hori dela eta, entitateak barne-kontroleko politikak eta prozedurak erabiltzen ditu informazio-sistemetan, eta, finantzetako egoera-orriekin zuzenean edo zeharka lotuta, finantza-informazioa behar bezala egiten eta argitaratzen dela bermatzen dute.

Zehazki, bereziki nabarmenak dira entitatearen barne-kontrolerako ereduaren alderdi hauek:

1. Segurtasun Batzordea, entitatearen segurtasun-jarduerak zehaztu eta gainbegiratzearen ardura duen organoa.

2. Krisia Kudeatzeko Batzordea: krisialdietan negozioaren jarraitutasuna bermatzeko ekintzak koordinatzeko eta gainbegiratzeko organoa.

3. Segurtasuneko Arau Multzoa (SAMa), derrigorrezko eskakizun korporatiboak jasotzen dituen dokumentu-multzoa. Zuzendaritzak onetsi du eta entitate osoan aplikatzekoa da. Bertan, segurtasun-domeinu bakoitzeko helburua zehaztasun handiz finkatzen duten politikak daude jasota, eta segurtasun-area bakoitzean ezarri beharreko kontrol bereziak definitzeko estandar korporatiboak. Gainera, segurtasuneko funtzioen definizioa ere biltzen du, bai eta horiek betearaztearen arduradunak ere. SAMaren barruan, informazio-sistemen segurtasun-prozedura eguneratuak ere badaude. Horietan, beharrezko jarraibide tekniko eta antolamenduzkoak zehazten dira, entitatearen baliabideak eta datuak aldatzea, galtzea, erabilezin egotea eta baimenik gabe eskuratzea eta tratatzea saihesteko. Alde horretatik, besteak beste, sarbideen kontrol egokia eta funtzioen banaketa ziurtatzeko baldintzak sartzen dira, hurrengo puntuetan azaltzen denez.

4. Sistemen segurtasunarekin eta aplikazio eta sistema informatikoetarako sarbideekin zerikusia duten barne-politika eta -prozedura eguneratuak, roletan oinarrituak eta unitate/lanpostu bakoitzari esleitutako funtzio eta gaikuntzekin bat datozenak, funtzioen bereizketa egokia ziurtatzeko.

5. Modu zentralizatuan kudeatutako sarbideen eta pasahitz korporatiboen segurtasun-politika, non sistemetara sartzeko segurtasun-kontrolak jardueraren arrisku-mailara eta aktiboaren kritikotasun-mailara egokitzen diren.

6. Baimenik gabeko sarbidea eta erakundearen informazioan eta informazioa tratatzeko baliabideetan kalteak eta interferentziak saihestearren segurtasun fisikoko perimetroak erabiltzeko politikak eta jarraibideak.

7. Kontrol kriptografikoak erabiltzeko politikak, informazioaren erabilera egokia eta eraginkorra bermatzeko eta informazioaren konfidentzialtasuna, egiazkotasuna eta/edo osotasuna babesteko helburua dutenak.

8. Sareetako informazioaren segurtasuna eta baimenik gabeko sarbideetatik konektatutako zerbitzuen babesa bermatzeko ezarritako prozedurak.

9. Ezarritako aldaketak erregistratu eta gestionatzeko eman beharreko urratsei buruzko xehetasun-prozedurak eta garapen berriak probatzeko eta lehendik daudenak mantentzeko metodologiak. Bermatu nahi dena da, aplikazio berriak garatzeko eta daudenak moldatzeko, zehaztapen-, garapen- eta proba-prozesu bat gauzatzea, finantza-informazioari tratamendu fidagarria egiten zaiola bermatzeko. Entitateko informazio-sistemetako garapen berrietan edo hobekuntzetan informazioaren segurtasunari lotutako baldintzak sartu behar dira, horietan dagoen informazioaren eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta integritatea bermatzekotan.

10. Negozioaren jarraitutasunerako eta hondamendietan erantzun eta suspertzeko plana, pertsonen segurtasuna eta eragiketen jarraitutasuna bermatzeko helburua duena. Xede horretarako, aktibo kritiko guztietarako babes-sistemak daude, eta barne hartzen dituzte komunikazio erredundanteko eta hornitzaileak txandakatzeko lineak, bai eta planean zehaztutako arrisku-egoeretarako suspertze-estrategia bereziak ere. Plan hori langileei jakinarazten zaie, eta probak eta kontrolak egiten zaizkio, egoki funtzionatzen duela eta aldian behin eguneratzen dela egiaztatzeko.

11. Kontrol Orokor Informatikoen Prozedura, finantza-informazioa osatu eta argitaratzearen inguruko prozesuak euskarritzen dituzten informazio-sistemen barne-kontrolerako oinarriak finkatzen dituena.

12. Prestakuntza- eta kontzientziazio-programak, entitateari segurtasunaren arloko langile kualifikatu eta prestatuak emateko, funtzioaren eta informazioa eskuratzeko beharraren arabera. Erakunde osoarentzat egindako Urteko Prestakuntza Planean segurtasunarekin zerikusia duten prestakuntza-ekintzak sartzen dira. Era berean, planak sentsibilizatzera bideratutako gaiak garatzen ditu, langileen —goi-zuzendaritzakoak barne hartuta— entrenamendua ahalbidetzen duten ekintza praktikoen eta simulazioen bidez.

13. Informazio-sistemetan pribilegio-maila handia behar duten pertsonei aplikatzeko kontu pribilegiatuen gaineko kontrolak, sistemen erabiltzaile pribilegiatuen pasahitzak gorde ahal izateko eta egindako ekintzen ikuskapen-mailari eusteko —saioak grabatuko dira—.

14. Zentralizazioa eta zaintza zentralizatua, sistemetako jarduera-erregistroetako arau aplikagarriek ezarritako epeen arabera, egileen berri izatea eta eragiketen trazabilitatea bermatuz.

15. Politikak eta prozedurak, informazioaren segurtasuneko gertaerak eta gorabeherak monitorizatu, detektatu, aztertu eta jakinarazteko; gorabeherak kudeatzeko jarduerak erregistratzeko; probak erabiltzen direla bermatzeko, eta horien erantzuna prestatzeko, barne harturik mailakatzeko, berreskuratze kontrolaturako eta barneko nahiz kanpoko pertsonei edo hirugarren erakundeei jakinarazteko eragiketak.

16. Informazioaren eta horri lotutako aktiboen gaineko kontrolak, dagokion inbentarioa egitearen, babes-erantzukizunak definitzearen eta horien jabeak sailkatzearen eta esleitzearen bidez.

17. Informazioaren edo segurtasun-betekizunen segurtasunari buruzko legezko, araugintzako, estatutuetako edo kontratuzko betebeharrak identifikatzea eta etengabe zaintzea. Segurtasun-betekizunetan sartzen dira jabetza intelektualeko eskubideak izan ditzaketenak eta patentatutako software-produktuen erabilera.

18. Segurtasuna ebaluatzeko urteko programa, informazio-sistemetan dauden segurtasun-akatsak aktiboki identifikatzeko.

F.3.3. Hirugarrenei azpikontratatutako jardueren gestioa gainbegiratzea helburu duten barne-kontroleko politikak eta prozedurak. Aditu independenteen esku utzitako ebaluazio, kalkulu edo balioztapenei dagokienez, finantzetako egoera-orrietan edonolako eragin materiala izan dezaketen alderdiak.

Caja Laboralak Zerbitzuak Eskuordetzeko Politika bat du, eta politika horren azken eguneratzea Kontseilu Errektoreak onetsi zuen 2021eko azaroaren 30ean.

Hirugarrenengan (bizi-zikloaren fase guztietan) eskuordetzen diren zerbitzu edo funtzioen esparru metodologikoa, kategorizaziorako printzipio eta irizpideen definizioa eta jarraitu beharreko prozedurak ezartzen ditu. Hartara, ordezkaritzari lotutako arriskuak (eragiketenak, ospearenak, informazioaren segurtasunarenak eta abar) egoki identifikatu, balioztatu, kontrolatu eta kudeatzen dira, eta neurri egokiak hartzen dira, haien eragina saihesteko edo arintzeko.

Hirugarrenen Gestioa atalaren esku dago jarduerak bizi-ziklo osoan eraginkortasunez koordinatzea eta hainbat area espezialistaren parte-hartzea bermatzea: Segurtasuna, Jarraitutasuna, Aholkularitza Juridikoa, Datu Pertsonalen Babesa...

Barne Ikuskaritza Departamentuak barne-kontroleko jarduerak egiten ditu, eta kanporatze-esparrua zuzen eta eraginkortasunez aplikatzen dela berrikusten du, politikan deskribatutakoarekin eta araudi aplikagarriarekin bat etorriz.

Aldian behin, hirugarrenek gauzatutako jarduerak aztertzen ditu entitateak, eta begiratzen du ea zein diren garrantzitsuak finantza-informazioa osatzeko prozesuan eta zeharka zeinek jar dezakeen horien fidagarritasuna kolokan. Orain arte, entitateak ez du kanpora atera finantza-informazioan eragin nabarmena duen prozesurik. Halere, entitateak aditu independenteen txostenetara jotzen du, finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezaketen jardunbideak balioztatzeko.

2021eko ekitaldian, hauek izan dira hirugarrenei emandako jarduerak, aditu independenteen balioztapen eta kalkuluekin lotuak: esleitutako higiezinen eta Caja Laboralaren kreditu-zorroko eragiketak bermatzeko higiezinen tasazioak eguneratzearen alorrekoak.

Entitateak kontrolak ditu ezarrita, tasazio-sozietateen jarduerari lotutako arriskuak arintzeko. Eragiketez arduratzen diren departamentuek gauzatzen dituzte kontrol-eginkizunok, eta baloratzaileen independentzia eta balioztapenen kalitatea bermatzea dute helburu. Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuak laguntzen dio, ezarritako prozeduren eraginkortasuna egiaztatzen.

## F.4. **Informazioa eta komunikazioa**

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, ea hauek gutxienez badauden:

F.4.1. Batetik, kontabilitate-politikak finkatzeko, eguneratzeko eta interpretazioen inguruan sortutako zalantzak edo auziak bideratzeko funtzioa (kontabilitate-politiken area edo departamentua), antolakundeko eragiketa-arduradunekin etengabeko harremanak izanez. Bestetik, kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratua, entitateak jarduteko erabiltzen dituen unitateek eskura izango dutena.

Finantzen Areak identifikatzen, finkatzen eta jakinarazten ditu entitateko eta sozietate filialetako kontabilitate-politikak, eta berak erantzuten die sozietate filialek eta entitatearen negozio-unitateek kontabilitate-gaiez egiten dizkioten galderei.

Entitateak darabilen kontabilitateko eskuliburuan, finantza-informazioa prestatzeko arauak daude zehaztuta eta azalduta, bai eta arau horiek entitatearen eragiketa zehatzetan (adibidez, sozietate filialetarako baterakuntza-paketeetan) aplikatzeko modua ere. Dokumentu horiek, transakzio-mota bakoitzean aplikatu beharreko arauak berariaz aipatzeaz gain, transakzio-mota bakoitzera egoki doitzeko nola interpretatu ere azaltzen dute.

Aldian behin eguneratzen dira dokumentuok, eta egindako aldaketa edo eguneratze garrantzitsuak dagozkien sozietateei jakinarazten zaizkie.

Baterakuntza-paketeak taldeko sozietate filial bakoitzak egin behar ditu, eta Finantzen Area arduratzen da partaidetzapeko sozietate horiek taldeak ezarritako kontabilitate-politikak betetzen dituzten gainbegiratzeaz. Finantzen Areak, filialen informazioa aztertu eta berrikusi ondoren, egoki deritzen zuzenketak egiten ditu.

Finantzetako egoera-orrietan eragina duen aldaketarik gertatzen bada finantza-informazioari buruzko araudietan, Finantzen Arearen ardura da kontabilitate-arauak berrikusi, aztertu eta eguneratzea. Era berean, area hori arduratuko da aldaketak eta eguneratzeak jakinarazteaz, hala entitateko negozio-unitateei nola filialei.

Hauek hartzen ditu barne entitateak eta bere taldeak aplikatzen duten kontabilitateko finantza-informazioaren esparruak: (I) Europar Batasunak onartutako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak eta (ii) Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularra.

F.4.2. Finantzetako egoera-orri nagusiei, oharrei eta FIBKSari buruzko finantza-informazioa formatu homogeneoen bidez eskuratzeko eta prestatzeko mekanismoak, entitateko edo taldeko unitate guztiek ezar eta erabil dezaten.

Finantza-informazioa egiaztatzeko datuak osoak, zehatzak eta egokiak direla eta garaiz eta forman jakinarazten direla bermatzeko kontrol-neurriak daude. Finantza-informazioa bateratu eta prestatzeko prozesua zentralizatuta dago, entitatetik.

Prozesuan zehar, sozietate filialek jakinarazitako finantzetako egoera-orriei buruzko baterakuntza-paketeak input gisa erabiltzen dira, ezarritako jarraibideen eta formatuen arabera, eta eskatutako gainerako finantza-informazioarekin beste horrenbeste egiten da, bai kontabilitateko harmonizazio-prozesuan, bai ezarrita dauden informazio-beharrak estaltzeko. Sozietate filialek emandako finantza-informazioa Finantzen Areak berrikusten du.

Finantzen Areak kontrol jakin batzuk egiten ditu, sozietate filialetatik eta negozio-unitateetatik jasotako finantza-informazioaren fidagarritasuna eta tratamendu egokia bermatzeko. Nabarmentzekoak dira baterakuntza-idazpenak egoki egin diren egiaztatzekoak, aurrekontuen gainean lortutako emaitzetan gertatutako aldaketen gainekoak eta Espainiako Bankuaren egoera-orrietan (balantzeko partidak eta emaitza-kontua lotzen dituztenetan) egindakoak.

## F.5. Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

F.5.1. Ikuskaritza Batzordeak FIBKSa gainbegiratzeko gauzatutako jarduerak eta ia entitateak barne-ikuskaritzako funtziorik baduen, besteak beste batzordeari laguntzeko barne-kontroleko sistema (FIBKSa barne) gainbegiratzen. Orobat, jakinaraziko da ekitaldian FIBKSari egindako ebaluazioak zer irismen duen, ebaluazioaren arduradunak zer prozedura erabiltzen duen emaitzak jakinarazteko, entitateak baduen neurri zuzentzaileak zehazten dituen ekintza-planik eta finantza-informazioan horien eragina aintzat hartu den.

Ikuskaritza Batzordeak, Barne-ikuskaritzako zerbitzuak gainbegiratzeaz gain, sozietatearen finantza-informazioa eta barne-kontroleko sistemak osatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzen du. Jarduera horiek Barne Ikuskaritzako Departamentuan eskuordetzen ditu.

Barne-ikuskaritzako funtzioa (BIFa) independentea da —entitatearen arriskuak gestionatu eta kontrolatzearen esparruaren hirugarren babes-lerroa—, eta, hierarkiari begira, LABORAL Kutxako Kontseilu Errektorearen lehendakariaren mende dago, eta, funtzionamenduari begira, Ikuskaritza Batzordearen mende.

Barne-ikuskaritzako funtzioaren xedea da barne-kontroleko, arriskuak (oraingoak eta berriak) kudeatzeko eta entitatearen gobernurako prozesu eta sistemen egokitasuna eta eraginkortasuna gainbegiratzea eta bermatzea.

Beste alde batetik, entitatearen Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodeak ezartzen duenez, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Barne Ikuskaritzako Departamenduaren ardura da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea.

Bere helburua lortzeko, Barne Ikuskaritzak berrikuspen programatuak egiten ditu, arriskuak kontrolatzeko ezarrita dauden sistemetan, barne-prozedura operatiboetan eta une bakoitzean aplikatzekoak diren barne- eta kanpo-araudien betetze-mailan.

Garrantzi berezikotzat jotako prozesuen berrikuspena urteko jarduketa-planean (FIBKSaren esparruan) sartzen du Barne Ikuskaritzako Departamentuak, guztiak hiru urteko epean berrikusita izateko helburuarekin. Garrantzi berezikotzat jotako zenbait arlo edo prozesu kanpo uzten ditu; besteak beste, kontabilitate-itxieraren prozedura, iritzi eta estimazioak berrikustea eta informazio-sistemen gaineko kontrol orokorrak, horiek urtean behin ebaluatzen baitira.

2021eko ekitaldian FIBKSari egin zaizkion berrikuspenean eta ebaluazioan honako hauek egin dira:

- Kontabilitate-itxieraren zeharkako prozesua berrikusi. Aldi berean, Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazio indibiduala eta bateratua prestatzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratu da.
- Zuzkidura eta pasibo kontingente garrantzitsuak kalkulatzeko erabilitako iritzi eta zenbatespenak berrikusi.
- Kontrol orokor informatikoen zeharkako prozesua berrikusi.
- Altxortegian eta Kapitalen Merkatuan onartzeko modukoak diren finantza-tresnen negozio-prozesua berrikusi.

Bestalde, jarraipena egin zaio aurreko ekitaldietan gauzatutako berrikuspenetan eman ziren hobekuntza-gomendioen ezarpenari.

2021ean egin den FIBKSaren berrikuspenaren eta ebaluazioaren emaitza Ikuskaritza Batzordeari aurkeztu dio, aldian behin, Barne Ikuskaritzako Departamentuko zuzendariak.

F.5.2. Eztabaida-prozedurarik badagoen eta prozedura horren bidez kontu-auditoreak (auditoretzako arau teknikoetan xedatutakoari jarraikiz), barne-auditoretzako funtzioak eta gainerako adituek baduten urteko kontuak berrikusteko prozesuetan edo unean uneko bestelako jardunbideetan zehar lortutako informazioa helarazterik goi-zuzendaritzari, Ikuskaritza Batzordeari edo entitateko administratzaileei. Jakinaraziko da, halaber, ekintza-planik ote dagoen, behatutako ahultasunak zuzentzeko edo arintzeko.

Ikuskaritza Batzordea ekitaldi bakoitzean birritan biltzen da, gutxienez, kanpo-auditorearekin.

- Behin, urteko auditoretzarako behin-behineko bisitaren ondoriozko atariko lana bukatzen denean; kanpo-auditoreak ondorioen berri ematen du bertan.
- Beste behin, urteko kontuen formulazioari ekin baino lehen. Bertan, egindako auditoretzaren azken ondorioak aurkezten ditu kanpo-auditoreak.

Kontu-auditoreak zuzeneko sarbidea du goi-zuzendaritzan eta barne-ikuskaritzako zuzendaritzan, eta horiekin bilerak egiten ditu, aldian behin, lanerako beharrezko informazioa lortzeko eta antzemandako ahuleziak lantzeko.

Kanpo-auditoreak barne-kontrolari eta kontabilitateko prozedura administratiboei buruz osatutako memoranduma, barne-kontroleko sistemaren eta horiei lotutako arriskuen gainean hobekuntza-iradokizunak jasotzen dituena, Zuzendaritza Kontseiluari eta Ikuskaritza Batzordeari aurkezten zaie, eta, ondoren, entitatearen Kontseilu Errektorearen esanetara jartzen da. Agiri horretan, gomendio bakoitzari Zuzendaritza Nagusiak egindako iruzkinak ere jasotzen dira, bai eta, dagokionean, ahuleziak konpontzeko erabilitako ekintza-planak edo neurriak ere.

Amaitzeko, kanpo-auditoreak emandako gomendioen garrantziaren arabera, hartutako neurrien jarraipena egiteko lanak ere jasotzen ditu urteko auditoretza-planak.

Barne Ikuskaritzak egindako lanen emaitzari dagokionez, departamentuko zuzendariak Ikuskaritza Batzordeari eta, garrantziaren arabera, Zuzendaritza Kontseiluari aurkezten dizkie txostenak, ikuskatutako arearekin kontrastea egin ostean. Gainera, barne-ikuskaritzako funtzioak (BIFak) emandako gomendioei erantzuteko onartu ziren ekintza-planen ezarpen-mailaren jarraipena egiten du. Zehazki, ikuskatutako areekin edo unitateekin adostutako gomendioen eta ekintza-planen egoeraren jarraipena egiten du BIFaren arduradunak. Bereziki, erabat ezarri arte etengabeko jarraipena egiten da, berehalako neurriak hartzea eskatzen duten garrantzi handiko aurkikuntzen gainean. Garrantzi ertaineko aurkikuntzei hiru hilean behin egingo zaie jarraipena, eta, garrantzi txikiko aurkikuntzei, sei hilean behin.

Ikuskaritza Departamentuko zuzendariak garrantzi handiko eta ertaineko aurkikuntzei buruzko gomendioen egoeraren berri ematen dio Ikuskaritza Batzordeari, asko jota sei hilean behin.

Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren zuzendaritzak eskatuta, Ikuskaritza Batzordea hiru hilabeterik behin biltzen da, gutxienez, bere erantzukizunetako bat betetzeko, alegia: zuzendaritzaren lan nagusiei buruzko xehetasunak jasotzeko.

## F.6. **Bestelako informazio garrantzitsua**

-

### F.7. **Kanpo-auditorearen txostena**

Azalduko du:

F.7.1. Merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-auditoreak gainbegiratu duen. Hala bada, entitateak haren txostena aurkeztuko du eranskin gisa. Bestela, arrazoien berri eman beharko du.

Entitateak ez du beharrezkotzat jo merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-auditoreek gainbegiratzea.

## G. BESTE ARGIBIDE INTERESGARRI BATZUK

Entitatean edo taldeko sozietateetan gobernu korporatiboaren gaineko alderdi nabarmenen bat badago txosten honen gainerako ataletan jaso ez dena eta sartzea komeni dena informazio osatuagoa eta arrazoituagoa izateko entitatearen edo beraren taldearen gobernuaren egiturari edo jardunbideari buruz, azal ezazu labur-labur.

Atal honetan sartu ahal izango da, halaber, txostenaren gainerako atalekin zerikusia duen beste edozein informazio, argibide edo ñabardura, garrantzitsua bada eta errepikakorra izan ezean.

Zehazki, adieraziko da entitatea Espainiakoaz bestelako legeria baten mende dagoen gobernu korporatiboari dagokionez, eta, dagokionean, eman beharrekoa den eta txosten honetan galdatzen denaz bestelakoa den informazioa ere sartu beharko da.

Entitateak jakinarazi ahal izango du, halaber, bere borondatez printzipio etikoen edo jardunbide egokien alorreko nazioarteko, sektorekako edo beste arlo bateko bestelako kodeei atxiki zaien. Hala bada, kode horren eta atxikitze-dataren berri emango du entitateak.

1.- Informazio honek A. Jabetzaren egitura atala osatzen du:

Caja Laboraleko bazkide diren kooperatiba eta horien merkataritza-sozietate gehienak Mondragón Corporación Cooperativaren parte ere badira. Caja Laborala ere partaide duen korporazio hori askatasunez elkartutako kooperatiben elkartea da. Kooperatibok lankidetza-balioak partekatzen dituzte eta elkarrekin jardunez lehiarako abantailak lortzea dute helburu.

2.- Informazio honek C.1.6 Kontseilarien ordainsariak atala osatzen du:

Kontseilari lan-bazkideek ez dute ordainsaririk jasotzen Kontseilu Errektoreko kide izateagatik, entitateko langile diren aldetik gauzatzen duten jardunagatik jasotakoaz gain. Kontseilu Errektoreko gainerako kideek ere ez dute inolako ordainsaririk jaso kontseilari izateagatik.

Caja Laboralak konpentsatu egiten du lehendakariaren lana; hau da, zehaztutako prozeduren bitartez, ordaindu egiten dio, kreditu-erakundeentzat zehaztutako araudiaren esparruan Caja Laboralean ezarrita dauden ordainsariei buruzko irizpideak aplikatuz.

---

Gobernu Korporatiboaren Urteko Txosten hau entitateko administrazio-kontseiluaren batzarrak onetsi du, data honetan:

2022-02-28

Adieraz ezazu zein kontseilarik edo administrazio-organoko kidek eman duen aurkako botoa edo abstentzioa, txosten hau onestearen gainean.

Txosten hau aho batez onetsi da.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO ETA HAREN MENDEKO SOZIETATEAK

## URTEKO KONTU BATERATUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUA, 2021EKO EKITALDIKOAK

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko kideek adierazi dute, batetik, urteko kontu bateratu hauek egiteko kontabilitate-printzipio aplikagarriak erabili direla eta zehaztasunez erakusten dutela Entitate Nagusiaren eta beraren mendeko sozietateen ondare bateratuaren, finantza-egoera bateratuaren eta emaitza bateratuen irudia, eta, bestetik, honekin batera doan kudeaketa-txostenak zorrozki aztertzen duela Taldeak 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian izan dituen bilakaera eta emaitzak.

Ondorioz, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko (Entitate Nagusiko) Kontseilu Errektoreko kideek 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion kudeaketa-txosten bateratua eta urteko kontu bateratuak formulatu dituzte, 2022ko otsailaren 28an. Urteko kontu bateratuetan honako hauek sartzen dira: 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko txosten bateratua, balantze bateratua, galdu-irabazien kontu bateratua, aintzatetsitako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratua, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orri bateratua eta eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua. Ados daudela erakusteko, guztiek orri hau sinatu dute, eta Kontseilu Errektoreko idazkariak dokumentu horietako orri guztietan sinatu du, identifikatu ahal izateko.

| | | |
|---|---|---|
| Txomin García Hernández jauna<br>(Lehendakaria) | Luis M. Ugarte Azpiri jauna<br>(Lehendakariordea) | Ricardo Pérez Aguado jauna<br>(Idazkaria) |
| Elena Zárraga Bilbao andrea<br>(Kidea) | Ainhoa Gallastegui Martínez andrea<br>(Kidea) | Xabier Sagarna Arrizabalaga jauna<br>(Kidea) |
| Iñigo López-Cano Fernández de Betoño jauna<br>(Kidea) | Nagore Larrabeiti Libano andrea<br>(Kidea) | María Esther Korta Errazkin andrea<br>(Kidea) |
| Pablo Luis Bringas Vélez jauna (*)<br>(Kidea) | Itziar Elgarresta Ibarrondo andrea<br>(Kidea) | María Laura Rodríguez González andrea<br>(Kidea) |
| Edorta Gil Sagarduy jauna<br>(Kidea) | Aitor Soria Alonso jauna (**)<br>(Kidea) | Beatriz Mauleón Sainz de Vicuña andrea<br>(Kidea) |

(*) *Pablo Luis Bringas Vélez jaunak ez ditu 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak sinatu, Kontseilu Errektorea egin zen egunean laneko bajan zegoelako, medikuak agindutako aldi baterako ezintasunagatik.*

(**) *Aitor Soria Alonso jaunak ez ditu 2021eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak sinatu, Kontseilu Errektorea egin zen egunean laneko bidaia batean zegoelako.*